


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

FILOSOFIA SAILA

DOKTOREGO-TESIA

**MODERNITATEAREN AUZIA TXILLARDEGIREN *LETURIAREN*
EGUNKARI EZKUTUA ELEBERRIAN. EXISTENTZIALISMOA
EUSKAL HERRIAN 1957-1975**

MAIDER ETXANIZ IRIONDO

ZUZENDARIAK: JOXE AZURMENDI OTAEGI
ESTEBAN ANTXUSTEGI IGARTUA

2015. URTEA

Gizon-begi-goritu,
gizon-leru-zale,
gizon-grin-en-katigu,
gizon-minez-bete...
Gizon...!
Zeurekin noa
mugako porturantz,
gauzak argi dagozan
erri eskaturantz.

GANDIAGA-TAR B. A

ESKER ONAK

Lan hau hasi nuenetik modu batean edo bestean lagundu nauzuen guztioi eskerrak emateko momentua da. Hori dela eta, lerro hauen bitartez eskerrak eman nahi dizkiet ondorengo pertsoniei:

Hasteko, tesi zuzendari izan ditudan Joxe Azurmendiri eta Esteban Antxustegiri, eta Filosofia Saileko idazkaria den Inma Obesori. Sarrera osoa ez litzateke aski beraiei zor diedana azaltzeko. Eskerrik asko, izan duzue pazientziagatik eta eskuzabaltasunagatik.

Etxekoei: alde batetik, Nire gurasoei, Jexux Mari eta Teresitari; eta beste aldetik, osaba Albertori. Nigan konfiantza osoa izan duzuelako beti. Hau zuentzat.

Iriondo familiar, osaba-izebei eta lehengusuei, esker anitz emandako animoengatik.

Askok zor diet, halaber, Koldo Mitxelena Kulturuneko eta Espainiako Liburutegi Nazionaleko langileei. Egunero-egunero hainbat urtez adeitsuki hartu nauzuelako.

Gaiarekiko interesa erakutsi eta laguntza eskaini dizazuenei ere eskerrak. Era guztietako dokumentuak erraztu ez ezik, neurez ezagutuko ez nituzkeen hainbat datu, albiste eta ideia eskaini dizkidazute, atsedean tartetean izandako kafe-solas lagunkoiak ahantzi gabe noski.

Horretaz gain, eskerra eman nahi dizkizuet eguneroko joan-etorrian nere ondoan egon zaretei. Zertan ari nintzen erabat asmatu ezinda ere nire poz eta tristurak ondo asko ulertu dituzuelako.

Eta amaitzeko, Jorgeri. Tesi honek emandako burukominak sufritu behar izan dituzun arren, beti animatu nauzulako. Eskerrik asko, hor egoteagatik.

Horrenbestez, oro har, proiektu hau aurrera ateratzen lagundu duzuen guztioi;

Milesker bihotzez

aurkibidea

TAULA KRONOLOGIKOA	27
HITZAURREA	35
SARRERA	43

1.go ZATIA

LETURIAREN EGUNKARI EZKUTUA-REN EKARPENAK EUSKAL ELEBERRIGINTZA MODERNOAN

1 LETURIAREN EGUNKARI EZKUTUA (1957)	53
1.1 Koldo Mitxelenaren enkargua	53
1.2 Eleberriaren laburpena	59
1.3 Nobela intelektuala	59
1.4 Egunkari forman idatzia eta lehen pertsonaren erabilpena	60
1.5 Joseba Leturia lehen Euskal heroia gatazkatsua	63
1.5.1 Lehen Euskal heroia gatazkatsua	63
1.5.2 Zalantzan harrapatutako pertsonaia.....	64
1.5.3 Pertsonaia kaletarra.....	65
1.6 <i>Leturiaren egunkari ezkutua</i> sortutako kritikak eta eztabaidak	66
1.6.1. Hausturaren finkatze prozesua	66
1.6.2. Txillardegiren aldekoak	69
1.6.3. Txillardegiren aurka	73
1.7 <i>Leturiaren egunkari ezkutua</i> eta Modernitatea euskal eleberrigintzan	83
1.7.1. Modernitatea euskal eleberrigintzan	83
1.7.2. <i>Leturiaren egunkari ezkutua</i> “lehenengo euskal eleberri moderno” izendatzerako orduan eman diren hiru fase ezberdinak.	84
1.7.3 <i>Leturiaren egunkari ezkutua</i> ren ekarpenak Euskal eleberrigintza modernoan (diagrama).....	94

2. ZATIA: EXISTENTZIALISMOAREN DEFINIZIOA ETA JATORRIA

SØREN KIERKEGAARD (1813-1855)

MIGUEL DE UNAMUNO (1864-1936)

2. ZER DA EXISTENTZIALISMOA?	101
3. SØREN KIERKEGAARD	113
3.1. SARRERA	113
3.2. HEGELIAR FILOSOFIA TEORIKOA	119
3.2.1. Hegel eta hegeliar filosofia.	120
3.2.1.1. filosofia espekulatiboa edo gogoetatsua	120
3.2.1.2. Filosofia arrazionala	122
3.2.1.3. Filosofia abstraktua	126
3.2.2. Daniar erlijio hegeliarra.....	129
3.2.2.1. Erlijio espekulatiboa	130
3.2.2.2. Erlijio arrazionala	132
3.2.2.3. Erlijio abstraktua	134
3.3. KIERKEGAARDEN FILOSOFIA PRAKTIKOA	136
3.3.1. Filosofia praktikoaren edukia: hiru bizimoduen lanketa	137
3.3.1.1. Abiapuntua: giza izaera	138
3.3.1.1.1. Gorputza	140
3.3.1.1.2. Arima	141
3.3.1.2. <i>Bizimodu estetikoa</i>	146
3.3.1.2.1. Esteta atseginzalea	149
3.3.1.2.2. Esteta ameslaria	150
3.3.1.2.3. Esteta intelektuala	152
3.3.1.2.4. Bizitza estetikoaren ondorio negatiboak	154
3.3.1.3. Bizimodu etikoa	157
3.3.1.3.1. Hautu etikoa	157
3.3.1.3.2. Betebarra	160
3.3.1.3.3. Formalismo etikoa: intentzioaren eta pasioaren garrantzia	165

4.4 BIZITZAREN PROBLEMATIKA	212
4.4.1. Bizitzaren gaia Unamunoren lanetan.	212
4.4.1.1. Bizitzaren lehentasun filosofikoa.	213
4.4.1.2. Barnekotasuna eta kanpokotasuna. “Nire bizitza” eta mundua.....	214
4.4.1.3. Bizitzaren atzematea metaforaren bidez	216
4.4.1.3.1. Bizitza eta ametsa	216
4.4.1.3.2. Bizitza eta eleberria	220
4.4.1.3.3. Bizitza eta antzerkia.	221
4.4.1.3.4. Agonia tragikoa.	225
4.4.1.3.5. Bizitza, jaiotzaren eta heriotzaren artean	228
4.4.1.3.6. “Benetako bizitza” edota “ bizitza autentikoa” eta “benetakoa ez den bizitza” edota “bizitza “inautetikoa”	229
4.5 HERIOTZAREN INGURUKO GOGOETAK	232
4.5.1. Bizitzaren eta heriotzaren arteko erlazioa	232
4.5.2. Heriotzaren inguruko gogoetak. “Meditatio mortis”.....	233
4.5.3.- Heriotzaren imajinaziozko aurreratzea	235
4.5.4. “kontingentzia” eta “finitutasuna”	236
4.5.5. “Ezereza” eta “larritasuna”	238
4.4.6. Heriotza gainditze nahia	241
4.6.1. Seme-alabak eta heriotzaren gainditzea	243
4.6.2. Iraunkortasuna besteen oroitzapenean	244
4.6.3. Hilezkortasun kolektiboa.....	245
4.6.4. Kristautasunaren banakako hilezkortasuna	247

3. ZATIA

KIERKEGAARDEN ETA UNAMUNOREN ERAGINA LETURIAREN EGUNKARI EZKUTUAN

5. KIERKEGAARDEN ETA UNAMUNOREN ERAGINA LETURIAREN EGUNKARI EZKUTUAN	255
5.1. UNAMUNO ERAGILE	255
5.1.1. <i>Unamuno eragille</i> (1957)	255
5.1.2. <i>Levi Strauss-ek Unamuno-rengana</i> (1965)	262
5.1.3. <i>Unamuno ala Jammes?</i> (1966)	268
5.2. KIERKEGAARDEN ERAGINA TXILLARDEGIRENGAN	271
5.2.1. "Kierkegaard-en hazia Unamuno-gan lore"	271
5.2.2. Kierkegaarden eragina <i>Leturiaren egunkari ezkutuan</i>	274
5.2.2.1. <i>Bizimodu estetikoa</i>	276
5.2.2.1.1. Estetaren lehenengo fasea: Mirenen idealizazioa eta konkistaren hasiera	284
5.2.2.1.2. Estetaren bigarren fasea: gerturatze fisikoa, Mirenen gorpuztasunarekiko higuina eta <i>bizimodu etikorako</i> jauzia	289
5.2.2.2. Ezkontza: Estetikaren irautea etikaren baitan	291
5.2.2.3. Udazkena: Udaberriaren -hau da, gizaki estetikoaren- birgogoeta autokritikoa	295
5.2.2.3.1. Ezkontza ugalketarekin identifikatu	295
5.2.2.3.2. Ezkontza hautu bat izan behar du, ez inposatze bat	297
5.2.2.3.3. Zorigaitzaren jatorria Miren idealizatzea	298
5.2.2.4. Negu: Jainko egarria da gizonaren zorion-mina	302
5.2.2.4.1. Leturiaren erlijioaren ideia	304
5.2.2.4.1.1. Unamunoren eragina Leturiaren Jainkoaren eta erlijioaren ikuskeran.....	304
5.2.2.4.1.2. Leturia agnostiko	311
5.3 ON KIXOTE ETA ABRAHAM "FEDEAREN ZALDUNAK".....	314

4. ZATIA

MODERNITATEAREN AUZIA TXILLARDEGIRENGAN

6. MODERNITATEA	323
6.1. Existenziaren filosofiaren sorrera	327
6.1.1. Zientziaren dogmatismoaren porrota	330
6.1.2. Erljioaren dogmaren haustura	331
6.1.2.1. Erljio modernoaren objektu materiala	336
6.1.2.2. Erljioaren objektu tradizionalaren uko filosofikoa	337
6.1.2.3. Erljioaren gizatiartzearen abiagunea Erreforma protestantea	338
6.1.2.3.1. Gizakiaren berezko izaeraren baitan “graziaren” galtze edo hondatze esentziala	341
6.1.2.3.1.1. korrante arrazionalista	346
6.1.2.3.1.2. Immanentismoaren baieztapena. Indibidualismoaren filosofia ...	348
6.1.2.3.1.2.1. Indibidualismoaren forma ezberdinak	348
a) indibidualismo dogmatikoa.	
b) Indibidualismo mistikoa.	
c) Indibidualismo morala edota pietista	
6.1.3. Txillardegi zientifismoaren eta Arrazionalitatearen kritikari	351
6.1.4. Txillardegi kristau katolizismoaren dogmatismoaren etsai	362
6.1.5. Agnostizismotik gizaki konprometitura	368
6.1.6. Alienazioaren aurrean gizakiaren askatasunaren berreskuratzea	370
6.1.6.1. Askatasuna eta ekintza	371
6.1.6.2. Askatasunaren inplikazioak	372
6.1.6.2.1. <i>Erantzukizuna</i>	373
6.1.6.2.2. <i>Angustia edota larritasuna</i>	373
6.1.6.2.3. <i>Fede txarra</i>	374
6.1.6.2.4. <i>Benetakotasuna</i>	374
6.1.6.3. Gizaki konprometitua	375
6.1.6.4. Humanismo existenzialista	376
6.1.6.5. Sartrearen askatasunaren ideien jatorria	378

ONDORIOAK	383
ERANSKINAK	405
BIBLIOGRAFIA	429

TAULA KRONOLOGIKOA

1929an Donostian jaioa.

1946an Karlos Santamariak zuzentzen zuen C.E.S. delakoan matrikulatu. Bertan, Karlos Santamariak munduko pertsonalitate katoliko ezagunak ekarri zituen, hala nola, Maritain. Karlos Santamariak Pax Christi erakundea abiatu zuen eta frantses Estatuan zehar antolatu ziren Bakearen aldeko Ibilaldietara gazte jendea eramaten zuen. Santamariaren bidez Gandismoa edo bake-bidezko borroka ezagutu zuen Txillardegik, Jean Goss-en lanak adibidez.

-Valladoliden gainditu “Revalida”

1947an gaixotu, ama informatzailatzat harturik euskal “gramatika partikularra” osatzen hasi.

1948 edo 1949ko udan Vallejo hizkuntzalariak iberikoari buruz eskaini zuen hitzaldian Koldo Mitxelena eta Julio Urquijo ezagutu zituen.

-Jon Etxaide eta Elbira Zipritia euskal irakasleak ezagutu.

-Iñaki Gaintzarain eta Iñaki Zubimendiren eskutik isilpeko mundu abertzalea sumatzen hasi, PNV-ren inguruko mundua.

- Udazkenean, Zumalakarregi 9an aitaren bulegoaren ondoan lokal hutsaren giltzak lortu eta klub bat antolatu zuten Eup-Pelixier izenekoa, beste gauza askoren artean euskara ikasteko. Artean *Erne* aldizkaria argitaratu.

1949an, Bilbora joan aurretik, bi euskara irakasle izan zituen: Iñaki Zubimendi eta Iñaki Zumeta.

-Udazkenean ingeniari ikaslea Bilbon (bigarren ingresu saialdian).

-1949ko azaroan, Jon Etxaidek Txillardegi Federiko Krutwig-engana bidali.

-Azkue ere garai hartan ezagutu

-San Antongo taldearekin jarri harremanetan. Aita Klaudio Gallastegiren inguruan elkartzen ziren. Han ezagutu Uzkatarrak, Saituatarrak, Solaundarrak, Angulotarrak, Gereñotarrak, Txipartak antzerki-taldea eta abar.

1950ean Jon Arenaza ezagutu eta hari tarjeta bat eman. Arenaza beste lagun talde batetik trenez Bilbotik Donostiara joan eta Amarara iristean atxilotuak izan ziren eta Txillardegiren tarjeta agertu zen. Hurrengo egunean Txillardegi Okendora deklaratzera joan beharra izan zuen.

- uztailaren 4an Okendo kaleko ziegan kartzelatua “*Jagi-jagi*”ko kide zenaren akusaziopean.

-Abuztuaren 4ean kalera.

1951an, Euskaltzaindiaren ate aurrean, Azkue ibaira begira zegoela, Nerbioi zikinera erori, eta ito (edo pozoindu egin zen).

-Luis Arana Goiri hil. Eztabaida luze baten ondoren, fitxatuak zeudenez gero, bere hileta-elizkizunetara ez joatea erabaki zuten.

1951-1952 .

- Garai hartan Unamuno, Kierkegaard, Jaspers, Heidegger, Sciacca, Sartre, Camus eta Marcel irakurtzen hasi. Euskal foruak xehe-xehe eta herrialdez-herrialde, euskal kondairak, liburu abertzale zaharrak, Arturo Campion, Carmelo Echegray, Hemilio Oloriz eta Juan Iturralde y suit ere irakurgai.

1952an hamaika bileretan parte hartu.

1952-1953 ikastaroa hasterakoan organizazio ezkutua bat sortzeko beharra. Benito del Valle, Agirre, Madariaga, Irigoien eta Txillardegik osatu zuten. EKIN-en sorrera (Ekin taldeari ez zioten inoiz izenik jarri baina *Ekin* izeneko buletina ematen zuten argitara eta izen horrekin ezagutzen zituzten). Lehen aipatu ditugunen artean batzuk bakarrik sartu ziren.

1954ko urte bukaera aldera Orixe Ameriketatik itzuli.

- Aljeriako Independentzia Gerra (1954ko azaroaren 1a - 1962ko martxoaren 19a) .

1955 OARGUI-k antolatutako literatur lehiaketan irabazle *Kierkegaard-en hazia Unamono-gan lore* zeritzon lan.

1956an EGAN-en argitaratzen hasi. Alphonse Daudet-en Aita Gaucher-en mixtela ipuin laburraren euskarazko itzulpena.

- Budha-ri buruzko artikulua luze bat idatzi: *Mendeurre oargarri bat* (1956-5/6; 94/99, orr.). Budista xamarra zen Txillardegi *Peru Leartzako* (1960) nobelan ikusi daiteken bezala. Ferrolen, alferez zela, laguntasun handia egin zuen López Encinas izeneko ingeniari erdi-budista batekin (ez zen Krutwig bakarra). Horrela bada, bidenabar esateko Txillardegirentzat budismoarena ez da moda-kontua izan.
- *Ez bata ez beste: euskeraren auziari buruz* lana argitara eman.
-soldaduskako azkeneko sei hilabeteak amaitzear zegoela, Arantzazura zoritxarrez ezin azaldurik, txosten bat bidali zuen Alfontso Irigoien bidez.

1957ko martxoaren 28an, lehenengo aldiz hitzaldi bat euskaraz eman zuen: *Unamuno erabille* izenburupean.

- *Orangutanen ugartea* sinbolismo filosofikoan duen ipuin adierazgarria argitara eman.
- -1957ko abenduaren 22an Leitzaranen Orixe euskaltzain oso hautaturik, Sarrera Hitzaldia aditzera joan.
- *Leturiaren egunkari ezkutua* argitaratu baina 1956an barrena Ferrolen alferez zegoela idatzi. 1957ko udaberrian Koldo Mitxelenak hitzaurrea prestatu.
- Euskarazko mintegiak ematen hasi Diputazioan. Ordurako euskaltzain "urgazlea".
- Ingeniari ikasketak bukatu.
- 1957ko uztailean Jonerekin ezkondu.

- 1957ko irailaren 26an, Jon Etxaide, Gabriel Aresti eta beste zenbait euskaltzalerekin batera “Euskaltzain Urgazle” izendatu.

1958an (Egan 1 / 2; 43/47) astronomiari buruzko artikulu filosofiko eta luzexka argitara eman: *Betikoaz agian*.

- 1958ko bukaeran ETA sortu.

1960an, *Peru Leartzako* argitara eman.

- bigarren aldiz kartzela joan baino lehen Albert Camus-i buruzko artikulu bat argitaratu: *Lekuko bikain bat hil da*.
- 1960ko abuztuaren 17an atxilotua. Guardia zibilak, beste gauza askoren artean, Euskaltzaindiaren Laguntzaileak erakunde berrirako proposamenak begiratu eta bere sinadurak antzeman zituzten.

1961 urtea kartzelatik atera eta atzerriratzea hasi.

- Parisera iritsi.
- Aurretik iparraldean geratzen saiatu Aita Xarritonen laguntzari esker baina azkenean lana Parisen bilatu.
- Ekainean Ekin taldekoak erori eta ahal izan zutenak iparraldera joan ziren. Hauen artean Jose Mari Benito del Valle, Madariaga, Larramendi, Albisu, Lapiur eta abar.
- Sorbonako Unibertsitatean filologia ikasketak hasi.
- 1961eko urriaren 6an, Singer kalean (Parise XVI) Jaurlaritzaren egoitzan, Agirrerren Gobernuaren sorrera-egunaren XXV. urteurrenean, ETAREN izenean hitzaldia eman zuen Txillardegik.

1962ko uztailan Parisetik Hazparnera.

- Baionan Euskal Idazkaritza Elkartea sortu Cordeliers karrikan.

1963an Euskaltzaindian dimisioa eskatu baina Jose Maria Lojendiok ez zuen onartu.

- apirilaren 15an Enbata sortu.

1964. Baionako biltzarra.

1965an Antwerpen-era joan zen Txillardegi eta lana Bruselan bilatu. Bruselan geratzea erabaki. (1965-1970)

ETA-ren izenean lau txosten idatzi:

- 1965eko azaroaren 26koa
- 1965eko abenduaren 19koa
- 1966ko martxoaren 6koa
- 1966ko martxoaren 19koa.

1967an ETAREN V. Biltzarraren ondoren ETAtik ateratzea erabaki.

1968ko maiatzean *1968ko maiatza* bezala ezagutu zen Frantzian gertatutako protesta-mugimendua.

- Gertakari hauetaz gain, *Pragako Udaberria*, 1968ko urtarriletik abuztura Txekoslovakia astindu zuen iraultza izan zen. Erreforma politikoak eta liberalizazioa zituen helburu, Bigarren Mundu Gerraren ostean, Sobietar

Batasunaren agintea gainetik kendu nahian, Alexander Dubček eslovakiar agintariak gidatuta. Zehazki, prentsa askatasuna, adierazpen askatasuna eta mugitzeko edo bidaiatzeko askatasuna aldarrikatu zituzten.

-Garai honetan Russell-en eta Sartre-ren (politikoa) lanak irakurgai nagusienak.

Sartre politikoa 1961an Parisera joan zenean hasi irakurtzen.

-Bruselako egonaldian estrukturalismoa eta Freud irakurtzen zituen Txillardegik.

1969 · *Elsa Scheelen* argitaratu.

1970 Bordeleko Unibertsitatean irakasle lanetan hasi.

- maiatzaren 9an, Txillardegiren aurkako espulstio agindua iritsi (Telesforo Monzonekin batera)

- abenduaren 3an Burgosko epaiketa hasi.

1971ko azaroan iparraldera itzuli eta Hendaian kokatu.

Telesfororekin Nogaron bizi. Garai hartan, J.M. Benoist-en lanak irakurtzen zituen Txillardegik.

Claude Roy, Claude Bourdet, Pierre Daix, Domenach, Cornelius Castoriadis, Albert Memmi, Raymond Aron eta Fejtő pentsalariak ere atsegin zituen garai hartan.

1975 Francoren heriotza.

1977an Hegoaldera itzuli.

GEHIEN KOLTSUTATU DITUDAN ITURBURUEN LABURDUREN ZERRENDA

EHPG: *Euskal Herriko pentsamenduaren gida*

LEE: J.L. Alvarez Enparantza (Txillardegi). *Leturia-ren egunkari ezkutua.*

HH: *Hitza hitz: Txillardegirekin solasean*

LEEEENT: *Leturiaren egunkari ezkutua eleberriaren ekarpena XX. mendeko euskal narratibaren testuinguruan*

EEH: Olaziregi. *Euskal eleberriaren historia : Santiago Onaindia ikerketa beka 1999*

EHH: Txillardegi. *Euskal Herria Helburu.*

TCNE: *Teoría y crítica de la novela existencialista.*

IAE: MOUNIER, Emmanuel. *Introducción a los existencialismos.*

S.T.V: Unamuno, Miguel de. *Del sentimiento trágico de la vida.*

Kierkegaard-en pentsamendua garatzerako orduan erabili ditugun aipamen gehienak Jaime Franco Barrio-ren lanetik hartuk dira. Hona hemen zer dioten berak erabilitako laburdurei buruz:

Siglas para citar los escritos de Kierkegaard

Las siglas de las citas corresponden a los siguientes escritos, integrados en la primera edición danesa de las Obras Completas de S. KERKEGAARD (Soren Kierkegaards Samlede Vaerker. Udgivne al A.B. Drachmann, J.L Heiberg og H.O. Lange. Kjøbenhavn. Gyldendaslske. Boghandels Forlag (F. Hegel & Søn), 1901-6, 14 Binde):

EE-I *Enten-Elle*, 1. Del. 1901, I Bind, 420 pp. *O lo uno o lo otro [Texto impreso] : un fragmento de vida I*

EE-II *Enten-Elle*, 2. Del. 1901, II. Bind, 326 pp. *O lo uno o lo otro [Texto impreso]: un fragmento de vida II*

FB Frygt of Baeven. 1901,III. Bind, PP. 53-168. *Temor y temblor.*

GT Gjentagelsen. 1901, III. Bind, pp. 169-264. *La repetición*

PhS Philosophiske Smuler. 1902, IV. Bind,pp. 171-272. *Migajas filosóficas o un poco de filosofía*

BA Begrebet Angest. 1902, IV. Bind, pp. 273-429. *El concepto de la angustia : una sencilla investigación psicológica orientada hacia el problema dogmático del pecado original*

SLV Stadier paa Livets Vej. 1902, IV. Bind. 467pp. *Las etapas de la vida del camino*

Eft Afsluttende uvidenskabeling Efterskrift. 1902, VII. Bind, 561 pp. *Post scriptum [Texto impreso] : no científico y definitivo a "Migajas filosóficas"*

LA En literair Anmeldelse. 1903, VIII. Bind, pp. 1-106.

OTfA Opbyggelige Taler i forskjellig Aand. 1903, VIII. Bind, pp. 107-416. *Discursos edificantes.*

KG Kjerlighedens Gjerninger. 1903, IX. Bind, 372 pp. *Las obras del amor: meditaciones cristianas en forma de discursos*

ChrT Christelige Taler. 1904, X. Bind, pp. 1-317. *Discursos cristianos*

LF Lilien paa Marken og Fuglen under Himlen. 1905, XI. Bind, pp. 1-46. *Los lirios del campo y las aves del cielo*

SD. Sygdommen til DØden. 1905, XII. Bind, pp.111-241. *La enfermedad mortal o De la desesperación y el pecados*

IChr IndØvelse i Christendom. 1905, XII. Bind, pp. 1-239. *Ejercitación del cristianismo.*

SlvP Til selvprØvelse Samtiden anbefalet. 1905, XII. Bind, pp. 291-370.

Dslv Dømmer selv! Til selvprØvelse Samtiden anbefalet. 1905, XII. Bind,pp. 371-481
Para un examen de sí mismo recomendado a este tiempo

BI Om Begrebet Ironi. 1906, XIII. Bind,pp. 93-393. *Sobre el concepto de la ironía.*

FV om min Forfatter-Virksomhed. 1906, XIII. Bind,pp. 487-506. *Mi punto de vista.*

SFV Synspunktet for min Forfatter-Virksomhed. 1906, XIII. Bind,pp. 511-612.

BIAr Bladartikler 1854-55. 1906, XIV. Bind,pp. 5-364.

Otros escritos de SØREN KIERKEGAARD no integrados en la edición anteriormente mencionada, y sus correspondientes siglas.

Brf Briefe, en Gesammelte Werke. Gütersloh, Gütersloher Verlaghaus Mhon, 1985, 279pp. Unter Mitarb. Von Rose Hirsch angew., neugeordnet u. Aus d. Dän. Ubres. Von Emanuel Hirsch.

Di Diario. Brescia, Morcelliana, 1980-1983, 12 volumi. Acura di C. Fabro. Terza edizione riveduta e aumentata.

Las citas de los escritos de S. Kierkegaard se harán de acuerdo con las siglas que hemos señalado, seguidas de cifras arábigas, que indican la páginas. En cambio, el *Diario* respetamos el modo internacional usual de citarlo según la edición danesa del mismo: después de la sigla Di ponemos un número romano (a veces con exponente en números arábigos), una letra mayúscula y una cifra arábica.

Muchos de los términos, expresiones y textos originales que transcribimos son traducción de Dementrio G. Rivero, G Correa, A. Marot, J. Castro, A. Canclini y J. M. Velloso.¹

¹ Franco Barrio, Jaime. *Kierkegaard frente al hegelianismo*. Universidad de Valladolid, Valladolid: 1996. Kierkegaarden lanen izenburuen itzulpenak gero gehituak izan dira (Ez dira argitara ematen Jaime Franco-ren lan honetan).

HITZAURREA

Orain aurkeztuko dudana Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutuari* eskainitako urteetako lanaldia da. Baina zergatik Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua* eta ez beste autore edo gai bat?

Oraindik lizentzia ateratzen ari nintzela Sartre-ren *existentzialismoa humanismo bat* lanarekin topo egin nuen. Niretzat une hori erabakigarria izan zen, batik bat, hainbat ideien artean, Sartreren askatasunaren ikuspegi erradikalak zuen indarrarengandik. Halaber, esan beharra daukat, existentzialismoaren gaia unibertsitatean oso gutxi landu genuen arloa izan zela eta Sartreri buruz nekien apurra nire kabuz eginiko irakurketen emaitza izan zen.

Doktorego ikastaroa hasi eta ikerketa aldia iristean gai bat hautatu beharrean aurkitu nintzen. Horrela, bada, argi nuen gauza bakarra zera zen: euskaraz eta euskal gaiarekin erlazionatua egongo zela. Aukera posibleak ikusirik, eta aurretik Sartreren pentsamenduaren inguruan zerbait landua nuela kontutan izanda, *existentzialismoaren eragina Euskal Herrian* gaia hautatzea deliberatu nuen. Honetaz gain, doktorego ikastaroan Joxe Azurmendi irakasle nuen, gai honetan aditua, eta ikerketa materialak lortzeko orduan ere ez nuen oso urrun joan beharrik. Hortaz, hautu egokia zenaren ustea izan nuen.

Gaia banuen. Horrela, bada, eman beharreko hurrengo pausoak, alde batetik, existentzialismoaren gaian gehiago sakontzea izango zen, batik bat, aurrekariaren inguruan ezer gutxi nekiela kontutan izanda. Beste betekizuna, aitzitik, Euskal Herrian existentzialismoak izan zuen presentziari buruzko materiala bilatzea izan zen. Horretarako, biderik errazena hartzea deliberatu nuen, hots, internet-en sartu eta bilatzailean *existentzialismoa Euskal Herrian* jartzearena. Bilatze horren lehen fruitua

Txillardegiri buruzkoa izan zen. Hala, gezurra badirudi ere, orduan ezagutu nuen *Leturiaren egunkari ezkutua*ren eta existenzialismoaren arteko lotura. Urte asko pasa ziren *Leturiaren egunkari ezkutua* azkenengoz irakurri nuenetik, eta ustekabe bat izan zen existenzialismoaren eta Leturiaren arteko loturaren berri jakitea. Gaia, ordea, gehiago zehaztu beharra zegoen.

Txillardegiren ibilbide politikoa ikusirik, eta existenzialismoaren definizio ezberdinak kontutan izanda, lehen gainbegiratuan existenzialismo ateoarekin edota hobeto esanda Sartrearen pentsamenduarekin identifikatzea izan zen. Xedea, hortaz, Sartrek, *Leturiaren egunkari ezkutua* eta Txillardegiren politikagintzan izan zuen eragina aztertzea izango zela erabaki nuen.

Behin gaia zehaztuta, materiala jasotzen hasi nintzen. Baina horretarako, alde zurretik ikerketaren mugatze data jarri beharra zegoen. Horrela, bada, 1957 (*Leturiaren egunkari ezkutua* argitara eman zen urtea) eta 1975 (Franco hil zen urtea) urte arteko aldia izango zela deliberatu nuen.

Gaia zehaztu ondoren, material bilaketari bidea eman nion. Material bilaketari dagokionez, gezurra badirudi ere, Txillardegi Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle izan zen arren, ez nuen Unibertsitateko liburutegian pentsatzen nuen besteko materialik topatu. Hori dela eta, Koldo Mitxelena Kulturunera joan beharra izan nuen.

Bertako liburutegiko katalogoa kontsultatzen hasi eta Pruden Gartziaren zuzendaritzapean argitara eman zen *Txillardegiren bibliografia: 1956-1999* liburuxkarekin topo egin nuen. Horrela, bada, liburuxka hau oinarritzat hartuta banan-banan joan nintzen bertan agertzen ziren (1957-1975 urte bitarteko) Txillardegiren lan guztiak digitalizatzen. Baina zergatik lan guztiak existenzialismoa gaitzat izanda? Material guztia irakurtzea eta eskura izatea beharrezkotzat jotzen dudalako, zeren detaile txiki bat, askotan, hasiera batean esanguratsua ez izan arren, tesiak aurrera egin hala “klabea” izatera pasa daiteke. Horretaz gain, ikerketa bat burutzen ari zarenean abiamena zein den argi edukitzen da, baina hartuko duzun norabidea eta ondorioak ez. Horrela, bada, kasu askotan jasotako material guztia baliagarria ez izan arren, material guztia eskura izatea ez da kaltegarria suertatzen. Izan ere, orain ez erabiltzeak ez baitu

esanahi etorkizunean erabilgarria suertatuko ez denik. Hortaz, egindako lan guztia ez da hutsala suertatu.

Txillardegiren 1957-1975 urte arteko lan gehienak digitalizatzeaz gain, Txillardegiri buruz idatzi ziren lanak ere jasotzeari ekin nion. Bilatze horretan, nik uste baino material gehiagorekin aurkitu nintzen. Pentsa daiteke bezala, gehienak euskal literatura, euskalgintza eta politikagintza zuten ardatz. Material guzti hauen artean, ordea, (a zer sorpresa!), U.E.U-k Txillardegiri eskainitako *Txilardegi lagun giroan*² lanarekin topo egin nuen eta bertan euskalgintzaren inguruko lanak argitara emateaz gain, *Kierkegaard-en egunkari ezkutua* zeritzan Joxe Azurmendiren artikulua kausitu nuen. Istant hau funtsezkoa izan zen nire ikerketaren prozesuan, Kierkegaarden eraginari buruz hitz egiten baitzuen Joxeren artikulua eta ez Sartreari buruz. Kierkegaard, gero ikusiko dugun moduan, “existentzialismoaren aita” izateaz gain, gai erlijiosoak ditu aztergai. Hori ikusirik, nola da posible euskal kritikari gehienek Sartrearekin edota existentzialismo ateoarekin identifikatzen zuten eleberri batek kutsu erlijioso izatea?

Horrela, bada, *Leturiaren egunkari ezkutua* berrirakurtzeari ekin nion eta ohartu nintzen Joxek arrazoi zuela, hots, *Leturiaren egunkari ezkutua* nik uste nuen baino karga erlijioso handiagoa zuen. Horretaz gain, existentzialismoaren jatorriaren inguruan gehiago sakontzearekin batera, ohartu nintzen existentzialismo ateoaren kontzeptu gehienetorburuan Kierkegaarden ikuspegi erlijioso zegoela. Horrela, bada, ikuspegi politikoa alde batera utzi eta nire azterketa gaia Kierkegaarden eta Unamunoren antropologiaren eta erlijioaren azterketetara bideratu beharrean aurkitu nintzen. Honek, ordea, ez du esangura Sartre alde batera utzi dudarik, baina ikusiko dugun moduan, uste baino presentzia handia izango dute Kierkegaarden eta Unamunoren antropologiek eta erlijio ikusmoldeek.

Unamunok, ordea, zer egiten du guzti honen erdian? Jakina da, Txillardegik Kierkegaarden berri Unamunoren eta frantziar existentzialismoaren bidez jakin zuela eta, hori gutxi ez balitz, Unamunoren erlijioaren eta Jainkoaren ikuskera erabakigarria izango da Leturiarengan. «Hasierako eragin nagusia Unamuno izan zen», dio, dudarik

² AA.VV. *Txilardegi lagun giroan*/ Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo: 2000

egin gabe, Txillardegik. «Jean-Paul Sartrek gero izan zuen eragin handiagoa nigan, Frantzian bizi izan nintzen garaian».

Beste egile batzuegana ez bezala, Unamunorengana iristea erraza zen Txillardegi gazte zen garaian, haren liburuak erosteko aukera baitzegoen. «Gainera, gure aitona zenak *Nuevo Mundo*-ren bilduma osoa zeukan, eta aldizkari horretan Unamunok kronika bat idazten zuen astero. Kronika haiek ikaragarriak izan ziren niretzat. Artikulu haietan ez zuen existenzialismoaz idazten, baina oso kultura handia erakusten zuen. *Del sentimiento trágico de la vida* gero irakurri nuen, eta baita Unamunoren beste lan asko ere, nobelak, *nivola*-k eta beste».

Txillardegi 1952an hasi zen Jose Maria Benito del Valle, Julen Madariaga, Iñaki Gaintzarain, Jose Manu Agirre, Rafa Albisu eta beste abertzale batzuekin biltzen. *Ekin* barne-buletina egin ohi zuten, eta sei urte geroago ETArek sorreran parte hartu zuten. Beren aurreneko bi urteetan, 1952an eta 1953an, *Ekin* barne-buletinaren argitaratzaileek beren arteko solasaldiak egin zituzten, «Europar pentsamenduaren arloan zer ideia zeuden jakin nahian». Txillardegiri saio haietan Unamuno irakurri eta azaltzea egokitu zitzaion.

Gauzak honela, ikerketaren atal osoa bat eskaintzea erabaki dut gai honi: aita pontekotzat hartzen den Kierkegaardi eta gurean uste baino eragin handia izan zuen Unamunoren pentsamenduari.

Hurrengo pausoa, bestalde, ikerketari nolabaiteko egitura emateko, jasotako material guztia irakurri eta ordenatzea izan zen. Hala, Txillardegiren aldi horretako materialen irakurketa egin ondoren, ohartu nintzen existenzialismoari buruz idatziriko lanen artea bazirela zientziaren gaiak iturburutzat zituzten idatziak ere. Hau da, astronomia eta Einsteinen erlatibitatearen teoria aitzakiatzat hartuz, existenzialismoa, erlijioa eta beste gai metafisiko batzuk ere lantzen zituela Txillardegik. Lan hauen xedea ikusiko dugun moduan, Modernitateak goraiatzen zuen arrazionalismoaren hegemonia salatzeaz gain, aurrerapenaren eta kontsumoaren lilurapenak bultzatuta eman den despertsionalizazioa azaleratzea izango da.

Horrela, bada, benetako gaia zein da? Hau da, zein da Txillardegik existentzialismoaren eta zientziaren arrazionalitatearen hegemonia agerian jartzearen arrazoiak? Txillardegiren xedea, ikusiko dugun moduan, frankismoaren baitan gizarteak bizi zuen alienazio egoeratik esnatzea izango da, non gizakiaren askatasunaren dimentsioa inoiz baino presenteago egongo den. Horrela, bada, Txillardegiren helburu nagusia, gizakiaren ikuskera berri bat plazaratzea izango da.

Txillardegiren gizakiaren gogoeta horretan, ordea, existentzialismoaren eraginaz gain, beste korrante eta pentsalari batzuk ere zeresan handia izango dute. Hala nola, Budismoak eta Nietzsche, Freud, Russell eta Lévi-Strauss bezalako pentsalariak. Puntu honi dagokionez, gure ikergaia *Leturiaren egunkari ezkutua* denez, existentzialismoari eskainiko diogu ikerketa eremu osoa, baina aipatu berri ditugun autoreek izan zuten inportantzia ikusirik, Txillardegiren aspektu hau argitan jartzea beharrezkotzat jotzen dut.

Behin gaia eta ikerketa eremua zehaztuta lanaren egitura azaltzera pasako naiz. Lau zati nagusitan garatu dut lana.

1.go zatia, *Leturaren egunkari ezkutuak* euskal eleberrigintza modernoari egin dion ekarpenari eskainiko diot. Atal honen barruan, garai hartan *Leturiaren egunkari ezkutuak* izan zituen kritikak jasotzeaz gain, “modernitatea” euskal eleberrigintzan definitzerako orduan egon diren zailtasunak bistaratuko ditugu. Horrela, bada, eleberriaren forman eta edukian erreparatzeaz gain, Txillardegik darabilen estrategia narratiboari atentzio berezia jarriko diogu.

2. zatia, bestalde, existentzialismoari orokorrean eta Kierkegaarden eta Unamunoren pentsamenduari bereziki eskainiko diogu. Atal honi dagokionez, esan daiteke, lan honetako puntu gatazkatsuen izan daitekeela, zeren eta ikerketa gaia *Leturiaren egunkari ezkutua* baita eta ez Unamuno eta Kierkegaard. Hala eta guztiz ere, atal oso bat eskainiko diegu autore hauei. Hasiera batean egia da astuna egiten dela atal hau, baina beharrezkotzat jotzen dut autore hauen pentsamendua azaltzea honako bi arrazoiengatik. Aurrena, orain arte jasotako lan gehienetan, Txillardegik Unamunoren eta Kierkegaarden eragina izan duela aipatu izan da eta hori justifikatzeko ideia eta adibide garrantzitsu batzuk erabili dira, baina, gehiegi sakondu gabe. Filosofiari buruz

gauza gutxi dakien batek, ordea, azaleko ideia hauekin bakarrik geratzen da. Hau da, jakin gabe non dagoen ideia horien jatorri filosofikoa. Horregatik, jatorri filosofiko hauetan gehiago murgiltze aldera beharrezkotzat jo dut bi autore hauei atal oso bat eskaintzea. Autore hauei atal oso bat dedikatzearen beste arrazoia honako hau da: gauza bat da pentsalari hauek esaten dutena, eta beste gauza bat da Txillardegik nola ulertu eta islatu dituen pentsalari hauen ideiak *Leturiaren egunkari ezkutuan*. Horrela, bada, autore hauen pentsamendua azaltzearekin batera, ulergarriagoa egingo zaigu hurrengo atalean autoreen hauek Txillardegirengan izan duten eragina zehaztea, hots, zer aspektutan eta noraino izan den eragite hau determinatzea. Horregatik, hautu egokitzat jotzen dut bi autore hauen pentsamenduari zati handi bat eskaintzea.

3. zatiari dagokionez, *Leturiaren egunkari ezkutuari* eskainia egongo da. Hau da, Kierkegaardek eta Unamunok eleberri honetan izan duten eragina hasieratik bukaeraraino azaltzen saiatuko naiz. Horrela, bada, historiaren ildo jarraituz, pausoz pauso joango naiz Kierkegarden eta Unamunoren eragina Leturiarengan iruzkintzen eta, bide batez, bigarren atalean definitutako ideia nagusienak eleberrian nola txertatu diren aztertuko ditut.

Eta bukatzeko, 4. zatia Modernitatearen auziari eskainiko diogu. Hori dela eta, atal honen xedea, Modernitatearen eztabaidak Txillardegirengan izan duen eragina azaleratzea izango da.

Lanaren egituraz gain, lagungarri suertatu zaizkidan lan batzuk aipatu beharren aurkitzen naiz. Lan hauek, hortaz, ikerketa lan honen aurrekari gisa izendatuak izan daitezke.

Euskal eleberrigintza modernoari dagokionez, *Leturiaren egunkari ezkutuari* erreferentzia egiten dioten lanen artean (argi utzi behar da ikuspegi filosofikoari protagonismo handiagoa eman diodala), niretzat funtsezkoak izan dira honako lan hauek (honek ez du esangura, ordea, gai honen inguruan beste lan oinarrizko asko egongo ez direnik):

AAVV. *Leturiaren egunkari ezkutua eleberriaren ekarpena XX. mendeko euskal narratibaren testuinguruan/* Euskaltzaindia, Bilbo: 2007.

OLAZIREGI, Mari Jose. *Euskal eleberriaren historia: Santiago Onaindia ikerketa beka 1999 /* Labayru Ikastegia, Bilbo : 2002

TORREALDAI, Joan Mari -*Euskal idazleak gaur. Historia social de la lengua y Literatura vasca.* Editorial: Jakin., Oñati, 1977.

SUDUPE, Pako. *50eko hamarkadako Euskal literatura I. Hizkuntza eta ideologia eztabaidak/* Donostia : Utriusque Vasconiae, 2011.

-*50eko hamarkadako Euskal literatura II. Kazetaritza eta saiakera/*
Donostia: Utriusque Vasconiae, 2011.

-*50eko hamarkadako Euskal literatura III. Antzerkia eta hamarkadaren ikuspegi orokorra.* Donostia : Utriusque Vasconiae, 2011

Ikuspuntu filosofikoari dagokionez, bestalde, niretzat klabeak izan diren lanen artean honako hauek nabarmenduko nituzke:

AZURMENDI, Joxe. *Jainkoaren billa.* In: Jakin 20. Zenbakia 1965 urtea, 38- 46 orr.

-*Kierkegaard-en «egunkari ezkutua»* In: AA.VV. *Txillardegi lagun giroan/* Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo: 2000

-*Oraingo gazte eroak.* Irun : Luma, 1998

-*Txillardegiren saioa: hastapenen bila* In: Jakin 114. zenbakia. 1999

AIZPURU, Alaitz (et. Al) (koord) . *Euskal Herriko pentsamenduaren gida /* Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbao : 2012.

GARTZIA TRUJILLO, Sebastian. *J.L. Alvarez Enparantza (Txillardegi): existentzialismoa eta Jainkoa, itzalak baino argiak nabarmenagoak.* Sebastian Garcia Trujillo-- Bilbao : Instituto Diocesano de Teología y Pastoral : Descleé de Brower, 2007

Urte asko pasa ditut *Leturiaren egunkari ezkutuz* gain Txillardegiren gainontzeko lanak irakurtzen eta, egia esan behar badut, Txillardegiren ekarpenak behar beste baloratuak izan ez direnaren sentrazioa daukat. Politikaria baino gehiago zen Txillardegi eta beste arlo askotan trebatzeaz gain, aspektu askotan, "bizionarioa" izan dela uste dut. Honen adibide dugu honako eleberri hau. Agian ez da euskal literaturaren historian idatzi den eleberri onena izango, baina edukiari dagokionez, eta batez ere barne mezua kontutan hartuta, garai hartan iraultza bat izan zela ezin dugu ukatu. Kanten hitzak erabiliz: "behin kritika dastatu duenak, lelokeria dogmatikoei betirako nazka baitie". Eta Txillardegiren kasuan esakune hau erabat beteko da. Errepresioak eta beldurrak bultzatutako euskal gizarteak bizi zuen alienazio bistaratu eta askatasunaren dimentsio erradikala azaleratzea izan zuen helburu Jose Luisek. Irakurlea zirikatu eta hasiera batean, maitasun historia baten aurrean gaudela iruditu arren, gogoetara bultzatzen gaituen eleberria dugu *Leturiaren egunkari ezkutua*. Azken finean, Txillardegiren helburua irakurle pasibo izateari utzi eta ekintzaile izatera bultzatzea izango baita. Eleberri ideologikoa hortaz? Neurri batean bai, garaiak ere hala eskatzen baitzuen.

Maidor Etxaniz Iriondo

Donostia, 2015eko azaroa

SARRERA

1. Existenzialismoaren abiamenak Euskal Herrian

50eko hamarkadan gaude. 50eko hamarkada esan dezakegu lantzar kulturala izan dela euskal kulturari dagokionez. Frankismoan gaude eta gerraren itzalak oraindik irmo dirau. Beldurra da nagusi. Diktaturak, gerra zikinaren aparatu legalarekin eta militarrekin gehiengoaren isiltasuna eta burumakurtzea bermatuko ditu. Ondorioz, debekuak eta era guztietako errepresioak nagusituko dira hamarkada honetan.

1936ko gudak ekarri zuen deserriratzea «anitza eta zabala» izan zen; intelektualak, politikariak, langileak, nekazariak... Eta luze jo zuen gainera, guda amaituta ere, diktadura frankista nagusitu baitzen.

Euskaldun askok egoera horren aurrean Iparraldera ihes egin zuten, gerra amaitu bitartean, ordea, Espainiara itzuli eta errepublikanoen alde borrokatu ziren. Ipar Euskal Herriak ere nahiko hurbildik bizi behar izan zituen Hegoaldeko gerra eta horren ondorioak, gerratik ihesean edo gerra ondoren Hegoaldetik alde egin zutenei laguntzen. Gertakari honetaz gain, euskaldun askok aukeratu zuen Venezuelara, Argentinara, Mexikora eta Amerikako beste herrialdeetara ere atzerriratzea. Hauxe izan zen gerraren beste ondorio lazgarria eta garrantzi historiko handikoa.

Urteak aurrera joan ahala, ordea, hautsitako harremanak berrosatuz doaz, eta, hala, 50eko hamarkadaren bigarren erdialdera, Euskal Herrian bertan eta erbestean horretan lanean dihardutenen ahaleginari esker, euskal kulturak indar pixka bat bereganatuko du, berrindartze eta biziberritze bat ezagutuz. Urte hauetan, Euskal Herrira Europatik datozen lehen idatzi existenzialistak sartzen hasten dira eta ordura arte guztiz

tradizionala izan den euskal munduan, hautsak harrotuko dituzte. Horrela, bada, Pako Sodupekin dioen moduan:

[...] XX. mendeko bi mundu gerra eta Espainiako gerraren ondotik hasirik 1980 ingurura arte luzatzen da Euskal Herriaren garai jakin bat, aipatutako gerra horiek sakon markatu dutena.

Sakoneko marka horren ezaugarri nagusietako bat zintasunaren aldarriarena da, nork bere egi apurñoa biluzik eta osorik adieraztearen munta, gizabanakoaren barneko egia bezala norbere herriarena, iragan hurbilaren egia adierazi beharra. Zintasuna, egiazkotasuna eta benetakotasuna dira giltza-hitzak.

Nork bere barneko egia pertsonala adierazi behar hori aro horretan Europan nagusi den giro existenzialistarekin erara datorrela esango nuke. Gerraurreko mundu seguruan, ideia kristau betierekoen ziurtasunean, barne-egia azaltzeak ez zuen lehentasunik; gerren ondoriozko krisi garaian bai, gora handiena duen ideia bilakatzen da.³

2. Modernitatearen krisia.

Azken finean, beranduago ikusiko dugun moduan, krisi honen atzean Europan presente zegoen Modernitatearen krisiaren zantzuak ageri dira. Jakintzak eta aurrerapenak bere eremuan sakontzen doazen bezalaxe, filosofiari berea murrizten ari zaio. Spencer, Darwin eta beste zientzia pentsalariak beraien unerik gorena ezagutzen ari dira eta, ondorioz, filosofiaren joera gehienak matematizatzen edo mekanizatzen doaz “positibismoaren” baitan erabat murgilduz. Arrazoimena gailendu egin da eta deshumanizazioak bere agertzea egin du.

50. hamarkadako Euskal Herria ere Modernitatearen krisian erabat murgildua egongo da. Baina zer esanahi du honek? Modernitateaz berba egiten dugunean, argi utzi behar dugu, Modernitateak hainbat esparru edo eremuri eragin diola. Politikaren eremuari dagokionez, Joxe Azurmendik honako hau esaten digu *Oraingo gazte eroak* lanean:

Moderniak gauza ezberdinak, eta askoran kontrarioak, esanahi ditu. Adibidez, historikoki, Euskal Herria azpizgain irauli duten XIX. mendeko aldagoiak, lur hau industrialki goiritu eta politiko-sozialki suntsitu dutenak: horregatik, «antimodernia» oso moderno bat badago gero, euskalduntasuna eta jatortasuna iraganaldi premodernoarekin berdindu nahi izaten dituenak, gure artean (baina ez gure artean bakarrik, Europa osokoa izan da fenomeno kultural eta politiko hau: arlo horretara geroxeago etorriko naiz). Abertzaletasun («antimoderno») klasiko edo «burges» horri adina, modernismo burgesari egingo dio zaputz belaunaldi berriak. «Gora Euskadi askatuta!» oihuari eusten dio. Baina zer askatasun da hori? Ez da XIX. mende erromantikoak asmatutako historiara itzuli nahi: ez dugu nahi

³ SUDUPE, Pako, *-50eko hamarkadako Euskal literatura III. Antzerkia eta hamarkadaren ikuspegi orokorra*. Donostia : Utriusque Vasconiae, 2011, 131 or.

«euskaldun jatorrak- izan. Libreak bakarrik. Ez handiagoak, ez txikiagoak, ez hobeak besteak baino. «Geu» Izan.

Bakarrik, zer da geu izatea ere: zer da euskalduna izatea?

Honelako auziak eztabaidatzen ziren 67 -68 aldera gure artean, eta irakurleak maiz irakurria du, gerra ondoan «mundu berria» esanez eraiki den mundu zaharra arbuiatu nahi zuen gazteriaren eztanda urteak izan direla horiek, norberetasunaren errebindikaziokoak «apararuaren» aurka, irudimenarenak «razionalitatearen» aurka. «Nik NI izan behar dut, ni euskaldun hau naiz, bizi naizen Euskal Herrian hori geroz eta zailagoa da ordea», protestatzen zuen Rikardo Arregik.⁴

Ezker berriak arbuiatuko duen razionalitea modernoa zen. Aurretikako guztia gizakiaren esentziarekin identifikatzeaz gain, arrazoia instrumentu bilakatu da deshumanizazioa bultzatuz.

Errenazimentuan gailurra ezagutu zuen mendebaldeko historiaren gizabanakoaren askatze proiektua gailentzearekin batera, “gizabanako burgesarekin” topo egin du. Eta kontsumoaren gizarte moderno teknikoak gizabanako guztiak berdindu egin ditu, bakoitzaren berezko ezaugarriak ezereztuz. Ilustrazioa Errenazimentuaren etsai bilakatu da, indibiduoak ez baititu oraindik oinarririk bere buruaren jabe izateko eta era guztietako menpekotasunean murgildua aurkitzen da berriro. Propagandak bestalde, indibidualtasuna goratzen eta predikatzen jarraitzen du, baina haren suntsipen operazioaren parte izango da. Horrela, bada, faxismoa egoera honen fruitua besterik ez da izango eta bere metodoen bidez gizakia gizartean atomizatzea eta kontrolpean izatea izango du xede. Hau ere zoritxarrez Modernitatea da. Hona zer dion Joxe Azurmendik honi buruz:

[...] are Moderniak gure artean erakusten zuen aurpegi -eta arima-erreakzionarioaren aurka izan da, zeren aurka altxatu den gazteria Euskal Herrian ere, ez Parisen bezalako festaz, baina bai hango antzeko irakurgetan elikatuta. Kultura baten aurka, historiaren aurka; alde batetik nahiz bestetik nortasunarentzat inposatu nahi ziren eredu faltsu eta mitikoen aurka⁵

Modernitatearen krisi hau, ordea, ez da gizartean, politikan eta kulturgintzan bakarrik hedatuko, erlijioaren eremuan ere pitzadura handiak sortaraziko ditu. Hona hemen zer dioen Joxe Azurmendik Karlos Santamariak Modernitateari buruz zuen ideia azaltzen digunean:

Modernitatearen krisian gaude. Sekularizazioaren historiaren buruan eta porrotean gaude, humanismo antropozentrikoaren tragediaren orduan. Historia modernoaren

⁴ Azurmendi Joxe, *Oraingo gazte eroak*. Irun : Luma, 1998, 117 or.

⁵ Ibid., 120 or.

irakurketa horren arabera, Erdi Aroan Jainkoari begira zegoen gizakia eta haren mundu guztia, Bepizkundeaz gero, bere buruari begira jartzera bihurtu da hura eta haren kultura, ikerketa, ekintza guztia.

Bepizkunde humanistei baino kasu gehiago egiten zaio Erreformari Santamariaren azalpenean: Erreformak muturreraino eramanez du pesimismo agustindarra, gizakia bekatuak deseginda eta Jainkoaren ahalmenaren azpian zanpatuta ikusiz.

Esta visión aterradora de la grandeza de Dios y de la miseria del hombre, que el jansenismo recogerá, produce un efecto paradójico. Puesto que el hombre no vale para el cielo —azaltzen du Santamariak dibulgazioko hitzaldi baterako apunteetan—, tendrá que valer para la tierra⁶.

Gizakia negoziotan murgiltzen da, Jainkoaz ahaztu egiten da, mundua profano bihurtzen da. Sekularizazio prozesu luze horretan, dena ez da izan negatiboa. Humanismo berriak salbatu beharko dituen balio handiak ditu. Baina, azken batean, humanismo hori trokan behera amildu da, ez humanismoa zelako, baizik antropozentrikoa zelako.⁷

Txillardegi ere testuinguru honen seme dugu, baina Santamariak ez bezala, positibotzat hartuko ditu kristautasunaren baitan sortzen ari diren pitzadurak. Elizaren jarrera, frankismoa salatzeaz gain, garaiko katolizismoaren baitan tomismoak (eskolastikak) bultzatuko dogmaren aurka altxatuko da Jose Luis; eta protestantismoak garatzen zuen immanentismoaren eta Jainkorik gabeko erlijioen lagun agertuko da. Hori dela eta, Santamariak katolikoa izanik, aipatu berri dugun humanismo antropozentrikoa gaizki ikusten duen moduan, Txillardegi humanismo horren defendatzaile agertuko zaigu, hots, erabat antropozentrikoa izango da Jose Luisek defendatuko duen humanismoa. Hala, Txillardegiren humanismoa giza existentziaren immanentismoaren eta Sartrearen humanismoaren ikuspegiaren eraginpean garatuko da, jainkotiarra den transzendentzia oro baztertuz.

Alta, krisia denbora tarte bat baino gehiago da. Hau da, jarrera bat, eta gizakiaren benetako existentzia zein den galdera nagusizat duena. Euskal Herrian, bestalde, erlijioaren krisiak uste baino eragin handiago izango du. Izan ere, Eliza ofizialki faxistekin eta irabazleekin lerratzearen gertakaria erabakigarria izango da. Tontoarena egin duenaren inpresioa pizten zaio euskal fededunari. Horrela, gizakiaren eta bakoitzaren existentziaren inguruko gogoetek indarra hartuko dute eta giza existentziaren inguruko meditazioak adoretzen zituzten korrante filosofikoek inoiz

⁶ «El humanismo integral de Jacques Maritain», Escuela de Teología para Seglares, 1969-12.

⁷ Azurmendi, Joxe. In: <http://www.ehu.eus/santamaria/pdf/J1.pdf> , 3 or. Azkenengo aldiz 2015ko urriaren 10an kontsultatua .

baino presentzia handiago izango duten. Ondorioz, Nietzsche edo Bergson bezalako pentsalariak edota marxismoa, pertsonalismoa eta existentzialismoa bezalako korrante filosofikoek erabateko presentzia eta indarra izango dute.

3. Existentzialismoa

Existentzialismoari dagokionez, hitzaurrean ikusi dugun moduan, lanaren bigarren atala eskainiko diogu; baina labur-labur azaltze aldera, Joxek Azurmendik dioen moduan: “Hasteko, moda burrunbatsu bat izan zen bere tenorean, kulturako eta gizarteko alor guztiak inbaditu zituena (janzkera era orrazkera, zinema, nobela, teatroa...): Kafka, Rosellini, Ingmar Bergman, Heidegger, Unamuno, Camus... Belaunaldi hau pentsa eta sentigiro horretan hazi da, bera ohartuki ala oharkabe. Ordea, zer izan da hertsikiago existentzialismoa, filosofia bezala, pentsamendu tradizionalaren aurkez aurke? Pentsamendu tradizional horretatik begira, irrazionalkeria besterik ez. Nahasteria eta kaosa, ordena tradizionalaren txikizioa, moralaren emagaltzea, gazteriaren sedukzio eta perbertsioa (Oi Unarnuno eta Sartre gaizto haiek!)”⁸

Santamariarentzat, aitzitik, existentzialismoak kutsu erabat erlijiosoak izango du. Izan ere, beranduago ikusiko dugun moduan existentzialismoaren definizio ezberdinen aurrean aurkituko gara. Horietako bat orain bistaratuko dugun hau izango da. Zergatik Santamariaren existentzialismoaren definizio hau eta ez beste bat? Erlijioaren ikuspegitik emana delako. Eta hitzaurrean adierazi dugun moduan Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutuan* existentzialismoaren definizio honek erabateko presentzia izan du. Hona hemen zer dioen Joxe Azurmendik Santamariak existentzialismoaren inguruan zuen ideari buruz:

Zer da existentzialismoa? Erantzunik ez dago. Ezin da egon. Edo, ezin da existentzialismotik bertorik emanda behintzat. Karlos SantaMariak dioen moduan: *Si algo hay que repugne al existencialismo es el dar definiciones. Definir es querer apresar las cosas entre las paredes de los vocablos, aherrojarlas entre las cadenas de los conceptos abstractos, ponerlas, en suma, en conserva. La definición, el concepto, son a la existencia lo que una sardina en salazón es a una agilísima sardina, vivita y coleando entre la espuma*⁹

Existentzialismoa bizitu egiten da, ez definitu. Baina filosofiak, nahitaez, kontzeptuekin dauka zerikusia eta zeregina. Bizipenak pribatuak dira, eta komunikaezinak, kontzeptutik pasatutaezpada. Gure barne-intuizioak eta esperientziak metodikoki analizaezinak dira, haien natura tximarrikatu eta andeatu

⁸ Azurmendi Joxe, *Oraingo gazte eroak*. Irun : Luma, 1998, 128-129 orr.

⁹ «La inquietud», *La Voz de España*, 1950-01-27

gabe... Interesgarria dugu hori, Santamariak zer-nolako filosofia bilatzen duen ikusteko. Aita Iturrioz jesuitak hitzaldi batzuk eman zituelarik Donostian existentzialismoaz, entzuleengan «egonezina» esnatu izanak pozten du bereziki Santamaria. Eta ulertzen da, aspaldian egonegizko egon zaharrean bizi zen gizarte donostiarrean. Batzuek egonezina arimako bakeari, tentuari kontrajartzen omen diote, espirituko gaitz bat balitz bezala. Existentzia, ordea, osteratzen du Santamariak, ez zaigu eman atsedean hartzeko. Bizitza jatorki humano bat nekez irudika daiteke egonezinik gabe. Ozeano barneko esponjak eta polipoak eta itsas barraskiloak, agian, halaxe biziko dira ur sakon bigunetan kulunkari.

Pero vivir simultáneamente tiempo y eternidad, absoluto y contingente, espíritu y animalidad, realidad y deseo —que todo es vida humana— no puede hacerse sin conflicto ni pelea interior.¹⁰

Espiritu lokartuok astintzean sumatzen du Santamariak existentzialismoaren positiboena. Eta ez Donostian bakarrik. Baizik baita, metafisika klasikoaren handitasunaren ondoan, haren miseria begi-bistara ateratzean ere. Metafisikak mundua eta munduko zerak kontzeptuetan ezagutzen ditu eta, beraz, unibertsaltasunean, ez bakoitza bere bakoiztasunean.

Pero el ser individual es, desde cierto punto de vista, lo que más me interesa en este mundo. Mi vida y mi muerte, vistas desde dentro de mí mismo: como actor, no como espectador; como sujeto, no como objeto del pensamiento. Es mi propio misterio el que intento afrontar.¹¹

Existenzialismoa, pentsamendu kontzeptualaren aurkako matxinada bat da. Eta nor bere nortasun eta banakotasunean atzemateko haren xedea «problema cuasi-religioso que el existencialista se propone» bezala ulertu dizu. Zientzien ezaskitasunak metafisika eskatzen badu osagarri, metafisikak ere badu bere ezaskitasuna, «existentzialismoa» — nolabait esateko— eskatzen duena.

Existenzialistak badaude sinesgabeak, baina fededunak ere bai. Batez ere, aitzindari historiko handiak dira San Agustín, San Bernardo, Pascal, etab. «La actitud existencialista no es una filosofía [...]. Es una actitud prefilosófica o, más bien, pre-religiosa»¹² Santamariaren kontzientzian hori garrantzizkoa baita: filosofia jatorra erlijiozko arazoarekin josita ikusten du eta.¹³

Horrela, bada, existentzialismoa Modernitatearen triskantzatik sortu den aro berri baten hasieraren testigu dugu. «Aro berri bat hasi da sortzen derrotatik eta desenkantutik («Munduak gezurra diotsu, bihotza» meditatzen du Krutwigek), fedegabetasunaren itsasoan jaio era geratzeko. Esperantzak hil dira («Itxaropena/ izena duen zital-lili haur!», madarikatzen du Mirandek). «Ezer ezaren samina» erostatzen ari da Joan San Martín «Otsalar».¹⁴ Horregatik, Lourdes Otaegi Imaz dioen moduan:

Etorkizunari itxaropentsu eta asmo onez begiratzen zioten gerra aurreko idazleen lanak tonu bizi eta indar handikoak ziren; gerra ondoren, aldiz, oinarritzko gaiak gutxitu egin ziren. Hala, nostalgiaz beterik begiratzen zieten pizkundeko ilusioari,

¹⁰ Ib.

¹¹ «Existencialismo y fe católica», Incunable, 1951-02

¹² idem.

¹³ Azumendi, Joxe, In: <http://www.ehu.es/santamaria/pdf/J1.pdf>, 17-18 orr.

¹⁴ Azurmendi Joxe, *Oraingo gazte eroak*. Irun : Luma, 1998, 33 or

gaiak lantzeko indarrari, umoreari, ironiari, garai hartako gai askotarikoei eta planteameduen bizitasunari. 1942-1963 urteetako poesia egileek euskararen eta euskal kulturaren egoera islatu zituzten; horien etorkizuna eta horien inguruko arazoak izan zituzten poemetako gai. Larritasuna eta ezkortasuna nabari dira poema horietan, baina baita etsipenean ez erortzeko gogoia ere. Gogoeta eta nostalgia dira nagusi, eta ezaugarri dramatikoak ere ikusten dira hainbat idazleren lanetan. Horregatik, literaturtasunean minbera eta zentzu guztietan oso konprometitua da gerraondoko lirika.

Orixek erbestearen lazeria eta euskal gizartearen gerraondoko abaildura latza bizi izan zituen, baina, hala ere, bere munduari eutsi zion hein batean, eta haren lanak beste batzuenak baino gutxiago islatu zituen Euskal Herriaren porrotaren ondorio atsekabezkoak. Jarraian aipatuko ditugun beste hainbat egileren lanak, aldiz, idazleek bizi izan zuten egoera gogorraren adierazgarri dira. Gerraondoan, erbesteko idazle Telesforo Monzonek eta Jokin Zaitetik argitaratu zituzten lehenengo euren lanak; erbestera joan ez zirenen artean, berriz, Salvatore Mitxelena, Nemesio Etxaniz, Juan San Martin *Otsalar* eta J. I. Goikoetxea *Gaztelu* azpimarratu behar dira; Ipar Euskal Herrian, J. Diharce *Iratzeder* eta M. Erdozaintzi-Etxart. Testuinguru horretan sortu zen Parisen, A. Ibiñagabeitiaren eskutik, Jon Mirande heterodoxoa. Azpimarratu behar da, halaber, Monzon, Otsalar eta Mirande izan ezik, hainbat ordena erlijiosotako elizgizonak zirela gerra ondorengo idazle gehienak errepresio giro hartan euskal poesiaren garrari eutsi ziotenak. Beraz, oso nabarmenak dira ikuspegi eta gai erlijiosoa.¹⁵

Hori dela eta, ikusiko dugun moduan, giro horren seme izango da gure Joseba Leturia. Hau da, fede baten, esperantza baten, «lilura» absolutu baten iluntzearen eta zuloratzearen eta Euskal Herri berri baten esnatzearen lekuko bikaina.

¹⁵ In: <http://www.basqueliterature.com/basque/historia/hogeimende/poesia> azkeneko aldiz 2015ko urriaren 10an kontsultatua.

(1) _____

**LETURIAREN
EKARPENAK
MODERNOAN**

**EGUNKARI
EUSKAL**

**EZKUTUAREN
ELEBERRIGINTZA**

1. LETURIAREN EGUNKARI EZKUTUA (1957)¹⁶

“J.L. Alvarez Enparantza “Txillardegi”¹⁷ (1929-2012) izan zen europar kulturaren berri euskal literaturan estreinakoz eman zuena. Literatura berria euskaraz eman zigun idazle urbanoa eta iraultzailea. Nazioarteko kultur erreferentzia garaikideak euskal nazio zaharrera ekarri zituen abertzalea. Akademiak maite izan ez zuena nahiz eta berak jakintza maite. Euskal preso, erbesteratua eta errefuxiatua. ETAREN fundatzailea eta errefusatzailea. Existenzialista eta polemikazalea”¹⁸ eta *Leturiaren egunkari ezkutua*ren egilea, lehen euskal eleberri moderno eta existenzialista.

1.1. Koldo Mitxelenaren enkargua

Txillardegik Koldo Mitxelenari, 1956ko maiatzaren 24an, Ferrolen soldaduskan zegoela igorri zion eskutitzean ikusi daitekeenez¹⁹, Mitxelenak animatu zuen Txillardegi liburua idaztera. Soldaduskan pasatu behar zituen hilabeteak Knut Hamsun-en *Pan* liburua euskaratzeko aprobetxatuko zuela esan zion Txillardegik Mitxelenari. Hark, ordea, itzulpen bat ez, bere baitatik idatziriko liburu bat egin behar zuela errango dio Txillardegi gazteari.

Alferez sei hilabete egin nituen soldaduskan urte horretan, eta denbora librea ugari nuen. Astebete egiten genuen Cabo Priorren zegoen itsas bateria zaintzen, bakar-bakarrik, kolpe zorrik jo gabe, eta bi aste ondoren, El Ferrolgo kuartelean. El Ferrolen goizero kuartelera joan behar izaten genuen pare bat orduz soldaduei instrukzioa ematera. Eta arratsaldeak libre izanik ere, ez genituen aprobetxatzen. El Ferrolgo Casino-ra joan eta han egoten ginen, bertako neskekin hitz egiten edo, denborapasa. Cabo Priorren, ordea, ez zegoen kasinorik; eta han idatzi nuen nire lehen nobelatxo hori. Joan aurretik ere banuen asmoa. Gogoratzen naiz Mitxelenarengana jo nuela nire asmoak erakutsiz. Hamsun norvegiar Nobel sariaren lanen bat itzultzeko asmoa nuen. Pan izeneko nobela gustatzen zitzaidan bereziki, edo Gosea izenekoa. Mitxelenak, ordea, hobeto nuela zerbait berria asmatzea esan zidan, neuk nobela bat egitea, alegia; eta zalantzaz beterik atera nintzen elkarrizketa hartatik, baina aproba egiteko gogoarekin. Horrela hasi nintzen

¹⁶ Alvarez Enparantza, J.L. (Txillardegi); irudiak, J.M. Alvarez Empanza; [sarrera, L. Mitxelena]. *Leturia-ren egunkari ezkutua*/ Bilbao: Euskal Idaz-Lanak, 1957. Hemendik aurrera liburu hau aipatzean LEE laburdura erabiliko dut.

¹⁷ J.L. Alvarez Enparantza, nahiz eta denok “Txillardegi” bezala ezagutu, bere bizitzan zehar “Larresoro”, “Igara”, “Usako” eta “Harribizketa” izengoitiak erabili zituen.

¹⁸ Rodriguez, Fito. *Txillardegi*/ Donostia : Erein, 2012. 8or.

¹⁹ Txillardegik Koldo Mitxelenari, Ferrolen soldaduzka egiten zegoela igorritako ezkutitz originala. *In Koldo Mitxelena kulturunea (Donostia)*. Eranskinean jarri dut eskutitza osorik. Ondorengo lerroetan argitara emango ditudan pasarteak existenzialismoari dagozkionak izango dira.

idazten. Sei hilabete horietatik zortzi aste pasatuko nituen nik itsasertzeko batera hori zaintzen. Leturia, beraz, zortzi astean idatzitako nobela da.²⁰

Txillardegi Galizian izan zen denboraldian bazuten harremanik eskutitz bidez bi gizonok²¹, eta eskutitz horietariko baten pasarte bat honako hau duzue, idatzi berria zuen liburuaren harira mutil gazteak maisuari idatzirikoa, bertan bere liburuaren nondik norakoa adieraziz:

Irugarren asmoa, eta au duyu dene-
tan izkutagarri ta lotsagarriena ere agian,
nere deia idaztekoa den ezkerre, liburu
bat (!) idaztea erabaki dut. Au arropuz-
keria! Ez naiz txikikeritan ibilli, ta
dagoeneko lanari ematen ari natez.

"Pan" (Knut Hammsum'en liburu) aus-
eratzeko asmotan nentillen, eta erabaki-
ta nuen soldadutzan itzultzea; baina zu-
ri eskerrak, eta esanbear onetan ez dago
lausenga ta zurikeririk batere, itzuli bear-
rean neronen burutik aterabako liburu
bat sortzeko asmoa ote zitzaiten.

Lentzi, eta au ezin besterko gauza

²⁰ Txillardegi & Agirre, Joxean. *Hitza hitz: Txillardegirekin solasean* / Donostia; Baiona: Elkar, 1996. 85-86 orr. Hemendik aurrera liburu hau aipatzen dudanean HH laburdura erabiliko dut.

²¹ Aipatu dudana eskutitzaz gain, *Leturiaren egunkari ezkutua*-rekin eta Ferroleko egonaldiarekin lotura zuzena duten beste gutun batzuk ere jaso ditugu eranskinean. Eskutitzaz gain, Juan Luis Zabalak, *Berria*-n 2006ko urriaren 27, 28 eta 29an, argitaratutako artikulua ere gehitu ditugu. <http://www.berria.info/dokumentuak/dokumentua880.pdf> Azkenengo aldiz 2015ko irailaren 10an kontsultatua.

③ bide-da, bildurra nuen : nola egingo nuen nik, orretarako batere prestatzerarik ez duela onek, liburua bat?

Baña, nere zaletasunak alde batetik, eta euskeraren gabeak bestetik, ausar-erazi ninduten, eta emen naukarzu egitekoan arrais sartuta. Soldadutza bukatu baño lenago burutuko dudalakoan nago.

Berabada, ta au gertatuko zait noski ez du ezer balioko besteentzat nere lanak (ots, berez); bañan onela gertatuagatik ere, neroneentzat asko balio dezake berak, euskeraz ni jabetzeko beintzat balio dit - eta.

Novela bat da liburua, egunkari edo "memorias" gisan idatzia. Egunkariaren idazlariak nerezko zerbaite dulenik ez dut ukatuko.

Etristentzialismoaren auzia izango da liburuaren mamia : "aukera-mina", edo "angustia de elegir" nola esan ez dakit. Ez ni mindu, arren, modake berrikeriagatik aukeratzen dudala pentsatuz : ez, milla bider.

Ez da filosofiki idatea izango, tarteka-marteka baizik; eta agian, irakurriko duten batzuek ez dute liburuaren gitarra sumatuko.

Au izango da liburuaren aria edo ildoa.
 Barne-utsa nabaitzen duen batek (Joxeba
 izenekoa) naturalezaren bidez idorotzen du
 ordurañoko bere biziaren ezer-eza; ta ea
 ustekabez, ideal batez maitemintzen da.
 (Neska bat izango da liburuaren onen orde-
 karia)

Elburu edo ideal orretan jartzan du gar-
 teak bere itxaropide ta zorian-uste guzia;
 ta neska lortu artean, biziago egiten zaiz-
 kio berakiko esperantzak. Zati onetan ager-
 tuko dira izan-ezaren kezak, gabe ta pre-
 miaren larriminak.

Gero, neska (edo elburua) lortuta,
 lorturik eukitzeko larri-miña nabaitzen du
 Joxeba'k, ta orduan arkitzen du leneko
 bere aukeratzearan deus-eza, onarrigea, ta
 zoriaren jostallua izan dela, ta oritatik
 datorkiola ain zuzen xedez nastutzea,
 ta biotza ase-ezina.

arrazoia billa-bidetat arturik, pen-
 tsatzen asten da, baina ea du ezer
 argirik ikusten. Geroz ta illunago da-
 kus bere Bidea, bere absolutoa, ta larri-
 -min betean erortzen da.

Ibilli nai du, itilli bean du, baina
 ez dakus ezer; zentzu autatu nai du,
 ta zentzuak ez diotsa ezer, izua baizik.

(4) arrazoi gidari motxa dela konturatzen da illunaldi orretan, eta biotzarz fidaturik, bere burua eskeni, eman nai du; ta zoriontasuna ta Jainkoaren borondatea nor-bere burua ematean datzala aurkitzen du.

Ez ditugu gauzak, presunak eta elburuak deitu bear, edo arrazoi otjaren bidez bilatu: au berekoiteria da, arrakeria, ta alperrikako billaera. Gauzak dira, geroen bidean aralduz, gu deitzen gaituztenak. Aiei erantzun bear, zoriontu ta bidezko izango ba gera. Aiek dira gure mundua, gure eginkizuna, ta gure buruaran aukerarena nai-ta-ez mugatzen eta baldintzen dutenak. Arrazoi utsak ezin da-gike ezer.

Eta bere elburuzentz abiatzen denean Joxeba, ilteen da.

Ez duzu beartaria asko ulertuko; baina bost ajola: ez du eiki pena meruzi. Ta meruzi ba du ere, idatzia dagoemean inakurrikoduzu, nai izan ezkeru.

Euskaltzaindiak Txapelketa bat antolatzen ba du-edo, antaria bidaliko dut: bidaltzeko ez daukat, ez alkerik, ez bildurik ere.

Ikus dezakezunuz, ez dut, ez, euskeraren auzia aartu; beti bezin prest

(...)

Irugarren asmoa, eta au duzu denetan izkutagarri ta lotsagarriena ere agian, nere deia idaztekoa den ezker, liburu bat (!) idaztea erabaki dut. Au arropuzkeria! Ez naiz txikikeritan ibilli, ta dagoeneko lanari ematen asi natzaio.

“Pan” (Knut Hammsun´en liburua) euskaratzeko asmotan nenbillen, eta erabakita nuen soldadutzan itzultzea; baña zuri eskerrak, eta esanbear onetan ez dago lausenga ta zurikeririk batere, itzuli bearrean neronen burutik ateratako liburu bat sortzeko asmoa otu zitzaidan.

Lenbizi, eta au ezin bestezko gauza bide-da, bildurra nuen: nola egingo nuen nik, orretarako batere prestaerarik ez duen onek, liburu bat?

Baña, nere zaletasunak alde batetik, eta euskeraren gabeak bestetik, ausar-erazi ninduten, eta emen naukazu egitekoan arras sartuta. Soldadutza bukatu baño lenago burutuko dudalakoan nago.

Bearbada, ta au gertatuko zait noski ez du ezer balioko besteentzat nere saioak (ots, berez) , bañan onela gertatuagatik ere, euskeraz ni jabetzeko behintzat balio dit-eta. Novela bat da liburua, egunkari edo “memorias” gisa idatzia. Egunkariaren idazlariak nerezko zerbait duenik ez dut ukatuko.

Etsistentzialismoaren auzia izango da liburuaren mamia: “aukera-miña”, edo “angustia de elegir” nola esan ez dakit. Ez ni mindu, arren, modako berrikeriagatik aukeratzen dudadala pentsatuz: ez, milla bidez.

Ez da filosofikoki idatzia izango, tartera-marteka baizik, eta agian, irakurriko duten batzuek ez dute liburuaren giarra sumatuko. Au izango da liburuaren aria edo ildo.

Barne-utsa nabaritzen duen batek (Joxeba izenekoa! Naturalizaren bidez idoritzen du ordurañoko bere bizieraren ezer-eza; ta ea ustekabez, ideal batez maitemintzen da. (Neska bat izango da liburuan onen ardezkarria)

Elburua edo ideal orretan jartzen du gazteak bere itzaropide ta zorion-uste guzia; ta neska lortu artean, biziago egitean zaizkio berarekiko esperantzak. Zati onetan agertuko dira izan-ezaren kezka, gabe ta premiaren larrimiñak.

Gero, neska (edo elburua) lortuta, lorturik eukitzeko larri-miña nabaritzen du Joxeba´k, eta orduan arkitzen du leneko bere aukeratzearen deus-eza, oñarrigea, ta zoriaren jostallua izan dela, ta ortatik datorkiola ain zuzen xedez nastutzea, ta biotza ase-ezina.

Arrazoa billa-bidetzat arturik, pentsatzen asten da, bañan ez du ezer argirik ikusten. Geroz ta illunago dakus bere bidea, bere absolutoa, ta larri-min betean erortzen da.

Ibilli nai du, ibilli behar du, baiñan ez dakus ezer; zentzuz autatu nai du, ta zentzuak ez diotsa ezer, izua baizik.

Arrazoa gidari motxa dela konturatzen da illunaldi orretan, eta biotzaz fidaturik, bere burua eskeñi, eman nai du, ta zoriontasuna ta Jainkoaren borondatea nor-bere burua ematean datzala aurkitzen du.

Ez ditugu gauzak, presinak eta elburuak deitu bear, edo arrazoi otsaren bidez billatu. Au berekoikeria da, arrokeria, ta alperrikako billaera. Gauzk dira, geronen bidean azalduz, gu deitzen gaituztenak. Aiei erantzun bear, zoriontsu ta bidezko izango ba gera. Aiek dira gure mundua, gure eginkizuna, ta gure buruaren aukerarena nai-ta-ez mugatzen etan baldintzen dutenak. Arrazoi utsak ezin dagike ezer.

Eta bere elbururuntz abiatzen denean Joxeba, iltzen da.

Ez duzu bearbada asko ulertuko; bañan bost ajola. Ez du eiki pena merezi, Ta merezi ba du ere, idatzia dagoenean irakurriko duzu, nai izan ezker.

Esukaltzaindiak Txapelketa bat antolatzen ba du-edo, artara bidaliko dut: bidaltzeko ez daukat, ez alkerik, ez bildurrik ere.

1.2. Eleberriaren laburpena

Aipatu berri dugun eskutitzean Txillardegik eleberriaren nondik norakoaren zertzeladak ematen dizkigu, baina nobelaren drama modu zehatzagoan azaltzeko Luis Villasantek *Egan* aldizkarian *Leturiaren egunkari ezkutuari* eginiko kritikaren pasarte bat erabiliko dugu.²²

Baiña konta dezagun onezkero eleberriaren egitura edo trama. Aurrenik, bizitzaren Udalena: Leturia neska batekin zorutzen da. Berberak aitortzen duenez, Jainko biurtu zun neska ori. Onengan asetu nai luke bere zorion-ametsa. Nola edo zergaitik maitemindu zan? Galdekizun alferra, zeren amodioa itsua eta zoroa baita. Ezkontzen dira, bada, eta zoealdiak iraun zuen bitartean (au da Udako garaia) etzun tutik idatzi bere egunkarian, Baiña orra aguro Udazkena: emakume ark (eta ez beste edozeiñek ere) eztu bere zorion-egarria asetzen ahal. Orain konturatzen da hipnotizatuta bezala joan zala ezkontzera, beraz autatze okerra egin zuela. Gizonak buru otzaz eta sentipen itsuaz jokatu bear duela ta, Paris-era abiatzen da, emaztea bere kasa utzita. Eta orra Negua sartu: lenbiziko autatzea okerra izan bada (biotz itsuaz egindakoa), askoz okerragoa bigarrena, iduriz burua soillaz egin dana. Izan ere Paris-era joate orrekin emazte gaixoa atsekabez il-arazi besterik eztu egin, eta ahaide ta ingurukoen gorrotoa burugañera datorkio il-arazleari. Azkenik, amildegi baten arruan arkitzen dute illik Leturia doakabea...²³

Honela laburtuta ez genioke duen garrantzia emango eleberriaren gai nagusiari. Hau da, hautatu beharrak gizakiarengan sortzen duen larrimin existentzialari. Batez ere, euskal eleberrigintzako lehen heroia gatazkatsuaurrean gaudela jakinik, hain zuzen, bere haragian existentzia absurdoa sufritzen duen pertsonaiaren aurrean. *La nausée* (1938) eleberrian A. Roquentin-ek bezala, Leturiak giza existentziaren zentzurik eza islatzen du bere egunkarian. Baita gogoeta egin ere existentzialismoaren baitan lantzen diren bakardadearen, hautatu beharraren eta heriotzaren gaiez eta, nola ez, Jainkoaren existentziaren inguruko eztabaida ere oso presente egongo da eleberri osoan.

1.3. Nobela intelektuala

Ibon Sarasolarekin bat gatoz Txillardegiren lehen nobela hau zerbait bada mamitsua dela esaten duenean. Eta hitzaren zentzurik hertsienean gainera (hau izan daiteke *Leturiaren egunkari ezkutua* euskal nobelagintzara, eta are euskal literaturara, ekarri zuen gauzarik garrantzitsuenetako bat).

²² Nobela egunkari formaz idatzia dago eta lau zati ditu. Zati edo atal bakoitza urtaro bati dagokio: *Udalen, Uda, Udazkena eta Negua*.

²³ Villasante, Luis. *Leturia-ren egunkari ezkutua*. In: Egan, 5/6- zenbakia (1957ko irail-abendua), 329-330 orr.

Kasu gehienetan ez azalaz eta ez mamiaz, eta bakan batzuetan azalaz ia bakarrik arduratzen zen literatura batetan, Txillardegiren obraz eraberritze izugarri bat gertatu zen, aurrerago, 1964ean gauzatuko zen iraultetaren elementu inportanteenetako baten hasiera izango zena. Mamitasun hau nonnahi nabari da nobelari. Horrela erreferentzi literarioen eta artistikoen numeroa izugarria da eta aurreko euskal-nobelagintzari buruz guztiz ohituraz kanpokoa: Gauguinen kuadroak (LEE: 27.), Debussyren «Les Jardins sous la pluie» (LEE: 31), «Marty» filma (LEE: 52), Gerard Bahr (LEE: 65), Shakespeare (LEE: 66), Kafka eta Amiel (LEE: 74), Budha (LEE: 75), Shakespeare (LEE: 80), Ortegaren «Don Juan» (LEE: 86): Freud (LEE:87), Banquo eta Macbeth (LEE: 88), Gideren problema (LEE: 89) eta abar.»²⁴

1.4. Egunkari forman idatzia eta lehen pertsonaren erabilpena

Egitura aldetik, bestalde, bildumagile batek, Leturia narratzailearen eta irakurlearen arteko norbaitek, transkribatutako egunkari moduan dago idatzita eleberria.

Lehenengo pertsonan kontatzen ditu bere gogoeta intimoak (horretarako egunkari ezkutuaz baliatuz). «Ni» berri baten eraikuntza dago hemen. «Ni» konkretuak hartzen du garrantzia, bera heldu baino lehen istorio guztiak kontalari orojakile batek kontatzen zituenean. Baina zein da halako planteamendu batek ekarri zuen berritasuna? Iñaki Aldekoak, Donostian, 2007ko uztailaren 16, 17, 18an, Txillardegiren eleberriaren argitalpenaren 50. urteurrena dela eta, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak antolatu zituzten jardunaldietan²⁵ honako azalpen hauek egin zituen:

[...] Txillardegiren nobelak ekarri zuena «Ni» berri baten eraikuntza izan zen. Eta «ni» horrek berekin zekarren ordu arte euskal narratiban saiatu gabeko barne munduaren, subjektibitatearen; edo intimitatearen esplorazioa. Alde horretatik, bere nobelarekin Txillardegik bat egiten du mendebaleko modernotasunak gorpuzten zuen pentsamendu eta sentiberatasunarekin, hau da, Rousseau-rengandik erromantizismora igaro zen tradizioarekin. Mundu zaharraren eta geureganaino iritsi den berriago baten bidegurutzean, beraz, esan ahal izan zuen Rousseau-k, Aitormenak bere liburuaren atarian, honakoa: sekula exenplurik izan ez duen obra bati ekiten diot, zeinen burutzeak ez duen izango, bestalde, imitatzailearik (tronpatu egin zen honetan). Nire berdinei gizon bat erakutsi nahi diet bere naturalezaren egia osoan; eta gizon hori neu izango naiz.²⁶

²⁴ Sarasola, Ibon. *Txillardegi eta Saizarbitoriaren nobelagintza : (irakurlearentzat gidaria) /* Kriseilu Donostia : 1975, 11 or.

²⁵ Jardunaldi hauen harira Euskaltzaindiak AAVV, *Leturiaren egunkari ezkutua eleberriaren ekarpena XX. mendeko euskal narratibaren testuinguruan/* Euskaltzaindia, Bilbao : 2007 lana argitara eman zuen. Hemendik aurrera liburu honen aipamena egiterako orduan, LEEeENT laburdura erabiliko dut.

²⁶ Aldekoa, Iñaki. *Txillardegi: Leturiaren egunkari ezkutua.* In LEEeENT: 630 or.

Hortaz, gizon hori “neu” izango naiz nire beldurrekin, oinazeekin eta kontraesanekin. Izan ere, sarritan, Ionesco-ren²⁷ eta Unamunoren²⁸ egunkarietan ikusi ditzakegun bezala, bere sufrimenduari irtenbidea topatu nahi dion “arima” batekin topo egiten dugu eta.

Casi tengo la impresión de que en mí se desarrollan acontecimientos, de que en mí unas cosas, unas pasiones, se agitan, se oponen; de que me miro y que veo el combate de esas fuerzas contrarias y que, unas veces una, otras veces otra, toma la delantera; una pelea, un campo mental de batallas, y de que el yo verdadero es ese «yo» que mira al «yo» de los acontecimientos y de los conflictos. Yo no soy esas pasiones, parece; soy el que ve, mira, comenta, considera. Soy también el que, ardientemente, desea otro yo²⁹

Gai honen harira, C.S.I.C.-ek 2011urtean³⁰, *El diario como forma de escritura y pensamiento en el mundo contemporáneo* izenburupean argitaratu zuen lana kontutan hartu dugu. Hala, bertan esaten dena aintzat hartuz gero, egunkaria “niaren eleberria” moduan definituta, produktu moderno dugu zeren “nia”, gizabanakoa, subjektu gisa konprenituta, aro modernoaren fruitua da.

La novela moderna ha tomado diversos caminos. La confesión, las memorias, la rendición de cuentas han ocupado un lugar en el escenario de la novela moderna. Ya los prerrománticos del círculo de Jena (los Schlegel y Novalis) reivindicaron Las confesiones de Rousseau como novela. Mainer ha llamado a esta orientación de la novela la novela del yo. Parece por completo legítimo ver una esfera de la novela en torno al yo, al self, en la era moderna, que tiene uno de sus atributos, si no el primer atributo, en el individualismo. Pero quizá no sea un problema tan simple. Puede decirse que en la Modernidad los géneros de la búsqueda del yo, de la rendición de cuentas se han incorporado a la novela en varias modalidades, desde fórmulas compositivas tales como el monólogo interior y los diarios a nuevas posibilidades novelísticas como el autorretrato. La novela-diario se sitúa como un medio más para alcanzar la manifestación de los procesos de conciencia en la novela.³¹

Ondorioz, egunkariak subjektuak bere burua aurkitzen laguntzeko erramientak diren heinean, eleberriaren baitan ematen diren kontzientzien garapena ulertzen laguntzen digute. Horretarako, ordea, ezinbestekoa izango da aldeaz aurretik azterketa historiko-filosofikoa egitea.

Esta definición habría que añadirle que esos temas radicales no pueden establecerse por un procedimiento analítico simple, esto es, con una lógica elemental. Precisan de otro tipo de análisis, un análisis histórico o, mejor dicho, un análisis filosófico histórico. Si echamos mano de esa concepción histórico-filosófica, comprenderemos que el yo, el individuo, sólo aparece como sujeto del universo en

²⁷ Ionesco, Eugène (1968). *Diario* (trad. Marcelo Arroita-Jáuregui), Guadarrama (Madrid) : 1968.

²⁸ Unamuno, Miguel de. *Diario íntimo*/ Madrid : Alianza, 1996.

²⁹ Ionesco, Eugène (1968). *Diario* (trad. Marcelo Arroita-Jáuregui), Guadarrama (Madrid) : 1968. 52or.

³⁰ AAVV. *El diario como forma de escritura y pensamiento en el mundo contemporáneo*/ Institución «Fernando el Católico» (C.S.I.C.), Zaragoza: 2011.

³¹ Ibid. 18or.

la era moderna, luego no puede ser uno de esos temas radicales. La novela del yo sería un producto moderno. Así lo concibe Mainer. Este planteamiento tiene una importante dosis de razón: el diario como forma novelística es un fenómeno moderno, como venimos diciendo³²

Horrenbestez, esan dezakegu, egunkaria lantresna bikaina izango dela garai edo aldi historiko jakin bat ulertzeko orduan ere, bereziki, krisi eta gerrate aldietan. Izan ere ez da kasualitatea gerrate eta gerra osteko autore askok egunkaria beraien adierazpide gisa erabiltzea. Egunkariak, hortaz, autorearen barne gogoetaz haratako joaten diren iskirioak izango dira eta, modu berezian, barne gogoetaz gain, autoreak bizi duen garaiaren testigu bikaina ere.

Por sus características formales, los diarios permiten construir imágenes que no se podrían simbolizar por medios habituales de otros géneros. En el último siglo, especialmente en los convulsos períodos de las dos grandes guerras y entreguerras, son varios los autores y pensadores que han utilizado el diario como forma expresiva. En sus diarios van mucho más allá de una expresión de lo personal, pues lo que buscan es comprender la lógica de una época que es la nuestra. Intentan ofrecer, en suma, una imagen que pueda representar los momentos de un tiempo del que, cada uno a su manera, formaron parte. Así, en la medida en que aspira a representar la verdad, el diario se convierte en obra de arte y pensamiento, y se hace interesante tanto para la filosofía como para los estudios literarios, precisamente porque excede las formas conocidas de literatura y filosofía.³³

Eta gurean orain arte esandakoaren adibide nagusia *Leturiaren egunkari ezkutua* izango da. Egunkaria ez da Joseba Leturiak bizi duen krisira bakarrik mugatzen, beranduago ikusiko dugun moduan, eleberri honek hautatu beharrak gizakiarengan sortzen duen larridura existenzialaz gain, garai hartan Euskal Herriak bizi zuen krisiaren berri ere ematen baitigu.

³² Ibid., 18or.

³³ Ibid., 7or.

1.5. Joseba Leturia lehen euskal heroia gatazkatsua

1.5.1. Lehen euskal heroia gatazkatsua

Puntu hau azaltzeko orduan, Ana Toledok Txillardegiren eleberriaren argitalpenaren 50. urteurrena dela eta, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak antolatu zituzten jardunaldietan eginiko honako adierazpenok kontutan hartuko ditugu:

Gerraurreko eleberrigintzan (1898-1937) nekez aurki daiteke heroia gatazkatsurik. Bederatzi urteko isilaldiaren ondoren berriro plazaratzen denean eleberria 1946an, heroia gatazkatsuak agerrerarik egin gabe jarraituko du.

Gatazkatsuak esan nahi badu norbere buruarekin, norbere erraiekin edo munduarekin konformagaiztasunen bat bizi delako, desoreka hori gainditzeko moduren baten bilaketari ekiten zaiola, bistakoa da Leturia heroia gatazkatsua dela. Arazo edo gatazka pertsonal bat dauka eta gatazka horri irtenbidea bilatu nahian dabil. Bere burua da arazoa sorrarazten diona: zoriona eskuratu nahi du, baina egiten dituen saioek frakasoan amaitzen dute, harik eta bere bilaketaren giltzaren kokalekua aurkitu duela uste duenean, Imiriozko leizean gorpu gelditzen den arte. Ezin izan du jaso bere egunkarian nola heldu zitzaion heriotza: istripu baten ala bere buruaz beste egitearen ondorio izan zen. Leturiaren egunkaria ezagutzera ematen duen biltzaileak ere ez du argitzen heriotzaren kausa.

[...] Ez dira asko gatazkaren bat bizi izan duten euskal eleberrietako pertsonaia nagusiak Leturiaren egunkari ezkutuko Leturia heldu arte. Pertsonaiaren kristau sinesmenak eta sinesmen honetatik eratorritako eroapenak gatazka posiblea gainditzeko ahalmena zuen. Eroapena, berriz, ez dago Leturiaren hiztegian. Leturiak ez daki zer den eroapena eta frakaso bakoitzaren ondotik bilaketa berri bat hasten du.

Izan bada gatazkan bizi den pertsonaiarik, baita gatazkaren aurrean eroapenik ez duen pertsonaiarik ere, Leturia iritsi aurretik. Halako pertsonaiak aurkeztera heldu arren, bizi duten gatazkaren oinarrien eta gatazka horri aurre egiteko ibilitako bidearen berri ez da xehe-xehe adierazten. Gainera, gatazkari emandako irtenbidean kristau sinesmenaren legeak urratzen badituzte pertsonaiok, istorioaren amaieran onbideratuko dira eta bete beharreko penitentziak betetzeko prest agertuko. Gerra ondoko euskal eleberrigintzan oraindik tarte handia du eroapenak.

Izan badute arazorik Leturiaren aurretik euskal eleberriak bizileku izan dituzten pertsonaia nagusiek, baina, modu batean ala bestean, arazoa modu arazotsuan bizi izatea saihestuko dute.³⁴

Horrela bada, pertsonaiei dagokionez, honako hauek lirateke Leturiaren eta ordura arteko euskal eleberrietako pertsonaien arteko desberdintasun nagusienak.³⁵

³⁴ Toledo, Ana. In LEEeENT: 550 or.

³⁵ Nahiz eta salbuespen batzuk egon, Jon Etxaideren *Joanak Joan-eko* (1955) Piarres izango da Joseba Leturiaren antz gehien izango duen pertsonaia.

1.5.2. Zalantzan harrapatutako pertsonaia

Ziurtasun izpirik gabeko pertsonaia dugu Leturia, ordura arte ziurtasun tinkoen gain bizi izan zirenean (egia, ongia, fedea, ohitura ...). Zoru irmo baten gainean jarriko dituzte oinak euskal eleberrietako protagonistek (argi zuten beren bizitzak egin behar zuen bidea zein zen, bizitzako garaiak edo etapak ere definituta zeuden). Leturia, berriz, zalantzaren harrak harrapatuta biziko da:

Euskal eleberrigintzaren sorreratik Leturiaren egunkari ezkutua kaleratu arteko tartean argia ikusi zuten eleberrietako pertsonaia nagusiak aztertuz gero, Joseba Leturia eta Joanak-joaneko Piarres dira eroapena eta etsipena ezagutzen ez duten bakarrak: biak dira pertsonaia grinatsuak, apasionatuak, jarduleak -bata, gogamena bide, bestea, ekintza bide-, beren burua besterik gogoan ez duten pertsonaiak.

Nahiz Piarresek, nahiz Leturiak eragozpenak dituzte beren xedeak eskuratzeko. Kanpo-munduak jartzen dizkio oztopoak Piarresi, bere barne-munduak, berriz, Leturiari. Helburuen lorpenerako oztopoak ipintzen dituztenen kokalekua desberdina den arren, biak dira oztopoei aurre egiten dietenak. Alderdi honetatik begiratuta Piarres litzateke Leturiaren antzik handiena erakusten duen pertsonaia. Alabaina, bere kezka filosofikoetan galdurik dabilen Leturiaren eta bere grinan menpe bizi den Piarresen artean bada alderik. Leturiak modu gatazkatsuan bizi du bere gatazka: une bakoitzean bizi duen arazoak oinazetu egiten du. Ez horrela, Piarres; izan ere, bere arazoek sorrarazi ziezaioketen sentimenduek ez dute eragiten kontajariorik.

Bere arazoari irtenbidea bilatzen ari den pertsonaia bezala mamitzen da Leturia egunkariaren orrialdeetan barrena. Joanak-joaneko kontalariak, berriz, ez du aurkezten bere arazoei irtenbidea bilatzen ari den pertsonaia.... Honela bada, modu batean edo bestean, gerra osteko euskal eleberrigintzan pertsonaiak arazoa ez du modu arazotsuan bizi izan. Ia eleberririk guztiak pertsonaia jasankorrez elikatu direlako eta, hala izan ez denean, arazoari modu arazotsuan aurre egiten dion pertsonaia mamitzeari uko egin diolako kontalariak.

[...] Arazoa arazo bihurtzen ez duenez, kontalariak ez du xehetasunez azaltzen nola bizi duen pertsonaiak desoreka eta nola bilatzen duen oreka berreskuratzeko modua. Hau da, kontalariak ez du moldatzen gatazka modu gatazkatsuan bizi duen pertsonaia. Horregatik, Leturia da euskal eleberrigintzako lehen pertsonaia problematikoa, gatazkatsua: gatazka modu gatazkatsuan bizi duen lehenbiziko pertsonaia. Leturiak arazoa arazo bihurtzen du eta, berez, unean uneko arazoa eta berau gainditzeko egindako bilaketa jasotzen du bere egunkariak. Hainbestearino du egunkaria arazoak eta arazoentzako irtenbide-bilaketak adierazteko leku, non arazorik gabe bizi izan zen sasoiari, Udan, ez zuela ezertxo ere idatzi egunkarian... Leturiak bere xedea eskuratzeko egiten duen bidea urratsez urrats adierazia dago: bere «ekintza» bakoitzaren justifikazioa bere egunkariaren orrialdeetan dago.³⁶

³⁶Toledo, Ana. In: LEEeENT: 555-557orr.

1.5.3. Pertsonaia kaletarra

Leturiaren egunkari ezkutuan ematen den beste ezaugarrietako bat eleberri urbanoarena da. *Leturiaren egunkari ezkutua* plazaratu aurretik argitaratu ziren nobela guztiak giro arrantzalean edo nekazari baten, hots, zientzia ekonomikoak «lehen sektore» izendatzen duen produkzio moldea hezurramitzen duen giro batean garatzen dira. Are gehiago, I. Sarasolak ³⁷ adierazi duen bezala, aurreko euskal nobelagileek sensibilitate gabezia nabarmen bat mostratu dute giro urbanoa endelegatzeko.

Hau argi ikusteko, aski da D. Agirrerren «Garoa»n Nerbion iguruarri buruz edo T. Agirrerren «Uztaro»n Donostiako eta Zarautzko dantza- eta joko-etxeei buruz esaten dena kontuan hartzea.

«"Zerubide au txit da polita, parke guzIak bezela. Ez dakit "Zerubide ote den polita, ala "Zerubidi" bera ez dena, ots bere parketasuna.» (LEE: 22or.)

Txillardegiren lehen nobela honetan, berriz, lehen zatian bertan, giro urbano batez inguraturik aurkitzen gara: parke batez, urmael bat duen parke batez, dantza-orkesta baten oihartzunak entzuten diren parke batez, hain zuzen. Leturia bera ere gizaki urbano bat da: irakurtzen dituen liburuak, ezagutzen dituen pintoreak eta musikariak ez dira aurreko euskal-nobelagintzako pertsonaiek ezagutzen zituztenak; orduko 140 kilometro egiten duen tren batetan doa Parisa; bere leihoaren azpitik «automobilak eta motoak, "scooterrak" batez ere» pasatzen dira. Eta guzti hau ez da eraskin edo adabu bat nobelaren estrukturan. Aitzitik, Leturia bezalako pertsonaia batek eta bere barnean bizi duen problematikak nahi-ta-ez eskatzen du horrelako, ingurune bat, ez litzake hortik kanpo (nork imajina dezake Leturia giro baserritar batetan) justifikatuko.

Argi dago, gainera, autorea giro urbano hau nabarmentzen ahalegindu dela, haren jokabidea ez dela oharkabea izan. Obran agertzen diren zenbait motibok (formalistek hitz honi ematen dioten zentzuan) giro urbanoa azpimarkatzeko funtzioa dute soilik, ezin daitezke beste ikuspegi batetatik esplikatu.

Adibidez, «Cannes Club» delakoa (LEE: 43.or.), «Marty» filma (LEE: 52.or.), irratian entzuten den «Three Coins» kanta (LEE: 47.or.). Nobelaren harirako beste edozein kantak berdin balio zukeen. Modan zegoen ingeles kanta hau aukeratzean datza, hain zuzen, kantaren funtzio urbanoa. Hildo berean, eztabaida batetan jotzen duen dantza-orkesta baten motiboak (LEE: 27. or,) funtzio bikoitz bat du: alde batetik giro urbanoaren nabarmentze hau eta bestetik Leturiak ezkontzari buruz izango dituen burutazioei bide ematea. Baina argi dago burutazio hauek beste era batez, beste edozein aitzakiren bitartez eman zezazkeela autoreak: baina giro urbano bat adieraztea permititzen dion molde bat aukeratu du.

Joera hau exhibizionismoaren antzeko zerbaitera heltzen da zenbait mementotan, (adibidez, honenbeste izen arrotz eta frantzesezko aipuak (LEE: 93. or, eta LEE 95. or.). Baina gertakari hau bere neurri zuzenean juzgatzeko, ezin da atera bere texto-ingurutik, hau da, 1955 inguruan euskal-literatura eta bereziki nobelagintza aurkítzen zen egoeratik. Txillardegiren obra egoera honen aurkako erreakzio bat (baina batera, halabeharrez egoerak berak markatzen zuen erreakzio bat) izan zen. Eta alde honetatik, aurrerago ikusiko den bezala, «huts» batez baino areago, alde

³⁷ Sarasola, Ibon. *Euskal literaturaren historia/* Lur, Donostia:1971 6. or

positibo batez mintza gaitzke, «Udaberri» partean, 15. zatian, egiten den giro nekazari baten deskribizioa ere pentsamolde urbano batek taxutua da: hirigizon guztiek (eta, gauzak desitxuratuz, «600»arekin igandea pasatzera «mendira» joaten direnek) bezala, bakea eta irriberatasuna ikusten du Leturiak han, hots, baserritar batek sentitzen ez dituen (ezin sentitu dituen) gauzak³⁸.

Horrela bada, gure Leturiak Euskal eleberrigintzaren historiako lehen aldiko eleberrietako pertsonaiekin ez du partekatzen ez bizilekurik, ezta kultura-mailarik ere. Leturia kaletarra da eta eleberrian aipatzen dituen jakintza eta ezagueren arabera, gizon jantzia. Aldiz, besteak baserritarrak eta euskal kulturaz haraindi ezer gutxi zekitenak. Beti baserritarrak eta euskaldun petoak eta nola ez kristauak. Hauentzat hiria, bestalde, galbidea eta deshumanizazioa baino ez da izango.

1.6. *Leturiaren egunkari ezkutua* sortutako kritikak eta eztabaidak

1.6.1. Hausturaren finkatze prozesua

Sarreran aipatu dugun bezala, hasiera hasieratik erabili izan da “hausturaren” kontzeptua Leturiarentzat.

Hausturaren lehen keinua *Euzko-Gogo*a aldizkarian antzeman daiteke, izan ere, eleberria argitaratu baino lehen nobela berriaren zati bat plazaratu zuen. «Negu» deitzen den atalaren azken zatia alegia.³⁹Sarrera gisa aldizkariaren taldeko norbaitek, pentsa daiteke Koldo Mitxelena bera izan zela baina hori ikertzeko dago oraindik, hamar lerrotako aurkezpen labur bat egingo dio eleberritari. Hausturaren gainontzeko erreferentziak, bestalde, Koldo Mitxelenak *Leturiaren egunkari ezkutuari* egiten dion hitzaurrean antzeman daitezke.

Ikusi daitekeenez, hausturaren lehen aipamen zehatza *Euzko-Gogo*a aldizkariak argitara eman zuen nobela berriaren «Negu» deitzen den atalaren azken zatiaren hasieran

³⁸Ibid., 14-17 orr. Gerra aurreko euskal-nobeletan agertzen diren baserriaren eta giro nekazariaren deskribizioak ere ez dira baserritarrek eginak, noski. Nobela hauetan ere giro nekazariaren «interpretazio» bat aurkitzen dugu. Barne interpretazio hau egiten dutenak, nahiz ez diren baserritar, ez dira mentalitate urbano nabari bat duten gizakiak: «kaletarrak» dira eta hitz honek duen anbiguetate guztia aurki daiteke haiengan eta haien obran.

³⁹ Txillardegia. *Leturia'ren egunkari ezkutua*. In: *Euzko-Gogo*a. Bayonne (uzt- daguenila 1956) 3-6 orr.

irakurri daiteke: “Norberak aukera-bearra du gai ta ardatz. Azalez ta mamiz orrelakorik ez tugu irakurri euskeraz lenago.”⁴⁰

Hausturari buruzko gainontzeko aipamenak, berriz, lehen argitalpenean, Koldo Mitxelenak egiten duen hitzurre luzean azaltzen zaizkigu⁴¹.

Lehena, eleberriaren mamiari buruzkoa izango da: “Biziro poztu nintzan, Txillardegí rekin, baiña ori zen gutxiena. Utsa aal da, bada, gure artean, iñor mamia aintzakotzat artzen ikustea?”⁴² (kontutan izan ordura arteko eleberrigintzan, gehienetan ez azalaz eta ez mamiaz, eta bakan batzuetan azalaz ia bakarrik arduratzen zirela).

Beldur nintzan, alegia, idazlan ori ez ote zen, beste asko bezala, modaren losentxak eragiña izango, barrengo eskeak sortarazia izan bearrean. Orrela den ala ez zeorrek ikusiko duzu, irakurle. Neronek argi eta garbi ikusia dut. Esan bearrean arkitzen naiz lizatu gabe, orrexegatik beragatik, itz eskas auek baiño obeak merezi dituela liburu onek sarrerako atean: dena delako leenik, eta mugarri baten antzera lur berrien señalea eta ezaugarria dugulako gero.⁴³

Puntu honetan Europatik zetorren haize berrien eragina aipatzen du Mitxelenak. Beldur zen, ordea, moda kontua bakarrik izango zen eleberrian lantzen zen mamia. Baina argi geratu zen, Mitxelenaren iritziz behinik behin, moda kontua baino barreneko eskeak sorturiko nobela bat zela eta mugarri bat suposatuko zuela orduko euskal eleberrigintzan:

Eztut esango Egunkari onen azken zatia baiño ederragorik eztela ondu euskeraz – belles-lettres direlakoetatik agitz urruti gabiltza emen -, ezta ere gai garaia gorik eztela ukitu. Baiña, baldin nere iritzia estalkirik gabe agertu bear badut, eztut uste iñoiz gure izkuntzan entzun denik orrelako itz larririk, orren ziñezko aitorkik, orrenbesteko karraxi sarkorrik. Eztugu sekula egin, itz batean esateko, Leturia rena bezalako ibillaldirik gogo-bideetan barrena.⁴⁴

Eleberri honi egotziko dion beste ezaugarrietako bat gaurkotasunarena izango da:

Duela ogeitabost urteko gizaki guztiak etziren Lizardi, baiña gizarteko gallu garai ura bere aldiko semea zen, edozeiñen antzera. Gaurko nornai ere ezta Txillardegí, baiña Txillardegí gaur-gaurkoa dugu, iñor bada. Bestalde, eta ori duzute okerrera berdinketan asteko, Leturia ezta Txillardegí, Txillardegí ren umea baizik, geienez ere.⁴⁵

⁴⁰ Ibid., 3or.

⁴¹ *Sarrera-itx batzu* –k bezala izendatuko du hitzurrea.

⁴² Txillardegí. *Leturia-ren egunkari ezkutua*/ Euskal Idaz-Lanak, Bilbao: 1957, 5 or.

⁴³ Ibid., 6 or.

⁴⁴ Ibid., 10 or.

⁴⁵ Ibid., 12 or.

Hurrengo lerroetan gaurkotasunaren ideia indartzeko, Lizardiren poesigintzaren eta Txillardegiren eleberriaren arteko ezberdintasunak plazaratuko dizkigu Mitxelenak:

Gaur badakigu astindu gaituzten lur-ikarak sortuak zirela ordurako, eta ez tirela berealakoan, alde batetik, ari zoir baitiogu igartuko ezten Lizardi'ren poesia, gure ta ondorengoan atsedeen-toki paketsu izateko sortua. Baiña ez Leturia'k ez Txillardegik ez gaurko normaik eztezake entzregor egin. Bizibearra ta ezinbizia aurrean ditugu, ezin ditzakegu besterik gabe guregana usteak, sinesteak, bizibideak, oturazkoak direlako bakarrik, zeatz eta astiro esamiñatu gabe⁴⁶.

Eta honekin batera, nahiz eta etorrera hau ez den erabat ongi ikusia izango belaunaldi zaharragoetan, belaunaldi berri baten etorreraren berri ematen digu:

Nik eztut Txillardegik bakarrik ikusten. Txillardegik eta Leturia'ren egunkari ezkutua gizaldi berri baten eta gizaldi orren obren aintzindari gisa agertzen zaizkit. [...] Eztute iñoiz zaaragoek oso begi onez ikusten gaztegoen etorrera. Gezurra nioke, neronek baldi banio eztudala alako erresumin ixil baiño bizi bat sumatzen. Begiak zabal- zabalik izaten dituzte gazteek zaaragoen alde txarrak – utsak, txorakeriak, itxurakeriak batez ere- ikusteko. Badakite gaiñera bere dutela gazteek, zuzen ala oker, azken itza.⁴⁷

Eta, bide batez, aurreko puntuari jarraituz, Mitxelenak belaunaldi berri horren premia ikusten duela esango digu: “Gure artean, ordea, gaur eta emen, argi eta garbi ageri da jende berriaren premia. Eztut deus esango nere kideko eta zaaragoen kontra, nere buruaren kontra mintzatzea bailitzake⁴⁸.”

[...] Maiz entzuten dira gure artean illeta-otsak; badirudi udazkeneko otz-ikara sentitzen dugula gorputzean. Eta alare eztakit. Askotan egiten dut nereko ez ote gauden aitzitik udaberri-aurrean. Zaarrak omen gera, beste edozein erri baiño zaaragoak. Egia dirudi, baiña erri baten adiña, gizon batena baiño areagoa, urtez bakarrik neur ote daiteke? Ez ote gera euskaldunok –enaiz olako edo alako euskaldunez ari- urtean joan urtea etorri, betiko aurtzaroan bizi? Gaur azkenik munduari zor diogun itza esateko zorion gaudela deritzat, eta uste ori Egunkari au irakurtzeak biziro sendotu dit. Eztaukagu beste biderik. Aurretango oarkabetasun atsegña utzi bearko, biziko baldin bagera, arrazoi-adiñeko egiteko latz eta nekagarriei ekiteko.⁴⁹

Ondorioz, herri gisa aurrera segi nahi badugu eboluzionatu beharrean gaude. Belaunaldi honen ekarpen nagusietako bat, beraz, Mitxelenaren iritziz honako hau litzateke: “

Itxurak eta izen ederrek gu baiño gutxiago lotsatzen dituzte. Izanari lotuagoak ageri dira izenari baiño. Badure egiari –iguzki-argia baiño liluragarriagoa den egiari-aurrez aurre begiratzeko ausardia. Naimen-kemenea eztute aitua; badakite erabaki gogorak artzeko jaiok direla, baiña eztituzte nolana, ero-eroan, artuko, ez baitituzte gero erdizka eta gogo gaiztoz bete nahi. Gure artean dabiltzan ideiak

⁴⁶ Ibid., 12-13 orr.

⁴⁷ Ibid., 13-14 orr.

⁴⁸ Ibid., 14 or.

⁴⁹ Ibid., 15-16 orr.

eta balioak erroetaraiño ikusmoratu nai dituzte. Kritika eta eraberritzea geron kaltean izango badira ere, oriexen bearrean gaude.⁵⁰

Gai hauetaz gain, Koldo Mitxelenak Txillardegik erabiltzen duen euskarari buruzko hausnarketa ere egiten digu:

Ezta leku txarra Egunkari onen izkeraz mintzatzeko. Izkeran nabaritu baita, besteetan baiño lehenago, gazteen etorrera, axal-axalean ageri delako edo. Izkuntza-gaietan eskarmenturik duenak aurki igerriko dio liburu onen egilleak eztuela guxi entzun ta irakurri. Zaarrak eta berriak – liburuetan ikusia, ez iztegiatan-, itz arrotz eta jatorrak, jakintza-izkuntza eta erriesaerak naaasteen irauli dizkigu. Eztut esango, ezpaillitzake Egia nere ustez, Txillardegik bere mintzaira zearo eskuratu duenik liburu ontan: alagoko gordin-antza arkitzen zaio, osoro eldu ezten fruituarena [...] Baliteke izkera oso argia ez izatea. Biziz ta adierazkorra baldin bada, zertarako bear du garbia izan?⁵¹

Honetaz gain, eleberri ororen hitzaurrean egiten den moduan, ez dira eleberriaren nondik norakoaren eta eleberriaren egituraren azalpenak faltako. Kasu honetan oinarritzkoa izango dena, zeren egunkari eran idatzia izateak ekarpena handia suposatu zuen euskal eleberrigintza modernoan.

1.6.2. Txillardegiren aldekoak

Ez zen denbora asko pasa *Leturiaren egunkaria ezkutuari* buruzko aurreneko kritikak irakurtzeko. Gauzak honela, liburua jaso zituen kritikak izendatzen hasteko, 1957ko *Euzko-Gogoa* aldizkarian argitara eman ziren bi artikulurekin abiatuko gara. Biak batean heldu dira: lehena Andima Ibinagabeitiaren lumatik; eta bigarrena, Nemesio Etxanizen eskutik.⁵²

Bai Andima, bai Nemesio, Mitxelenaren ildo beretik datoz *Leturiaren egunkari ezkutua*ren ez ohizkotasuna eta modernitatea azpimarratzerako orduan. Andimaren kasuan, Txillardegirekin aspektu batzuetan bat egiten ez duela aitortu arren, bere ustez garrantzitsuena irakurlea gogoeta egitera bultzatzen duela da:

Ez zaitut aspertuko, irakurle, liburu onek iradoki dizkidanak azalduz eta ainbeste bulko ta ustekizun ernerazi dizkit nere baitan. Baten batzu idazle azkarrarekin bat ez datozenak, iakiña. Zerbaiteko dugu bakoitzak bere burutxoia, pentzatzeko

⁵⁰ Ibid., 14 or.

⁵¹ Ibid., 14-15 orr.

⁵² Ibinagabeitia, Andima. *Leturaren egunkari ezkutua*. In: Euzko-Gogoa, 1957. Orrila-Garagarrila (maiatza-ekaina), 111-113. orr. . <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo36/eugo3622.htm> Azkeneko aldiz 2015ko irailaren 10an kontsultatua.

Etxaniz, Nemesio. *Leturaren egunkari ezkutua*. In: Euzko-Gogoa, 1957. Orrila-Garagarrila (maiatza-ekaina), 113-114 orr.

alegia, eta bat bederak geure pentsamenduak ditugu edo bear genituke beintzat. Unamuno'k ziñonez, benetako idazleak zerbait ernerazi ta iradoki bear du irakurlea baitan.⁵³

Eleberriaren ekarpenari dagokionez, bestalde, Andimaren iritziz, eleberriaren ekarpen handiena idazlearen barne gogoetak paperera isurtzean datza:

Idazlearen arnasa dariten liburu gutxi izan dugu orain arte gure artean: Geienetan idazlea kanpoaldetik baizik ez zaigu agertzen, barnetik ez ordea. Txillardegiren liburu ontan aldiz, idazlea bera agiri zaigu oso-osorik bere esankizun, auzi ta gogoeta sakonetan, eta liburu au idazlea bera dala esan bear, ez estiloz bakarrik baita mamiz ta giarrez ere. Ez da errexa, egia esan, norbere mami-giarrak, nolarebait mintzatzeko, papera iraultzea, eta orixe iritxi du bete-betean Txillardegi gazteak. Guk ere bear genuen orrelako zerbait. Euskal-idazleak eginkizun andi ori bear bezela betetzeko girorik sekula ez dutela izan esango nuke. Berez gera lukur ta esku-eutsiak euskaldunok barneko gure katramilla ta auziak gordinki ta ausarki biotz aratoletatik atera ta irakurlearen gogora aldatzeko. Maitasun gai ontan batez ere, beti ibilli izan gera erabe ta lotsati, ez noski euskaldunok maitabidean besteak baiño otzago geralako, axari-kumeago geralako baizik gere maite-kontuak estaltzen.⁵⁴

Hizkerari buruz Andimak ez digu gauza handirik esango. Ez da azterketa gramatikala egiten hasiko. Izan ere, Andimaren arabera gogoeta egitera bultzatzen duen eleberri orok benetako hizkera erabiltzen du. Hori dela eta, lehen esan dugun bezala, Andimarentzat *Leturiaren egunkari ezkutua* gogoeta egitera bultzatzen duen eleberria denez gero, Txillardegik darabilen hizkera “hizkera egina” izango da.

Izkerari buruz enoa ezertxo ere esaten. Ez naiz gramatikakeritan murgilduko gure artean oi danez. Nobela au irakurtzean ez zait bururatu gramatika danik ere, ez itz-berririk ezta lapurtar klasikorik ere. Auxe bai; darabilen euskerak gogoia erabat iñarrosi dit, eta gogoak iñarrosteko gai dan izkera benetakoa ta egiña da.⁵⁵

Nemesiok, bestalde, Txillardegi euskaldun berria izanik horrelako eleberria idazteak duen meritua azpimarratzeaz gain, nobelan lantzen den gaiak garai hartan zuen gaurkotasuna nabarmentzen digu:

Ona emen euskaltzaleok pozik ar genezaken idaztia. Dakarrena dakarrelako ta datorrenagandik datorrelako. Alper asko dugu euskeraz ikasten asten diranen artean. Asi... ta bertan utzi. Areago oraindik asteko kemenik ere ez dutenen artean. Gaurko idazti onen egileak ez du orrelakorik. Euskeraz ikasten asi, ta zazpi urterako onelako liburu ematen duan gizona, ez da baztarrerako egiña. Euskaldun berri degu, beraz, egilea. Ai onelako asko! Eztegu, ala ere, intzentsu utsetan gure iritzia urtu nai. Liburuak goragarri asko ditun arren, ba-du alako gordin-antza ere. Bizi-bizi ta idazkera ebakia dakarkigu gazte onek; baña mirari zitekean euskaldun berri batek gure izkuntza zearo egosia agertzea. Ba-du, beraz, euskaldun berriaren

⁵³ Ibid., 113 or.

⁵⁴ Ibid., 112 or.

⁵⁵ Ibid., 113 or.

usai pixka bat noizik bein. Ez da arritzeko, ta Txilardegi azkarrak artuko zion bere ume oni usai ori.⁵⁶

[...] Euskeraz etzan onelako gairik aztartu egundaño. Au degu pozgarri. Gai berriak lantzea; kezka berriak arrotzea nai genduke gure izkuntzaren baratzan, ta auxe egiten digu txalogarriena Txilardegi gazteak.⁵⁷

Egan aldizkarian, aitzitik, *Leturiaren egunkari ezkutua* gaitzat harturik bi lan argitaratu ziren; bata, Gandiagaren *Zeurekin noa*⁵⁸ olerki sorta; eta bestea, L. Villasantek *Leturiaren egunkari ezkutua* izenburupean argitaratutako artikulua mardula⁵⁹. Gauzak honela, Luis Villasanteren artikulua Mitxelenak *Leturiaren egunkari ezkutua*ren hitzaurrean esaten zuenari arrazoia emanaz hasten da:

Arrazoi du Mitxelena jaunak, itzaurrean dionaz alegia, “eztugula sekula Leturiarena bezalako ibillaldirik egin gogo-bideetan barrena”. Analisi psikologikoan batez ere barne-barnera daki zulatzen eta gogo-arazoak eta kezkek tajuz adierazten. Badergu bistan idazle garai bat, Euskal alorra agitz joritu dezakena. [...] Eta guzti hori egunkari moduan azaltzen zaigu: Leturia gaixoak egunkari bat idatzi oi du eta bertan utzi digu tinkatua bere bizitzaren ritmua.⁶⁰

Azpimarragarria da, orobat, Villasantek existentzialismoari egiten dion analisi sakona. Villasantek existentzialismoa Euskal Herrian modan zegoen eskola bezala aurkezten digu eta, ez hori bakarrik, existentzialismoaren funtsa azaltzen saiatzen da:

Existentzialisten eskolak moda ori jarri digu: giza-bizitzaren tajugabea azaltzea. Ez munduari ta ez gizonari ez omen zaio nondik-norakorik ikusten. Aurretik lilura gezurtia ta engañagarria, eta gero, liluratik esnatutakoan, egia gordin eta ikaragarriekin topo egin bearra, eta ortik etsipena. Munduak egozten gaitu lur zabalera, zertarako ta zergaitik eztakigula. Liluraren bidez begiak itxi egiten dizkigu, eta ala, zozo batzuk bezala eta itsu itsuan, ark nai duen tokira eramaten gaitu. Zertarako ordea? Goiz edo berandu, lilluraren argi-ixakorra itzal dedinean, etsipenean jausteko. Jaiio dan guztiak il-beharra duela ba-daki. Jaiio, eriotzaren lezezuloan erortzeko! Giza-gogoak bizia amets, mugarik eta bazterrik ezluken bizia nai. Betiere, beti irautea, bukaera gabeko bizia irrikitu gizonak, eta illobiko zulora sartu bear! Au patu zorigaiztokoa! Bestaldetik, ulermenak bear ainbat argi ez ematen. Bizitzaren eroa, tajugabea, monstrokeria...⁶¹

Horrela bada, Villasantek, eleberri honek tesi ideologiko garbirik ez izan arren, inpresio gazi-gozoa usten digula esango digu:

Baiña tesis ideologiko agiri bat ez baldin badu eleberri onek, inpreso bat bai uzten duela, ao-gozo berezi bat, ta ondo garratza, samiña, mingotxa. Alako illuna, edo erantzunik eztun galdera bat gelditzen da aidean zintzilika.. Bizitza ez ote dan xede gabeko zerbait, engañu bat, burla bat... Biotzean azkengabeko yoranak, iraungi

⁵⁷ Ibid., 113-114 orr.

⁵⁸ In: *Egan*, 5/6-1957 zenbakia (1957ko irail-abendua), 301-302 orr.

⁵⁹ In: *Egan*, 5/6-1957 zenbakia (1957ko irail-abendua), 328-332 orr.

⁶⁰ Ibid., 328 orr.

⁶¹ Ibid., 328-329 orr.

eziñezko egarriak, betiereko bizi-naia, eta gero... utsa, frakasua... ta eriotza. Illuna, pesimismo beltza dario Leturia gaixoaren historiari.⁶²

Villasanteren aburuz, pesimismo horren jatorria existenzialismo ateoak duen ikuskeran dago:

Jakiña, liburu oni, txanpon bati bezala, bi aurpegi aurki dakiozke. Bata illuna, bestea arraia. Izan ere, existenzialista ateoek zergaitik jotzen dute giza-bizitza tajugabekotzat? Bizitza ori bear diren begiekin ikusten eztakitelako. Bizi onetatik lekora beste bizi bat siñesten ezdutelako.⁶³

Baina ikuspegi pesimista horren baitan argi pixka bat ikusten du Villasantek:

Leturiak duen itzali eziñezko egarri ori, absolutuaren bear ori, ez al da probarik ederrena eriotzaz bestaldekoak ba-direla egiztatzeko? Leturiak maiz aitortzen du bere zorion-egarria, Jainko-egarria dela. Absolutuaz baizik eztela asetzen, infinitua duela amets. Baiña bestenaz Jainko ori etzaigu argiro agiri. Ulermenak ain du indar gutxi! Ezin diteke ezer ziurpetu. Egiak eta Logikak eztu gudan agintzen...⁶⁴

Horrela bada, geratzen zaigun gauza bakarra Jainkoarenganako fedea izango da, zeren gizakiak, azken finean, Absolutua beharrezkoa du asetua sentitzeko. Puntu honi dagokionez, aitzitik, Villasantek arrazoia eta fedea uztartu egingo ditu (eskolastikaren eragina):

Hau da, Beste erlijioetan sentimendu erlijiosoa bere kasa ibilli izan bada adimenaren argia gidaritzat artu gabe, kristau erlijioan ezta ala. Eta ain zuzen ortan datza kristau erlijioaren sendotasun gotorra: adimenaren eta sentipenaren arteko alkartasun autsi-eziña lortu dela. Sentipen erlijiosoa eztoa itsuan, baizikan adimenaren argi gidari duela. Autsi eziñezko alkartasun orrek ematen dio bere ermotasuna, eta batasun ori desegitea eztugu bein ere onartuko.⁶⁵

Txillardegik, aldiz, arrazoia baztertu eta fedearen alderdi irrazionala edo emozionala defendatuko du, eskolastikaren eta garai hartako katolizismoaren aurka altxatuz.

Hemen argi ikusten da Villasantek Euskal Herrian existenzialismo ateoren eraginez ikuspegi agnostikoak hartzen ari zen indarraren aurrean, jarrera kristaua aldarrikatuko duela. Aspektu honetan, nahiz eta existenzialismo ateoaren ideiekin bat ez etorri, kristau existenzialismoak planteatzen dituen ideia batzuekin bat etorriko da, bereziki, gizakiari “ezerezaren” posibilitatearen aurrean sortzen zaion Absolutu beharraren ideiarekin. Hortaz, Villasante eta Orixe bezalako autoreak existenzialismoaren aurka zeudenaren ideia ez da erabat zuzena (ideia hau orain arte indarrean egon da kritikarien

⁶² Ibid., 329 or.

⁶³ Villasante. L., *Leturia-ren egunkari ezkutua*. In: Egan, 5/6-1957 zenbakia (1957ko irail-abendua), 329 or.

⁶⁴ Ibid., 329 or.

⁶⁵ Ibid., 331 or.

artean). Izan ere, existentzialismo ateoaren aurka bai, baina kristau existentzialismoaren aurka zeharo zeudenaren ideia ez da horren garbi ikusten.

Existentzialistek kezka, urduritasuna ta ezin-egona gorai patzen digute, aurrerapenaren eragille bezala. Ortan ez nuke esango arrazoi piska bat ez dutenik. Idiaren pake zozoak aurrerapen gutxi. Baiña ontan ere norberaren izakerak eta azierak asko esan nahi du. Gizon batzuen barneko paisajea bare-bare agiri zaigu, eta alere gora-bidean diranik ezin esan diteke. Bestelakoak ere izaten dira: arras masiak, eta barneko eztenak obeak izateko franko mesede egiten dienak, askotan berek uste ez arren. Eta Mistika alorrean Garbi ikusten danez, illunaldiak, atsegabezko garaiak, barne-oiñaze-orduak dira beti eraginkorrenak. Lozorroan datzanak krisia bat bear, akuillu bat, esnatzeko eta aurrera abiatzeko...⁶⁶ Orregatik diot Leturiak adierazten didan giza-bizitzaren beltza eztagokiola gauzen egiari. Ori bai, egida da gizonak ba-duela akabera gabeko bizi-naia, eta iltzea zor duela: baiña baita ere ba-dakigu gure egarri ori ase izango dela eriotzaz bestalde. Eta ala ezpaltiz, Nola eta zergaitik dakargu egarri ori? Piztiek eztute olakorik. Aiek bizi diranik ere eztakite. Txakurrak ondo jan eta lo egin ondoren, eztu kezkarik. Gizona, orde, ezta gisa orretara tajutua. Gosea ez al da agiri bat, janariak nunbait ba-direla jakiteko? Ta gure biotzaren bizi-nai ezin ase orrek ez ote du ezer adieraziko? Desiderium naturae non potest esse frustra, zioten aspaldiko filosofoek.⁶⁷ Leturiak duen itzali eziñezko egarri ori, absolutuaren bear ori, ez al da probarik ederrena eriotzaz bestaldekoak ba-direla egiaztatzeko? Alde ontatik begiratuta, Apologetikarik ederrena liteke liburu au.⁶⁸

1.6.3. Txillardegiren aurka

Artean orixezale eta *Euzko-Gogozale* zen *Jakin* aldizkarian izan zuen *Leturiaren egunkari ezkutua* aurreneko eraso gogorak, hots, Iñaki Bastarrikaren, orduko *Jakin*-eko zuzendariaren, eskutik⁶⁹:

Bastarririk idatzitzako eskutitza analisatzean, aitzitik, *Leturiaren egunkari ezkutuari* eginiko kritikak bost puntu nagusitan laburtzen direla esan dezakegu.

Lehenengo puntuari dagokionez, eleberri filosofikoak irakurtzera ohitua egon arren, Bastarririkari nahaspilatu xamarra eta astuna iruditu zitzaion eleberria.

Entzuna nikan aspalditxotik idazle gazte batek “esistenzialista kutsuzko” eleberri bat argitara emanik zedukala. Irakurmin nengokan. Artu ta irakurri nikan. Iritzia eskatu zidatekan amaitu orduko. Zer eritzi jakin ez-ta geratu nindukan. Beste oei alako gorai pamenak entzunda oker nengokelakoan geratu nindukan. Dana dala egiari zor gatzazkiok eta itz-bitan adieraziko dikat nere irizpidea. Egia esan, naste-borraste bat-edo otu zitzaidakekan. Aria ondo eramana. Baiño arrunta xamarra... nere gardiz. Astuntxoegi ere ez ote duk? Maiz orrialdeak saillean pasatzeko gogoak

⁶⁶ Ibid., 331-332 orr.

⁶⁷ Ibid., 332 or.

⁶⁸ Ibid., 329 or.

⁶⁹ Bstarrika, Iñaki. «Txillardegi» *Jaunari*. In: *Jakin* 5. zenbakia. (1957) 99-102 orr.

ere ematen zidakekan. Irakurtzale porrokatu nauk izatez, batez ere elerti-filosofi gaietan. Ez dikat, bada, uste oitura-ezetatik ditekaneanik...⁷⁰

Bigarren puntua:

Gaiñera, nere ustez beintzat, gai oeik ekarrizkoak baiño areago izan bear ditek etorrizkoak. Ekarria ez duk erreza, ongi ekartzen beintzat; etortasuna duk zailenik eta bearrenik, eta onetxen palta zekuskat nik ire idazti ontan. Etortasun eza onek, indarka edo asma-egiñaletan bezela egiña zegokala zirudik. Alako zerbait iruditzen zitzaidakekan aurreneko atalean batez ere, "Udalen" delakoan, alegia. Onetzaz gaiñera, maitasuna, ezkontza, libertadea, aukerapena, ta bitan-edo azaltzen dukan Jainko orren irudi margul ori... Moral aldetik bakarrik ez, "Etika natural" aldetik ere etzekikat nola epaitu leizken... Dostoievski baten eleberrietan ireak baiña intziri etsituagoak arkitzen dituk orrialde bakoitzean, baiño egoki ta bere puntuan otutsen zaiok edonori. Naiz-ta bapatean Jainko ta gizaki guzien aurka biurtu, beti egoki. Etortasun, egitasun onen palta edo egokitasuna somatzen dikat ire ontan...⁷¹

Hirugarren puntuan, aldiz, eleberrian islatzen den larrimin existentziala ez zuela zinez bizi, ez zela bere barrenetik sortua izan leporatzen dio Bastarririk Txillardegiri, idazle existentzialistak irakurtzetik sortua baino.

Nortasun egin baten pentsaera umotua baiño, esistanzialista joerako nobelari asko irakurritako baten saioak iruditu zaizkidak ire bururapenak. Ez dikat onekin liburu au ire seme ez denik idaroki nai, filoso-elergille oien kutsapena igan nabarmen somatzen dala baizik, "eragilleena" baitipat.⁷²

Laugarren puntua: aurreneko eleberria izanik normala dela erdipurdikako lana izatea esateaz gain, gure herriaren barne arazoetan murgiltzeko aholkua egingo dio Bastarririk Txillardegiri.

Enikek onekin ire asmo ta almenik deuseztu nai. Elbarritu baiño bizkortu. Nor arrituren duk ba, asi-berri batek bere aurreneko jardupena erdipurditan sortzea? Ekiok irmo bide oetatik. Bazegok gure errian bertan ikutu gabeko naiko eleberri-gai ederrik asko. Nork bilduko ta eleberrituko zizkiguk? Murgil adi gure erriaren barne-arazotan. Ez dituk nolanaikoak. Buru-argitasuna, biotz-unkitasuna, maitasun-garra, kultur-iakintza sakona, zer geiago erri baten problematika ulertzeko? Gure euskera'err-errian sartuko baduk ere, bearrezko zaiguk bide oek ere urratzea noizpait... Onetzaz besterik ez oraingoz.⁷³

Eta azkenik, Txillardegik aurreko belaunaldienganako duen jarrera kritikatu du Bastarririk.

Maiz gazteok asaldatu dira garako gizonen aurka: ortik gure alkar buru eziña. Zenbait gaztek uste dute berak agertu arte, ez dala euskeraz idatzi. Esate baterako 1900-1937 arteko Azkue, Eguzkitza, Lizardi, Olabide, Orixe ta abar bazterrean utzi nai lituzkete. Gazteok egokiera aundirik eztute izan, nonbait, idazle bikain oien lanak bear den egonarriz auznartzeko. Euskerarik eztute lorrindu idazleok, ez orixe.

⁷⁰ Ibid., 99 or.

⁷¹ Ibid., 100 or.

⁷² Ibid., 100 or.

⁷³ Ibid., 100 or.

Nik enun uste idazleok ain biurri izan litezkeanik, alako izugarririk egin litzaketeanik... Euskera orriloan eta gara batean utzi dutela esan badizute, orriloan eta gara batean dateke. Dana dala, gazteok garako idazleonek lanak aztertu bearra litzukete, egia danentz ikusteko". Garako idazle ospetsu oen artean, apaltasunak izkutarazi duan Zaitegi bera ere aipatzekoa dut, noski.

Jendea leporeño dagola uste dikat amaigabeko berriketa oiekin. Antziñako zaarrak aztertu bearra ditugula? Ondo zegok. Baiño gizaldi onen asieratik euskera bide okerretik abiarazi dutela? Utikan: Joan gizaldikoak, eta Axular bera ere ikusi nai nitek egungo gaietan barna! Itzalez ta begirunez ta mirespenez begira bear dizkagu gizaldi ontako idazle-sailla, eta oek batez ere. Oek, garako idazleak, urratu zizkigutek iakintza ta gizapide-landa guziak, ta onen bearra zikan batipat gure euskerak. Lan geor eta astunena oen bizkar zamatu duk doi-doi.

Euskera-arazoa joera batek edo bestek askatuko dulakoan al ago apika? Arkitu al duk joera ori? Arraio pola!, barrea zak lau aizetara Etziguk, nere ustez, korapillotxo au joera batek edo beetek askatuko. Asko ta ugari idazteak baiño. Joera-zaleak ba-zeudek euskal-idazleen artean, baiño egia esan, guziek bide berdintsutik zijoaztek. Batak ezin duna besteak asmatzen baitik. Oar zak euskal aldizkarietan ere, ainbesteko desberdintasunik somatzen al duk? "Orixe" iaunak senez diagonez, euskal-idazleok oraingoz bata bestearen ikasle gaituk. Eta bestela ain gaizki bagoaz, argitara zabaldu zak beste joera-edo bear luken bide "ezkutu" ori.

Ezti eman nai onekin euskerak batere arazorik eztaukanik, oztopo-alderdi oek geiegi anpatu bear ez ditugula baiño, Euskaltzaleok, euskaldunak orobat, urri gaituk oso, eta pamili txikien akats bereziak zeuzkagu. Bata bestearen naasi bear derrior. Zer genesaiokek nekaazari bat industri-teknikoen lanbidetan naastuko baukek? Ez al da berdin idazletxo tentel bat, gizon erdi landu bat filoloji-gaietan naastea? ⁷⁴

Pentsa daiteken moduan, kritika gogor hauek laster izan zituzten Txillardegiren erantzuna. ⁷⁵

Lehenengo puntuari dagokionez, hots, eleberria nahaspilatu xamarra eta astuna iruditut zitzaioren ideari, honako hau erantzungo dio Txillardegik:

Nere liburu au etzaizu deus ere gustatu. Ezta arritzekoa: bi muturretan bide-gaude pentsa-eraz. Eta au, berez, ezta kaltegarri. Naiago dut zure kontra gogorra, egitia baldin bada, zurikeria faltsoak baiño. Egiaz eman bide-didazu zuk zure iritzia, batere losentzarik gabe; eta onelako maixeoak oso egoki izaten dira. Iritzi guziak nere aldeko balira, susmo txarrak egingo nituzke, xuritzalleen artean nengoalakoan; eta denak berriz kontrakoak balira, zalantzarik gabe arrazoi zutela pentsatu bearra nuke. Onela, ordea, eta iritzi-mota guzietakoak izanda, pozik nago; eta nere liburu alperrikako izan ez dela pentsa dezaket. Nere "Leturia"ren aurka itzezin dutenen artean aurrena ez bazera ere, anitz esker, Bastarrika, kontrako apur ori besteeneri erantsiaz, ingura nintzakean lausengu jenerla eta belaska artatik askatu nauzulako. ⁷⁶

⁷⁴ Ibid., 101-102 orr.

⁷⁵ Txillardegi. *Iñaki Bastarrika'ko Jaunari eskutitza*. In: Jakin 6. zenbakia (1958) 85-93 orr.

⁷⁶ Ibid., 85 -86 orr.

Lehen ikusi dugun bezala, aurreneko eleberria izanik normala dela erdipurdikako lana izatea esaten dio Bastarrikak Txillardegiri. Ikuspegi honekin bat etorriko da Txillardegik bera ere:

Arrazoi duzu, segur aski, gauza batzuetan. Nere liburua leenengoa dudan ezker eskaxa dala esatean, konparazio batera: ni neu ere ortantxe nengoke agian. “Udalen” zatia, batez ere, egoskaitza zaizu. Baliteke. Nere fruitua gordiña dela sinisteko gertu naukazu.⁷⁷

Baina ez da bat etorriko beste puntu batzuetan. Hala nola, eleberrian islatzen den larrimin existentziala ez zuela zinez bizi, ez zela bere barrenetik sortua izan leporatzen dionean Bastarrikak Txillardegiri, idazle existentzialistak irakurtzetik sortua baino. Honen aurrean honako hau erantzungo dio Txillardegik Bastarrikari:

Esistentzialisten zerbait irakurria dudala ez dizut ukatuko. Lotsagarria al da bada? Bañan onek ez du ezer adierazten. Gaur Sartre, Unamuno edo Heidegger beñere ezagutu ez dituzten gazteak ere, gertuago daude alaz ere berengandik edozeñengandik baino. Mendearen guraso dira esistentzialistak, bai; baña seme ere ez gutxiago.

Picasso’k, Prokoffief’ek eta Unamuno’k munduan aurkitu duten gauza berbera azaldu dute, nork bere erara; artearen modura artistak, filosofiaren modura filosofoak. Baña, nola edo ala, gauza berari lotu dira denak; eta alde batetik eragille izan badira, eragiñak izan dira bestetik.

Orregatik “Leturia” ez da, izan ere, nere asmakari bat, zearo beiñepein. Egiazko den neurrian kopia bat da: nik nere inguruan ikusi uste dudanaren irudia ain zuzen. Nere liburua eta ni, biok kuadroa eta bere pintatzailea gera. Eta au ez ba gera, alperrik saiatu naiz.

Ortaz, eta ziñez esan dezaket au, nik ez diot iñori zorrik. “Eragilleen” kutsu ori, ezta besteen kutsua, ezta kopiarik, besteakiko topo eta egokiera utsa baizik. Gaurko geran guziok bazter eta paisaje berberak ikusten ditugu -ta. Erdipurdi edo zearo gaizki atera zaidala saioa? Besterik da au. Eta egia baldin bada ere, ezta arritzekoa. Baña sinistuta egon: kopiatu bear izan banu, EZ NUKEAN LUMA ARTUKO. Kopiatzalle geiegi izan ditugu euskal literaturan, gaur ni ere alakoai jarrai natzaizen.⁷⁸

Ez zaio batere gustatuko ere Bastarrikak gure herriaren barne arazoetan murgiltzeko aholkua egiten dionean:

Zure ustez “Euskalerriko gaiak” ukitu bear dira bakarrik. Izan ere, Euskalerriko bizieran edo kondairan badira, noski, idazki mamitsu asko. Baña zer da “gure erriaren barne-arazoetan” aipatu duzun ori? Zure ustez, oker ez banago, ezpaitzera zu leenengo ximplekeri oietan, euskeraz idazteko “emengo” zerbaitez egin bear da. Zertara joko “kanpora”?

Baña, zer da “emen”? Zer da Euskalerrria zure ustez? Badakit. Diferente dena: izkuntza dena, lamiñen ipuiak, basojauna, baserria, korrika apostuak, aitonen semeen istorioak eta abar. Auetxek osatzen dute, zure ustez, besta anitzen ustez bezela, euskalduntasuna; eta eskualdun literatura egiten asi geran ezker, oietzaz mintzatu bear dugu idazleok, eta ez beste ezertaz ere. Auetzaz kanpo... utikan!

⁷⁷ Ibid., 86 or.

⁷⁸ Ibid., 86-87 orr.

Zurekin nentorke alde batetik: Euskalerriko ATAL BAT baitira, zalantzarik gabe, gure erresuma-nortasuna osatzen duten ezaugarri oiek, gure naziotasuna mamitzen duten bereizgarriak ain zuzen.

Baña, onatx korapilloa: gauza oiek Euskalerrria erritzat BEREIZTEN ba dute ere, ez gaituzte gu euskaldunok presunatzat OSATZEN. Zuk opa duzun literatura ori ez litzake euskaldun presunena izango, Euskalerriko tipismoarena baizik. Etzera bakarria iritzi ontan. Baña zuri, kasorik egingo bagenizu etxetiar literatura egingo genuke, etxekoentzako literatura utsa, ots, literatura motxa. Edo, obeto esan, sasi-literatura

Euskaldunok, nere Leturia bezela, gizon gera guziz, baiña euskaldun erara. Gaurko gaztediaren katramiliez mintzatzen da nere Leturia, baiñan euskeraz.

Presuna unibersala da Leturia; bere mintzaira, guziarekin ere, gure izkuntza. Mamia eta azala ez ditugu naasi bear.

Auxe da, joera bezela beintzat, bear dana. Euskalduna izateko bizieratik kanpo jokatu bear badugu, oraintxe jo dezakegu euskalduntasuna ildakotzat. Eta berdin deritzat euskal literaturaz.

Idazleon eginkizuna gure etxeko istorio-mordoa moldatu eta ugaritzea besterik ez bada, zokora dezagun euskera, eta erauz bizieratik. Eta orduntxe izango litzake onen azkena. Zu, Bastarrika, euskeraren eriotzaren bidetik ari zera.

Egiazko bizian sartu bear dugu euskal literatura. Gure bizimoduari dagokionez, bai; bana presunari ditxezkon auziak azaldu bear ditugu ere. Gu ez gera, zorionez, Auñemendian dantzan ari den erria. Ezta gutxiagorik ere.

Auxe pentsatu nuen nik nere “Leturia” sortzean. Bestalde, nere liburu au euskeraz izkiriatu ez banu ere, erderaz egingo nukean; eta berdin diot irakurtzen ari zeran gutun onetzaz. Esan BEARRAK eragiten bai nau. Askoren ustez, euskeraz izkiriaterakoan, izkuntza landutzeko idatzi bear omen da. Alderantziz diot nik: zerbait esateko idatzi bear dela. Eta zerbait esan BEAR duten idazleak ez dute beti bere etxeaz itzegiten. Arimaren kezka ezta berez ez toki-garri ez esi-garri. Ondo zion orain dela 400 urte gure Detxepare’k, oraindik gor askok entzun ez badiote ere:

“Heuskara, jalgi hadi kanpora”.⁷⁹

Txillardegik Leturiarekin zerbait unibertsala argitara eman nahi zuen. Txillardegiren iritzi garaiko idazleak ez ziren etxeko historiak moldatu eta ugaritzetik bakarri bizi behar, horrek euskararen galera ekarriko zuen eta (Txillardegiren arabera Bastarrikak joera hau defendatzen zuen).

Eta azkenik, nahiz eta hasiera batean horrelakorik ez irakurri Bastarrikaren hitzetan, Txillardegik uste du euskararen inguruan duen jarrerari kritika egiten diola Bastarrikak. Egoera honen aurrean, Txillardegik Bastarrikak idatzi berri duen artikuluan erabiltzen duen euskarari buruzko hausnarketa sakona egingo du:

Ikusten danez, nere artikuluetako mamiaz kanpora, nazkagarri zaizkizu oso euskeraren arloari buruzko nere iritziak oro. Ondikotz! Auzi auek “anpatu” bear ez ditudala diozu, “filolójian” sartu bear ez dudala (noiz sartu ote naiz?) eta abar. Gaiñera ni, “idazletxo tentel bat” naizen ezkeru “gizon erdi-landu bat” naizen ezkeru, obe nukean etxean sartu. Bapo!

⁷⁹ Ibid., 87-88 orr.

Auzi ontan ez dut nik neronek itzegin bearako. Ikusiko duzun bezela zerorren izkribuek salatuko zaituzte, eta ondoreak atereaz joango naiz ni.

Arras kaltegarri deritzazu euskerari buruzko nere joerari; eta bikaiña berriz, zureari. Zure ustez, konparazio batera, zoragarriak dira 1900 ezkerozko “garako” idazleak, eta berai zarraizkiete dudarik gahe.

Eta onelakoak entzuteko nazkaturik nagoen ezkerero, enaiz gaur ontatik pasako.

Zu -eta zu bezelako guziak- euskera il nai duzute, zuen laguntzarik gabe ere arriskuan ez balego bezela; eta asmo gaiztoz eta apropos ari zeratela pentsa liteke, euskera akabatzekotan, noski!. Ezjakin utsak bakarrik eutsi ditzake zuen txorakeriak.

Zuk ez dakizu oraindik, gezurra badirudi ere, izkuntza bat ez dela jeometria. Gañera, egia esan, ez dakizu jeometria agiten. Zure “dirakurt” ori (98 gn. orrialdean) ezta EZER, ezpaita beñere BIZI IZAN euskeran. Gañera, teoriaz, “darakurt” izan bearako luke. “Derama” berriz darama da; eta “deragio”, jeometria egiten asi ezkerero, daragio.

Zure “damaigu”(59) , “dagerki “(60) , ‘dagerkigu” (57), eta beste asko ere, jeometria dira, bañan ez euskera.

Orrenbestetan aipatzen duzun Orixe’k egoki erabilli du beti ikakoa. Zuk berriz zearo gaizki. Zuk ez duzu Orixe maixutzat, zeure burua baizik. Alde batetik, zure “zesaidakekan”, “zekuskat”, “zekikat”, “baditekek”, “zerizkiokat” (99), “zidakakan” (99, aurrekoa bezela gaizki, “zidakakan” baita), “zitzaidakekan”(100, zitzaidakan, noski), eta olako asko ere, eztira beñere erabilli orrela euskeraz, eta jeometria txarra dira. Beraz, ez dira EZER, zure tema bat besterik. Zer irudituko litzaizuke erdarazko aukerak: “ofrezo”, “tene”, eta “veniria”?

Gañera, eta au da larriena agian, ika itzegiten denean ez dira orrelako forma guziak ika jartzen. “Egiña zegokala zirudik”, “aztertu bear dizkagulat”, “nork eleberrituko zizkiguk”, “onako au zia gokanean”, eta abar, aldrebestuak daude arras. Tokirik banu, zergatik dauden gaizki azalduko nizuke. Bañan arrazoirik ez dudala uste ba duzu, galdegiozu Orixe’ri, Villasante’ri, edo euskera dakien beste edozeñi; eta berak azalduko dizute nik baño obeto, zertan eta zergatik zauden pikuan.

Zure “dit” ori ez da literaturako forma. Zure “zaizuke” dakizuke da, noski; eta “guzi oek”, oiek guziak. Ez bide-dakizu oraindik itzen atzetik dijoazen “a” guziak, ez dirala nai-ta-naiez artikulatu. Zure “ausardi”, “premi”, “famili”, “egi”, “neskatil”, eta abar, ausardia, premia, familia, egia, neskatilla eta abar dira. Alderantziz, zure “arrunta xamarra”, arrunt xamarra da. “Oitura eza”, “sentidu-eza”, “etortasun-eza onek” (100), eta abar, ez dira zure asmazio bat besterik. “Sentidurik ez”, eta abar, paso.

“Filosofo-elergille”(100), “erri-errian”, eta abar, ez dira ezer. Modaz dago gaur “garako” idazle askotan, berboai, bear ez denean, “tu” kentzea. Ba al dakizu zergatik? Batzutan kendu BEAR delako. Berboaren egintza oraindik betekizun edo egin gabe dagoeneta (erderaz subjuntivo, potencial eta imperativo moduetan), kendu egiten da euskeraz “tu” ori, edo azkeneko “i”a. Bañan au ez dakizatenok nolana kentzen dituzute, euskeraren giarra ondatuz: “asma ta antola zuela” (97), “ezkuta nai” (55), “gerta ziran” (53), eta beste asko ta asko. Alderantziz orain ere, kendu ditekeanetan ez duzu kentze: “barkatu zak” (100), “suntsitu ez dezake (98), eta abar.

“Erail” (58) diozu, illerazi bearrean; edo “eran” arkaikoaren orde. “Sartre berak” diozu (57), Sartre berak esan bearrean. “Suezia’ko Akademi berak” diozu ere (52). Ez dakizu oraindik “ak” eta “ek” sufijoak bereizten: “guziek bide berdintsutik zijoaztek” (102). Ez dituzu “diteke” eta “dateke” bereizten. Axular’ek ez dakizula uste al duzu apika? Beste askotan, “k” uzten duzu, erderaz jator pentsatzen duzulako, eta itzez itz diozu: “zalla dirudi... zindo itsastea”, itsasteak esan bearrean; eta “suizidioa dirudi egokiena” (60), berriz ere utsa egiñaz. “Indeterminado” deritzan ori dagoenik ere ote dakizun ez dakit: “zerbaiteri” (57) diozu, zerbaiti esan bearrean; eta “beste aunitzei” ere, aunitzi bearrean. Sufijoak

erabat gaizki erabiltzen dituzu: “pentsalari” (55), “abeslari” (60). Noiztanik erabiltzen da “lari” berboakin? (ikus zazu faborez Azkue’eren “Morfologia”, 78 gn. orr.) . Emakumezko ille bat” zer den ez dakit. Eta “gazte asmotsu” esatean Txirritak entzun ba lizu, gazte gaisto eta biurri bat naizela ni pentsako zuen... Eta orrela jarraituko nuke.

Baña naikoa delakoan moztuko dut. Orra “garako”en arnaria! Itzetik ortzera ondutzen ari zera euskeraren giarra. Zuk, Bastarrika, euskeraren eriotza nai duzu oarkabea, eta bere galeraren bidean barrena zoaz.⁸⁰

Hitz gogor hauek ere erantzuna izan zuten beste eskutitz batean.⁸¹ Kasu honetan, ordea, hitz leunagoak eta adiskidetze nahia adieraziz.

Eskutitz honetan, argi ikusten da, eztabaidak hartzen ari zen tonu garratza leuntzen saiatuko dela Bastarrika:

Barkatu, arren, adiskide ori. Zakar artu nazu benetan, merezi ere merezi bai nuan. Neu ere zakartxo agertu nintzatzun, aitortu bearrean naiz. Urrenerako ba-dakit iritziak zertxobait orraztuak eta xurituak eman bear dirana. Jipoiak asko erakutsi oi du. Milla esker nereari erantzun ain luze ta mamitsua egin diozulako. Enuen uste ainbesteko jardunkizunik zeramanik nere arek. Naiago nuke erabat ixildu eta gauzak geiago arrotu gabe utzi. Baiña zureari beste erantzun bat erantsi bearrean arkitzen naiz. Enatortzu, egia esan, griña gaiztoz eta asmo okerre, puntu batzu tajutu naiez baiño. Enuke neronek gelditu nai azken itzarekin. Nik onekin amaitzeko asmoa dut. Dana dala, egiaren onerako eta argipiderako badedi zabalik dauzkatzu beti aldizkari onen atea. Baña, euskeraren eta euskaltzaleon izen onerako, arren, neurriak gorde ditzagun...⁸²

Bastarrikaren iritzi Txillardegik aurreko gutunean ez dio bere eskutitzean idatzi zuenari erantzun, beste norbaiti erantzuteko erabili duela eskutitza leporatuko dio Txillardegiri:

Auxen dut zure kartari ezarri nai nioken irizpiderik oiñarrizkoena: ez diozula, nere ustez, nere kartari erantzun; eta, nik esandakoetaz kanpo jardun zakizkidala. Artu zazu bestela bare-bare nere aurrenekoa ta zure erantzuna eta ikus griñarik gabe artu-emanik ba-duten. Nere erantzun au besterik ez da izango. Zurea nereakin alderatu, benetako zerikusirik ba-duten ikustearren. Iritzi askotan bat natortzu, baiño eraso-antzean diarduzu uneoro nere aurka nik benetako oiñarririk eman gabe. Neri baiño ere beste norbaiti erantzuten ez ote diozun nago...⁸³

Aspektu hau azaldu ondoren, honako puntu hauek argitzera pasako da Bastarrika: lehena “kopiatu” hitzari dagokiona. Bastarririk puntu honi dagokionez zera esango du: berak ez zuen inoiz esan *Leturiaren egunkari ezkutua* garai hartan modan zegoen

⁸⁰ Ibid., 88-91 orr.

⁸¹ Bastarrika, Iñaki. *Txillardegi Jaunari erantzuna*. In: Jakin 6.zenbakia (1958) 94- 98orr.

⁸² Ibid., 94 orr.

⁸³ Ibid., 94 orr.

eleberri existenzialisten kopia bat zenik, eleberri existenzialista horien kutsua sumatzen zitzaioela baino:

“Kopiatu” itz au geiegi darabilkidazu. Aztertu mesedez nere idazkia orrelakorik edo antzekorik ere idarokitzen dutan. “Kutsu”ari buruz bakarrik diardut, eta ez beste ezertaz. Zuk ukatzen baduzu, ondo dago. Baño kutsutik kopiatzera alde aundia dago. Unamuno’k berak Kierkegaard’en eta beste doixtar filosofoen kutsu aundia zeraman, baiña ezin dezaiokegu inola bere nortasun berezi ura ukatu. Onetzaz naiko.⁸⁴

Dostoyevski-ri buruz, bestalde, Bastarrikak dio ez duela Txillardegiko Dostoyevskirekin konparatu, etortasunari eta egokitasunari buruz ari dela baino. Eta horren adibide moduan Dostoyevski aipatu duela:

Dostoiowsky’rekin “alderatu” omen zaitut. Nik ala? Ez da egia. Etortasun eta egokitasunaz diardut berste ontan, eta Dostoiowsky nobelaria adibide bat bezela dakart bakar-bakarrik. Ondo dakizu inspirazio-une batean zein errex ta atsegin idazten dan. Arnaspe ortan ondo, baño ori joan danean, alegiñaka, asma-aalaka jardun bear. Berealaxe nabari oi da alako gogortasun bat. Orixe besterik enuan nik adierazi nai. Inpresio auxe artzen nuan nik “Leturia”ren orrietan barna. Kopiatu-kontua ezta aipatu ere.⁸⁵

Euskal gaietako dagokionez, bederen, Bastarrikak iradokizun gisa planteatu zuela dio eta ez duela inondik inora esaten gai hori bakarrik landu beharra zegoenik:

Nere ustez “Euskalerriko gaiak ukitu bear dira bakarrik” diozu zurean. Zuk onela diozu, ez dut uste nik inon ere diodanik. Sujerentzi bat bezela aurkezten dizut nik “Euskalerriko barne-arazotasuna” nobelagaitzat. “Barne-arazotasun au apropos jarria neukan. Eta onekin adierazi nai nuana zuk zere esplikazio luze oietan diarduzuna baiño barrentxorago dijoa... Ez derizkiot egoki emen gai ontaz luzatzea. Bestela, erriak bai kanpoz eta bai gogoz zer diran aspalditxo ikasirik daukat. Pixkat baino gehiago hausnartutako gaiak ditut auek “ximplekeri” aietan egoteko. Zurekin nator, noski, idea oetan. Ez dut uste ainbeste jarduteko oiñarririk eman dizudanik. Ikusi dezakezunez, adiera okerretik muturreraiño abiatzen zakizkit emen, eta gero ere berdin.⁸⁶

Eta azkenik, filologiako gaietan ez sartzeko ez diola inondik ere esan dio Bastarrikak, joera alderdikierietan ez nahasteko aholkua ematen baino. Hau esan ondoren, euskararen inguruan duen jarrerari buruz jaso duen kritikaren hausnarketa egingo du Bastarrikak:

“Arnas kaltegarri deritzazu euskerari buruzko nere joerari; eta bikaiña, berriz, zureari”. Txantxetan ari al zakizkit? Nun ote dizut nik onelakorik! “Nere” ta “zure” auek zuk bakarrik darabilzkizu. Egia esan, ezin mintza ninteke “nere” dalako bide edo joera onetzaz. Al dutan bezela idazten dut, inortxori erabat lotu gabe. Nik danetatik irakurtzen dut eta danetatik ikasten. Zaarrak eta garakoak ditut maixu . Iakintza-arloan ari naizenean garakoeri jarraitzen diet, beste biderik ezagutzen ez dutalako. Guziak —teoriz apika ez baiño idaztean— bide berdintsutik dijoztela ba-diot. Euskal aldizkarietan ere ez dala desberdintasunik, nabarmenik beintzat, —

⁸⁴ Ibid., 95 or.

⁸⁵ Ibid., 95 orr.

⁸⁶ Ibid., 95-96 orr.

joeta arlo ontan— ikusten. Ez diot besterik. Ez nerea zurea baiño obeagoa denik eta ez alderantziz. Miatu ondo, arren. Emen ere urrutiegi eta adiera okerretik abiatu zera.

“Zuk ez duzu Orixe maisutzat, zeure burua baizik”. Orixe jauna itzalgarri zait eta asko ikasi dut benetan beragandik, bear aiña ez bada ere. Ondo dakit asko eta asko ikasi bearrean nagola oraindik. Adierazi dizut nere maisu nortzuk diren: euskaltzale guztiak, zaarrak, egungoak eta zeu ere bai. Onetzaz gaiñera eta oiñarritsuena: sendia. Amairu urte nitularik utzi nuan neure pamilia, baiño sustrai ori ez du inork erauzten. Zu bezela alde batetik bestera ibiltzerik ez daukat oraingoz, baiño oso pozik nencilke neure euskera gogor au pixka bat giartu eta biziarazteko. Neure burua dutala maixu? Pixka bat bai, eta derriorrez gaiñera. Euskera lantzen asten danak, erro-errotik asi bearra du. Egiña gutxi ematen zaio, eta apur ori erabat sakabanaturik. Norberak konpondu bear izaten du. Ez da gutxi eskatzea. Zergatik uste duzu, bestela, ainbestek atzera dagitela euskera-ikaste ontan? Iztegi osotu bat euki ez bitartean urri, oso urri izango gera euskaltzaleok. Goi-xamarreko gai ei erasotzen diedanean neure burutik asko egin bearrean arkitzen naiz beti, askotan iñor euskeraz eman eztako gaiak diralako. Eta zerorri ere gertatu zaizu apika berauxe bein baiño geiago. Naiago nuke nik, buruaustek alde batera utzita, lan-tresnak gertu eduki, baiño oraingoz bestela jokatu bear.

“Zuk —eta zu bezelako guziak— euskera il nai duzute...; eta asmo gaistoz eta apropos

ari zeratela pentsa liteke, euskera akabatzeotan, noski!”. Otx!, Ezti! Txillardegi jauna, emen biotzkadatxo bero bat izan duzu nunbait. Ez dut uste ainbeste esan nai zenukeanik ere!...

“...zerorren izkribuak salatuko zaituzte”. Eta bereala akats-mordo bikaiña azaltzen didazu. Eta azkenik, “Orra garakoen arnaria!” diozu. Ez, adiskide, ez. Orra Bastarrika orren akats-pilla ederra, bear zenuke esan. Nereak dituzu akats oiek guziak, —denak utsune badira— eta ez “garakoenak”. Enoakizu akats-kontu ontan sartzera, ba-dira ni baiño iakitunagoak ontan eta. Baiño ikusi nork abiarazi zaitun, nik apika? Dana dala, idazlan bakoitzerako zu bezin miatzaille zorrotz askorik baneuka, asko ikasiko nuke.

“...Eta OSO GUTXI dakidala dakit... Zuk berriz... ez bide-daukazu ezer ikasterik”. Nun ote diot nik oso gutxi dakizula eta nik ikasi bearrik ez dutala? Nere aurrenekoan Orixeren ura ez al duzu gogoratzen: oraingoz euskal idazle guziak bata besteen ikasle gerana? Emen ere zeure naitara diarduzu.

“Gaur gaurkoz, beraz, hi joera dira: euskera egiazkoarena bat, eta “garako” idazle batzuen asmazio egoskaitzetakoa bestea”. Joera oiek teoriam edo literaturan arkitzen dira? Idaztietan bada esaidazu nork darabilkian eta berealaxe jarraituko diot. Iakintza-saillekoa bada batez ere. “Hiru ziren” eta era ontako komediak edo idazte-mota ez da zaillegia euskera garbi eta goxoan ematea. Zeure karta au edo zure “Leturia” ze euskera joerakoa erizten dituzu? Zabaldu zazu orduan bermearren artean. Nere ustez —ustez eta iakitez- naiago dute euskaldun iatorrenak ere erderaz irakurri euskera goxoenean baiño. Au ziurtzat, eduki. Ez dugu korapillo au guk euskaltzaleok askatuko. Ezin dezakegu ere. Ez “zure bidekoak” eta ez “besteen bidekoak” ez dute auzi au irabaziko, beste bideetatik arazo oni askapena ez ba datorkio.⁸⁷

⁸⁷ Ibid., 96-97 orr.

Leturiaren egunkari ezkuak jaso zituen Kritikak irakurri ondoren, bat gatoz Jon Casenavek planteatzen digunarekin:

Txillardegi idazle gazteak bi puntu nagusitan banatzen du bere programa. Biak era bat berriak dira orduko euskal literaturaren igurugiroari begira. Lehen puntuak, alegia deus ez, maila oso gora batean finkatzen du idazlearen lehen saioa. Alde batetik, denek ulert eta sendi dezaketen zerbait idatzi nahi du; baina, dudarik gabe, «unibertsala» den maila horren erakustea, bakarrik munduan izan diren obra nagusiek lortua dute. Beraz, munduan dauden liburu gorenak ditu eredutzat hartzen. Bigarren puntuan, hizkuntzari buruzkoan, garbizaleak ditu begitan. Intxaustik Yakin aldizkarian doi bat berantago (1959) idatzi zuen bezala, Txillardegik euskara berria eta modernoa nahi zuen, baina batez ere simplea, Denek ulertzeko gisan. “Gorago ikusi dugun bezala garai hartako... » euskarazko ereduen arteko «borroka» gogorrean sartzen da Txillardegiren oharra. Halarik ere, onartu behar da narratiba mailan, eredu berri, soil eta hastetik buru aski koherentea eraiki duela bere lehen liburuan berean. Aurkakoek, aldekoek bezain zintzoki, puntu hori onesten dute. Eredu berri baten sortzea aurrerapen handia da.⁸⁸

Horrela, bada, *Leturiaren egunkaria ezkutuan*, hainbat ekarpenen artean, bi nabarmenduko genituzke: lehena edukiari dagokiona. Hau da, gai unibertsalak jorratu nahia (puntu honi dagokionez, eleberri existenzialistaren eragina erabatekoa izango da.).

Unamuno, Mann, Camus, Mauriac, eta abar eredutzat, baiña ez bere obrak kopiatuz, jokabidea baizik. Egiatzotasuna, zintasuna: orra bide bakarra. Bizitasuna bear du gure elertiak. Eta gaurko kezka eta katramillak gure liburuetan ixuritzen ez badira, Ez gera asi ere egin. Ez dira gaiak alere bortxaz, ez: SENTITU egin bear dira NORTU, barnea astinduta. Eta gero, ea ezinbestean bezala, “erdi-bearrak” estututa eta eraginda. Idatzi. Lizardirdi ‘k esate baterako, auxe sentitzen zuen. Eta au bere barnean nabaitu ez duen idazleak ez du ezer onik egingo. Ezegin dudarik. Orrengatik oso artifiziala deritzat aspaldi ontan idatzitako gaienari. Euskera utsa egiten jardun gera (eta ez zientziari dagokion moduan geienetan...) eta ez dugu bear aiña aurreratu. Narzisismu aul eta inoxo batean dardaratu gera. Arren: Leen mamia, eta BIDENABAR euskera. Ez alderantziz.⁸⁹

*Leturiaren egunkari ezkutua*ren bigarren ekarpen nagusia, aitzitik, euskarari dagokiona izango da. Hau da, Txillardegi euskara sinplearen alde egongo da, hots, denek ulertzeko moduko euskara nahi du:

Euskaltzale garenok ez gera konturatzen; baiña egia tristea au da: Euskeraz ondotoxo dakitenak ez dituztela gure izkribuak ulertzen. Leen, berriz, Axular ‘ek, Mendoburu ‘k edo Kardaberaz ‘ek idazten zutenean, edozeiñek uler zezakean geiena. Alde batetik erri-euskera auldu eta eskastu egin dalako: dudarik ez. Baiña bestetik ere asmatu egiten dugulako, ikasi bearrean. Oraindik euskaldun jatorrak itzegiten duten izkuntzatik urruti gabiltza oso. Eskolarik ez dugula-ta esateak alde bat azaltzen du, noski; geiena segurki. Baiña ez da kakoa alere. Esukaldun jatorrak ez du irakurtzen; baiña bai entzuten. Alabaiña, gure libururik geienak euskaldun

⁸⁸ Casenave, Jon. *Leturiaren egunkari ezkutua (1957) haustura bat euskal narratiban?*. In: LEEeENT, 623 or.

⁸⁹ Txillardegi & Intxausti, Joseba. «Txillardegi»-rekin solasean. In: Jakin 12. zenbakia. 1960, 83-84 orr.

jatorrai goratik irakurri (neureak ere bai, zoritxarrez) eta, nik aginduta, askotan ez dira konprenditzen. Kontzeptua zailla edo berria danean ez ulertzea normala da: koska ez datza izkuntzan, idean baizik. Baiña gu geienok, gauza ximple eta errexak idazten ditugunean ere, gutxik ententitzeko moduan azaltzen ditugu. Eta au, zalantzarik ez, akatx aundi bat dugu. Orrek adierazten du euskeraz ez dakigula. Frantsesak ententituko ez balute, frantsera dala esango al genuke ba? Gure eritasun kaltegarri onetan ez dago ez eskolarik eta ez ezer olakorik aipatu bear. Geronek daukagu kulpa. Naturaltasunik eza besterik ez da. Eta naturaltasun ortatik asi bear. Bestela konturatu orduko ondotoxo ibilliko da gure sasi-euskera ori euskaltzaleen apaletan aaztuta. Baiña gure aonetatik aldegiña, aldendua; ots, ILLA.⁹⁰

Guzti honek zer ekarriko du? Euskal eleberrigintza modernoaren hasiera eta euskararekiko eta euskal gaiekiko jarrera berri bat.

1.7. Leturiaren egunkari ezkutua eta Modernitatea euskal eleberrigintzan

1.7.1. Modernitatea euskal eleberrigintzan

M. J. Olaziregiren iritiz⁹¹, 1950eko eta 1970eko hamarkadak interesgarriak izan ziren modernizazioa eta eguneratzea ekarri zituelako euskal eleberrigintzaren alorrean:

Urte haietan elkarrekin izan ziren 1956ko belaunaldiko autoreak (Txillardegi edo Mirande, esaterako) eta belaunaldi berri bateko autoreak, I. Sarasolak «64ko belaunaldia» deiturikoan biltzen dituenak. Belaunaldien araberrako sailkapena literaturaren historialariek zalantzan jarri badute ere (aipagarria da, esaterako, literatura espainiarraren adituen artean «Generación del 98» delakoaren inguruan piztutako eztabaida), uste dugu euskal eleberrigintzaren kasuan badaudela ezaugarri eta bizipen bereziak bi belaunaldiz mintzatzeko: bata, mendearen erdialdean Egan aldizkariaren inguruan bildu ziren idazleek osatuko luketena, "56ko belaunaldia" ere deitu izan zaiona; bestea, hamahiru urte geroago, Lur donostiar argitaletxearen inguruan sortu zena, Gabriel Aresti (1933-75) bilbotar poetaren Harri eta Herriren (1964) argitalpenarengatik "64ko belaunaldia" ere deitua. Belaunaldi horietako lehenaren ezaugarri nagusia bere kideen heterodoxia kulturala zen; Lurreko idazleek, berriz, belaunaldi berria eratu zuten, konpromisoarena. G. Arestiren laguntzaz, 1944 eta 1949 artean jaiotako idazle talde honek (R. Arregi, R. Saizarbitoria, X. Kintana, I. Sarasola, A. Urretabizkaia, P. Urkizu ...) euskararekiko konpromiso politiko garbia aldarrikatzen zuen, eta haien xede abertzalea zen antzinakoen literatura berritzea. Batez ere, euskal literatura garai hartako korrante europarrekin sintonizatu nahi zuten, modernizatu, eta literatura espainiarrean «Generación del 68» delakoaren idazleekin gertatu bezala, Lurreko idazleek mende hasierako Modernism haren berritzaile handien irakurleak zirela aldarrikatzen zuten. Ezer baino lehen, modernoa izan beharra zegoen.⁹²

⁹⁰Ibid., 81-82 orr.

⁹¹Olaziregi, M.J.: *Euskal eleberraren historia : Santiago Onaindia ikerketa beka 1999 /* Labayru Ikastegia, Bilbao: 2002 Hemendik aurrera liburu hau aipatu behar dudana bakoitzean EEH laburdura erabiliko dut.

⁹² Ibid., 75-76 orr.

Arestian aipatu dugun moduan, 1950eko hamarkadaren amaiera une erabakigarria izan zen euskal eleberrigintzaren modernizazioan. Baina non kokatzen dute kritikariek eleberrigintza modernoaren hasiera?

1.7.2 *Leturiaren egunkari ezkutua* “lehenengo euskal eleberri moderno” gisa izendatzerako orduan eman diren hiru fase ezberdinak.

Modernitatearen kontzeptua eleberrigintzan aplikatzea erreza ez izan arren, euskal literaturaren kritikariek 1957an kokatu dute euskal eleberrigintza modernoaren hasiera, hain zuzen ere, J. L. Alvarez Enparantza *Txillardegiren Leturiaren egunkari ezkutua* eleberri existenzialista argitaratu zen urtean.

Alabaina, aipatu nahi genuke, orobat, «modernitate» kontzeptu eleberrigintzara aplikatua, labainkorra izan dela gurean eta kasu askotan, eztabaidarako eta jarrera elkarretatik nahiko aldendueterako motiboa izan dela. Areago, zenbaitzuk bereizi egin dute modernitate tematiko bat, Leturiaren egunkari ezkutua eleberri existenzialistarekin hasia, eta modernitate formala, Nouveau Roman frantziarretik hurbil dagoen Ramon Saizarbitoriaren Egunero hasten delako eleberria 1969an argitaratu zenean hasitakoa. Seguruenik bereizketa horrek eraman zuen Lasagabaster (1981) euskal eleberriaren bilakaera hementxe aipatutako bi garaietan sailkatzera: lehen aldiak 1957-1969 garaia hartuko luke barne, existenzialismoak markatua, eta bigarren aldia 1969an hasi eta gaur egun arte.⁹³

Baina izendatze honen baitan hiru fase ezberdin antzeman daitezkeela esan dezakegu.

Lehenengo fasean, Leturiaren egunkari ezkutua eleberri modernotzat hartzen da gaiari edota edukiari dagokionez, baina ez aspektu teknikoari edo formalari begiratuz.

Aurretik ikusi dugun moduan, euskal eleberrigintzaren modernitate tematikoa Leturiarekin eman arren, *Modernism* delakoaren modernitate iraultza teknikoak ez ziren 1960ko hamarkada arte agertu.

M. Bradburyk el mundo moderno lanean⁹⁴ egiten dituen planteamenduei jarraituko bagenie, honako hau esan beharko genuke: Euskal eleberrigintza XX. mendearen erdialdea arte nagusi izan zen estetika historiko eta ohiturazkoa alde utzi eta mende hasierako Modernism haren berrikuntzak bere egiten modernitate-osteko eleberrigintza bihurtu zela. Bestela esanda, egun eleberrigintza modernoa esaten diogun horrek, zeina sortu baitzen 1957an lehen lan existenzialistaren eskutik, errealitatean lotura zuzena duela II. Mundu Gerra osteko proposamen europarrekin, alegia, modernitatearen amaierara hurbiltzen ari den eleberrigintzarekin. Espainian, Katalunian edo Frantzian apurka-apurka eman zena (errealismoa; eleberri modernoa; modernismoa; existenzialismoa; esperimentalismoa) bat-batean eman zen gurean eta ohiturazko eleberritik eredu existenzialistara pasa ginenen... Gure

⁹³ Ibid., 71 or.

⁹⁴ Bradbury, Malcolm: *El mundo moderno, diez grandes escritores*/ Edhsa, Barcelona 1990

eleberriaren kasuan, Frantziako eleberrigintza izan zen eredu 1950eko hamarkadaren amaieratik 1970eko hamarkadaren erdira arte argitara emandako eleberriberritzaileenetan... Urte batzuk geroago, berriz, tradizio anglosaxoia edo Erdialdeko Europako idazleak eta egile amerikarrak, dela Estatu Batuetan eleberri beltza garatu zutenak, dela Hego Amerikako errealismo magikoa abiarazi zutenak, bihurtu ziren euskal idazle askorentzat eredugarri.⁹⁵

Ekarpen tematikoa dagokionez, bestalde, «unibertsala» den eleberria nahi zuen Txillardegik. Beraz, munduan dauden liburu gorenak ditu eredutzat (hauen artean eleberri existentzialistek toki berezia izango dute). A. Roquentin-ek bezala, Leturiak giza existentziaren zentzurik eza islatzen du bere egunkarian. Gauzak, honela, existentzialismoaren baitan lantzen diren bakardadearen, hautatu beharraren, heriotzaren eta, nola ez, Jainkoaren existentziaren inguruko eztabaida izango ditu gai nagusitzat *Leturiaren egunkari ezkutua*.

Bigarren fase batean, ordea, *Leturiaren egunkari ezkutua* lehen euskal eleberri moderno moduan izendatzearen arrazoi bakarra ez da irizpide tematikoa izango, aspektu teknikoari edo formalari dagokionez ere modernotzat hartua izango da.

Jakina da Jesus Mari Lasagabasterrek, euskal literatura kritikariak, eman ziola Leturiari lehen euskal nobela modernoaren izendapena edo titulua. «Euskal nobelaren lehenbiziko heroe problematikoa, Leturia dugu, noski», idatzi zuen Lasagabasterrek Euskal-nobelaren gizarte-kondairaren oinharriak artikuluan (Euskal linguistika eta literatura: bide berriak liburu kolektiboan, Deustuko Unibertsitatea, 1981), Lucien Goldmann eta Georg Lukacs kritikarien lan teorikoetan oinarrituta. «Leturiaren borroka, existentziala da (...); baina, nobelaren baitan gertatzen den borroka horrek mundu-ikuskerara agertarazten digu, aurreko nobelak erakusten zigunaren oso ezberdina, benetan. Eta hemen datza, bereziki, Txillardegik euskal nobelan eragin duen berrikuntza».

Alderdi formalari begiratuta, «oso tradizionalak» irizten zien orduan Lasagabasterrek *Leturiako* kontra-teknikei eta berritzailea izateko meritua Ramon Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako* nobelari (1969) egotzi zion.

⁹⁵Olaziregi, M.J. In: EEH 73-74orr.

Egun, ordea, gaietan ez ezik formaren aldetik ere berritzaile deritzo Lasagabasterrek *Leturiari*. BERRIAN 2006ko martxoaren 8an argitaratutako elkarrizketan honako hau irakurri daiteke:

Hala ere, uste dut ez dela guztiz egia orduan esan nuena. Txillardegik euskal nobelagintzan mundu moderno bat martxan jarri zuen Leturiaren egunkari ezkutuarekin, eta hori ezinezkoa izango zitzaion formaren aldetik ere zerbait berria eta modernoa egin ez balu.⁹⁶

Horrela bada, formari edo aspektu teknikoari begiratuz, esan dezakegu, aurretik aipatu ditugun ondorengo ezaugarri hauek direla *Leturiaren egunkari ezkutuaren* ekarpen teknikoak edo formalak.

Nobela intelektuala

a) Mamiaren garrantzia. Kasu gehienetan ez azalaz eta ez mamiaz, eta bakan batzuetan azalaz ia bakarrik arduratzen zen literatura batean, Txillardegiren obrarekin eraberritze izugarri bat gertatu zen.

b) Erreferentzi literario eta artistikoen numeroa izugarria da eta aurreko euskal nobelagintzari buruz guztiz ohituraz kanpokoak.

Egunkari forman idatzia eta lehen pertsonaren erabilpena

a) Lehenengo pertsonan kontatzen ditu bere gogoeta intimoak eta horretarako egunkari ezkutuaz baliatuko da.

«Ni» horrek berekin zekarren ordura arte euskal narratiban saiatu gabeko barne munduaren, subjektibitatearen edo intimitatearen esplorazioa. Alde horretatik, bere nobelarekin Txillardegik bat egiten du mendebaleko modernotasunak gorpuzten zuen pentsamenduarekin eta sentiberatasunarekin. Hau da, Rousseurengandik erromantizismora igaro zen tradizioarekin.

⁹⁶ Zabala, Juan Luis. *Jesus Maria Lasagabaster, Literatur Kritikaria: «Nobela abentura baten idazkeraren abentura da»* In: Berria, 2006ko martxoaren 8a, 36 or.

b) Egunkaria, “*niaren eleberria*” moduan ulertuta, produktu moderno bat izango da. Izan ere, nia, gizabanakoa, subjektu gisa ulertuta, lehen esan dugun bezala aro modernoaren fruitua da.

d) Nobela mota hau aztertzerako orduan, aitzitik, azterketa historiko-filosofikoa egin beharrean aurkitzen gara, oinarrizko azterketa logikoak ez baitira lagungarriak suertatuko.

e) Horrenbestez, egunkaria lantresna bikaina izango da garai edo aldi historiko jakin bat ulertzeko. Ez baita kasualitatea, gerrate eta gerra osteko autore askok egunkaria beraien adiaerazpide gisa erabiltzea.

Joseba Leturia lehen euskal heroia gatazkatsua

a)Gerraurreko eleberrigintzan (1898-1937) nekez aurki daiteke heroia gatazkatsurik. Bederatzi urteko isilaldiaren ondoren, 1946ean berriro plazaratzen denean eleberria, heroia gatazkatsuek agerrerarik egin gabe jarraituko dute.

b) Joseba pertsonaia gatazkatsua dela esaten da, bere buruarekin, norbere erraiekin edo munduarekin konformagaiztasunen bat bizi duelako. Hori dela medio, desoreka hori gainditzeko moduren baten bilaketari ekiten dio.

d) Ez dira asko gatazkaren bat bizi izan duten euskal eleberrietako pertsonaia nagusiak *Leturiaren egunkari ezkutuko* Leturia heldu arte. Aurreko aldiko pertsonaiek, beraien kristau sinesmenak eta sinesmen honetatik eratorritako eroapenak gatazka posibleak gainditzeko ahalmena zuten. Eroapena, berriz, ez dago Leturiaren hiztegian. Leturiak ez daki zer den eroapena eta porrot bakoitzaren ondotik bilaketa berri bat hasten du.

e) Joseba Leturia eta Joanak-joaneko Piarres dira eroapena eta etsipena ezagutzen ez duten bakarrak: biak dira pertsonaia grinatsuak, apasionatuak, jarduleak -bata, gogamena bide, bestea, ekintza bide-, beren burua besterik gogoan ez duten pertsonaiak. Baina Piarres eta Leturiaren arteko ezberdintasuna zera da Piarresek arazoa arazo bihurtzen ez duenez, kontalariak ez du xehetasunez azaltzen nola bizi

duen pertsonaiak desoreka eta nola bilatzen duen oreka berreskuratzeko modua. Hau da, kontalariak ez du moldatzen gatazka modu gatazkatsuan bizi duen pertsonaia. Horregatik, Leturia da euskal eleberrigintzako lehen pertsonaia problematikoa, gatazkatsua: gatazka modu gatazkatsuan bizi duen lehenbiziko pertsonaia. Leturiak arazoa arazo bihurtzen du eta, berez, unean uneko arazoa eta berau gainditzeko egindako bilaketa jasotzen du bere egunkariak.

f) Bere «ekintza» bakoitzaren justifikazioa bere egunkariaren orrialdeetan dago.

Pertsonaia kaletarra

Leturiaren egunkari ezkutua plazaratu aurretik argitara eman ziren nobela guztiak giro arrantzale edo nekazari batean girotzen ziren. Euskal eleberrigintzaren historiako lehen aldiko eleberrietako pertsonaiekin ez du partekatzen ez bizilekurik, ez eta kultura mailarik ere. Leturia kaletarra da eta eleberrian aipatzen dituen jakintzaren eta ezagueren arabera, gizon jantzia da. Aldiz, besteak baserritarrak eta euskal kulturaz haraindi ezer gutxi zekitenak. Beti baserritarrak eta euskaldun petoak eta nola ez kristauak, hauentzat hiria, galbidea eta deshumanizazioa baino ez da izango.

Euskarari dagokionez

Nahiz eta Mitxelenak “Leturiaren” hitzaurrean Txillardegik darabilen euskara “gordin-antxa” dela esan⁹⁷; Txillardegik euskara berria eta modernoa nahi zuen, batez ere sinplea, denek ulertzeko modukoa.

Ikusi dugun bezala *Leturiaren egunkari ezkutuak* euskal eleberrigintza modernoari eginiko ekarpenak anitzak eta garrantzitsuak izan dira, bai gaiari dagokionez, bai eleberriaren aspektu teknikoei edo formalei erreparatuz ere. Baina modernitatea eleberrigintzan aztertzerako orduan, modernitate tematikoaren eta modernitate formalaren azterketaz haratago joan beharrean aurkitzen gara (*hirugarren fasea*). Puntu honetan bat egingo dugu Olaziregiren planteamenduarekin:

⁹⁷ Ez dugu ahaztu behar garai hartan Txillardegi euskara ikasten ari zela.

Bat gatoz M. Butorrekin «rerealitate bakoitzari narrazio-mota bat dagokiola» dioenean (ik. Sobre literatura), eta horregatik uste dugu eleberri bakoitzak egitate nobeleskoa ulertzeko era berri bat, poetika berri bat daramala bere baitan. Horren arabera, eta gaurtik ikusita, ez da zuzena euskal eleberrigintza modernoaren bilakaera azaltzerakoan modernitate tematikoaren eta modernitate formalaren artean bereizketa egitea, bi alderdiak banaezinak baitira egitate artistiko batean. Horrenbestez, zuzenagoa iruditzen zaigu Leturiaren egunkari ezkutuak euskal eleberrigintzako modernitatea berez mugarritzen duela baieztatzea, bilatzen den poetikarekin bat zetozen estrategia narrazioak egokitu baitzizkion eleberri tipologia berri bati, existenzialistari...⁹⁸

Horrela bada, *Leturiaren egunkari ezkutuak* euskal eleberri modernoari eginiko ekarpenak, ez dira euskal eleberri modernoaren ezaugarri moduan bakarrik definituko, eleberri tipologia berri baten ezaugarriak ere izango baitira. Hau da, eleberri existenzialistarenak.

Aipatu berri dugun ideia hau defendatzeko, Mauro Jiménez-ek 2011 urtean *Teoría y crítica de la novela existencialista* izenburupean defendatu zuen tesia⁹⁹ hartuko dugu oinarritzat. Mauro Jiménez-en arabera eleberri existenzialistaren baitan ematen diren ezaugarrietako batzuk honako hauek lirateke:

La novela existencialista puede caracterizarse como un tipo de narrativa que surge en la Europa del período de entreguerras y mantiene un estrecho vínculo con la filosofía de su momento histórico, especialmente con el existencialismo, la fenomenología y la hermenéutica ontológica. [...] ¹⁰⁰

Irakurri dugunaren arabera, eleberri existenzialista, Europan gerrate arteko garaian erabiltzen zen narrazio motarekin identifikatu daiteke. Izan ere, garai hartan indarrean zeuden korrante filosofiko garrantzitsuenetan oso presente baitzegoen eleberri existenzialista, bereziki, existenzialismoaren, fenomenologiaren eta hermeneutika-ontologikoaren eremuan¹⁰¹.

Eleberri existenzialistak existenzialismoarekin zuen harremana aztertzerako orduan, bestalde, funtsezkoak izango da existenzialismoa bezala ezagutzen dugun korrante

⁹⁸ Olaziregi, M.J. In: EHH 71-72 orr.

⁹⁹ Jiménez, Mauro. *Teoría y crítica de la novela existencialista*. Madrid, 2011. Presentada en el Departamento de Lengua Española y Teoría de la Literatura y Literatura Comparada para optar al grado de doctor. Hemendik aurrera lan hau aipatzeko TCNE laburdura erabiliko dut.

¹⁰⁰ Ibid., 9 or.

¹⁰¹ Aurrerago ikusiko dugun bezala autore batzuk filosofia existenzialistaren eta existenzialismoaren arteko bereizketa egiten dute. Existenzialismoa 40. eta 50. hamarkadetan sortutako korrante filosofiko moduan definitzen da eta filosofia existenzialista, bestalde, gai existenzialistak lantzen dituzten korrante filosofikoak izango lirateke. Hala nola, Humanismoa, Fenomenologia, Pertsonalismoa, existenzialismoa eta abar

filosofikoaren jatorriak azaltzea. Bi izango dira existenzialismoaren jatorri gisa nabarmenduko ditugun iturburuak. Aurrena, existenzialismoa urte haietan bizi zen Arrazoiaren aroaren aurkako erreakzio moduan definituko genuke. Izan ere, garai hartako korrante filosofiek eta sistemek arrazoiaren gaitasuna goraiatzeko zituzten eta arrazoa akatsik gabeko elementu bezala ikusten zuten gero, arazo guztien ebazpena arrazoizkoak izan behar zutela usten zuten. Hala, arrazoiaren eremutik kanpo aurkitzen ziren gainontzeko elementuak bigarren maila batean geratzen ziren.

Existenzialismoaren bigarren jatorria, gizakiarengana itzultze saiakera gisa konprenituko da. Hau da, hezur-haragizko gizabanakoarenganako gerturatze moduan, non bere bizipen bitalek, kontraesanek eta beldurrek, erabateko protagonismoa hartuko duten. Garaiko zientziatasunak, gizakiaren sentimenduen eta bizipenen baztertzeko ekarri zuten. Hori dela eta, existenzialismoak, baztertuak izan ziren elementu hauek hartu eta bere pentsamenduaren abiapuntuan bilakatu zituen, garai hartan ematen ari zen deshumanisazioari aurre eginez. Norberaren existentzia zalantzan jartzen duen hezur-haragizko gizabanakoa izango da, hortaz, protagonista nagusia.

Aldi hartako eleberrigintzak, garai hartan existenzialismoak hartzen ari zen indarra ikusirik, eleberrigintza berri bati emango dio hasiera. Tematika existenzialista honek, beraz, narrazio mota zehatz bat ekarriko du berarekin. Hala, existenzialismoaren eta literaturaren arteko lotura ez da edukietara edota tematikara bakarrik mugatuko, pertsonaien garapenean, eleberriaren egiturak eta denbora-espazioaren trataerak ere zeresan handia izango dute:

Pero si la conexión entre la literatura y la filosofía existencial acontece, no es sólo en el plano del contenido, sino también en la configuración de los personajes, en la disposición de la trama, en su proyección pragmática hacia sus potenciales lectores, en el imaginario convocado y en las digresiones de raíz ensayística, entre otros posibles planos de conexión ¹⁰²

Eleberri existenzialistetakako pertsonaiei dagokionez, Mauro Jiménez-en iritziz, izaera oso hausnartzailea izango dute. Ondorioz, pertsonaiek bizi duten krisi existenziala izango da narrazioaren abiapuntua. Ideia honekin batera, eleberri existenzialistetan hain esanguratsua den beste ezaugarri bat nabarmenduko du Mauro Jiménez-ek. Hau da, gizabanakoaren gogoetak ekintza bera baino presentzia handiagoa izatea.

¹⁰² Jiménez, Mauro. In: TCNE 9 or.

[...] La novela existencialista, como expresión interna de la narrativa filosófica, juega con la perspectiva del sujeto que cuestiona su propia existencia y el sentido de la vida como base para su ficción realista.¹⁰³

El personaje es en las novelas existencialistas el eje del desarrollo narrativo. Al establecer su crisis existencial el origen y la causa de la narración, el resto de técnicas narrativas giran en torno a su evolución y necesidades formativas.¹⁰⁴

[...] Los personajes centrales de las novelas existenciales poseen un carácter excesivamente reflexivo. Tal característica provoca una sobreestimación del pensamiento sobre la acción, convirtiéndose esta dialéctica—reflexión/acción— en una constante, incluso cuando la reflexión tenga como objetivo la realización de una acción que produzca la superación de la crisis.”¹⁰⁵

Eleberri existentzialistetako pertsonaien beste ezaugarri garrantzitsuetako bat zera izango da: *askatasunak* beraiengan duten presentzia. Bakoitza jaio garen lekuak eta garaiak neurri batean bakarrik mugatzen gaituzte. Hortaz, une oro, gure burua sortzen edo asmatzen ari gara. Neuk erabakitzen dut zer nahi dudana izan. Horrela bada, “ni” eta nire ekintzak izango dira gertatzen zaidan ororen erantzule bakarrak eta izango garena, gure erabakien eta ekintzen emaitza izango da. Existentzia ez da izatea, ez da egoera bat, ekintza bat baino. Existentzia, bada, “posible” izate hutsaren eta “errealitate” izatearen arteko iraganbidea izango da. Hau gizakiaren pribilegia izango da, baina ez da beti burutua izango den zerbait izango, zeren kasu askotan ardiak legez “masen” norabidean mugitzen gara, “ustezko zoriontasun bat” gureganatuz. Jarrera honek, ordea, aurrez ezarritako moral baten arabera bizitzea suposatzen du, hots, erabakirik ez hartzea, erantzukizunik ez izatea. Egia da jarrera honek nolabaiteko lasaitasuna dakarrela berarekin, baina zoriontasun hau, ordea, azalekoa izango da. Izan ere, askatasunik gabeko testuinguruaren baitan garatua izan da. Hala, jarrera hau, jarrera *inautentiko* moduan definitua izango da.

La ética existencialista plantea la libertad como el gran problema al que debe hacer frente el hombre. Los personajes de la literatura existencial mostrarán con sus acciones y con sus decisiones el carácter trágico de la vida humana, una existencia condenada a la libertad. [...] Frente a las filosofías racionalistas que desconfían de la experiencia, el existencialismo da especial importancia a la experiencia como validación última personal capaz de otorgar sentido. La ética existencialista toma como principio la responsabilidad en la elección ...¹⁰⁶

[...] Los personajes de las novelas existencialistas no son héroes al modo clásico, esto es, predestinados por la estrella del destino o hereditarios de una labor familiar. Mediante la configuración de unos personajes que deben sostener la dignidad de su existencia desde sus acciones se posibilita una lectura con consecuencias vitales en el lector. [...] El existencialismo, sin embargo, mantendrá que el hombre será lo que con sus actos consiga y no lo que un programa o un

¹⁰³ Ibid., 16 or.

¹⁰⁴ Ibid., 341 or.

¹⁰⁵ Ibid., 345 or.

¹⁰⁶ Ibid., 346 or.

dictado anterior a su existencia le marque, ya que someterse a los sistemas externos a sí mismo no es más que un síntoma de vivencia tranquila al precio de dar la espalda a una vida auténtica ¹⁰⁷

Mauro Jiménez-ek azaldu berri dizkigun eleberri existentzialistetako pertsonaien ezaugarri hauek, aitzitik, bat egiten dute gure Leturiarekin, bereziki, Miren utzi eta Parisera joatea erabakitzen duenean. Une honetan, nahiz eta gehiengoek ongi ez ikusi hartu duen erabakia, Leturiak lehentasuna emango dio bere barne nahiari.

Mauro Jiménez-ek nobela existentzialisten baitan azpimarratuko duen beste ezaugarrietako bat, halaber, *Leturiaren egunkari ezkutua*ren baitan ere ematen dena, egunkari moduan idatzitako eleberriek duten presentziarena izango da. Egunerokoetan gizabanakoaren esperientzia pertsonalek presentzia handia izango duten, batik bat, lehen pertsonan idatziak direnean.

La escritura existencial es fundamentalmente una escritura del yo. El existencialismo tuvo como una de sus causas la revuelta frente al objetivismo científico ante el cual yergue la experiencia del sujeto en primera persona, su vivencia y su experiencia del mundo. [...] El existencialismo filosófico muestra en su misma especulación la importancia de la escritura personal como actualización cogitativa de una verdad transida de experiencia. Sin comprender esto no podemos leer adecuadamente a Kierkegaard, Nietzsche, Unamuno, Sartre o Camus. Al ser la novela existencialista una narrativa expresada sobre todo en primera persona, ésta entra en conexión con otras modalidades textuales como la autobiografía y el ensayo, el diario y la carta, todos ellos textos que aparecen en primera persona y orientados hacia la digresión. ¹⁰⁸

Narrazio existentzialistaren baitan nabarmenduko den beste alderdi bat denboraren eta espazioaren trataerari ematen zaion garrantzia izango da.

Denborari dagokionez, narrazio existentzialistaren baitan, denbora ez da zientziak erakutsi digun instant batean ematen den jarraipen objektibo moduan ulertuko. Denboraren erritmoa, hortaz, ez da zientziak denbora neurtzeko ematen digun magnitudeekin neurtuko. Eleberri existentzialistaren kasuan, gizabanakoaren bizipenek denboraren ikuspegi ez zientifikoa eskainiko dizkigute eta, ondorioz, gizabanakoaren krisi pertsonalek markatuko dute denboraren erritmoa.

El pensamiento existencialista considera que el tiempo es falsificado ontológicamente si es entendido como una infinita, cuantitativa y objetiva sucesión de instantes. Probablemente esta consideración del tiempo esté justificada en el

¹⁰⁷ Ibid., 375 or.

¹⁰⁸ Ibid., 445-446 orr.

mundo de la objetividad científica de los laboratorios; sin embargo, no puede caracterizar la experiencia vivida que el hombre posee del tiempo. [...] La temporalidad como conciencia subjetiva propia de un sujeto en crisis, como lo son los personajes existencialistas, no puede evitar su modificación a causa de la angustia y su opresión paralizante. Desde la angustia el proyecto vital del sujeto se paraliza debido a una incapacidad para la decisión. La decisión es sustituida por una huida hacia delante o simplemente con la continuidad de la actividad habitual. Sin embargo, hasta que no se resuelva el problema, la conciencia del tiempo desembocará una y otra vez en la opresión angustiosa. La actividad humana que encuentra sentido con la superación de lo dado y la creación de sentido halla en la angustia de la crisis existencial cómo se paraliza el proyecto en un presente continuo.¹⁰⁹

Egia da, *Leturiaren egunkari ezkutuan* denboraren tratamenduak urte-sasoien bilakaeran duela oinarria, baina azpimarragarria da era berean Leturiak biziko dituen krisi aldiek idaztera bultzatu izana. Zergatik ote? Krisi existentzialistari irtenbide bat eman eta bizitzari zentzu bilatze moduan planteatuko du egunkaria gure Leturiak. Horrela, egunerokoa idaztea krisi existentzialak berarekin dakarren proiektu bitalaren gelditzea saihesteko modu bat izango da. Hori dela eta, udan, zoriontsu dela uste den aldian, egunkaria idazteari utziko dio eta krisi existentzialak bizi dituen aldietan, aldiz, idazteari ekingo dio.

Mauro Jiménez-en arabera, espazioaren trataerak ere toki berezia izango du eleberri existentzialistetan. Espazio urbanoaren edota kaletarraren presentzia determinantea izango da eta Leturiarengan ere hala izango da (*Zerubide* parkea eta Paris izango dira espazio urbano hauek).

El espacio es también un componente narrativo fundamental en el desarrollo de la acción. La descripción pormenorizada de accidentes geográficos o de calles de ciudades modernas no son fragmentos carentes de sentido [...] Un mundo reducido en la modernidad a la materialidad y despojado de lugares ideales ofrece al individuo la especialidad de una geografía social donde debe desarrollar su ser. En este sentido, la ciudad es una geografía social compuesta de huellas del pasado y de signos de un presente que o bien le favorecen o bien le entorpecen su objetivo existencial. Así, el personaje, como el individuo histórico, puede sentir la ciudad como una morada o como una cárcel, como un lugar para el encuentro y el desarrollo personal o como un espacio que le domeña, le aprisiona y le controla.¹¹⁰

Leturiaren kasuan, bai parkea, bai Pariseko kaleak, gogoeta gune izango dira. Izan ere, bere barne gogoeta sakon gehienak testuinguru hauetan garatuko dira. Espazio urbanoa, beraz, bere buruarekin bat egiteko marko moduan aurkezten zaio Leturiari.

¹⁰⁹ Ibid., 394-396 orr.

¹¹⁰ Ibid., 400-401 orr.

Así pues, podemos afirmar que dos aspectos fundamentales de la novelística existencial son la temporalidad y la espacialidad, ya que son utilizadas por el escritor existencialista como elementos narrativos que introducen de forma natural en el discurso de la novela la particular visión del mundo del existencialismo filosófico.¹¹¹

Espazioaren eta denboraren gaiaz gain, Mauro Jiménez-ek bere tesian beste aspektu batzuk ere lantzen ditu. Kasu honetan, ordea, azpimarragarrienak direnak bakarrik aipatu ditugu.

Horrela, bada, puntu hauen lanketekin argi geratzen dena zera da: Leturiak egitate nobelesko berri bat ekarri zuela berarekin. Narrazio estrategia berri bat, zeina eleberritipologia berri bati egokitzen zitzaion. Hau da, existenzialistari.

1.7.3. *Leturiaren egunkari ezkuaren* ekarpenak Euskal eleberrigintza modernoan (1. go irudia).

Gauzak honela, *Leturiaren egunkari ezkuaren* ekarpena eleberrigintza modernoan zein izan den zehaztea ez da gauza samurra izan, zeren *Modernitatearen* kontzeptua eleberrigintzan aplikatzea ez da erraza. Hala eta guztiz ere, prozezu honetan hiru fase ezberdin nabari direla ondorioztatu dugu.

¹¹¹ Ibid., 416 or.

1. go fasea

Modernitatearen kontzeptua Euskal eleberrigintzan aplikatzea erreza ez izan arren euskal literatura kritikariek *Leturiaren egunkari ezkutuarekin*, 1957. urtean, kokatzen dute euskal literatura modernoaren hasiera.

Labainkorra izan da prozesua zeren kasu batzuetan modernitate tematikoaren eta formularen arteko bereizketa egin izan da.

Hasiera baten, modernitate tematikoa kontutan hartuz gero, *Leturiaren egunkari ezkutuarekin* eman zen euskal eleberrri modernoaren hasiera. Formari dagokionez, aldiz, Ramon Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako eleberriri* (1969) egozten zitzaion modernitatearen hasiera. (*Nouveau Romanen* eragina)

Bereizketa honek eman zuen Lasagabazter 1981. urtean Euskal eleberrigintza modernoaren bilakaera bi garaietan sailkatzera: 1957-1969 Existentzialismoak markatua eta bigarren aldia 1969 hasi eta gaur egun arte.

Horrela bada, ikuspegi hau kontutan hartuz gero, *Leturiaren egunkari ezkutuak* egin zuen ekarpen nagusia ekarpen tematikoa izan zen. Ekarpenean hau, bestalde, existentzialismoaren baitan lantzen diren gaiek osatzen dute, hots, askatasuna, autentikotasuna, larritasuna eta konpromezua bezalako ideiek.

2. fasea

Jesus Maria Lasagabasterrek, Juan Luis Zabalak 2006ko martxoaren 8an eginiko elkarrizketan honako hau aitortzen digu: «*Hala ere, uste dut ez dela guztiz egia orduan esan nuena. Txillardegik euskal nobelagintzan mundu moderno bat martxan jarri zuen Leturiaren egunkari ezkutuekin, eta hori ezinezkoa izango zitzaion formaren aldetik ere zerbait berria eta modernoa egin ez balu*».

Hortaz, *Leturiaren egunkari ezkutua*ren ekarpena ez da bakarrik tematikora mugatuko, forma aldetik ere zeresan handia izango du:

- 1- Nobela intelektualala.
- 2-Egunkari forman idatzia eta lehen pertsonaren erabilpena.
- 3-Joseba Leturia lehen Euskal heroia gatazkatsua.
- 4- Pertsonaia kaletarra.
- 5-Euskarari dagokionez.

3. fasea

Mari Jose Olaziregiren planteamendua:

Bat gatoz M. Butorrekin «errealitate bakoitzari narrazio-mota bat dagokiola» dioenean (ik. *Sobre literatura*), eta horregatik uste dugu eleberri bakoitzak egitate nobeleskoa ulertzeko era berri bat, poetika berri bat daramala bere baitan. Horren arabera, eta gaurtik ikusita, ez da zuzena euskal eleberrigintza modernoaren bilakaera azaltzerakoan modernitate tematikoaren eta modernitate formalaren artean bereizketa egitea, bi alderdiak banaezinak baitira egitate artistiko batean. Horrenbestez, zuzenagoa iruditzen zaigu Leturiaren egunkari ezkutua euskal eleberrigintzako modernitatea berez mugarrizten duela baieztatzea, bilatzen den poetikarekin bat zetozen estrategia narratiboak egokitu baitzizkion eleberri tipologia berri bati, existenzialistari... In: Olaziregi, M.J.: *Euskal eleberriaren historia: Santiago Onaindia ikerketa beka 1999/* Labayru Ikastegia, Bilbao: 2002, 71-72 orr.

Idea hau indartzeko *Mauro Jiménez-ek* doktore gradua lortzeko aurkeztu zuen lana hartuko dugu aintzakotzat: *Teoría y crítica de la novela existencialista (2011)* . Honen arabera, gerrate arteko garaiko eleberrigintzak, garai hartan existenzialismoak hartzen ari zen indarra ikusirik, eleberrigintza berri bati emango dio hasiera. Tematika existenzialista honek beraz, narrazio mota zehatz bat ekarriko du berarekin, non existenzialismoaren eta literaturaren arteko lotura ez den edukietara edota tematikara bakarrik mugatuko. Izan ere, pertsonaien garapenek, eleberriaren egiturak eta denboraren eta espazioaren trataerek garrantzi handia izango dute.

Orain arte, *Leturiaren egunkari ezkutua* euskal eleberrigintza modernoari eginiko ekarpenak azaldu ditugu, baina ez diogu entzungor egin *Leturiaren egunkari ezkutua*ren inguruan sortu ziren eztabaida eta kritikei. Aztertu berri ditugun eztabaidetatik ondorioztatzen ditugun ideia nabarmenenak, euskararen eta euskalgintzaren ingurukoak dira. Baina horren azpian ezkututzen den eztabaida nagusia zein da?

Iñaki Bastarririkak,¹¹² M. A. Elustondok 2009ko maiatzaren 24an *Berria*n egin zion elkarrizketan honako hau esan zuen:

[...]Ikasketak amaitu eta alde egin nuelako, fraide, Kubara! Txillardegik nobela hura idatzi zuen. Hasi nintzen irakurtzen eta –hau ez dut behin ere esan–, uste nuen Txillardegik gurekin batera lan egin behar zuela. Iruditu zitzaidan Leturia...idaztea denbora alferrik galtzea zela. Talentu handi bat alferrik galtzea zela ziruditen, orduko une larri hartan. “Euskal Herrian ditugun problema guztiak eta Txillardegi, Leturia idazten!”. Alegia, oinarritzko problemak, ze nik dena galtzen, desagertzen ikusten nuen: hizkuntza, kultura, jende asko zetorren kanpotik eta jango ote gintuzten beldurrez geunden, geure begien aurrean identitatea galtzen ari ginen... Txillardegi, berriz, Leturia... Unamunori buruz esaten zutena: ez zekitela seguru benetan existentzialista zen, edo letren munduan bere burua erakutsi nahi ote zuen. Nire ustez, Txillardegik bazuen hortik. Ez dakit zertan zen idatzi nion kritika, baina badakit “hori denbora alferrik galtzea!, jakituria alferrik galtzea, euskaldunok ditugun problemen inguruan jardun beharko lukeenean!”...

Txillardegik bestalde, *Punto y hora-n* 1978ko martxoan, Yon Rekaldek egin zion elkarrizketan honako hau esan zuen :

Estaba hartu de la idea que existía de que para ser vasco había que ser de caserío. Consideraba que ya no estábamos en la fase rural, que había que urbanizar la lengua y la temática. En aquel momento me encontraba muy cerca de los existencialistas y eso influyó en mi primera novela, que fue recibida con una enorme protesta general. Me pusieron a parir. Michelena y alguno más fueron los que me defendieron y, por supuesto, Orixe y todos los hombres del «establishment» me criticaron. A pesar de todo, no le dí demasiada importancia y escribí otra en la que pasé de la tentación existencialista a la budista. Estas dos obras me convirtieron en el novelista contestatario del momento¹¹³.

Hitz hauek irakurri ondoren, argi geratzen dena zera da: *Leturiaren egunkari ezkutua* sortu zituen eztabaidak, euskal eleberrigintzaren modernitatearen eta tradizioaren dikotomiaz haratago doazela. Ikusi ditzagun, beraz, zeintzuk diren planteamendu hauek eta, bide batez, guzti honetan existentzialismoak zer eragin izan duen.

¹¹² Elustondo M.A. “Ezkutuan sortu genuen ‘Yakin’ Arantzazun”. In: *Berria*, 2009ko maiatzaren 24an . www.berria.info/dokumentuak/dokumentua507.pdf Azkenengo aldiz, 2015ko irailaren 10an kontsultatua.

¹¹³ Rekalde, Yon. «Txillardegi» *entre cultura y la política*. In: *Punto y hora de Euskal Herria.*, N80° (23-29 mar. 1978), 17 or.

Ondorengo pausoa, hortaz, existenzialismoak Txillardegirengan izan duen eragina aztertzea izango da. Horretarako, aldez aurretik, existenzialismoa zer den eta Kierkegaarden eta Unamunoren pentsamenduen nondik norakoa azaltzera pasako gara. Puntu honi eskainiko diogu hurrengo atal.

(2) _____

EXISTENTZIALISMOAREN DEFINIZIOA ETA JATORRIAK

SØREN KIERKEGAARD (1813-1855)

MIGUEL DE UNAMUNO (1864-1936)

2. ZER DA EXISTENTZIALISMOA?

Aldez aurretik, existentzialismoaren definizioa ematen saiatuko gara. Egia da, Emmanuel Mounier-ek *Introducción a los existencialismos*¹¹⁴ lanean adierazten digun moduan, existentzialismoa XX.mendean modan egon zen korronte filosofiko bat izan zela:

El último absurdo del siglo tenía que ser la moda del existencialismo: la entrega al parloteo diario de una filosofía cuyo sentido es librarnos, precisamente, del parloteo. Antes, los atolondrados e irreflexivos tenían el instinto suficiente para contentarse con saborear tan sólo la espuma del pensamiento cuando querían achisparse, en su atolondramiento, con las burbujas de bellas frases. Los atolondrados de hoy son tan irreflexivos que, buscando nuevos excitantes, han caído precisamente en el enjambre de doctrinas que introduce toda reflexión condenando el atolondramiento. Pero ni se han dado cuenta. La angustia del mundo encerrada en los límites de un café donde se charla, y ya sus corazones quedan satisfechos. Esta es la primera mala fortuna del existencialismo. Pero esta grotesca desgracia ya despierta el interés. El escarnio, en general, frecuenta el atrio de los dioses.¹¹⁵

Baina azaleko definizioa hau alde batera utziaz, Mounier-ek Heidegger-en pentsamendutik sortua izan zen filosofia existentzialistaren¹¹⁶ azken korronte filosofiko moduan definitzen du existentzialismoa. Horrela, bada, Mounier-entzat existentzialismoa, oro har, nahiz eta ez izan etsipenaren deiadar sutsua, giza etsipenaren inguruan gogoeta gehien egin duen pentsamoldea izan da.

¹¹⁴ Mounier, Emmanuel. *Introducción a los existencialismos*/ Guadarrama, Madrid: 1973. Hemendik aurrera lan hau aipatu behar dudana bakoitzean IAE laburdura erabiliko dut.

¹¹⁵ Ibid., 11 or.

Gauza antzekoa esango digu, Paul Strathern-ek *Kierkegaard en 90 minutos : (1813-1855)* lanean:

Los intelectuales del París de la posguerra estaban desesperados: ya no había nada en qué creer. El surrealismo, que había ganado credibilidad intelectual anunciándose a sí mismo como absurdo, era visto ahora como ridículo. Los intelectuales franceses hallaban difícil creer en el comunismo (aunque ciertamente lo intentaron) después del ascenso de Stalin. Entonces llegó el existencialismo, que no exigía de uno el creer en nada en absoluto, sino que más bien enfatizaba que la desesperación forma parte de la condición humana. El existencialismo se hizo moda y se extendió más allá de los cafés de la Orilla Izquierda para llegar a los cafés del Greenwich Village, de Londres y a los lugares frecuentados por los beatniks de San Francisco. Atrajo también la atención en las universidades a ambos lados del Atlántico, de modo que el existencialismo fue a la vez filosofía de café y universitaria, una mezcla inusual de lo espurio y lo profundo. Resultó atractiva a los artistas, escritores, filósofos y charlatanes, todos los cuales aportaron su contribución a su expansión. Fue antecedente de las sucesivas modas de las décadas siguientes: conductismo, estructuralismo, posestructuralismo y demás. 8-9 orr.

¹¹⁶ Beranduago ikusiko dugun bezala, Pedro Fontan Jubero-k *Los Existencialismos: Claves para su comprensión* lanean existentzialismoa eta filosofia existentzialaren arteko bereizketa egingo digu.

Dena den, existenzialismoaren esanahi hertsia emanaz gero, filosofia oro existenzialista dela esan dezakegu. Izan ere, zer izango litzateke bada filosofia giza existenziaz galdetuko ez balu?

Termino orokorretara joanez gero, aldiz, ideien filosofiaren eta gauzen edo objektuen filosofiaren gehiegikeriaren aurrean “gizakiaren filosofiak” izan duen erantzun edo erreakzio moduan definituko genuke existenzialismoa. Ondorioz, azkenengo ikuspegi honekin geratuz gero, existenzialismoak aitzindari askoren babesa izan duela esan dezakegu. Hala nola, Sokrates-ena, estoikoena, San Bernardo-rena, eta abar.

[...]Es el llamamiento de Sócrates oponiendo, a los sueños cosmogónicos de los físicos jónicos, el imperativo interior del «Conócete a ti mismo». Es el mensaje de los estoicos llamando al dominio sobre uno mismo al enfrentamiento del destino, a estos griegos infatigables en los juegos ligeros del sofisma y de la dialéctica. Es también San Bernardo al salir en cruzada, en nombre de un cristianismo de conversión y de salvación, contra la sistematización de la fe por Abelardo...¹¹⁷

Pentsalari guzti hauen artean, ordea, nahiz eta Pascal-ekin eman existenzialismo modernoaren hasiera, Kierkegaardek izan du eskola honen aitabitxi titulua. Dena dela, Kierkegaarden pentsamenduak XX.mende hasiera arte itxaron beharra izan zuen alemanierara itzulia izateko eta Frantzian, gerrateen arteko garai ilunera arte, ez zen ezagutzera eman.¹¹⁸

Kierkegaard hegeliar ideliasmoaren, hots, “sistema absolutuaren”, aurka altxatu zen gogolari moduan agerrarazi zaigu eta Mounier-en “existenziaren zuhaitza” kontutan hartzen badugu ¹¹⁹, aitzitik, Kierkegaard izango da “zuhaitz” honen “anduia” edo “enborra”.

¹¹⁷ IAE, 13 or.

¹¹⁸ Maine de Biran-ek ere zori bera pairatu beharra izan zuen bere herrialdea zen Frantzian. Izan ere, apenaz ez zuen (eta ez du gaur egun ere) oiartzunik izan bere pentsamenduak. Mounier-ek ordea, honako hau esaten digu Maine de Biran-eri buruz : Maine de Biran afirmó la autoridad de la existencia comprometida en el esfuerzo contra la degradación del hombre por las filosofías sensualistas del siglo XVIII. IAE, 14 or.

¹¹⁹ Beranduago ikusiko dugun bezala, Mounier-ek pentsamendu existenzialista azaltzeko zuhaitz baten irudikapena egingo du.

Enbor hau bi adar handitan banatua egongo da: lehena kristaua (antzinako enbor kristauan txertatua izango dena); eta bestea, Nietzsche-ren pentsamendurekin sortutako den existentzialismo ateoarena.

Kristau ikuspegiari dagokionez honako hau esango digu Mounier-ek:

Eminente dignidad, frente a la naturaleza, de la imagen de Dios, rescatada y evocada por el Cristo encarnado; primacía de los problemas de salvación sobre las actividades de saber y de utilidad. ¿Hay clima ontológico mejor preparado para recibir la exigencia existencialista? ¿No cabría mejor decir que el existencialismo es otra forma de hablar el cristianismo? Esta sería, seguramente, la respuesta de Pascal y de Kierkegaard a los periodistas aquejados por la fiebre de las entrevistas. Por eso no bautizan a su filosofía con un nombre nuevo.¹²⁰

Alta, jarrera existentzialistarekin, testigantza oinarritzat duen komunikatze ebidentzia jartzen da “Kristau ebidentziaren testigu” moduan eta ez arrazoiaren bidez ematen dena. Adar honek fruitu emankorrenak alemaniar fenomenologiaren baitan ezagutuko ditu. Korrante honen kide ditugu, beraz, Scheler, Jaspers, Pablo Luis Landsberg, Soloviev, Chestov edota Berdiaff bezalako pentsalariak. Hori dela eta, nahiz eta pentsalari hauek kristau jatorria izan, beraien eraikuntza doktrinalarekiko kristau lasai eta konformista gisa ez dira aurkeztuko.

[...]Un Scheler ha pasado varias veces de la ortodoxia a la independencia, de una a otra confesión. Un Jaspers, que ha erigido lo inacabado en criterio de la existencia humana, no puede ser llamado filósofo cristiano, aunque todos los movimientos de su pensamiento, exceptuando quizá el último, se desarrollen en pleno fermento cristiano. Nadie está más cerca que él de Kierkegaard y de sus abruptos paisajes. Pablo Luis Landsberg, cuya obra quedó prematuramente interrumpida en el campo de concentración de Orianenburgo pertenecía al mismo grupo. Una derivación rusa pasa por Soloviev, Chestov y Berdiaeff.¹²¹

Judutar adaxkari dagokionez, Buber-en ideietara garamatza zuzenean. Korrante honi jarraiki, Karl Barth-en *teologia dialektikoa* aipatu beharrean aurkitzen gara. Izan ere, *teologia dialektikoari* esker gaur egungo pentsamenduan Kierkegaarden ideiak ezagutzera eman dira.

Mounier-en “zuhaitz” honi Bergson-en positibismoarekin eman zen gizakiaren objektibizazioaren aurkako jarrerari dagokion beste adaxka bat gehituko zaio. Gauzak honela, Peguy-en eta Claudel-en hitzetan bergsonismoaren oihartzunak entzungo diren bezalaxe, Bergsonengan ere gai existentzialisten eragiteak nabaritu dira.

¹²⁰ IAE, 14-15 orr.


¹²¹ IAE, 15or

Aitzitik, ezin gaitezke Blondel-en *immanentziaren metodoa* eta Lucien Laberthonnière-en lanak osatzen duten adaxka aipatu gabe joan eta, ez hori bakarrik, Mounier-en kristau pentsamenduari eskaintzen dion zerrenda zerratzeko, Gabriel Marcel ahotan hartu beharrean aurkitzen gara. Izan ere, frantziar existentzialismo kristauaren oinordeko nagusiena berau izan zen.

Mounier-en “zuhaitz existentzialistagandik” eratorriko zaigun beste adar sendoa, lehen esan dugun bezala, Nietzscheren pentsamendurekin sortuko den ikuspegi ateoarena izango da. Nietzschek, Kierkegaardekin gertatu zen bezalaxe, Jainkoaren presentzia inondik ere sumatzen ez zuten etsipenezko bihotzak agertu arte zain egon beharra izan zuen bere ideiek garaiko pentsamenduan toki bat izan zezaten. Abagune honetan, gizakiarengan, estoizismo berri bati hasiera eman behar zitzaionaren ideiak indarra hartzen joan zen. Izan ere, “larritasunaren filosofia” honek arrazionalismo modernoari uko egiteaz gain, “ezerezarekin” aurrez aurre jarriko du gizakia. Hemen izango du abiagunea Heidegger-engandik hasi eta Sartrearengana iritsi arte emango den existentzialismo ateoak. Gaur egun larregi erabiltzen den existentzialismoaren ikuspegiak alegia.¹²²

¹²²Normalki, Existenzialismoa aipatzean dugunean, Heidegger-etik hasi eta Sartrearen pentsamendura arte ematen den ildo ateoak izaten da aipatuena, gainontzeko ikuspuntuak bigarren maila batean utziaz.

2. irudia: "Mounier-en zuhaitza"



Arbol existencialista.

Pedro Fontan Jubero-rentzat, aldiz¹²³, Mounier-ek planteatzen duen “zuhaitzak” existenzialismoaren eremu zabal bat hartzen du bere baitan, gaizki ulertu asko sortaraziz.

Ikusi dugunez, Antzinaroko, Erdi Aroko eta gaur egungo korrante filosofiko asko existenzialismo moduan definituak izan dira. Hola, Fontan Jubero-k gaizki ulertu hauek saihesteko, filosofia existenzialistaren eta existenzialismoaren arteko diferentziak azalduko dizkigu.

Esta clasificación del francés Mounier es, por supuesto, excesiva, y fuente de confusión. Todos estos filósofos que llevan a cabo un análisis no sistemático, con ausencia de método, de la existencia, podrían ser denominados, en todo caso, filósofos de la existencia, pero no existencialistas. El nombre existencialismo debe reservarse, según hemos ya defendido, para aquellos filósofos que llevan a cabo un análisis sistemático de la existencia mediante el uso del método fenomenológico. En este sentido el existencialismo es un fenómeno privativo del siglo XX. Kierkegaard puede considerarse, tal como lo hemos argumentado antes, como un filósofo preexistencialista. Un solitario del siglo XIX cuya temática antihegeliana será el núcleo potencial que inspirará el nacimiento del existencialismo.¹²⁴

Fontan Jubero-ren arabera, Kierkegaard ez da zentzu hertsian ulertuta existenzialismoaren pentsalaria izango, baizik existenzialismoaren bultzatzailea. Izatekotan, Fontan Jubero-ren ustez beti ere, eskola existenzialistaren sortzailea dugu Kierkegaard. Izan ere, bera izan zen XX.mendeko existenzialismoaren pentsalariak edango duten ideien, atmosferaren eta oinarrien iturburua. Kierkegaard, ordea, Fontan Jubero-ren arabera beti ere, ezin daiteke filosofo existenzialistatzat hartua izan zeren bere lanak teologikoak, erlijiosoak, mistikoak eta batez ere literarioak dira, baina ez filosofikoak. Antza denez, Fontan Jubero-ren iritziz, obra bat filosofikotzat kontsideratua izateko sistema baten beharra dauka eta Kierkegaardengan ez dugu inongo sistemarik aurkituko.

Existenzialismoa, hortaz, Fontan Jubero-ren aburuz beti ere, gai existenzialistak aztertzerako orduan metodologia filosofiko bat egokitu zitzaionean sortu zen. Metodo filosofiko hau, Edmund Husserl-ek XX.mendeko lehen hamarkadan sortu zuen fenomenologia izango da.

¹²³ Fontan Jubero, Pedro. *Los existencialismos: claves para su comprensión*/ Ediciones Pedagógicas, Madrid: 1994


¹²⁴ Ibid., 36 or.

Husserl ez zen existentzialista, esentzialista baino. Baina existentzialismoaren helburuetara oso ongi egokitzen zen metodo kurioso bat proposatu zuen: fenomenologia. Metodo fenomenologikoaren xedea, bada, aurreiritzi abstraktuetan mugatzeari uko egitea eta fenomenoak kontzientziaren aurrean nola agertzen diren azaltzea izango da. Gertakari konkretuen aurrean, hortaz, ez da inolako dedukziorik edota interpretaziorik onartuko eta filosofia berehalako inpresioak deskribatzera pasako da. Edozein kasutan, metodo honek Kierkegaarden intuizioei forma erabat filosofikoa eskaintzeaz gain, XX.mendean existentzialismoa bezala ezagutzen dugun korrante filosofikoaren hasiera suposatuko du.

Hona hemen Fontan Jubero-k arestian esandakoaren laburpen gisa aurkezten dizkigun eskemak:¹²⁵

3. irudia: Pedro Fontan Jubero-ren “filosofia existentzialistaren” eta “existentzialismoaren” arteko bereizketa

FILOSOFIA EXISTENCIAL	EXISTENCIALISMO
Análisis no sistemático de la existencia individual.	Análisis de mi existencia mediante el método fenomenológico.



¹²⁵ Ibid., 36 or.

Existenzialismoa zer den definitu ondoren, Fontan Jubero-k existenzialismoaren baitan ematen den existenzialismo erlijiosoaren¹²⁶ eta ateoaren arteko bereizketa azaltzen digu. Bereizketa hau, bederen, Jainkoaren aurrean hartzen dugun jarreraren arabera definitua izango da. Argi dago, existenzialismo atea defendatzen dutenek transzendentziaren ideia ukatu egiten dutela. Zentzu horretan, beraz, absurdoaren ideiak erabateko presentzia izango du eta etsipenaren sentimendua areagotu egingo da. Existenzialismo erlijiosoak, bestalde, transzendentzia onartu egingo du eta, ondorioz, absurdoaren ideia baztertua izango da (giza existentziaren zentzu pesimistak eta dramatikoak, ordea, hor iraungo dute).

Horrenbestez, Fontan Jubero-ren arabera beti ere, existenzialismo ateoaren baitan egongo diren pentsalariak honako hauek lirатеke: Martin Heidegger Alemanian eta Jean-Paul Sartre Frantzia. Existenzialismo kristauari dagokionez, bestalde, Gabriel Marcel (frantziarra) eta Karl Jaspers (alemaniarra) egongo lirатеke.

Fontan Jubero-ren existenzialismoaren planteamendu honek, ordea, ez al digu existenzialismoaren baitan emango den lehen kontraesana bistaratzeko? Ikusi dugun moduan, Fontan Jubero-k existenzialismoaren eta filosofia existenzialistaren arteko bereizketa hau azaleratu digunean, sistemagarritasunaren irizpidea hartu du kontutan. Existenzialismoak, ordea, ez al du bada bere burua abstrakzioen eta sistemen etsai aurkezten?

Paul Roubiczek-ek *el existencialismo*¹²⁷ lanean, existenzialismoa Arrazoiaren Aroaren erreakzio moduan sortu zela esango digu. Arrazoiaren Aroan, aitzitik, arrazoia gizakiaren “gaitasun gorenena” bezala ikusten zen eta ezagutza, aldiz, unibertsa eta erabatekoa izatera pasako da, arrazoia Absolutuan bilakatuz.

Absolutu terminoak testuinguru honetan bi esanahi izango ditu: lehena, arrazoia errealitatearen azken elementua izango da. Beste elementuetatik eratorri ezin daitekeena alegia. Bigarren esanahiari dagokionez, aldiz, arrazoiaren gaitasunak ez duela mugarik

¹²⁶ Fontan Jubero-k existenzialismo teista bezala definituko duena. Beste autore batzuk Kristau existenzialismoa bezala ezagutzera emango dute.

¹²⁷ Roubiczek, Paul. *El existencialismo*/ Labor, Barcelona : 1968.

baieztatzera garamatza. Roubiczek-en arabera, ordea, arrazoiarekiko konfiantza hau irrazionala den zerbaitetan bilakatzen da. Izan ere, giza esperientziak kontutan hartuz gero, arrazoiaren mugak azaleratzeaz gain, pentsatzeko modu erabat arrazionalak, logikoak eta zientifikoak errealitatearen eremuaren zati txiki bat bakarrik bistaratzen dizkigutela agerikoa da.

Idea hau irudikatzeko Arrazoiaren Aroko Natur Zientziaren aspektu batzuk azaltzen dizkigu Roubiczek-ek.

La física es, quizá, la que entre las ciencias de la naturaleza ha hecho mayores adelantos. Los físicos modernos han descubierto cierta especie de realidad en el trasfondo o allende la realidad con que se enfrentan en sus experimentos: una realidad de otra clase, a la que algunos denominan «realidad absoluta». De esa realidad absoluta pueden obtener ciertos datos, por ejemplo el fundamental cuántum de acción en que se basa la teoría de los quanta; o sea, han descubierto que un átomo, por ejemplo, no puede emitir cualquier cantidad de energía, sino que para cada átomo hay un cuántum mínimo de ella, y toda cantidad de energía que de hecho emita ha de ser un múltiplo de ese mínimo cuántum. Esto, en todo caso, rebasa obviamente a la razón. ¿Por qué ha de haber esos límites? El físico se ve forzado a admitir que hay una realidad que, aunque pueda afirmarse en su existencia, no puede entenderse más acerca de en qué consiste o, como lo ha dicho Heisenberg,¹²⁸ que todo saber de esta clase se halla «suspense sobre un insondable abismo».

Biologian ere antzeko zerbait gertatuko da Darwin-ekin. Psikologia modernoari dagokionez ere subkontzientearen (inkontzientearen) aurkikundeak zeresan handia izango du.

El gran descubrimiento de la psicología moderna, el subconsciente o inconsciente, nos ha hecho reconocer que las acciones humanas son determinadas no sólo por intenciones e impulsos de los que caemos en la cuenta, sino también muchas veces -y más poderosamente- por urgencias, instintos e impresiones, por factores biológicos y por experiencias habidas en la infancia, todo lo cual no lo notamos. Estos elementos determinantes están hundidos en nuestro subconsciente y sólo los podemos conocer sacándolos a la superficie por difíciles procedimientos, y aun entonces nuestro conocimiento del subconsciente es muy escaso. Mas, evidentemente, la conciencia es la base de la razón: sin ella la razón no sería posible. Por lo tanto, si admitimos la realidad del inconsciente, admitimos con ello que la razón tiene limitaciones. Esta limitación psicoógica de la razón es quizá la más definitiva, porque la Edad de la Razón y su influencia se habían basado en la identificación del hombre con su conciencia: si el inconsciente tiene auténtico poder -cosa que hoy parece ya indudable- la razón no puede ser absoluta.¹²⁹

¹²⁸ Ibid., 10 or. Roubiczek-ek aldi berean, Heisenberg-en honako aipamena erabiltzen du: *Philosophic Problems of Nuclear Science*, Londres, 1952, p. 93. Ideia honek, bat egiten du baita ere, ondorengo atalean ikusi dugun bezala, Txillardegik zientziaren inguruan zuen ideiarekin.

¹²⁹ Ibid., 11-12 orr.

Nolanahi ere, egin berri ditugun baieztapenek indar handiago hartzen dute, batik bat, esperientzia pertsonalaz hitz egiten dugunean. Izan ere, lehen aipatu ditugun arrazoiaren ahuleziak areagotu egingo dira eremu honetan. (puntu honetan bat egingo du existenzialismoaren mamia izango den planteamenduarekin).

Natur Zientzian kualitatiboa kuantitatibora murriztua izan da. Jarrera honek gizaki behatzailearengan baino, metodologian eta neurtzeko tramankuluetan gehiago fidatzearen jarrera ekarri du berarekin. “Acaso el científico se interese apasionadamente por aquello que trae entre manos, pero sus teorías sólo se le aceptarán si resisten la prueba de la observación impersonal y de la experimentación; sus sentimientos deben quedar aparte en absoluto.”¹³⁰

Aldi berean metodo hau determinismoan oinarritzen da. Hau da, kausa-efektu erlazioan. Planteamendu hau, ordea, hots, determinismoaren ideia, ez da Natur Zientziaren eremuan bakarrik gauzatu. Kasu askotan bizitza praktikoaren eremuaren ere azaleratua izango da.

Existenzialismoaren arabera, gure esperientzia pertsonalak planteamendu honetara bakarrik murrizten baditugu, esperientzia oro kausa-efektu erlazioak dakarren determinismoaren arabera definituak izango dira eta, ondorioz, borondate askea, aukeratzeko askatasuna eta antzeko planteamenduak baztertuak izango dira (gizakiongan oinarritzkoa den erantzule sentitzearen esperientzia desagertutzat emanaz). Azkenengo hau gertatuko balitz, hots, erantzule izateari utziko bagenio, ez ginake gai izango zer dagoen “ongi” edo zer dagoen “gaizki” askatasun osoz erabakitzeke. Hortaz, ez ginake gure ekintzen jabe izango.

Sentimenduak objektibitate osoz pentsatzeak, bestalde, sentimenduak modu inpersonalean deskribatuak izatea dakar berarekin. Eta sentimenduen eremua era honetan azaltzea, kasu askotan ulergaitzak suertatzen zaigu. Izan ere, nahiz eta minaren deskribapen zehatza egin, hots, minaren prozesu fisiologiko-psikologikoa xeheki azaldua izan, mina sentitu arte ez dugu jakiten mina izatea zer den.

¹³⁰ Ibid., 12 or.

Y nunca el pensar externo (es decir, el modo de pensar que lo aborda todo desde fuera, objetivamente) nos capacitará para emitir juicios de valor fidedignos, ni siquiera para captar en manera alguna los valores de las cosas; como tampoco puede ocuparse de aquella verdad última en que se basan nuestras convicciones, pues hasta para aceptar que el saber científico es el único saber hace falta una decisión personal; ni puede interesarse en la bondad ni en la belleza. La moralidad la deja de lado porque, como acabo de decir, sin libertad de elección y de decisión no somos responsables de nuestras acciones y, así, se derrumba toda la concepción de la bondad y de lo moral.

Arrazoiketa hau jarraituz gero, transzendentziarekin zerikusia duten galderak ere ez dute tokirik izango. Hori dela eta, Zergatik jaio gara? (ez nondik gatozen, hau zientziak erantzuten digu) Zergatik gizaki oro hiltzera kondenatua dago? moduko galderak ez dute lekurik izango.

Izatez, galdera hauek pertsona orok bere esperientzia pertsonalaren baitan planteatzen dituen galderak dira, baina ezin dira kausa-efektu erlazioaren arabera azalduak izan. Modu horretan, beste berriz ondorioztatzen duguna zera da: arrazoia ez dela Absolutua, baizik mugatua, bereziki, esperientzia pertsonalari buruz hitz egiten dugunean.

Dena den, transzendentziaren galdera hauek ezin al dira modu arrazionalen planteatuak izan? Roubiczek-ek honako hau esango digu:

Sí que se puede; pero ya la razón no es absoluta, ni lo abarca todo. Tales experiencias exigen la aceptación de que hay algo que rebasa a la razón: que se acepten las limitaciones que supone nuestra naturaleza; que se acepten los valores, los cuales no pueden deducirse racionalmente ni probarse por procedimientos científicos; que se acepte una realidad trascendente que, por definición, ha de trascender inconmensurablemente a la razón. En resumen, que la razón no debe ser señora, sino sierva¹³¹.

Pascal izan zen ideia hau planteatzen lehena. XIX.mendearen hasieran Kierkegaard, ordea, urrunago joango da “paradoxa absolutuaren” ideia proposatuz. Baina zer esanahi du “paradoxa absolutuaren” ideiak? “Paradoxa absolutuak” erlijioaren, moralaren eta balioen eremua ulertzeko arrazoia erabat baztertu beharra dagoela aditzera ematen digu.

Esto significa que hay que descartar por completo a la razón si queremos experimentar y entender la esfera de los valores, de la moral y de la religión. La paradoja absoluta significa, por ejemplo, que, para él, el cristianismo es una religión absurda, porque nadie, fiándose sólo de la razón, puede entender que Dios se hizo hombre y fue ejecutado como el más miserable de los hombres; pero, precisamente porque es absurdo, cree él, Kierkegaard, que el cristianismo es la religión más perfecta, pues hemos de desplegar todos nuestros poderes de convicción y de sentimiento para capacitarnos a abrazar esta fe. Debemos dar lo

¹³¹ Ibid., 14 or.

que él llama un paso hacia lo desconocido, un salto al abismo. Como no podemos apoyarnos en la razón, no podemos forzar a nadie a creer, ni siquiera podemos forzarnos para ello a nosotros mismos; sino que lo único que podemos y debemos hacer es aventurarnos, aceptar el riesgo..., desechar todos los resultados del pensamiento racional, del discurrir científico, y dar oídos a la voz interior que nos dice que hay una realidad diferente, una esfera de otra clase distinta, trascendente a la razón. Si así lo hiciéramos, cree Kierkegaard que saltaremos a los brazos abiertos de Dios.¹³²

Honez gain, oro har, Kierkegaard “existenzialismo” hitza sortu zuen pentsalaria izan zela esan ohi da. Baina zer esan nahi du existenzialismoak? Roubiczek-en iritziz, Fontan Jubero-k Mounier-en existenzialismoaren planteamenduari egiten zion kritikan ikusten genuen bezala, existenzialismoak esanahi eta korrante ezberdin asko hartzen ditu bere baitan, gaizki ulertu aunitz sortaraziz. Kasu honetan, Roubiczek-ek existenzialismoa zer den definitzerako orduan Kierkegaarden oinarritzko eta jatorritzko esanahia berreskuratzen saiatuko da. Kierkegaardek erabiltzen duen existenzialismoaren definizioa, bederen, oso sinplea eta bistakoa da. Existenzialismoa pentsamendu erabat abstraktuak ukatzearekin batera, filosofia erabat zientifikoaren edo logikoaren errefusatzea izango da, hots, arrazoi Absolutua arbuiatzea. Izan ere, Kierkegaarden aburuz, filosofiak bizitzarekin, hots, bakoitzaren esperientzia pertsonalarekin, bat egin beharra dauka. Abiapuntua, hortaz, gizabanakoaren esperientzia pertsonala izango da.

¹³² Ibid., 16-18 orr.

3. SØREN KIERKEGAARD¹³³

3.1. SARRERA

Søren Kierkegaard Kopenhaguen jaio zen 1813 urtean. Teologo protestantea eta filosofoa, existentzia konkretua, paradoxa eta gizabanakoaren garrantzia baieztatu zuena.

Bere obra, bestalde, gizabanako orok hartzen ditugun erabakienganako konpromezuaren aldeko deiadar sutua da, gure erabakiek gu garena definitu gaituztenaren ideia azpimarratuz. Filosofo asko saiatu dira mundua ulertzen. Aristoteles-ek, adibidez, pentsatzearen, gogoetaren eta zientziaren abiapuntua den harritzeko gaitasunaz hitz egin zigun. Gure baitan, ordea, badira beste sentimendu batzuk, lehen aipatu ditugunak baino sakonagoak eta premiazkoagoak izateaz gain, gogoetara bultzatzen gaituztenak. Hala nola, beldurra, hiltzeko beldurra, desagertzeko beldurra... Sentsazio hauek izango dira, hortaz, Søren Kierkegaarden lanetan isuriko direnak.

Søren Kierkegaard larrimina pairatzen duen gizabanakoa da, hots, heriotzaren aurrean beldurra sentitzen duen “hezur-haragizko” gizakia. Hori dela eta, behin eta berriz heriotzaren gaia izango du harat-honat bere buruan.

Jakina denez, filosofia bera baino gehiago, erlijioa izan da galdera hauei ohiko erantzunak eman dizkion arloa. Kierkegaard, egia esan, ez zen filosofoa izan zentzu akademikoan ulertuta bederen. Hala eta guztiz ere, filosofiarengandik espero zena sortarazi zuen. Ez zuen munduari buruz idatzi, bizitza bera izan zen bere aztergaia. Hau da, nola bizi garen, nola egiten ditugun gure hautaketak eta abar.

Kierkegaardek bizirik egoteari buruz filosofatuko du. Bere gaiak beraz, indibidua eta bere existentzia izango dira, hots, “izaki izateduna”.¹³⁴ Kierkegaardentzat erabat subjektiboa den entitate hau, bestalde, edozein arrazonamendu logikoren edota sistema

¹³³ Puntu hau lantzeko Jose Maria Valverdek Kierkegaarden *Seduzitzailearen egunkariako* hitzaurrea kontutan hartu dugu. <http://es.slideshare.net/hausnartzen/kierkegaard-seduzitzailearen-egunkaria> Azkeneko aldiz 2015ko irailaren 3an kontsultatua.

¹³⁴ *izaki izateduna* “el ser existente”ren itzulpena izango da.

filosofikoren etsai aurkeztuko da. Gauzak honela, Parisen ezaguna egingo den existenzialismoak hemen izango du bere iturburua.

Lehen esan dugun bezala, Søren Aabye Kierkegaard 1813an jaio zen Kopenhagen. Aitak garrantzi handia izan zuen beragan; ama, berriz, ez zuen inoiz ere aipatu, ondoren ezagutuko ditugun arrazoiengatik. Bere aita, txikitan, artzain behartsua izan zen Jutlandiako lautada idorretan, harik eta –gero aipatuko dugun pasadizo baten ondoren– senitarteko batek deitu zion arte galtzerdi-negozio batean parte hartzera. Gerora negozioa bertako zein kanpoko mota guztietako gaietara zabaldu zen, halako arrakastaz, non 1796an, berrogei urte zituela, negozioa utzi eta errenta galantetatik bizi ahal izan zuen. Lehenengo emaztea berrogeita bi urte zituela hil zitzaion, haurrik eman gabe. Hartatik urtea bete gabe, alarguna ostera ezkondu zen, etxean zegoen neskame ahaide-edo batekin; handik lau hilabetera alaba bat eman zion, eta ondoren zenbait seme, txikitan edo hogeita hamalau urte bete baino lehen hil zirenak, bi salbuespenekin: Peter, Danimarkako prelatu goren gisa zahartu zena, eta gazteena, Søren, amak berrogeita bost urte eta aitak berrogeita hamasei zituztela jaioa, berrogeita bi urteetara iritsiko zena. Horrek guztiak pasadizo hutsa irudi lezake, baina gehixeago ere bihurtuko da.

Haren haurtzarotik aipatzekoa da zuhaitz batetik erori zela, bizkar-hezurra okertuta geratu zitzaielarik; horren ondorioz, sarri izan zituen eragozpenak bizitza osoan barrena, eta zango- mekanismoan ere halako desegokitzapenen bat geratu zitzaion, janztean zuen dotoreziarekin kontraesana sortuko ziona. “Kortsarioa” astekari satirikoak Kierkegaarden prakak karikaturizatu zituen, jendearen iseken biktima bihurtuz; burla haiek, zinez bere jeinu pertsonalaren aurkakoak, xelebretzat jotzen baitzuten, heriotzara eramane zuten, berak aurrean zuen bezala “antzarek zapalduta”.

Sørenen aitak erlijiozkotasun sakon eta ilunezko giroa ezarri zuen etxean; bertan askotan mintzatzen zen garai hartako Mynster apezpikuarekin, harekin –eta beste batzuekin ere– eztabaida teologiko sakonetan sartuz. Søren txikiak mirespenez jarraitzen zituen eztabaidok, aldi berean “ezagutu dudak gizon malenkoniatsuentzat” zuen aita eta maisuaren aldarte ilunaz kutsatuz. Halako hezkuntza baten arriskua, gero bere paperetan, bere aita aipatu gabe, idatziko zuen bezala, zen “haurrak ia-ia derrigor ondorioztatu behar zuela Jainkoa, azken batean, ez dela maitasun amaigabea”.

Ez da, beraz, harritzekoa unibertsitate garaia iritsi zitzaionean, 1830 urtean, Søren Teologian matrikulatzea, baina ez da harritzekoa ere kurtso humanistikoetan interes handiago izatea hala nola, filosofia eta literatura. Bizitza mundutar eta lizunkoia ezagutu eta ikasle aberats moduan jardun zuen hamar urteetan nabarmentzea, nola bere dotorezia eta puru onengatik, hala solasean lortzen zuen distira eztenkariagatik.

Bizimodu honek, bere aitarekin liskar gehiago izatea ekarri zuen, denbora alferrik galtze moduan ikusten baitzuen aitak Kierkegaarden garai hartan zeraman bizimodua. Horrela bada, pentsio bat eta apartamentu bateko giltzak eskaintzen dizkio aitak eta beraien arteko erlazioa hozten joango zen pixkanaka-pixkanaka.

1833tik aurrera Søren bere apunteak biltzen hasi zen, bere Egunkaria –edo hobeto, Paperak, data gutxi baitaramatzate- osatuko zuten testu-kopuru eskerga –zazpi mila testu-- osatu arte. Hau da inondik ere obra nagusia, bera hil ondoko hamarkadatan argitaratu gabe egon zena. Lehen urteetako apunteak gutxi dira, batez ere 1835-37 epean, bere “hondamenezko garaian”.

1834an ama hiltzen zaio Søren. Garai hartan urruntzen hasten da aitarengandik eta apezpiku bihurtuko zen Peter bere anaia zaharrarengandik. Famili tentsioa krisi erlijioso batekin nahasten zen; ziur aski urte hartako udazkenaren eta hurrengo udaberriaren artean hurbiltzen hasi baitzen bere aitarekiko harremanean jasango zituen “lurrikara” bietatik lehenera: alegia, jakin zuela lehen emazteaz alargundu eta berehala, aitak bortxatu egin zuela neskame ahaidea, laster berarekin ezkonduko zena eta semeen artean gazteena Søren emango ziona. Orain uler daiteke zergatik ez zuen bere idazkietan behin ere aipatu. Gainera, aitak “nire emaztea” esaten zuenean lehen emaztea esan nahi izaten zuen. Baina estetikotasuna etsipen modura agertzen hasten zaio, eta pixkanaka eboluzionatzen hasten da, ez fede zaharrera –eta bere aitarengana, nahi bada itzultze hutsaren norabidean, baizik eta fede kristaua benetan izango litzatekeenaren onespén atzeratuaren aldera, haren itsaso ilunean murgiltzeko. Pascalek bezala –gaur egun bere aitzindari nagusitzat hartzen duguna

Kierkegaardek, 1838ko maiatzaren 19an bigarren lurrikara jasango du, “zorion deskribaezinezko” esperientzia du –errebelazio mistiko berezirik gabea baina--, bere paperetan idazten duena, eta guztiz eraldatuta uzten duena. Urte horretako uztailean

berrito jaunartzen du; abuztuan aita hiltzen zaio, baina hil aurretik errebelazio bat egiten dio semeari, honen bigarren “lurrikara handia” eraginez, lehena baino larriagoa, baina aitak eta semeak bat eginda askatzen dutena. Umetan, lehen esan dugun bezala artzain behartsu izan zenean Jutlandiako lautada idorretan, egun batean muino txiki batera igo eta ozen biraoka hasi omen zen halako bizitza gogorrera abandonatuta zeukan Jainkoaren aurka. Handik gutxira –orobat esan dugun bezala-- senitarteko merkatari batek bere negozioan lan egitera deitu zion, eta hartan lortu zuen hain modu harrigarriro azkarrean erretiratzea ahalbidetu zion ondasuna. Bere aberastasuna haurtzaroko blasfemiaz mendekatzeko jainkozko modu sotila zela susmatu zuelako erretiratu ote zen? Segurutzat jo daiteke semeari egindako aitoren in extremis hark azken besarkada batean batu zituela; Kierkegaardek askoz beranduago arte ez zuen aipatu bere paperetan. Beste dokumentu batean badago aipamen bat, Lear errege shakespearearra hil baino lehenago Cordelia alabarekin berradiskidetzen deneko bertsoen bidezkoa. Aitaren heriotzatik egun batzuetara Kierkegaardek ondokoa idatzi zuen: “Niganako sentitzen zuen maitasunak eragindako azken sakrifiziotzat hartzen dut haren heriotza”.

Bere aita hil bezain pronto, alde batera utzi zituen erlijio ikasketak berrito hasiko ditu, 1840an teologian lizentziatuz eta 1841ean filosofian.

Erljioaren gaiak beti iraungo du berarengan, baina ez da begia itxi eta fedearen aurrean errenditzearekin konformatuko. Berak fedea izan nahi du baina aldi berea ikasi nahi du, hau da, obedienciaz haratago joan. Bilakaera honetan, ordea, garai hartan indarrean zegoen erlijioarekin ez da bat etorriko.

Kierkegaarden arabera, erlijioaren baitan salto bat dago, arrazoiaren konpresiotik harantzago doana, salto hau izango da beraz, Kierkegaardek eman nahiko duen jauzia.

Kierkegaard bizi izan zen garaian, hau da, XIX.mende hasieran, indarrean zegoen filosofia, alemaniar filosofia idealista zen. Hau da, Kantekin hasi, Fichte-rekin eta Schelling-ekin garatu eta Hegel-ekin gailurra ezagutu zuen filosofia. “Espiritua” eta “izatea”, bezalako gai unibertsal nagusietan oinarritzen zen alemaniar idealismoa. Kierkegaarden pentsamenduaren abiamena, aldiz, bestelako izango da. Kierkegaardengan gizabanakoa izango da protagonista, norberaren burua alegia. Kierkegaardek bere sufrimendutik hitz egin nahi digu, ez dio horrenbesteko garrantzia

emango unibertsoaren inguruko hausnarketari eta bere testigantza pertsonala izango da bere lanen ardatza. Horrela bada, bere testigantza pertsonaletan oinarrituta, gizabanakoaren bizitzaren garapenaren baitan hiru bizimodu ezberdin bereizten direla esango digu, hots, estetikoa, etikoa eta erlijiosoa. Bizimodu edo existentzia bakoitza beraien artean independenteak izango dira eta ez dira bata bestea baino hobeagoa edota maila gorenagoan egongo. Bizimoduak edo existentziak, bestalde, ez dira entitate abstraktuak izango, gizabanako orok egunero egiten dituen hautaketen emaitzak izango dira. Horrela bada, aukeratzen dugun hori ez da garrantzitsuena izango, hautatze bera baino, eta gure aukeraketaren izaerak, hots, hautua egiteko moduak egingo gaitu garena. Hau da, esteta, etikoa edota erlijiosoa izatea.

Kierkegaarden arabera, gizabanakoaren bizimodu ezberdinen artean bizimodu etiko bat dago. Gertaera honetan, gizabanakoa bizimodu honen ezaugarri diren betebeharrak eta eginkizunak betetzeaz erabat arduratua bizi da. Beste bizimodu bat, aldiz, estetikoa dugu. Aldi honetan, edertasunaren eta sublimetasunaren gaiak izango dira ardatz. Gizabanakoak “momentua” bizi nahi du eta plazera eta edertasuna bilatzea izango dira bere helburu nagusienak, Eta, bukatzeko, erlijioso bezala ezagutuko dugun bizimodua egongo da. Kasu honetan xede nagusiena heriotzaren aurrean salbazioa lortzea izango da.

Hiru bizimodu hauek bere lan ezberdinetan isuriak izango dira. Horretarako izengoiti eta pertsonai ezberdinak sortuko ditu, modu estetikoan, etikoan edota erlijiosoan hitz egiteko. Kierkegaarden obren konplexutasunak, beraz, hemen izango du bere iturburua.

Kierkegaarden bizitza, hiru bizimodu hauen arteko nahasmenean garatu zen. Bizimodu estetikoa tentatu egiten zuen. Etikoak, aldiz, torturatu eta erlijiosoak, azkenik, salbazioa eskaini. Kierkegaarden kasuan, bizitza estetikoa, unibertsitatera joan zen garaian islatzen da, hain zuzen ere, bizitza mundutar eta lizunkoia eman zuen aldian. Bizitza etikoa, aldiz, Regine Olsen ezagutu zuenean biziko du. Reginek 14 urte izango ditu, pertsona alaia zen, Kierkegaarden izaerarekin alderatuz zeharo ezberdina. Harremanak hiru urte iraungo du, Kierkegaardek erlazioa etetea erabakitzen duenera arte. Jarrera honen inguruan teoria ezberdinak plazaratu dira. Batzuen ustez, gertakari honen arrazoi nagusia Kierkegaarden “akats fisikoan” egongo litzateke. Lehen esan bezala, lepo-okerra zen Kierkegaard, eta honek ez zion batere laguntzen emakumeengana

gerturatzeko orduan. hots, sexu harremanak izateko orduan. Baina harremana etetearen arrazoi nagusia ez da hau izango. Reginarekin zuen harremana etetearen arrazoi nagusia Kierkegaardek ezkontza bizimodu etikoarekin lotzen zuenaren ideian datza. Sørenek ezkontza betekizun bezala ikusten zuen eta izaera honek bere “benetako misioagandik” urruntzea suposatzen zuen. Baina zein zen Kierkegaarden “benetako misio” hau? Egia esan, Kierkegaarden pentsamendu guztia bi gaien inguruan gauzatzen da. Lehengo gaia, gizabanakoa eta bere existentzia konkretua izango da; eta bestea, aurreko gaiarekin lotua agertzen den kristautasuna.

Søren bere garaiko kristautasunarekiko kritiko azalduko zaigu. Kierkegaarden arabera, garaiko kristautasuna burgesa zen eta fedearen edukiak gizarteko gertakari simple batean bilakatu ziren. Horrela, bada, Kierkegaarden ustez, kristautasunarekiko heresi handiena kristau izatea “jolas” moduan tratatzean zetzan.

Lehen esan dugun bezala, ezkontza bizimodu etikoari zegokion, bere filosofia, aldiz, bizimodu erlijiosora zuzendua zegoen. Gauzak honela, Søren Kierkegaarden doktore tesiaren izenburua *Ironiaren kontzeptua* izan zen eta ironia sokratikoaren eta erromantizismoaren gaia izan zituen aztergai. Hala ere, tesiaren muina, esan dezakegu, hegeliar idealismoaren kritika izan zela. Hori dela medio, Kierkegaardek “sistemaren filosofiaren” aurrean, “praxiaren filosofia” defendatuko du.

Jakina denez, “sistemaren filosofiak” Hegelekin ezagutu zuen momenturik gorenera. Hori dela eta, daniar idazleak filosofo alemana kritikatzan zuenean, mendebaldeko tradizio filosofiko osoa ari zen kritikatzan.

3.2. HEGELIAR FILOSOFIA TEORIKOA ¹³⁵

Izan ere, Kierkegaarden pentsamendua ez zen bat-bateko belaunaldi baten ondorioz sortua izan, garai hartan indarrean zegoen alemaniar idealismoarekin zuen elkarrizketa polemikoaren fruitua dela erran dezakegu (nahiz eta bere jarreran eta problematikan alemaniar idealismoaren eragina erabatekoa izan).

Ondorioz, bere ahalegin literario gehienak “hegeliar sistemaren” desegitean oinarrituak izan arren, ezin dugu ahantzi bere pentsamendua garai hartan presente zegoen “idealismo espekulatiboaren” erkatzearen emaitza dela.

Hegelen jarraitzaileek egiten zutenarekin alderatuz, Kierkegaarden literatur ekoizpenen helburua ez da garaiko interesak “asetzea” izango. Garaiko gizartearen ikuspegi baikorra eman beharrean, hala moduzko gizartea zenaren ideia bistaratzeari baitzuen daniar pentsalariak asmo nagusizat.

No he dedicado ni la más leve porción del talento que se me ha concedido a expresar el pensamiento... de que el mundo es bueno, de que ama la verdad o desea el bien, de que el género humano es la verdad o incluso es Dios y que, por consiguiente, la tarea (Goethe-Hegelian) es satisfacer a la época. Contrariamente, me he consagrado a expresar el pensamiento de que el mundo, si no malo, es mediocre, de que "lo que la época pide" es necesidad y oropeles... No he declamado, ni fulminado, ni he dado lecciones, pero he aclarado que ése es el caso de nuestra época, que nuestra época y nuestra generación están lastimosamente equivocadas acerca del bien y de la verdad¹³⁶

Horrela, bada, Kierkegaardengan “hegeliar sistemaren” aurkako jokaera bizia nabaritu arren, jarrera hau ez da “nihilista ezkorra” izango zeren, hegeliar pentsamenduaren suntsipena ez da bere xede bakarra izango. Kierkegaarden helburu nagusia bizi zuen garaia hala nolakoa egiten zituen elementuak desegin eta haien tokian errealitatearen

¹³⁵ Kierkegaarden pentsamendua azaltzerako orduan, batez ere, honako hiru lan hauek hartu ditugu aintzakotzat:

1. Urdanibia, Javier (cord.) *Los antihegeliano: Kierkegaard y Schopenhauer*. Anthropos, Barcelona: 1990
2. Franco Barrio, Jaime. *Kierkegaard frente al hegelianismo*. Universidad de Valladolid, Valladolid: 1996.
3. Holmes Hartshore, M. *Kierkegaard, el divino burlador: sobre la naturaleza y el significado de sus obras pseudónima*. Madrid : Cátedra, 1992

¹³⁶ SFV, 572 or.(oharra) Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 36. Orrialdean aipatua

benetako egitura berri bat sortzea izago da. Hortaz, “nihilismo positibo” baten aurrean gaudela esan dezakegu.

Edozein kasutan, Kierkegaarden jarduerak ez doaz Hegelen aurka bakarrik zuzendua. Bere pentsamendua Filosofia Moderno osoaren kritika izanik, hegeliar pentsamenduaren aitzindariak eta jarraitzaileak ere zaku berean sartuko ditu. Honetaz gain, erasoak ez dira hegeliar pentsamenduaren izaera filosofikora bakarrik mugatuko, Kierkegaarden kezka nagusia hegeliar filosofia bera baino, garaiko kristau bizitzan hegeliar filosofiak zuen eragina izan baitzen. Hortaz, erlijio gaiak izango dira Kierkegaarden pentsamenduaren abiagunea eta gai nagusienak.

Gai hau lantzen hasi aurretik, hegeliar filosofiak garai hartako kristau bizitzan zuen eragina hobeto ulertzeko lagungarriak suertatuko direlakoan, Kierkegaardek “hegeliar sistemari” egiten dizkion kritikak azalduko ditugu.

3.2.1. Hegel eta hegeliar filosofia.

Arestian azaldu dugun moduan, Kierkegaardek bere ahalegin guztiak hegeliar pentsamenduaren suntsipenera bideratu arren, ez dugu ahaztu behar Kierkegaardek hegeliar eskolaren baitan ikasi zuela filosofia. Hola, erabiliko duen hizkuntza, hots, terminologiak eta kontzeptuak, “espíritu idealistarengandik” eratorriak izango dira.

3.2.1.1. filosofia espekulatiboa edo gogoetatsua

Kierkegaardentzat hegeliar pentsamenduak ispilu baten funtzioa betetzen du. Aurretik existitzen den errealitatearen kontzeptu bidezko islatze edo irudikatze¹³⁷ bat izango da beraz. Hori dela eta, hegeliar filosofia edo Teoria, “filosofía espekulatiboa” bezala definitua izango da.

Se presenta como “un gran espejo... que piensa y reflexiona con lo que queda reducida a mera θεωρία o contemplación (Contemplation) explicativa del mundo real, y los hegelianos se convierten en unos "individuos contemplativos".¹³⁸ "Miras la naturaleza y también la encuentras hermosa. ¿Contemplas las obras del arte y de la poesía y proclamas con el poeta: procul, o procul este profani, y por "profani"

¹³⁷Hegeliar *Representación* kontzeptua *irudikapen* bezala itzuli dut.

¹³⁸ Eft, 20 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 38. orrialdean aipatua.

entiendes los que intentan deshonrar la poesía y el arte atribuyéndoles una teleología fuera de sí mismos,(...), Y ahora bien, tu propia vida ¿tiene su teleología en sí misma? Yo no diré si está justificado que un hombre lleve una vida exclusivamente consagrada a la contemplación (et saadant blot bebetragtende Liv), pero ¡eh bien! admitamos que la importancia de tu vida esté en existir para contemplar (at betragte) el resto..."¹³⁹

Hegeliar filosofia, horrenbestez, munduaren izatea deskribatzera mugatzen da, hots, mundua eta, bereziki, gizakia zer diren azaltzea izango du jomuga. Filosofiak, hortaz, funtzio erabat informatzailea beteko du, guztia “logikara” eta “metafisikara” murriztuz.

“Irudikapenaren” kontzeptua “hegliar sistemaren” funtsezko kategoria izateaz gain, Filosofia Modernoaren kategoria ere bada. Filosofia Modernoak, oro har, “irudikapenaren” kontzeptuaren bidez “subjektuaren” (kontzientzia) eta “objektuaren” (gauza) arteko errotikako dualismoa erakusten digu, “subjektuak” “objektuarengan” gauzatzen duen “irudikapen funtzioa” baitu bere oinarria. “Irudikapen funtzio” hauek, ostera, “kausalitatearen teoriak” moduan definituak izango dira. Hori dela eta, Hegelek eta bere jarraitzaileek jarrera pasiboa eta harkorra izango dute errealitatearen aurrean, munduaren eite ezberdinen ikusle arruntean bilakatuz.

Gauzak honela, filosofoak garai hartako egoera aldatzen ez dira saiatuko, ez zaie interesatzen. Ondorioz, “izatea”¹⁴⁰ ezagutzaren menpe geratuko da eta filosofo espekulatiboen xedea errealitatea “sistema” handi baten baitan gauzatutako elementu gisa ulertzea izango da. Horretarako “ezagutza espekulatiboa” kontzeptu ezberdinak azpimarratu, sailkatu eta metodologikoki ordenatu beharrean aurkitzen da. Errealaren den oro arrazoiaren bidez ematen den “sistemaren” parte bilakatuz.

“Sí amigo mío, vives en una ilusión y no ejecutas nada. Acabo de pronunciar la palabra que siempre te ha producido una impresión extraña, "Ejecutar..." ¿No te atenaza a pesar de todo una profunda preocupación porque no eres capaz de ejecutar nada?”¹⁴¹

De esta forma, el ser queda subordinado al saber; el conocimiento ostenta la primacía sobre la realidad, Para los filósofos especulativos lo importante es conocer la realidad, el conocimiento organizado en un fastuoso Sistema, ingeniosamente engalanado con una "exhuberancia asiática", con el refinamiento de un "palacio señorial" o cualquier "castillo fabuloso"¹⁴², "Todo se ha terminado, y el pensamiento especulativo ahora tiene que subrayar, clasificar y ordenar metodológicamente los diferentes conceptos, No se vive más, no se actúa, no se cree; pero se conoce lo que son el amor y la fe, y sólo queda determinar su lugar

¹³⁹ EE-II, 243-244 orr.

¹⁴⁰ Gaztelera, *El Ser*.

¹⁴¹ EE-II. 77 orr.

¹⁴² Ibid., 97-99 orr.

dentro del Sistema", Sistema filosófico éste que se extiende sobre la totalidad de la realidad como una alfombra que cubre un salón. El filósofo especulativo "ha de desgañitarse los ojos hasta encegar por trenzar día y noche una alfombra que pueda cubrir todo el entarimado del gran salón.¹⁴³

Kierkegaarden filosofiaren ikuspegi espekulatibo honek eta filosofoa “kontenplazioaren zale”¹⁴⁴ definitzeak, bi gauza ondorioztatzera garamatza. Aurrena, Kierkegaardentzat garai hartako filosofia “ezagutza antzua” eta alferrikakoa izango da. Filosofatzeagatik filosofatzen da beraz. Hau da, “filosofia” bere xedeak lortzeko bakarrik gauzatuko da, inguratzen duen munduan inolako eraginik sortzeko asmorik gabe. Horrela, bada, ikuspegi honek bigarren ondorioztatze batetara garamatza: “ezagutza espekulatiboa” lantzen duen gizabanakoa estetan bilakatzen da.¹⁴⁵

Estetak jakin-minagatik, dibertimenduagatik edota distrazioagatik filosofatzen du, pentsamendu filosofikoak sortzen dion gozamenagatik bada eta ez inguratzen duen errealitatea, gizartea, eraldatzearen (Kierkegaarden iritziz, filosofo espekulatiboak izango duen jarrera berbera alegia).

3.2.1.2. Filosofia arrazionala

Kierkegaardentzat, garai hartan, “errealitatearen” ikuspegia “ezagutza-irudikapen” hutsera murriztua izateaz gain, hegeliar filosofia espekulatiboa “ezagutza arrazional” moduan aurkezten zaigu. Izan ere, arrazionalitate hau “sistema” baten barruan aditzera ematen da. Errealitatearen adierazpen arrazional baten barruan alegia.

“Sistema” hau gaineratzean “sistema logikoa” izango da eta “metafisikaren” edota “ontologiaren” parekoa agertzen zaigu, hots, “izatearen zientzia” bat eta, hargatik, izateari buruzko ezagutza arrazionala eskainiko digu.

Alabaina, Hegel iritziz, “sistemak” egituratzen duen ezagutza arrazional hau berehalakoa den “izate hutsarekin” abiatzen da, hots, modu “absolutuan”. “Sistemaren”

¹⁴³ Ibid., 97

¹⁴⁴ gazteleraz *amante de la contemplación*.

¹⁴⁵ Beranduago ikusiko dugun bezala Kierkegaardek hiru esteta ezberdin azalduko dizkigu: *esteta sensuala, esteta ameslaria eta esteta intelektuala*. Kasu honetan, *esteta intelektualari* egiten dio erreferentzia, hain zuzen, Kanpo errealitatea intelektualki ikerketzen edota espekulatzen gozatzen duen estetari.

hasiera, beraz, hasiera “absolutua” izango da. Honek zer esan nahi du? “Sistema” honek aurretik emaniko premisa edo hipotesirik ez duela izango. Hortaz, bere printzipio guztiak arrazoiaren bidez egiaztatuak izango dira, giza gaitasunarentzat ulergarria izango den “sistema” bat osatuz.

Filosofo espekulatiboa, beraz, enigma nahiz “paradoxa” oro argitzen dituen espiritu jakitun eta argian bilakatuko da. Halatan, hegeliar gizakiarentzat “subjektu ezagutzailearen”¹⁴⁶ eta ikertua izango den “objektuaren”¹⁴⁷ arteko eta “pentsamendu logikoaren” eta “izatearen” arteko erlazioak ulergarriak izango dira.

La reconciliación del sujeto con el objeto se efectúa mediante la explicación racional del objeto. Semejante explicación equivale a la mediación (Mediation), categoría ésta que ocupa un lugar central en el pensamiento de Hegel: es un principio favorito de este filósofo que “lo inmediato ha de abolido” por la mediación, es decir, mediatizado, explicado racionalmente.¹⁴⁸

Bitartekaritza hau ez da errealitatearen eremu jakin batera bakarrik murriztuko. Izan ere, “errealitatearen osotasuna” bere baitan egongo da, existitzen den oro “sistemaren” parte bilakatuz.

Hegeliar planteamenduaren arabera, pensamendua errealitate baten jabe da eta errealitatea, pensamenduaren korrelatua denez gero, pensamenduak errealitatea bere osotasunean espresatzen digu. Pentsamenduaren eta errealitatearen artean, beraz, gauza bera direnez gero, egokitzapen perfektua ematen da. Baina egokitzapen hau emateko beharrezkoa da errealitatea bere baitan arrazionala izatea, hots, kategoria logikoen bidez eraikia izatea. Pentsamendu logikoa (“kategoria logikoa”) orduan, “izatearen subjektua”¹⁴⁹ izango da. Hau da, “errealitatearena subjektua”. Hortik, “sistema logiko” baten bidez erreala den oro kontzeptualki adierazia izatea.

Planteamendu honetatik bi ideia ondorioztatzen ditugu: lehena, hegeliar pensamenduaren arabera errealitatea arrazoiaren produktua denez gero, arrazionala da, izan behar duen bezalakoa da, ondo dago eta ona da. Beste modu batera esanda, hegeliar filosofiaren arabera, mundua ona izango da eta giza generoa “Egiaren”¹⁵⁰ edota

¹⁴⁶ Gazteleraz *sujeto cognoscente*.

¹⁴⁷ Gazteleraz *objeto conocido*.

¹⁴⁸ BA, 307 or

¹⁴⁹ Gazteleraz *Sujeto del Ser*.

¹⁵⁰ Gazteleraz *La Verdad (kontzeptu bezala)*

Jainkoaren maila berean egongo da “*gizakia (giza arrazoia) Jainkoa, Egia, dela*” baieztatzera iritsi arte.

Kierkegaardek ez du bat egingo ideia honekin. Bere ustez, mundua ez da perfektua, ez da arrazionala, ez da izan behar lukeena eta arrazoia Jainkotzat hartzea birao bat izango da.

Pero que lo establecido se haya hecho algo divino, que sea visto como lo divino, es una falsedad originada con la ayuda del desconocimiento de su propia ascendencia. (...) y cosa extraña, esta divinización de lo establecido es cabalmente la permanente rebeldía, la continuada insurrección contra Dios. El desea concretamente (y en definitiva no se le debe reprochar por eso) estar presente, tener un poco en su mano el control de la evolución del mundo, o desea sostener la raza humana en la evolución. Por el contrario, la divinización de lo establecido es el hallazgo autosatisfecho del sentido perezoso, mundano y humano, que desea tumbarse a la bartola, imaginándose que ya todo es paz y seguridad, que ya hemos alcanzado la cumbre ¹⁵¹

Idea honek bigarren ondorioztatze batetara garamatza, hau da, “sistemaren” arrazionaltasunak gizabanakoaren existentzian oinarrizkoa den “giza askatasunaren” ukatzea dakar berarekin.

Hegeliar “sistemak”, hortaz, errealitatea, mugimendu logiko baten arabera garatzen den “osotasun bateratu”¹⁵² bat bezala ikusten du. Honenbestez, errealitatea “arrazoi immanentearen” edo “ideia bere baitaren”¹⁵³ autohedatzearen produktua izango da. Eta autohedapenaren mugimendu logiko hau, bestalde, beharrezkotasuna oinarritzat duen dialektika kuantitatibo homogeneoaren arabera emango da.

Errealitatearen “osotasun sistematiko” honek, ordea, “errealitate naturalaz” gain, “errealitate historikoa” ere ulertu behar du. Hegelen arabera, beraz, “historia”, natura bezala, unibertsoa zuzentzen duen “arrazoiaren” edo “betiereko legeen” produktua izango da.

Como he dicho, la filosofía considera la historia bajo la determinación de la necesidad, no bajo la de la libertad; pues por más que se diga que el proceso de la historia universal es libre, lo es el mismo sentido en que se habla del proceso organizador de la naturaleza. ¹⁵⁴

¹⁵¹ IChr 84 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 45. orrialdean aipatua.

¹⁵² Gazteleraz Todo unitario.

¹⁵³ Gazteleraz “Idea en si”

¹⁵⁴ EE-II, 163 or.

Kierkegaarden iritziz, ostera, aipatu berri dugun Hegelen ikuspegi hau kontutan hartzen badugu, historia osatzen duten giza ekintza oro “determinatuak” daudela auresuposatu beharrean aurkitzen gara eta, ondorioz, gizakia ez da askea izango. Horregatik ez da harrizkoa Hegelen “sistemaren” baitan, bekatua, erantzukizuna eta antzeko kategoria etiko-erlijiosoek tokirik ez izatea; zeren eta, kategoria hauen ezinbesteko baldintza “askatasuna” baita.

“Sistemaren” baitan, ordea, itxia suertatzen den erlazio kausala ezartzen da eta gizabanakoa, halaber, “etorkizunaren jostailuan” bilakatuko da. Garapen dialektiko historiko-unibertsalaren momentu hutsal batean alegia. Ez du autodeterminaziorako inongo eskubiderik izango eta gizakia “dena” eta “egiten duen oro” aurretik emandako gertakarien bidez determinatuak egongo dira.¹⁵⁵

Horrela, bada, Kierkegaardek “logikaren” eta Natur Zientzien eremuan “beharrezkotasunaren” erregetza onartzen duen bezala, historiaren baitan gizakiaren nagusitasuna erabatekoa izango da. “Askatasuna” izango da protagonista nagusia eta historiaren barruan ematen diren gertakariak “hautatze erabakimen askearen” fruituak izango dira. Gizabanakoaren singulartasunaren baitatik igorriak alegia.

Las esferas de las que propiamente se ocupa la filosofía, las esferas que son propiamente del pensamiento, son la lógica, la naturaleza y la historia. Allí reina la necesidad, y por eso es válida la mediación. Nadie negará que ése es el caso de la lógica y de la historia; con la historia, en cambio, la cosa no es tan fácil, pues se dice que en ella reina la libertad.¹⁵⁶

Horrenbestez, historiaren eremuan gauzak beste modu batera izan zitezkeen zeren gertariak “giza erabakimen askea” dute oinarritzat. Hori dela eta, gertakari historiko batzuen eta besteen artean ez dago kausa-efektuzko erlazorik. Giza existentziaren ezaugarria ez da “beharrezkotasuna” izango, “askatasunean” oinarritutako posibilitatea eta kontingentzia baino. Giza existentzia, honenbestez, zalantzaz, bidegurutzez eta giza erabakiez betea egongo da.

Labur esanda, gizabanako izatedunaren baitan gaitasun espiritual berri hauen azaleratzeak aldaketa bat suposatuko du gizakiarengan: giza existentzia

¹⁵⁵ Izaera naturala duten egoera geografikoak, klimatikoak eta abar ere saku honetan sartzen dira

¹⁵⁶ EE-II, 162 or.

“beharrezkotasunean” oinarritua izatetik (hegliar planteamendua) “askatasunean” oinarritzera pasako baita.

Honek adierazten diguna zera da: ezin dugula historia modu arrazionalen azaldu. Hau da, ezin dela giza existentziaren inguruko “sistematik” eraiki zeren Kierkegaarden aburuz, giza existentziak “askatasuna” du oinarritzat.

Es imposible un Sistema de la existencia (Tilvaerelse). No se puede formular un Sistema de la existencia, (...). Sistema y necesidad se corresponden mutuamente, pero la existencia es justamente lo contrario de la necesidad, Desde un punto de vista puramente abstracto, Sistema y existencia no pueden pensarse conjuntamente, porque el pensamiento sistemático al pensar la existencia debe pensarla como abolida y, por lo tanto, no como existente. La existencia separa, y mantiene discretamente aparte los diferentes momentos de la existencia; el pensamiento sistemático introduce una necesidad que los une.¹⁵⁷

3.2.1.3. Filosofia abstraktua

Arestian ikusi dugun moduan, Kierkegaardek bere garaiko filosofia gisa, “logikaren” edota “metafisikaren” parekide den “sisteman” oinarritua dagoen hegliar filosofia deskribatu digu. Planteamendu honen arabera, hortaz, arrazoi bidez irudikatu nahi den errealitatearen abstrakzioa posible egiten da. Baina zer esan nahi du errealitatearen abstrakzioak? Eta zer ondorio ekar ditzake jardute honek? Galdera honen erantzuna Kierkegaardek filosofo espekulatiboek zuzenduriko pasarte honetan ematen digu:

Pero ahora examinemos más de cerca cuál es la trama de esta tan descarada monotonía. Tu equivocación, lo mismo que tu desgracia, consiste en pensarlo todo, y así también lo pertinente al amor, de una manera demasiado abstracta (for abstrakt). (...) piensas ...las categorías del amor. En este sentido te concederé a gusto una infrecuente completud categórica. Piensas toda cosa concreta en una instancia, y ésta es la de la poesía. (...). El error está en que tú no piensas históricamente.¹⁵⁸

Irakurri berri dugun lerroalde honetan, daniar pentsalaria filosofo espekulatiboak darabilen abstrakzioaren unibertsaltasuna azpimarratzen hasten da eta, bide batez, jarrera honek berarekin dakarren hutsegitea azaleratzen digu. “Errealitate konkretua” modu abstraktuan pentsatzeak, “errealitatea” kategorietara mugatzea dakar berarekin. Hala, filosofo espekulatiboak, “errealitatearen” abstrakzio egiten duenean, “errealitate konkretua” espresatzeko kategoria unibertsalak erabiltzen ditu eta “errealitatearen aniztasuna”, kategoria unibertsalera murrizten. Hemendik ondorioztatzen duguna zera

¹⁵⁷ Eft, 97 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 49. orrialdean aipatua

¹⁵⁸ EE-II, 116 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 50. orrialdean aipatua

da: “metafisika” identitatearen, homogeneousazioaren edota determinismoaren ezagutza dela.

Honen arabera, abstrakzioak esentzialki kualitatiboa dena gaitasunik gabe usten du. Banakoa, unibertsaltasunean “xurgatua” izango da eta bereizgarri dena orokortasunaren baitan barneratua. “Ezagutza metafisikoa” osatzen duten kontzeptuen izaera bateratzaile edota orokortzaile hauek, bestalde, ez dituzte aditzera ematen dituzten elementuen ezaugarri bereizgarriak kontutan hartzen. Hau da, gizabanakoak izan ditzaken aberastasun ontologikoak. Honenbestez, Kierkegaardentzat “metafisika” giza existentziaren arerioa ere izango da, gizabanakoaren ezaugarri partikularrak ez ditu eta kontutan hartzen.

“Metafisikak”, orobat, errealitatearen abstrakzioa egitean, giza existentzia ezabatu egiten du: gizabanakoa “belaunaldi”, “nazio”, “herri,” “masa”, “aro” eta “arraza” bezalako azpitaldeetan nahastuz.

Horrenbestez, daniar pentsalariaren arabera, filosofo espekulatiboak gizatiar osoaz arduratzegatik hezur-haragizko gizabanakoa alde batera utzi du eta hezur-haragizko gizabanakoak dituen ezaugarri bereizgarrien gaintetik, “belaunaldia” edota “nazionalitatea” bezalako berariazko osotasunak jarri ditu.

Honetaz gain, filosofia espekulatiboak ezagutza abstraktua den heinean, ez du aztergai duen “objektuaren” abstrakzioa bakarrik egiten, “subjektuaren” abstrakzioa ere egiten du “ni existitzailearen”, hezur-haragizko gizabanakoaren, ezaugarri bereizgarriak alde batera utziaz.

Hortaz, pentsatua den “objektuaren” arabera izango da “subjektua”. Pentsatua den “objektua” abstraktua bada, “subjektua” ere abstraktua izango da. Izan ere, “metafisika” ezagutza abstraktua edo pentsamendu hutsa izateak, “subjektua” abstraktua eta unibertsala izatea exijitzen du, hots, subjektu-objektu paradoxiko bat, “ni huts bat”, “ni transzendental bat”. “Metafisikaren subjektua” halatan ezin da “ni izateduna”¹⁵⁹, enpirikoa eta partikularra izan. Horrela, bada, pentsalari espekulatibo bezala aurkezten

¹⁵⁹ Gazteleraz existente.

den gizabanakoak fininitasunak eta denborazkotasunak mugatzen duten giza existentzia konkretua alde batera utzi beharrean aurkitzen da eta, ondorioz, existentziaren mugatze honek, bere pentsamendu absolutua ezinezkoa egingo du.

Halaber, “subjektuaren” nahiz “objektuaren” ikuspegitik begiratuta “sistemak” “gizaki hutsari” egiten dio erreferentzia. Eta indibidua “ni-ni metafisiko” baten bilakatzen da, hots, “ni-ni irudikatzailean”. Ondorioz, “niaren” kontzientzia puruan.

Pentsalari espekulatiboak gizaki orokorra bakarrik kontutan hartzen du eta, horregatik, bere burua ere modu honetan definituko du. Ez da giza existitzaile indibiduala izango, gizakiaren kontzeptu abstraktua baino. Gizaki generiko hau giza abstrakzio hutsarekin identifikatuko da eta “ezerezaren”¹⁶⁰ antzekoa izango da. Izan ere, giza existitzaile indibiduala, hezur-haragizko gizabanakoa, aldi oro ezeztatua suertatuko da “sistemaren” baitan.

Soy el puro ser, que está en todas partes y a quien, no obstante, ninguno puede ver... constantemente quedo abolido. (...) me considero una vez más como una nada absoluta”.¹⁶¹

"Un pensador acaba de construir un enorme edificio lógico, un Sistema, un vasto Sistema que abarca toda la existencia y toda la historia universal, etc., etc, Ahora bien, consideremos su vida personal. ¿Dónde habita? ¡Asombroso! ¡Lamentable y ridículo hasta más no poder! Porque nuestro pensador no habita personalmente, como cabría esperar, en ese espléndido palacio de bóvedas altísimas, sino que habita en las caballerizas de al lado, o quizás en la misma perrera, o a lo más en la casita destinada al portero del palacio”¹⁶²

Horrenbestez, gizabanako konkretuak “sistemaren” baitan tokirik ez izateak, etikaren eta erlijioaren eremuek ere tokirik ez dutela ondorioztatzera garamatza; zeren eta giza instantzia hauen “subjektua” (erlijioaren eta etikaren subjektua) giza existitzaile indibiduala baita. Hori dela eta, Kierkegaardek garaiko pentsalariak (filosofok eta teologok) gizaki indibiduala “irentsi”, desagerrarazi, egin dutenez gero antropofago bezala ikusiko ditu: "El sacerdote, los profesores: ¡esos sí que son antropófagos! ¡Bien que merecen el término! ¡Antropófagos!"¹⁶³

¹⁶⁰ Gazteleraz *la nada*.

¹⁶¹ SLV, 83 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 54. orrialdean aipatua

¹⁶² Di, VII A82or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 54 orrialdean aipatua

¹⁶³ Ibid., 100 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 55. orrialdean aipatua

3.2.2. Daniar erlijio hegeliarra.

Erljioari dagokionez, XIX. mendean indarrean zegoen hegeliar filosofiak Danimarkako Eliza Protestatearengan eragin handia izan zuen. Honen adibide dugu, bertako kide ziren elizgizon asko Kopenhageko Unibertsitatean Teologiako eta Filosofiako irakasleak izatea.

Kierkegaarden iritziz, hegeliar filosofiak kristautasunaren deuseztapena ekarri zuen. Hori dela eta, Kierkegaarden xede nagusia benetako kristautasuna berreskuratzea izango da: "La cristiandad ha abolido el cristianismo sin darse propiamente cuenta; la consecuencia es, si ha de hacerse algo, que se debe intentar nuevamente introducir el cristianismo en la cristiandad"¹⁶⁴

Kierkegaardengan hasiera hasieratik nabari da Danimarkako Elizarekiko jarrera kritikoa. Alabaina, bere bizitzako azken bi urteetan gehiago indartuko da joera hau. Jarrera hau leherraraziko duen gertakaria, aitzitik, Martensen-ek Mynster-en heriotza eta gero eskaini zuen hitzaldi bat izango da. Martensen-ek Mynster benetako kristau eredu gisa izendatu zuenean alegia. Jasoera honek Kierkegaard asaldatu egingo du, eraso zuzenenak *Faedrelandet* (Aberria) eta *Øieblikket* (Istantea) aldizkarietan aditzera emanaz. Eraso hauen mamia bertzenaz: Testamendu Berriko kristautasuna garai hartako Danimarkan existitzen ez zenaren tesia izango da.

Hala, lehen aldiko kristautasunaren eta garai hartan Danimarkako Elizak bizi zuen kristautasunaren arteko ezberdintasunak handiak izanik, Kierkegaardek "kristautasuna" (*Chrustendom*) eta "kristandadearen" (*Christenhed*) arteko bereizketa egingo du.

Kierkegaardentzat "benetako kristautasuna" Testamendu Berriak azaleratu eta apostoluek eta lehen kristauek bizi izan zuten kristautasuna izango da. "Kristandadea", aldiz, erdi purdikako kristautasuna izango da, mundutarra. Benetakoa ez dena alegia. Horrenbestez, Kierkegaardek paganismoaren ideiarekin identifikatuko du "kristandadea".

¹⁶⁴ IChr, 34 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 55. orrialdean aipatua

La así llamada cristiandad no solamente es una edición averiada de lo cristiano, una edición llena de erratas embarazosas y de omisiones y añadiduras sin sentido, sino que sobre todo es un auténtico abuso y profanación del cristianismo" ¹⁶⁵ En este país se está confundiendo lo cristiano con lo que no lo es ¹⁶⁶, de ahí que la religión resulte algo ridícula y cómica, El cristianismo se corrompe al caer en las manos de los teólogos y jefes de la Iglesia danesa, Semejante corrupción equivale a una transformación del mismo en paganismo. En la cristiandad "se vive de un modo completamente pagano" ¹⁶⁷

Kierkegaardek Danimarkako Elizak bultzatzen ari zen paganismo hau, Antzinaroko paganismoarekin alderatuta askozaz ere gaizkiago ikusten zuen. Antzinaroko paganismoa pixkanaka-pixkanaka konbertsioaren bidean zihoan moduan, garaiko kristautasuna "benetako kristautasunaren" ideietatik gero eta gehiago urruntzen ari baitzen.

Esta diferencia consiste en que el paganismo antiguo desconoce sin duda el espíritu, pero está con todo orientado hacia el espíritu, mientras al paganismo dentro de la cristiandad le falta el espíritu en el sentido de que se ha ido alejando de él, traicionándolo, lo que hace que este último y peculiar paganismo represente una negación del espíritu mucho más rigurosa. ¹⁶⁸

Daniar pentsalariaren xedea, beraz, "benetako kristautasuna" garaiko "kristandadean" barneratzea izango da (garai baten Luterok egin zuen bezalaxe). Horretaz gain, Kristautasunaren "egi gabetasun" hau, kristautasuna eta hegeliar filosofiaren bateratzearen fruitu gisa ikusiko du Kierkegaardek. Kristau printzipioen hegeliar pentsamenduaren interpretazio gisa alegia. Horrela, bada, aurreko puntuan eman ditugun hegeliar "teoriaren" hiru esanahiak, hots, *espekulatiboa edo gogoetatsua, arrazionala eta abstraktua*, "kristautasunaren teoria erlijiosoaren" baitan ere emango dira. Ikus ditzagun.

3.2.2.1. Erljio espekulatiboa

Daniar kristau erlijio hegeliarren "izaera espekulatiboak" Filosofia Modernoan eta, bereziki, hegeliar printzipio filosofikoan du oinarria.

¹⁶⁵ SD,212 or.Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 46. orrialdean aipatua

¹⁶⁶ IChr, 104 or.Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 46. orrialdean aipatua

¹⁶⁷ Ibid., 104 or.Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 46. orrialdean aipatua

¹⁶⁸ SD, 149 or.Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 46. orrialdean aipatua

Printzipio hau hegeliar “pentsatzearen” eta “izatearen” identitatea¹⁶⁹ izango da eta kartesiar “*cogito ergo sum*”-en baliokidea (bi kasuetan, ezagutzaren lehentasuna izatearen aurrean azpimarratzen dira).

Danimarkako Eliza Protestantearen ordezkari ofizialek, oinarri filosofiko hauetan inspiratuz, “kristau erlijioa” Jainkoaren irudikapen kontzeptual gisa ulertzen zuten. Hau da, kristautasunaren eta Jainkoaren inguruko ezagutza espekulatibo edota doktrina huts moduan. Planteamendu honen ondorio nagusia bada, Kristo pertsonari (Maisuari) bere irakaspenari baino garrantzi gutxiago ematea izango da. Ordezkari hauen aburuz, “benetako kristaua” izateko Teologia ikasi eta kristau ideiak predikatzearekin aski izango da. Horrela, bada, kristau izatea kristautasunari buruz gogoeta egite hutsera murriztua izango da. Hori dela eta, Kartesiar “*cogito ergo sum*”-en gertatzen den moduan, Ebanjelioan ezagutzera ematen den “egiari” buruz gogoetak egiten dituen oro “kristaua” da jada (kasu honetan, ordea, “kristautasunean pentsatzen dut orduan kristau naiz” esakunearen lemapean). Horrenbestez, gauza bera izango dira “egi teorikoa” eta “egi existentziala”.

Halaber, Kierkegaarden iritziz beti ere, Danimarkako Eliza Protestantearen ordezkari hauek “egiaren imitatzaile” izan beharrean, pentsatzen duten horrekiko inongo konpromezurik hartu gabe, “egiaren ezagutzaile” eta miresle hutsean geratzen dira. Ez dute “benetako” kristau bizitza bizitzen. Ez dute kristautasunez jokatzeko. Kristautasuna “*Fides quae creditur*”-era murrizten dute, hots, “Fides hutsera”. Espekulazio teologikora alegia. Hala, kristautasuna “maisuen kristautasunera” murriztua izango da, predikazioa eta heziketa kristautasunaren ardatz bilakatuz. Guzti honek, halaber, Kierkegaarden arabera beti ere, kristautasuna faltsukeriara murriztea dakar berarekin. Izan ere, Kristo “doktrina emaile” moduan aurkezteak eta bere erlijioa “doktrina hutsera” urritzeak, existentzia alde batera ustea suposatzen du.¹⁷⁰

En toda la modernidad... la confusión es otra y mucho más peligrosa. (...) se ha eliminado totalmente a Cristo, arrojado fuera, y se ha tomado su doctrina (Laehre), considerándole a El en definitiva casi como se considera a un anónimo: la enseñanza (Laehre) es lo principal, lo es todo. De donde se sigue esa autosugestión de creer que el cristianismo todo él no es más que comunicación directa (ligefrem Mteddelese), todavía más inmediata en su sencillez que los dictados del profesor.

¹⁶⁹ Gazteleraz *la identidad del pensar y del ser*.

¹⁷⁰ Gai honi buruz batez ere, *Ejercitación del cristianismo*-n hitz egiten du.

Es completamente sin sentido haber olvidado que el Maestro (Laehreren) aquí es más importante que la enseñanza. (...). Mas en nuestro tiempo se hace todo abstracto y se anula todo lo personal: se toma la doctrina de Cristo -y se anula a Cristo. Esto es la eliminación del cristianismo; ya que Cristo es una persona, y es un Maestro, que es más importante que la doctrina¹⁷¹.

3.2.2.2. Erlijio arrazionala

Hegeliar jarraitzaileek kristautasuna maisu batek eskainitako irakaskuntza edota doktrina huts batera murrizteaz gain, doktrina arrazional moduan ikusten dute. Arrazoiaren bidez ulertua den ikasbide gisa alegia.

Hegelentzat erlijioaren edukiaren eta Filosofiaren artean emango den erlazioa “erlazio harmoniatsua” izango da, zeren eta jakintza eta fedea identifikatu egiten baitira.

Hegeliar pentsalariak, bertzenaz, bere “maisua” ideiak jarraiki, fedea “berezkoa”¹⁷² den zerbait bezala ikusten dute. Gaitutia izan behar den eta guztiok dugun ezaugarri gisa alegia. Horrenbestez, “Ezjakintasun sokratikoa” gaitutia izango da xedea. Hau da, aurrera egitea, fedez haratago joatea. Fedea, hala, kontzeptuen bidez modu arrazionalan azaldua izateaz gain, Kristautasuna “erudizio zientifikoaren” gaia izatera pasako da.

Kierkegaard pentsa dezakegun moduan ideia hauen aurka altxatuko da:

En nuestro tiempo nadie se para en la fe, sino que todos van más lejos. (...). El término al que llegaban esas figuras venerables después de tantos esfuerzos, es hoy el punto de partida en que todos comienzan por las buenas para, inmediatamente, ir más lejos (at gaae videre). (...). Mi objeción, sin embargo, es que por muy capaz que se sea en verter en fórmulas conceptuales todo el contenido de la fe, no por ello hemos llegado a comprender la fe...¹⁷³

...pusieron en su lugar la noción de pensar sobre el cristianismo, suponiendo que se hacían cristianos de esta forma, y consiguientemente intentando avanzar más allá de la fe; pues no se pararon en la fe... comenzaron como cosa natural con la fe, que "naturalmente" todo el mundo tiene ...¹⁷⁴

Daniar hegeliar pentsalarien iritziz ere, aurreneko mendeetan ulertua izan zen kristautasuna “benetako kristautasunarengandik” oso urrun aurkituko da, hots, oraindik

¹⁷¹ IChr, 115-116 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 59. orrialdean aipatua

¹⁷² Gazteleraz *lo inmediato*.

¹⁷³ FB, 59 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 61. orrialdean aipatua

¹⁷⁴ Dslv, 462 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 61. orrialdean aipatua

osatu gabea izango da. Hala, kristautasunak bere “osotasuna” termino arrazionala itzuliz izaten denean lortuko du, arrazionaltasun honek emango baitio kristautasunari “egi osoaren” izaera.

"El filósofo especulativo piensa de otra forma; él sólo cree hasta cierto punto; pone la mano en el arado y mira a su alrededor para encontrar algo que conocer. (...). Pero suponte que finalmente vino de prisa un vivaz Priuatdozent y dijo lo siguiente: "no soy como estos tres; yo no sólo creí, sino que además he explicado el cristianismo y mostrado que tal y como fue expuesto por los Apóstoles y apropiado en los primeros siglos sólo era verdadero hasta cierto punto; pero ahora se ha convertido en verdad plena por medio de la interpretación de la filosofía especulativa .. !" ¹⁷⁵

Kristautasunak orduan arrazoiarekin bat egingo du. Bata bestearekin erabat nahastua izango da. Nahasketa honen ondorioak izango dira hortaz: “arrazoiak” eta “irrazionalitateak”¹⁷⁶, “logikak” eta Errebelazioak eta Etika eta Dogmatikak bat egitea. Horrenbestez, Kristau erlijioa arrazoiarentzat gardena den zerbaitetan bihurtuko da. Sekretu bat izateari utziko dio eta, ondorioz, misterioak desagertu egingo dira. Hori dela eta, Kierkegaarden arabera beti ere, planteamendu honek kristautasunaren deuseztapena ekarriko du.

Kierkegaardentzat Errebelazioaren edo Agerkundearen ikuspegi intelektual-irrazional honek, hots, Errebelazioa edozein zientziarako objektu gisa azaltzeak, Jainkotasunarekiko otzantasuna eta errespetu falta azalerazten digu. Kristautasunean oinarritzkoa den Jainkoarekiko beldur galtzea alegia. Arrazoiaren jainkotzeak eta giza arrazaren jainkoespenak, bada, gizakia Jainkoaren aurrean harro eta handiuste agertzea dakar berarekin. Jainkoak sakratua izateari utziko dio, pertsona edo objektu baten maila berean jarriz. Horrenbestez, Jainkoa zientziaren objektu bilakatu da.

“Kristautasunaren deuseztapena” fedearen eliminazioan ere ikusten du Kierkegaardek. Kierkegaarden iritziz, fedearen funtsa irrazionalitatea itsu-itsuan onartzean datza, bere atxikimenduaren zergatia jakin gabe. Ez du denbora galtzen bere objektuaren “egiaren” eta “zilegitasunaren” arrazoizko defentsa egiten. Berarentzat, Kierkegaardentzat, fedearen egitasuna eta zilegitasuna baieztatzerako orduan, fedeak duen presentzia bera da frogarik onena. Horregatik, Kierkegaardentzat, “kristautasunaren egia” modu

¹⁷⁵ Eft, 194-195 orr. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 62. orrialdean aipatua

¹⁷⁶ Kierkegaardek fedea irrazionala den zerbait bezala ikusten du, arrazoiak haratago dagoena eta itxuan sinistu behar dena.

arrazionalen azaldu beharra, kristautasunean itsumustuka sinisten ez denaren froga da eta, bide batez, fedegabetasunaren seinale. Horrela, bada, Kierkegaardentzat “kristautasunaren egia” edota fedea zientzian bilakatzea, benetako kristauarengan ematen den subjektibitatearen eta barnetasunaren ezabatzea dakar berarekin.

Daniar pentsalariarentzat fedea “pasioa” da. Hau da, etengabeko tentsioan, larritasunean bizi beharra. Errebelazioaren edo Agerkundearen azalpen arrazionalak, ordea, paradoxaren ezeztatzea, ziurtasuna, azaleratzea eta fedearen pasioa gutxitzea suposatzen du.

Hori dela eta, ondorioztatzen duguna zera da: erlijioa ezin dugula modu arrazionalen azaldu kontraesanean jauzi gabe. Zentzugabekeria handi da kristautasunaren “egia”, hots, “Kristoren existentzia”, modu arrazionalen azaltzea. Izan ere, gizabanako partikular bat, hezur-haragizko gizaki bat, Jainkoa izatea paradoxa bat da. Eskandaluzko zerbait alegia. Giza arrazoiak gorrotatzen duena gainera eta frogatzeak frogaketaren objektua arrazionalizatzea suposatzen duenez gero, ezinezkoa suertatzen da irrazionala edota paradoxikoa den zerbait azaltzea.

¿Puede pensarse, en general, una contradicción más disparatada que la de querer demostrar ...que un hombre particular es Dios? Que un hombre particular sea Dios, es decir, que diga que lo es, es ciertamente el escándalo. *Κυεξιοχην*. Mas ¿qué cosa es el escándalo, lo escandaloso? Lo que pugna contra toda (humana) razón. ¿Y esto es lo que se quiere demostrar! Pero "demostrar" significa convertirse algo en racional real dado. ¿Puede lo que contradice toda razón convertirse en lo racional-real?, desde luego que no, si es que uno no desea contradecirse a sí mismo. Lo único que se puede "demostrar" es que pugna contra la razón ¹⁷⁷

3.2.2.3. Erlijio abstraktua

Kristautasuna, daniar hegeliar pentsalarien esku jauzteak, kristautasuna “erlijio abstraktuan” bilakatzea dakar berarekin. Abstrakzio honek “*kantitateak*” “*kualitatea*” *determinatzen duenaren* hegeliar printzipioan du bere jatorrian. Printzipio hau kristau eremuan aplikatuz gero, Estatuaren edo Nazioaren izaera konfesionalak determinatuko du gizakien erlijiozkotasuna. Erlijioaren ikuspegi honen arabera, bada, gizabanako konkretua ez da “kristau subjektua” izango, “Kristau subjektua” gizabanakoa gainditzen duen osotasun unibertsal bat izango baita. Hau da, Nazioa, Estatua, gizateria...

¹⁷⁷ IChr, 24-5. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 64-65 orrialdetan aipatua

Horregatik, “kristau subjektuaz” hitz egiten dugunean “Estatu kristauaz”, “herrialde kristauaz” eta “mundu kristauaz” hitz egiten dugu. Ideia hau laburtzerako orduan, bestalde, Kierkegaardek “parekatze”¹⁷⁸ kategoria erabiliko du eta erlijioaren subjektu indibidualaren ezeztatze ideari egingo dio erreferentzia.

Gizabanako kristauaren “abstrakzio” edo “ezeztatze” honek, Jainkoaren aurrean gizabanako kristauak duen erantzukizunaren suntsitzea ere suposatzen du. Gizakia, bada, ez da “kristaua” kristau izatea erabakitzen duelako, baizik kristau eremu geografiko baten jaio eta bizi delako. Kristau izatea, beraz, zerbait erraza da, inongo esfortzurik egin gabe Kristau Estatu konfesal baten jaiotze hutsarekin aski da.

Horrenbestez, Kierkegaarden erlijio kritika garai hartan Danimarkan indarrean zegoen kristau ikuspegiari egiten dion barne kritika izango da. Ez da kanpotik eginiko kritika izango eta Danimarkako Eliza ofizialaren ordezkari ziren Mynster gotzainari, bere oinordeko zen Martensen-i, Grundtvign-i, Adlerer-i eta Sørenen anai nagusia zen Peter-i zuzenduak izango dira. Horrela, bada, esan dezakegu, Kierkegaardek garaiko erlijioari kritika gogorrak jaurtiki arren, erlijioso izateari ez ziola inoiz ere utziko.

¹⁷⁸ Gaztelera *nivelación*.

3.3. KIERKEGAARDEN FILOSOFIA PRAKTIKOA.

Kierkegaardek Hegeliar “filosofia teorikoaren” aurrean, “filosofia praktikoa” lantzen du. Hau da, “izatedun errealitatea”¹⁷⁹ interpretatzera eta irauaraztera mugatu beharrean, “izatedun errealitatea” eraldatzen saiatuko da. Bere iskirioek ez dute tratatu teorikoa izan nahi, manifestu bat baino. Xede zirikalaria da nagusi bere lanetan eta aldaketaren erretolikak izango dira. Izan ere, Kierkegaardek, ororen gainetik, pentsalari praktikoa izan nahi du. Bizi duen errealitate historikoaren erreformatzailea alegia.

Kierkegaarden filosofiak duen izaera praktikoak, bada, bi eremu osagarritan hedatzen da: lehen aspektua, aspektu ezkorra izango da eta “nola halako” errealitatearen kritika suntsitzailea suposatuko du. “Me he consagrado a expresar el pensamiento de que el mundo, si no malo, es mediocre ...”¹⁸⁰.

Eraldaketaren bigarren aspektua, aldiz, izaera positiboa izango du. Hala, xedea suntsitutako errealitatearen zoruaren gainean zinezko errealitate berri bat eraikitzea izango da. Zinezko errealitate hau, bada, gizabanako etiko-erlijiosoarena izango da. Erlijiozalearena, kristauarena, alegia.

Oro har, aurreko atalean argi ikusi dugu zertan datzan Kierkegaardek hegelianismoari egin dizkion kritikak. Gauzak honela, zein izango da Kierkegaarden zeregin konstruktiboa?

Daniar pentsalariaren helburua ez da izatedun errealitatea irudikatzea izango, zeren Kierkegaardentzat izatedun errealitatea ez da zinezkoa izango. Hori dela eta, oraindik izateduna ez den errealitatearen irudi ideal edo paradigmatico bat aurkeztea izango du xede. Hortaz, ez da aurretikako izatedun errealitatearen “a posteriorizko” ezagutza bat lantzen, errealitate berri bat eraikitzeko beharrezkoa izango den “a priorizko” ezagutza bat baino. Kierkegaarden izkribuak benetako irudikapena eta zehaztasuna bilatzen dituzten plano edo maketa mentalak dira. Kantiar kategoriak erabiliz, bada, esan

¹⁷⁹ Gazteleraz *realidad existente*.

¹⁸⁰ SFV, 572 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 69. orrialdean aipatua

dezakegu, ez direla “izatedun fenomenoak” objektibizatzen dituzten kontzeptuak izango, egin beharreko zerbaiti zuzenduriko proiektuak edo “ideiak” baino.

Kierkegaardek “ideia” edo proiektu hauen bidez existentziaren posibilitate ezberdinak aurkezten dizkio irakurleari. Hau da, bizi-behar-ez duen “bizimodu estetikoa” eta bizi-behar duen “existentzia etiko-erlijiosoa”. Horrenbestez, Kierkegaardek bere filosofia praktikoarekin bere irakurleak izango diren daniar hiritarrei, “benetakoa ez den”¹⁸¹ bizimodua bizi dutela ikustarazi nahi die eta, honekin batera, bizimodu hau aldatu beharraren premia azaleratu (modu honetan bere planteamendua irakurlearen esku dagoen tresna pedagogikoan bilakatzen da).

Kierkegaard, Sokratesek Atenasen egin zuen bezalaxe, garaiko gizartearekin harremanetan jarriko da. Bere hirikideekin hitz egiteari ekingo dio, bai aurrez aurreko elkarriketak medio, bai idatzien bidez. Bere etengabeko jardueraren helburua, hortaz, daniar hiritarrak azaleko kristautasunaren ondorioz bizi duten lozorro lasaitik esnatzea izango da.

Hegeliar pentsamenduaren aurka sortu zen jarrera praktiko bakarra, ordea, ez zen Kierkegardena izan. Hor izango ditugu. besteak beste, sozialismo utopikoak (Saint-Simon, Fourier, E. Cabet, Owen...), errusiar anarkistak (A. Kerzen, V.G Berlinsky, M. Bakunin, P.A. Kropotkin...), Krausistak... eta, nola ez, Nietzsche. Puntu hau argitu ondoren joan gaitezten Kierkegaarden planteamendu praktikoaren nondik norakoa azaltzera.

3.3.1. Filosofia praktikoaren edukia: hiru bizimoduen lanketa.

Kierkegaarden filosofia praktikoaren alderdi ezkorra agerikoa geratu da hegeliar “sistemari” egin dizkion kritika zorrotzean. Filosofia praktikoaren eremu baikorra edo positiboa, aldiz, bi bizimodu ezberdinetan eratuko ditu Kierkegaardek. Alde batetik, ekidin behar den bizimodu bat egongo da. Hau da, *bizimodu estetikoa*, Kierkegaardek “existentzia inautetikoa” gisa definituko duena. Beste bizimodua, aldiz, segitu beharreko bizimodua izango da, daniar pentsalariak *bizimodu etiko-erlijioso* moduan

¹⁸¹ Gazteleraz *inauténtico*.

definitu duena. Kasu honetan *bizimodu etiko-erlijioso* “existentzia autentikoaren” ideal gisa aurkezten zaigu.

Horrenbestez, bi planteamendu hauekin Kierkegaardek lortu nahi duena zera izango da: alde batetik, *bizimodu estetikoaren* planteamendua daniar hiritarrei burutik kentzea; eta bestetik, beraien bizitza *existentzia etiko-erlijiosa* zuzentzea.

3.3.1.1. Abiapuntua: giza izaera.¹⁸²

Kierkegaardek garaikideak diren herrikidei azalduko diena, laburbilduz, *bizimodu estetikoaren* eta *etiko-erlijosoaren* programen jatorriaz gain, “angustia” edota “larritasuna” eta “etsipena” bezalako fenomenoaren analisisia izango da.

Puntu honi dagokionez esan beharra dagoena zera da: aipatu berri ditugun “larritasunaren” eta “etsipenaren” kontzeptuak giza izaera determinatu baten ikusmoldearen arabera emanikoak direla. Hau da, antropologia bat aurreuposatzen dute. Hori dela eta, beharrezkoa egiten zaigu bizimodu ezberdin hauen azalpenak egin aurretik, Kierkegaarden giza izaerari buruz zuen ikuskera ezagutzera ematea. Hau da, zer da Kierkegaardentzat gizakia?

Galdera honi erantzuna emateko Kierkegaarden bi lan aintzakotzat hartuko ditugu: *Angustiaren kontzeptua*¹⁸³ (1844) eta *Gaixotasun mortala* (1849)¹⁸⁴.

Kierkegaarden “angustiaren” edota “larritasunaren” kontzeptuak “dogmatikaren hipotesia”¹⁸⁵ du abiagunetzat. Hau da, “gizaki primitiboa” errugabea izatetik, gaur egungo Adanen ondorengo gizakia erruduna izatearen iragatea. Deskribapen honetan argi geratzen da, Kierkegaarden iritziz, giza izaeraren baitan eraldaketa bat eman dela, hots, degradazio bat, galera bat, hondamendia bat... Hortaz, Adanen ondorengo gizakiaren berezko izaera errudunaren jatorrian, jatorrizko bekatuaren ondorioak diren “bekatuzkotasuna”¹⁸⁶ (Syndighed) eta “sexualitatea” (Sexualitet, det Sexuelle) egongo

¹⁸² Gaztelera *naturaleza humana*.

¹⁸³ Gaztelera *El concepto de la angustia*.

¹⁸⁴ Gaztelera *La enfermedad mortal*.

¹⁸⁵ Gaztelera *supuesto de la Dogmática*.

¹⁸⁶ Gaztelera *pecaminosidad*.

dira. "Las consecuencias (del pecado original) fueron dos: que el pecado vino al mundo y que quedó establecida la sexualidad, sin que lo uno pueda separarse de lo otro"¹⁸⁷

Kierkegaardek, gizakia, erruduntasunean oinarritutako izaeraren arabera definitzeaz gain, *Angustiaren kontzeptua* lanean, gizakia "espirituaren" bidez eutsia den arimaren eta gorputzaren arteko sintesi moduan definitzen du. "el hombre es una síntesis de alma y cuerpo, constituida y sostenida por el espíritu"¹⁸⁸. Liburu honen hirugarren kapituluan, bestalde, Kierkegaardek gizakiaren berezko izaera denbora-eternitatearen ikuspuntutik azalduko digu. Hau da, gizakia, istantearen baitan ematen den denborazkoa denaren eta betierekoa edo eternoa denaren arteko sintesiaren emaitza dela esango digu.

Gizakiaren definizio hauetaz gain, beste definizio batzuk ere emango dizkigu Kierkegaardek; baina argi geratzen dena zera da: gizakiaren definizio hauen atzean hegeliar kategorien presentzia erabateko izango dela. Kontzeptu hauek hortaz hegeliar "sistematik" eratorriak izan dira; baina Kierkegaardek kontzeptu hauek bere filosofian barneratzearekin batera, "metafisikaren" unibertsaltasunaren erreinutik "antropologiaren" eremu partikularrera eraman ditu, alemaniar filosofia idealistaren baitan zuten zentzua galduz. Izan ere, Kierkegaarden pentsamenduaren baitan, kontzeptu hauek errealitatearen osotasunari ez diote erreferentzia egiten, osotasun horren atal zehatz bati bakarrik baino, hots, gizakiari. Modu honetara Kierkegaarden "antropologia" hegeliar "metafisikaren" parodia bezala agertuko zaigu, beranduago Sartrek bere *El Ser y la Nada*-n egingo duen bezalaxe.

Gizakiaren definizio hauen azpian, bestalde, gizakiaren arimaren eta gorputzaren bereizketa tradizionala aurkitzen dugu. Horrela, bada, gizakiaren berezko izaera interpretatzerako orduan tradizio hau kontutan hartu beharrean aurkitzen gara. Hau da, Hegelen *Entziklopedia*-ren (1817) "Benetako Arima"¹⁸⁹ bezala ezagutzen den puntua. Definizio honek ezagutzera ematen diguna zera da: Feurbach-ek, Marx-ek, Nietzsche-k eta, orokorrean, korrante monista-materialistek ez bezala, Kierkegaardek gizakiaren ikuspegi dualista zuela. Hori dela medio, zentzu honetan Kristautasunaren eta Antzinaroko greziar paganismotik hasi eta XIX.mende hasiera arte garatu zen tradizio

¹⁸⁷ BA, 319 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 76. orrialdean aipatua

¹⁸⁸ Ibid., 351 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 77. orrialdean aipatua

¹⁸⁹ Gazteleraz *Alma real*.

filosofikoaren jarraitzaile dugu Kierkegaard. Gizakiaren ikuspegi honen arabera, bada, Kierkegaardek gizakia aurkakotasun erlazioan oinarritutako bi elementuen arteko sintesi moduan ulertuko du.

El hombre es una síntesis cuyos contrastes extremos quedaron establecidos desde el principio y que después, cabalmente por el pecado del hombre, llegaron a oponerse entre sí de una manera aún mucho más acentuada ..." ¹⁹⁰ De ahí que el hombre sea un campo de batalla en el que se libra una constante lucha entre estos dos elementos antitéticos e irreconciliablemente enemigos el uno del otro. "Este es el lugar donde ha de entablarse la pavorosa batalla que ha sido introducida en el mundo. Y ¿dónde está ese lugar? En el interior del hombre"¹⁹¹.

Gizakiaren batasun edo sintesi dialektiko hau osatzen duten muturreko bi elementu hauek, bestalde, "gorputza" (Legeme) eta "arima" (Sjæl) izango dira.

3.3.1.1.1. Gorputza

Kierkegaardentzat gorputza osagarri materiala da. Berezko instintuen eta berehalako asetzea bilatzen duten desio berekoien oinarria alegia. Gorputzak, hortaz, bizitzaren alderdi aberekoa osatzen du eta berarengan bekatuzkotasuna aurkituko dugu.

En él reside la "pecaminosidad", esto es, la sensibilidad (Sanselighed) corrompida por el pecado original y consiguientemente dispuesta para cometer nuevos posibles pecados. Y semejante pecaminosidad se traduce en último término en "sexualidad", en "diferencia sexual en cuanto impulso"¹⁹²

Bulkada sexualak bulkada sentsualaren gailurra moduan ikusiko ditu Kierkegaardek, hots, gizakiaren bekatuzko izatearen gorputzasunaren eredu moduan. Sexualitatea eta bekatua, horrenbestez, elkarrekin joango dira.

Sexualitatea eta bekatua batera doazen bezala, gorputzarekiko bereizezinak izango dira. Hemendik ondorioztatzen duguna zera da: aingeruak, gorpu baten jabe ez direnez gero, sexu gabekoak dira eta, ondorioz, bekatuzkotasunetik kanpo aurkitzen diren espiritu perfektuak. Horrela, bada, laburbilduz, gorputza gizakiaren osagarri materiala den neurrian, instintuen eta bulkaden eroalea ere izango da eta gorputzaren izaera materiala denez gero, "tenporala"¹⁹³, "finitua" eta "beharrezkoa"¹⁹⁴ ere izango da.

¹⁹⁰ BA, 328 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 78. orrialdean aipatua

¹⁹¹ OTfA, 289-290 orr. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 78. orrialdean aipatua

¹⁹² Di X A234. "Gizakia ere aberea da". (BA, 319 or.)

¹⁹³ Gazteleraz *temporalidad*.

¹⁹⁴ Gazteleraz *necesario*.

Gorputzaren “tenporalitateak” kontingentzia esanahi du. Hau da, hasiera bat izan zuen eta bukaera bat izango du. Aldakorra eta iragankorra da gainera eta denborarekin desagertu egingo da. “Finitu” kalifikatzaileak ere gorputzak duen beste muga bati egiten dio erreferentzia. “Finitutasuna” denboraren nahiz espazioaren zentzuan uler daiteke. Horrenbestez, gorputza “errealitate finitua” denez gero, beste bizidunengandik bereizten den kanpo mugatze bat ere izango da. Izate materiala izateak, bestalde, denbora eta espazio determinatu batean egotea suposatzen du. Hortaz, mugatze honek “beharrezkotasuna” ere suposatuko du. Hala, gorputzaren izaera mugatua onartu behar den zerbait izango da eta gorputza espazio-denbora jakin batean ematen denez gero, jaiotzen garenean sortzen den bezala, hil eta gero desagertu egingo da.

3.3.1.1.2. Arima

Beste oinarrizko giza elementua, eta gorputzaren kontrakoa dena, arima da. Tradizionalki arima “borondateaz” eta “ulermenaz” osatutako entitate gisa kontzebitua izan da. Kierkegaarden arimaren ikuskerak, bada, zerikusi handia izango du arimaren ikuspegi tradizional honekin. Kierkegaarden iritziz arimak izaera “immateriala” izango du eta “askatasunaz” eta “espiritua” osatua egongo da. Horrenbestez, “askatasuna” eta “espiritua” arimaren bi aspektu ezberdin izango dira.

Animaliek ez bezala gizakia ez dago bere egitura biologikoaz predeterminatua, “askatasunaren” (Frihed) gaitasunaren jabe baita gizakia. Kierkegaardentzat “askatasunak” gizakiaren esentzia eraikitzen du. Hortik, hautatzearen edo erabakitetasunaren kategoriak duen garrantzia. Hortaz, gizakia (“nia”), gauza guztien gainetik “askatasuna” izango da. Baina zer ulertzen dugu “ni neu” esaten dugunean? “Ni neu” esaten dugunean aldi berea askatasunaren ikuspegi abstraktuarekin eta konkretuarekin aurkitzen gara. “Askatasuna”, gizakiaren benetakotasun¹⁹⁵ maila neurtuko duen tresna izango da: gizakia gero eta askeago izan orduan eta benetakoagoa edo autentikoagoa izango da. Beste modu batera esanda, “askatasun” gehiago,

¹⁹⁵ Gazteleraz *autenticidad*.

“benetakotasun” gehiago. Izan ere, “ongia¹⁹⁶ askatasuna da eta berarengan, “ongiarengan”, salbazioa aurkitzen dugu.

“Askatasunaren” ikuspegi honek, beraz, dimentsio bikoitza izango du eta Kierkegaardengan presente dagoen “borondatearen askatasunaren” eta “hautuaren erabakimen askearen”¹⁹⁷ arteko bereizketa tradizionala azaleratuko digu. “Borondatearen askatasuna” gorputzaren berezko instintuen erabateko automenderatze¹⁹⁸ gaitasun gisa ulertzen du Kierkegaardek eta gizakiari inposatu nahi dion barne premia bat bezala definituko du. Izaera ontologikoa izango du beraz, eta gizakia gaitasun honen jabe den neurrian, askea izango da. “Hautuaren erabakimen askea”, aldiz, modu honetan edo bestean jokatzeko, aukera hau edo bestea egiteko, eta norberak bere kabuz ekintza bat determinatzeko gaitasuna izango da. Horrenbestez, gizakiak “askatasunez” jokatzeko duenez gero, “askatasun” mota honek izaera etikotik gehiago izango duela esan ohi da. “Borondatearen askatasunak”, beraz, izaera esentziala izango du. “Hautuaren erabakimen askeak”, aldiz, osagarriarena. Ondorioz azken forma honek, hots, “hautuaren erabakimen askeak,” bere oinarri eta baldintza gisa “borondatearen askatasuna” izango du. “Askatasun erradikala”, erabatekoa, alegia. Azken hau emango ez balitz, hots, “giza borondatearen askatasuna” emango ez balitz, gizakia gorputzaren inpultso naturalen menpe egongo zen eta ez zuen “hautuaren erabakimen askearen” posibilitateak tokirik izango. Beste modu batera esanda, “borondateak” gorputzaren instintuengan nolabaiteko domeinua duelako “hautuaren erabakimen askea” posible da. Hau da, gizakia ez bada erabat askea, ezin izango du askatasun osoz jokatu.

Baina egia izan arren “hautuaren erabakimen askeak” “borondatearen askatasunaren” dependentzia duela. Ez dugu ahaztu behar azken honek, hots, “borondatearen askatasunak” “hautuaren erabakimen askearen” beharra duela, baitik bat, “giza askatasuna” bere osotasunean garatua izateko. Horrela, bada, gure “borondatearen askatasuna” gure nortasunaren iturburua izango dena, gure banan banako erabakien emaitza izango da. Hortik, gure indibiduoaren eraikuntzan gure erabakiek duten

¹⁹⁶ Gazteleraz *el bien*.

¹⁹⁷ Gazteleraz *Elección de libre albedrio*.

¹⁹⁸ Gazteleraz *autodominio*.

garrantzia. Horrenbestez, bi askatasun hauek elkarrekiko dialektikaren baitan hedatuko dira, norazko bikoitzean berrelikatuz.

Giza arimaren beste dimentsioa “espirituaz”¹⁹⁹(Aand) osatua dago. Kategoria honen esanahia bilatzerako orduan, berriz ere, hegeliar filosofiara joan beharrean aurkitzen gara. Egia da Kierkegaardek “espirituaren” kategoria bere pentsamenduan txertatuko duela, baina zentzu ezberdina emango dio kategoria honi ere. Hegeliar “espirituaren” esanahietako bat autokontzientzia edota Absolutuak bere buruaz duen “kontzientzia” izango da. Kierkegaardengan ere “espirituaz” “kontzientzia” izango da baina ez da Absolutuak bere buruari buruz duen “kontzientzia absolutua” izango, baizik gizabanakoak bere buruari buruz duen kontzientzia partikularra.

“Espiritua”, bada, daniar pentsalariarentzat, gizabanako konkretuaren berezko kategoria izango da. Animaliangandik bereizten gaituena alegia. “Kontzientzia” edo “espiritu indibidual” honek eremu bikoitza eskaintzen digu: alde batetik eremu teorikoa egongo da, “kontzientzia teorikoak” osatzen duena eta “ni naizenaz” jabetza emango didana. Beste aldetik, berriz, eremu praktikoa egongo da, “Kontzientzia praktikoa” alegia, nire betebeharrak zeintzuk diren adieraziko dizkidana. Hortaz, “espirituak”, “ongiaren” eta “gaizkiaren” arteko ezberdintasunaren jakitun izatea ahalbidetuko dit eta, aldi berean, bakoitza garena eta izan behar duguna islatzen digun ispilua izango da.

Gorputza espazio-denboraren testuinguruan giltzapetua dagonez gero, gizakia mugatzen duen moduan, arimak ireki, hedatu, egingo du gizakia. Hala, gorputzak iraganari egiten dio erreferentzia. Arimak, aldiz, “kontzientzia praktikoarean” betekizunek osatzen duten “betikotasuna” edo “posibilitatea” den neurrian, etorkizunari egingo dio erreferentzia.

Ondorioz, gizakia ez da “finitua” edo “infinitua” bakarrik izango, bi elementuen elkartzea baino. Elkartze horren baitan gizakia “finituaren” parte den neurrian (gorputza) partikularra izango da. Shopenhauer-en eta Feuerbach-en *principium individuationis*-a alegia. baina kasu honetan gizabanako partikularra izango da eta ez gauza partikularra. Izan ere arimak infinituari egiten dio erreferentzia, posibilitateari, gizakia pertsona bezala determinatuz eta ez objektu edo gauza moduan.

¹⁹⁹ Gazteleraz espiritu.

Arimaren eta gorputzaren edota iragankortasunaren eta betikotasunaren arteko sintesi honi Kierkegaardek “istantea” (Oieblikket) deituko dio. Horrela, bada, gizakia denboraren eta betikotasunaren sintesia denez gero, momentua edo “istantea” osatuko du. Kategoria filosofiko hau ere Hegelengandik jaso izango da, baina beste esanahi bat emango dio Kierkegaardek.

Kierkegaarden iritziz, “hegliair istantea” denboraren atomo huts bat bezala definitua izan da, hots, denboraren kategoria gisa. Igarotzen eta desagertzen den zerbait moduan alegia. Kierkegaardentzat, ordea, betikotasunaren atomoa da “istantea”. Denboraren baitan ematen den betikotasunaren lehen isla alegia. “un átomo de la eternidad. Es el primer reflejo de la eternidad en el tiempo”²⁰⁰. “Istantea”, hortaz, denboraren eta eternitatearen artean aurkituko da, bi ezaugarri hauez (denbora eta eternitatea) bustia: “El instante (el hombre) es una cosa ambigua en la que entran en contacto el tiempo y la eternidad ..., y donde el tiempo está continuamente seccionando la eternidad y ésta continuamente traspasando el tiempo”²⁰¹

Puntu honetara iritsita, ulergarria suertatzen zaigu Kierkegaardek *Gaixotasun mortala* (1849) lanean gizakiaren definizioaren baitan azaltzen duen sintesia ulertzea.

El hombre es espíritu. Mas ¿qué es el espíritu? El espíritu es el yo. Pero ¿qué es el yo? El yo es una relación que se relaciona consigo misma, o dicho de otra manera: es lo que en la relación hace que ésta se relacione consigo misma. El yo no es la relación, sino el hecho de que la relación se relacione consigo misma.²⁰²

Baieztapen honetan ez digu gauza berririk esaten Kierkegaardek baina esanguratsua da paragrafo honen hasieran “gizakia”, “espiritua” eta “nia” sinonimo bezala aurkeztea. Ideia hau argitara eman ondoren, “niaren” edukia azaltzen digu. Aurreko azalpenak kontutan hartuz gero, “nia” erlazioa bat da (Selvet er et Forhold), gorputzaren eta arimaren arteko sintesia alegia. Gorputzaren eta arimaren arteko erlazio hau, bestalde, bere buruarekin erlazonatzen da. Honek zer esan nahi du? gorputzaren eta arimaren arteko sintesi hau erreflexiboa edo kontzientea dela, hots, bere “izatearen” (“kontzientzia teorikoa”) eta “izan behar duenaren” (“kontzientzia praktikoa etiko-erlijioso”) jakituna dela gizakia. “Kontzientzia” bikoitz honetan errotuko da bigarren

²⁰⁰ BA, 358 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 84. orrialdean aipatua

²⁰¹ Ibid., 359 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 84-85 orrialdetan aipatua

²⁰² SD, 127 OR. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 86. orrialdean aipatua

erlazio hau. Horrela, bada, esan dezakegu “nia” arimaren eta gorputzaren arteko erlazioa dela eta erlazio hau posible da, “kontzientzia teorikoaren” eta “praktikoaren” bidez, “niak” bere buruaren kontzientzia hartzen duelako. Basatiek ez bezala, gizakia ez da “izatearekin” bakarrik konformatzen. Gizakia erabat Kontzientea da. Argi dauka “zer den” eta “zer izan nahi duen”.²⁰³ Hemen datza bere handitasuna eta tragedia. “Kontzientzi” honek bere existentziaren hobetzea, gainditzea eta perfektionatzea eskaintzen dio alde batetik; baina beste aldetik, bere existentzia mugatuaren kontzientzia bistaratzen dio. Hori dela eta, tragedia bikoitza azaleratzen dizkio gizakiari. Lehena, Kontzientziak bere izatearen “ezereza”²⁰⁴ argitara ematen dio eta, ondorioz, “ezerez” honek etengabeko larritasuna sortaraziko dio gizabanakoari, bigarren tragedia eratorriz. Baina norberaren izaerarekin ematen den erlazio hau norberak jarria al da? Edota, alderantziz, kanpotik emana den zerbait da?

Gizakiak bere begirada metafisikoa bere barrenera zuzenduko du eta giza existentziaren sakontasunean aurkituko du galdera honen erantzuna eta, horrela, ohartuko da bere baitan aurkitu duen “askatasuna” norbaitek jarria dela. Istant horretan, “kontzientzia erlijioso” duela konturatuko da, hots, transzendentea den “izaki gorenak” jarri dion “kontzientzia erlijioso” baten jabe dela.

Hemen, ikusten dugu zera da: “niak” Egile (Oinarri) transzendente batekiko menpekotasuna duela. Gizakia “askatasunaren” eta “kontzientzia erlijiosoaren” jabe den neurrian, beraz, Jainkoarekin erlazionatua egongo da. Horregatik, gizakiak bere buruarekin duen autoerlazioarekin batera Jainkoarekiko erlazioa ere emango da.

Jainkoarekin erlazioan dagoen gizon hau, “infinitutasunaren” eta “finitutasunaren”, “betikotasunaren” eta “iragankortasunaren”, arteko sintesia izanik, burutua eta burutzear dagoen zerbait ere bada. Gizakia bukatu gabea den izakia da. Oraindik burutzear dagoena alegia. Gizakiari “nia” eman zaio baina bere kabuz burutu behar duen zeregin bezala ulertuta, hots, bere erabakien bidez gauzatu behar den posibilitate moduan entendentuta.

²⁰³ Sartrearen “en sí” eta “para sí”a

²⁰⁴ Gaztelera *la nada*.

Baina zertan datza gizakiaren zeregin hau? Zer esan nahi du gizakia bera dena izatera iristeak? Norbera garena izatera iristeak askeak izatera iritea esan nahi du. Gero eta askeago izatea alegia. Izan ere, askatasunik gabe ezinezkoa da garena definitzea. Horrek zer suposatzen du? Hautua egitea inongo baldintzapenik gabe. “Askatasunaren” garapen honek, hortaz, lotua zegoen gauzetatik liberatzea eskainiko dio gizaki konkretuari. Ondorioz, gizakia etengabeko bilakatzean aurkituko da eta bere bizitza atergabeko ibilaldia izango da, hots, betiereko garapen prozesu bat. Bere “askatasunaren” eta pertsonalitatearen etengabeko gauzatzea alegia.

El yo es la síntesis consciente de infinitud y finitud, que se relaciona consigo misma, y cuya tarea consiste en llegar a ser sí misma... Ahora bien, llegar a ser sí mismo significa que uno se hace concreto. Pero hacerse concreto no significa que uno llegue a ser finito o infinito, ya que lo que ha de hacerse concreto es ciertamente una síntesis. La evolución, pues, consistirá en que uno vaya sin cesar liberándose de sí mismo en el hacerse infinito del yo (Udviklingen maa altsaa bestaa i udendeligt at komme bort fra sig selv i UendeliggjØrelse af Selvet), sin que por otra parte de retornar incesantemente a sí mismo en el hacerse finito de aquél. (...). En definitiva, un yo siempre está en devenir en todos y cada uno de los momentos de su existencia, puesto que el yo *κατα δύναμιν* realmente no existe, sino que meramente es algo que tiene que hacerse. Por lo tanto, el yo no es sí mismo mientras no se haga sí mismo (da Selvet ikke vorder sig selv, er det ikke selv)²⁰⁵

“Gizakia izango dena” gizakiak erabakitzen duen bizimoduaren arabera definitua izango da. Honen aurrean Kierkegaardek hiru bizimodu ezberdinen arteko aukeraketa egitea proposatuko digu. Hau da, *bizimodu estetikoaren*, *bizimodu etikoaren* eta *bizimodu erlijiosoaren* arteko hautaketa. Hiru bizimodu hauek gizabanakoak aukeratu behar dituen aukerabideak edo bidegurutzeak izango dira eta egingo dituen hautuen arabera bere izaera zehaztuko du. Bizitzaren amaieran, beraz, gizakia bere bizitzan hartu dituen erabakien arabera definitua izango da.

3.3.1.2. *Bizimodu estetikoa.*

Kierkegaarden lan gehienak, batez ere lehen aldikoak, *bizimodu estetikoan* idatziak dira. Kierkegaardentzat “estetika” (Aesthetik) terminoak, gainontzeko filosofoekin alderatuz, zentzu berezia izango du. Ez du Artearen Filosofiaren esanahia izango. Kierkegaardentzat “estetika” bizimodu bat, existentziaren aldi edo fase bat izango da, hots, “bizitza naturalarena”, animalarena. Indar instintiboaren aroa alegia. Halatan, esan

²⁰⁵ SD, 143 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 90. orrialdean aipatua

dezakegu bere ikerlan estetikoak ez direla arteari buruzko tratatuak izango, baizik giza bizitzak dituen arazoen inguruko gogoetak.

Beste aldetik, *bizimodu estetikoa* hiru esanahietan hedatzen den kategoria polisemikoa izango da. Horrela, bada, *bizimodu estetikoak* hiru azpibizimodu izango ditu: *bizitza sentsuala*, *bizitza fantastikoa eta bizitza intelektuala*, gizakiari egokitzen zaizkion gaitasun klasikoaren arabera definituak izango dira. Hau da, zentzumenaren, irudimenaren (edo imajinazioaren) eta adimenaren arabera alegia. Azpibizimodu hauek, halaber, ez dute beste bi azpibizimoduak baztertzea inplikitzen, baina bai beste azpibizimoduekiko gailentze bat.

Bestalde, *Bizimodu estetikoa* osatzen duten hiru azpibizimodu hauek “berehalakotasuna” (Umiddelbhardhed)²⁰⁶ izango dute oinarritzat. Hortik, *bizimodu estetikoa* ongien laburtzen duen terminoa “berehalakotasuna” izatea. Daniar pentsalariarentzat, ordea, “berehalakotasunak” bi esanahi izango ditu. Lehena, “berehalakotasunak” “bizitza naturala” esan nahi du eta gizaki ororengan gauzatzeaz gain, gizakia jaiotzen den aldiari erreferentzia egingo dio. Izadiak emaniko zerbait izango da, beraz, inongo eraldaketarik nozitu gabea.

Constituye lo dado necesariamente con la existencia al principio como material rebelde y disforme que posteriormente hay que esculpir y pulir. "¿Qué es la estética en un hombre ... ? A está responderé: la estética en un hombre es aquello por lo cual ese hombre inmediatamente, lo que es"²⁰⁷

Bizitzaren estetikotasunaren aurrean, gizakia ez da hautu egin beharrean aurkitzen. Ez du ezer egin behar *bizimodu estetikoa* lortzeko, mundura etortze hutsarekin gauzatzen den zerbait baita: "Tu elección (la del estética) es una elección estética; pero una elección estética no es elección. En definitiva, elegir es expresión propia y rigurosa de lo ético."²⁰⁸

Horrela, bada, *bizimodu estetikoa* edo “berehalako bizitza” “bizitza artifizialaren” aurkako jarrera izango da, zeren “bizitza artifizialean” gizakiaren hautuek toki berezia izaten dute. Hori dela eta, *bizimodu estetikoa* giza garapenaren lehen etapa adierazten

²⁰⁶ Gazteleraz inmediatez.

²⁰⁷ EE-II. 262 or; cfr. baita ere, 201 eta 207 orr. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 92. orrialdean aipatua

²⁰⁸ Ibid., 156 or.

digu, hots, haurtzaroa. Esteta gizaki heldua izan arren, haurtzaroko estadio naturala gainditu ez duen norbanakoa izango da eta estadio honetako jokabideen eskemetan ainguratua egongo da.

Bigarren tokian, aldiz, berehalakotasunak espontaneotasunari egiten dio erreferentzia. Estetak bere buruari begira orduak eta orduak pasa arren, ez du bere buruari buruzko inongo gogoetarik egiten, ez du bere izate-betekizunak zeintzuk diren ezagutzen. Bere bizitza ez dago “kontzientzia” edo gogoeta bidez bideratua, gogoeta berehalakotasunaren ukatzea baita.

Gizabanako estetari buruz esan dezakegun lehen gauza, beraz, zera da: esteta beti dagoela kanpora begira.²⁰⁹ Bizimodu hau, bada, “eszentriko” bezala definitua izango da. Izan ere, esteta, “ni eszentriko” bat da eta, ondorioz, ez du bere baitan inongo arretarik jarriko. Bere atentzioaren erdigunea ez da bere “*nia*” izango, “besteak” baino.

Bizimodu estetikoaren hiru azpibizimoduetan emango den beste oinarrizko elementu bat “desira” (Attraa) izango da. “Desiraren” baitan Kierkegaardek hiru “desira” mota bereiziko ditu: “desira irrikatsua”²¹⁰, “desira ameslaria”²¹¹ eta “adimenezko desira”²¹².

Hiru desira mota hauek, bada, *bizimodu estetikoa* gizabanakoarengan aditzera emateko modu ezberdinak izango dira. Baina zeintzuk dira “desiraren” helburuak?

Estetak bizitza gozatu nahiko du. Zentzumenek eta amestu eta pentsatzen dituen errealitateek eskaintzen dizkioten plazerak nahiko ditu. Bizitzaren xede bakarrak, beraz, gozamina eta plazera izango dira. “su vida entera estaba determinada por el goce y el placer . Su consigna es: “¡gocemos de la vida!”²¹³.

²⁰⁹ “Estas siempre fuera de ti mismo” (EE-II. 175 or) Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 46. orrialdean aipatua

²¹⁰ Gazteleraz deseo anhelante.

²¹¹ Gazteleraz deseo soñador.

²¹² Gazteleraz deseo intelectual.

²¹³ EE-I. 277 eta 402 orr. Hortik dator, *bizitza estetikoa* bizitza hedonistarekin identifikatzea. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 94. orrialdean aipatua

Baina *bizimodu estetikoaren* berezkoak diren gozamen momentuak lipar iragankorrak izango dira. Betiereko nahi diren, baina, lortuko ez diren istanteak alegia.

El deseo está apuntando hacia el sujeto ... ; los objetos aparecen y desaparecen como por ensalmo, mas antes de desaparecer siempre hay un instante de goce, un instante de intensa emoción (et BerØrerelsens Øieblik), corto pero feliz, brillante como un gusano de luz caprichoso y fugaz (flygtigt) como el aleteo de la mariposa²¹⁴

Estetaren gozamen istantearen izaera iragankor honen oinarrian, hortaz, bere “desirak” erabat asetuak ezin izan daitezkeenaren sentsazioa egongo da: "el deseo no encuentra aún el objeto propio que calme ese afán inquisitivo"; "mis ojos están hartos y hastiados de todo y, sin embargo, tengo hambre"²¹⁵ Esteta, Don Juanek egiten zuen bezalaxe, beti egongo da plazeren bila. Hori dela eta, jokabide honekin *bizimodu estetikoaren* egonkortasun falta azaleratzen digu Kierkegaardek.

Bizimodu estetikoaren oinarritzko printzipioak diren “berehalakotasuna” eta “gozamenaren desira” azaldu ondoren, goazen bada bizitza estetikoaren hiru azpibizimoduak azaltzera.

3.3.1.2.1. Esteta atseginzalea.

Kierkegaardek esteta atseginzaleari buruz hitz egiterako orduan erabiliko dituen bi testuak, aitzitik, *Erotismo musikala* (Mozarten Don Juan lanari buruzko gorazarrezko iruzkina izango dena); eta *Seduzitzailearen egunkaria* izango dira.

Esteta atseginzalearen ezaugarri nagusiena, hortaz, kanpo errealitatearen izaera sentsibleaz eta naturalaz gozatzea izango da. Bere xedea zentzuen bidez gozatzea da, sentsazio atsegingarriak izan, eta, bide batez, sentsazio hauek etengabe eraberritzea. Horregatik, esteta atseginzalearengan nagusituko den gaitasuna sentsibilitatearena izango da eta gehien nabarmenduko den eremua, berriz, gorputz materialarena. "Sí, ¿qué soy? La gravedad terrestre que te encadena al mundo ¿Que qué diantre soy? Cuerpo, masa, tierra, polvo y ceniza"²¹⁶ Bere izaera, hortaz, haragizkotasunera eta

²¹⁴ EE-I, 62 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 94. orrialdean aipatua

²¹⁵ Ibid., 62 eta 9 orr. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 94. orrialdean aipatua

²¹⁶ EE-I, 401 or.

berezko izaera naturalera murriztuak izango dira. Hau da, plazer sentsualaren eta erotismoaren sentsazioen mundutar bizitzara.

Bizimodu estetiko mota hau, aitzitik, berezko bizitza den neurrian, “sentsualitatearen” (Sanselighed) bidez definitua etorriko da. Hau da, printzipio edo jatorrizko indar moduan. Indar atseginzale hau, estetaren errailetatik sortua dena, plazer sentsiblearen “desira irrikatsu”²¹⁷ moduan azaleratzen zaigu. Estetak, horrenbestez, ezingo du gozamen sentsual hau saihestu, gozamen sentsual horrek bakarrik ematen baitio estetari bere bizitzarekin jarraitzeko behar duen indarra.

3.3.1.2.2. Esteta ameslaria.

Estetaren bigarren azpibizimodua hau, bestalde, Erromantizismoaren baitan oso garrantzitsua den “fantasiaren” edo “irudimenaren” kategoriaren arabera definitua azaltzen zaigu. Kierkegaarden etikaren inguruko ikerlan gehienetan gainera, azpibizimodu honi buruzko hainbat erreferentziaz osatuak daude. Dena dela, *Siluetak* lanean, *Seduzitzailearen egunkarian* eta *Errepikapenean* modu sakonagoan plazaratzen dira esteta ameslariaren gogo-aldarteak.

Esteta ameslaria izaera poetiko-malenkoniatsua duen gizabanakoa izango da eta egoera eta sinesgaitza suertatzen diren mundu posibleak sortzeko imajinazio indartsu (Phantasi) baten jabe ere izango da. Esteta ameslariarengan, bada, irudimena izango da gaitasun garatuena. Hortaz, benetako poeta (Digter) baten aurrean gaudela esan dezakegu. Sortu eta sortu besterik ez du egingo esteta ameslariak eta pertsona heldua izan arren, haurtzaroko “magiazko fasean” biziko da oraindik. Errealitateari ihes egite etengabean alegia.

Baina esteta ameslariak ez du bere fantasiako mundu posibleak sortzeagatik sorten. Alderantziz, bere jarduera poetikoa interes jakin bati dago zuzendua. Hau da, sortu dituen poemak begietsiz gozatzea.

²¹⁷ Gaztelera *deseo anhelante*.

Esteta atseginzaleak kanpo munduaren errealitate sentsiblearekin gozatzen duen bezala, esteta ameslariak berak sortu duen errealitate fantastikoarekin disfrutatzen du. Horrela, bada, berarentzat errealitatea mundu fantastikoan bilakatu da, sortu duen kimera edo ameskeria hura kontenplatuz gozatzeko.

Errealitatea poetizatu ondoren olerki hauekin gozatzeko irrikaren jatorrian, “mundu errealak” esteta ameslaria erabat asetzen ez duenaren sentsazioa dago. Inguratzen duen errealitateak ez du bere desirak asetzen. Hortik, mundu handiagoak eta hobeagoak sortzeko beharra.

Baieztapen honek, hortaz, esteta ameslariarentzat mundua bi zatitan banatua dagoela inplikitzen du: “mundu erreala” eta “fikziozko mundua”. Gizaki honek bere gorputza “mundu errealean” izan arren, bere gogamena ez du mundu honetan izango. Horrek ez du esanahi, ordea, “mundu errealarekin” harremanik izango ez duenik, baina egia da bere arreta “fantasiaren mundu irrealean” izango duela. Bere boli dorrean giltzapetua, bere bakardadean murgildua, bizi da esteta ameslaria. Oso lanpetua bizi da, baina ez bere buruaren gogoetan pulunpatua, bere fantasietan murgildua baino. Gizaki pentsakorrean bilakatu da. Barnerakoian alegia. Halaber, bere izatean eta izan behar duenaz gogoeta egin beharrean, bizitako iragana gogora ekartzen eta ezinezko etorkizunean pentsatzen pasatzen du denbora. Modu honetan, beraz, bizi duen orainari ihes egiten saiatzen da esteta ameslaria. Hau da, iraganaren edo etorkizunaren irrealitatean pulunpatuz eta poesia eta “egia”, errealitatea eta lilura, nahasaraziz. Errealitatea, beraz, bere poemak osatzeko beharrezko dituen materialen iturburua izango da. Horrela, bada, hegazti harrapakaria bezala bizi da. Gaztelu baten goialdean bizi den arrano baten moduan alegia. Eta poeta den heinean, beharrezkoa duen materiala ehizatzeke bakarrik jaitsiko da errealitatera.

Kierkegaardek esteta ameslariaren adibide nagusitzat, besteak beste, *Seduzitzailearen egunkariko* seduzitzailea eta seduzitua eta *Errepikapena (1843)* ²¹⁸laneko gazte maitemindua aurkezten dizkigu.

²¹⁸ La repetición (1843).

Errepikapen-eko protagonistari buruz honako hau esaten digu Kierkegaardek:

Poseía un espíritu poco común y, en especial, una imaginación colosal. Tan pronto como se puso en marcha su actividad poética podía muy bien encontrar en ello suficiente ocupación para toda la vida, particularmente si acertaba a comprenderse a sí mismo y se limitaba a gozar en privado las delicias del ajeteo espiritual y los pasatiempos de su fantasía. Esta forma de vida es el sucedáneo y la compensación por excelencia de las relaciones amorosas de cualquier tipo ... Un hombre de semejante naturaleza y temperamento no tiene ninguna necesidad del amor de una mujer. Por otro lado, como he repetido tantas veces, mi joven amigo era un melancólico, por eso, de la misma manera que su riqueza de espíritu y su colosal imaginación ..., así su melancolía debería encastillarlo ... ²¹⁹

Seduzitzailearen egunkariko protagonista ere, neurri batean, badu esteta ameslariaren izaera. Bere arimak bere maitearen irradia etengabeari hots egiten dio, bere ongizatearen erantzule izango balitza bezala. Erabateko malenkonia bizituko du eta maitearenganako pentsamenduak beti iraungo du berarekin. Fisikoki bere alboan ez egon arren, bere bakardade mingarrian bere baitan murgilduko da eta irudimenean birkreatuko du bere maitea. Horrela, bere espiritua (estetaren espiritua) elikatuz. “Lo que quiero es crearte poéticamente. No deseo ser un poeta como los demás. Mústrate como fruto de mi fantasía poética y yo me alimentaré con mi propio poema. ¿Acaso me juzgas indigno de soñarte?”²²⁰

3.3.1.2.3. Esteta intelektual.

Bi dira mota honetako estetari buruz hitz egiten duten Kierkegaarden lanak: *In vino veritas* eta *erotismo musikala*. Azken honetan, Kierkegaardek esteta intelektualaren adibide moduan, *Papageno* Mozarten flauta magikoko protagonista hartuko du. Esteta mota honen beste eredu nagusia Fausto izango da. Filosofía espekulatiboaren ikur nagusiena dena alegia.

Esteta ameslaria irudimenak berarengan zuen garrantziaren arabera definitzen zen bezala, esteta intelektualarengan “ulermena” izango da beste gaitasunen gainetik egongo dena. Bere desiren oinarria errealitatea intelektualki aztertzea eta unibertsoaren azalpen espekulatiboak eraikitzea izango da, hots, aurkikuntza intelektualak egitea. Hortaz, jarduera hauek estetaren adimenarentzat entretenimendu bat suposatuko dute. Hau da, pentsamendua aktibitate espekulatiboaren emaitza bezala ulertuko da. Honenbestez,

²¹⁹ GT. 218-219 orr. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 100. orrialdean aipatua

²²⁰ EE-I, 298 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 101. orrialdean aipatua

aktibitate espekulatiboa subjektuaren plazeren iturburu bilakatu da eta esteta intelektuala “gogoeta metafisiko” sakonean murgildua biziko da.

Modu honetan esteta intelektualarentzat, filosofo espekulatibo gisa irudikatua izango denarentzat, pentsamenduak erabateko protagonismoa izango du. Berarentzat dena azaldua eta ulertua izan daiteke, bere espiritu espekulatiboarentzat paradoxek eta kontraesanek ez baitute lekurik izango.

Esteta espekulatiboak ez du bere arrazoi espekulatiboa errealitatea azaltzeko bakarrik erabiltzen, bere jokabideen nondik norakoak azaltzeko ere erabiltzen ditu. Izaera zuhurra duen gizabanako moduan aurkezten da beraz. Gauza bat egin aurretik ongi pentsatzen duen pertsona moduan alegia. "la voluntad decidida de meditar bien todas las cosas que hago ..." ²²¹ Baina arrazoiak ezin badu gauza baten inguruan azalpenik eman, orduan, esteta espekulatiboak ezingo du gai horren inguruko erabakirik hartuko : "Si yo no puedo dar una explicación de lo que hago, entonces prefiero no hacerlo; y si no puedo comprender el poder que ejerce su dominio sobre mí, jamás me someteré a ese poder" ²²²

Izaera zuhur honek, hortaz, bere erabakiak infinitura arte luzatzea ekarriko du berarekin, zeren bere erabakien aldeko eta aurkako ikuspuntuak aztertzeak duda eta nahaste gehiagotan murgiltzea suposatuko dio estetari. Hori dela eta, esteta espekulatiboaren borondatea inongo erabakiak igortzeko gaitasunik gabe aurkitu da.

Laburbilduz, esan dezakegu, esteta intelektualarentzat pentsamendua bizitzeko beharrezko elementuan bilakatu dela. Esteta intelektuala Kartesiar ideiekin bat etorriko da eta horregatik pentsamendu espekulatiboari bere dedikazio osoa eskainiko dio, pasio hau bere ogibidean bilakatu. Izan ere, “jarduera espekulatiboa” bizitzen jarraitzeko behar duen arnasa da.

He hecho de mi pensamiento la única ocupación de mi vida. (...) por nada del mundo quiero ser infiel a mi pensamiento. ¡Ay, desdichado de mí si le fuera infiel! Nunca podría conseguir la felicidad si mi pensamiento naufragara y mi alma, desesperada, sufriría una nostalgia infinita de lo que había perdido para siempre. Por eso, amigos míos, nunca abandonaré el pensamiento ... El pensamiento es para

²²¹ ISLV, 41 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 102. orrialdean aipatua

²²² Ibid., 42 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 102. orrialdean aipatua

mí como la respiración eterna de todo mi ser y, por tanto, algo más valioso que ser padre o madre, o tener una esposa²²³

3.3.1.2.4. *Bizimodu estetikoaren* ondorio negatiboak.

Modu orokorrean, laburbilduz, bizitza estetikoaren baitan ematen diren ezaugarri komunak honako hauek dira:

a) *Pasibotasuna eta berekoikeria*. Gizabanako esteta, gozatzaile amorratua dena, bizitzaren aurrean gizaki ekintzailea baino ikusle arrunt bat izango da. Besteren errealitatean zerbait positiboa ekartzen ez da saiatuko. Alderantziz, kanpo errealitatearekin harremanetan jartzen da berarengandik nahi duena lortzeko. Ez du ezer ematen, jasotzera mugatzen da. Pertsona pasibo eta berekoi bezala aurkezten da beraz, eta bere asebetetzean soilik pentsatzen du. Maitasunari dagokionez, bestalde, ez du maitatzen duenaren rola hartuko, maitatua denarena baino: "...el más alto placer que se puede imaginar es el de ser amado, amado sobre todas las cosas que hay en el mundo"

²²⁴

b) *Immanentzia*. Estetari munduarekiko duen jarduerari dagokionez, begi aurrean duena bakarrik interesatzen zaio. Ez du mundutar laketgarria dena baino ikusiko. Berarentzat bizitzak eta munduak beraien mugak iragankortasunean dituzte. Ez du balore metafísikoetan sinistuko, ez eta betiereko bizitzarik esperoko. Horregatik, gainetik datozen gidalerro erlijiosoetatik kanpo biziko da. Bere bizitza jentil batena izango da, autarkiaren ideiak zuzendua, Jainkoaren beharrik gabe. Bere lege bakarra, bada, bere instintuena izango da: "Siempre he procurado que mi vida se desenvuelva según el hermoso ideal de la *αυταρκεια* griega, especialmente en lo que respecta a no tener necesidad de recurrir al párroco."²²⁵

c) *Anarkia*. Estetak ez du bere jarrera kategoriatikoa nahiz erlijiosoaren azpian jarriko. Bere ekintzak anarkia osoaren bidetik igaroko dira. Hortaz, estetak gorabehera handiko bizitza eramango du eta bere instintuen, inpultsoen, arabera jokatu du. Betebehar etikoei eta erlijiosoei muzin eginez alegia.

²²³ Ibid. ,47 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 103 orrialdean aipatua

²²⁴ EE-I, 337 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 104. orrialdean aipatua

²²⁵ Ibid. 382 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 104. orrialdean aipatua

d) *Zorigaiztoa eta alienazioa*. Nahiz eta Kierkegaarden modu esplizituan ez adierazi, esteta gizaki guztiengandik zorigaiztoena izango da. Gizabanako erlijiosoak, berriz, benetako gizaki zoriontsu bezala ikusiko du. Estetari, ordea, oso nekeza zaio bizimodu horretatik irtetea. Hau izango da, bada, bere zorigaiztoaren jatorria.

Kierkegaardentzat, asperraldia izango da bizio ororen sorburua, gaitz guztien jatorria. Tristura, asperraldiak, nekeak, atsekabeak, miseriak... gizabanakoa alienaziora bultzatzen ditu, zeren alienazioak gotorleku bikaina eskainiko dio estetari. Alienazioak, hortaz, bihotzmina goxatuko dio estetari, bizitza pertsonaleko errealitate penagarria arinduz, atsedenaldirik eskainiz...

¡Tú, consuelo (Trasterinde) fiel de mi alma y que has guardad intacta a lo largo de tantos años ... ! ¡Tú, mi ninfa serena y callada, en la que yo siempre buscaba refugio (til hvem jeg atter lyede hen) cuando me sentí cansado de los hombres y cansado de mí mismo, tan cansado que se necesitaría toda una eternidad para poder descansar (at udhvile), y tan triste que sería necesaria toda una eternidad para poder olvidarlo! ¡Tú no me has negado nunca esta paz y seguridad ...! Y cuando iba a refugiarme en ti. ¡oh ninfa de mi infancia!, me tumbaba gozoso a tu lado, desaparecía ante mi propia conciencia como perdido en la contemplación del cielo inmenso que nos cobijaba y me olvidaba por completo de mí mismo en tu adormecedor (dyssende) murmullo incesante ¡Oh tú, mi ninfa inolvidable, mi mejor y más feliz yo...! ²²⁶

Gauza bera gertatzen da esteta intelektualak darabilen espekulazio abstraktuarekin. Jarduera hau, hots, espekulazioa, eguneroko mina arintzeko estupefaziante zoragarria suertatuko zaio estetari intelektualari.

e) *Absurdoa eta etsipena*. Estetak gozagarriak diren objektuetan konfiantza eta interesa jarri arren, luzarora, alienazio honek ez dio bere desirei erabateko asebetetzea eskainiko. Izan ere, esteta, gozamenaren desira infinituaren eta desira hau asetzeko erabiltzen dituen objektuen izaera mugatuaren arteko gaindiezinezko kontraesanaren aurrean aurkitzen da. Hortik, bizitza zentzugabea eta absurdo gisa agertzea estetari. Bizitzarekiko fedea galdu du estetak. Nihilista bilakatu da. Bizitzaren zentzu gabeziak “goragalea”, “etsipena” eta munduarekiko “larritasuna” sortarazten dizkio. Existentzia, beraz, patuak bizkar gainean jartzen digun zama pisutsuan bilakatzen da.

La vida se me ha hecho totalmente imposible. El mundo me produce náuseas y me parece insípido, sin sal y sin sentido (jeg vaemnes ved Tilvaerelsen, den er

²²⁶ GT. 204-205 orr. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 108. orrialdean aipatua

smaglost uden Salt og Mening). (...) ¿Dónde me encuentro y hacia dónde me encamino? ¿Qué quiere decir eso de "el mundo y la vida"? ¿Qué significan estas palabras de uso corriente? ¿Quién me ha jugado la partida de arrojarme en el mundo y después dejarme abandonado entre tantas cosas contradictorias? ¿Quién soy yo? ¿Cómo vine a este mundo? ¿Por qué no fui consultado para nada? ¿Por qué no se me dieron a conocer de antemano los usos y las reglas establecidas, lugar de enrolarme de pronto en el montón, como uno de tantos o una simple pieza comprada por un negrero? ¿A qué título estoy interesado en esta gran empresa que se llama la realidad? ¿Por qué he de estar interesado en ella? ¿No es acaso un asunto libre? ¿O quizás estoy obligado a interesarme aunque no lo quiera? ¿No se me puede decir, al menos, dónde se halla el director gerente, puesto que necesito hacerle una advertencia? ¿Tampoco hay ningún director gerente? ¿Adónde he de dirigirme entonces con mi queja (Klage)? La vida, desde luego, es un debate. ¿No tengo, pues, el derecho de exigir que se tome en consideración mi punto de vista? Si se debe aceptar el mundo y la vida como son, ¿no sería entonces lo más lógico y deseable que se nos notificara de antemano su efectiva y peculiar manera de ser? ²²⁷

Pixka bat beranduago esteta berak beste eskutitz batean honako hau esaten digu:

(...)me pongo a llorar a lágrima viva y me estruja y destroza mi alma una angustia indecible y vasta, una enorme angustia por el mundo y por la vida, por los hombres y por todas las cosas ²²⁸

Estetak egoera honetan ikusten duen gauza bakarra "hutsunea" (*Tomheden*) ²²⁹ izango da. Ez du ezertarako gogorik izango, ez da zoriontsua. "Etsipenaren" kontzientzia honek, ordea, estetari existentziaren forma hobeago batera "salto edo jauzi egiteko" komenigarritasuna iradokiko dio.

Horrela, bada, arestian ikusi dugunaren arabera, esan dezakegu Kierkegaardek *bizimodu estetikoaz* hitz egiten digunean ez dela bizimodu honen apologia egiteko izango, bizimodu honek suposatzen duen drama azaleratzeko baino.

²²⁷ GT, 234 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 109. orrialdean aipatua

²²⁸ Ibid., 239 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 110. orrialdean aipatua

²²⁹ *Gaztelera el vacío.*

3.3.1.3. Bizimodu etikoa²³⁰

Kierkegaarden “filosofia praktikoa” osatzen duen bigarren bizimodua *bizimodu etiko-erlijiosoa* izango da.

*Hautabidea*²³¹ lanean, bada, Kierkegaardek *etikaren* eta *erlijioaren* bizimoduak zaku berean sartzen ditu. Ondorengo lanetan, ordea, *bizimodu etikoaren* eta *erlijioaren* arteko bereizketa garbia egingo digu daniar idazleak. Hargatik, atal hau lantzerako orduan azkeneko bereizketa hau aintzakotzat hartuko dugu.

Existentziaren bizimodu honetan sakondu baino lehen, ordea, *bizimodu etikoak* “senarraren” irudia (eta ez emaztearena) eta “heroi tragikoa” eredutzat dituela esan beharrean aurkitzen gara. Kierkegaarden xedea, bestalde, ez da Kantek eta gainontzeko idealistek planteatu zuten etika ideal bat garatzea izango. Kierkegaarden etika ez da deontologikoa edo fundamentalista izango, etika praktikoa baino. Bere jomuga daniar hiritarrei *bizimodu etikoaren* nondik norakoa azaltzea izango da. Existentzia mota hau beraien bizimoduaren parte izatea alegia. Horrela, bada, Kierkegaarden *bizimodu etikoaren* kategoriak honako hauek izango dira: “hautua”²³², “betebeharra”²³³, “asmoa”²³⁴ eta “pasioa”²³⁵. Subjektibitatea izendatzaile komun gisa izango duten kategoriak alegia.

3.3.1.3.1. Hautu etikoa

Alta, *Bizimodu etikoan* oinarritzakoa izango den kategoria “hautua” (Valg) izango da: "En verdad, el echo de elegir es una expresión real y rigurosa de la ética. Ahí, donde, en un sentido más estricto se trata de un aut-aut, se puede siempre estar seguro de que la ética interviene en cierto modo"²³⁶

²³⁰ instancias éticas intermedias". (FB,130)."La esfera ética no es más que una esfera de transición" (SLV, 443).

²³¹ Gaztelera *La alternativa*.

²³² Gaztelera *elección*.

²³³ Gaztelera *deber*.

²³⁴ Gaztelera *intención*

²³⁵ Gaztelera *pasión*

²³⁶ EE-II. 151 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 46. orrialdean aipatua

Kierkegaardek *bizimodu etikoa*, *bizimodu estetikoa* ez bezala, norberak hautatu beharreko bizimodu gisa aurkezten digu. Hau da, etikoki bizi nahi duen gizabanakoak bere kabuz hautatu behar duen bizimodua izango da *bizimodu etikoa*. Ez da hasieratik inposatzen zaion zerbait izango, ez eta jaiotze hutsarekin automatikoki emango den zerbait ere. Hautu hau, hortaz, *bizimodu estetikitik bizimodu etikora* “jauzi egite” moduan ulertuko da.

Baina nola gauzatzen da “jauzi” hau? Hautuaren bidez emango da “jauzi” hau eta “lehen hautuaren” edo “jatorrizko hautuaren” izaera izango du (*bizimodu etikoaren* sarrera bidea izango da). Hori dela eta, *Hautabidea* lanaren bigarren zatian Kierkegaardek ohartarazten digu bizitzarentzat zer garrantzitsua den “lehen hautu” hau, hots, “*aut-aut*”-a.

“Lehen edo jatorrizko hautu” honek ez du bi posibilitateren arteko hautua suposatzen, posibilitate bakarraren hautua baino. Ez da bidegurutze edo dilema bat izango, baizik lema bat. Hau da, ez da estetikoaren eta etikoaren arteko aukeraketaren emaitza izango, aitzitik, existentzia estetikoaren baitatik existentzia etikoaren alde ematen den hautua izango da.

“...aut-aut, pues esa es mi divisa; esas palabras no son, como piensan los gramáticos, conjunciones disyuntivas; no, ellas se pertenecen inseparablemente y se deben escribir, por lo tanto, como una sola palabra, puesto que juntas se convierten en una interjección que yo grito a la humanidad, como se le grita ¡hep! a un judío”²³⁷

Baina zein da hautu honen objektua? Zein da “lehen hautu” honetan aukeratzen dena? Etsipena aukeratzen dut eta etsipenean Absolutua.

Al elegir en sentido absoluto elijo la desesperación, y en la desesperación elijo lo absoluto, pues yo mismo soy lo absoluto, pongo (saetter) lo absoluto, y soy yo mismo lo absoluto. Pero para expresar lo mismo de otro modo debo decir: elijo lo absoluto que a mí me elige, pongo lo absoluto que me pone a mí²³⁸

Baieztapen honek, hortaz, hautuaren objektuaren eremu bikoitza iradokitzen digu. Hau da, hautua bera aldi berean ukoa ere izango da. Izan ere, existentzia etikoa hautatzeak existentzia estetikoarekiko haustura eskatzen digu. Gozamenaren bizitza infinituaren

²³⁷ Ibid., 145 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 119. orrialdean aipatua

²³⁸ Ibid., 191 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 119. orrialdean aipatua

baztertzea alegia. Horrela, bada, *bizimodu estetikoarekin* apurtu ezean ezinezkoa da *bizimodu etikoaren* baitan murgiltzea.

Hautatzen dugun objektuaren alderdi positiboa, beraz, hautatzen dugun objektu bera izango da. Hau da, Absolutua. Eta zer da Absolutua? Absolutuaren kategoriak beste kategoria askok bezala, Hegelengana garamatza. Hegelentzat Absolutua errealitatearen osotasuna ²³⁹ izango da, hots, diferentzien arteko batasuna. Identitatearen eta ez identitatearen arteko batasuna alegia. Kierkegaardengan, ordea, osotasun hau ez da unibertsala izango, Absolutuak gizabanako partikularrari egiten baitio erreferentzia. Gizabanakoaren baitan, hortaz, “ongiaren” eta “gaizkiaren” arteko bereizketa emango da.

Horrela, bada, Absolutua hautatzeak, “ongiaren” eta “gaizkiaren” arteko ezberdintasunaren batasuna bezala ulertuta, bien arteko aukeraketa egiteko askatasuna izatea suposatuko du. “ongiaren” eta “gaizkiaren” arteko aukeraketa, bada, “lehen edo jatorrizko hautuaren” ondoren emango den hautaketa izango da. Gizabanako etikoa, orduan, “ongiaren” eta “gaizkiaren” arteko ezberdintasunaren jakituna da eta bien arteko hautua egiteko askatasun osoaren jabe denez gero, gizabanako arduratsua izango da.

Hori dela eta, Absolutuaren hautua norberaren autohautaketaren baliokidea izango da, ze ni neu Absolutua bainaiz. Absolutua hautatzeak orduan, nik nire burua “ongiaren” eta “gaizkiaren” arteko hautaketa egiteko askatasun osoa duen izaki gisa hautatzea suposatzen du eta, ondorioz, hautatutako “ni” hau “ni-eginkizunean” bilakatuko da. "El individuo se elige a sí mismo como una concreción determinada... El individuo ve esa concreción real como tarea (Opgave), como objetivo, como final"²⁴⁰

Oinarrizko hautaketa hau egin ondoren “nia” datu huts bat izateari utziko dio eta betebeharreko eginkizunean bihurtuko da. Gizakiaren baitan, hortaz, aldaketa bat emango da. Aldaketaren ideia hau azaltzeko orduan, aitzitik, kontraesana dirudien honako ideia hau azalerazten digu Kierkegaardek: "lo que es elegido no existe y sólo existe por la elección, y lo que es elegido existe, pues, de otro modo, no habría elección" ²⁴¹ Horrela, bada, hautua egin aurretik “nia” datu huts bat izango da, ez da

²³⁹ Gazteleraz *Totalidad*.

²⁴⁰ EE-II, 196 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 120. orrialdean aipatua

²⁴¹ Ibid. 193 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 121. orrialdean aipatua

betebeharreko zerbait izango. Hori dela eta, egingo ditugun aukeraketen bidez definituko dugu gure burua, hots, nor garen. Baina nola gauzatzen da bilakaera hau?

Lehen esan dugu bezala, Kierkegaardek “lehen hautuaz” gain, “ongiaren” eta “gaizkiaren” arteko bereizketan oinarritzen diren beste azpiahautu batzuk ere badirela esaten digu. Azpiahautu hauek “lehen hautuak” ez bezala, bidegurutzearen edo dilemaren izaera izango dute. Dilema edo bidegurutze hauek gizabanakoarentzat garrantzitsuak izango dira, zeren eta azpiahautu hauen bidez bere nortasuna definitua izango baita.

Pienso en momentos posteriores, cuando me encontraba en una encrucijada (Skillevi) y mi alma maduraba en la hora de la decisión (Afgjarelse). Pienso en otras muchas circunstancias de la vida, menos importantes para mí, pero no indiferentes, en "que debía elegir (vaelge); pues a pesar de que sólo hay una circunstancia en la cual esa palabra alcanza su significado absoluto, es decir, cuando de un lado hay verdad, justicia y santidad, y del otro deseos e inclinaciones, pasiones sombrías y perdición, también es importante, sin embargo, elegir con justeza cuando se trata de cosas en las que la elección es más o menos inofensiva"²⁴².

Ondorioz, Kierkegaard bat etorriko da Aristoteles planteamenduarekin. Aristotelesen arabera, norbera bertutetsua egiten da behin eta berriz egiten dituen hautuen bidez. Hau da, praxiaren bidez. Ekintza “onen” errepikapenen bidez alegia.

3.3.1.3.2. Betebeharra

Gizabanakoak esteta izateari utzi eta bizimodu etikoaren alde egiten duen hautuak, estetak dituen plazeraren desira berekoiak alde batera utzi eta “orokortasunaren”²⁴³ aldeko apustua egitea suposatzen du. Horrela, bada, etikaren edukiak, hots, “betebeharrak” eta irizpide moralak, “jokabide arauak” izango dira. Etikaren eduki hauek, halaber, gure kontzientziaren baitan agerian jartzen dira eta “ongiaren” eta “gaizkiaren” arteko ezberdintasuna dute oinarritzat. Kierkegaardek, “ongiaren” eta “gaizkiaren” arteko ezberdintasunaren oinarritze honi “idealitatea”²⁴⁴ deituko dio. “Kontzientzia morala” moduan ezagutzen dena alegia.

²⁴² Ibid., 143-144 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 121. orrialdean aipatua

²⁴³ Gazeleraz *de lo general*.

²⁴⁴ Gaztelaraz *idealidad*.

Gai hau lantzerako orduan, beraz, Kierkegaardek hiru lan hartuko ditu kontutan: *Ikara eta dardara*²⁴⁵, *Postscriptum-a* eta *Hautabidea*-ren bigarren zatia. Idatzi hauetan gure kontzientzian agertzen diren “betebeharren” eta moralaren edukiak azalduko dizkigu daniar pentsalariak. Horretarako, ordea, estetikarekin, antropologiarekin eta erlijioarekin zerikusia duten hainbat gai aintzakotzat hartuko ditu.

Kierkegaardek “orokortasunaren” (Almene) kontzeptua erabiltzen du “etikaren” eta “betebeharraren” sinonimo gisa. Sinonimoak diren adierazpen hauen elkartrukatzearen zantzua zera da: Kierkegaardek “orokortasuna” etikaren ezaugarri nagusitzat hartzen duela da. Baina zer esanahi du etikak “orokortasuna” izatea? Galdera honen erantzuna, modu oso laburrean, daniar pentsalariak *Ikara eta dardara* lanean emango digu: “La ética es, en cuanto tal, lo general, y esto a su vez, en cuanto general, es lo que puede hacerse valer para todos y cada uno de los hombres o lo que, desde otro punto de vista, el del tiempo, es válido en todo instante”²⁴⁶

Aipatu berri dugun paragrafo honetan ikusi dugun moduan etikaren “orokortasunaren” bi ikuspegi azaleratzen dizkigu Kierkegaardek: bata, espazioari dagokiona; eta bestea, denboraren eremuari erreferentzia egiten diona. Espazioaren eremuari dagokionez, “betebeharra” betebehar bezala ulertuta, giza generoaren osotasuna izango da. Hortaz, etika gizaki orori “gizaki izate hutsarekin” atxikitzen zaion elementu bat izango da. Hau da, guztiori eskatzen zaigun zerbait. Horrela, bada, gizabanako oro, salbuespenik gabe, “betebehar moralaren” jabe den subjektua izango da.

Denborazko eremuari dagokionez, aldiz, etika denboraren momentu guztietan presente egongo den zerbait izango da, gure kontzientzian betiereko zelatari bat bailitzan beti baitago presente. Bere presentzia etengabea, jarraia denez gero, etika “unibertsala” izango da eta gizon ororengan eta bizitzako momentu guztietan baliozkoa izango da.

Orain arte esan dugunaren arabera, *Ikara eta dardara* lanean etikaren “orokortasunaren” bi ikuspegi azaleratzen dizkigu Kierkegaardek baina, bada, honako pasartean ikusiko dugun moduan, etikaren “orokortasunaren” hirugarren ikuspegi bat ere.

²⁴⁵ Temor y temblor (1843).

²⁴⁶ FB, 104 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 46. orrialdean aipatua

La ética es en cuanto tal lo general y, bajo este mismo aspecto, lo patente y diáfano (det Aabenbare). Por contraste, el individuo definido como ser inmediatamente sensible y anímico es lo oculto²⁴⁷.

Gizabanako etikoa “betebeharren” ezagutzailea denez gero, zeregin hauek bere kontzientzian ezagutzera ematen dira baina, ez hori bakarrik, arrazoiarentzat ulergarriak diren ezagutza gisa agerian jartzen dira. Hortaz, “betebeharrak” arrazoizkoak direnez gero, ulergarriak suertatzen zaizkio gizabanakoari eta gainontzeko guztioi ere. Horrela, bada, etika guztiontzat ulergarria den “ezagutza praktikoa” izango da. Hau da, gizabanako etikoak egiten duen oro arrazoitzen dezake, hots, bere jokabidea azaldu dezake. Hori dela eta, bizimodu etikoaren baitan gauzatzen diren betebeharrak eta jarrerak, guztiontzat ulergarriak suertatuko dira. Izan ere, zentzuzko paradigmen bidez azalduak izan dira.

La ética también reclama la revelación (Aabenbarelse) ...

A pesar del estricto rigor con que la ética reclama la revelación ... El héroe trágico, hijo predilecto de la ética, es el puro hombre, el hombre a secas y, en cuanto tal, puedo comprenderlo (ham kan jeg ogsaa forstaae) muy bien, aparte de que todo lo que él hace se ejecuta a plena luz y sin ningún encubrimiento²⁴⁸

Baina gizabanako etikoa ez da estetarengandik bakarrik bereizten, baita gizabanako erlijiosoarengandik ere. Gizabanako etikoak arrazoizko ulermen eta azalpenen ondorioz, bere eginkizunen erabateko kontzientzia izango du eta arrazoiarentzat gardena izango da. Gizabanako erlijiosoarentzat, aldiz, arrazoia ez da lagungarria suertatuko. Hau da, nahiz eta gizabanako etikoak eta gizabanako erlijiosoak jakin zeintzuk diren beraien “betebeharrak”, gizabanako etikoari ulergarri suertatzen zaizkion bezala, gizabanako erlijiosoari ulergaitzak suertatzen zaizkio bere zereginak.²⁴⁹

Honenbestez, etika “orokortasunaren” ikuspegitik aztertuta, gardena izango da zentzu bikoitzean: alde batetik, “betebeharren” autokontzientzia bezala ulertuta; eta bestetik, gizabanakoari ulergarriak suertatzen zaion neurrian.

Baina etikoaren edukia, “betebehar” gisa ulertuta, ez da “orokortasunaren” ikuspegitik bakarrik aztertzen. Paradoxikoa iruditu arren, etika “partikularra” eta “konkretua” ere

²⁴⁷ Ibid., 130 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 128. orrialdean aipatua

²⁴⁸ Ibid., 135-136 orr. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 128-129. orrialdean aipatua

²⁴⁹ Ideia hau hobeto ulertuko da *bizimodu erlijiosoari* dagokion puntura iristen garenean.

bada. “Aunque lo ético es en cierto sentido infinitamente abstracto, en otro sentido es infinitamente concreto, y no hay verdaderamente nada más concreto ...”²⁵⁰

“Partikularitasun” honen baitan ere hiru ikuspegi ezberdin azaltzen dizkigu Kierkegaardek.

Lehenengo ikuspegiaren arabera, “betebeharrak” gizabanako konkretuari erreferentzia egiten dionez, etika “partikularra” ere bada. Hortaz, etikak ez dio eragiten “giza espeziari” (giza espezia “masa” moduan ulertuta), gizateria osatzen duten hezur-haragizko gizabanako konkretuei baino.

La ética se cierra inmediatamente en el individuo (den Enkelte) ... ; no pasa revista a millones, o generaciones de hombres; no toma la humanidad por junto, así como tampoco la policía arresta a la humanidad en general. Lo ético concierne a los seres humanos particulares (de enkelte Mennesker), a todos y a cada uno de ellos en sí mismo considerado. Si Dios sabe cuantos pelos hay en la cabeza de un hombre, lo ético sabe cuántos seres humanos hay; y su enumeración no es por el interés de una suma total, sino por causa de cada individuo (hver Enkelt). La exigencia ética se impone a cada individuo, y cuando juzga, juzga a cada individuo en sí mismo ... Lo ético se apodera de cada individuo²⁵¹

Bigarren tokian, “subjektu etikoa” gizabanako konkretua den neurrian, hainbat gizabanako horrenbeste “betebehar” egongo dira, gizabanako bakoitzak errealitatea konkretu baten jabe izateak ezinezkoa egiten baitu “betebehar etikoa” abstraktua izatea. Hau da, guztiontzat berdina izatea. "El deber no es de ninguna manera algo abstracto (sino algo concreto) ..., porque la personalidad misma es concreta, pues al elegirse éticamente se elegía en toda su concreción y renunciaba a la abstracción de lo arbitrario"²⁵²

Hala, gizabanakoa gaitasun, xede, pasio eta ohitura jakin batzuen jabe denez gero, testuinguru zehatz bat izango du eta, ondorioz, izango dituen “betekizunak” partikularrak izango dira, beste testuinguru batean aurkitzen diren gizabanakoekin alderantzikatuz, ezberdinak izango direnak.

Nunca digo de un hombre: cumple con el deber o los deberes; sino que digo: cumplo con mi deber (min Pfligt), tú cumples con el tuyo (Du Din). Esto demuestra que el individuo es a la vez lo particular y lo general. El deber es lo general (det Almene), es lo que se pide ... Mi deber, por otro lado, es lo particular (det Enkelte),

²⁵⁰ Eft, 160 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 129. orrialdean aipatua

²⁵¹ Ibid., 275 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 130. orrialdean aipatua

²⁵² EE-II, 234 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 130 orrialdean aipatua

algo que sólo a mí concierne y, sin embargo, es el deber y, por lo tanto, es lo general²⁵³

Eta azkenik, etikoa partikularra den neurrian “betebeharrak besterezina” izango dira. Hau da, niri bakarrik dagokidan “betebeharrak” izango dira. Inork ezin du besteen “betebeharrak” bete, zeren eta “betebehar moralen” aurrean norbanakoa ordezgaitza izango baita.

Azpimarragarria da ere, etika ekintzara bideratua dagoen ezagutza praktikoa izatea. Etikaren “pathos”-a, beraz, ekintzan datza. Lo ético no es un mero conocer (blot en Viden); también es un hacer (en Gøjren) relacionado con aquel conocer²⁵⁴

Horrenbestez, subjektu ezagutzailearen existentziarekin erlazio esentzialean egongo den ezagutza bakarra “ezagutza etiko-erlijiosoa” izango da. “Ezagutza etiko-erlijiosoa”, gizabanakoak “gizaki autentikoa” izateko bete behar dituen “zereginak” izango dira. Hala, “ezagutza etiko-erlijiosoa” gizabanakoak bere baitan duen existentziaren programa bat izango da. “Jarrera” bat alegia. Hargatik, “etika” ekintza bidez gizabanakoak bere bizitza propioan espresatzen duen “ezagutza praktikoa” izango da. “Praxia” edo “ekintza”, hortaz, ezagutza etikoan esentziala izango da. Alderdi praktikoa hau kontutan hartzen ez duen etika, hots, etikaren alderdi teorikoa bakarrik kontutan hartzen duen ezagutza etikoa, ez da Kierkegaardek planteatzen duen “ezagutza etikoa” izango. Izan ere, bere osagarri esentziala alde batera utzia izan da. Hau da, alderdi praktikoa. Horrela, bada, Kierkegaardentzat Etika eta “praxia” bereizezinak izango dira. Hortik, gizabanako etikoa “subjektu ezagutzailea”²⁵⁵ ez izatea, “subjektu izateduna”²⁵⁶ edo “ekintzailea” baino.

Gizabanako etikoak ez du bere burua bakarrik ezagutuko, zer izan nahi duen ere aukeratuko du. Ondorioz, gizabanakoa bere hautua burutzerat konprometitzen da, hots, izan nahi duen hori lortzeko konprometituko da.

El individuo ético se conoce a sí mismo, pero ese conocimiento no es una simple contemplación, pues entonces el individuo sería determinado según su necesidad; es una reflexión sobre sí mismo que es, al mismo tiempo, una acción, y por eso me he constreñido a la expresión "elegirse a sí mismo" en vez de "conocerse a sí

²⁵³ Ibid., 236 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 131. orrialdean aipatua

²⁵⁴ Eft. 132 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 131. orrialdean aipatua

²⁵⁵ Gazteleraz sujeto cognoscente.

²⁵⁶ Gazteleraz sujeto existente.

mismo". Por consiguiente, el individuo, al conocerse a sí mismo, no ha terminado; al contrario, ese conocimiento es muy fecundo y de él surge el verdadero individuo²⁵⁷

Horrela, bada, Kierkegaardentzat “norbera zer izan nahi duenaren hautua”, Sokratesen “ezagut zaitez” formularena baino maila gorengokoan egongo da. Daniar pentsalariak Sokratesen maxima hau modernizatu egingo du. Hau da, Kierkegaardek, izaera teorikoa ematen dion “ezagutzaren” aditzaren tokian (Sokrates), “hautuaren” aditza jarri du, izaera praktikoagoa emanaz.

Horrenbestez, Kierkegaarden etikaren planteamenduan etikaren izaera praktikoari teorikoari baino garrantzi handiagoa emango zaio. Hau da, etika batez ere existentzia forma bat izango da eta ez ezagutza huts bat. Betebeharrak, beraz, ez dira gizabanakoarengandik at egongo. Ez dira kanpotik inposatutako arauak izango, “Kontzientziaren” baitan ematen diren arau subjektiboak baino. "La personalidad posee lo ético no fuera de sí misma, sino en ella misma, y lo ético surge de esa profundidad. (...). Como lo ético se encuentra así en lo más profundo del alma ..."²⁵⁸

Horregatik, gizabanakoak etika bere baitan bakarrik antzeman dezake. Bere “kontzientziaren” baitan alegia. Hortaz, ez du “ni idealik” topatuko beregandik at. Hemendik ondorioztatzen duguna zera da: gizabanako etikoa pertsona oso sakona dela eta estetak ez bezala, bere arimaren sakontasunean izango du bere orientabidearen edo betebeharren gunea.

El individuo ético no encuentra el deber fuera de él, sino en él... Se puede decir del individuo ético que es como el mar inmovil que tiene gran profundidad (den dybe Grund), mientras que el que vive estéticamente sólo está agitado en la superficie (overfladisk bevaeget)²⁵⁹.

3.3.1.3. Formalismo etikoa: “intentzioaren” eta “pasioaren” garrantzia

Etika ez da betebeharrretara bakarrik mugatzen. Garrantzitsuena Kierkegaaden arabera, behinik behin, subjektuak zeregin honen aurrean duen jarrera izango da. Hau da, gerta daiteke gizabanakoak betebeharrekoa burutzea baina ez etikoki jokatzea.

²⁵⁷ EE-II, 232 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 132. orrialdean aipatua

²⁵⁸ Ibid., 230 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 133. orrialdean aipatua

²⁵⁹ Idem. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 133. orrialdean aipatua

Postscriptum-eko oin ohar luze batean Kierkegaardek barne eta kanpoko identitatearen hegeliar oinarri unibertsala kritikatu du. Hau da, “printzipio estetiko-metafísiko” etikaren eta erlijioaren eremura arte hedatzen denaren ideia. Eta hegeliar filosofiaren aurrean, etikaren (baita erlijioaren) baitan ematen den “kanpokoaren” eta “barnekoaren” arteko diferentzia itzela defendatuko du daniar plentsalariak. Berarentzat etikan kanpokoia ez da barnekoa izango. Kanpokoia ekintzaren materia edo edukia den heinean, “neutrala” da, indiferentea. Ikuspuntu etikotik begiratuta ez da “txarra” ez eta “ona”. Aitzitik, “barnekoa”, ekintza baten aurrean subjektuak duen jarrera edo intentzioa den neurrian, ekintzarentzat garrantzizkoa izango da, zeren intentzioaren arabera ekintza bat “ona” edo “txarra” bezala kalifikatua izango da.

La filosofía hegeliana culmina en la proposición de que lo exterior es lo interior y de que lo interior es lo exterior. Hegel termina virtualmente con esto. Pero este principio es esencialmente un principio estético-metafísico, y de este modo la filosofía hegeliana ha terminado felizmente, o fraudulentamente, al confundir todo (incluyendo lo ético y lo religioso) indiscriminadamente con lo estético-metafísico. Sin embargo, la ética afirma cierta oposición entre lo interior y lo exterior, puesto que considera lo exterior como algo neutral. La exterioridad, en cuanto materia de la acción, es neutral, pues lo que acentúa la ética es la intención; el resultado, en cuanto exterioridad de la acción, es indiferente, pues lo que acentúa la ética es la intención ... ; la exterioridad no prueba absolutamente nada respecto a la ética, pues la cuestión ética sólo afecta a lo interior...²⁶⁰

Aipatu berri dugun pasarte honetan eta *Postscriptum*-eko beste testu batzuetan ikusi dezakegun bezala, Kierkegaarden moralak ez du ekintzaren eduki materialean, ez eta ekintzaren emaitzan arreta jartzen, subjektuaren jarreran baino. Horrela, ba, etikoki axola zaiguna ez da gure ekintzen edukia izango, bere forma baino. Hau da, nola egiten edo burutzen dugun ekintza bat. Horrenbestez, esan dezakegu “etika formal” baten aurrean aurkitzen garela.

Baina Kierkegaarden etikaren izaera formal hau ez da “intentzioari” ematen zaion garrantziaren arabera bakarrik definituko, Kierkegaardek “pasioari” ere protagonismo handia emango baitio. Hala, giza ekintza baten balorazio moralak, “subjektu agente” batek izan dezaken intentzioaren eta pasioaren arabera izango da.

Honetaz gain, Kierkegaarden iritziz, gizabanakoaren ekintza definitzen duten intentzio eta pasio hauek bi modu ezberdinetan azaleratuak izan dira (moralaren bi ezaugarri ezberdin definituz). Bata, zigor bat ez jasateko edota sari bat jasotzeko izan dezakegun

²⁶⁰ Eft, 254 (oharra) Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 134. orrialdean aipatua

“borondate interesatua” izango da. Intentzio honekin betetzen diren ekintzak, ordea, zeregin bezala gauzatuak izan arren, moralki ez dira zuzenak izango.

Muturreko tokian, bestalde, “betebeharrak” bere baitan ulertuta azaleratuko zaizkigu. Hau da, “*betebeharren*” *betebehar izaera* izango da ekintza burutzeko motibo bakarra. Hala, jarrera hau defendatzen duten gizabanakoen xede nagusia “betebeharrak” betetzea izango da, baina ez interes batek bultzatuta, betebeharren berezko izaerarengatik baino. Hortaz, Kierkegaarden iritziz, ekintza hau modu “apasionatuan” betetzen duenak, benetako ekintza buruko du. Hau da, zenbat eta indar edo “pasio” gehiago jarri orduan eta “ekintza autentikoagoa” izango da. Ez du axola azkeneko emaitza zein izango den, axola duen gauza bakarra zera da: “betebeharra” betetzerako orduan jartzen den indarra edo “pasioa” .

Yo diría incluso, si estás dispuesto a entenderme como corresponde, que en la elección no se trata tanto de elegir lo correcto, sino de la energía, de la seriedad y del phatos con que se elegi. Allí es donde la personalidad se proclama en su infinitud interior, y de esa manera, a su vez, la personalidad se consolida.²⁶¹

²⁶¹ EE-II, 157 or.

3.3.1.4. Bizimodua erlijiosoa

Kierkegaarden ahalegin guztia Abraham-en irudia den *existentzia erlijiosoaren bizimodura* dago zuzendua. Hortaz, bere idatzi antropologikoak, estetikoak eta etikoak goi instantzia den erlijioaren menpe egongo dira. Kierkegaardentzat erlijioa izango da indibiduoak trebakuntza eta garapen gorenena lortuko duen esparrua. Hau da, “askatasun gorena” lortuko duen eremua (eta, bide batez, “salbazioa”). Horrela, bada, daniar pentsalariaren iritziz, gizabanakoaren “salbazioaren” eta “askatasunaren” nahiak, gizabanakoa, Jainkoaren menpe jartzen du: "Estar dependiendo de sus tesoros, eso sí que es dependencia y pesada esclavitud; estar dependiente de Dios, completamente dependiente, eso sí que es independencia (...) La dependencia de Dios es la única independencia ... quien depende completamente de Dios, está ágil".²⁶²

Planteamendu honen arabera, bada, Jainkoarekiko menpekotasun honek bere “finitutasunaren” askapena suposatuko du. Gizabanako erlijiosoa aldi berean jaun eta zerbitzaria izango da. Hau da, munduaren jaun edo ugazaba den neurrian Jainkoaren zerbitzaria ere izango da. Izan ere, munduarekiko jauntasuna posible da Jainkoaren zerbitzari den heinean.

Erljioaren bidez posible den askapenak, eta ondorengo salbazioak, Kierkegaarden pentsamenduan garrantzitsua den kategoria bati egiten dio erreferentzia, hots, “errepikapenaren” (Gjentagelse) kontzeptuaria²⁶³. Horrela, bada, gizabanakoak “benetako errepikapena” existentziaren eremu erlijiosoan bakarrik egiaztatuko du. Hau da, Jainkoak gizakiari lehenengo momentuan kontzebitu eta jatorrizko bekatuaren bidez kendu zitzaion “askatasunaren” berreskuratzea.

Hortaz, gizakiak bere kabuz salbazioa lortu ezin duenez gero, Jainkoaren laguntzaz dena da posible. Hala, gizakiari bere benetako izaera eraikitzerako orduan Jainkoa ezinbesteko elementuan bilakatuko da: “el que no tiene Dios, tampoco tiene ningún yo”²⁶⁴ Jainkorik gabe ezingo du “askatasunean” bizi, zeren Jainkoa ukatzen duenak bere

²⁶² OTfA, 269 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 143. orrialdean aipatua

²⁶³ Platoniari kategoria den *oroipenaren* (reminiscencia, αναμνησις) parekidea.

²⁶⁴ SD, 153 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 144. orrialdean aipatua

burua ezereztu egiten du.²⁶⁵ Kierkegaardek Jainkoarengan gizakiaren oinarrizko printzipioa ikusten du, hots, giza existentziaren “benetakotasunaren” iturburua. Kristau erlijioaren Jainko hau, gizabanakoak bere “askatasuna” eta “salbazioa” lortzeko beharrezkoa duen Jainko hau, Kierkegaardentzat “Ahalguztiduna” (den Almaegtige) izango da. Horrenbestez, Jainkoa erabat aske den heinean, jatorrizko bekatuaren morrontzatik askatuko gaituen askatzailea ere izango da.²⁶⁶

Kierkegaarden planteamendu hauetan ikusi dezakegun moduan, ideia hauen azpian gizakiak etikaren bidez bakarrik salbazioa lortu ezin dezakeenaren ideia protestantea dago. Salbazioa lortzeko “goi izaki” baten laguntza beharrezko du gizakiak. Hau da, kristau erlijioaren Agerkundearen²⁶⁷ oinarria den Eskritura Santuan agertzen diren agindu edo betebeharrak erlijiosoek laguntza. Hori dela eta, Kierkegaardentzat Kristau erlijioaren Agerkundearen benetako esanahia Kristok eman zion esanahia izango da (nahiz eta Kierkegaardentzat, Agerkundearen jatorrizko esanahia historian zehar galtzen joan).

Izaera erabat erlijiosoa duten idatzietan, Kierkegaardek lehen aldiko kristautasunaren (Apostoluek eta lehen kristauak bizi izan zuten kristautasunari egiten dio erreferentzia), hots, “benetako kristauen”, eta XIX.mendean daniar kristau erlijioaren arteko bereizketa egingo du. Hori dela eta, bere xedea bere hirikideak benetako kristautasunera zuzentzea izango da. Bere lan erlijioso gehienak, hortaz, galdutako kristautasunaren berreskuratzeko ahaleginak izango dira eta neurri handi baten kristautasunaren “benetako hermeneutika” bat osatuko dute. Erromantikoek bezala iraganera itzultzea defendatuko du Kierkegaardek, baina ez da Erromantiko gehienek proposatzen duten iragan profanoa izango, kristautasunaren iragan erlijiosora baino. Hau da, Antzinarora eta ez Erdi Arora. Izan ere, Kierkegaard beti azaldu da kristautasuna monasterioetan giltzapetzearen etsai.

Baina zer ezaugarri ditu *existentzia erlijiosoaren bizimoduak*? Kierkegaardentzat zer da kristautasuna? Arestian ikusi dugun moduan, Kierkegaardek garai hartako daniar

²⁶⁵ Pentsalari ateok aldiz, Jainkoa gizakiaren alienazioaren (Feuerbach, Marx...) eta bizitzaren aurka ematen den eragozpen handiena (Nietzsche) bezala ikusiko dute.

²⁶⁶ Unamunorentzat Jainkoa hilezkorra eta hilezkortzailea (inmortalizator) den bezala, Hegelentzat jainkoa sortzailea izateaz gain, bere sorkutzaren kontzientzia izango du. Kierkegaardentzat, aldiz, jainkoa askea eta askatzailea izango da.

²⁶⁷ Gaztelera, *Revelación de la religión cristiana*.

kristautasunaren aurkako jarrera izango du, berarentzat kristautasuna “konkretutasunean” “erabaki pertsonalean” “praxian” eta “irrazionalitean” ezaugarritua baitago.

3.3.1.4.1. Hautu erlijiosoaren abiaburua “larritasuna”.

3.3.1.4.1.1. Hautu erlijioso pertsonala

Kierkegaardentzat erlijioa edo fedea ez da filosofia modernoak usten zuen moduan gizakiaren berezko ezaugarri bat izango. Berarentzat fedea momentu jakin baten giza hautuaren bidez erdiesten den zerbait izango da. "Fe es una elección, de ningún modo es una recepción inmediata."²⁶⁸ Fedearen eskuratze hau “salto edo jauzi” baten bidez ematen da eta *bizimodu estetikitik* “etikora” ematen den jauzia bezala, *bizimodu etikotik* “erlijiosora” ematen den jauzi hau ere borondatezkoa izango da. Are gehiago, beranduago ikusiko dugun moduan, salto honen izaera irrazionala ikusirik, jauzi honetan norberaren hautu askearen presentzia indar gehiagorekin azaleratzen zaigu. Izan ere, testuinguru honetan gizabanakoa absurdoa onartzen duen ala ez hautatu beharrean aurkituko da.

Hala, hautatze hau obligazio bat izango da. Munduaren eta Jainkoaren arteko aukeraketa egin beharrean aurkituko da gizabanakoa. Hau da, nahiz eta Kierkegaardek hasiera batean hiru bizimodu planteatu (etikoa, estetikoa eta erlijiosoa), hautatze honen aurrean bi bizimodutara murrizten dira aukerak. Horrenbestez, *bizimodu erlijiosoan* gizabanakoa Munduaren (bizitza estetikoa) eta Jainkoaren (bizitza erlijiosoa) arteko hautua egin beharrean aurkituko da.

Hautatze aske honek, bestalde, “bekatuaren” (Synd) eta “damuaren” arteko hautaketa ere suposatzen du. “El individuo concreto: "el concepto de pecado y de culpa pone cabalmente al individuo en cuanto individuo"²⁶⁹ "sólo arrepintiéndose se es concreto”

270

²⁶⁸ IChr, 131 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 146. orrialdean aipatua

²⁶⁹ BA, 367 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 147. orrialdean aipatua

²⁷⁰ EE-II. 222 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 147. orrialdean aipatua

Gizabanako partikularra askea izatea eta bere kabuz eraman nahi duen bizimodua hautatzeko aukera izateak, Jainkoaren aurrean erantzule izatea suposatzen du. Gizakiak indibiduo partikular gisa, hautuak eta ekintzak askatasun osoz egin behar ditu. Hortaz, Jainkoaren aurrean bere ekintzen erantzule izango da gizabanakoa. Hala, bere bizitzaren bukaeran gizakia gizabanako partikularra den neurrian, Jainkoagandik epaitua izango da. Gizabanakoa, aitzitik, gizabanako konkretua denez gero, bere ekintza pertsonalen erantzule ere izango da. Hortaz, ez da zenbaki huts bat izango. Ez da jendetzaren artean pertsona anonimo bat izango, Jainkoaren aurrean ez baitago gizarte erlijiosorik, gizabanako partikularra baino.

Cada hombre, en cuanto individuo, debe rendir cuentas a Dios. Ninguna tercera persona se atreve a introducirse en este arreglo de cuentas entre Dios y el individuo. (...) la evasión más ruinosa de todas consiste en esconderse en la muchedumbre en un intento de escapar a la revisión que Dios hace de él en cuanto individuo ²⁷¹

3.3.1.4.1.2. “Ezerezaren larritasuna”

“Larritasunaren” ²⁷² edo “angustiaren” (Angest) kategoría normalki Kierkegaarden izenarekin erlazionatua argitara ematen da, bera izan baitzen “larritasunaren” kategoriari fama gehien eman zion pentsalaria. Daniar pentsalariarentzat, “Larritasunak” gizabanakoak erlijioaren aurrean hartzen duen erabaki pertsonalaren eremuan eginkizun handia betetzen du, zeren eta gizabanakoak hautatzen duen hori larritasunaren fenomeno psikologikoaz baldintzatua egongo baita.

Kierkegaardek kategoría honen azterketari tratatu oso bat eskaini zion: *Angustiaren kontzeptua (1844)*. Fama gehien eman zion obra alegia. Baina hala ere harritu egiten gaitu lan honetan ez digula “larritasuna” edo “angustia” zer den forma argi eta zehatzean azaltzen. Ikerlan honetan daniar pentsalaria azterketa sakon eta konplexuetan nahasten da eta, ondorioz, irakurleari kontzeptu honen ulermena nekeza egiten zaio. Ez digu “angustia” edo “larritasuna” zer den esaten. Definizio kausalak ematen dizkigu. Hau da, “angustiaren” edo “larritasunaren” eragile kausalak zeintzuk diren esaten dizkigu. Hori dela eta, Kierkegaardek “larritasunaren” definizio zehatz bat eman baino, “larritasunaren” jatorriak zeintzuk diren azaltzen dizkigu.

²⁷¹ OTfA, 220 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 148. orrialdean aipatua

²⁷² Gaztelera Angustia. Euskaraz larritasuna edo angustia terminuak erabiliko ditut.

Kierkegaardek, bestalde, “larritasunaren” edo “angustiaren” fenomenoak beste kategoria batzuekin erlazio estuan jartzen ditu. Hala nola, “bekatuarekin”, “erruarekin”, “askatasunarekin”, “posibilitatearekin”, “ezerezarekin”... Kategoria guzti hauek, ordea, “larritasunaren” edo “angustiaren” suposizio edo ondorio bezala kontsideratzen ditu Kierkegaardek. Haatik, beraien artean trukagarriak izango dira, zeren eta azken finean kategoria guzti hauek errealitate berari egiten bati erreferentzia.

Kierkegaardek azaltzen digun “angustia” edo “larritasuna”, bestalde, jatorrizko bekatuaren (Arvesynd) aurretikakoa izango da. Jakina da, Jainkoak gizakiari jainkotiarra ziren grazia eta beste dohain batzuk eman zizkiola. Hala nola, hilezkortasuna. Ez zegoen sufrimendurik, ez eta gaixotasunik ere. Jainkoak, ordea, gizakiak “maitasun jainkotiarra” erabateko askatasunez onartzea nahi zuen. Giro horretan, ordea, deabruak, Adan tentatu eta Jainkoarengan konfiantza eza sortaraziko dio, Jainkoaren modukoa izateko desira sortaraziz. Hortaz, Jainkoa alde batera utzi eta Jainkoaren esanari kasu ez egitea erabaki zuen Adanek.

Kierkegaardek gizakiak istant horretan larritasuna eta etsipena sentitu zituela esango digu. Hau da, Jainkoa bezain handia ez zenaren sentimendua eta, aldi berean, Jainkoa bezalako izateko desira. Gauzak honela, jatorrizko bekatuaren ondoren, gainontzeko bekatuak eratorriko dira. Adanek bekatu egin zuen “larritasuna” edo “angustia” sentitzen zuelako. Behin jatorrizko bekatu egin ondoren, ordea, “larritasun” berri bat esperimentatu zuen. Hori dela eta, gauza bera gertatzen zaie Adanen ondorengo gizabanakoei: jatorrizko bekatuaren seme direnez gero, “angustia” edo “larritasuna” sentimenduaren eroaleak dira.

Halaber, “Larritasunaren” edo “angustiaren” fenomeno psikologikoa presente dagoen kasu guzti hauetan, gertakari komun bat oinarritzkoa izango da. Hau da, “ezerezen” (Intet) presentzia. Hortik, “ezereza” “larritasunaren” edo “angustiaren” jatorri moduan azaltzea.

“Angustiaren” edo “larritasunaren” kontzeptuak, halaber, ez du “beldurraren” (Frygt) ideiarekin zerikusirik izango. “Beldurra” zerbait konkretuaren aurrean izan dezakegun arriskuaren ondorioz sortzen den sentimendua da. “Larritasuna”, aldiz, “ezerezen” aurrean pizten den fenomeno psikologikoa. Hargatik, Kierkegaardek behin eta berriz

esango digu “larritasunaren” edo “angustiaren” objektua “ezereza” dela: “Si ahora, concretando más, preguntamos cuál es el objeto de la angustia, la respuesta no puede ser otra que la de siempre: ese objeto es la nada. Porque la angustia y la nada son siempre correspondientes entre sí”²⁷³

Bigarren lekuan, alabaina, “ezerez” hau “angustiaren” edo “larritasunaren” objektua dena, ez da kanpotik emana den zerbait izango. Gizakiaren erraietan dagoen elementu bat izango da. Gizakia ez da kanpotik datorren zerbaitengandik larritzen, zeren “angustia” edo “larritasuna” gizakiak bere baitan sortuko duen zerbait izango da. “No es una angustia por algo exterior, por algo que está fuera del hombre, sino de tal manera que el hombre mismo sea la fuente de la angustia”²⁷⁴.

“Larritasuna” edo “angustia” posible izateko, bestalde, “ezerezaz” gain beste ezinbesteko faktore bat “espiritua” (Aand) izango da. Hau da, “kontzientziaren” presentzia: “Si no hay conciencia, tampoco puede haber angustia”²⁷⁵. Zenbat eta “kontzientzia” handiago izan orduan eta “larritasun” edo “angustia” handiago sentituko du gizabanakoak. Zenbat eta “espiritu” edo “kontzientzia” gutxiago, “larritasun” gutxiago; zeren eta “espiritua” izango baita “larritasunaren” jatorria den “ezereza” islatuko den ispilua. Horrela, bada, “ezerezaren kontzientzia” izango da “larritasuna” edo “angustia” sortarazten duena. Hemendik eratortzen da, beraz, animaliak “espirituaren” jabe ez direnez gero, “larritasuna” sentitzen ez dutenaren ideia.

Baieztapen hauek egin ondoren, “ezerezaren” kategoriaren definizioa eman beharrea aurkitzen gara. Zer da “ezereza” daniar pentsalariarentzat? Kierkegaardek ez digu erantzun zehatz eta zuzenik emango. Izan ere kategoria honen edukiak “larritasunaren” inguruan egiten dituen baieztapenen baitan lantzen ditu. Ondorioz, kontzeptu honen inguruko interpretazioak egin beharrea aurkitzen gara.

Lehenengoz, esan beharra dago Kierkegaardengan “larritasunaren” edo “angustiaren” jatorria den “ezereza” ez dela “hutsaren” edo “ez izatearen” sinonimoa izango. Hau da, “izate absolutuaren absentzia” izango. Alderantziz, daniar pentsalariak aurkezten digun

²⁷³ Ibid., 366 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 149. orrialdean aipatua

²⁷⁴ Ibid., 421 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 150. orrialdean aipatua

²⁷⁵ Ibid., 314 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 150. orrialdean aipatua

“ezereza” errealtate bati egiten dio erreferentzia. Izate determinatu bati alegia. Ez da “ezerez absolutu” bat (*nihil negativum*) izango, ez eta “ezerez-ezereza”²⁷⁶, “ezerez erlatibo” bat (*nihil privatium*) baino. “Ezerez-zerbait”²⁷⁷ bat alegia. Hau da, ezereza den zerbait. Hortaz, errealtate mugatu bati egingo dio erreferentzia, hots, “inperfektua”, “ezegonkorra”, “eskasa”, “behar bezalakoa ez” den entitate bati. Baina zer da “inperfektu”, “ezegonkor”, “eskas” eta “behar bezalakoa ez” den hori?

Kierkegaardentzat gizabanakoa “partzialki askea” den izakia da, hots, ez da “erabat askea”. Bere “askatasuna” “ez da perfektua”, mugatua baino. Eta guzti honek, “larritasuna” edo “angustia” sortaraziko dio. “Larritasuna” edo “angustia” “askatasun murriztuaren” seinale izango da (en holdet Frihed). Hala, “askatasuna” bere baitan askea ez dela ondorioztatzen dugu, hots, “trabatua” dagoela. Baina zerk “trabatzen” du “askatasuna”? Gorputzaren instintuengatik “trabatua” izango da “askatasuna”. Hau da, estetikoagatik. Gorputza eta inpultsu naturalak “askatasunaren mugak” izango dira eta, ondorioz, “ezerezak”, gizakiaren inperfekzioa determinatuko duen faktorea izango denak, “askatasuna” baldintzarik gabe hautatzea saihesten du. Horrela, bada, esan genezake, “larritasuna” edo “angustia” gizakiak gorputza duenaren testuinguruarekin erlazionatua dagoela. Beste modu batera esanda, gizabanakoak “larritasuna” sentitzen du gorputzeko inpultsuez kutsatua dagoelako. Gizaki guztiz animikoa ez delako alegia. Horregatik, piztiak arima gabeko gorputz hutsak direnez gero eta aingeruak gorputzik gabeko arima hutsak, ez dute “larritasuna” edo “angustia” sufritzen: “el hombre no podría angustiarse si fuese una bestia o un ángel. Pero es una síntesis, y por eso puede angustiarse”.²⁷⁸ “Angustia” edo “larritasuna”, hortaz, “gorputza” eta “arima” edo “instintua” eta “askatasuna” bizikide diren testuinguruan gauzatzen da.

Gizakia jatorrizko bekatuaren ondorioz ahuldua dago eta bere gorputzetik ernatzen diren inpultso basatiak menderatu ezinean aurkitzen da. Bere “askatasun hutsak”²⁷⁹ ezin du instintu hauen aurrean erabateko garaipena lortu eta, ondorioz, aurreneko “askatasun huts” hau “askatasun indargabea” bilakatzen da. Hau da, “askatasun ez absolutu” batean, “ezerez” batean. Eta azken terminoan, egoera honek “larritasuna” edo “angustia” sorraraziko dio.

²⁷⁶Gaztelera *una nada-nada*.

²⁷⁷Gaztelera *un algo-nada*.

²⁷⁸BA, 421 or. Jaime Franco Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 151. orrialdean aipatua

²⁷⁹Gaztelera *libertad radical*.

“Larritasun” edo “angustia” hau, “ezerezaren” eta “giza askatasun eskasaren” sintoma dena, lorbidetako anbiguo izango da eta dialektikoki hoberena edo txarrena izateko, hots, salbazioa edo bekatua, etsipena edo fedea izateko, prest dago.

Alde batetik, “larritasunak” edo “angustiak” tentazio bat suposatzen du. “Bekaturako”, “etsipenerako” tentaldi bat alegia. Gizaki nahigabetuak Jainkoaren aurrean lorrezinezko oparotasuna begiztatzean, gizakia miseria handiagoan hondoratzea ekarriko du berarekin eta, bide batez, Jainkoarekiko haustura areagotzea. Hain da handia “larritasunak” gizabanakoari ezagutzera ematen dion bere izatearen ezintasuna... eta, aitzitik, Jainkoaren askatasun eredugarria hain da zaila lortzea...Gizakiak egoera horren aurrean Jainkoari bizkarra eman eta bere burua “larritasunean” edo “angustian” erabat hondoratzea hautatuko du (jarrera hau pesimisten berezko jarrera moduan ezagutzen da).

Beste aldetik, ordea, “larritasuna” edo “angustia” balore positiboa ere izan daiteke, zeren eta gizabanakoa fedearen eremura “jauzi salbatzailea” ematera bultzako baitu. Kierkegaarden arabera, gizakia ez da goreneko federa arrazoiaren bidez iristen, “larritasunaren” edo “angustiaren” esperientzia existentzialaren bidez baino. Izan ere, “angustiak” edo “larritasunak” gizakiari bere miseria (bere “ezereza”) azaleratzean, fedearen ateak irekitzen dizkio. “Larritasunak” edo “angustiak” “jainkotiar askatasunaren” aurrean gizakiari bere “askatasunaren” eskasia azaleratzean, Jainkoarekin bat egitera bultzatuko du hezu-haragizko gizakia. Hortaz, “Jauzi hau”, Jainkoak duen izaera askea lortzeko ahaleaginean bilakatuko da.

Horrenbestez, “larritasunaren” edo “angustiaren” izaera salbatzaile hau kontutan izanik, “larritasuna” ez da zerbait inperfektua, ez da alde batera laga behar den fenomeno bat izango. Alderantziz, zerbait emankorra da eta bere gabezia, hots, “larritasun” eza, kaltegarria suerta dakioke gizakiari. "Lo que sí quisiera dejar bien claro es que ésa es una aventura que todos los hombres tienen que correr, es decir, que todos han de aprender a angustiarse. El que no lo aprende, se busca de una u otra manera su propia ruina"²⁸⁰

²⁸⁰ BA, 421 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 153. orrialdean aipatua

Zenbat eta sakonagoa izan “larritasuna” edo “angustia”, orduan eta perfektuagoa izango da gizakia. Hau posible da zeren eta zenbat eta handiago izan “larritasuna” edo “angustia”, giza miseriaren kontzientzia areagotu egiten baita. Hala, gizabanakoak, “ezerezarengandik” ihes egin nahia eta Jainkoaren beharra modu sakonagoan biziko du.

3.3.1.4.1.3. “Etsipena”

“Etsipenaren”²⁸¹ (Fortvivielse) kategoria, Kierkegaarden pentsamenduaren beste pieza garrantzitsu bat izango da baina bere idatzien testuinguruen arabera esanahi kontrajarriak izango ditu. Haatik, ezegonkortasun semantiko honek, “etsipenaren” kategoria polisemikoa dela baieztatzera garamatza. Hala ere, esanahi posible guztiak bi adiera nagusitara murriztuak izango dira. Hau da, “etsipen finitua”²⁸² eta “etsipen absolutura”²⁸³. Horretarako, Kierkegaarden *Hautabidea* eta *Gaixotasun mortala* lanak eta etsipenari eta bekatuari bereziki eskainitako ikerlanak kontutan hartuko ditugu.

3.3.1.4.1.3.1. “Etsipen finitua”: “larritasunaren” edo “angustiaren” ondorio kaltegarria.

“Etsipen finitua” (endelig Fortvivielse) Kierkegaardentzat zerbait negatiboa izango da, zeren eta “etsipen finituak” gizabanako nahigabetua fedearen besoetara ez baitu zuzentzen. Hortaz, Kierkegaardentzat jomuga erratua izango da. Hori dela eta, “etsipen finitua” onesten duen gizabanakoa finitutasunaren hondamendian hondoratuko izango da, denborazko mundu immanentearen²⁸⁴ mugetara atxikiz. Hala, modu finituan etsitua denak mundu finitua erdietsiko du eta, aldi berean, arima galduko du. Hau da, gizakia infinituarekin lotzen duen elementu infinitua.

Si quiero mi desesperación en sentido finito, pierdo mi alma ... Cuando, en mi desesperación, conquisto el mundo entero, pierdo mi alma por el hecho de volverme finito yo mismo, pues tengo en él mi vida; si me desespero por la pérdida del mundo entero, entonces pierdo mi alma, pues la vuelvo finita”²⁸⁵

Horrela, bada, “etsipen finitua” finitutasunaren hautua izango da. Baina zer inplikatzeko du hautu mota honek? Kierkegaarden iritziz, “etsipen finitua” hautatzeak

²⁸¹ Gaztelera *La desesperación*.

²⁸² Gaztelera *desesperación finita*.

²⁸³ Gaztelera *desesperación absoluta*.

²⁸⁴ Gaztelera, *mundo temporal inmanente*.

²⁸⁵ EE-I, 198 or. Jaime Franco Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 154. orrialdean aipatua

“infinitutasunarekiko” edo “betierekoarekiko” haustura ondorioztatzen du. Hau da, existentziaren egitasmo jainkotiarraren baztertzea.

Lehen momentuan gizakia gauza bategatik etsitua dagoela uste izan arren, gizakia benetan Jainkoagatik dago desesperatua edo etsitua. Zehatzago esanda, bere baitan dagoen elementu jainkotiarrarengatik, hots, bere baitan dagoen betierekotasunarekin dago etsitua. Hemendik ondorioztatzen duguna zera da: gizabanakoaren “etsipena”, gizakia “denborazkoaren” eta “betierekotasunaren” arteko sintesia delako ematen da. Hau da, gugan ez balego betierekoa den zerbait ez ginake etsituak sentituko. “Etsipena”, beraz, “erlijiozko kontzientziaren” aurkako errebeldia izango da. Izan ere, “kontzientzia erlijiosoak” “berezko giza desiren” egitasmoen aurkako egitasmo jainkotiaria planteatzen du. Gauzak honela, pertsona etsituaren baitan “gorputzaren” eta “espirituaren” arteko erlazioak ez dira harmoniatsuak izango. Hargatik, etsituak bere buruarekiko duen desadostasun hau, hots, “erlijiozko kontzientziarekin” duen desadostasun hau, Jainkoarekiko duen desadostasunaren baliokidea izango da, zeina gizakiarengan “erlijiozko kontzientziaren” bidez aditzera emango den.

Etsipen mota hau “etsipen absolutuarekin”, alderatuz, gaixotasun bezala deskribatuko du Kierkegaardek. Hau da, gizakiaren egora patologia bat bezala. "la desesperación es la "enfermedad mortal"²⁸⁶. Baieztapen honek, ordea, ez du esanahi “etsipenaren gaixotasuna” bizi duen pertsona hil egingo denik. Heriotza baino egoera gogorrago batera garamatza etsipenak. Kierkegaardek “etsipen finitua” “gaixotasun mortala” (Sygdommen til Døden) moduan definituko du. Hau da, “Heriotza bizitzaldian”²⁸⁷ bezala. Pertsona etsituak, hortaz, etengabeko heriotza bizi du bere bizialdian, hots, etengabeko sufrimendu bat, hil nahi eta ezina.

Kierkegaardek “etsipen finituaren” forma ezberdinen artean, “kontzientziaren” kategoriaren baitan kokatzen diren bi forma nagusi nabarmenduko ditu. Lehenengo forma, “betiereko niaren” aurrean gizaki batek izan dezaken “etsipen ez kontzientea” izango da. Etsipen mota hau ezjakintasunak sortzen duen “etsipena” izango da. Hau da, Antzinaroko nahiz Modernitateko paganismoaren “berezko ezjakintasunaren” emaitza

²⁸⁶ SD, 131 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 156. orrialdean aipatua

²⁸⁷ Gazteleraz *muerte en vida*.

izango dena. “Etsipen” mota hau, beraz, “gizabanako naturalarena” edota “kontzientzia erlijiosoan” ez duenaren “etsipena” izango da.

“Etsipen finituaren bigarren forma, aldiz, “etsipen jakituna” izango da, hots, “ni betierekoaren” eroale dela dakien gizabanakoak bizituko duena. Etsipen hau bi jarrera ezberdinetan bereziko ditu Kierkegaardek. Aurrena, norberaren benetako izatearen uko gisa definituko du. Hala, pertsona etsituak, Jainkoak “kontzientzia erlijiosoaren” bidez jarririko arauak betetzeari uko egingo dio, bere benetako “niari”, “espirituari”, bizkarra emanaz. Gizabanakoak, hortaz, bere Kreatzaileak jarririko “existentzia erlijiosoaren programa” ez du beteko eta bere baitan dagoen “betierekoa” edo “infinitua” baztertu egingo du.

Beste jarrera, aldiz, norbera izate nahiak sortzen duen jarrera izango da. Alabaina, norbera izate nahi hau, “betierekotasunari” bizkarra emanaz garatuko da. “Etsipen” mota hau bizi duen gizabanakoak “autonomoa” izan nahi du. Izan ere, gizakiari berezkoak zaizkion gauzekin elikatuko da eta ez du inoren menpe egon nahi. Bere asmaketa propioa izan nahi du beraz, eta bere nahieraren arabera eraiki izango da. Hau da, izaki eraginkor edo ekintzaile moduan. Horrela, bada, “ni infinituaren” kontzientzia osoa izango du baina bere izatea oinarritzen duen boterearengandik lokabetua. Hau da, ez du inongo goi botererik onartuko. Hortaz, Jainkoaren botereari bizkarra emanaz biziko da.

Ez da harritzekoa izango, beraz, azkeneko “etsipen errebelde” honi Kierkegaardek “deabruzko etsipena” deitu izana eta “bekatuarekin” identifikatzea. Kierkegaarden aburuz, “etsipena” Jainkoarekiko haustura bezala definitzea “bekatuaren” esentziarekin bat egitea izango da; zeren eta, Kierkegaardentzat Jainkoari bizkarra emanaz bizitzea “bekatua” baita.

3.3.1.4.1.3.2. “Etsipen absolutua”: fedearen nahitaezko baldintza

Larritasuna edo angustiaren ondorio ezkorra moduan aurkeztu dugun “etsipen finituaren” aurrean (bekatuarekin identifikatzen dena), Kierkegaardek “etsipen absolutua” azaltzen digu. “Etsipen absolutua” fenomeno positibo bezala ikusiko du daniar pentsalariak; zeren eta federa iristeko bidea izango baita. “La desesperación absoluta, en cambio, es extensión a lo infinito”²⁸⁸ Horrenbestez, “etsipen absolutua” fedearen ezinbesteko baldintza izateaz gain, salbazioa eskaintzen digu. “la desesperación es para el hombre la verdadera salvación (Frelse).”²⁸⁹ Horregatik, Kierkegaardentzat gaixotasun bat baino, sendagai moduan ikusten du “etsipen absolutua”.

Baina nola ematen da “etsipen absolututik” infiniturako jauzia? Finitutasunaren edo bizimodu estetikoaren hausturaren bidez.

Zentzu absolutuan etsitua dagoen gizabanakoak, hortaz, alde batera utziko ditu mundutarra den oro eta, ez hori bakarrik, mundutarra denarengandik ez du ezer ere esperoko. Halatan, mundutarra den ororekin ematen den hausturarekin batera, gizabanakoaren baitan dagoen betiereko elementuaren berreskuratze nahia sortuko da. Gizabanakoak, hortaz, “etsipen absolutua” sentitzean alde batera utziko ditu mundutarra den oro eta, aldi berean, bere baitan beti egon den betiereko elementua berreskuratuko du. Hau da, bere burua, bere arima, bere “askatasuna” eta, bide batez, salbazioa. “Etsipen” mota honek, beraz, gizabanakoa bere existentzia mugatzen duen elementu horretatik aldentzeaz gain, betierekotasuna eskainiko dio.

3.3.1.4.1.4. Erljio praktikoa

Etsipen finituaren “gaixotasunaren” aurrean, Kierkegaardek “fedearen sendagaia” edo erlijioa planteatzen digu. Eta hegeliar jarraitzaileek defendatzen zuten erlijio espekulatiboaren izaera doktrinalaren aurrean, kristau erlijioaren izaera praktikoa nabarmendu du .

²⁸⁸ EE-II, 198 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 159. orrialdean aipatua

²⁸⁹ Ibid.. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 159. orrialdean aipatua

Kierkegaardentzat erlijio kristaua existentzia modu bat da, hots, izateko era bat, jardute bat, eta Kristok bere bizitzan izan zuen jarrerarekin predikatu zuena aditzera ematea izango du ardatz. Izan ere, Kierkegaarden arabera, salbatzailea ez zen doktrina bat ezagutzera emateko bakarrik mundura etorri. Bere xedea ez zen arrazoian oinarritutako doktrina bat inposatzea izan. Honek zer esanahi du? Pertsona bat ez dela kristau egiten Kristori buruz zerbait entzute, irakurtze edo pentsatze hutsarekin. Kristo ez zen “Aitaren hitzak” entzun eta predikatuzera bakarrik mugatu. Aitzitik, “Aitaren hitzak” praktikan jartzen saiatu zen. Kierkegaardentzat, beraz, hau izango da Kristautasunaren izaera praktikoa eta existentziala.

Praxi erlijioso honen izaera kontutan izanik, Kierkegaardek “imitazioaren” (Efterfølgelse) eta “miresmenaren” (Beundring) kategoriak kontrajarriko ditu. Hala, daniar pentsalariak Kristori erreferentzia egiten dionean “imitazioa” terminoa erabiliko du. Hau da, “benetako kristauak” Kristoren imitatzailea izan behar du eta ez miresmen hutsean geratu.

Aunque ser cristiano no es lo mismo que ser Cristo... es, sin embargo, ser su imitador... Ser su imitador significa que tu vida sea todo lo igual a la suya que es posible a una vida de hombre. (...). La vida de Cristo en la tierra es el paradigma; en parangón con ella tengo yo, y todo cristiano, que esforzarme por conformar mi vida²⁹⁰

Obratze Kristau honetan, obratze etikoan bezala, garrantzitsuena, hortaz, ez da zer egiten den, nola egiten den baino.

Kristautasunaren izaera praktikoa definitu eta nabarmentzen dituzten hainbat testuren artean, Kierkegaardek Pilatos-ek Kristori zer den “egia” galdetzen dion pasarte azaleratzen digu. Horrela, bada, pasarte honetan oinarrituta, Kierkegaardek bere “egiaren” ikuspegia garatuko du. Hala, daniar pentsalariak, “egia” bizitza gisa definituko du, zeren eta “egia” Kristoren bizitza osatzen duten ekintza eta jarreraren multzoa izango baita. Egia ez da Pilatosek uste zuen “jakintza hutsa” izango. Izan ere, Kristau ikuspegiaren arabera, “egia” ez da ezagutza modu bat izango, existentzia modu bat baino. Horregatik, benetako kristaua ez da “egia” ezagutzen duena izango, baizik eta “egia” bizitzen duena.

²⁹⁰ IChr, 101-102 orr. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 161. orrialdean aipatua

Pues ¿qué es la verdad? .. La vida de Cristo en la tierra, cada instante de esta vida era la verdad ... Parece como que Pilatos está deseoso de saber, dispuesto a aprender, pero verdaderamente su pregunta es disparatada del todo, no porque pregunte: " ¿qué es la verdad? ", sino porque se lo pregunte a Cristo, cuya vida es cabalmente la verdad, y que, por consiguiente, en todo momento demuestra con su vida lo que es la verdad con mucha más fuerza que todas las agudísimas y prolijísimas exposiciones de un pensador...

Por lo tanto Cristo es la verdad en el sentido de que la única explicación verdadera sobre lo que la verdad sea, consiste en ser la verdad. (...). Esto significa que la verdad en el sentido de que Cristo es la verdad, no consiste en una suma de proposiciones, ni en una determinación conceptual y cosas similares, sino que es una vida (et Liv). El ser de la verdad no es una duplicación directa del ser relativo al pensamiento, que solamente da un ser pensado... No, el ser de la verdad es la duplicación (Fordoblelse) en ti, en mí, en él, de manera que tu vida, la mía y la suya aproximativamente -en conato de ello- exprese la verdad; que tu vida, la mía y la suya de una manera aproximativa -en conato de ello- sea el ser de la verdad, como la verdad era en Cristo: una vida, pues El era la verdad.²⁹¹

“Kristau egi” hau bizitza edo existentzia forma bat den neurrian, bide baten planteamenduetarekin identifikatzen du Kierkegaardek. “Egia” edo bizitza, hortaz, bide bat (Vei) izango da, ez da helmuga edo helburu bat izango, metodo bat baino.

Gauzak honela, daniar pentsalariak, “Kristau egiaren” eta “egi zientifikoaren” arteko bereizketa egiten digu. “Egi zientifikoa”, bidean isurtzen diren ondorioen emaitza den bezala, “Kristau egia” bidea bera izango da.

“Egi zientifikoaren” kasuan behin ondoriora iritsita, ondoriora iritsi aurreko prozesu guztia bigarren maila batean geratzen da. Hau da, lortzen den ondorioa da garrantzitsuena. Horregatik, ideia honen jarraitzaileek alde batera utziko dute ondoriora iristeko eginiko bidea. Izan ere, emaitza eta emaitza horretatik eratortzen den garapena izango da interesatzen zaien gauza bakarra.

“Egia” bidearekin identifikatzen denean, ordea, mugarritu eta alde batera utzi ezin den bidea da garrantzitsuena. Horregatik, ideia honen jarraitzaileak Kristok burutu zuen ibilbide bera egingo du. Hau da, benetako kristaua ez da “Maisua” iritsi zen helmugatik abiatzen dena izango, Kristoren abiapuntura itzuli eta hasieratik “Maisuak” eginiko bide bera egiten duena baino. Benetako kristaua, hortaz, ez da Ebanjelioak ikasi eta azaltzearekin konformatuko.

²⁹¹ Ibid., 187-189 orr. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 163-164. orrialdeetan aipatua.

“Kristau egia” bizitza bera bada, zer nolako ezaugarriak izango ditu bide horrek? Galdera honi erantzuteko orduan Kierkegaardek testu Ebanjelikoak erabiliko ditu. Honen iritziz, kristau bidea ez da maiz igarota izan den bide erraza izango, hots, ez da modu atsegingarrian egiten den bidea izango. Alderantziz, bide estua izango da, malkartsua eta, ondorioz, zailtasunez igarotzen dena. Sufrimendua, beraz, kristau bidearen ezaugarri esentziala izango da. Horrela, bada, sufrimendurik gabe ez dago kristautasunik.

...son una y la misma cosa, que la tribulación es el camino (cristiano), y que el camino es tribulación; se pertenecen tan estrechamente la una a la otra que... son un concepto; tan estrechamente se pertenecen mutuamente que la relación entre tribulación y el camino es la de cosas que no pueden ser separadas. No puede haber relación más estrecha. Si eliminas la tribulación, eliminas el camino; si eliminas el camino, eliminas la tribulación²⁹²

Hargatik, kristautasuna sufrimendurekin identifikatzean, kristaua “aszeta” (Asket) dela esan ohi da.

Lo que pretende toda religión en la que hay algo de verdad, y lo que pretende el cristianismo decididamente, es una transformación total en el hombre, arrancar de él por la renuncia y negación de sí mismo todo aquello (y precisamente aquello) a lo que se adhiere inmediatamente, en lo cual tiene inmediatamente su vida... Hacerse cristiano en el sentido del Nuevo Testamento consiste en desprender (en el sentido en que el dentista habla de desprender el diente de las encías), desprender al individuo de aquello a lo que se adhiere con la pasión de la inmediatez, y que se adhiere a él con la misma pasión²⁹³

3.3.1.4.1.5. Erljio irrazionala

Hegeliar “erlijio arrazionalaren” aurrean, Kierkegaardek arrazoiaren mugetatik kanpo dagoen “erlijio irrazionala” aurkezten digu. Hegelek erlijioaren baitan ematen den kontraesana pentsatzeko ausardia izan zuen bezala, Kierkegaardentzat erlijioaren baitan ematen den kontraesanaren inguruko gogoetak egitea ezinezkoa suertatzen dira. Izan ere, kristautasuna “paradoxa absolutu” gisa (det absolute Paradox) aurkezten da eta kristautasuna eta arrazoa elkar baztertzaileak diren muturreko bi elementu izango dira .

“Paradoxa”, bestalde, arrazoimena duen ororentzat eskandaluzko egoera bat izango da, Zeren eta Kristo Jainko-gizon bezala aurkeztea irrazionala baita.

Pero ¿qué es lo absurdo? Lo absurdo (det Absurde) es que la verdad eterna se haya realizado en el tiempo, que Dios se haya encarnado, que haya nacido, crecido, etc.,

²⁹² OTfA, 380 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 165. orrialdean aipatua

²⁹³ BIAr, 262 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 166. orrialdean aipatua

precisamente como cualquier otro individuo humano, completamente igual que los demás individuos²⁹⁴

Kierkegaarden Jainkoaren ikuspegia, halaber, bere maisua izan zen Pascal-en “Deus absconditus”-en ildotik eratorria izango da (eta ez Hegelen “Deus revelatus”-en ikuspegitik). Hortaz, Kierkegaardentzat Jainkoa “Jainko ezezaguna” izango da.

Kristo “Jainko-gizaki” misteriotsua denez gero, “absurdoa”, “paradoxikoa” eta kontraesankorra da. Gizabanakoa, beraz, (izaki arrazionala) ez da gai izango bere ulermenarekin Jainkoaren existentzia frogatzeko, ez eta Jainkoaren hitzak eta jarrerak ulertzeko ere. "En general, nada puede "saberse" acerca de "Cristo"; es la paradoja..."²⁹⁵

Baina “absurdo erlijiosoak” ez dio Testamentu Berriari bakarrik eragiten, Testamentu Zaharraren edukiengan ere “absurdo erlijiosoak” zeresan handia izango baitu. Agerkunde guztia egongo da “absurdoaren” eraginaren menpe. Agerkunde guztia baitago misterioz, ulergaitzak diren jainkotiar aginduez eta “jarrera absurdoez” estalia.

Horrela, bada, Jainkoarengana iristeko bide bakarra fedea (Tro) izango da, zehatzago esanda, fedearen bide iluna.

Lo cristiano tiene que ser creído. Comprender (at begribe) es la actitud del hombre relativa a todo lo humano; en cambio, creer (at troe) es la única relación del hombre con lo divino²⁹⁶

Fedearengan, beraz, arrazoiaren alderantzizko erlazio proportzionala emango da: zenbat eta gehiago Jainkoarengan pentsatu, orduan eta ulergaitzagoa suertatzen zaigu Jainkoa eta, alderantziz, zenbat eta gutxiago ulertu, orduan eta indar handiagoa izango du fedeak. "Cuanto más progreso en lo relativo a pensamiento, inteligencia y comprensión, ... menos comprendo a la divinidad ...: cuanto menos comprendo, con tal de creer, más intensa será la fe"²⁹⁷

Kierkegaardentzat “Jainkoarekiko atxikimendua” ez da dudarekin hasi eta Agerkundera arrazoiaren bidez ulertu eta frogatu ondoren, erabat konbentzituta, Jainkoarengan

²⁹⁴ Eft, 176 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 167. orrialdean aipatua

²⁹⁵ IChr, 24 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 168. orrialdean aipatua

²⁹⁶ SD, 206 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 168. orrialdean aipatua

²⁹⁷ Ibid., 209 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 169. orrialdean aipatua

sinestera garamatzen zerbait izango. Jainkoarekiko atxikimendua fedearekin hasi eta fedearekin emango den zerbait izango da.

Hortaz, fedeak Jainkoarekiko jarrera otzana eta esanekoa izatea exijitzen du. Hori dela medio, fedearen hautu askea egiterako orduan, gizabanakoak ezingo du bere arrazoitasunean sostengatu. Izan ere, fedearen objektua irrazionala da. Hargatik, gizabanakoa Jainkoarengana iritsi nahi badu arrazoa alde batera utzi beharrean aurkituko da.

Kierkegaardek erlijioaren “izaera paradoxikoa” *Beldurra eta ikara* (1943) laneko *Isaaken sakrifizioaren* pasartearen iruzkinean azaltzen digu. Abraham izango da, hortaz, irrazionalitatea hobekien islatzen duen irudia. Hau da, giza arrazoiaren ukoaren eta fedearen izaera paradoxikoaren eredu nagusia.

Izaki arrazional bezala, Abrahamek ezin du era horretako manamendurik ulertu, ez eta etikaren ikuspegitik “ona” den zerbait bezala kalifikatu eta, hala eta guztiz ere, Jainkoak agindutakoa betetzen du.

(...)la dialéctica entrañada en la historia de Abraham. De este modo podemos ver cuán enorme paradoja es la de la fe; una paradoja capaz de convertir un crimen en una acción sagrada y agradable a Dios; una paradoja que le devuelve de nuevo su hijo a Abraham; una paradoja, en definitiva, que no puede explicarse por ningún razonamiento, ya que la fe comienza cabalmente donde terminan los razonamientos²⁹⁸

Kristautasunak exijitzen duen arrazoiaren uko honetan, bestalde, sinestuna ez da arrazoiaren begiak itxi eta erlijioaren besoetara jauzi egiten duen “ero” (Nar, afsindig) bat izango. Fededuna, maitasun erromantikoaren berezko ezaugarria den zuhurtziagabea eta irrazionala den kixotiar maitasunaz atxikitzen zaio Jainkoari. Horregatik, Kierkegaardek aditzera ematen digun “salbazioa” emakumearengandik eratorria izango da (Kierkegaardentzat irrazionaltasunaren eta maitasun erromantikoaren ikurra emakumea baita) eta “galbidea”, aldiz, gizonezkoarengandik (arrazoiaren eta maitasun arrazionalaren ikur izango dena).

Hala, gizabanakoa “autentikoa” izateko, hots, fedearen existentzia gauzatua izateko, gizakiaren berezko dimentsioa den arrazoiaren suntsipena eman behar da. Hortaz,

²⁹⁸ FB, 104 or. Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 171-172. orrialdean aipatua

kristaua bere desira berekoiak alde batera usteaz gain, arrazoia ere alde batera utzi beharrean aurkituko da. "El héroe trágico ... renuncia a sus deseos para cumplir con su deber. Para el caballero de la fe son también idénticos el deseo y el deber, pero se le exige que renuncie a ambos ... el deber absoluto le exigía justamente renunciar a ellos"²⁹⁹ Horrenbestez, gizakiak salbazioa lortzeko animalari arrazionala izateari utzi beharko dio.

3.3.1.4.1.6. Fedearen pasioa

Erligioaren izaera irrazionalak ulergaitza den eduki bat barne hartzen du. Hau da, "absurdoaren paradoxa". "Jainkoaren izaera", hortaz, frogagaitza eta zalantzazkoa izango da.

Fededunak ezin du ziurtasun osoz jakin bere fedearen objektua erreala den ala ez. Inork ezin dio bermatu sinesten duen Jainkoa erreala den ala ez. Hau da, Kristo Jainkoa izateaz gain gizakia dela. Fededunak uste du hala dela eta horrela nahi du izatea, baina ez du ziurtasun osoz jakingo. Bere ziurtasuna, aitzitik, ez da arrazoiak edo froga historikoez emanikoa, fedeak eskainia baino. Horregatik, etengabeko zalantzan biziko da gizabanakoa. Fededunak zoriontasuna eta salbazioa lortzeko Jainkoa zerbitzatu beharra izango du eta horretarako bere buruari eta munduari uko egin beharko dio. Pauso hau ematean, hortaz, bere salbazioa zalantzagarrria den izaki baten (Jainkoaren) esku jarri du. Izan ere, Jainkoak agian ez du existentziarik izango. Horregatik, Agerkundera bereganatzeak arrisku (Risiko) bat dakar berarekin. Bizitza, irrealia izan daitekeen zerbaiten gainean eraikitzearen arriskua alegia. Arrisku hau Kristau izaerarekin lotua egongo da, hortaz, eta sinestea abentura arriskutsu bat izango da. Arriskua, bada, fedearen funtsezko baldintza izango da.

Esan dugunaz gain, Kierkegaardek fedea "pasio" (Lidenskab), *pathos* bezala aditzera ematen digu. *Pasiorik* gabe, ez dago federik. "Pasioa", beraz, fedearen baldintza *sine qua non*-a izango da.

²⁹⁹ FB, 126 (oharra) Jaime Francok Kierkegaard frente el Hegelismo lanaren 173. orrialdean aipatua

Baina daniar pentsalariaren arabera, fedea ez da edozein “pasio” izango, gizakiarengan ematen den “pasio gorenena” izango baita. Baina zertan datza “pasio” hau? Kierkegaardek “fedearen pasioa” definitzerako orduan makina bat sinonimo erabiltzen ditu: espirituala, subjektibitatea, barnekotasuna, interes infinitua, tentsioa...

Fedearen “izaera pasionala” edo grinatsua irudikatzeko orduan, bestalde, Kierkegaardek adibide asko ematen dizkigu. Hauetako bat, idatzi askotan aditzera ematen dena, igerilariaren adibidea da. Hobeto esanda, nekez igeri egiten dakien gizonaren adibidea. Gizon honek ozta-ozta daki igeri egiten eta, hala ere, salto egingo du itsasoko ur sakonera. Izugarritzko ahaleginak egin behar ditu ur gainean iraun eta ez itotzeko. Modu apasionatuan edo grinatsuan, etengabeko ahaleginean, apenaz ulertu gabe, existentzia erlijiosoaren itsasora da jaurtia. Bere betiereko zoriontasuna lortzeko, ordea, bizirik irauten ahalegintzen da, hots, bere “salbazioaren” erantzule den Jainkoaren existentzian sinesten saiatzen da.

Horrela, bada, Kierkegaardentzat garrantzitsuena fededunaren jarrera “paradoxaren” aurrean izango da. Hau da, fededunak “paradoxarekin” erlazionatzeko orduan duen modu apasionatua edo grinatsua.

Gai honetan gehiago sakondu daiteke, baina bukatutzat emango dugu Kierkegaarden pentsamenduari eskainitako atal hau. Horrela, bada, joan gaitezen Unamunoren pentsamendua azaltzera, Unamunok Txillardegirengan (eta garaiko hartan beste askorengan) eragin handia izan baitzuen.

4. MIGUEL DE UNAMUNO³⁰⁰

Unamunoren pentsamenduaren oinarria hilezkortasun gosea izango da. Hil ondoren bera izaten jarraitzea alegia. Sentimendu hau izango da, hortaz, Unamuno “bere baitan” murgiltzera bultzatuko duena.

Bere iragan arrazionalistak, bestalde, ez dio bere bilaketa pertsonalean aurrera egiten lagunduko, alderantziz, oztopo bat izango da Unamunorentzat. Irtenbiderik gabeko kale itsu bat alegia. Hortaz, arrazoiak eskaintzen dion absurdotasunak hilezkor izate nahia biziki sortaraziko dio Unamunori, “deuseztapen arrazionala” modu tragikoan bizituz.

Honetaz gain, garai hartan mendebaldeko kulturean indarrean zeuden filosofia eta zientzien baitan arazo antropologiko erradikalek ez zuten apenaz lekurik. Gure Unamunok, ordea, “inkisizio zientifikoa” bezala deitu zion jarrera honen aurrean, bere pentsamendua planteatuko du. Izan ere, bai idealismo arrazionalistak, bai positibismoak, bere pentsamenduaren oinarria izango zen gizabanako konkretua (eta gizabanakoaren oinarrizko arazoak) alde batera usten zituzten. Hori dela eta, garai hartako korrante filosofiko-zientifikoen joera ikusirik, bizkaitar pentsalaria fronte guztietako erasoen objektu izan zela ondorioztatzera iristen gara.

Unamunok jasan zituen erasoak, ordea, ez ziren gai antropologiko erradikal garrantzitsuenei aurre egiten ziolako bakarrik izan, bere pentsamenduak aurkezten zuen “sistema gabeziak”, “paradoxek” eta ageriko kontraesanek bere obrak irakurtzen zituen oro zurtzen baitzituen (batez ere, irakurleak aurreiritzi eta jarrera kritiko ezkorra izanez gero).

³⁰⁰ Cecilia La funderen tesia In: <http://fondosdigitales.us.es/tesis/tesis/680/la-antropologia-filosofica-de-miguel-de-unamuno/> eta Pedro Cerezo Galáen *Las máscaras de lo trágico : filosofía y tragedia en Miguel de Unamuno* lanak hartu ditut irizpide.

4.1. TESTUINGURU KULTURALA ETA FILOSOFIKOA

XIX. mendean, egoera historikoak bultzatuta, Espainiak sormen filosofikoaren gabezia bizi izan zuen. XIX. mendeko dekadentismo edo krisialdi hau, ordea, ez zen ezerezetik sortua izan, bere erroak aurreko mendeetan kokatzen baitira.

Aurreko mendeetan dagoeneko espainiar pentsamenduak atzerako jaidura izango du. Hau da, pentsamendu edo korrante hobeto batez ez da garatua izango, ez du mugimendu edo joera sortzailerik izango.

Berpizkundea ere nolabaiteko atzerapenarekin iritsiko da Espainiara. Gauza bera gertatuko da mugimendu erasmista eta protestanteekin ere (Carlos V.aren erregealdia eta gero segituan kanporatuak izango dira). Hortaz, XVI. Mendean, jada, espainiar kulturaren baitan oinarritzeko garaia izan zen aldian, ondorengo mendeetan indarrean egongo den dekadentismoa sumatzen hasiko da.

XVII. mendean, bestalde, espainiar garapen kultural-filosofikoaren eta Europako gainontzeko herrialdeetan bizitzen ari ziren garatze kulturalaren arteko bereizketa areagotu egingo da.

XIX. mendean, aldiz, nahiz eta espainiar kulturak atzerapen handiarekin begiratu atzerriko herrialdeetan indarrean zeuden korrante filosofikoei, bere erreferente handiena frantziar kultura izango da. Espainian, XVIII. mendearen bukaeran dagoeneko, Condillac³⁰¹-ek muturreraino eramango duen Locke-ren³⁰² filosofian oinarritutako

³⁰¹Condillac, Étienne Bonnot de. Filosofo eta apaiz katolikoa frantsesa (Grenoble, 1715 - Flux, Beaugency ondoan, 1780). arazo psikologikoen azterketan eta hizkuntzaren filosofian ekarpen handiak egin zituen. Ezagutza guztien iturria sententzioetan ipintzen zuen; horietatik ondorioztatu zituen gizabanakoaren prozesu psikologiko guztiak (Sententzioei buruzko tratatua, 1754). <http://www.erabili.eus/lantresnak/hiztegiak/harluxet>

³⁰² Locke, John. Filosofo ingelesa (Wrington, Somerset, 1632 - Oates, Essex, 1704). Descartesen arrazionalismoa baztertuz, enpirismoaren teoria landu zuen: sentipenetan eta zuzeneko esperientzian oinarritzen da giza ezagutza (Giza adimenari buruzko saiakera, 1690). Arazo politiko-sozialetan liberala izan zen, ilustrazio ingelesaren aita (Gobernuari buruzko bi tratatu, 1690): herritarren adostasunean dago oinarritua gizarte eta subiranoko legeak betetzen ez baditu, zilegi da herritarrek asaldatzea. <http://www.erabili.eus/lantresnak/hiztegiak/harluxet>

enpirismo psikologikoa azaltzen da (honetaz gain, nolabaiteko presentzia izango du espiritualista den Victor Cousin-ek ere³⁰³).

Eskoziar sensismoak, bestalde, XIX. mendearen bukaeran Europan nolabaiteko indarra izango du. Espainiari dagokionez bi jatorri izango ditu eskoziar sensismoak: lehenak, Frantzia izango du bere iturburua; eta bestea, Ingalaterran errefuxiatuak izan ziren R. Martí de Eixalá-ren eta F.J. Llorens y Barba-ren eskutik emango da.

Guzti honen erdian, XIX. mendearen erdialdean, indarra hartuko duten izenak J. Balmes-enak (Unamunok bere aitak etxean zuen liburutegian oso gazte ezagutuko ditu Balmes-en lanak) eta Donoso Cortés pentsalariarenak izango dira (biak pentsamendu katolikoaren ordezkariak).

Balmes (1810-1848) eskolastikaren ernaberritzean lagunduko du eta nahiz eta bere pentsamenduak ortodoxia katolikoaren eragina izan, europar pentsamendu moderno garrantzitsuenen jakituna ere izango da. Horregatik, *common sense philosophy* edota frantziar espiritualismoaren eragina antzemango da bere ideietan. Beste korrante filosofiko batzuk, aldiz, gero gezurtatuak edota kritikatuak izateko aztertuko ditu Balmes-ek. Hala nola, enpirismo ingelesa, kantismoa edota alemaniar idealismoa. Haatik, Kantiar kritizismoaren aurrean, Balmes-ek katolizismoa defendatu nahiko du eskolastikaren metafisikaren oinarriak salbatuz. Honen adibide dugu *El protestantismo comparado con el catolicismo en sus relaciones con la civilización europea* obra³⁰⁴.

Garai hartan ere ezagutuko ditu Unamunok Donoso Cortés-en obrak (katolizismoaren defendatzaile sutsua). Baina pentsalari hauek oso gazte hilko dira eta beraien pentsamenduek ez dute oihartzun handirik izango garaiko testuinguru kulturallean.

³⁰³ Cousin, Victor . Filosofo eta politikari frantsesa (Paris, 1792 - Cannes, 1867). Filosofiaren historiaren eta eklektizismo espiritualaren aitzindaria izan zen (Filosofiaren historiari buruzko ikastaroa, 1828). <http://www.erabili.eus/lantresnak/hiztegiak/harluxet>

³⁰⁴Balmes-en lana irakurri nahi duenak lotura honetan eskuragarri du: http://books.google.es/books?id=8nUNAAAAYAAJ&printsec=frontcover&hl=es&source=gbs_ge_su_mmary_r&cad=0#v=onepage&q&f=false Azkenengo aldiz 2015ko irailaren 3an kontsultatua

Espainiar filosofiak garai hartan bizi zuen hutsune handia dela medio, atzerrira begiratzea ahalbidetuko du, bereziki, Alemaniara. XIX. mendearen bukaeran atzerriko korrante filosofiko nagusienak ezagutzera emango dira Espainian. Esate baterako, neokantismoa, hegelianismoa, positibismoa, materialismo mekanizista, materialismo dialektikoa eta joera irrazionalista eta bitalista zituzten hainbat korrante (hauen artean nabarmenduko direnak, pragmatismoa, nietzscheanismoa eta, beranduago, bergsonismoa izango dira). Zoritxarrez ez da ideia hauen errotze handirik emango Espainian. Hori dela eta, ez dira korrante hauen ordezkari esanguratsurik ezagutuko.

“Ideia berrien anabasa” honen erdian (Unamunok honela kalifikatuko duena), Alemaniatik zetorren krausismoaren garrantzia azpimarragarria izango da.

Julián Sanz del Río (1814-1869), Alemanian eta Belgikan krausismoarekin harremanetan jarriko den pentsalaria, Espainian XIX. mende bukaeran teoria honen hedatzaile garrantzitsuena izango da.

Krause-en pentsamendua³⁰⁵, panenteismo bezala definitu dena, alemaniar idealismoan du bere abiamena eta bere baitan elementu etiko-erlijioso garrantzitsuak aurki daitezke (batez ere ñabardura pietistak). Krause-en doktrinaren elementu praktikoa hauek izango dira, hortaz, Espainiako arlo intelektualean txertatuko direnak.

Azpimarragarria da, baita ere, Europako pentsamendua positibismoak eta beste joera arrazionalistak menderatzen zuten bitartean, Espainian krausismoak zuen presentzia (gai honen inguruan, Ferrater Mora-k bere *Diccionario de Filosofía*³⁰⁶-n azalpenak ematen dizkigu). Batzuen aburuz Krausismoak Espainian izan zuen arrakasta, aurretik espainian “aurre-krausismo” bat indarrean zegoelako eman zen. Beste batzuen iritziz, ordea, bere izaera berritzaileagatik izan zen (ezin dugu ahaztu garai hartan espainiar kulturari

³⁰⁵ Krause, Karl Christian Friedrich. Filosofo alemana (Eisenberg, 1781 - Munich, 1832). Kanten interpretazio jatorria eman uste zuen. Natura eta espiritua edo gorputza eta arima bereiziak eta kontrajarriak izanik, horien funtsezko bateratzea jainkoagan gertatzen da. Panteismoa ukatuz, panenteismoa. Krauseren jarraitzaileek krausismoa eratu zuten. <http://www.erabili.eus/lantresnak/hiztegiak/harluxet>

³⁰⁶ Ferrater Mora, José. *Diccionario de Filosofía*. Buenos Aires, Ed. Sudamericana, 1971, t.I, 1066-68 orr. Ikusi krausismoa.

hutsune handia zegoela eta krausismoak bere izaera praktikoarekin espainiar kulturaren aspektu berritzaileak eskaintzen zituela).

Sanz del Rió eta krausismoaren beste jarraitzaile batzuentzat (F. Giner de los Ríos, E. Castelar, F. Pi i Margall, J. Costa, J. Valera eta abar.), López de Morillas-ek *El krausismo español*³⁰⁷ lanean azaltzen digun moduan, ororen gainetik krausismoa bizimodu bat zen. Bizimodu ideal bat, zeinak bai “zientziaren” eta “fede katolikoaren”, bai filosofia espekulatiboaren (idealismoa zehatzago esanda) eta erlijioaren arteko bateratzea bideratzen zuen.

Baina Krausismoak ere izan zituen aurkako jarrerak, katoliko atzerakoien artean bereziki. Hauen artean, F. Navarro Villoslada eta J.M. Ortí y Lara aurkituko ditugu.

Borboitar berrezarpenarekin (1874), krausistak beraien postu garrantzitsuenetatik kargugabetuak izango dira, krausismoaren indargabetzea suposatuz. Indargabetze honek, ordea, ez du denbora asko iraungo, Giner de los Ríos-ek *Institución Libre de Enseñanza* 1976an sortuko baitu. Hala, laburbilduz, esan dezakegu Krausisten eta neokatolikoaren arteko eztabaiden erdigunean Europara zabaltzearen jarreraren eta tradizioa berriro bueltatzearen arteko auzia zegoela indarrean.

XX. mende hasiera, bestalde, aurreko mendearen jarraipena dela esan genezake: alde batetik, pentsamendu tradizionalista egongo da; eta beste aldetik, atzerriko korrontek eta krausismoaren irautea. Baina aurreko mendean gertatu zen moduan, pentsalari garrantzitsuen falta nabarituko da. Ikuspegi kulturaletik begiratuta, aitzitik, azpimarragarria izango da 98ko belaunaldiaren fenomeno, baina bere garrantzia batik bat literaturaren eremuan emango da eta ez filosofian.

Horrela, bada, laburtze aldera esan dezakegu Unamunok bizituko duen giro kulturala arestian aipatu duguna izango dela, zeinaren pentsamenduak 1897tik aurrera bere heldutasuna bizituko duen. Bere seme Raimundo hil zen urtean alegia.

³⁰⁷ *El krausismo español*, 1956. Ferrater Morak aipatua, op. cit. 1068 or.

Unamunoren pentsamenduaren iturburuak aztertzen ditugunean, bestalde, ezin dugu ahaztu hemeretzigarren mendean emango den arrazionalismoaren eta irrazionalismoaren arteko gatazkaren erdian aurkituko dela gure bilbotar pentsalaria. Unamuno arrazionalismoaren neurrigabekeriaren aurrean, hots, Europan XIX. mendean indarrean egongo den zientifismoaren eta dogmatismoaren aurrean, gizabanako konkretuaren eta giza balioen eta bizitzaren defentsa aldarrikatuko du. Horrela, bada, XVIII. mendean Rousseau-rekin eman eta Erromantizismoarekin indartu ondoren, XIX. mendean Schopenhauer, Kierkegaard, Nietzsche bezalako pentsalari bakan batzuekin finkatu eta mendearen bukaeran, Dilthey-ren James-en eta Bergson-en joera irrazionalista eta bitalistan isuriko den jarrera filosofikoarekin bat egingo du Unamunok. Aipatu berri ditugun autore askok bezala (horietako batzuk Unamunoren garaikideak izango direnak), pertsonalismoaren alde agertuko da Unamuno. Hau da, “hezur-haragizko” gizakiaren alde. Modu berean nahiago izango ditu gizakiaren arrazoizkotasunetik haratago³⁰⁸ dauden elementuak. Horrela, bada, giza borondateak eta sentimenduek lehentasuna izango dute Unamunoren pentsamenduan.

Arrazoizkotasunetik haratago dagoenarekiko lehentasun hau askotan arrazoiaren baztertearekin batera emango da. Arrazoia, gizakiaren oinarrizko arazoak ulertzeko ezegoki bezala ikusiko du Unamunok. Arrazoia bizitzari kontrajarriko zaion elementu izango da eta bere oinarrizko arazoa izango den heriotzari erantzun bat ematerako orduan ez du gai ikusiko Unamunok arrazoia. Hau izango da bere pentsamenduaren oinarria den *Del sentimiento trágico de la vida*³⁰⁹ (*Bizitzaren sentimendu tragikoaz*) lanaren mamia eta, modu berezian, V. Kapituluarena, hots, “la disolución racional”-rena (disoluzio arrazionalarena). Baina guzti honen erdian, ez al dira bada arrazoia eta irrazionalitatea gizakiaren oinarrizko bi aspektu? Unamunoren iritziz, ezin dira ez bata eta ez bestea bazterrean utzi. Hori dela eta, bizitza gizakiaren bi aspektu hauen arteko etengabeke gatazka moduan ulertuko du.

Horregatik, Unamunoren irrazionalitateari buruz hitz egiten dugunean, irrazionalitatea Unamunorengan zer den zehaztu beharrean aurkitzen gara. Halaber, puntu honi

³⁰⁸ Arrazoizkotik haratago dagoena eta irrazionalismoa gauza bera izango dira.

³⁰⁹ Unamuno Miguel de. *Del sentimiento trágico de la vida*. Obras completas, X. liburukia, Madrid: Turner, [1995-2008] Euskaraz: *Bizitzaren sentimendu tragikoaz*. <http://www.ehu.es/ehg/klasikoak/>. Hemendik aurrera liburu hau aipatu behar dugun bakoitzean S.T.V laburdura erabiliko dugu.

dagokionez ezin dugu ahaztu bizkaitar pentsalariaren planteamenduetan arrazoizkoaren eta arrazoizkotik haratago dagoenaren arteko joan etorria oso presente egongo dela.

Bere bizitzaren etapa ezberdinak aztertuz gero, fenomeno hau agerikoa suertatzen da. Madrilako egonaldian Europatik zetozen korrante arrazionalisten eragina nabarituko zaio Unamunori (haurtzaroko fedea galdu izanaren arrazoietakoa bat izango dena alegia) Honi buruz M. Pizán-ek bere *El joven Unamuno, influencia hegeliana y marxista*³¹⁰ lanean hitz egiten digu. Bertan M. Pizán-ek Unamunorengan ematen den filosofia logiko baten existentziari buruz hitz egiten digu eta, honekin batera, Unamunorengan ateismoaren zantzuak ere aurki daitezkeela esaten.

Baina 1897 urtean biziko duen krisiaren baitan gaztaroan bizitako arrazionalitate honen aurka altxatuko da bizkaitar pentsalaria eta irrazionalismoa, fideismoa eta boluntarismoa bezalako korronteak besarkatuko ditu (guzti hau bere *Diario Intimo* lanean oso ongi islatzen da). Hala ere, ikusi dugun moduan, bi jarreraren arteko joan etorri hau beranduago iraunkorragoa izango den portaeran bilakatuko da. Ondorioz, esan dezakegu, egoera honen aurrean Unamunok hartuko duen posizioa dialektikoa izango dela, baina, modu berezian ulertuta. Izan ere, unamuniar dialektikan, Kierkegaardengan gertatzen den bezala, sintesiak ez du lekurik izango.

Unamunok kontutan hartuko duen beste pentsalari bat Spinoza izango da. Spinozaren “conatus”-aren kontzeptua berea egingo du Unamunok, bereziki, hilezkortasunaren arazoari egokitzerako orduan.

Kant ere garrantzizkoa izango da Unamunoren pentsamendua ulertzerako orduan, berak aitortua baita Kanten lanak irakurri izana (ikusi besterik ez dago Unamunok bere lanetan egin izan dituen aipamenak).

Erromantizismoaren eragitea ere islatzen zaigu bilbotarraren lanetan. F. Meyer-en aburuz³¹¹, Kierkegaard irakurri aurretik *Bizitzaren sentimentu tragikoan* erromantikoen eragina nabaria da, batez ere, Senancour, Quental eta Leopardi bezalako pentsalarienak.

³¹⁰ Pizán, Manuel. *El joven Unamuno, influencia hegeliana y marxista*/ Editorial Ayuso, Madrid: 1970 .

³¹¹ Meyer, Francois. *La ontología de Miguel de Unamuno*/ Madrid, Gredos, 1962.

Eboluzionismoaren aztarnak ere gailentzen dira Unamunorengan. Unamunok Spencer-en lanak oso ongi ezagutzen zituen (Spenceren lanak itzuli zituen) eta Darwini buruzko aipamenak ere asko dira bere lanetan. Baina argi utzi behar da autore hauek bere aurreneko etapako irakurgaiak izango direla.

Ikusi dugun bezala, Eboluzionismoarekin batera Krausismoaren eragina ere nabariko zaio Madrilgo egonaldian izan zuen pentsamenduan. Bere izaera indibidualista eta erlijiosoak kontutan izanik, Unamunok Krausen pentsamenduaren baitan azpimarratzen duena zera izango da: krausismoaren oinarritzko elementua laizismoa izatea. Hau da, Jainko antidogmatiko baten planteamendua posible izatea. *En torno al casticismo* lanean nabari izango da mugimendu honenganako begikotasuna eta orobat Giner de los Ríos-enganako eta J.Costa-renganako miresmena.

Beste kasu batzuetan, aitzitik, bilbotar pentsalariaren baitan suma daitezken sustrai protestanteen presentziaz hitz egin da. Puntu honi dagokionez, ordea, adituak ez dira bat etorriko. Batzuen ustez, ikuspegi erlijiosoari dagokionez tradizio katolikoaren baitan kokatua izango da Unamunoren pentsamendua. Beste batzuen arabera, ordea, protestantismoagandik gertuago egongo da (edozein kasutan, jarrera oso heterodoxoa izango du Unamunok).

Eta bukatzeko, Kierkegaarden eraginaz hitz egin beharrean aurkitzen gara. Kierkegaardenganako interesa oso handia izango da Unamunorengan (Kierkegaarden obrak jatorritzko hizkuntzan irakurtzeko nahiak daniera ikastera bultzatuko du Unamuno). “Anai Kierkegaardi” (Unamunok horrela deitzen zion Kierkegaardi) egiten dizkion aipamenak etengabeak dira bere lanetan, bereziki, *Del sentimiento trágico de la vida-n* eta *La agonía del cristianismo-n*. Gai honen inguruan ere esanguratsua da *Ibsen y Kierkegaard* izenburupean 1907an argitara eman zuen artikulua. Artikulu honetan bi autore hauen izaera erlijiosoari buruz arituko da Unamuno. Izan ere, horixe izango da bere izaera bitalarekin batera nabarmenduko duen Kierkegaarden aspektu nagusia. Hau da, bere erlijiosotasuna.

J. A. Collado-k bere *Kierkegaard y Unamuno* lanean bi autore hauen arteko konparaketa egiten digu. Collado-ren arabera, ordea, Kierkegaarden eragina baino, bien arteko paralelismoaz hitz egin beharrean aurkitzen gara, zeren Unamunok Kierkegaard ezagutu zuenean jada (1901 urtean) bere pentsamenduaren aspektu garrantzitsuenak garatuak izango ditu.

Antzekotasun handiak egongo dira bi pentsalari hauen artean, baina ezberdintasunak ere aurki ditzakegu. Hona zer esaten digun J. A. Colladok honi buruz:

El concepto de angustia es distinto y peculiar en ambos. Igualmente la función del conocimiento en el circuito de la existencia. La inmortalidad, tema central en Unamuno, es irrelevante en Kierkegaard. La concepción de Dios es en ambos diametralmente opuesta. Común es el planteamiento general del problema existencial humano y el de la autoverificación en la dialéctica de infinitud y finitud, eternidad y temporalidad. Ambos igualmente propugnan la autenticidad como substancia de la verdad. Este es el marco en que odría hablarse de influencia de Kierkegaard en el pensamiento de Unamuno³¹²

4. irudia: Unamunok izan dituen eraginaren taula

- 1) Ikuspuntu zientifikoari dagokionez, krausismoa, Spencer, Darwin eta Marx. Unamunok etapa positibista bizi izan zueneko (1884-1897).
- 2) Literaturaren alorrean aldiz, besteak beste, Cervantes, Carlyle, Senancour, Quental, Leopardi, Ibsen eta Tolstoi izan zituen gustuko.
- 3) Ikuspegi teologikoari dagokionez, Schleiermacher, Harnack eta Ritschl (batez ere, 1897an bizi izan zuen krisia eta gero)
- 4) Filosofiaren eremuan bestalde, San Agustin, Pascal, Spinoza, Kant, Hegel, Kierkegaard, Schopenhauer, Nietzsche eta W. James. Hala eta guztiz ere, bere anai agoniko moduan, Pascal eta Kierkegaard aurkeztuko ditu.

³¹² Collado, J. A. *Kierkegaard y Unamuno. La existencia religiosa*/ Madrid, Gredos, 1962, sarrera, 15-16 orr.

4.2. FILOSOFIAREN ARAZOA UNAMUNORENGAN

Asistematismoa izango da Unamunoren pentsamenduaren ezaugarri nagusienetakoa bat. Asistematismo hau, bestalde, jakituna izango da, nahita bilatutakoa. Hau da, garaiko sistema arrazionalisten zurruntasunaren aurka eraikia. Baina tradizionalki, filosofiaz hitz egiten denean, sistema filosofikoa datorkigu burura, hain zuzen ere, “sistematizazioa” filosofiaren ezaugarri esentziala izango balitz bezala. Gure Unamuno, hortaz, definizio hau kontutan hartzen badugu, ez da filosofoa izango.

Kasu batzuetan, ordea, filosofiaz hitz egiten denean dogmatismoaren kutsu batzuk ere nabaritu izan dira. Hauen artea arrazionalismoari loturik azaleratzen den dogmatismoa dugu. Arrazoiarenganako segurtasun osoaren gainean eraikia izan dena alegia. Dogmatismoaren beste aspektuetako bat printzipioak inongo kritika pertsonalik egin gabe onartzea izango da. Unamunoren jarrera bestelakoa izango da ordea. Izan ere, Unamuno dogmatismo ororen aurka altxatu zen (batez ere, aipatu berri ditugunen aurka). Lehen tokian, dogmatismo arrazionalistaren aurka zutituko da, zeren bere ustez arrazoa ez da gauza bere pentsamenduaren ardatza den “bizitza” azaltzeko. Bigarren tokian, aldiz, ez du inongo autoritateren dogmarik onartuko, bere izaera kritiko eta indibidualistak ez baitu kanpotik emaniko ezarpenik ontzat hartuko.

Unamunoren pentsamenduaren beste ezaugarrietako bat, aitzitik, sakabanatzea izango da. Gaiak modu sakabanatuan argitara ematen ditu bilbotar pentsalariak. Hau da, autoreak nahi duenean lantzen ari den materia baztertu egingo du, berdin zaio diskurtso edo testu baten isuritzen ari den azterketa osatua egon ala ez. (hau ere nahita izango da). Azpimarragarria da, baita ere, Unamunoren gaiak modu sakabanatuan argitara emateaz gain, behin eta berriz errepikatuak azaleratzea.

Baina, guzti honen erdian, puntu honetara iritsita, benetan interesatzen zaiguna zera da; Unamunoren pentsamenduaren izaera “asistematikoa”, “antidogmatikoa”, “sakabanatua” eta “errepikakorra” bere filosofiaren eremuan ere ematen al da?

Denbora luzean “sistemaren” nozioa filosofiarekiko bereizezina bezala azaldua izan da. Filosofiaren historiaren une jakin batean, ordea, XIX .eta XX. mendeko pentsalariekin alegia, filosofatzeko modu “ez sistematikoek” (“aforismoarengandik” gertuago

daudenak) bere presentzia izango dute. Pentsa daiteken bezala planteamendu honek bere aurkariak ere izan zituen. Hau da, pentsatzeko modu hau ez zuten “filosofikotzat” kontsideratzen. Baina jarrera honen aurrean, arestian azaldu dugun moduan, beste pentsalari askok, berea egingo dute asistematzazioaren eta aforismoaren mintzaira. Gauzak honela, beraien pentsamenduaren ezaugarri nagusienetakoan bilakatuko da pentsatzeko modu hau. Hauen artean, Kierkegaard, Nietzsche edo Marcel bezalako pentsalari “ez oso sistematikoak” nabarmenduko dira, hain zuzen ere, gaur egun guztiok filosofo bezala definitzen ditugunak. Dogmatismoari dagokionez, bestalde, gaur egungo filosofoak dogmatismoa gero eta gutxiago defendatzeko prest agertzen dira (are gehiago, erlatibismotik edota eszeptizismotik gertuago aurkituko ditugu, bide irekiagoak jorratzen).

Unamunoren pentsamenduaren beste ezaugarrietako bat, bestenaz, bere filosofia literaturagandik bereizezintasunean errotzen dela izango da. Pentsa daiteke, hasiera batean, genero guztiak lantzen dituen idazle batek, arazo filosofikoak lantzerako orduan entsegua hartuko duela adierazpide nagusizat (printzipioz, modu honetako azalpenetarako genero egokiena izango dena alegia). Unamunok, ordea, beste bide batzuk jorratuko ditu, bere gai filosofikoak eleberrigintzan, antzerkian, poesian, entseguan, artikuluetan eta gutunerian landuko baititu.

Julián Marías honela mintzo da eleberrigintzaren eta filosofiaren arteko hartu emanaz.³¹³

En la primera etapa, habría una manifestación de una necesidad sentida, incluso enunciada, de un nuevo método de conocimiento, que no tendría aún sus fundamentos en una filosofía poseída actualmente. En una segunda etapa, la novela sería ya un método autónomo de conocimiento, un sustituto de la filosofía, considerada, hasta entonces, como incapaz de aprender la vida y la muerte del hombre. En esta segunda etapa, Unamuno opondría la imaginación, como método de aprehensión de la realidad en el devenir, a la razón, capaz únicamente de acceder a lo estático y fijado. En una tercera etapa, la novela pasaría a ser un complemento o instrumento auxiliar de la filosofía y, en cierto modo, un método filosófico.

³¹³ Marías, Julián. *Miguel de Unamuno*/ Madrid: Espasa-Calpe S.A., 1943.

Eleberriaren ikuspegi honek gainera giza bizitzaren intuizio bizia eskaintzen digu, eleberria gogoeta metafisikoen abiagunea izatea ahalbideratuz. Ikus dezagun zer dioen Mariás-ek honi buruz:

Es un primer paso [eleberriari buruz ari da] para elevarse a un analítica existencial o a un estudio metafísico de la vida humana y de los problemas que afectan al ser mismo de la persona. Representa un estadio previo, en que se puede tomar un primer contacto con el objeto de la meditación filosófica. Un contacto en que éste se muestra en la penitencia de su riqueza y plasticidad, en su auténtico ser temporal, en situación, por tanto, de servir de base y apoyo a la reflexión fenomenológica.³¹⁴

Horrela, bada, bukatzeko esan dezakegu, gaur egun, Unamunoren izaera filosofikoari buruzko zalantzak bazterrean geratu direla. Unamunoren obrak, hortaz, filosofikoak dira. Ez dira “sistematikoak”, ez eta “dogmatikoak”, baina, neurri batean sistemagarriak direla esan ohi da. Bere lanen baitan, modu inplizituan, bederen, badaude zenbait elementu “ontologia bat” garatzeko abiapuntuak izan daitezkeenak. Unamunorengan, hortaz, bada munduaren eta gizakiaren ikuskera bat, batez ere, antropologia filosofikoaren ikuspegitik azalduak izango direnak.

Unamunoren baitan dagoen filosofia, bada, arestian ikusi dugun moduan, garai hartan indarrean zeuden intelektualismoaren eta zientifistaren aurka altxatuko da, eta irrazionalismoaren eta bitalisten aldeko jarrerekin bat egingo du. Eta beranduago indarrean egongo den existenzialismoaren baitan emango den bezala, bere pentsamendua, batik bat, “antropologikoa” izango da. Hau da, gizakiaren patuaren arazoan zentratu eta heriotzaren gaia ardatz izango ditu.

³¹⁴ Ibid. , 77 or.

4.3. UNAMUNOREN IKUSPEGI ANTROPOLOGIKOA.

4.3.1. Unamunoren ikuspegi antropologikoa.

Unamunoren antropologiaren ikerketaren hasieran deigarri egiten dena zera da: bizkaitar pentsalariak hezur-haragizko gizabanakoari erreferentzia egiten diola da. Hau da, jai, sufritu eta batez ere hil egingo den gizabanakoa izango da bere antropologiaren protagonista. “El hombre de carne y hueso, el que nace, sufre y muere –sobre todo muere-, el que come y bebe y juega y duerme y piensa y quiere, el hombre que se ve y a quien se oye, el hermano, el verdadero hermano.”³¹⁵ Honetaz gain, testuinguru honek bultzatuta, Unamunok bere buruari honako galdera hauek egiten dizkio: Nondik dator?, Nor naiz?, Norantz doan? Eta, guztien gainera, zergatik ez dut hiltzerik nahi? galdekizuna izango da indar handiena izango duena. Horrenbestez, gizabanakoaren iraunkortasuna izango da aztergai nagusia Unamunorengan eta, orokorrean, heriotza izango da galdera hauek egitera bultzatu duen elementua.

4.3.2. Hezur-haragizko gizakia.

Oro har, Unamunoren “metodo-filosofikoa” lantze kontzeptualak egin beharrean, giza errealitatea modu zuzenean azaltzea izango da. Bizi hala erakutsiko digu gizaki konkretuaren existentzia zertan datzan. Ondorioz, hezur-haragizko gizakiaren barne gatazkak, barne borrokak, larritasunak, desirak eta poztasunak, hots, izate barnekoienak eta sakonenak, bilbotar pentsalariarengan funtsezkoak izango dira. Eta betebeharrak haureraren aurrera eramateko orduan, Unamunok eleberria edota obra dramatikoak baino gauza hoberik ez ditu aurkituko. Ferrater Mora-ren iritziz, Unamunoren “gizakiaren” irudiak, ideia nahiz sentimendu bezala azaleratua izango denak, saiogintzan baino gehiago eleberrian aurkituko du espresio bide egokiena (baina honek ez du esanahi gainontzeko idazkietan agertzen diren material antropologikoei ez zaienik arreta jarri behar).

Unamuniar pertsonaiek, kontakizunek aurrera egin bezain pronto, beraien existentzia garatzen joango dira, gizakiaren aspektu ezberdinak argitara emanaz. Unamunoren

³¹⁵ S.T.V., I.go Kap., 275 or.

xedea, hortaz, gure begien aurrean benetako bizitza bistaratzea izango da, hots, hezur-haragizko existentzia azaleratzea.³¹⁶

4.3.3. Unamuniar antropologia: *hezur-haragizko* gizabanakoaren eta gizakiaren “ideia abstraktuaren” arteko talka.

Unamunoren gizakia, unamuniar antropologian sumatu dugun moduan, konkretua da. Eta *Del sentimiento trágico de la vida (Bizitzaren sentimendu tragikoaz)* lanean ikusten dugun moduan gainera, Unamuno gai honen inguruan oso esplizitua azalduko da:

“Homo sum; nihil humani a me alienum puto” (de su Keautontimorunos), afirma Unamuno: “Ni lo humano ni la humanidad, ni el adjetivo simple ni el adjetivo sustantivado, sino el sustantivo concreto: el hombre. El hombre de carne y hueso. El que nace, sufre y muere- sobre todo muere-; el que come y bebe y juega y duerme y piensa y quiere, el hombre que se ve y a quien se oye, el hermano, el verdadero hermano”³¹⁷

Unamunori, horrenbestez, ez zaio gizakiaren abstrakzioa, ez eta berarengan aurki daitezken kontzepzio teorikoak gustatuko:

Porque hay otra cosa que llama también hombre, y es el sujeto de no pocas divagaciones más o menos científicas. Y es el bípedo implume de la leyenda, el ζωου πολιτιχόν de Aristóteles, el contratante social de Rousseau, el homo economicus de la manchesterianos, el homo sapiens de Linneo, o, si se quiere, el mamífero vertical. Un hombre que no es de aquí o de allí, ni de esta época o de la otra; que no tiene ni sexo ni patria, una idea, en fin. Es decir un no hombre.³¹⁸

Eta, ez hori bakarrik, filosofoa zer den azaltzerako orduan ere antzeko azalpenak erabiliko ditu:

Si un filósofo no es un hombre, es todo menos un filósofo; es, sobre todo, un pedante, es decir, un remedo de hombre. El cultivo de una ciencias cualquiera, de la química, de la física, de la geometría, de la filología, puede ser, y aun esto muy restringidamente y dentro de muy estrechos límites, obra de especialización diferenciada; pero la filosofía, como porsía, o es obra integración, de concinación, o no es sino filosofaría, erudición pseudo-filosófica.³¹⁹

³¹⁶ Ezaugarri hau Blondel-engan ere emango da Alain Guy-k bere “la philosophie du concret chez Maurice Blondel et Unamuno” hitzaldian aditzera emango digun moduan.

Guy, Alain. *La philosophie du concret chez Maurice Blondel et Miguel de Unamuno*. Giornale di Metafisica, 19 (1964): 732-752. Hurrengo loturetan, hitzaldiaren harira Alain Guy- ren eta Michele Federico Sciacca-ren arteko gutuneria azaltzen dira.

http://gedos.usal.es/jspui/bitstream/10366/74355/1/AUSA_Combes_A1.pdf Azkenengo aldiz 2015ko irailaren 3an kontsultatua.

http://gedos.usal.es/jspui/bitstream/10366/74263/1/AUSA_Sciacca_M10.pdf Azkenengo aldiz 2015ko irailaren 3an kontsultatua.

³¹⁷ Unamuno, Miguel de. S.T.V., I.go kap., 275 or.

³¹⁸ Idem.

³¹⁹ Ibid., 286 or.

4.3.4. Gizakia, izaki indibiduala eta pertsonala

Unamuniar antropologia osatzen duen gizakia hasiera batean izaki indibiduala eta pertsonala da. Honek ez du esanahi, ordea, Unamunok dimentsio soziala alboratzen duenik. Zalantzarik gabe, gizakiaren dimentsio sozialak ere kezkatzen du bizkaitar pentsalaria (ezaguna da bere inplikazio politikoa eta, ez hori bakarrik, *Del sentimiento trágico de la vida-n* gizakiaren oinarrizko gizartekoitasuna azaleratzen du): “Pero el hombre ni vive solo ni es individuo aislado, sino que es miembro de sociedad, encerrado no poca verdad aquel dicho de que el individuo, como el átomo, es un abstracción.”³²⁰.

Honetaz gain, bilbotar pentsalariaren beste ezaugarrietako bat, bederen, gizakiaren izaera azaldu behar duenean “bere burua” aztergai hartzea duela da. Julián Marías-ek ideia honen harira Unamunok agustindar eredua aintzat hartzen duela esango digu: “Unamuno aceptaría la fórmula agustiniana “mihi quaestio factus sum” como la “más certera y apretada de la filosofía””³²¹ Gizabanako honek, hortaz, bere buruaz galdegiten du. Hau da, bere burua arazo gisa planteatzen du. Nor den galdetzen dio bere buruari, nondik datorren eta, batez ere, nora doan. Eta oinarrizko galdera antropologiko hauetatik, gizabanakoaren dimentsiotik alegia, galdera orokorrak egitera pasako da. Gainontzeko gizakiei buruz galderak egitera alegia.

Horrela, bada, abiapuntua gizaki pertsonala izango da, jomuga den gizakia eta ez bitartekoa³²² (Kanten eragina agerian jartzen da): “!yo, yo, yo, siempre yo!- dira algún lector-; y quién eres tu. Podría aquí contestarle con Obermann, con el enorme hombre Obermann: “¡para el Universo, nada: para mi todo!; pero no, prefiero recordarle una doctrina del hombre Kant, y es la de que debemos considerar a nuestros prójimos, a los demás hombres, no como medios, sino como fines.”³²³ Horrela, bada, Marías-en iritziz Unamuno bere lanetan existentziaren kontzeptuaz mintzatuko da: “le importa, ante todo, quién ha vivido y ahora muere, ansiado perdurar. Por eso su novela descende al estrato último del hombre, y es radicalmente, más que otra cosa, novela personal”³²⁴

³²⁰ Ibid., II. Kap., 294 or.

³²¹ Marías, Julián. *Miguel de Unamuno*, Madrid: Espasa-Calpe S.A, 1943. 188 or.

³²² Gazteleraz, *medio*.

³²³ S.T.V., I.go kap. 283 or.

³²⁴ Marías, Julián. *Miguel de Unamuno*, Madrid: Espasa-Calpe S.A, 1943. 42-67 orr.

4.3.5. Gizakia bere osotasunean

Unamunori, gizabanako konkretuaz gain, gizakia bere osotasunean ere interesatuko zaio. Hau da, bere fazeta guztiekin (nahiz eta kasu askotan irudi baikorrak ez izan eta beraien artean kontrajarriak aurkeztu). Hortaz, unamuniar kontakizunek gizakiaren aspektu ezberdinak nabarmenduko dituzte.

4.3.6. Gizaki banandua

Horretaz gain, Unamunok hezur-haragizko gizakia zatituta azaleratzen denaren erabateko kontzientzia izango du (zatiketa hau lehen azaldu dugun bezala, arrazoizkoaren eta irrazionala denaren artean emango da, hobeto esanda, arrazoizkoaren eta sentimenduaren artean): “El hombre, dicen, es un animal racional (esango digu Unamunok). No sé por qué no se haya dicho que es un animal afectivo o sentimental. Y acaso lo que de lo que de los demás animales le diferencia sea más el sentimiento que no la razón”³²⁵

Eta era berean, nahiz eta gizakiaren bi aspektu hauek, hots, arrazoizkoa eta irrazionalitatea elkar alderatu, ez bata eta ez bestea ez dira gailenduko. Izan ere biak dira gizakiaren osagaiak eta ezin dira baztertuak izan. Horregatik, joera filosofiko gehienek izaten duten akats nagusienetako bat bi instantzietako bat deuseztatzearena izango da (gehienetan irrazionalitateari dagokiona baztertua geratzen da, irrazionalitateak menderatu baitu Unamunoren garaiko filosofia).

Horrela, bada, “kontraesana” gizakiaren baitan dagoen zerbait izango da: “[...] ¿contradicción?, ¡ya lo creo! ¡La de mi corazón, que dice sí, y mi cabeza, que dice no!”³²⁶ Eta benetako arazoa, horrenbetez, zera izango da: ezin dela ez arrazoizkoa, ez eta irrazionalitatea baztertu. Horregatik bat gatoz Ferrater Mora-rekin “sería un error, del cual resulta arduo librarse ante ciertos textos unamunianos particularmente estremecidos, considerar que el pensamiento de nuestro autor está casi enteramente volcado hacia un triunfo de lo irracional sobre la razón. Si tal ocurriera, sería difícil

³²⁵ S.T.V., I.go kap., 276 or.

³²⁶ Ibid., 285 or.

poder hablar con sentido de “tragedia” y de “sentimiento trágico de la vida”³²⁷ esaten digunean. Gainera lehen zehaztu dugun bezala, kasu honetan irrazionalitateaz hitz egin beharrean, arrazoizkoaz haratago dagoenaz solastu beharrean aurkitzen gara. Hau da, fedez. Izan ere, azken finean gizakiaren bizitza muturreko bi instantzien etengabeko borroka izango da (baina ezin dugun inoiz ahaztu muturreko bi instantzia hauek elkarren beharra dutela).

[...]Razón y fe son dos enemigos que no pueden sostenerse el uno sin el otro. Lo irracional pide ser racionalizado, y la razón, sólo puede operar sobre lo irracional. Tienen que apotarse uno en otro y asociarse. Pero asociarse en lucha, ya que la lucha es un modo de asociación”³²⁸ Eta beranduago: Y es que, como digo, si la fe, la vida, puede sostener sino sobre la razón que la haga transmisible- y, ante todo, trasmisible de mí a mí mismo, es decir, refleja y conciente, la razón, a su vez, no puede sostenerse sino sobre fe, sobre vida, siquiera fe en la razón, fe en la que ésta sirve para algo más que para conocer, sirve para vivir. Y, sin embargo, ni la fe es transmisible o racional, ni la razón es vital”³²⁹

Nahiz eta beraien artean “etsaiak” izan, gauza bera gertatuko da borondatearekin eta adimenarekin eta filosofiarekin eta erlijioarekin: “Filosofía y religión son enemigas entre sí, y por ser enemigas se necesitan una a otra. Ni hay la religión sin alguna base filosófica, ni filosofía sin raíces religiosas, cada uno vive de su contraria”³³⁰

4.3.7. Gizaki dialektikoa

Orain arte esandako guztiak gizakiaren dimentsio berri batera garamatza. Gizakiaren izaera dialektikora alegia. Unamunok esango lukeen bezala “agonikora”. Gainontzekoekin eta, bereziki, bere buruarekin borrokan ari den gizabanakoa dugu gizaki agonikoa. Zehatzago esanda, norberaren aspektu batzuekin eta gainontzeko gizakiekin gatazka sutsuan bizi dena (ikusitako bezala, gizakia zatikatua azaltzen baitzaigu eta kontraesan bezala).

4.3.8. “Bizitzaren sentimendu tragikoa”

Barne kontraesanaren oinarrian, hots, gizakiaren eraketa agonikoaren oinarrian, “bizitzaren sentimendu tragikoa” egongo da. Unamunoren filosofiaren eta erlijioaren

³²⁷ Ferrater Mora, José. *Unamuno: Bosquejo de una Filosofía*/ Buenos Aires: Losada, 1943, 60 or.

³²⁸ Unamuno, Miguel de. S.T.V., VI. kap., 364 or.

³²⁹ Ibid., 365-366 orr.

³³⁰ Ibid., 366 or.

abiagune pertsonala izango dena alegia. kasu honetan bizkaitar pentsalariak gure bizitzaren amaieraren problematika modu zuzenean planteatuko digu.

“Bizitzaren sentimendu tragikoak”, beraz, alde batetik, gizakiak bere denborazkotasun izaera mugatuaren eta hauskortasunaren kontzientzia hartzea suposatuko du; eta beste aldetik, bere etorkizuna eta “heriotzaz haratago dagoena” ahalbidetzen duenarekiko ezjakintasuna. Guzti honek, bada, unibertsoaren eta bizitzaren ikuspegi determinatu bat argitara ematen digu.

Baina esan al dezakezu “bizitzaren sentimendu tragikoa” guztiongan ematen de zerbait dela? Unamunok, hezur-haragizko gizakien artean, “bizitzaren sentimendu tragikoaren” ezaugarria duten pentsalari batzuk aipatzen dizkigu: “Ha habido entre los hombres de carne y hueso ejemplares típicos de esos que tienen el sentimiento trágico de la vida. Ahora recuerdo a Marco Aurelio, San Agustín, Pascal, Rousseau, René, Obermann, Thomson, Leopardi, Vigny, Lenau, Kleist, Amiel, Quental, Kierkegaard; hombres cargados de sabiduría más bien que de ciencia”³³¹ Pentsalari hauetaz gain, badaude gizatalde edo “herri tragikoak” ere, beraiengan oinarrizko arazo antropologikoek erabateko presentzia izango dutenak. Hala nola, Unamunoren ikuspegiaren arabera beti ere, lehen tokia Espainia egongo litzateke (beti heriotzaz eta heriotz ondoko bizitzaz kezkatua). Modu berean, portugaldar herria, “existentziaren sentimendu tragikoa” bere baitan oso presente izango duena. Gauza bera gertatuko da judutar eta greziar herriekin ere.

Horrenbestez, “bizitzaren sentimendu tragikoa” ez da giro intelektual jakin baten baitan ematen den ideien multzoa izango, ez eta gizatalde batetik bestera belaunaldiz belaunaldi transmititzen den zerbait. Horren baino sakonagoa da. Gizaki eta herrialde batzuegan errota dagoen zerbait izango da. Hortaz, ikuspegi honen arabera ez da askatasunez hautatzen den zerbait izango, izaeraren baitan dagoen zerbait baino.

Beste kasu batzuetan, aldiz, Unamunok “sentimendu tragikoaz” hitz egiten digunean, hautatu daiteken elementu bat bezala aurkezten digu. Hau da, nahiz eta gizakiaren esentzian dagoen zerbait izan, norberak onartu edo zokoratu dezakeen zerbait izango da

³³¹Unamuno, Miguel de. S. T. V., I. go kap., 288 or.

“bizitzaren sentimendu tragikoa”. Hori dela eta, gizakiak bere behin-behinekotasunaren kontzientzia hartu dezake bere barne tragedia onartzuz. Hau, ordea, ez da beti ematen den zerbait izango; zeren eta beste kasu batzuetan bere begirada beste toki batean jarriko baitu gizabanakoak.

Horrela, bada, puntu honetara iritsita, beste proposamen batzuen aurrean aurkitzen gara: batetik, giza bizitzaren “autentikotasunaren”³³² edo “inautentikotasunaren”³³³ planteamendua; eta bestetik, gizakia “izaki kontziente” gisa definitzearen ideia.

4.3.9. Gizakia “izaki kontziente”.

Unamunorentzat gizakia batez ere izaki kontziente da. Hau da, bere izaeraren kontzientzia izango du.

Y todos los definidores del objetivismo no se fijan, o mejor dicho, no quieren fijarse que al afirmar un hombre su yo, su conciencia personal, afirma al hombre, al hombre concreto y real, afirma el verdadero humanismo – que no es el de las cosas del hombre, sino el del hombre-, y al afirmar al hombre, afirma la conciencia. Por que la única conciencia de que tenemos conciencia es la del hombre.³³⁴

Eta gizaki konkretuak bere izaeraren kontzientzia hartzen duen unean, ez du egun batez ere kontzientzia hau galtzeko desirarik izango, hots, hiltzeari ezetz esango dio (kontzientzia galtzea eta hiltzea gauza bera izango da Unamunorentzat):

Y toda esa trágica batalla del hombre por salvarse, ese inmortal anhelo de inmortalidad que le hizo al hombre Kant dar aquel salto inmortal de que os decía, todo eso no es más que una batalla por la conciencia. Si la conciencia no es, como dos eternidades de tinieblas, entonces no hay nada más que un relámpago entre dos eternidades de nieblas, entonces no hay nada más que un relámpago entre dos eternidades de tinieblas, entonces no hay nada más execrable que la existencia”³³⁵

Horrela, bada, gizakiaren baitan ematen den existentziaren gatazka hau kontzientziaren aldeko borroka gisa irudikatua azaleratuko da. Horregatik, Unamunok hilezkortasun gaia aztertzean norberaren kontzientzia galtzea suposatzen duen iraute kolektibo oro baztertu egingo ditu, berarentzat norberaren kontzientzia galtzea existitzeari ustearen baliokidea izango baita. Ondorioz, gizakiari bizirik irauten segitzea ez dio ezertarako balio, baldi eta bizirik irauten segitzeak kontzientzia indibidualaren desagertzea suposatzen baldin du.

³³² Gazteleraz autenticidad.

³³³ Gazteleraz inautenticidad.

³³⁴ Unamuno, Miguel de. S.T.V., I.go kap., 284 or.

³³⁵ Ibid., 285 or.

4.3.10. Iraute nahia

Giza esentziaren baitan, modu inplizituan beti ere, iraute nahia egongo da. Hau da, “bere kontzientzia” irautearen eta hedatzearen irrika. Giza bizitza, bestaldetik, batasun eta jarraitasun baten jabe agertzen zaigu: “Y lo que determina a un hombre, lo que le hace un hombre, uno y no otro, el que es y no el que no es, es un principio de unidad y un principio de continuidad. Un principio de unidad primero en el espacio, merced al cuerpo, y luego en la acción y el propósito. Cuando andamos, no va un pie hacia delante y el otro hacia atrás: ni cuando miramos, mira un ojo al norte y el otro al sur, como estemos sano.”³³⁶ Honetaz gain, batasun eta jarraitasun baten jabe izateaz gain, bere desira handiena bi elementu hauen betikotasuna izango da: [...] Por que para mí el hacerme otro, rompiendo la unidad y la continuidad de mi vida, es dejar de ser el que soy, es decir, es sencillamente dejar de ser. Y esto no: ¡todo antes que esto!³³⁷

Hala ere, esan dezakegu, beste une batzuetan, norbera beti izateko desiraz gain, “dena” izateko irrika ere argitara ematen duela Unamunok. “Más y más y cada vez más, quiero ser yo, y sin dejar de serlo, ser además los otros, dentrase en la totalidad de las cosas visibles e invisibles” de extenderse “a lo ilimitado del espacio” y prolongarse “a lo inacabable del tiempo”³³⁸ “Guztia” edo “dena” izan nahi honek, iraute desiraren baitan xede kontraesankorrak inplikatzeko dituenak, ez du Unamunoren giza izaeraren ikusmoldeari inolako oztoporik jarriko. Hau da, ez du giza esentziaren galtzea suposatuko. Gatazkaren dialektika hau, aitzitik, “izatearen ikuspegi agoniko” hau, A. Guy-k kontzientziarekin batera sortzen dela esango digu. Iraute nahiak eta gainontzeko guztiekin identifikatu eta bereganatzeko irrikak bultzatuta alegia.³³⁹

³³⁶ Ibid., 280 or.

³³⁷ Ibid., 283 or.

³³⁸ Ibid., III. Kap., 305 or.

³³⁹ Guy, Alain. *Unamuno et la soif d'éternité*. Editorial: Seghers, Paris (1964) 15 or. “Une dialectique du conflit ou encore une vision agonique de l'etre surgit de la sorte, dès l'aube de la conscience personnelle, partagée entre la desire de se maintenir telle qu'elle est et le Souci de s'identifier avec Tous les autres, en n'en possédant à fond” “Una dialectica del conflicto, una visión agónica del ser surge entonces en cuanto nace la conciencia personal, escindiendo entre el deseo de mantenerse tal y como es y la preocupación por identificarse con todos los demás seres, poseyéndolos.

4.3.11. “Behin-behinekotasuna”, “mina” eta “maitasuna”

Gizakiaren baitan iraute desira, hots, espazioan hedatze nahia eta denboran irautearen irrika esentzialak izan arren, desira hauen aurrean bada errealitate bat oztopo bilakatuko dena: gizakiaren mugatze esentziala, finitutasuna eta kontingentzia. Hau da, bere behin-behinekotasuna. Dena den, hau ez da zerbait kaltegarria izango. R Runcini-ren iritziz, arestian azaldu dugun moduan, gizakia izaera horren jakinaren gainean baitago. Kontzientea da, kontzientea bere izaeraz, hots, bere mugatze esentzialaz eta kontzientzi hartze horretan, gizakiak bere balorea pertsona moduan bilatuko du.³⁴⁰ “Kontzientzi hartze” horretara, ordea, Unamunoren arabera beti ere, gizakia minaren bidez iritsiko da:

El dolor es el camino de la conciencia. Y es por él como los seres vivos llegan a tener conciencia de sí. Porque tener conciencia de sí mismo, tener personalidad, es saberse y sentirse distinto de los demás seres, y a sentir esta distinción sólo se llega por el choque, por el dolor más o menos grande, por la sensación del propio límite. La conciencia de sí mismo no es sino la conciencia de la propio límite. La conciencia de sí mismo no es sino la conciencia de la propia limitación. Me siento yo mismo al sentirme que no soy los demás: saber y sentir hasta dónde soy, es saber dónde acabo de ser, y desde dónde no soy³⁴¹

Horrela, bada, gizakiarengan mugatze esentzial bat dago. Hau da, gainontzeko elementuengandik edo gauzetatik bereizten duena. Gizakiaren mugak, ordea, hedadura handiagoa du, askoz ere erradikalagoa da. Izaki infinitua da bai, bere existentzia une batetik bestera amaituko da. Izaki kontingentea da, halaber, existitu ez daitekeen zerbait, txiripaz dagoen zerbait. Hitz batez, Heidegger-ek beranduago esango lukeen moduan, gizakia “heriotzarantz doan izakia” da (Unamunok, ordea, Heidegger-ek ez bezala, begirada heriotzaz haratago jarriko du).

Gizakiaren ezaugarri esentzial hauek direla medio, gizakiak “ezereza” ferekatzea lortuko du. Eta istant honetan, bere izaeraren “kontzientzia osoa” hartzean, bere buruaz eta gainontzeko gizakiez errukitu eta maitasuna bere baitan sentitzen hasiko da gizabanakoa.

³⁴⁰ Runcini, R. *Realtà e ideale nel pensiero di Unamuno*. In: Cuaderno de la Cátedra Miguel de Unamuno, VII, 1956, 93 or: L'uomo non può e non deve atenderé nulla fuori di sè: ma soltando in se stesso, nella coscienza Della sua precarietà temporale, egli troverà il valore di sè come persona”. Y ese supone que no conoce su ser, que se da cuenta de su limitación esencial. Y es en esa toma de conciencia como el hombre encuentra su propio valor como persona.

³⁴¹ Unamuno, Miguel de. S. T. V., VII. Kap., 387 or.

Creciendo el amor, esta ansia ardorosa de más allá y más adentro, va extendiéndose a todo cuanto ve, lo va compadeciendo todo. Según te adentras en ti mismo y en ti mismo abandonas, vas descubriendo tu propia inanidad, que no eres todo lo que eres, que no eres lo que quisieras ser, que no eres, en fin, más que nada. Y al tocar tu propia nadería, al no sentir tu fondo permanente, al no llegar a tu propia infinitud, ni menos a tu propia eternidad, te compadeces de todo corazón de ti propio y te enciendes en doloroso amor a ti mismo, mandando lo que se llama amor propio y no es sino una especie de delectación sensual de ti mismo, algo como un gozarse a sí misma la carne de tu alma.³⁴²

Hortaz, gizakiak lehenengo tokian, bere buruarekiko maitasuna edo amodio propioa sentituko du; eta gero, sentimendu honetatik abiatuta, gainontzeko gizakienganako errukia eta maitasuna izatera pasako da.

[...] Porque los hombres solo se aman con amor espiritual cuando han sufrido juntos un mismo dolor, cuando araron durante algún tiempo la tierra pedregosa uncidos al mismo yugo de un dolor común. Entonces se conocieron y se sintieron, y se con –sintieron en su común miseria, se compadecieron y se amaron. Porque amar es compadecer, y si a los cuerpos les une el goce, úneles a las almas la pena.³⁴³

Baina ikusiko dugun moduan ez dute gizaki guztiek jarrera hau onartuko. Ez dute jite edo izaera hau bere egingo. Nahiago izango dute arazoa saihestu, ahantzi.

4.3.12. Gizakia, izaki nahigabetua.

Gizakiaren egoera berezi honek, kontrajarriak diren bi instantzien artean eman denak, hots, betiereko existitu nahia eta bere mugatze esentzialari eta heriotzari aurre egitean gauzatzen denak, gizakia “izaki nahigabetuan” bilakatzen du. Bere sakontasunean larritasuna edo angustia sentitzen duen gizakian alegia.

4.3.13. Absolutu-egarria. Gizakiaren eta Jainkoaren arteko elkar menpekotasuna.

Orain arte aipatuko dugun problematikak, oro har, Unamuno transzendentziaren eremura bultzatuko du. Hau da, goi-izaki baten beharra sortuko zaio Unamunori. Horrela, bada, bizkaitar pentsalariak hezur-haragizko gizakiak bizi duen irautearen kezka irtenbide bakar moduan, erlijio-arazoa planteatuko du. Hori dela eta, “gizaki autentikoak” egoera honen baitan sentitzen duen etsipen osoa ekiditeko, goi-izakiarengana begirada zuzendu beharrean aurkituko da. Jarrera honi buruz honako hau

³⁴² Ibid., 385 or.

³⁴³ Ibid., 383-384 orr.

esaten digu Mariás-ek: “es el hombre mismo y su afán de perduración, de inmortalidad el punto de partida de la preocupación religiosa” eta, beranduago, “En Unamuno no es Dios el fundamento inmediato de la religiosidad, sino el hombre mismo; es éste el que nos lleva a postular a Dios.”³⁴⁴

Horrenbestez, unamuniar gizakia edota “gizaki autentikoa” transzendentziara deitua den gizaki moduan ulertua denez gero, gizaki erlijiosoak izango da eta, ondorioz, Unamunoren Jainkoa izakiaren eraketa esentzialaren arabera ulertua izango da, hots, bere iraute irritsaren arabera eraikia.

Erligioaren oinarrian, beraz, Unamunoren arabera beti ere, hilezkortasun nahia egongo da:

La fe en la resurrección, es decir, en la inmortalidad del Cristo, que es el núcleo, como fue la semilla, del cristianismo, ha sido para los cristianos, habiendo sabido o no éstos, el sostén de la fe en su propia inmortalidad, manantial de la vida íntima del espíritu. Y así oudo decir Atanasio que Cristo había deificado a los hombres (Θεοποιεῖν), que los había hecho dioses. Perdida esa fe, toda religión, y en especial toda religión cristiana, se derrumba, quedando en su lugar una filosofía o una estética de la religión, cuando no una institución de enervadora pedagogía social. No puede matarse, sin matar las raíces de la verdadera vida con ella, el vivificante manantial de la supremas inquietudes del espíritu, la sed del más allá. “Si la religión no se funda en el íntimo sentimiento de la propia sustancialidad y de la perpetuación de la propia sustancia, entonces no es tal religión. Será una filosofía de una religión, pero religión, no. La fe en Dios arranca de la fe en nuestra propia existencia sustancial”³⁴⁵

Eta Jainko hau, “hilezkortasunaren bermatzailea” dena, unibertsoari xedea eman diezaiokeen bakarra izango da. Hau da, “ezerezetik” libratu gaitzakeen bakarra : “[...] el sentimiento de lo divino nos hace desear y creer que todo es animado, que la conciencia, en mayor o menor grado, se extiende a todo. Queremos no solo salvarnos, sino salvar al mundo de la nada. Y para esto Dios. Tal es su finalidad sentida.”³⁴⁶

Eta Jainko hilezkortugilearengana³⁴⁷ ez da arrazoiaren bidez iristen, baizik arrazoizko bideetatik haratago dauden harbideetatik. Hau da, sentimenduaren, irudimenaren,

³⁴⁴ Mariás, Julián. *Miguel de Unamuno*, Madrid: Espasa-Calpe S.A, 1943, 146 or.

³⁴⁵ Unamuno, Miguel de. *¡plenitud de plenitudes y todo plenitud!*. in *Obras Completas*, VIII. liburukia, 668-669 orr.

³⁴⁶ Unamuno, Miguel de. S.T.V., VIII.kap., 421 or.

³⁴⁷ Gazteleraz, *inmortalizador*.

bihotzaren, angustia bitalaren, borondatearen... eskutik. Izan ere, Jainkoaren existentziaren arazoa arrazoiaren bidez ezin da ebatzi.

Gai honen harira, G. Fraile-k honako azalpenak egiten dizkigu: "para llegar a Dios tenemos que partir de otra base, no racional, sino biótica y sentimental, de nuestra necesidad, nuestra hambre, nuestra ansia, nuestra exigencia personal de que haya Dios. Necesitamos a Dios, luego tiene que existir. Tiene que existir Él para "existirnos" a nosotros."³⁴⁸ Eta Unamunok esango lukeen moduan, ez da arrazoizko premia Jainkoarengan sinestra bultzatzen gaituena, larritasuna edo agustia bitala baino. Jainkosea alegia. "[...]Pero al ir hundiéndome en el escepticismo racional de una parte y en la desesperación sentimental de otra, se me encendió el hambre de Dios, y el ahogo de espíritu me hizo sentir con su falta, su realidad. Y quise que haya Dios, que exista Dios. Y Dios no existe, sino que más bien-sobre-existe, y está sustentando nuestra existencia, existiéndonos."³⁴⁹ Hortaz, Jainkoarengana maitasunaren eta sufrimenduaren bidez iristen da, baina, batez ere, borondatearen bidez. Azken finean, Jainkoarengan sinestea, jainkoa existitzen denaren desira baita. Ondorioz, ideia honek gizakiaren eta Jainkoaren arteko elkarmenpekotasunaren noziora garamatza.

Hori dela eta, Unamunorentzat gizakia Scheiermacher-en ideiekin bat eginez, menpeko izakia" izango da: "La doctrina de Scheiermacher, que pone el origen, o más bien la esencia del sentimiento religioso, en el inmediato y sencillo sentimiento de dependencia, parece ser la explicación más profunda y exacta"³⁵⁰ Menpekotasun izaera hau, ordea, neurri batean hilezkortasunaren arazoarekin batera planteatzen da. Halaber, Unamunok salbazioaz hitz egiten digunean ez du zerutar dohatasuna planteatzen, baizik "ezerezaren" aurrean "salbazioa". Hau da, heriotza eta gero ezereztearen salbazioa. G. Fraile-k baieztatzen digun moduan, gizabanakoak bere baitan bizi duen mugatze espazio-tenporalak bere existentziaren ziurtasun falta agerian jartzen du. Hemendik isuriko da, beraz, Jainkoarenganako menpekotasuna. Jainkotasunaren sentimendu erlijioso izango dena alegia: "el hombre individual experimenta en el fondo de su yo

³⁴⁸ Fraile, G. *Historia de la filosofía española. Desde la Ilustración/* Madrid: La Ed. Católica (B.A.C.), 1975, 215 or.

³⁴⁹ Unamuno, Miguel de. S.T.V., VIII. Kap., 409-410 orr.

³⁵⁰ Ibid., 400 or.

su limitación espacial y temporal, la inseguridad de su existencia. De ahí brota el sentimiento de dependencia, es decir, el sentimiento religioso de divinidad.”³⁵¹

Baina Jainkoarengan ere emango da gizakiarenganako menpekotasuna. Kasu batzuetan Jainkoa “giza borondatearen” fruitua dela aditzera emango digu Unamunok.

Dios y el hombre, y el hombre se hace Dios; Dios se hizo a sí mismo, Deus ipse se fecit, dijo Lactancio (Divinarum institutionum, II, 8), y se puede decir que se está haciendo, y en el hombre y por el hombre. Y si cada cual de nosotros en el empuje de su amor, en su hambre de divinidad, se imagina a Dios a su medida, y a su medida se hace Dios para él. Hay Dios colectivo, social, humano, resultante de la imaginaciones todas humanas que le imaginan. Porque Dios es y se revela en la colectividad. Y es Dios la más rica y más personal concepción humana³⁵²

Behin Jainkoaren menpekotasuna gizakiaren aurrean argitan jarritan, Unamunok, Jainkoaren existentzia gure kontzientziatik edo gogamenetik at dagoen ala ez planteatuko du. Horrela izango ez balitz, hots, gure gogamenetik kanpo Jainkoaren existentzia emango ez balitz, gure hilezkortasunaren izaeraren bermea kolokan jarriko litzateke. “Pero este Dios que nos salva, este Dios personal, Conciencia del Universo que envuelve y sostiene nuestras conciencias, este Dios que da finalidad humana a la creación toda, ¿existe? ¿Tenemos pruebas de su existencia?”³⁵³ Hona hemen irtenbide latza duen galdera, arrazoiaren bidez erantzunik ez duena, eta arrazoizkotasunaz haratago planteamenduekin (irrazionalitatearekin) erantzun baten posibilitatea bermatzen ez diguna. “Jainko-gose” edo “irrikatik” itxaropena sortu daiteke, itxaropenetik fedea, eta fedetik karitatea. Fedeak eta itxaropenak, ordea, ez dute erabateko ziurtasuna inplikatzeko. Fedea egon daiteke eta, era berean, hilezkortasungilea den Jainkoarekiko konfiantza pertsonala posible da, baina, beti egongo da presente gizakiarengan Jainkoaren existentziaren zalantza. Ezbaikotasun horren fruitua izango da beraz, agoniaren etengabeko birsortzea.

³⁵¹ Fraile, G. *Historia de la filosofía española. Desde la Ilustración/* Madrid: La Ed. Católica (B.A.C.), 1975 215 or.

³⁵² Unamuno, Miguel. S.T.V., VIII.kap., 410 or. Gai honen ingurua ere ikusi, G. Fraile-ren *El hombre, creador de Dios*, in op. Cit. 214-218 orr.

³⁵³ *Ibid.*, 420 or.

4.4. BIZITZAREN PROBLEMATIKA

4.4.1. Bizitzaren gaia Unamunoren lanetan.

Heriotzaren gaia argitzerako orduan, lehendabizi, bizitza zer den ulertu behar dugu. Izan ere, heriotzak aurretik bizirik dagoen zerbaiten heriotza suposatzen du. Horrela, bada, joera bitalista duten eta bizitzaren teoria garatua eskaintzen dizkiguten pentsalarien aurrean (James, Dilthey edo Bergson), Unamunok bizitza bere garapenean azalduko digu. Hau da, bere egitean, bere irautean.

Horretarako, tresna egokiena pertsonaiak sortzea izango da. Eleberrietako protagonistek, bestenaz, Unamunoren egintzak izan arren, bere sortzaileak duen bezain besteko “izaera erreala” izango dute. Dramatika eta eleberrigintza izango dira, hortaz, bilbotar pentsalariak bizitza modu zuzenean azaltzeko erabilitiko dituen lantresna maiteenak. Egite kontzeptual handirik egin gabe, giza bizitzaren aspektu ezberdinak modu naturalean argitara emanaz alegia.

Baina horrek ez du esan nahi bizkaitar pentsalariak beste genero batzuk lantzen ez dituenik. Poesian, adibidez, bizitzaz jabetzeko bide moduan metaforak erabiliko ditu³⁵⁴. Metaforak, ordea, ez dira poesiaren eremura bakarrik mugatuko, Unamunoren eleberrigintzan, saioan eta antzerkian ere izugarritzko presentzia izango baitute.

Saiakera batzuetan, aldiz, *Del sentimiento trágico de la vida*-n, *El secreto de la vida*-n eta *Vida de Don Quijote y Sancho*-n, adibidez, bizitzaren arazoaren inguruko teorizazioaren ahalegin apalak nabaritutako dira. Ahalegin bukatu gabeak, loturarik gabeak, baina, orotara, oso iradokitzaileak ere izango direnak. Kasu honetan, hortaz, “logos poetikoak” “logos kontzeptualagoari” tokia eskaintzen diola esan dezakegu, baina inoiz ere modu sistematikoan adierazia.

³⁵⁴ Ikusi Federici, Mario. *La imagen del hombre en la poesía de Unamuno*, Madrid, Fragua, 1974, cap. I, “El hombre y la vida”, 35-36 orr.

4.4.1.1. Bizitzaren lehentasun filosofikoa.

Unamunoren lanekin aurrez aurre jartzen garenean, deigarria egiten zaigun lehenengo gauza heriotzaren gaiarekiko obsesioa da. Lehen irakurketa batean, hortaz, “heriotzaren filosofia” baten aurrean gaudela dirudi. “Meditatio mortis” baten aurrean alegia. Baina modu sakonagoan aztertzen dugunean, ordea, pentsalari bizkaitarrari benetan interesatzen zaiona bizitza dela ohartzen gara. Hortik, S. Serrano Poncela³⁵⁵ bezalako autoreek, Unamunoren “bizitzaren filosofiaz” hitz egitea (bizitzaz orokorrean eta gizabanakoaren bizitzaz bereziki). Gizabanakoarengandik isuriko da, beraz, aipatu berri dugun existitzeko irritsa, betikoz bizitzeko desira, espazioan eta denboran bizitza luzatzeko grina. Spinoza-k “conatus”-a deituko duena alegia ³⁵⁶. Baina bizitzak eragozpen batekin topo egingo du, hots, heriotzarekin. Eta oztopo honek, heriotzak alegia, gizakiari etorkizuneko xede bitalen errealitateenganako dudak sortarazten dizkio. Horregatik, heriotza bilakatzen da Unamunoren pentsamenduaren ardatz. Hala eta guztiz ere, Unamunoren antropologian, Heidegger-en pentsamenduarengan ez bezala, gizakia ez da “heriotzarantz doan izakia” izango. Egia da, Heidegger-en pentsamenduaren baitan planteatzen den modu berean, heriotzaren arazoaz erabateko kontzientzia izango duela Unamunok; baina dimentsio horretan geratu beharrean, hots, heriotzaren dimentsioan geratu beharrean, ahalegin guztiak egingo ditu heriotza transzenditu eta existentziak jarraipen bat izan dezan.

Unamuno, hortaz, bitala dena gogor defendatuko du, baina, zer izango da Unamunorentzat “bizitza”? Argi dago, ez dela bizitza biologikoaz, bizitza psikikoaz, bizitza espiritualaz edota bizitza historikoaz bakarrik arituko. Hasiera batean Unamunoren bizitzaren kontzepzioa zabalagoa izango da, ikuskera osoagoa izango du, eta bitala den oro barneratzen saiatuko da. Benetako ordua iristen denean, ordea, giza bizitzaren ikuspegi tradizionalaren baitan burutuko du bere ikerketa.

Gauzak honela, Aro Modernotik indarrean zegoen bizitzaren ikuspegi mekanizista ere baztertuko du. Ez du onartuko “bizitza” materiaren prozesuarekiko epifenomeno batera murriztea (positibismoak, bitala dena prozesu fisiko-kimikoa zehatz batera murriztu

³⁵⁵ Serrano Poncela, S. *El pensamiento de Unamuno*/ México, Buenos Aires, Fondo de Cultura Económica, 1953, 78-82 orr.

³⁵⁶ Unamunok, Spinoza-aren pentsamendua oso ongi ezagutzen duenak, berea egingo du Spinoza-ren “conatus”-aren ideia.

zuen, berezko izaera ukatuz). Horrela, bada, bi korrante hauen erreakzio gisa, positibismoaren terminoak alderantzikatuko duen bitalismoa argitara emango du bizkaitar pentsalariak. Joera hau, ordea, aurretik aipatu dugun moduan ez da Unamunorengan bakarrik emango. Hor izango ditugu Nietzsche, Bergson eta Dilthey bezalako pentsalariak ere.

4.4.1.2. Barnekotasuna eta kanpokotasuna. “Nire bizitza” eta mundua.

Arestian ikusi dugun moduan, Unamunok bizitzaren izaera ekintzailea, dinamikoa eta mentala agerian jarri nahi duenean, “kontzientzia” terminora jotzen du. “Kontzientziaren” termino hau barne eta kanpo eremuak bereizteko ere erabiltzen ditu. Izan ere, “kontzientzia” hau, kanpo eremuarekin ematen den erlazio dialektikoaren arabera sortzen da. Horrela, bada, Unamunok bi eremu bereiziko ditu: “Hay un ambiente exterior, el mundo de los fenómenos sensibles, que nos envuelve y sustenta, y un ambiente interior, nuestra propia conciencia, el mundo de nuestras ideas, imaginación, deseos y sentimientos.”³⁵⁷ Baieztapen hau egin ondoren, ordea, honako hau esaten digu Unamunok: “Nadie puede decir donde acaba el uno y el otro empieza, nadie trazar línea divisoria, nadie decir hasta qué punto somos nosotros del mundo externo o es éste nuestro.”³⁵⁸ Puntu honi dagokionez argi geratzen zaiguna zera da: gizabanakoa besteengandik bereizten denaren autokontzientzia duenez gero, kanpo eta barne eremuaren arteko bereizketa posiblea egiten da. Hortaz, autoreak esangura duena zera da: bi eremuen arteko erabateko elkarrekintza ematen denez gero, “nire buruaren kontzientzia hartzea” kanpo eremuaren bidez gertatzen da.

Del ambiente exterior se forma el interior por una especie de condensación orgánica, del mundo de los fenómenos externos el de la conciencia. Hay un continuo flujo y reflujo difusivo entre mi conciencia y la naturaleza que me rodea, que es mía también, mi naturaleza; a medida que se naturaliza mi espíritu, saturándose de realidad externa, espiritualizo la naturaleza saturándola de idealidad interna. Yo y el mundo nos hacemos mutuamente. Y este juego de acciones y reacciones mútuas brota en mí la conciencia de mi yo, mi yo antes de llegar a ser limpiamente yo, yo puro. Es la conciencia de mí mismo el núcleo del recíproco juego entre mi mundo exterior y mi mundo interior. Del posesivo sale el personal³⁵⁹

³⁵⁷ Unamuno, Miguel de. *civilización y cultura* In: Obras completas, VIII. liburukia, 381 or.

³⁵⁸ Idem.

³⁵⁹ Idem.

Marías-en iritziz, orain aipatu dugunaren harira, “bizitzaren errealitatea” “niaren” eta munduaren elkarrekintzaren arabera definitzen da. “Nia” giltzapetu eta bakandu beharrean, fenomeno sentsibleen, ideien eta desiren artean aurkitzen da. Horregatik, gainontzeko kanpo elementuekin erlazioan dagoelako, bere burua edo “nia” atzematen du gizabanakoak. Eta bere buruaren jabetza hau ematen denean, hots, “ni” hau ematen denean, azterketaren aztergai nagusian bilakatzen da (eta gainontzeko elementu guztien azterketek hemen izango dute bere abiagunea).

La realidad de la vida aparece definida por la interacción del yo y del mundo; esto es lo que decisivo. El yo, lejos de sarse recluso y aislado, se encuentra a sí mismo entre otras cosas, fenómenos sensibles, ideas, deseos, toda la variedad del ámbito espiritual y natural que le circunda; por eso se aprehende como mi yo, de modo posesivo y sólo después, al alcanzar una plena posesión de sí, se reconoce como único centro, yo y se enfrenta a todo lo demás.³⁶⁰

Azpimarragarria sortatzen da, ordea, mundua eta “niaren” arteko erlazioa elkarrekintza gisa ikustea. Bi errealitateak, hortaz, hots “nia” eta mundua, autonomo bezala ikusiko ditu Unamunok. “Importa mucho sentir en vivo, con honda comprensión, esta comunión entre nuestra conciencia y el mundo y cómo éste es obra nuestra, como nosotros de él. El no comprenderlo bien lleva a concepciones parciales, como es en mucha parte la que se llama concepción materialista de la historia, en que se convierte al hombre en mero juguete de las fuerzas económicas”³⁶¹ Baina kasu honetan, Marías-ek esaten digu moduan mundua eta “nia” autonomoak izan arren, bat egiteko joera izango dute, hobeto esanda, batak bestearen jabe izan nahiko du. Horregatik, Unamunok honako hau esaten digu:

Hay algo que no hemos incorporado y hecho nuestro, todo lo que es en parte nuestro y en parte no lo es. Nuestra vida es un continuado combate entre nuestro y en parte no lo es. Nuestra vida es un continuado combate entre nuestro espíritu, que quiere adueñarse del mundo, hacerlo suyo, hacer él, y el mundo, que quiere apoderarse de nuestro espíritu y hacerle a su vez suyo. Yo, quiero hacer el mundo mio, hacerle yo, y el mundo trata hacerme suyo, de hacerme él; yo lucho por personalizarlo y lucha él por despersonalizarme. Y en este trágico combate, porque sí, el tal combate es trágico, tengo que valerme de mi enemigo para domeñarle y mi enemigo tiene que valerme de mí para domeñarme. Cuando digo, escribo y hago, por medio de él tengo que decirlo, escribirlo y hacerlo; y así al punto me lo despersonaliza y lo hace suyo, y aparezco yo otro que no soy.³⁶²

³⁶⁰ Marías, Julián. *Miguel de Unamuno*, Madrid: Espasa-Calpe S.A, 1943, 179 or.

³⁶¹ Unamuno, Miguel de. *Civilización y cultura*. In: Obras completas, VIII. liburukia, 382 or.

³⁶² Unamuno, Miguel de. *Intelectualidad y espiritualidad*. In: Obras completas, VIII. liburukia, 610-611orr.

Horrela, bada, Unamunorentzat gizabanakoak bere bizitzan burutzen dituen ekintzak ez dira gizabanakoaren produktu soilak izango, “niaren” eta munduaren arteko elkarrekintzaren emaitza moduan ikusiko ditu bizkaitar pentsalariak:

Mis actos –piensa- no son nunca exclusivamente míos: si hablo, he de disponer de un aire que no es mío para que mi voz se produzca; y ni aún mis cuerdas vocales son, en rigor, mías, ni es mío el lenguaje de que he de valerme si quiero que me entiendan, y lo mismo me ocurre si escribo, si pego, si beso, si me bato.³⁶³

Bizitzaren eta kontzientziaren lehentasun ontologikoak, hortaz, ez du esanahi Unamuno “muturreko subjektibitatean” erortzen denik, bizitza bilbotar pentsalariarentzat kontzientziaz eta munduaz osatua egongo baita.

Por esta razón, la vida y la conciencia humana constituyen el centro del universo. La vida, esto es, la conciencia, lo es todo. Para cada conciencia personal se da una identificación necesaria y absoluta entre ella misma y “su” mundo. La conciencia no puede conocer otro mundo que el que le ha sido dado como resultado de su vivir. “Mundo” y “conciencia” son términos correlativos; como no puede haber “mundo” sin conciencia, no hay conciencia, sin “mundo”. Si bien, la conciencia no crea la materia bruta, los agentes etc., que obran en ella, sólo con ella y por ella adquieren la inteligibilidad –sentidad, pervivida, vivida- que los transforma en mundo.³⁶⁴

4.4.1.3. Bizitzaren atzematea metaforaren bidez

Aurretik esan dugun moduan, Unamunoren obra poetikoaren baitan, bizitza atzematerako orduan, metaforaren erabilpena determinatzailea izango da. Kasu honetan, bederen, hiru irudi izango dira bere pentsamenduaren baitan gehien errepikatuko diren metaforak: ametsa, eleberria eta antzerkia.

4.4.1.3.1. Bizitza eta ametsa

Lain Entralgo-k³⁶⁵ azaltzen digun moduan, ametsaren gaia, 98. belaunaldiko ordezkari gehienengan gertatzen zen moduan, Unamunoren lanetan ere oso presente egongo da. Ametsaren gaiak Unamunorengan garrantzi antropologiko nahiz ontologiko handia izango du beraz, errealitatea orokorrean eta gizakia bereziki interpretatzerako orduan esanahi sinboliko berezia izango baitu.

³⁶³ Ibid., 610 or.

³⁶⁴ Johnson, W.D. , *Vida y ser en el pensamiento de Unamuno*. In: Cuaderno de la Cátedra Miguel de Unamuno, VI, 1955, 33-34 orr.

³⁶⁵ Lain Entralgo, Pedro. *La generación del 98*/ Madrid: Espasa Calpe, 1975, (Col. *Austral*)

Puntu hau lantzen jarraitu aurretik, Unamunoren “ametsaren” esanahia zertan datzan zehaztu beharrean aurkitzen gara. Horretarako, Tomasso-ren bost esanahiak kontutan hartuko ditugu (esanahi hauek aldi berean C. Blanco Aguinagaren³⁶⁶ sailkapenaren baita ere emango dira). Goazen ikustera Tomasso-ren sailkapena:

- 1) Il sogno inteso nel senso calderoniano, con la suacoenata variante shakesperiana (Blanco Aguinaga-ren 1.go eta 2.puntuak)
- 2) Il sogno inteso come vita. Variante: il sogno nel senso di fantasia che illunde l'uomo (Blanco Aguinaga-ren 3. puntua)
- 3) El sogno come suprema manifestazione di libertà;
- 4) Il sogno inteso nel signigicato di pace, di pausa dell'agonia;
- 5) Il sogno dell'uomo-fanciullo (Blanco Aguinaga-ren 4. puntua)³⁶⁷

Tomasso-ren bost esanahi hauetatik, batik bat, lehenengo bietan zentratuko dugu gure azterketa: batetik, Shakespeare-en eta Calderón-en ikuspegiei erreferentzia egiten dion puntua; eta bestetik, bigarren puntu, hau da, lehen zentzuarekiko (Calderón-en eta Shakespeare-en ikuspegiarekin) erlazio dialektikoa izango duena.

Unamunok, bere zenbait lanetan, Calderón-en formularekin bat eginez, “Bizitza amets bat da” esango digu:

Gritos de la entrañas del ánimo ha arrancado a los poetas de los tiempos todos esta treenda visión del fluir de las olas de la vida, desde el “sueño de una sombra” σκιάς ὄναρ, de Píndaro, hasta el “la vida es sueño”, de Calderón, y el “estamos hechos de la manera de los sueños” de Shakespeare, sentencia esta última aún más trágica que la del castellano, pues mientras en aquella solo se declara sueño a nuestra vida, mas no a nosotros los soñadores de ella, el inglés nos hace también a nosotros sueño, sueño que sueña³⁶⁸

Horrela, bada, Unamorentzat Shakespeare-en esakune honek, Calderón-en planteamendurekin alderatuz, gure existentziaren oinarriak zulatuko ditu. Hori dela eta, Unamunok Calderón-en proposamena nahiago izango du Shakespeare-na baino. Izan ere, Shakespeare-n planteamenduren arabera giza existentzia ametsen sustantzia izango da eta Calderón-en ikuspegiaren arabera, aldiz, ametsak bizitzari eragiten dio eta ez gure izaera edo existentziari. Hortaz, ez da hain erradikala izango Calderón-ek “ametsaren” inguruan duen planteamendua.

³⁶⁶ Blanco Aguinaga, Carlos. *El Unamuno contemplativo*/ Barcelona : Laia, 1975.

³⁶⁷ Tomasso, V. de, *Il pensiero e l'opera di Miguel de Unamuno*, Casa Editrice Licinio Cappelli, Stabilimento Tipografico di Roma, San Casciano, 1967. Honetaz gain, Unamunok entsegu bat idatzi zuen izenburu honekin. Unamuno, Miguel de. *La vida es sueño. Reflexiones sobre la regeneración de España*. In *Obras completas*, VIII.liburukia.

³⁶⁸ Unamuno, Miguel de. S.T.V., III.kapitulua, 306 or.

Idea honen harira, esan beharra dago, Unamunorengan alderantzizko proposizioa ere ematen dela. Hau da, “*bizitza ametsa da. Ametsa, hortaz, errealitatea da*” esakunea.

[...] Me he despertado soñando,
 Soñe que estaba despierto;
 Soñe que el sueño era vida,
 Soñe que la vida es sueño³⁶⁹

Zer esan nahi dute, ordea, honako baieztapen hauek? Irudi poetiko edo hitz-joko hutsak al dira? Nahiz eta hitz-joko hutsak edo irudi poetikoak izan, beti dago hitz hauen atzean eduki sakonago bat. W.D. Johnson-ekin bat gatoz, ametsaren sinbolismoak Unamunori giza bizitzaren ikuspegi barnekoiagoa modu intuitiboan irudikatzea ahalbidetzen diola esaten digunean³⁷⁰. Jhonson-ek ametsaren eta bizitzaren artean ematen diren analogiak argitara ematen dizkigu, baina analogia ezberdinen artean, gainontzeko analogiak oinarritzen diren analogia bat nabarmenduko du Jhonson-ek: “así como el que sueña, estando dormido, no puede salirse de su sueño para contrastarlo (lotan dagoenean) con la realidad de la vigilia, así tampoco el hombre, mientras vive, puede traspasar los límites de su vivir para comparar la vida con lo que no es vida: la inconciencia, la nada o la muerte. El sueño lo es todo para quien sueña; la vida lo es todo para quien vive.”³⁷¹

Honetaz, gain, ametsak eta bizitzak bat egiten duten bi puntu esentzial egongo dira: ametsa iragankortasunaren eta irudimenaren produktuak izatea.

Puede decirse, por un lado, que ambos ocurren en el tiempo y son profundamente temporales; por otro, que ambos, el sueño y el vivir, son obra de la imaginación, esto es, de la facultad más sustancial, la que no es otra cosa que la vida misma en su dimensión más íntima, la de su máxima libertad: la vida como centro, sede y asiento, manantial y surtidor de sentido y ser. Así como el soñar crea lo soñado, así también puede decirse, en cierto modo, que el vivir crea la vida.³⁷²

Bizitza sortzen den zerbait da, bizitzea ez da jadanik aurrez egina edota berez emana den zerbait izango. Ez da zerbait osatua edo perfektua, egitear dagoen zerbait baino. Eta ametsetan gertatzen den bezala, amesteari usten diogun unean, hots, esnatzen garenean, ametsaren zentzu osoa eta bere behin betiko espresioa gureganatzen dugu (bizitzaren kasuan heriotzarekin gertatzen den bezalaxe). Puntu honetan bat egingo dute Jhonson-ek, M.Federici-k³⁷³ eta Julian Marías-ek³⁷⁴. Jhonson-entzat, bizitzaren eta ametsaren

³⁶⁹ Unamuno, Miguel de. *Teresa olerkiaren “aurkezpena”*. In: Obras completas IV. liburukia, 629 or.

³⁷⁰ Op. Cit. 34 or.

³⁷¹ Idem.

³⁷² Ibid., 36 or.

³⁷³ Op. Cit., 47 or.

³⁷⁴ Ikusi, Miguel de Unamuno, 176 eta ondorengo orr.

artean azken kointzidentzia bat ematen da (kasu honetan bateragarritasun tragikoa izango dena, hots, iragankortasunaren ideia). Ametsa amaitu eta bizitza iragan egiten denarena ideia alegia. Marías-ek ideia honi buruz honako hau esaten digu: “La vida sólo es, sólo se hace, a costa de irse perdiendo, de dejar atrás sus momentos, aquello justamente en que ha ido consistiendo. Frente a las cosas, que son proque resisten al tiempo, porque defienden su persistencia contra él, la vida sólo llega a ser fundándose en la movilidad inestable de lo temporal, siguiendo su fluencia, consumiéndose a la vez que engendrándose, con el tiempo mismo.”³⁷⁵ Iragankortasuna, beraz, Marías-entzat giza bizitzaren osagarria izango da.

Ametsak iragankortasunaren ezaugarria izateaz gain, beti etorkizunerantz egongo da zuzendua eta, bide batez, etorri daitekeena aurrez planteatzea edo irudikatzea ahalbidetzen digu. Alta, gure bizitza esentzialki horrelakoxea da, proiektuak egin eta beteko diren ala ez itxarote bat. Iragana kontutan hartuz gero ere, gure bizitza normalean etorkizunera begira dago. Izango garen horretara alegia. Horregatik, bat gatz Laín Entralgo-rekin honako hau esaten digunean:

Sueña el hombre [...] poniéndose en camino desde lo que es hacia lo que puede ser. Cada uno sueña lo que según su propia capacidad espiritual logra conquistar a la abismal infinitud de ese poder ser. Eta honako hau gehitzen du: un ensueño no es, en consecuencia, la meta placentera con que se resigna nuestra limitación, sino ir fracasando e ir esperando: fracasamos porque somos limitados y queremos no serlo; esperamos porque, siendo limitados, advertimos con nuestros ensueños la posibilidad de trascender un día- después de morir, quizá- la cáscara de nuestra propia limitación.³⁷⁶

Laín-en hitz hauek eta Marías-ek lehen esandakoak kontutan hartzen baditugu, bizitza amets bat denaren formularen ulerpena errazten digute. Bizitzak eta ametsak bere izaeren baitan iragankortasuna dute. Iragankortasun honek, ordea, giza bizitzaren mugatze esentzialari egiten dio erreferentzia. Heidegger-ek oso ongi ikusiko zuen bezala, azken instantzia izango den heriotzari alegia. Baina, bestaldetik, ametsetan gaudenean, preseski, mugatze honen gaintzea posible egiten da, bizitzak iraunkortasun mugagabearen ahaleginean egiten duen moduan.

Horregatik, bizkaitar pentsalariak bizirauteko amets egiten du eta, ez hori bakarrik, giza bizitza osoa ametsean (hilezkortasun-ametsean, hobeto esanda) oinarrituko du. Horrela,

³⁷⁵ Marías, Julián. *Miguel de Unamuno*, Madrid: Espasa-Calpe S.A, 1943, 177 or.

³⁷⁶ La generación del 98, 177 or.

bada, ametsa bizitza edo errealitatea izango da, batik bat, ametsa “bizi” dugulako. Errealitatea, egiten dugun hori edota egitera bultzatzen gaituen hori izango da. Eta “amesteak” aritzera, jokatzera, egitera bultzatzen gaituenez gero, gure bizitzan eragina izango du, kasu batzuetan bizitzaren eragile bilakatuz. Ametsak gure etorkizunaren dimentsioan egitera, aritzera, sortzera bultzatzen gaituela esan dugu eta bizitza ametsa bada, zergatik ukatu behar dugu ametsa bizitza edo errealitatea izatea? “Si la vida es sueño ¿por qué hemos de obstinarnos en negar que los sueños sean vida? Y todo cuanto es vida es verdad. Lo que llamamos realidad, ¿es algo más que una ilusión que nos lleva a obrar y produce obras? El efecto práctico es el único criterio valedero de la verdad de una visión cualquiera”³⁷⁷ Horrela, bada, ametsak ekintzaileak diren neurrian errealitateak izango dira. Etengabeko sorkuntzak diren heinean alegia. Eta ez, kontenplazio hutsak bezala ulertzen direnean.³⁷⁸

4.4.1.3.2. Bizitza eta eleberria.

Unamunok beste kasu batzuetan bizitza eleberri gisa ikusiko du. Bizitza, hortaz, eleberri baten gisakoa izango da. Izan ere, bizitza ere asmatu, sortu eta egin beharreko kontakizun bat da. Horrela, bada, bizitzara gehien gerturatzen den generoa, bere denborazkotasunagatik eta izaera dinamikoagatik, eleberria izango da. Horregatik, Mariás-ek honako hau esaten digu *Miguel de Unamuno* lanean: “cuando Unamuno dice la novela de nuestra vida no escribe una frase tópica, sino que enuncia un carácter formal de la vida humana.”³⁷⁹ Hori dela eta, Unamunok nobelaren bidez bizitzaren oinarritzeko aspektu ezberdinak azaleratuko dizkigu: alde batetik, denborazkotasuna, zeren bizitzaren gertakariak, kontakizunetan bezala, denboraren baitan dute beren izaera; eta beste aldetik, askatasuna egongo da. Bizitza, hortaz, kontakizun literarioan gertatzen de moduan, autosorkuntzan oinarrituko da. Hau da, posibilitate ezberdinak gauzatzean emango da. Izan ere, gizakiak hautua egiteko gaitasuna du (hobeto esanda, existenzialistek esaten duten bezala, hautua egin beharrean aurkituko da). Hortaz, Unamunok bere nobelaren ikuspegiaren zenbaterainokotasunari buruz hitz egiten duenean honako hau esango digu (batez ere, bere irakurleei buruz hitz egiten duenean):

³⁷⁷ Unamuno, Miguel de. *Vida de Don Quijote y Sancho*, 2. atala, XXIV kapituluaren bukaera. In: Obras completas, X. liburukia, 163 or.

³⁷⁸ R Runcini. Op. Cit. 92 or. Così, se la vera realtà è il sogno, come intema coscienza del mondo, tale sogno non sarà contemplazione, ma creazione continua, oltre ogni quadro metafisico o teologico.

³⁷⁹ Mariás, Julián. *Miguel de Unamuno*, Madrid: Espasa-Calpe S.A, 1943, 177 or.

Y así cuando les cuento cómo se hace una novela, o sea, como estoy haciendo la novela de mi vida, mi historia, les llevo a que se vayan haciendo su propia novela, la novela que es la vida de cada uno ellos. Y desgraciados si no tienen novela. Si tu vida, lector, no es una novela, una ficción divina, un ensueño de eternidad, entonces deja estas páginas, no me sigas leyendo³⁸⁰

Zentzu honetan, eta *Cómo se hace una novela*-n oinarrituta, honako hau adierazten digu M. Federici-k: “nuestras vidas son historias que vivimos, novelas que escribimos, leyendas que creamos y que se nos crean. La realidad toda es novela, y todo juntos, viviendo y soñando el sentido del mundo en que existimos, lo creamos como tal mundo.”³⁸¹ A. Zubizarretak, aldiz, honako hau esango digu: “Vida y novela se unen en esta metáfora para expresar la temporalidad y la autocreación del hombre.”³⁸²

Giza bizitza, ordea, bi alderdi ezberdinen arabera aztertua izan daiteke: batetik banakakoaren eremuan; eta bestetik, aspektu soziala edo historikoa kontutan hartuta. Bi alderdiei Unamunok eleberriaren irudia atxikituko die. Gizabanakoaren bizitza, hortaz, bizkaitar pentsalariaren arabera beti ere, eleberri bat izango da. Denborazkotasun autokreazioa alegia.

“Gizadiaren bizitza” nobeletako tragedien antzekoa ikusiko du Unamunok. Zergatik tragikoa? Unamunori, eleberriaren bi ikuspegi hauen izaerari dagokionez (banakoa eta soziala), beldur gehien sortarazten diona beraien amaiera posiblea izango baita. Kasu honetan ere, beti bezala, Unamunoren pentsamenduaren muina den heriotzaren arazoa azaltzen da ostertzean, bizitzaren nobela tragedian bilakatuz.

4.4.1.3.3. Bizitza eta antzerkia.

Bizitza ere antzerkia (tragedia edota komedia) izan daiteke. Hobeto esanda, bi gauzak batera, hots, tragikomedia. Bere izaera tragikoa aipatu berri dugun heriotzaren bidez emango da eta bere dimentsio komikoa, aldiz, bigarren maila baten geratuko da.

³⁸⁰ Unamuno, Miguel de. *Cómo se hace una novela (Comentario)*. In: Obras completas, VII.liburukia, 569 or.

³⁸¹ Op. Cit. 47 or.

³⁸² Zubizarra, A., *Unamuno en su novela*, Madrid, Turus, 1960. 142 or.

Bizitza “antzerkia” denaren gaia (kasu batzuetan, ametsarekin gertatzen zen bezala, alderantzizko gaia ere landuko da. Hau da, antzerkia bizitza moduan ulertuta) ohizko teman bilakatuko da Unamunoren pentsamoldearen baitan.

Idea hau *Diario intimo* lanean argitara ematen da, baina, ñabardura negatiboarekin. Bizitza “iruzur” moduan ulertua izango da, paper bat antzeztearen parekoa. Bizitza zinezkoa ez denaren ideia hau, aitzitik, beste obra batzuen artean, *La Esfinge*-n (1898), *Amor y Pedagogía*-n (1902) eta *Niebla*-n agerian jartzen da, baina, modu berezian, *El hermano Juan, o el mundo es teatro* (1929) lanean.

Gauzak honela, bizitza antzerki moduan ulertzerako orduan bi aspektu bereizi behar dira: bata, positibo moduan definitu dena. Hau da, giza bizitza antzerkiaren ideiarekin identifikatzen denean ematen dena. Eta bestea negatiboa, hots, antzezpena komedia batekin, fartsa bat antzezten dugunarekin, identifikatzen denean.

Lehenari dagokionez, hots, bizitza antzerkia edo antzezpena izatea, Unamunok bizitzaren esentziari lotua dagoela esango digu.

Importante papel atribuye ustes a su hijo en la tragicomedia humana: ¿será el papel que el supremo Director de escena le designe?

Responde Carrascal con un pestañeo.

- Esto es una tragicomedia, amigo Avito. Representamos cada uno nuestro papel, nos tiran de los hilos cuando creemos obrar, no siendo, este obrar más que un accionar; recitamos el papel aprendido allá, en las tinieblas de la inconciencia, en nuestra tenebrosa preexistencia; el Apuntador nos guía; el gran Tramoyista maquina todo esto...³⁸³

Bizitza, hortaz, antzezlan huts bat da eta gerta daiteke, antzeztu behar dugun papera aurrez emana izatea, hautatzeko aukerarik izan gabe. Bizkaitar pentsalariaren iritziz, askatasunari ere antzeko zerbait gertatzen zaio. Hala, askatasuna ere, posibilitate mugatu batzuen baitan gauzatuko da.

Horrenbestez, Unamunok nolabaiteko determinismo eta predestinazio bati egiten dio erreferentzia. Hori dela eta, bizitza ez da askatasun osoz burutzen doan zerbait izango, aurretik emana den zerbait baino.

³⁸³Unamuno, Miguel de. *Amor y Pedagogía*. In *Obras completas* I. liburukia, 343-344 orr.

Egoera honen kontzientzia izan du Don Fulgencio-k:

Yo, Fulgencio Entrambosmares, tengo conciencia del papel de filósofo que el Autor me repartió, de filósofo extravagante a los ojos de los demás cómicos, y procuro desempeñarlo bien. Hay quien cree que repetimos luego la comedia en otro escenario, o que, cómicos de la lengua viajantes por los mundos estelares, representamos la misma lueo en otros planetas, hay también quien opina, y es mi opinión, que desde aquí nos vemos a dormir a casa. Y hay, fíjese bien en esto, Avito, hay quien alguna vez mete su morcilla en la media.³⁸⁴

Beranduago, ordea, honako hau esango digu Fulgencio-k:

-La morcilla, ¡oh, la morcilla! ¡Por la morcilla sobreviviremos los que sobrevivamos! No hay en la vida toda de cada hombre más que un momento, un solo momento de libertad, de verdad libertad, sólo una vez en la vidase es libre de veras, y de ese momento, de ese momentos, ¡ay!, que si va no vuelve, como todos los demás momentos y que como todos ellos se va, de ese nuestro momento metadrámico de esa hora misteriosa depende nuestro destino todo.³⁸⁵

Baina gizakiak testuinguru honen baitan aldaketa batzuk gehitu ditzake, hots, “la morcilla” bezala ezagutzen dena antzerki munduan. Don Fulgencio-k honako hau esaten digu honi buruz: “Pues morcillo se llama, amigo Carrascal, a lo que meten los actores por su cuenta en sus recitados, a lo que añaden a la obra del autor dramático...¡La morcilla!. Hay que espiar su hora, prepararla, vigilarla, y cuando llega la materia, meter nuestra morcilla, más o menos larga, en el recitado, y siga luego la función.”³⁸⁶

Don Fulgencio-rengan, ordea, askatasuneranzko giza bidearen inguruko duda larriak beti egongo dira presente. Bere ustez beti egongo da Jainko antzeko bat gure askatasunaren gaineratik. Horregatik, honako deiadar hau egingo du Fulgencio-k: “Por esa morcilla sobrevivimos, morcilla, ¡ay!, que también nos la sopla al oído el gran Apuntador!”³⁸⁷

Kasu honetan argi geratzen dena zera da: Unamunok bakoitzaren obra pertsonalari egiten diola aipamena, hots, historiaren baitan biziraungo gaituen obra artistiko eta literarioari.

El hermano Juan, o El mundo es teatro lanean, Juan anaiarengan etengabe azaleratuko da gai hau (nahiz eta baieztapen hau antzezlanaren baitatik igorriak izan). Protagonistak

³⁸⁴ Ibid., 344 or.

³⁸⁵ Ibid., 344-3445 orr.

³⁸⁶ Ibid., 345or.

³⁸⁷ Idem.

honela dio: “¡Si, representándome!. En este teatro del mundo, cada cual mece condenado a un papel, y hay que llenarlo so pena de la vida...”³⁸⁸

Ikusten denez, determinismoaren gaia berriro agertzen zaigu hemen. Hortaz, planteamendu honen arabera, egokitu zaigun papera antzeztera Kondenatuak gaude.

Baina zer esan nahi du Unamunok “bizitza antzezlan bat” dela esaten digunean? Metafora honekin, ametsaren eta eleberriaren kasuan esaten genuen moduan, giza bizitza karakterizatzen saiatuko da Unamuno. Bizitza drama bat da, ekintza, denborazko gertakarien segida bat. Unamunok orain, ordea, giza bizitzaren menpeko izaera azpimarratuko du. Hau da, gure ginetik autore bat, egile bat dagoenaren ideia. “Oroitarazle” handi bat alegia. Hala ere, giza menpekotasun hau ez da gai berria izango. Izan ere, Unamunorengan, bizitza amets edo eleberri gisa aurkeztu digunean ere aditzera emango zaigun gaia da (kasu hauetan eleberrigile eta ameslari bat azaleratzen dira); baina, azken irudi honekin, hots, bizitza antzezlan bat denaren irudiarekin, giza menpekotasunaren dimentsio hau gehiago nabarmenduko da.

Orain arte bizitza antzezlan bat denaren metaforaren irakurketa positiboa egin dugu baina lehen aipatu dugun moduan, bada, metafora honen ikuspegi ezkor bat ere, hots, bizitza komedia bat denaren ideia. Gure baitan dagoen “benetako nia” ezkutatzeko antzezten dugunaren ustea alegia.

Unamunok bere bizitzako une kritikoetan eta, bereziki, 1897an bizi izan zuen krisiaren garaian, bere izaeraren eta izaera honen irudikapenaren arazoa modu nabarmenean planteatuko du: Nor naiz “ni”? Nor gara benetan? Bistaratzen dugun hori? Edota bada “ni” sakonago bat? Zergatik nire buruarekiko zintzotasun falta hau? A.R. Fernández y González-en honako hau esango digu egoera honen aurrea: “el peligro de la comedia puede acechar incluso no sólo de cara a los espectadores, sino a la propia intimidad y cara a sí mismo.”³⁸⁹

³⁸⁸ Unamuno, Miguel de. *El hermano Juan, o el mundo es teatro*. In: Obras completas, III. liburukia, 485 or.

³⁸⁹ Fernández y González A.R. *Unamuno en su espejo*/ Valencia: Bello, 1975, 110 or.

Horrela, bada, bizkaitar pentsalariak bizitzaren komediaren arazoa planteatzen duenean zintzotasunari, benekotasunari (Unamunok *autenticidad* deituko duena) egiten dio erreferentzia. Hortaz, hemen aurkezten zaigun dilema “ni autentikoaren” eta gainontzekoen (eta kasu batzuetan gure buruaren) aurrean izan dezakegun “itxurazko niaren” arteko dikotomia izango da.

4.4.1.3.4. Agonia tragikoa.

Gizaki zatituaz, dialektikoaz eta tragikoaz hitz egiten dugunean, bestalde, Unamunorentzat “bizitza” tragedia, etengabeko gatazka eta kontraesana dela ondorioztatzera iristen gara.

Unamunok “agonia” edo borroka toki guztietan ikusiko du. Ez da munduan edo gizakiaren bizitzaren kanpo eremuetan bakarrik emango den zerbait izango, barne munduan ere agonia edo borroka honen presentzia erabatekoa izango baita. Borroka hau, aitzitik, ez da gatazka iragankorra izango, ez eta egoera lasai eta ideal batera edota sintesi egonkor batera iristeko deuseztatu behar den zerbait izango. Alderantziz, borroka hau sustatu egin behar den zerbait izango da bilbotar pentsalariarentzat. Horregatik, honako hau esaten digu Unamunok: “Mira, lector, aunque no te conozco, te quiero tanto que si pudiese tenerte en mis manos te abriría el pecho y en el cogollo del corazón te rasgaría una llaga y te pondría allí vinagre y sal, para que no pudieses descansar nunca y vivieras en perpetua zozobra y anhelo inacabable.”³⁹⁰

Horrela, bada, Unamunorentzat “agonia” giza bizitzan oinarrizko osagarria izango da eta, horregatik, Unamunoren ustez beti ere, filosofiak porrot egiten du kontraesana gainditu nahi duenean, zeren ahaztu egiten da kontraesana esentziala dela giza bizitzaren baitan (gizakiak ideia honen kontzientzia, batez ere, gizakiak arrazoa bizitzaren aringarria ez dela eta ez diola bere hilezkortasun desira sakonari erantzun bat eskaintzen ohartzen denean hartuko du). Kontraesana giza bizitzan esentziala denaren kontzientzia hartzen duenean, hortaz, amildegiaren sakontasunean, etsipen sentimentalekin eta eszeptizismo arrazionalarekin aurrez aurre aurkituzean besarkatuko egingo ditu gizakiak. Lehen esan dugun moduan, ordea, ez da sintesi bat

³⁹⁰ Unamuno, Miguel de. *Vida de Don Quijote y Sancho*. Bigarren atala, LXXII eta LXXIII kapituluak. In *Obras completas*, X. liburukia, 253 or.

gauzatuko, alderantziz, besarkada honetatik gatazka eta “agonia” sortuko da, bestela ez baita bizitzarik egongo. Bakea, hortaz, bizitzaren arerioa izango da Unamunorentzat (eta ororen gainetik bizitza espiritualaren arerioa).

Planteamendu honi dagokionez, honako hau esango digu bilbotar pentsalariak arrazoiari eta sentimenduari buruz: “La paz entre estas dos potencias se hace imposible, y hay que vivir de su guerra. Y hacer de ésta, de la guerra misma, condición de nuestra vida espiritual.”³⁹¹

Horrela, bada, Granjel-en ustez, Unamunok nahiago izango du heriotzaren aurkako gatazka edo borroka, “betiereko bakea” baino (Agian nahiago izango zuen bakea Unamunok, baina, bere barrenean ezin izan zuen gatazka honi uko egin, kontrako bulkada hauek beti egon baitziren presente bere bihotzaren sakontasunean). Gainera, gatazka honen ezinbesteko baldintza denbora izango da, giza iragankortasuna. “Agonia”, hortaz, denboraren baitan bakarrik da posible eta bakea betikotasunaren sustantzia izango da. R.Runcini-k, lehen aipatutako lanean, giza gatazka iraunkor hau iragankortasunaren ikuspegiaren arabera ikertuko du³⁹² eta ikerketa honen arabera, beti ere, Unamunok bere zatiketaren eta barne dialektikaren esperientzia izango du presente. Esperientzia honetatik abiatuta, eta bere irudikoak aztertu ondoren, guztiengan “agoniaren” ezaugarria posible dela errango du Unamunok, gizaki guztiengan eman daiteken osagarri gisa definituz alegia eta, bereziki, hezur-haragizko gizakiengan; zeren eta Unamunoren ustez guztiok ez baikara hezur-haragizko gizakiak izango. Bizkaitar pentsalariarentzat “gizaki itxurazkoak” ere badaude. Beraien barne esentziaren kontzientzia ez dutenak alegia (edota kontzientzia hau izan arren, ezabatzen saiatzen direnak). Hau da, pascaliar terminologia erabiliz “dibertitu” egiten direnak, hots, beraien barne esentziatik banandu eta “ametsetan” murgilduak daudenak.

Hezur-haragizko gizakia, aldiz, nahiz eta tragediak astindu, ez du arrazoi ezaren aurrean ihes egingo. Halaber, ez du alde batera arrazoa utziko ere fedearen besoetan erabat murgiltzeko. Bi joera hauen artean kulunkan biziko da hezur-haragizko gizakia, hots, nahiz eta bakea irrikatu, bere buruarekin borroka bizian arituko da gizaki tragikoa. Puntu honi dagokionez, ordea, bakearen irrikatzearen ideia nola ulertua den azaldu

³⁹¹ Unamuno, S.T.V., VI, kap., 825 or.

³⁹² Op. Cit. 93 or.

beharrean gaude, zeren erabateko bakea ez da posible izango Unamunoren pentsamenduaren baitan, bakeak “dialektika agonikoaren” amaiera suposatzen baitu.

Horrela, bada, kontrajarriak diren elementuen arteko gatazka esentziala izango da eta, bereziki, arrazoizkoaren eta irrazionalitatearen artean. Izan ere, bi elementu hauek giza bizitzaren elementu osagarriak dira.

Unamuno, ordea, gai honen inguruan urrunago joango da. Arrazoia bitalismoaren arerio gisa ikusiko du. Bizitzaren dinamismo esentzialaren aurrean zerbait estatiko moduan alegia. Horregatik arrazoia ukatzeko joera izango du bizkaitar pentsalariak.

Arrazoiaren eta bizitzaren arteko aurkakotasunaren auzian, hortaz, bizitzaren alde jarriko da Unamuno eta, honekin batera, irrazionalitatearen alde (fedea hemen aurkituko litzateke). Unamunoren fedea, beraz, Masini-k³⁹³ esaaten digun moduan, “inmortalità esistenziale”-ren ardatza izango da eta arrazoiaren euskarririk ez du izango.

Borondatea ere bizitzaren alde agertuko da (gizakiaren bizirauteari atxikitzen zaion borondatea, fedearen eta sentimenduaren aliatua izango da). Bizitza, bestalde, ikuspegi honen arabera beti ere, egiarekin bat eginda aurkezten zaigu. “Egi” hau, ordea, ez da “egia arrazionala”, logikoa, izango, azken terminoan arrazoia bizitzaren etsaia baita. “Egi” hau “egi bitala” izango da. Ondorioz, A. Guy-k adierazten digun moduan, bi “egi” mota egongo lirateke Unamunorengan: alde batetik itxurazkoak, “bizitzarik gabeko egiak”; eta beste aldetik, “benetako egiak” edo “egi bitalak” (Unamunok *Verdad y vida* artikuluan deskribatzen dituenak alegia).³⁹⁴ Bizkaitar pentsalariarentzat, hortaz, “egia” bizitzan eta bizitza “egian” egongo lirateke, biak azken finean bereizi ezinak baitira. Hori dela eta, arrazoia bizitzaren baitan modu konstantean presente dagoela onartu arren, irrazionalitatea bizitzaren eremuan kokatuko du Unamunok (hemendik eratorriko da bizitzaren “agonia” esentziala).

³⁹³ Masini, F. *L'esistenzialismo spagnolo di Unamuno*. In: Cuaderno de la Cátedra Miguel de Unamuno, VI, 1955.

³⁹⁴ Unamuno, Miguel de. *Verdad y vida*. In Obras completas, IX. liburukia, 57-63 orr.

4.4.1.3.5. Bizitza, jaiotzaren eta heriotzaren artean

Julian Mariás-ek dion bezala, “giza bizitza”, azken terminoan, bi eremu hauen artean (jaiotzaren eta heriotzaren artean) aurkituko da: *aquellos últimos planos de la perspectiva vital que constituyen su horizonte escatológico*”³⁹⁵ Bi errealitate hauek, hortaz, “giza bizitzaren” baitan ematen diren elementuak izango dira. Argitara emateko orduan, ordea, ez dira egoteko bat izango, ezkutuan egongo dira, hots, transzendentzia mota bat izango dira.

Gertakari bital hauek, aitzitik, gizakiari bere bizitzaren ezaugarri esentzial batzuk gogorazten dizkiote. Hala nola, kontingentzia eta finitutasun erradikalak. Kontingentziak eta finitutasun erradikalak ez izateari egiten die erreferentzia. Bizitza ezari alegia. Horregatik, Unamunok bizitzaren zentzuaren arazoaz arduratuta, errealitate erradikal hauek kontutan izango ditu.

“Jaiotzen den oro, azken terminoan, heriotzara kondenatua dago” esaten digu Unamunok. Beste kasu batzuetan, ordea, jaiotza heriotzarekin identifikatuko du bizkaitar idazleak. Hala, jaiotzea hiltzea izango da berarentzat. Honen adibide dugu, *La tía Tula*-n planteatzen den heriotzaren ideia (protagonistetako bat umea mundura ekarri bezain laister hil egingo da) .

Heriotzaren ikuspegi hauetaz gain, heriotza amaren sabelera bueltatze moduan ulertuko du Unamunok. Heriotza ez da existentziaren ukatze moduan ulertuko, baizik inkontzientzi egoera bat bezala. Hobeto esanda, norberaren kontzientzia galtze gisa alegia. Amaren sabelera bueltatzen hau, beste une batzuetan, Unamunok aterpe gisa ulertuko du. Hau da, bizitza agoniko honi ihes egite eta bakea lortzeko gotorleku moduan. Horregatik, kasu askotan unamuniar pertsonaiak heriotzaren gertutasunaren aurrean ume bilakatzen dira, beraien emazteen besoetan murgilduz. Honen adibide ditugu *La Esfinge* eta *Soledad* obrako protagonistak eta, bereziki, *Sombra de sueño*-ko Mancebo.

ELVIRA: ¿Es que le gustaría volver a la niñez?

MACEBO: ¿A la niñez? ¡Más allá, mucho más allá!

ELVIRA: ¿Cómo más allá?

MACEBO: ¡Sí, más allá de la niñez, más allá del nacimiento!

³⁹⁵ Mariás Julián. *Introducción a la filosofía*, Madrid, Revista de Occidente, 1969. 439 or.

ELVIRA: ¡ No lo comprendo!

MACEBO: Sí, me gustaría volver al seno materno, a su oscuridad y su silencio y su quietud...

ELVIRA: ¡Diga, pues, que a la muerte!

MACEBO: No, a la muerte no; es no es la muerte. Me gustaría “des-na-cer, no morir...”³⁹⁶

4.4.1.3.6. “Benetako bizitza” edota “ bizitza autentikoa” eta “benetakoa ez den bizitza” edota “bizitza “inautetikoa”.”³⁹⁷

Honako gai hau ez da gai berria filosofiaren historian. Guztiongan ezaguna da Heidegger-en *Dasein*-enaren oinarrizko izatearen bi modu ezberdin hauek. Modu berean hainbat pentsalari existentzialistek ere arazo hau planteatuko dute. Hala nola, ikusi dugun bezala, beste pentsalari askoren artean, Kierkegaard-ek ere bereak egin ditu azaldu berri ditugun ideia hauek. Unamunok, hortaz, ez du gai berri bat planteatuko, baina, gai berria ez izan arren, modu berezian proposatzen dituela ezin dugu ukatu.

Aurreko puntuan ikusi dugunaren arabera, bizitza antzezlan gisa aurkeztu zaigu eta, bide batez, bizitza autentikoaren” eta “inautentikoaren” gaia Unamunok nola ulertzen duen azaldu dugu. Alabaina, bizitza antzezlan bat izateaz gain, Unamunorentzat gizakia izaki zatitua denez gero (arrazoia eta irrazionalismoa), bizitza esentzialki “agonikoa” izango da eta izatearen eta ezerezaren artean igerian ibiliko da. Egoera honi buruz honako hau esaten digu Unamunok Lamennais-en hitzak erabiliz:

¡Y qué! ¿Iremos a hundirnos, perdida toda esperanza y a ojos ciegas, en las mudas honduras de un escepticismo universal? ¿Dudaremos si pensamos, si sentimos, si somos? No nos lo deja la Naturaleza; obliganos a creer hasta cuando nuestra razón no está convencida. La certeza absoluta y la duda absoluta nos están igualmente vedadas. Flotamos en un medio vago entre estos dos extremos, como entre el ser y la nada, porque el escepticismo completo sería la extinción de la inteligencia y la muerte total del hombre.³⁹⁸

Gizakia, ondorioz, pascaliar muturreko bi elementuen artean, hots, “izatearen” eta “ezerezaren” artean, bere kontingentzia erradikalean (agonian), hondoratua aurkitzen da. M. Federici- k honako hau esango digu egoera honi buruz: ““Luchar contra la vida y contra la muerte significa que el yo, en su absoluta libertad, se encara con la contingencia de la vida y tiene que esforzarse por “hacerse” un alma, por tener conciencia del más auténtico ser que está llamado a realizar en cada momento, puesto

³⁹⁶ Unamuno, Miguel de. *Sombras de sueño*. In: Obras completas, III. liburukia, 384 or

³⁹⁷ Unamunok, *vida auténtica* eta *vida inauténtica* deituko duena.

³⁹⁸ S.T.V. VI. kap., 369 or.

que la última y fundamental contingencia está siempre iminente. Así, la existencia del yo auténtico, desde el momento en que se halla existiendo, hasta su muerte, es una continua agonía”³⁹⁹(hau izango da bizitzaren oinarriko tragedia).

Ferrater Mora-ren arabera, ordea, oinarriko tragedia hau, giza existentziaren arrazoi esentziala eta motibo existentziala dena, gizakiak onartu edo baztertu egin dezake.⁴⁰⁰ Gizaki tragikoak, autentikoak, bere kondizio mugatuaren eta murrizaren kontzientzia hartu ondoren, bere bizitzaren izaera “tragikoa” eta “agonikoa” dela onartuko du. Gizaki itxurazkoak, “eguneroko gizakiak”⁴⁰¹ (inautetikoak denak), aldiz, tragediari bizkarra emango dio eta giza arazo esentzialari ez dio aurre egingo.

Baina zer da Unamunorentzat “eguneroko gizakia”? Bizkaitar pentsalariarentzat bizitza arruntean murgildua dagoen gizakia baino, “eguneroko gizakia” bere izaera tragikoari entzungor egiten diona izango da. Marías-ek honako hau esango digu honi buruz:

Se trata de dos posibilidades radicales de la vida; la vida cotidiana o trivial y la vida auténtica o, como suele decir Unamuno, “trágica”. Pero estos términos pueden inducir a error. La vida cotidiana no es, claro está, la vida vulgar, sin grandes hechos insólitos; la vida cotidiana en este sentido inferior es la vida del hombre que se desentiende de su propio ser y del problema de su perduración, el hombre escapa a la angustia o congoja, y se hace así hueco de sí mismo; no vive desde su propio fondo, y por eso es “insustancial”, y sólo tiene realidad “aparencial”. El hombre que vive desde sí mismo, que se afana por su ser, que tiene lo que Unamuno llama el sentimiento trágico de la vida, el afán de perduración, es real, sustancial, “auténtico”, es el verdadero hombre. Y por eso la vida más vulgar, cotidiana en el sentido de ser “la de todos los días”, puede ser auténtica, cuando se hace personal. Cuando el hombre se toma a sí mismo y toma a los demás como personas y se angustia vitalmente por su ser⁴⁰²

Gizakiak bere izate mugatuaren kontzientzia hartzean, hortaz, heriotzaren arazoari aurre egin beharrean aurkitzen da (bidea alderantzizkoa ere izan daiteke, hau da, heriotzaren presentziaren bidez gizakiaren izaera mugatura iristea) eta, une horretan, gizakiari saihestezinak suertatzen zaizkion oinarriko galderak sortzen zaizkio: Nondik nator? Nora noa?

³⁹⁹ Op. cit. 58-59 orr.

⁴⁰⁰ Ferrater Mora, José. *Unamuno: Bosquejo de una filosofía*. Op. cit. 60. or.

⁴⁰¹ Unamunoren “hombre cotidiano” terminoaren itzulpena.

⁴⁰² Marías, Julián. *Miguel de Unamuno*, Madrid: Espasa-Calpe S.A, 1943. 183-184 orr.

Hala, galdera hauekin ezagutu nahi dena, batez ere, xedea, jomuga izango da (zertarako) eta ez “kausa” (zergatia). Izan ere, galdera guzti hauekin gure bizitzaren zentzua ulergarriagoa suertatzen da. Horregatik, M. Federico-k honako hau esango digu:

Vivir y comprender están íntimamente ligados y que de ahí deriva la separación unamuniana de vida auténtica y vida inauténtica (...) Vivir auténticamente es tener conciencia del propio vivir, del propio soñar, tener conciencia del propio papel en el mundo, es, en fin, “re-conocer” la vida en su más profunda realidad, la de ser la soñadora y autora de toda realidad. Todo lo contrario es vida inauténtica y en tal caso habla Unamuno de “personajes crespusculares” los personajes que “ni quieren ser” (voluntad) ni quieren no ser (no voluntad), sino que se dejan llevar y traer. Sólo al agonista, al que tiene sentido trágico de la vida, reconoce Unamuno la categoría de persona, que tiene “realidad íntima”.⁴⁰³

Kontzientzia hartzea eta ulermena izatea, hortaz, oinarrizkoak izango dira “bizitza autentikoa” izateko. Egia esan, gizaki orok lortu dezake kontzientzi hartze hau, baina bigarren une baten berarengandik ere ihes egin dezake: “Todos llevamos nuestro secreto de vida; los unos más a flor de alma, los otros más entrañado, y los más tan dentro de sí mismos, que jamás llegan a él ni lo descubren. Y si alguna vez lo vislumbran dentro de sí, vuelven hacia fuera la vista, despavoridos, y no quieren pensar en ello y se dan a divertirse, a enajenarse.”⁴⁰⁴ Jarrera hau Unamunorentzat jarrera “inautetikoa” edo “ez benetakoa” izango da.

⁴⁰³ Op. cit. 48 or.

⁴⁰⁴ Unamuno, el secreto de la vida, E I, 841 or.

4.5. HERIOTZAREN INGURUKO GOGOETAK

4.5.1. Bizitzaren eta heriotzaren arteko erlazioa

Bizitza eta heriotza, maila enpirikoan nahiz kontzeptuanean, hertsiki erlazionatuak daude. Maila enpirikoari dagokionez, argi daukagu bizitza heriotzara zuzendua dagoela, hots, bizidun oro lehenago edo beranduago hil egingo dela. Horregatik, honako hau esaten digu Julián Marías-ek giza hilkortasunari buruz:

Las innumerables “excepciones” que son los vivos – 3500 millones según la última estadísticas- no introducen la más leve inseguridad en la certidumbre de la mortalidad humana, no dejan resquicio a la esperanza: los vivos lo estamos porque todavía no hemos muerto, pero a ello nos lleva la estructura de la futurición combinada con el envejecimiento, que significa la existencia de una última edad”
405

Maila kontzeptualari dagokionez, ordea, “heriotzaren” kontzeptua “bizitzaren” kontzeptuari kontrajarria egongo da. Alabaina, maila kontzeptuanean, Ferrater Mora-k ahotan hartzen duen heriotzaren ikuspegi zabalago bat ere emango da. Bukaeraren sinonimo gisa azaleratzen dena alegia. Halarik ere, heriotzaren arazoa filosofian planteatzen denean, heriotzaren kontzeptuaren ikuspegi mugatuagora zuzentzen da begirada eta zentzu honetan, “heriotzaren” kontzeptua “bizitzari” dialektikoki kontrajarriko zaio (bizidunen heriotzaz hitz egiten da eta ez izaki inorganikoen desintegrazioaz). “Heriotzaren” kontzeptuak, hortaz, “bizitzaren” kontzeptua beharrezkoa izango du; zeren eta, bizirik dagoena bakarrik hila suertatuko baita.

Heriotzaren adiera mugatuagoa bada, ordea, gizakiari bakarrik erreferentzia egiten diona eta gizaki ororengan hausnarketa gai dena. Hala, heriotza, giza bizitzarekiko erlazioan bakarrik ulertzen dela esan dezakegu eta, ondorioz, “heriotzaren” kontzeptua Unamunorengan “giza heriotzaren” baliokidea izango da.

“Giza heriotzari” dagokionez, bestalde, gainontzeko bizidunekin alderatuz, giza heriotzak ezaugarri berezi batzuk dituela esan ohi da. Hala, gizakia bere heriotzaz kontziente den izaki bakarra izango da. Hau da, heriotzaren esperientziari aurre hartu diezaioken bakarra. Gauzak honela, animaliek ez al dute heriotzaren kontzientziarik izaten? Gai honi buruz oso gutxi dakigu. Hortaz, zeintzuk dira “giza heriotzaren”

⁴⁰⁵ Marías, Julián. *Antropología Metafísica* In Revista de Occidente, Madrid, 1973, 265 or.

ezaugarri bereizgarriak? Beste modu batera esanda: ba al dago “giza heriotzaren baitan”, gainontzeko bizidunen heriotzarekin alderatuz, bereizgarria den zerbait?

Beharbada, gizakiarentzat, heriotza bere proiektu bitalean ezinbesteko elementua izateak partikularra egiten du gizakia edota, apika, “animali hildako-gordetzailea” izateak (Unamunok kasu batzuetan honela definituko du gizakia) eta heriotzari buruz teorizatzeak gizakia partikularra egiten du. Hori gutxi ez balitz, gainera, heriotza zer den ulertzen saiatzeaz gain, erabateko ezereztea suposatzen duen heriotzaren aurka altxatuko da gizakia.

4.5.2. Heriotzaren inguruko gogoetak. “Meditatio mortis”.

Horrela, bada, heriotzaren arazoa (eta arazo honen aurrean izan daitezken jarrerrenak) aztertzerako orduan iritzi ezberdinak egongo dira. Hala, heriotzaren aurrean, garai bereko nahiz garai ezberdineko gizabanakoen artean (edota herrialde, kultura eta gizarte ezberdinen artea ere) diferentzi handiak egon daitezke.

Aldakuntza, hortaz, modu sinkronikoan eta diakronikoan azalduak izan daiteke. Ikuspegi sinkronikoari dagokionez, bederen, agerikoa da heriotzaren ikuskera eta honenganako jarrera ezberdinak gizabanako konkretuaren, herrialdearen, kulturalaren eta giza taldearen arabera, ezberdinak izango direla.

Gizabanakoaren bizitzan, aldiz, bada garai bat heriotzarenganako ardura existitzen ez dena (baita, aro bat, heriotzarenganako ardurak erabateko presentzia izango duena ere). Guzti hau, giza bizitzaren etapa nagusienekin erlazioan emango da. Hortaz, gizakiak, haurtzaroan heriotzaren kontzientzia garbia ez du izango. Jakina, haurrak gizakia hil egiten dela ikusiko duela, baina, ez du ulertuko hildako hauen betiereko desagertzea eta, ororen gainetik, ez du bere heriotzaren kontzientziarik izango. Nerabezaroan, ordea, gizakia heriotzaren arazoarekin modu erradikalean aurrez aurre jarriko da eta aldi honetan nerabea denboraren arazoa eta bere bizitzaren etorkizuna planteatzen hasiko da (gai hauen inguruan teorizatzea ere iritsiko da). Unamunok honako hau esango digu bere haurtzaroaz:

En cambio (bere haurtzaroaz hitz egiten duenean) la muerte nos afecta poco. El niño se siente inmortal, mejor dicho, está fuera de eso de la muerte y la

inmortalidad, se siente eterno proue vive por entero en el momento que pasa. Oye hablar de la muerte, ve acaso morir, mata animales, pero no comprende la muerte. Si habla de ella es como habla de tantas otras cosas que tampoco comprende.⁴⁰⁶

Nerabezaroaz hitz egiten duenean, ordea, honako hau esaten digu Unamunok:

Era una edad en que la mente no podía aún fijarse en el tremendo misterio del mal, de la muerte y del sentido; era una edad de frescura en que la imaginación se me dejaba brizar en la poesía exquisita de la vida de santidad (...). Era la edad en que en medio de misterios penetra al alma la serenidad de la vida y sólo se imagina a la muerte en remota lejanía, confundidos sus confines con los de la vida, como cuando bajo el cielo sereno parece el mar continuarse en él⁴⁰⁷

Gaztaroan eta heldutasunean (batez ere gaztaroan) gutxi pentsatzen da heriotzaz. Izan ere, modu erradikalean behintzat, krisi egoeraren bat bizitzen ez bada, ez da apenaz heriotzan pentsatzen. Gazteak, hortaz, heriotza goiztiarra bizi ezean, bere heriotza oraindik urrun ikusiko du.

Heldutasunean, aldiz, atzera maiztasunez begiratzen hasiko da gizakia eta denboraren iraganak heriotzaren unea oraindik ere urruti ikusi arren, heriotzaren arazoa nabarmentzea ekarriko du.

Zahartzaroan, aitzitik, heriotzaren arazoa modu erradikalean planteatuko da eta bakoitzaren sinesmenaren eta testuinguruaren arabera, larritasun handiagoz edo gutxiagoz bizitua izango da.

Orain aipatu berri dugun heriotzaren arazoaren giza kronograma antzeko hau, ordea, ez da guztiongan modu berdinean ematen. Giza bizitzaren edozein unetan gertakari berezi bat gerta dakiguke eta gure burua bizitzaren zentzuaz eta, batez ere, heriotzaz itaun egitera pasako da (Pertsona maite baten galerak, adibidez, krisi egoera bat eragin diezaguke gure bizitzan).

Filosofiaren historiari dagokionez ere, antzeko zerbait gertatuko da. Pentsalari batzuk heriotza bere ikerketaren erdigunean kokatzen dute. Beste batzuk, aldiz, nahiago izango dute alboratzea. Krisi egoerek jarrera honetan zeresan handia izango dute; zeren eta krisialdietan galdera antropologikoak modu harrigarrian suspertzen baitira. Unamunoren pentsamendua (eta existenzialismoa), beraz, ikusi dugun bezala, testuinguru honen

⁴⁰⁶Unamuno, Miguel de. *Recuerdos de niñez y mocedades*. In: Obras completas, VII. liburukia, 426 or.

⁴⁰⁷Ibid., 463 or.

baitan kokatuko da. Joera hau, ordea, ez da Unamunorengan bakarrik emango. Izan ere, Marías-ek joera hau 60. hamarkadako Espainian ere indarrean zegoela esango digu. Joera honi, bada, “meditatio mortis” deituko dio Marías-ek: “En los últimos 40 años (1964an argitara ematen du artikulu hau) ha ido irrumpiendo el tema de la muerte en la filosofía, sobre todo en los dos últimos decenios. Heidegger dio la señal en 1927 con su “Sein und zeit” y su idea, traída y llevada, del “sein zum Tode””⁴⁰⁸

Baina beranduago Marías-ek, aipatu berri dugun artikulu honetaz gain, 1950. urtean argitara eman zuen beste lan batzuetan, Unamuno jarriko du espainiar existentzialismoaren aitzindari gisa. Hau da, Kierkegaard, existentzialismoaren aita pontekoa, ezagutu eta aztertu zuen pentsalaria.⁴⁰⁹

4.5.3. Heriotzaren imajinaziozko aurreratzea

Julián Marías-erekin esaten genuen heriotzaren errealitatearen aurrean, gizakiak zeri “eutsi” jakin nahi duela. Hortaz, gizakiak bere heriotzaren unea nola izango den irudikatze gaitasuna izango du. Unamunori dagokionez, badirudi, heriotzaren irudikatze hau modu oso bizian sentitu zuela, bere lan literario asko imajinaziozko une horri eskainiak baitira.

Lehen tokian, Serrano Poncela-k “laboratorio de muerte”⁴¹⁰ deituko duena egongo da. Unamunoren heriotzaren esperientzia poetikoaz hitz egin ondoren, honako hau esaten digu Serrano Poncela-k: “Quizá porque la experiencia poética no le permite ir más allá de la experiencia óptica de la muerte es por lo que Unamuno deriva siempre sus novelas, inevitablemente, hacia una situación de muerte, comprometiendo a sus personajes a efectuar sus propias experiencias y trasvasarse a él, Miguel de Unamuno,

⁴⁰⁸ Marías, Julián. *La “meditatio mortis”, tema de nuestro tiempo*. In: revista de Occidente, Oct., 1964 (Homenaje a Unamuno), 47 or.

⁴⁰⁹ Marías, Julián. *Presente y ausencia del existencialismo en España*. In: <http://search.genio.com/results.html?v=gim19340001&t=1403&q=Presente+y+ausencia+del+existencialismo+marias&page=1>

Azkenengo aldiz 2015ko Irailaren 3an kontsultatua.

⁴¹⁰ Serrano Poncela, Op. Cit. 120 or.

creador y responsable de sus criaturas, unio a ella por el cordón umbilical de la morfogénesis”⁴¹¹

Horrela, bada, pasarte hau irakurri ondoren, Unamunok bere lan gehienetan pertsonaien heriotzaren (eta bere heriotz propioaren) aurreratzea bertaratuko digula ondorioztatzen dugu (honen adibide ditugu La tía Tula, Paz en la Guerra, Fedra eta abar.) Obra hauetan deskribatzen diren heriotzetan, ordea, ezaugarri komun bat azpimarratzen da: hiltzen denaren bakardade erradikala. Hori dela eta, hiltzen dena nahiz eta une horretan beste pertsona batzuek inguratua egon, bakardade absolutua bizituko du heriotzaren esperientzia. Gai honen harira honako hau esango digu Marías-ek *Miguel de Unamuno* lanean: “la adivinación más fecunda de Unamuno en torno a la muerte es su interpretación como soledad; una idea apenas poseída, no formulada temáticamente en parte alguna, sólo aludida alguna vez, pero que está a la base de todas sus intuiciones imaginativas del acontecimiento mortal.”⁴¹²

Unamunok heriotzaren imajinaziozko aurreratze hauetaz gain, bere gertukoek heriotzarekin bizitako bizipen pertsonalak irudikatuko ditu bere lanean, bere heriotzaren aurreratzea islatuz (1897ko krisian joera honek indar handia hartuko du, “ezerezaren” sentsazioa modu sakonean bizitu baitzuen).

4.5.4. “kontingentzia” eta “finitutasuna” .

Aurretik ere esan dugun bezala, unamuniar antropologiaren ezaugarriak “denborazkotasuna”, “kontingentzia” eta “finitutasuna” izango dira. Gainera, zentzuzkoa da horrela izatea; zeren eta unamuniar pentsamenduaren oinarria den “heriotza” gai metafisiko hauekin estuki erlazionatua baitago.

“Izaki kontingentea” kasualitatez existitzen den gizakia da. Izan ere gizakiak, izaki guztiek bezala (Jainkoa izan ezik), existitzeari utzi diezaioke une batetik bestera. Are gehiago esango genuke, bere existentzia txiripaz ematen den zerbait izango da. Ondorioz, gizakiak “izaki kontingentea” den neurrian, heriotzaren posibilitatea beti darama berarekin. Unamunok, ordea, ez du hau onartuko eta honen aurka altxatuko da,

⁴¹¹ Idem.

⁴¹² Marías, Julián. *Miguel de Unamuno*, Madrid: Espasa-Calpe S.A, 1943, 205-211 or.

egoera hau gainditzeko modu bat bilatuz. Horrela, bada, heriotzari eta kontingentziari aurre eginez, bizitzari zentzu bat eman nahiko dio (bizitza amaigabea bezala ulertuta beti ere).

Luchar contra la vida y contra la muerte (M. Federici-k esango du) significa que el yo, en su absoluta libertad, se encara con la contingencia de la vida y tiene que esforzarse por “hacerse” un alma, por tener conciencia del más auténtico ser que está llamado a realizar en cada momento, puesto que la última y fundamental contingencia está siempre inminente. Así, la existencia del yo auténtico, desde el momento en que se halla existiendo, hasta su muerte, es una continua agonía.⁴¹³

Baina gizakia (gainontzeko izakiak moduan) kontingentea izateak, heriotzaren posibilitatea bakarrik inplikatzeko du. Horrenbestez, jazoera hau aringarria suertatzen al zaio gizakiari? Ez, zeren eta kontingentziarekin batera bere “hilkortasuna” erradikalagoa suertatzen baita. Mariás-ekin bat etorriko gara honako pasarte honetan: “si la mortalidad fuera sólo posible. Pero no necesaria, si el hombre estuviera “expuesto” a la muerte, pero no Moriturus, tendría que contar con la muerte como eventualidad, pero no contaría con ella como la condición configurante de su vida”⁴¹⁴

Horrela, bada, gizakia “moriturus” izango da. Bere “izaera kontingentearengandik” eta bere “finitutasunagatik” heriotzara kondenatua dagoen izakia alegia. Unamuno, ordea, lehen esan bezala, bere “finitutasunari” aurre egiten saiatuko da espazio-denboraren plano bikoitzean. Planteamendu honi dagokionez, honako hau esango digu Granjel-ek: “el enfrentamiento con la finitud, el abocar de la propia vida al portal de su muerte, la proximidad de tal suceso, motiva que la intimidad del hombre brote un ansia o anhelo, a veces sólo confusamente sentido, de pervivir, de salvar algo en la aniquilación corporal que impone la muerte.”⁴¹⁵

Bizkaitar pentsalariarengan nahi hau erabatekoa izango da, zeren “giza kontingentziaren” aurka altxatuko da, hots, “finitutasunaren” aurka. Hortaz, gizakiak bere altxamenduan “izaki infinitu” bati erregutuko dio. Izaki hau Jainkoa izango da.

⁴¹³Federici, Op. cit. , 58-59 orr.

⁴¹⁴Mariás, Julián. *Antropología Metafísica*, Revista de Occidente, Madrid : 1970, 265 or.

⁴¹⁵Grajel, Op. cit. 191 or.

4.5.5. “Ezereza” eta “larritasuna”.

Heriotzaren arazoaz gain, “ezerezaren” eta “larritasunaren” gaiak ere XX. mendeko pentsamenduaren ezaugarriak izan dira (batez ere, 50. eta 60. hamarkadetan). Horrek ez du esanahi, ordea, filosofiaren historian aurretik landu ez diren gaiak direnik baina egia da XX. mendean gai hauek nabarmendu egingo direla, batez ere, ikuspegi antropologikoari dagokionez (aurretik Kierkegaardek eta Pascalek egin zuten bezalaxe).

Unamunok ere, bere “anai espiritualek” bezala, arazo hauek gizakiarengan bideratuko ditu, “bizitzarekin”, “heriotzarekin” eta “betikotasunarekin” duen erlazioa azpimarratuz.

Pascal-ek gizakia bi infinituen artean (bere “izate finituaren” eta bere nahi gorenaren artean) sostengatua eta aldi berean borrokan dagoen izaki gisa kontsideratzen du. Unamunok ere gizakia bi posibilitateren artean zarrastua ikusiko du. Hau da, batetik, heriotzak erabateko ezereztea suposatzen duenaren mehatxua egongo litzateke; eta bestetik, bere existentzia denboran luzatzearen eta espazioan hedatzearen desira sutsuan. Gizakiak, hortaz, egoera honen aurrean, aurretik esan dugun moduan, betiko eta guztia izatea nahiko du.

C. París –ek dioen bezala, giza existentziaren bi mutur edo polo egongo dira hortaz: bata positiboa, gizakia “izatean” irmotuko duena; eta bestea, negatiboa. Hau da, gure izate iragankorrean barneratuko den “ezerezaren” presentzia: “La plenitud y la nihilidad, se yergue la existencia humana, sin llegar a la una ni hundirse en la otra, pero no sólo dada entre ambos, sino consciente de dicho límites terminales, estremeciéndose entre ellos y conquistándose a sí mismo como conciencia ontológica.”⁴¹⁶

Horrela, bada, H. Piñera-k azaleratzen digun moduan, gai ontologiko klasikoa den “izatearen” eta “ezerezaren” aurrean gaude: “Pues la cuestión a efecto filosóficos no es la del hecho concreto de la muerte en sí misma, sino lo que esto implica metafísicamente, como el reverso y a la vez el complemento del No-ser, de la Nada. O sea, que se trata del gran tema de toda auténtica filosofía- el de Ser y la Nada.”⁴¹⁷

⁴¹⁶ Paris C. *Unamuno, estructura de su mundo intelectual*/ Barcelona: Península, 1968, 192 or.

⁴¹⁷ Piñera, H. *Unamuno y Ortega y Gasset. Contraste de dos pensadores*/ México: Univ. de Nuevo León, 1965, 90 or.

Unamunorentzat, aitzitik, ez da erdibiderik egongo zeren ez du existentzia mugatua edo eskasa onartuko. Horregatik, Unamunok honako hau esango digu *Del sentimiento trágico de la vida*-n:

¡ O todo o nada!. Quiero ser yo, y sin dejar de serlo, ser además los otros, adentrarme a la totalidad de las cosas visibles e invisibles, extenderme a lo ilimitado del espacio y prolongarme a lo inacabable del tiempo. De no serlo todo y por siempre, es como si no fuera, y por lo menos ser todo yo, y serlo para siempre jamás, y ser yo, es ser todo los demás, ¡ O todo o nada!⁴¹⁸

Nahiz eta Unamunorengan “ezerezaren” presentzia beti berarekin egon, posibilitate hau Unamunok baztertu egingo du:

Imposible no es, en efecto, concebimos como no existentes, sin que haya esfuerzo alguno que baste a que la conciencia se dé cuna de la absoluta inconciencia, de su propio anonadamiento. Intenta, lector, imaginarte en plena vela cuál sea el estado de tu alma en el profundo sueño, trata de llenar tu conciencia con la representación de la no conciencia, y lo verás. Causa congojosísimo vértigo el empeñarse en comprenderlo. No podemos concebimos como existeniendo.⁴¹⁹

Eta gure buruan “ez existitu” moduan otu arren, bizkaitar pentsalariak ez du posibilitate hau onartuko. “Unamuno jámas se resgina a la limitación y menos al aniquilamiento pues la conciencia se siente, se toca, como voluntad y deseo de no morir, de ser eternamente.”⁴²⁰ Julián Marías-ek dion bezala: “movimiento por temor a la nada, a la destrucción de la personalidad, Unamuno se aferra a la esperanza, las razones en favor de la mortalidad no bastan para destruir su esperanza. Que se mantiene firme a pesar de ellas”⁴²¹

Itxaropenak eta desirak, ordea, ez dira derrigorrez errealitatean bilakatzen. Hortik, Unamunoren jarrera agonikoaren, “angustiaren” eta “atsekabearen” edo “congojaren” sorrera. Unamuno kasu askotan, “congoja” horren harrapakina sentituko da, batez ere, krisialdietan, “heriotzaren” eta “ezerezaren” arazoa agerikoa egiten direnean. Honako hau aitortuko dio bizkaitar pentsalariak 1890.urtean bere laguna zen Jiménez Ilundaini: “Qué cosa más terrible es atreversar la etapa del intelectualismo y encontrarse un día en que, como llama y visita de advertencia, nos viene la imagen de la muerte y el total

⁴¹⁸ Unamuno, Miguel de. S.T.V. III. Kap., 306 or.

⁴¹⁹ *Ibid.*, 305 or.

⁴²⁰ Collado, Op. Cit. 135 or.

⁴²¹ Marías, Julián. *Miguel de Unamuno*, Madrid: Espasa-Calpe S.A, 1943. 202 or.

acabamiento; ¡ Si supiera usted qué noches de angustia y que días de inapetencia espiritual!”⁴²²

Lehen tokian, hortaz, Unamunok “atsekabeari” edo “congojari” erreferentzia egiten dionean, esperientzia existentzialari egiten dio aipua. Barruko sentimendu sakonari alegia. Eta berak, eta bere bezalako “hezur-haragizko” gizakiek, sentitzen duten moduan aditzera ematen digu “atsekabea” edo “congoja” zer den. Zentzu honetan, Lopez Quintás-ek honako hau esaten digu: “la angustia tiene a veces en Unamuno el carácter de experiencia límite –tan subrayado por Heidegger-, que pone al hombre –enquistado en la faz meramente objetiva de las cosas- en trance de trascendencia hacia lo profundo sustancial.”⁴²³

Bigarren tokian, aldiz, unamuniar “angustia” edo “larritasuna” (Kierkegaardekin eta Heidegger-ekin gertatzen zen bezala) “ezerezarekin” estuki erlazionatua azalduko da:

La creación toda es algo que hemos de perder un día o que un día ha de perdernos, pues ¿qué otra cosa es desvanecernos del mundo sino desvanecerse el mundo de nosotros? ¿Te puedes concebir como no existiendo? Inténtalo, concentra tu imaginación en ello y figúrate a ti mismo sin ver, ni oír, ni tocar, ni recordar nada; inténtalo y acaso llames y taigas a ti esa angustia que nos visita cuando menos la esperamos, y sientas el nudo que te aprieta el garnate del alma, por donde resuella tu espíritu. Como el arrendajo al roble, así la cuita imperecedera nos labra a picotazos el corazón para ahoyar en él su nido.⁴²⁴

Horrela, bada, “ezerezaren” posibilitateak gizakia mehatxatzen duenez gero, “atsekabearen” edo “congojaren” kausa zuzena izango da. Honako hau esango digu Collado-k honi buruz: “Es, pues, una múltiples limitación y un múltiple horror a la nada lo que determina en Unamuno el fenómeno de la angustia, pues en el momento en que se hace consciente, siente la ansiedad de sí, de su propia limitación constitutiva, al mismo tiempo que crece en él el ansia de “serse”. De no dejar de ser, de serlo todo. Y se ve forzado a batallar sin tregua por salvar su conciencia eternamente.”⁴²⁵

⁴²² Serrano Poncela-k aipatua, op. cit. , 112 or.

⁴²³ Lopez Quintás, A. *Filosofía española contemporánea*/ Madrid: La Editorial Católica, (B.A.C.) 1970. 25 or.

⁴²⁴ Unamuno, Miguel de. *Vida de Don Quijote y Sancho*. 2. Zatia, LVIII kapitulua. In *Obras completas* , X. liburukia, 212 or.

⁴²⁵ Collado, Op. Cit. , 131 or.

Hortaz, orain arte aztertu ditugun giza bizitzaren ezaugarri guztiak, hots, “finitutasuna”, “denborazkotasuna”, “kontingentzia” eta abar, azken terminoan, “larritasunera” edo “congojara” eta “ezereza” zuzenduak egongo dira.

Egia esan, prozesua konplexuagoa da. “Ezerezaren” sentimenduak “larritasuna” edo “congoja” sortu dezake, baina ez du zertan derrigorrez horrela izan behar. Gizakiak bere izaera onartu dezake edota heriotza eta gero ezereztu egingo denaren ideia onartu. Unamunoren arabera, ordea, hau ez da posible, gizakia “ezerezaren” eta “betikotasunaren” artean zarrastatua baitago eta “ezerezak” sortzen dion “larritasunaren” edo “congojaren” baitan aurkituko du “hilezkortasun desira”, hain zuzen ere, gero eta handiagoa izango den desira.

4.4.6. Heriotza gainditze nahia.

Askotan esan dugun bezala, Unamuno ez da heriotzaren aurrean etsituko. batez ere, heriotza ezerezte gisa ulertzen bada. Era berean ere esaten genuen, ororen gaitetik, bizitzaren gaia zela garrantzitsuena Unamunorentzat. Halaber, ez bizitzaren orainari dagokionez bakarrik ulertuta, etorkizunari ere inportantzia handia emango baitio bizkaitar pentsalariak.

Unamuno beti egon zen gai honen inguruan gogoetak egiten. Izan ere, *Del sentimiento trágico de la vida*-n kalifikatzen zuen bezala hau izango da “benetako arazo bitala”, hots, “bizitzaren sekretua”.

Auzi honen edukia, hortaz, norberaren heriotza eta gero gure kontzientziarekin zer gertatuko den ezagutzea izango da. Gure buruarekin bakarrik aurkitzeak beldurra ematen digu eta kondizio honek gure etorkizun indibidualaren inguruko gogoetak egitera eramaten gaitu. Aurretik aipatu dugun bezala, gizabanakoak bere heriotzaren aurrean zeri eutsi behar dion jakin nahi du. Hargatik, azken honekin, hots, heriotzarekin, existentzia bukatzen den ala ez jakin nahiko du gizakiak. Horregatik, gizakiak bere buruari “bere etorkizun indibidualari” buruzko galderak planteatuko dizkio:

Y si no muero, ¿qué será de mí; y si muero, ya nada tiene sentido. Y hay tres soluciones: a) o sé que me muero del todo y entonces la desesperación irremediable, o b) se que no me muero del todo, y entonces la resignación, o c) no puedo sabe ni una ni otra cosa, y entonces la resignación en la desesperación o ésta

en aquélla, una resignación desesperada, o una desesperación resignada, y la lucha.⁴²⁶

Azken irtenbide hau izango da Unamunoren jarrerara gehien gerturatuko dena.

Hilezkortasunaren desira, gizakiarengan berezkoa dena, etorkizunari buruzko galderaren oinarrian dago. Hortaz, hilezkortasun nahia, Unamunoren ustez, beti ere, filosofia ororen abiagunean izango da: “[...] ¿Y no será, por lo tanto, la verdadera base, el verdadero punto de partida de toda filosofía, aunque los filósofos, pervertidos por el intelectualismo, no lo reconozcan?”⁴²⁷

Aurretik ikusi dugun bezala, ordea, gizaki guztiek ez dute heriotzaren aurrean berdin jokatzeko: batzuk egoera hau ekiditen saiatzen dira; beste batzuk, aldiz, sistema kontzeptualen bidez arazoa konpontzen ibiliko dira eta, azken tokian, zientifismoaren bidea erabiliz giza heriotzaren inguruko auzia konpondutzat ematen dutenak egongo lirateke. Unamuno, ordea, guzti hauekin ez da bat etorriko eta azken hauek, hots, zientifismoaren bidea hartu dutenak, gizaki ahul gisa ikusiko ditu. Honen oinarrian, Spinozaren eragina erabatekoa izango da. Honela dio Unamunok Spinozaren “conatus”-ari buruz: “Quiero decirse que tu esencia, lector, la mía, la del hombre Spinoza, la del hombre Butler, la de hombre Kant y la de cada hombre que sea hombre, no es sino el conato, el esfuerzo que pone en seguir siendo hombre, en no morir.” Eta beranduago ideia berdinarekin segituta: “Es decir, que tú, yo y Spinoza queremos no morirnos nunca y que este nuestro anhelo de nunca morirnos es nuestra esencia actual.”⁴²⁸

Unamuno beti egongo da gai honen inguruan bueltaka, obsesio bat izango da berarentzat. Hori dela eta, erlijioak eta filosofiak gai honen inguruan emaniko erantzun gehienak jasoko ditu. (*Del sentimiento Trágico de la vida* izango da ikerketa hau modu argienean ikusten den lana, batez ere, IV eta V kapituluetan: *La esencia del catolicismo* eta *La disolución racional*). Halaber, planteamendu hauek bizkaitar pentsalaria ez dute asetuko. Horrela, bada, bizirik jarraitzeko bide ezberdinak bilatuko ditu Unamunok.

⁴²⁶ Unamuno de Miguel, S.T.V., II. kap., 301 or. Azken irtenbide hau izango da Unamunoren jarrerara gehien gerturatuko dena.

⁴²⁷ Ibid. 303 or.

⁴²⁸ Ibid., I.go kap., 279-280 orr.

Noizean behin bizirik iraute moduetako bat seme-alaben bidez ulertuko du bizkaitar pentsalariak. Beste kasu batzuetan, aldiz, bizirik irautea, besteen (gertuko en edo historian) oropenean jarraipen moduan konprenituko du. Bi planteamendu hauetaz gain, hilezkortasuna lortzeko modu originalagoak ere proposatuko ditu bizkaitar pentsalariak. Hala nola, hilezkortasun kolektiboa. Azken tokian, bestenaz, kristautasunaren hilezkortasun indibiduala egongo da.

4.6.1. Seme-alabak eta heriotzaren gainditzea.

L. Granjel-ek honako hau esaten digu gai honen inguruan: “Los hombres persiguen su perduración carnal, poner algo de sí mismo en otras individualidades que seguirán viviendo cuando ellos dejen de existir, las que a su vez, movidas por idéntico afán, también se darán un día para no morir.”⁴²⁹

Horrela, bada, aitatasuna eta amatasuna bizi-iraute moduan ikertu daiteke. Unamunok ere horrela ikusiko du, nahiz eta filosofiak ikuspegi hau modu sistematikoan ez planteatu. Bizkaitar pentsalariak, hortaz, hilezkortasunaren zentzu zabala kontutan hartuko du, gizakiaren bizirik iraute desiraren adibide gisa aitatasuna eta amatasuna planteatuz. Aitatasun eta amatasun hau, ordea, molde ezberdinetan azaleratua izango da.

a) Seme-alaba biologikoak

Gizakia animalia guztiek bezala, ez da bere existentzia ahalik eta denbora gehienez luzatzearekin bakarrik konformatuko. Bere izate biologikoaren zantzuak utzi nahiko ditu. Horrela, gure seme-alabek gurea den zerbait berarekin daramate eta bere seme-alabei transmitituko die. Horrenbestean, Unamunok kasu askotan planteatuko ditu gai hauek, baina beti ere hilezkortasunaren oinarritzko gaiaren inguruan proposatuta. Heriotza eta jaiotza elkarren eskutik etorriko dira hortaz eta, hargatik, Unamunoren eleberri askotan, aurretik aipatu dugun moduan, emakumezko pertsonai asko bere seme-alabak mundura ekartzean hil egingo dira (Rosa eta Manolita *La tía Tula*-n, pertsonaietako baten ama *Fedra*-n. eta abar.)

⁴²⁹ Granjel, L. *Retrato de Unamuno.*/ Madrid: Guadarrama (1957), 205-206 orr.

b) Seme-alaba espiritualak

Arestian ikusi dugun moduan, haragizko seme-alabek gure izatea materialki luzatuko dute. Sarritan, ordea, gizakiak arrasto espirituala ere mundu honetan utzi nahiko du. Hori dela eta, gerta daiteke gizabanako bat bere guraso biologikoetatik aldenduta, inongo ahaidetasun loturarik izan gabe, seme-alaba espiritualean bilakatzea.

Azaola-k eta Gautrand-ek Unamunoren arazo honi buruz hitz egitean, dizipulu edo eskolier terminoa erabiliko dituzte. Kasu honetan, ordea, ikuspegi zabalago bat eman behar zaio dizipulu hitzari. Ez da doktrinaren edo maisuaren teoriaren jarraitzailea bakarrik izango, oinordekotza zabalagoa izango da. Izan ere, jokatzeko moduarekin, sentimenduarekin, izaerarekin eta pertsonalitatearekin zerikusi gehiago izango du. Gai honen interesa beti izan zuen Unamunok, baina, modu garbian *Amor y pedagogía*, *Abel Sánchez*, *La tía Tula* eta *Dos Madres* lanetan isuriko ditu.

c) Seme-alaba biologikoak eta seme-alaba espiritualak aldi berean. Seme-alaba biologikoek gurasoen pertsonalitatea, pentsatzeko modua eta abar heredatzen dutenean, aldi berean bi eremuetan betiketuko dira gurasoak. Hau da, eremu materialean zein eremu espiritualean.

4.6.2. Iraunkortasuna besteen oroitzapenean

Hil ondoren “mundu honetan” geratzeko beste modu bat besteen oroitzapenean bizirik irautea izango da. Ahaztuak ez izatea alegia.

a) Lehen tokian, gertuko oroitzapenean bizirik irautea egongo da. Izan ere, azken hauek, gertukoek, joan direnen oroipen bizia gordeko dute. Honen adibide dugu *La tía Tula*. Bere heriotza ondoren narratzaileak honako gogoeta egiten digu: “¿Murió la tía Tula?. No, sino que empezó a vivir en la familia, e irradiando

de ella, con una nueva vida más entraña y más vivificada, con la via terna de la familiaridad inmortal”⁴³⁰

b) Bigarren tokian, aldiz, denbora luzera begira emango den hilezkortasuna egongo da.

Seme-alabak, familiakoak, lagunak eta abar egunen baten ere hil egingo dira. Ondorioz, beraien oroitzapenean denbora batez bizirik egon den gizabanakoa ere desagertu egingo da. Egoera honen aurrean, ordea, badira bizitzaren beste dimentsio batzuk “gizabanakoaren bizi irautea” epe luzean iraunaraztea posible egiten dituztenak. Horrela, bada, kasu honetan, historikotasunaren aspektu bati egingo zaio erreferentzia. Izan ere, gizakiak bere obren bitartez gizateriaren historian arrasto handia utzi dezake, eta, bide batez, denbora luzez bizirik iraun.

Unamuno luzaroan bizi izan zen kontu hauekin obsesionatua. Bere xedea, hortaz, ondorengo belaunaldietan arrastoa ustea izango da. Horretarako, ordea, sortu egin behar da, testigantza bat utzi, denborazkotasuna gaindituko duen lan bat argitara eman. Gauzak honela, Unamunok literatur sorkuntzaren bidea hautatu zuen. Izan ere, sorkuntza artistikoarekin batera bizi iraute luzeena eskaintzen duen sorkuntza bidea da. Unamunoren bokazio literarioaren azpian, bada, inpultso bital bat egongo da. Hau da, hilezkortasuna lortzeko desira bizia.

4.6.3. Hilezkortasun kolektiboa.

Seme-alabek mundu honetan gurea den zerbait ustea ahalbidetzen duten bezala, gizabanako batzuen izenek eta obrek historiaren bidez bizi irautea posible egingo dute. Baina bada heriotzari ihes egiteko beste modu bat ere. “Osotasun” mota baten baitan eman daitekeen iraute-kolektibo bat alegia.

Kasu batzuetan, Unamuno “norbera izatearen” eta “dena izatearen” arteko dilemaren baitan murgildua aurkituko da, gizabanakoaren hilezkortasuna eta hilezkortasun kolektiboa aurrez aurre jarriaz (edota biak aldi berean nahi izatearen auzian). Horrela,

⁴³⁰Unamuno, Miguel de. *La tía Tula*. In: Obras completas, I. liburukia, XXIV. Kap.. 896 or.

bada, *La locura del doctor Montarco* eta *¡Adentro!* lanetan iraute kolektiboari emango dio bizkaitar pentsalariak erabateko garrantzia: “Sólo en la sociedad te encontrarás a ti mismo; si te aíslas de ella no darás más que con un fantasma de tu verdadero sujeto propio. Sólo en la sociedad adquieres tu sentido todo, pero despegado de ella”.⁴³¹

Del sentimentu tragico de la vida-n, ordea, guztia izatea nahi duela esango digu Unamunok, baina norbera izateari utzi gabe.

El dolor universal es la congoja de todo por ser todo lo demás sin poder conseguirlo, de ser cada uno el que es, siendo a la vez todo lo que no es, y siéndolo por siempre. La esencia de un ser no es sólo un empeño en persistir por siempre, como nos enseñó Spinoza, sino, además, el empeño por universalizarse; es el hambre y sed de eternidad y de infinitud. Todo ser creado tiende no sólo a conservarse en sí, sino a perpetuarse, y además a invadir a todos los otros.⁴³²

Unamuno, ordea, konturatzen da “osotasunaren” baitan hedatzeak indibidualitatearen galtzearen arriskua dakarrela. Hala, egoera horren aurrean, alienazioaren aurka altxatuko da.

Baina nola ulertzen du “dena edo osotasuna” Unamunok? Bizkaitar pentsalariak ez du “osotasunaz” bakarrik hitz egiten. Ondorioz, “kontzientzia unibertsalaren” ideia ere presente egongo da bizkaitar pentsalariarengan. Termino honekin, ordea, zeri egiten dio erreferentzia bizkaitar pentsalariak? Termino honen erabilpenaren zehaztasungabetasunarengatik galdera honi erantzun bat ematea ez da erraza izango.

Ferrater Mora-k dioen bezala azken finean salbazioa eskainiko digun kontzientzia infinitu bat izango da iraute-kolektiboa.⁴³³ Hala, irizpide hau kontutan hartzen badugu, Unamunorentzat Jainkoa osotasun hau izango da.

Orduan panteista al da bizkaitar pentsalaria? Badirudi Jainkoa eta “kontzientzia unibertsalaren” arteko identifikazio bat ematen dela.

Y sin embargo, Dios, la conciencia del Universo, esta limitado por la materia bruta en que vive, por lo interconsciente, de que trata de libertarse y de libertarnos (...). Dios sufre en todos y en cada uno de nosotros; en todas y en cada una de las conciencias, presa de la materia pasajera, y todos sufrimos en Él La congoja

⁴³¹ Unamuno, Miguel de. *¡Adentro!*. In: Obras completas, VIII. liburukia, 320 or.

⁴³² Unamuno, Miguel de. S.T.V. IX.kapitulua,, 440 or.

⁴³³ Ferrater Mora. *Unamuno. Bosquejo de una filosofía*. 78 or.

religiosa no es sino el divino sufrimiento, sentir que Dios sufre en mí, y que yo sufro en Él. ⁴³⁴

Horrenbestez, esan dezakegu “gizakiaren”, “munduaren” eta “Jainkoaren” arteko nahastea ematen dela bizkaitar pentsalariarengan, panteismora eta krausismora (dena Jainkoaren baitan) bultzatuz. Unamunok, ordea, panteismoaz hitz egiten duenean ez du inoiz bere banakoaren iraute nahia ahaztuko eta panteismoaren aurka altxatuko da:

Y si la creencia en la inmortalidad del alma no ha podido hallar comprobación empírica racional, tampoco le satisface el panteísmo. Decir que todo es Dios, y que al morir volvemos a Dios, mejor dicho, seguimos en Él, nada vale a nuestro anhelo; pues si es así, antes de nacer, en Dios estábamos, y si volvemos al morir adonde antes de nacer estábamos, el alma humana, la conciencia individual, es perecedera. ⁴³⁵

Hortaz, ezin dugu baieztatu Unamuno panteista denik.

Unamunok, bestalde, hilezkortasun kolektiboaren beste definizio bat ere ematen digu. Hau da, herri bezala hilezkor izatea. Jarrera honen oinarrian, garai hartan Espainiak bizi zuen krisiari irtenbide bat bilatu nahia egongo da. Horretarako, herriaren espiritu ideal bat bilatzen saiatuko da Unamuno (Espainia herri gisa lehenera itzultzeko alegia), gizabanakoarengan ezaugarria den izaera tragikoa herriari edo nazioari atxikituz. “Lo que llamo al sentimiento trágico de la vida en los hombres y en los pueblos es por lo menos nuestro sentimiento trágico de la vida, el de los españoles y el pueblo español, tal y como se refleja en mi conciencia, que es una conciencia española, hecha en España.”

⁴³⁶

4.6.4. Kristautasunaren banakako hilezkortasuna

Orain arte ikusi dugun bezala, Unamunok heriotzaren aurkako gatazkaren aurrean bataila asko irabazi ditu, baina, oraindik ere ez da erabat asetua sentituko. Hori dela eta, bere “ni konkretuari” buruzko galderak egiten jarraituko du, bere begirada bere haurtzaroko erlijiora zuzenduz.

⁴³⁴ Unamuno, Miguel de. S.T.V., IX. Kap., 440 or.

⁴³⁵ Ibid. V. kap. , 345-346 orr.

⁴³⁶ Ibid. XI. kap. , 507.or.

Hori dela eta, joan gaitezen kristautasunaren hilezkortasunaren ezaugarri esentzialak ikustera (konkretuki katolizismoaren ezaugarriak, Unamuno bere bizi osoan erlijio honekin harremanetan egon baitzen).

Lehen tokian, Kristautasunak, “heriotza ondoko betiko bizitza” bistaratzen digu. Bukaezinezko bizitza bat, betierekoa, denboran zehar barreiatua dena alegia. Heriotza, hortaz, beste mundurako sarrera bide antzeko bat izango da.

Bigarren tokian, aldiz, “arimaren” kontzeptua kristautasunaren hilezkortasunaren doktrinan oinarritzkoa izango da. Printzipio honi esker gorputzaren galbideratzeak ez du gizakiaren erabateko ezereztea suposatuko eta gorputzak, egunen batean, hil ondoren bereiztu zen arimarekin bat egingo du berriro (gorputzaren berpizkundeak bere agerraldia egingo du beraz).

Kristautasunaren “heriotza ondoko betiko bizitzak” eskaintzen duen gizabanakoaren iraute horrek, ordea, bere baitan oinarritzko ondorio etikoak bistaratzen ditu. Izan ere, beste mundua ez da era berekoa izango. “Beste mundua” espazio ezberdinetan banatua dago eta gizabanakoak izan duen portaeraren arabera infernura, zerura, purgatoriora edota linbora joango da.

Kristautasunak eskaintzen digun azken ezaugarria, aldiz, Kristo bera izango da; bere heriotzarekin eta berpiztearekin gure hilezkortasun propioa bermatuko baitigu.

Unamuno ezaugarri hauen aurrean, planteamendu batzuekin bat etorriko da eta beste batzuk baztertu egingo ditu.

Onartuko dituen aspektuen artean, banakako hilezkortasunaren ideia egon da. Gizaki “autentikoari” dagokiona, “hezur-haragizko” gizakiari, alegia. Aitzitik, onartezina iruditu zaizkio, hala nola, infernuaren eta zigorraren ideiak. Ideia hauek direla medio, Elizaren aurka altxatzen hasiko da Unamuno. Honetaz gain, ez du beste mundua zertan datzan ongi ulertzen. Ez ditu Kristauak ulertuko Unamunok. Gauza zera da: gizakiek beste bizitzaren irudikapenera iristen saiatu direla eta, horretarako, teoria ezberdinak eraiki dituztela. Unamuno, ordea, teoria ezberdin hauen etsai aurkeztuko da eta gai hauen inguruko galderak egitera mugatuko da:

¿Pero es acaso pensable una vida eterna y sin fin después de la muerte? ¿Qué puede ser la vida de un espíritu desencarnado? ¿Qué puede ser un espíritu así? ¿Qué puede ser una conciencia pura, sin organismo corporal? ⁴³⁷ ¿Cómo puede vivir y gozar de Dios eternamente un alma humana sin perder su personalidad individual, es decir, sin perderse? ¿Qué es gozar de Dios? ¿Qué es la eternidad por oposición al tiempo? ¿Cambia el alma o no cambia en la otra vida? Si no cambia, ¿Cómo vive? Y si cambia ¿Cómo conserva su individualidad en tan largo tiempo?

⁴³⁸

Honako galdera hauek aurki ditzakegu *bere Del sentimiento trágico de la vida*-n zehar, baina zoritxarrez, kasu gehienetan, erantzunik izango ez duten galderak izango dira.

Unamunok nahi duena zera da: pertsonalki heriotza ondoren bizi irauten jarraitzea. Hau da, “beste bizitzan” bere buruaren kontzientzia osoa izaten jarraitzea. Honetaz gain, gorputzaren eta arimaren hilezkortasuna nahiko du eta ez arimarena bakarrik: “sin alguna especie de cuerpo, ¿cómo el deleite? La inmortalidad del alma pura, sin alguna especie de cuerpo o periespíritu, no es inmortalidad verdadera”⁴³⁹ Bere benetako desira, beraz, heriotza ondoren “bizitza hau” bizitzen jarraitzea izango da. Bizitza mortal hau alegia; baina gaixotasunik, gogaitasunik eta heriotzarik gabe. “Lo que en rigor anhelamos para después de la muerte es seguir viviendo esta vida, esta misma vida mortal, pero sin sus males, sin tedio y sin la muerte.”⁴⁴⁰ Horrela, bada, esan dezakegu Unamunori kristautasunak proposatzen duen hilezkortasuna erakarria suertatu arren, hilezkortasun honek eskaintzen dituen aspektu batzuekiko dudak izango dituela.

Bizi irautearen berezko “giza desira” hauek azaleratu ondoren, bizkaitar pentsalariak gai honekiko irtenbide batzuk aztertuko ditu. Batez ere, teologiarekin eta filosofiarekin lotura zuzena izango dituzten proposamenak.

Pentsalari honen iritziz, kristautasunarentzat esentziala dena zera da: hilezkortasun pertsonala. Kristau katolikoaren hilezkortasun ideiarekin aitzindaria San Pablo izango da (San Pablok Kristoren berpizkundearekin hilezkortasunaren garrantzia azpimarratuko du). Arazoa, ordea, katolizismoak sinesmen hau arrazionalizatzen tematzen denean sortzen da, hots, erlijioa “Teologian” bilakatzen denean. Hau da, sinesmen bitalaren

⁴³⁷ Ibid. , 930 or.

⁴³⁸ Ibid. , 931 or.

⁴³⁹ Ibid., 938 or.

⁴⁴⁰ Ibid. , X. Kap., 458 or.

oinarrian XIII. mendeko filosofia jartzen denean. Une honetan, bada, arrazoiak esku hartuko du eta “sinismen bital” hauei erantzunak emateko orduan lagungarri izan beharrean, “sinismen bitalaren” deuseztapen arrazionala emango da (hau, arrazoiaren gizakiaren desira bitalari kontra jartzen zaiolako ematen da).

Unamunok *Del sentimiento trágico de la vida*-ko V. Kapitulan gai honen aspektu positiboak eta ezkorrak aztertuko ditu, batez ere, doktrina tomista kontutan hartuz.

Santo Tomasek eta tradizio eskolastiko guztiak, arimaren hilezkortasuna frogatzerako orduan, arima substantzia gisa ulertzen dute. Hau da, bere kabuz iraun dezaken zerbait bezala. Akzidente guztien substratu gisa alegia. Honetaz gain, sustantzia sinplea eta espirituala izango da eta, ondorioz, ustelezina. Hargatik, J. Mayà-k adierazten duen moduan, Unamunok arima substantzialitatean eta sinplizitatean oinarritzen dela baieztatzen duten argumentuak baztertuko egingo ditu.⁴⁴¹

Goazen ikustera zer esaten digun Unamunok honi buruz:

La doctrina pretendida racional de la sustancialidad del alma y de su espiritualidad, con todo el aparato que la acompaña, no nació sino de que los hombres sentían la necesidad de apoyar en razón su incontrastable anhelo de inmortalidad y la creencia a éste subsiguiente. Todas las sofisterías que tienden a probar que el alma es sustancia simple e incorruptible, proceden de este origen. Es más; aun el concepto mismo de sustancia, tal como lo dejó asentado y definido la escolástica, ese concepto que no resiste la crítica, es un concepto teológico enderezado a apoyar la fe en la inmortalidad del alma.⁴⁴²

Hori dela eta, Unamunok ez du horren argi ikusiko arimaren substantzibilitatea kritikagaitza denik:

¿Qué razón desprevenida puede concluir el que nuestra alma sea una sustancia del hecho de que la conciencia de nuestra identidad persista a través de los cambios de nuestro cuerpo? Tanto valdría hablar del alma sustancial de un barco que sale de un puerto, pierde hoy una tabla que es sustituida por otra de igual forma y tamaño, luego pierde otra pieza, y así una a una todas, y vuelve el mismo barco, con igual forma, iguales condiciones marineras, y todo lo reconocen por el mismo. ¿Qué razón desprevenida puede concluir la simplicidad del alma del hecho de que tengamos que juzgar y unificar pensamientos? Ni el pensamiento es uno, sino varios, ni el alma es para la razón nada más que la sucesión de estado de conciencia coordinados entre sí.⁴⁴³

⁴⁴¹ Mayà. J. *La teología de Unamuno*/ Barcelona: Vergara, 1960. Ikusi batez ere IV.kapitulua, 42-69 orr.

⁴⁴² Unamuno, Miguel de. S.T.V., V. kap., 339-340 orr.

⁴⁴³ Ibid., 341-342 orr.

Alde honetatik, Unamunok ez du gogobetegarria suertatuko zaion erantzunik topatuko. Horregatik, arrazoiak bere arazo bitalari erantzunik ematen ez diola ondorioztatuko du. Unamunoren iritziz, arrazoiak gure hilkortasuna frogatu nahi du, baina arazo bitalari entzungor eginez. Gauzak honela, berriro ere sortuko da borroka, dialektika. Unamunok bide honetatik konponbide bat bilatzen saiatu da eta, horretarako, gatazka hau gure bizitza espiritualaren izaeran bilakatu du. Guzti honen erdian, ordea, ezin dugu gure erabateko ezereztearen ziurtasun osoa izan, ez eta gure kontzientzia heriotzaz haratago iraun dezakeenaren segurantzarik eduki.

Del sentimiento trágico de la vida-n Unamunok arrazoia erlijioan infiltratua dagoenaren kristau irtenbidea baztertu egingo du. Aitzitik, ordea, Kristoren inkarnazioak, hots, heriotzak eta berpizteak, berme bat eskaintzen digunaren ideia onartuko du. Horrela, bada, Unamunoren arabera beti ere, Kristorengan konfiantza eta fedea izan behar dugu eta, ororen gainetik, Kristoren existentziaz zalantza beti gurengan iraun arren, itxaropena izan.

Ondorioz, barne esperientzi indibidualarekiko pasioak eta dogmatismoa bitarteko ez duen Jainko-erlazioak, Unamunorengan protestantismoarenganako gerturatze bat suposatuko du. Ez da hortaz arrazionalismo teologikoan oinarrituko. Eta katolizismoak defendatzen zuen erlijio instituzionalaren eta erregimen teologikoaren eta juridikoaren aurrean⁴⁴⁴, Unamunok, protestantismo liberalak eskaintzen dion barne jarreraren eraberritzeari erreparatuko dio, Ebanjelioaren eduki etikoak eta indar gizatiartugilea nabarmenduz. Fedearen edukia, beraz, ez da arrazoiaren arabera bereganatua izan behar, fedea bizi egin behar da. Horrenbestez, arrazionalismo teologiko-eskolastikoaren aurrean, protestantismo liberalak sentimendua ardatz hartuz, fedearen subjektibizazioari ateak irekiko dizkio. Kontutan hartzen dena, hortaz, ez da dogma izango, baizik espiritua. Jite honek, bertzalde, Misterioaren zentzua subjektibizatu egingo du.

⁴⁴⁴ Siguiendo a Harnack, sostiene que el catolicismo ha surgido de la fusión del cristianismo con el helenismo y de su posterior adecuación a la mentalidad y a las estructuras del Imperio romano. De ahí la conversión de la Iglesia en institución jurídica jerarquizada, la autoridad de la casta sacerdotal sobre la conciencia de los fieles, la primacía del dogma sobre el misterio, y la aparición de la religión estatutaria en cuanto doctrina y culto. (In: Cerezo Galán, Pedro. *Las máscaras de lo trágico: filosofía y tragedia en Miguel de Unamuno*/ Madrid : Trotta, 1996. 240-241 orr.)

Unamunok ez du adimena printzipio abstraktu bati txertatua izatea onartuko. Printzipio metafisikoak eta teologikoak baztertu egingo ditu. Berarentzat, Unamunorentzat, fedea abandonatze ekintza bat izango da. Borondatearen entregatze adeitsua alegia. Horrela, bada, arrazoiak xede transzendentalik edo Jainkorik ez dagoela esaten digunean, fedea egon behar duela esango digu. Eta egon behar duenez gero, xede transzendentalak edo Jainkoa egongo da, zeren fedea ikusten ez dugun hori sinistea bakarrik ez da izango, ikusten ez dugun hori “sortzea” baino. Horrela, bada, fedea “sortu” egiten du. Honako hau esaten digu, Cerezo Galan-ek honi buruz:

El hecho de que en este contexto, tan marcadamente religioso, aparezca la tesis de que creer es crear (VII, 368), obliga a interpretarla también a esta luz, sin la carga vitalista con que suele tomarse expresión. Puesto que la fe, en contra de la razón, se atreve a dar una finalidad al universo, puede decirse que en cierto modo lo crea. "No se trata, por tanto, de ver intelectualmente un sentido o sinsentido objetivo del mundo, sino de producirlo prácticamente mediante la voluntad regenerada. Si el intelecto se adhiere a un principio abstracto, la fe, que es cosa de voluntad, se afirma creadoramente desde el seno de una confianza de carácter personal y único.

445

Ondorioz, Jainkoarenganako fedea gure existentzian izango du abiagune eta antropologia berri honek “niari”, gizabanako bezala ulertuta, erabateko garrantzia emango dio. Eta bukatzeko, laburpen gisa esan dezakegu, “sentimendua” eta “borondatea” izango direla antropologia berri honen erreferente nagusienak, eta ez “ezagutza”. Horrela, bada, “Jainkotiarra dena” borondateak unibertsoari zentzua ematen dionean esperimendatzen da. Beste modu batera esanda, hilezkortasun desiraren edo borondatearen emaitza izango da Jainkoa: “Diga lo que dijere la razón, la gran alcahueta, nuestras entrañas espirituales, eso que llaman ahora el Inconsciente nos dice que para no llegar, más tarde o más temprano, a ser nada, el camino más derecho es esforzarse en serlo todo.”⁴⁴⁶

Behin puntu honetara iritsita, eta Kierkegaarden eta Unamunoren pentsamenduak azaldu ondoren, pentsalari hauek *Leturiaren egunkari ezkutuan* izan duten eragina aztertzeraz pasako gara.

⁴⁴⁵ Cerezo Galán, Pedro. *Las máscaras de lo trágico : filosofía y tragedia en Miguel de Unamuno* Madrid : Trotta, 1996, 243 or.

⁴⁴⁶ *Ibid.*, 295 or.

(3)_____

**KIERKEGAARDEN ETA UNAMUNOREN ERAGINA
LETURIAREN EGUNKARI EZKUTUAN**

5. KIERKEGAARDEN ETA UNAMUNOREN ERAGINA *LETURIAREN EGUNKARI EZKUTUAN*.

Kierkegaarden eta Unamunoren pentsamenduen nondik norakoa azaldu ondoren, joan gaitezten Kierkegaarden eta Unamunoren ideiek Txillardegirengan izan duten eragina aztertzeraz.

5.1. UNAMUNO ERAGILE

Unamunoren eragina *Leturiaren egunkari ezkutuan* modu oso esplizituan agertu ez arren, Txillardegik aitortua da Unamunoren pentsamenduaren (eta existentzialismoaren) eragin handia izan zuela. Honen adibide ditugu Txillardegik *Egan-en* eta *Jakin-en* argitaratutako hainbat lan. Hala nola, *Unamuno eragille (1957)*⁴⁴⁷, *Levi Strauss-ek Unamuno-rengana*⁴⁴⁸ (1965) eta *Unamuno ala Jammes? (1966)*⁴⁴⁹.

5.1.1. *Unamuno eragille (1957)*

Txillardegik, 1957an *Egan* aldizkarian, modu argian azaltzen digu Unamunorenganako zuen mirespena:

Eragin gogorra du Unamuno'k. Bere alde ala bere aurka jarri gaitezke, bañan ezin geldi inor leen bezala: Maitatu egin bear da, ala gorroto. Beste amar liburu geiago irakurtzen dira, ala ezta lerrorik bat ere. Ez dago erdian geratzerik: aurrera ala atzera jo bear, eta bertatik.

Gañerakoan esistentzialista guziak bezelaxe, oiturakeritik ateratzen gaitu. Irakurri-ala piztu egiten gera, beste mundu berri bat ikusita. Kanean ikusi ez degun zerbait arkitzen degu argan: Jainkoa, arima, ta bizi-bearraz elizetan entzun ez ditugun gauza sarkorak irakurtzen ditugu. Agustin deuna gogoratzen digu orain. Gide siñisgabea segituan. Zer da txorabio au? Zer da berotasun kiskalgarri ura? Unamuno da. Nietzsche'k aña unkitzen du. Kierkegaard'ek aña inarosten du. Liriku sakona da. Olerkari da.

Ondo daki au guzia “Del Sentimiento Trágico” edo beste edozein saio irakurri duenak. Minduta uzten du irakurlea. Gizona geiago da biotza, arrazoia baño. Ta Unamuno'k biotzari itzegen dion esker, eragin bizia lortzen du.⁴⁵⁰

⁴⁴⁷Txillardegik. *Unamuno Eragille*. In *Egan* 3/4-1957 zenbakia (1957ko maiatza-abuztua), 170-177orr.

⁴⁴⁸Igara (Txillardegik). *Levi Strauss-ek Unamuno-rengana*. In: *Jakin*, Arantzazu, Editorial Franciscana, 19. Zenb. (mai. 1965), 6-15 orr.

⁴⁴⁹Igara (Txillardegik). *Unamuno ala Jammes?* In: *Jakin*, Arantzazu: Editorial Franciscana, 10. urtea, 21. Zenb. (1-1966), 81-84 orr.

⁴⁵⁰Txillardegik. *Unamuno Eragille*. In *Egan* 3/4-1957 zenbakia (1957ko maiatza-abuztua), 176 or.

Aipamen honekin argi geratzen zaiguna zera da: Unamuno 50.hamarkadako euskal gizartean erreferentea izan zela (bai euskararekiko zuen jarrerarengandik, bai ikuspegi antropologiko berri bat eskaini ziolako orduko euskal gizarteari).⁴⁵¹ Hau gutxi ez balitz, gainera, garai hartan irakurria izan ezin zintezkeen autoreen “indizean” sartu zuten bizkaitar pentsalaria.

Eta nere arloan bete-betea sartu baño lehenago, gauza bat esan bear Unamuno euskaldunaz. Bestela, uts aundi bat egingo nuke; eta aipatu bearrean nago. Badakizute dagoeneko nundik nora noan: euskara gorroto izan zuen Unamuno´k. Bai jaunak: gorroto da itza, naiz-eta asko estutzen ba gaitu ere euskaldun aundi batek ala jokatu zuela aitortu bearrak.

Eta berak zuen kategoria izanda, bi aldetatik galdu genuen euskaltzaleok. Gure izkuntzaren alde egin zezakeana egin etzuelako batetik; eta euskeraren aurka egin zituen alegiñakatik bestetik. Idazle bikaña izan zanak etzigun euskeraz ezer utzi, olerkitxo batzuek baizik. Unamuno galdu genuen euskararentzat, Baroja galdu degun bezala; eta erderaz egin zuen lanari begiratuta, miña degu biotzean gure izkuntzaren beraka sentitzen dugunok. Nahi izan ba lu, zer etzuan egingo bilbotar ospatsuak? Erdal-literatura landu ta aberatsean bera dan bezin aipagarria izanik, zer mallatakoa izan zan gurean? Piztu egin zezakean Unamuno´k gure izkera, ta etzuen alere deus egin bere alde; asko ordean zanpatzeko. Orduko euskera etzan gauza jakintzako gaiez jarduteko; ta au zala-ta, euskera gaita ta eraberritu bearrean, baztertu egin zuen.

Ez da ez, ixildu. Bere eragin eta indar guzietatik idatzi zuen euskeraren kontra; bere lan guztietan sakabanatuta ditugu iskirioak eta irañak. Eta bere jarraile asko bide galgarri onetatik abiarazi zituela nola ukatu? Kalte egin zigun beraz bere jokabideak; baña kalte aundiagoa utzi digute euskerari buruzko bere lanak, euskal idazle asko okertu bai-dituzte.

Au guzia tristeia izanda ere, tristagarriago zaigu gaztetango bere jokaera jakitean.

Unamuno Bilbo´n jaio zanean euskeraz etzan an piitin bat baizik mintzatzen. Aro artan banaka batzuek kenduta gañerako guztiak erdaldunak ziran; baita gure Unamuno ere.

Eta zer egin zuen? Euskaraz Ikasi. Euskaldun berria degu ba Unamuno. Ta edozein izkuntza ikasi dutenak ondo daki artarako bear dan adorea.

Euskera maite izan zuen Unamuno´k, berak liburuetan esaten duen bezela. “Milla Olerki Eder” liburuan agertu da bere lanen bat. Ez nuke nik esango oso ona danik, ez; baña euskaldun berri batek egiñak dira, ta gauza bat erakusten dutelako aipatzen ditut emen: euskera maite izan zuela, ain zuzen.⁴⁵²

Honetaz gain, 1886 urtean, Diputazioko Euskal Katedra eskaini zenean Unamuno nola aurkeztu zen ere kontatzen digu Txillardegik: “Ez ori bakarrik. Geiago ere egin zuen Unamuno´k: euskeraz jabetu zan, eta Bizkaiko Diputazioko Euskal-Katadera esquin zanean, Unamuno joan zan azterketara. Ta irabazi tesuela jakiteak ez du ezer adierazten, Azkue´k kendu baitzion dalakoa.”⁴⁵³

⁴⁵¹ Txillardegiren hitzak erabiliko ditut modu oso argian laburtzen baititu Unamunoren Antropologiaren ideia nagusienak

⁴⁵² Txillardegi. *Unamuno Eragille*. In Egan 3/4-1957 zenbakia (1957ko maiatza-abuztua), 170-171 orr.

⁴⁵³ Ibid., 171 or.

Euskarari dagokionez, gainerontzean, bat nator Joxe Azurmendirekin. Izan ere, Txillardegi Unamunok euskararen inguruan argitara eman zuen tesiaren aspektu batzuekin bat ez etorri, Unamunok euskararen etorkizunari buruz zuen ikuspegia konpartituko du:

Txillardegi baitan hizkuntzaren esentzialismorik edo metafisikarik susmatu dutenek, momentuan horretarako eduki zitzaketen arrazoi edo interes polemistik aparte gauza bat oso nabarmena ahazten zuten: alegia, Txillardegiren pentsamendua zenbateraino zegoen oso-osorik existentzialismoak blaituta. Hizkuntzaren balorazio aipatua—arima bezala— oso Unamunorena da, besteak beste.

Euskararen bizitzari edo heriotzari buruz ere —harrigarriro!—, Unamunoren eran ikusten dugu erreakzionatzen Txillardegi, euskaltzaleen begitan Unamuno parte txarreko piztia zen garai batean. Arazo guztiaren funtsa —h. d., Euskal Herriaren bizitzaren gakoa— bere erradikaltasun guztian zertan datzan, Unamunok hobeto ikusi du abertzale askok baino: biziko da euskara, eta euskararekin Euskal Herria, ala euskarak hil egin beharko du eta Euskal Herriak beste zerbait bilakatu beharko du (Espainiaren eta gaztelaniazko kulturaren barruan)? Onerako ala txarrerako, Euskal Herriaren patuaren gakoa, Unamunorentzat ez dago dudarik, euskaran dago. Hor erabakitzen da euskal nazioaren zortea. Euskara, Euskal Herriari orain arte bizitza eta espiritua eman diona, hemendik aurrera gauza ez bada horretarako, hobe dugu lehenbailehen geuk hilarazi eta beste hizkuntza bat hartu bizitzeko: hori da Unamunoren tesia. Baina —funtsean— horixe da Txillardegiren tesia ere.⁴⁵⁴

Txillardegik Unamunok euskararekiko zuen jarrera azaldu ondoren, Unamunoren antropologiaren oinarritzko ideiak labur-labur azaltzera pasako da.

Unamunoren antropologiaren azterketarekin hasi aurretik, ordea, bizkaitar pentsalariaren ezaugarri nagusienak diren kontraesana eta “sistema falta” azpimarratzen dizkigu Txillardegik. Gai honi dagokionez, aitzitik, Unamunori dagokion atalean aztertu dugun moduan, kontraesanek eta sistema faltak ez dute esanahi Unamunorengan koherentziarik ematen ez denik, bere testuak zatika hartuz gero zentzurik ez izan arren, bere obrak osorik hartuta sistemagarriak baitira. Hau da, ontologia bat azaleratzen dute. Gai printzipala, beraz, kontraesanak alde batera utziaz, heriotzaren aurrean sortzen den larrimina izango da.

Baña Unamuno-ren liburuak ezagutzen zituena, ez da arritu. Iritzi ta aburu guziak arkitu ditezke aietan; une batean gauza baten alde ba dago, contra da geroxeago.

Auxe esaten zioten sarri bere contra zeuden askok: artikulu batean edozein joera defenditu ondoren, aurka jartzen zala urrengoan.

Unamunok alere etzuen onetaz jaramon aundirik egiten, ez baitzitzaion ardura bere buruaren aurka berbetan biurtzea.

⁴⁵⁴ Azurmendi, Joxe. *Txillardegiren saioa: hastapenen bila*. In: Jakin 114. zenbakia. 1999. 27 or.

Orregatik, bere idaz-lana zatika aztertzen ba da, fraseka esaterako, eroren batena ematen du. Ez bide-dago argan joerarik. Bañan erabat artuta, garbi nabarmentzen da eriotzaren larrimiñ etsia duela arizat.⁴⁵⁵

Txillardegiren ustez, planteamendu honen azpian Kierkegaarden “paradoxaren” eragina egongo da. Honela mintzo zaigu Txillardegi Kierkegaard eta Kierkegaarden “paradoxaren” ideiarenguruan.

Gañerantzean, izaeraz zetorkion nonbait joera au. Baña tinkatu egin zan gero bere pentsakeragatik. Paradoja maite zuen, eta au zitzaien argi-iturri bakarra: “Oi danez nabarmendu ez dan egia bat agertzen du paradopak”, esan oi zuen. Eta beste batean: “zentzu onaren lelakeria ta txepelkeriak sendatzeko, paradoja bezelako sendagarriarik ez dago.”

Kierkegaard'en eragiña agertzen zuen onetan. Eta horrela, bere alurria eta pentsamendua egokiturik, finkatu egin zan Unamuno logika gutxikoa, ia bere kontradizio edo aurkatasunak ugaritu.⁴⁵⁶

Kierkegaard aipatu det leen, eta bere “anaia Kierkegaard” berriz aipatu bearrean nago. Onengatixe Ikasi zuen danemarkeraz, eta gutxik bezala bere “anaia” orren filosofia ezagutu. Esistentzialismoa zer zan emen iñork etzekielarik, Dinamarca'ko izkuntza ikasi zuen Unamuno'k arek eraginda, ta aurrenik ezagutarazi zigun gero famatua izango zan Soren Kierkegaard. Bai jaunak: esistentzialista goiztarra degu Unamuno, esistentzialista aparta, primerakoa. Aita Sciacca'k ari buruz esan zuena gogoraziko dizuet: “Unamuno ta Kierkegaard dira esitentzialismoaren aintzindariak”⁴⁵⁷

Horrela, bada, bai Aita Sciacca-rentzat, bai Txillardegirentzat, Unamuno eta Kierkegaard existentzialismoaren aita pontekoak izango dira.

Unamunoren sistema falta eta Kierkegaarden eragina azaldu ondoren, orain bai, Unamunoren antropologiaren azterketa egitera pasako da Txillardegi.

Lehen puntua gizakiaren “larritasunari” eskaintzen dio.

a)Gizakia eta “larritasuna”

Unamunorentzat ordea, kezkabide gogorra da dena, ta larrimiñik gabe nola bizi ote daiteken ez du entenditzen. Zertarako gaude munduan? Zertarako jairo gera? Zertarako? Pentsatu egin dezakegu, miña sentitzen degu, zirion-egarriak zulatzen gaitu, ta galdetzen du: “Zer dala ta? Zerbait adierazten du onek guztiak.” Bost ajola zaio Unamuno'ri “jakitea” bera: gizona zertarako dan ez ba dakigu, ez dakigu ezer. Gizonarena ez beste danak sasi-jakintzak dira berarentzat: “Izpiritua azitzeko... Ez! Jakiteko jakin! Egiagatik egia!” Ori ez da gizonezkoa. “Eta geroxeago: “zertarako” bat billatu bear.” Au zan beti zerabillen galdera. Jakite utsal, esan degu, iguin ematen dio. Orobat ere metaphisikak; eta onetan Gide'kin bat dator.

⁴⁵⁵ Txillardegi. *Unamuno Eragille*. 171-172 orr.

⁴⁵⁶ Ibid., 172 or.

⁴⁵⁷ Idem.

Gizonaren auzia argitu nai du, ez besterik. Besteak ez dira izan ere, benetako auziak. “Nundik nator ni? Bizi naizen mundua nondik dator? Azi nauen mundua nundik? Eta nora noa ni? Inguratzen nauen guzia nora ote? Zer adierazten du onek? Elikatzeko bere bear aberekoietatik jareginda, auek dira gizonaren galderak. Eta, ondo begiratuki, galdera oien muiñean, gogo aundiagoa ikusiko degu “zertarako” ezagutzeko, “zergaitik” bat jakiteko baño. Ez degu karia bear, xedea baizik”.

Gizonaren betekizunak larritzen du Unamuno, ta gizonari dagokion eran argitu nai du: “Azur aragizko gizona da filosofoa, ta bera bezelako azur aragizko gizonai agertzen da. Nolanai ere, borondateaz filosofatzen du, sentimenaz, azur aragiaz, arima ta gorputz osoaz, eta gogamenaz bakarrik”.

Gizontasuna dario Unamuno’ri berak erderaz “hombredad” esango lukena. Gizona da albo guztietatik, gizonak sentitzen dituen kezkabide ta katramillak dira bere izkribuetako mamia, ta gizontasun orretzek unkitzen gaitu.⁴⁵⁸

Kezkabidea edo “larritasuna” sentitzea bizirik gaudenaren seinale izango da hortaz, eta Unamunoren pentsamendua landu dugunean ikusi dugun moduan, bakea heriotzaren irudikoa izango da. Horrela, bada, Txillardegik eta bizkaitar pentsalariak nahiago izango dute mina eta “larritasuna”, betirako “sentitze ustea” eta lasaitasuna baino. Larritasunaren ideiarekin batera, halaber, Unamunoren “gizatasuna” nabarmenduko du Txillardegik, bereziki, sufrimendua une oro presente duen hezur-haragizko gizabanakoarena.

b)Heriotza

Txillardegirentzat heriotza izango da Unamunoren gai nagusia; zehatzago esanda, heriotzaren aurrean sortzen den gatazka. Txillardegik adierazten digun moduan, alde batetik, heriotzaren aurrean behin hil eta gero bizitzen jarraitzeko nahia egongo da. Hau da, Unamunoren pentsamendua aztertu dugunean ikusiko dugun Spinozaren *Conatus*-a. Beste aldetik, ordea, arrazoia egongo da. Behin hil eta gero deus ere ez dagoela aditzera ematen diguna. Arrazoia, hortaz, bizitzaren etsai aurkezten zaigu eta bizitza, berriz, muturreko bi indar hauen arteko etengabeko gatazka gisa. Gatazka horren erdian, bestalde, hilezkortasun goseak bultzatuta, Jainkoaren beharra sortuko da. Fedea, beraz, ez da pentsametik datorren zerbait izango, nahimenetik sortua den zerbait baino. Hau da, gure borondatetik sortua. Horrela bada, “zerbaitegan sinestea” “zerbait hori” existitzen dela sinestea izango da eta, guziaren gainetik, Jainkoa egon dadila sinestea. Horrela, bada, ideia honi dagokionez, honako hau esango digu Txillardegi:

⁴⁵⁸ Ibid., 173-174 orr.

Badaki Unamuno'k eriotzak mugatzen duela; ta ilbearrak astintzen du. Ta Salamanca'ko zelai patsu zabaletara joaten danean, eriotzaz pentsatzen du, eriotzaren idea dauka lagun, bañan alperrik billatzen du osertzean. Noizbait bukatu bear, bearbada Argia arkitzeke amaitu bear... Beti bizi nai du, beti bizi bear du. Noiznai betirako il ditekela zalantzak larrimin betean dauka. "Ni mamitzen nauen gorputz au ilda-neure buruarekin ez nastutzeko "nerea" deitzen dedan orixe-ezerezero biurtzen ba naiz, eta nere anaia guziei alaber gertatzen ba zaie berenakin, mamu-illara beltza besterik ez da gure giza-leñu au, eta ezerezetik ezerezero goaz." Eta, beste batean: "Mendi nare berdea betestean, edo nere arimaren beste aizpa bat begi argietatik so egiten duela ikustean, biotza zabaltzen zait, arimaren taupada sentitzen det, eta bizi-giroaz ezaturik, nere etorkizunean sinisten det, baña, berealaxe, ezkutuaren abotsak susmur: "Akabatu egingo aiz!", eta eriotzaren aingeruak egoaz ikutzen nau.⁴⁵⁹

Ez dauka lasaitzerik. Billaka asten da, ta ez du arkitzen, gogamenak ez dio laguntzen, ez baitu onek ildakoaz besterik ulertzen. Eta gizonal bizi nai duen ezker nola lagundu diezaioke pentsamenak? "Illa bilatzen du pentsamenak, biziak igez egiten dio-ta..." "Zerbait ulertzeko, il egin bear du aurrenik, pentsamenean gogortu bear du."

Nola urratuko ba buruak gizonaren auzia? Bizitzaren etsai amorratua da pentsamena, ta eriotza bear du. Orregatik, bere bideeran aurrera sartuta zer arkitzen du Unamuno'k? Itxarokizunik ez dagüela. "Gogamenak, gizonaren pentsamenak, bere neurrian eta eran ba da ere, arima ilezkorra danik ez du probatzen, ezta enboretan zear kontzientzia edo oarmena ondatu-eziña danik ere; kontzientzia onek gorputzeko eriotzaren ondean irauterik ez daukala baizik. Beti, esana det, bere neurrian."

Etsipen gorriak iñarosten du ba: "Gauza edozein tokitatik ilusita, beti jartzen da burua gure illezkertasun-irrikaren aurka ta ukatu egiten digu. Izan ere, bizitzaren arerioa da-ta pentsamena."

Orra auzia: ez iltzeko esaten dio biotzak gau ta egun, bañan ez dakus biderik. Eta onetara ezker, larrimiñetik irteteko herejiaren bidetik egiten du. "Fedea ez da pentsamenetik datorren gauza, naimenetikoa baizik (gure borondatetik datorrena baizik). Sinistu nai izatea da sinistea, ta Jainkoa sinitu batez ere, eta guziaren gañetik, jainkoa izan dedilla nai izatea. Orrela arimaren illezkertasuna siñistea, illezkor dedilla nai izatea da; alabaña, ain gogor nai izan bear da, pentsamena zanpatu-ta bere gañetik pasa bear duela nai onek."

Eta zergaitik au guzia?

Biziak eskatzen duelako, biotz irrikak eskatzen duelako, ta eskatze au da biziaren mamia, ta ez arrazoia edo pentsamena. "Zuk, Spinozak, eta irurok ez degu beñere il nai, eta beñere ez iltzeko irritis auxe da gaurko fure izana." Baztertu egiten du arrazoia, ta ezertarako balio ez duela esaten du bein eta berriz. Jainkoaaganaño iristeko gauza ez da, bere ustez. Ona herejia. Alere iritis onek ez du betirako lasaitzen.

Bañan bere arima muñean bertan dauka Unamuno'k biotz ikara. Betirako ilko bagera, zertarako dana? Zertarako? Biotzak eskatu, ta buruak ezin eman. Ez al da au al danik eta ikaragarriena?

Noizpait bukatzeko gogaiak ba zearo larritzen du. Biotzak eskatu, ta buruak ezin eman. Ez al da au al danik era ikaragarriena?

⁴⁵⁹ Ibid., 174-175 orr.

c)Arrazoiaren eta fedearen arteko gatazka.

Arrazoiaren eta hilezkortasun gosearen gatazka hau etengabea izango da Unamunorengan eta ez da bi indarren arteko dialektikaren gainditze bat emango. Hiltzeak beldurra ematen dio Unamunori, baina betirako bizitzeak ere ikaratu egiten du. Hortaz, bakearen etsai izango da Unamuno. Nahiago du mina eta larridura sentitu, ezer ere sentitu baino, zeren eta azken finean mina eta larridura sentitzea bizirik dagoenaren seinale izango baita. Hona hemen zer dion Txillardegi honi buruz:

Ez dauka lasaitzerik. Billaka asten da, ta ez du arkitzen, gogamenak ez dio laguntzen, ez baitu onek ildakoaz besterik ulertzen. Eta gizonak bizi nai duen ezkeru nola lagundu diezaioke pentsamenak? “Illa bilatzen du pentsamenak, biziak igez egiten dio-ta...” “Zerbait ulertzeko, il egin bear du aurrenik, pentsamenean gogortu bear du.”

Nola urratuko ba buruak gizonaren auzia? Bizitzaren etsai amorratua da pentsamena, ta eriotza bear du. Orregatik, bere bideetan aurrera sartuta zer arkitzen du Unamuno´k? Itxarokizunik ez dagoela. “Gogamenak, gizonaren pentsamenak, bere neurrian eta eran ba da ere, arima ilezkorra danik ez du probatzen, ezta denboretan zear kontzientzia edo oarmena ondatu-eziña danik ere; kontzientzia onek gorputzeko eriotzaren ondoan irauterik ez daukala baizik. Beti, esana det, bere neurrian.”

Etsipen gorriak inarosten du ba: “Gauza edozein tokitatik ikusita, beti jartzen da burua gure illezkortasun-irrikaren aurka ta ukatu egiten digu. Izan ere, bizitzaren arerioa da-ta pentsamena.”

Orra auzia: ez iltzeko esaten dio biotzak gau ta egun, bañan ez dakus biderik. Eta onetara ezkeru, larrimiñetik irteteko herejiaren bidetik egiten du. “Fedea ez da pentsamenetik datorren gauza, naimenetikoa baizik (gure borondaketik datorrena baizik).”⁴⁶⁰

Bañan bere arima muñean bertan dauka Unamuno´k biotz ikara. Betirako ilko bagera, zertarako dana? Zertarako? Biotzak eskatu, ta buruak ezin eman. Ez al da au al danik eta ikaragarriena?

Noizpait bukatzeko gogaiak ba zearo larritzen du. Baña beti betirako bizitzeko ideak ere ez gutxiago: ta Kierkegaard´ekin dio: “Noizpait ilbearra izugarria ba-da ere, are izugarriagoa litzateke beñere ez iltzea.”

Ondorioz, Ez du gelditu nai, ez du iritxi nai, ez du pakerik nai, ez du gelditasunik nai. Eta bildurtuta ojuka: “Etzazue il denbora! Oroitzapen biurtzen ari da eten gabe gure biziera. Itxaropena da ta itxaropidea sortzen du. Utz gaitzazue bizitzen! Betikotasuna, betirako oraintasuna, oroitzapen eta itxarokizunik gabe, eriotza bera da.”⁴⁶¹

Unamunoren antropologiaren ideia nagusiak behin azaldu ondoren, artikulu honekin bukatzeko, Txillardegik Unamunok garai hartan zuen gaurkotasuna azpimarratzeaz gain, “indizean” sartzaren arrazoiez mintzatuko da eta, bide batez, garai hartako euskal gizarte kritikatuko du.

⁴⁶⁰ Ibid., 174

⁴⁶¹ Ibid.,175 or.

Unamuno ez ordea. Tai-gabe mintzatzen zaigu gure etorkizunaz, tai gabe bizitzaz, eta eriotzaz, tai-gabe gizonari dagozkion arloez. Beraz, gure giro txar onetan, jaso egiten gaitu, gu baño gorago bait dago. Ta alde onetatik, ezin uka dezake iñork oso oso egokia dala. Zuzpertz egiten digu biotza, piztu egiten gaita, urduri tusita. Lozorro ta gezurraren bidez lortuko ba-da pakea, ez du ezertarako nai: ta sasi-pake au iltzeko asmotan dio: “Pakea! Pakea! Pakea! Ala egiten dute korroka gure zingirako igel eta txauburu guziak”

Ortaz, ondo dago Unamuno´ren liburu okerrak kondenatzea. Onela, ba-daki irakurleak zer arriskutan sartu diteken irakurtzean, eta ba-dakike nora ez jo. Bañan, ori dala bide, bere liburu ta izkribu guziak baztertzea, jokaera kaltegarria irudituko litzaidake.

Batzutan herejea degu Unamuno, bai. Baña, zer dira inguratzen gaituzten gaikoi amurratu oiek? Zer dira lagun-urkoarekiko maitasunaz arrastorik ez dakitenak? Herejeak baño kondenagarriagoak ez al dira kristautasunarentzat? Gaur berekoikeria nagusi dala-ta, zer ote da txarrago?

“Españan ez dago herejerik -zioen Unamuno´k- federik ez dagoelako”. Eta ez al da egia?

Materialismoak josita gaude. Ta au galdetzen dizuet: Unamuno kaltegarri izan ba diteke, zer da gure giro gaikoi nazkagarri au?

Unamuno ezagutu duenak ez dauka aaztutzerik, eta ez dago geroztik txatxukeritan ibiltzerik. Arima-gosea ixiotzen du, dirukeria ondatzen du, ta berarieskerrak arkitu degu askok gure burua.

Eta au esanda, eskierki agintzen dizuet au, kontutan ar dezazuten: naiago dedala nik Unamuno eragillea, bere akatsak eta guzti, beñere kezkatu ez diran sasi zentzudun berekoi guziak baño.⁴⁶²

Txillardegik Unamunori buruz idatziko duen bigarren artikulua, bestalde, *Levi Strauss-ek Unamuno-rengana* izango da, 1965 urtean argitaratua. *Leturiaren egunkari ezkutua* argitaratu zela 8 urte pasa dira jada, baina oraindik ere Txillardegirengan Unamuno erreferente izaten jarraitzen du, ñabardura batzuekin ordea. Kasu honetan, Levi Strauss kontutan hartuta.

5.1.2. *Levi Strauss-ek Unamuno-rengana* (1965)⁴⁶³

Jose Luisek⁴⁶⁴, Igara izengoitia erabiliz, 1965.urtean *Levi Strauss-ek Unamuno-rengana* artikulua argitara eman zuen *Jakin* aldizkarian. Kasu honetan Txillardegik Mikel Lasak Zeruko Argian (115. zenbakian) idatzi zuen lanaren honako pasarte hau erabiliko du aitzakiatzat existentzialismoaren inguruan duen iritzia garatzeko:

«Ba dira gure artean, bere konbentuetako ikaskizunetan existentzialismoa azkenengo filosofi-bolada bezela ikasten duela ta, gaurko gizona larritasunez, angustia eta ezin-egonaren pean bizi dela uste dutenak. Baiñan egia oso besterik da.

⁴⁶² Ibid., 177 or.

⁴⁶³ Igara. *Levi Strauss-ek Unamuno-rengana*. In: *Jakin*, Arantzazu, Editorial Franciscana, 19. Zenb. (mai. 1965), 6-15 orr

⁴⁶⁴ Igara izengoitia erabili arren Txillardegi izengoitia erabiliko dugu artikulua hau aipatzen dugun baikoitzean; batez ere, izengoitiek nahasterik egon ez dadin.

Gaurko gizonak ez du larritasunik sentitzen, ez du tragedia ezagutzen. Bearbada mundua mundu danetik ez da gizona paradisetik ain urbil sentitu. Ba dirudi Sisifo'k azkenengo aldiz aldapa gaindu duela, ez dela aurrerakoan eroriko».

(Mikel Lasak, 115 gn. Z. Argian)

Txillardegik, Mikel Lasaren lerroalde hau irakurtzean, Lasak existentzialismoa ez duela garaiko isla gisa ikusten ondorioztatuko du eta, ez hori bakarrik, garai hartako nahasbide moduan deskribatuko du existentzialismoa. Txillardegik pentsa dezakegun bezala ez du ideia honekin bat egingo. Hargatik, Lasaren ikuspegia kritikatzu hasiera emango dio *Levi Strauss-ek Unamuno-rengana* deritzan artikuluari.

Ez, nere ustez. Lasa adiskidearen izkribuak gogotik irakurri ohi ditut: luma gazteen artean, berea zait trebeenetako bat. Bere ideiarik gehienak ere, eskuarki onar nitzake.

Goiko puntu hortan, ordea, ezin natorke bat.

Gure mendea, nere ustez, barne-asalduz eta bihotz-larritasunez ittota dago. Nabarmen agertu da hau oraingo filosofian, literaturan eta artean. Heidegger, Kafka eta Picasso ez dira ustekabeen bateratu, aria sakonik gabe: funtsezko zerbaiten esale jator eta egiazko izan diran neurrian dirudite alkar. Sustraietan daude alkar-harturik.

Egia esan -eta hau Lasak berak garbi lizaiguke ongienik bere iritzia xehero argituz-artikuluaren egilleak berak ez du zin-zinez esandakoa sinisten⁴⁶⁵

Txillardegiren ustez, gaur egungo gizartearen eredu gisa “amerikar irribarre” zozoaren mitoa, paradisia eta *Koka-Kola* saldu nahi diren gizarte honetan, existentzialismoa eta Sartre edo Jaspers bezalako pentsalariak errotat hartuak dira. Txillardegi Lasak azaltzen digun munduaren eta gizakiaren ikuspegi baikor horrekin ez da bat etorriko. Hargatik, ideia horren aurka altxatuko da, eta horretarako, garai artako gizartearen erradiografia egingo digu Txillardegik:

Nola konpreni, ordea, gure gizartean gero eta ero gehiago izatea? Estadistikak aztertzea besterik ez dago: gero eta burutik egindako gehiago, gero eta adimenduz eri ugariago. Ez da bau gizartearen oreka irribarretsu horren alde mintzo ...

Gure mendeko jendea egarri da, barneko pakea behin ere baiño galduago du; eta hauxe adierazten digute hatera bai artearen eta bai Zientziaren beraren joerek.

Barne-asaldu horren emagarria erlijioa baita, biek eman dezateke fenomenuaren neurria.

Munduarekiko etsipenak, norarik gabeko zorabioak oro, eta herio hortan hozitu ohi dan absolutuaren kezka, ordea, axaleko itxurak zenbait aldiz besterik gogorazi arren, gure mendean eta gure gizartean larridura kosmikoak bizi-bizirik eta zindo baiño zindoago dirauela erakusten dute⁴⁶⁶.

Horrela, bada, Txillardegiren ustez beti ere, positibismoa eta arrazoia gidari den mende honetan, arrazoi hotzaren atzamarretatik ihes egin nahi duten jarrerek gero eta presentzia handiagoa dute.

⁴⁶⁵ Ibid., 6-7 orr.

⁴⁶⁶ Ibid., 7 or.

Positibismotik eta arrazoin-bide hotzetatik aldegin nahi bizi hori, beste mailla batzutan ere agertzen da. Arrazoiña omen da gidari gure mendeko gizartean; baiñan hau ez da egia. Galdegin dezagun zein liburu irakurtzen dan gehienik, edo zein astekari gehienik saltzen, edo-ta zenbat aldizkari argitaratzen dan astrologiaz eta «jakintza izkutuez». Txundituta geldituko giñake!⁴⁶⁷

Zientzialarien iritziz, ordea, gure gizartea ez da horrenbeste aldatu. Hala, gaur egungo giza-pentsaerak (ez ahaztu 60. hamarkadan gaudela) bi ildo nagusitan berezituak izango dira; bata “arkaiko” gisa definitua dena; eta bestea, “positiboa”. Ikuspegi hau garatzerako orduan, bestalde, Txillardegik zientzialari eta filosofo batzuk hartuko ditu erreferentzi gisa:

Mende huntan Zientzian eta Filosofian berriera eta aldakuntza funtsezko batzuk gertatu dira: Einstein, Heisenberg, Freud, Husserl, Heidegger, Teilhard de Chardin. Baiña beste jakintza-sail batean ere; orain arte gutxiago ezagutzen dan beste aldakuntza sakon eta oiñarrizko bat hasi da. Ez, nik uste, gorago aipatutako horiek ekarri dutena baiño apalago halere.

Larriz, Lévy-Bruhl'ek eman zion abiada pentsakera-bideen azterketa horri; eta Jung'ek, Eliade'k eta Lévy-Strauss'ek ekin diote gero.

Erreboluzio hori soziolojiaren eta psikologiaren muga gertatzen ari da; eta gizonari buruz ekar ditzakean ondoreak ez dira oraindik guztiz garbiki agertu. Urratu berriak dira bideak; eta pentsatzaille horien liburuen salera errazak erakusten du ongi, jende ikasien interesa eskualde horietan dagoela egun! ...⁴⁶⁸

Txillardegik autore hauen artean azkeneko taldeari eskainiko dio artikulua zati handi bat, hain zuzen ere, Lévy-Bruhl-ekin hasi eta Jung-ek, Eliade-k eta Lévy-Straussek garatu zuten pentsamoldeari. Pentsalari hauen artean baina bi izango dira Txillardegik nabarmenduko dituen autoreak: Lévy-Bruhl eta Lévy-Strauss. Lévy-Bruhli buruz honako hau esango digu Txillardegik:

Zertan datza Lévy-Bruhl'en pentsaera-astindua? Huntantxe: gizonak bi eratara «pentsatzen» du.

Gizonak zientziaren arabera pentsa dezake, enpirismoari hertsiki lotua; baiña, betidanik ere (eta gaurtxe ere bai geure artean, kasu!) pentsakera arkaikoaren arabera pentsa dezake: enpirismo-mota guztietatik at, bere baitatik intuizioz gauzei erasten dien sentidu baten arabera, mitoren bidez, «partizipazioz».

Pentsakera arkaikoak (guziok: melanesiatarrek eta geurk europarrok dugunak, berriz diot) ez ditu subjetoa eta objektua berezten: «dalakoan» «dalako» egiten du, adimendutik eta sendimendutik datozkion burutazioak parean ezartzen.

Pentsakera positiboak, aldiz, berezi egiten ditu. Eta berezte haxe da pentsakera positiboaren ezagugarri nagusia: sendimenaren nahikundeak hozki alde bat utzi, eta adimenak garbiki ulertarazten dionaz kanpo deus ere ez entzutea.

Pentsakera arkaikoak bihotzaren arabera aztertuz, kasik bihozkadaz jokatuz, sentidu bat agerrarazten du munduan eta bizian: mundua mundu dan ezkerotik, azalpen guztizko baten egarriak hilduratu du gizona; hortan egon da erlijioen eta mitolojia guzien kakoa: adimenduak atxeman ezin dezakean ulerbidea eman, lojikatik landa emanik ere.

⁴⁶⁷ Ibid., 9 or.

⁴⁶⁸ Ibid., 9-10 orr.

Pentsakera positiboak, aldiz, ez-entzuna egiten die bihotzaren dei guziei; eta, hotz eta latz, froga ditekeanari baizik ez dio begiratzten.

Pentsakera arkaikoa, bizi eta nortu egiten dan mistikaz elikatzen da, mistikari dagokiona da bere funtsezko izaera; pentsakera positiboa, berriz, beti arrotz egoten dan ideiaz, eta ulertu baizik egiten ez dan zientziaz, Zientzian ez dago hortzerik, ez dago «partizipazio»rik, ez dago parte hartzerik, Ez dago mistikazko hartu-emanik. Mistikan ez dago silojismorik.⁴⁶⁹

Giza pentsaera arkaikoak, beraz, ez ditu subjektua eta objektua bereizten. Izan ere, adimendutik eta sentimendutik datozen pentsamenduak pareko jartzen ditu. Positibismoak, aldiz, sentimenduak alde batera utzi eta guztia arrazoiaren eremura mugatzea izango du xede.

Hori dela eta, Txillardegirentzat (Unamunorentzat eta Kierkegaardentzat ere) mitologia eta erlijioa arrazoiaren bidez antzeman ezin daitezkeenez gero, gai hauen inguruan sortzen zaizkion dudak asetzeko orduan “pentsamendu arkaikoaren” beharra izango du gizakiak. “Pentsamendu arkaikoaren” izaera, beraz, mistikarena izango da.

Lévy-Brhulek, bere *hasierako planteamenduetan*, “pentsamendu arkaikoa” herrialde atzeratuetan aurkitzen zela aditzera ematen zigun. “Pentsamendu positibista”, aldiz, herrialde garatuetan. Txillardegik baieztapen hau larrizat joko du, zeren adierazpen hauen arabera herrialde aurreratuetan “pentsamendu arkaikoa” erabat itzalia dagoela ondorioztatzera garamatza. Bi pentsamolde al daude hortaz? Pentsamoldea fase kontua al da? Mitoak, erlijioa eta metafisika (ez dugu ahaztu behar Txillardegik metafisikaren ikuspegi arrazionalisten aurka egongo dela) “arkaismo hutsak” al dira?

Txillardegik ez du artikulu honetan Lévy-Brhulenen pentsamendu osoaren garapena egingo, baina Lévy-Brhulenen pentsamenduaren *azken ondorioak* azpimarratuko ditu. Hasieran planteatzen zuen ikuspegiarekin alderatuz ñabardura batzuk izango dituen alegia. «gizonaren izpirituaren lojika-moldea edo estruktura, bat eta berdiña da leku guzietan eta ezagutzen ditugun gizarte guzietan».⁴⁷⁰

Txillardegi, hortaz, nahiz eta Bruhl-enen bi pentsamoldeen arteko bereizketarekin bat etorri, mito egilearen eta artearen elikagai den “pentsamolde arkaikoak” gaur egungo gizartean bere presentzia izaten jarraitzen duela baieztatzera iritsiko da. Ideia hau

⁴⁶⁹ Ibid., 10-11 orr.

⁴⁷⁰ Ibid., 12 or.

indartzeko Txillardegik Lévy-Straussekin “pentsamendu arkaikoaren” inguruan duen ideia azpimarratuko digu:

Zer dio Lévy-Strauss'ek pentsakera arkaiko hortaz? Bere iritzia jakingarria da. Lévy-Bruhl'engandik beste muturreraino doala esan ditekete... Baiña, berbera goragotik esateko!

Pentsakera arkaiko bat ba dago, dio; baiña gizon arkaikorik ez. «Arkaismoaren lillura» salatzen du Lévy-Bruhl'engan, Alegia: zibilizazioan eta zibilizaziotik at, herri atzeratueta eta herri aurreratueta, gizona beti da bat, beti berbera; eta pentsakera arkaikoa beti ari danetan.

Are gehiago. Itxura diferentetan, eta jazkera desberdiñetan, soziologi-giro bestelakotan, gizonak beti eman die bere barne-katramillei soluzio-multzo bakar bat, aldaketa gutxirekin.

Benetan diferenterik eta harrigarrikerik, gizonak ez du gauza haundirik asmatu. Azalpenen barne-moldea edo estruktura aztertu ezker (alkarrekin azalpen guziak hartuz, eta ez banaka edo bakarka) funtsezko azalpen-estruturak bakan batzuk daudela kausitzen da. Mitolojia estruktura eredu batzuk atxeman ditezke; ez milla. Ez problemak bakarrik, beraz. Soluzioak ere gutxi dira. Pentsakera arkaikoak beti ikusi uste izan du gauza bera mundua azaltzekotan.

Zibilizazio guzietan (zibilizazio «hotzetan» eta zibilizazio «beroetan»), gizonaren ekintzaren balioan siñisten ez duten eta siñisten duten zibilizazioetan, beraz) mito-multzo eta siñiste-sistema berberak erreparatzen dira. Estruturak bera behin eta berriz ematen da, anitz koloretan diximulaturik.

Barka bekita Jung'en hitz bat erabiltzea Lévy-Strauss'en teoria agerrarazi nahi huntan: gizadiak, glzonek, beren inkornzientean izkutaturik daramaten «arketipo» bat jantziz eratu dituzte betidanik munduaren funtsezko teoriak.

Laburbilduz, Lévy-Straussentzat “pentsamendu arkaikoaren” programa badago, baina gizon arkaikorik ez da existitzen. Herrialde atzeratueta nahiz aurreratueta gizakia bera da. Ondorioz, gizaki guztiengan presente dagoen elementu bat izango da “pentsamendu arkaikoa”.

Gauzak honela, gizakiek itxura edo jazkera ezberdinak izan arren, hots, giro soziologiko ezberdinekoak izan arren, barne gatazkei edo arazoei antzeko erantzunak ematen dizkie; eta azalpenen barne moldea kontutan hartzen badugu, oinarrizko azalpen-estruturak bakan batzuk daudela ondorioztatzen iristen gara.

Baina zeintzuk dira arrazionalismoaren aurrean gizakiak dituen oinarrizko azalpen-estruturak hauek?⁴⁷¹

Arrazionalismoak, jakiña da, ez du enpirismotik at datorrenik ezer aintzakotzat hartu nahi. Ikus ezin diteketeana, begiez edo fotografia-tresnez ikus ezin diteketeana, nolapait bederen zentzuen bidez adi ezin diteketeana, izan ez da. Ez dago arimarik, beraz, ez dago Jainkoa, ez dago metafisikaririk. XIXgn. mendea positibista izan zan; eta XXgn. ere ez oso bestelako.

⁴⁷¹ Ibid., 12-13 orr.

Arrazionalismoak ukatu egiten du arras pentsakera arkaikoaren jokabidea; plano bera ukatzen duo Erlijioak eta mitoak mailla berean jartzen ditu, berdin jotzen oitza eta majia, metafisika eta zentauroen siñistea, Ozeania'ko «mana» eta kristauen grazia: danak zaku berean ezartzen, danak aditu-eziñak, ezin neurtuzkoak, eta ezin frogatzekoak zaizkiolako. Mito dira beraz; ipui, alegia huts eta alfer. Hitz batez: arrazionalismoak pentsakera arkaikoa bera ukatzen du, «gizonarengan dagoen gauzarik aldakaitzena» (Lévy-Bruhl).

Hori obratu dan momentutik beretik, gizonaren pentsakera arkaikoa, betiereko habe nagusi eta jakinbide izan bada ere, ukatua eta baztertua izan da.⁴⁷²

Txillardegiren iritziz, arrazionalismoak enpiriaren eta logikaren bidez deduzitu ezin daitezken elementu guztiak zaku berean sartuko ditu. Hala nola, erlijioa, mitoa, metafisika, kristau grazia eta abar. eta, ez hori bakarrik, “pentsamendu arkaikoarekin” identifikatzen direnez gero (Levy-Bruhn) ukatu egingo ditu (nahiz eta “pentsamendu arkaikoa” gizakiaren baitan beti egon).

Hala, bada, arrazionalismoaren jarrera honen kritika gisa eta “pentsamendu arkaikoak” gizakiaren barne gatazkaren aurrean izan duen protagonismoa berreskuratze aldera, existentzialismoa sortu dela esango digu Txillardegik. Hona hemen zer dioen Txillardegik honi buruz:

Etsistentzialismoa ez da kasketa bat. Etsistentzialismoa ez da, hain zuzen, sekulan suntsituko. Pentsakera positiboaren ukoa baita etsistentzialismoa, eta pentsakera arkaikoaren abotsa.⁴⁷³

[...]. Gu gizonok deserriturik gaude galaxietako errauts-ale galdu batetan. Izartegi osoa lokamuts hutsa da. Ezerk ez du sentidurik ... Eta oihuka ditugu hortantsu Kierkegaard, Heidegger, Sartre eta Kafka.

Bigarren ikusera hunek uzten dituen larridurak, ezin-egonak eta barne-egarriak, lojikari uko, eta pentsakera arkaikoaren intuizioetara eta jakintza-bideetara eramaten dute. Hasiak dira eramaten!

Hortan gera nik uste, Lasa adiskidea.

Parabisutik hurbil? Ez dut uste.

Bere buruaren kontra ari da gizona. Eta, horregatik, .bihotzean hiltzaturik darama, behin ere baiño mingarriago, gizatar kez karen ezpata zorrotza.⁴⁷⁴

Levi-Strauss-ek Unamuno-rengana artikulua nongandik norakoa azaldu ondoren joan gaitezen Unamunori erreferentzia egiten dion Txillardegiren hirugarren lana aztertzeraz.

⁴⁷² Ibid., 13-14 orr.

⁴⁷³ Ibid., 14 orr.

⁴⁷⁴ Ibid., 15 orr.

5.1.3. *Unamuno ala Jammes?* (1966) ⁴⁷⁵

Artikulu hau idazterako orduan, *Levi Strauss-ek Unamuno-rengana* lanean egin zuen bezalaxe, Jose Luisek Igara izengoitia erabiliko du. Guretzat, ordea, gaizki ulerturik ez egoteko, Txillardegi izengoitia erabiliko dugu.

Kasu honetan artikulu hau idazterako orduan, Txillardegik Isidoro Fagoagaren *El Diálogo Imposible* idazlana izango du aitzakiatzat.

Txillardegi Fagoagarekin bat etorriko da Unamunok eta Jammes-ek ez dutela elkarren artean zerikusik esaten duenean. Alta, Txillardegik ez digu zehazten Fagoaga nola iritsi den ondorio horretara. Hau da, ez dakigu Unamunoren eta Jammesen arteko erkaketa erlijioaren edo literaturaren ikuspegitik eгина den. Izan ere, Jammes idazle izateaz gain erlijiosoa ere izan zen.

Txillardegiri hasiera-hasieratik ez zaizkio batere gustatuko Jammes-en lanak, bereziki, euskaldunak bere lanetan nola irudikatzen zituen ikusita (Txillardegirentzat Jammesek euskaldunak “turismoko bitxikeri” gisa ikusten baitzituen eta “jauntxokiro mespretxatzen”...)

(..)Jammes ez. Hunekin ezintasun guztizkoa. Francis Jammes gogaikarri izan zitzaidan, faltsu, arras pikuan ari, guztiz Euskal Herri'tik urrun (Loti eta Peyré, Trueba eta Zunzunegi, sail ederra dugu!). Hazparne'ko bere jauregia, eta herrian oraindik ere gelditu dan jauntasun-aztarna, neuk neure begiez ezagaturik, hobeki ulertu dut: Jammes Hazparne'ko jauntxoa zan. Urbil bizi izanik ere, urrun bizi. Euskal Herri'ko geografia maite izanik ere, Euskal Herri'ko jendea nagusiro eta jauntxokiro mespretxatuz. Jammes'entzat gu turismoko bitxikeria giñan. ⁴⁷⁶

Unamunori buruz duen iritzia, aitzitik, bestelakoa izango da.

Nor zan kontrako nere joera sakon horien eragille eta errudun nagusia? Bilbotar famatu bat zalantzarik gabe: Ronda-kalean sortutako gure Unamuno. Ikasle nintzan garai hartan Bilbo'n, eta, bata bestearen ondoan, Unamuno'ren lanak irakurri ohi nituen. Horrela itsatsi ziran nigan bizkaitar «olerkari filosofo»aren ideiak. Eta horrengatik, gizonaren barne-sukarra eta gogo-zorabioa egiazkoegiak zitzaizkidan, gure herriaren zoria txantxetan, kontrabando-ohitura baten gisa, edo folklore-estakurutan edo sasi-olerkigintzan lardaskatua eta xahutua onartzeko.

⁴⁷⁵Igara (Txillardegi). *Unamuno ala Jammes?* In: Jakin, Aranzazu: Editorial Franciscana, 10. urtea, 21. Zenb. (1-1966), 81-84 orr.

⁴⁷⁶ Ibid., 82 or.

Nork uka dezake, ordea, xerukeriarik gabe, bigunkeria guzietatik urruti baiño urrutiago, Unamuno olerkari eta idazle aparta datiik?⁴⁷⁷

Txillardegi ez da bat etorriko Fagoagarekin Unamuno eta Jammes maila berdinean jartzen dituenen. Unamuno Jammes baino sakonagoa dela irudituko zaio Txillardegiri. Haatik, Unamuno garai hartan euskal errealitatearengandik gertuago dagoenaren ideia defendatuko du Txillardegik.

Fagoaga'k haunditzat hartzen ditu biak, batari mesede eta besterai laido egiñez; Zumalakarregi eta Erasoparean jarriaz gertatuko litzakean bezela.

Unamuno sakona dalako, gizatarra dalako, eta egiazko olerkitasuna senditzen eta sendiarazten dakielako, idazle eta olerkari haundia da. Baiña bizkaitarra, bestelakoa izareaz gain ere, biarnotarra baiño milla aldiz gorago da nere ustez. Zeren-eta Olerkia Egiak egiten baitu; eta ez belaskeriak edo egiarik ezak, Fagoaga'k ez du hau esaten; baiñan esan egin behar zuen, nere ustez. Idazleak eskubiderik ahaldu herritik eta gizonarengandik aldegitiko, eta ametsetan gerizatzeko?⁴⁷⁸

Azaleratu berri dugun ideia hau argumentatzerako orduan, halaber, olerkiaren, idazlearen eta, oro har, literaturaren betekizunaz arituko da Txillardegi.

Zer da Olerkia? Zer da idazle bat? Zein da Literaturaren betekizuna? Kalkoa hortan da.

Korapillo hori ezin diteke hitz gutxitan aska: Idazle batek bere burua sartu behar ahal du munduan, ala pikuan bizi diteke “Olerkia» eta «Literatura» egiteko?

Erantzuna garbia da nere ustez: Unamuno, ez Jammes.

Olerkia eta arinkeria, Literatura eta xerukeria: idazkintza eta ameskeria, ez dira bat, ez datzezko alkarri, ez dira soin bereko haragi eta hezur.⁴⁷⁹

Horrela, bada, Txillardegiren iritziz, benetako idazle bat busti egin behar da, bizi duen errealitatean sartu. Herriaz, gizakiaz, bizi duenaz hitz egin behar du eta ez ametsen eta irudimenaren mundua murgildu. Txillardegik Jammes burgestzat hartzen du eta Txillardegirentzat “kaskarinkeria” eta “burgesia” ezin daitezke olerki iturri sekulan izan:

Jammes, beraz, ongiegi hartu du Fagoaga'k bere artikuluan, bien artean irakurleak prestuki bata ala bestea berdin aukera ahal balezake bezela. Kaskarinkeria eta burgeskena ezin ditezke olerki-iturritzat eta filosofiatzat har (hedonismoa eta olerkia nahasi gabe bederen).

Jammes idaz-lanetan ez dago gizatar egarririk, ez dago surik, ez dago arimarik: nik behintzat ez ditu arsa aurkitu, Bere zuhaitzek berek ez dute lurrean sustrairik. Bere euskaldunak ez dira turistentzako jauzkari mordo bat baizik: koloreztatuago eta hobe! Bere Euskal Herriak, bere Biarno'k, bere Ortheze'k berak, ez dute zaiñik. Bere sorkurek oro ez dute gizatar giharrik. Mundutik at bizi dan haundiki baten amets zonzok baiño ez dira; edo ez zaizkit neri.

⁴⁷⁷ Ibid., 81 or.

⁴⁷⁸ Ibid., 82-83 orr.

⁴⁷⁹ Ibid., 83 or.

Unamuno'ren izkribuenak ez. Unamuno'ren sorkariak eta giza-kezkak, geureak dira; bere Euskal Herria, gaztetan gerra ondoan ezagutu zuena batez ere, geuk ezagutu duguna da, zoritxarrez, bere bidearekiko itsutua.

Unamuno gure etsai amorratua danean ere (eta gehiegitan dugu etsai, ondikotz!), geurea da, Baroja bezela; eta bere odolak daramazkien berotasuna eta ukoa, gure herri gizajoak eta gizadi osoak pairamendu eta sofrikario ikaragarritan zehar mamitu eta bildu dituen egia latzak baizik ez dira.⁴⁸⁰

Idazlearen betebeharra, hortaz, “egia” zerbitzatzea izango da. Eta “egiaren” parte handi bat gizakiaren larrimina eta norabiderik eza denez gero, Unamuno eta Sartre (idazle existenzialistak orokorrean), garai hartan kritikatuak izan⁴⁸¹ arren, benetako idazletzat hartuko ditu Txillardegik. Horrenbestez, “Literatura eta Politika, Egia eta Ekintza: ez dira gauza bera; ez dira aisa ezkontzen. Hau ongi dakite egiazko intelektualek”⁴⁸² esango digu Txillardegik. Kasu honetan, ordea, Txillardegiren iritziz beti ere, Unamunok lortzen du erabateko uztartzeko hau bere lanetan.

Literatura eta Politika, Egia eta Ekintza: ez dira gauza bera; ez dira aisa ezkontzen. Hau ongi dakite egiazko intelektualek. Ezin ezkontaraztetik, milla ka tramilla datoz. Beste hainbeste Egia ezin obratzetik eta ezin aurkitzetik beretik ere. Zer predika? Zer egin?

Ipuiei eta sasi-olerkitasunei uko egiteko bertute izar behar da. Eta hortan, iruditzen zait, Unamuno'ren aurrean kendu behar dugu txapela.⁴⁸³

Txillardegik Unamunori buruz idatzitako artikuluak aztertu ondoren joan gaitzen Kierkegaarden eragina Txillardegirengan aztertzeraz.

⁴⁸⁰ Ibid., 83 or.

⁴⁸¹ Kasu, halere. Mutur batetik bestera igarotzea errea baita.

Etsistenzialisten kontra, «ezker» (?) aldetik batzutan egiten diran maiseoak ez dira oso bidezkoak izaten. Ilya Ehrenbourg'en ustez, esate baterako (P. C.-aren zerbitzari leial beti), etsistenzialisten larrimiña (eta «El Sentimiento Trágico de la Vida»ren hestuasunak, beraz) ez dira burgeskeriaren hondakiñak baizik. Ehrenbourg'ek dionez, «sozialismo»an ez da horrelakorik senditzen: ustelkeria horiek amaitu egin dira ... Eskuiñaren muturrean, aldiz, Robbes Grillet (Robbes Grillet eskuiñean, bai, berak oso aurrerakoitzat bere burua hartu arren). Literatura eta Politika guztiz berezi behar dira. Hau egiñaz noski, burgeskeria guzien jopu billakatzen da. Hitzek ez badute fitsik esan behar, idazleak ez badu ezer esan behar ... ixil bedi!

Zaillago da, esate baterako, Sartre'ren jokabideari eustea. Fedea elizkeriarik gabe, ekintza itsukeriarik gabe. Zaillago eta xuxenago hargatixek. Nola joka? Etsai askoren kontra: «toutes les Eglises nous repoussent et nous excommunient». Unamuno'k ere hori zion: «no me clasificuéis».

Idazlearen bidea hori da: zernahi gostarik ere, Egia zerbitzatzea. Eta Egia hortan, gizonaren norarik-ezari eta larrimiñari parte handi bat dagokio. Funtsean ez dira Sartre eta Unamuno alkargandik hain urrun. Ibid., 84 or.

⁴⁸² Ibid., 84 or.

⁴⁸³ Idem.

5.2. KIERKEGAARDEN ERAGINA TXILLARDEGIRENGAN

5.2.1. "Kierkegaard-en hazia Unamuno-gan lore"

Gai honen inguruan ez dago apenaz ezer idatzirik. Halaber, ezin dezakegu ukatu, Joxe Azurmendik 1965. urtean *Jakin*-en argitaratu zuen *Jainkoaren billa* eta *Kierkegaard-en «egunkari ezkutua» (2000)*⁴⁸⁴ lagungarriak suertatu ez direnik.

Honako hau dio Joxek Kierkegaarden pentsamenduak Txillardegirengan izan duen presentziari buruz hitz egiten duenean: "Kierkegaard-en eragina Txillardegirengan, batetik zuzenekoa da (berak aitortua), bestetik Unamuno-ren bitartezkoa (daniarra baita Unamuno-rengan eraginik handiena izan duen autorea) eta existentzialista frantsesen bitartezkoa."⁴⁸⁵

Txillardegiren hastapenez hitz egiten denean, aitzitik, gehien aipatu den lana *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957) izan da eta existentzialismoak honengan izan duen eragina. Ez dugu ahaztu behar, ordea, Txillardegik *Leturia* idatzi aurretik ere existentzialismoaren eragitea oso presente egon zela bere argitalpenetan.

Gai honi buruzko aurreneko erreferentzia *Oargui sariketaren* inguruan sortu zen gaizki ulertuan ikusi dezakegu. Honela jasotzen du Joxe Azurmendik gertakari hau *Kierkegaard-en «egunkari ezkutua»-n*.

"Txillardegi idazlearen hastapenei buruz badago nahasketa txiki bat. [Pruden Gartzia-k badu arazo honetaz informazio gehiago biltzeko gune bat Interneten: <http://www.egroups.com/group/euskaraz/567.html?>⁴⁸⁶ - Garrantzizkoa litzateke, Oargui-ren artxiboen berri norbaitek eman ahal izango balu] Euskal Herria helburu liburuan (141 or.) Txillardegik berak, bere aurreneko idazlan gisa, "Kierkegaard-en hazia Unamuno-gan lore" aipatzen du, bere ustean 1955ekoa, Oargui-k saritua. Baina titulu horrekin Oargui-k saritu idazlanaren autorea, izatez, Berasaluze-tar Sabin Arantzazukoa izan zen; eta in Euzko Gogoa, ilbeltza otsaila, 1956, 109-111, irakur daiteke, Txillardegik galdutzat ematen duen lantxo.⁴⁸⁷ Ekibokazio bat izanik ere, guretzat interesgarria da, jada

⁴⁸⁴ Azurmendi, Joxe. *Kierkegaard-en «egunkari ezkutua»* In: AA.VV. *Txillardegi lagun giroan/ Udako Euskal Unibertsitatea*, Bilbo: 2000.

⁴⁸⁵ Ibid., 122 or.

⁴⁸⁶ Gaur egun ez dago lotura hau interneten. Azkenengo aldiz, 2015ko abuztuaren 23an kontsultatua.

⁴⁸⁷ Kierkegaard'en azia Unamuno'gan lore

urte haietan Txillardegi Kierkegaard-ekin zebilela, esan nahi baitu, bero-bero gainera. Izan ere, K. Mitxelena-k hau dio Leturia-ren "Sarrera hitz batzu" lanean: "Ona nola ezagutu nuen [Tx.]. Saribanaketa batean zen, eta sarituetako lan batek etzuen oso ongi artzen norbaiten filosofia: Kant-ena ala existenzialistena zen, enaiz oroitzen. Dena dela, an altxa zitzaigun Txillardegi. Laburki eta funtsez adierazi zigun etzuela ontzat artzen sarituaren iritzia, baita zergatik etzuen artzen ere". Zorionez, Mitxelena-k ahaztuxea zuen pasadizoa, E'tar Y-k [Yon Etxaide] ederki jaso dago Egan-en (1/2, 1955,64): "Oargui-ko [bigarren] jaialdiaren amaigarri esan dezagun solasaldi politik sortu zela "existenzialismoari" buruz Txillardegi ta Mitxelena jaunen artean. Txillardegi ez genuen konforme sari-irabazlearen iritziarekin existenzialistai buruz eta Mitxelenak agindu zion Txillardegi gazte pizkorrari Berasaluzeren oker-usteak zuzenduz lanik egiten

Kierkegaard-gandik zuzen-zuzen Unamuno-gana elduko zarie, baiña ez lenago Nietzsche-gan oztopo egin barik. Arnasa batek eusten ditu, ta bizi-minik gorienak itsatsirik daroetz irurok biotz-barne sakonenean. Atzerritar biak gaurkoz alde batera itxita, zerbait esan dagigun, laburki, odol-ani dugun bizkaitarrari buruz. Errazoiaren argia, ta betikotasunaren biotzleia burrukan, ona emen, labur baiño laburragotan, Unamunok darabillaren philosophi-muiña. Biotza betikotasun-eske, «eztut nai il, ez; ezta nai-bere eztut nai; beti izan dut, beti, ta «neu» izanbere, ementxe ta oraintxe nagoan gaixo au...» (1) Eta beste aldetik buruak, eriotz-ostean, «ezerez» izango dala... Burrukaren gorria! Beti-izan-naia alde batetik, ezereza bestetik! Gizon gitxi arkituko dira munduan Unamuno-ren antzera illezkortasun-egarriak astinduta.

Zelan aizatu aurkako diran sentimentu orreek? Aizatu ez-baiña, bere biotzaren bizi egiten ditu Unamunok leia zorrotz oneek, euren astinketan sarninduta bizi izateko. «Biotzagaz gauza bat, eta aurkakoa buruarekin diñoan gizona naz», idatzi eban bein bere buruaz.

Beste toki baten, zera diñosku: Alper alperrik da, errazoi ta biziaren, erlijio ta philosophiaren alkargo ta batasun iraunkorrik billatzea. Zer da, bestela, giza-gogamenaren edestia, bizia ta errazoiaren burruka besterik? Au, ura buru-bidetik eroan naiean; bestea, Bizia, errazoi zelan bizitu alegiñetan, bere bizi-leiari lagunkide izan dagion» (2). «Zelan ba, zabaldu errazoi biziaren agerpena? Burrugarik gorriena auxe, burrukarik gogorrena errazoiaren kontrako biziaren burruka» (3). «Bizia tragedi bat besterik ezta, ta tragedi ori betiko burruka, garaipen, ez garaipen-itxaropen bako burruka» (4). Ta ez luzatzearen amaitu bearrean gagoz.

Amaika bider agertuten da Unamuno-ren ikagarritzko idazlanean burruka itz au, ezti goxoa ba'leriokan...

Izan-bere, ortxe dago bere biziaren orpoa. Bere liburuetan ezta besterik ageri. Nai philosophi egitean, nai eleberrigintzan, nai edozein lanetan, beti begi aurrean problema berbera: burua ta biotza burrukan... Eztago bere libururik sakonena «*Sentimiento trágico de la vida*» irakurtzea baiño. Bizi-yorana, illezkortasun-irritsa, ezerezaren lurrun-ikara, bere aultasuna, betiizan-nai-aierra: orra or bere zanetakoa odolaren gorria, ta bere eguneroko ogiaren goxoa...

Kierkegaard-ek urrutik yoriko deadararren oiartzun dirudi, Nietzsche ta Dostoyewski-ren orruaren ideko gizatasunera-jite! Biotz-barruko burruka orrek, larri-min (angustia) damaio, ta Heidegger ta Jaspers-kin existenzialismu bidean sarturik, min ori gizon oroen erraetan irarrita dagoala, diño Unamuno-k. Eta bera lagun, geure burua ezagutzen dogula. Bizi bai bizi gareala, baiña min orrek eragin asteño, ez-jakiñean bizi ei gara; ez ei dazaugu bear baixen ondo geure burua. Min orrek ikutu, ondoren, ostera, geure bizi az oartzen gara, askatasunean geure jabe izateko.

Kierkegaard-ek pekatuaren bidez adierazoten dau gure askatasun au. Ezkara gu aske pekatu egin arteño. Pekatuan, barriz, Jaunaren kontra geure burua jasotzen dugu, ta orduan bakarrik konturatuten gara altasun eta askatasun eder bat eskuetan dugula.

Emetik yatoriku ezistenzialistak —bakoitzak bere eran— «larri-min» deituten dabena. (Heidegger-k «Dasein», «In-der-Welt-sein», «Geworfenheit», «Angest»... munduran izan, mundura jaurtia, larri-miña ta abar...; Sartre-k «La nausée», bizi-nazka ta abar...; Kierkegaard-ek, «Analyse del Angstphámones», «Sorge», pekatuak dakartzun atsekabe-miña, gure ingurumariko gauzen estutasuna, t. a.; Unamunok «Sentimiento trágico de la Vida», batez bere, ta abar.) (5).

Dana Jainkoaren utsa biotzean jasan bearra, dana burruka, dana miña, baiña jasapen-min orreetan euren atsedean biziena. «Izkutuarekin asti бага ta aspertu barik burruka egiten daroak bizitza osoa; egunsentitiek arrats-iñularraieño Jaungoikoarekin burrukan egun oro.» (6).

Jainkoa ukatzeak biotzean ixten dabenean utsa bete eziñean dabilta gizajo ok! Nietzsche, Dostoyewski, Dilthey, N. Hartmann, Kierkegaard, Heidegger, Jaspers, Sartre, ta ezistenzialismu-jarraitzaileak oro, Unamuno-rekin batera, buztarri batean lotu geinkez, Jaungoikoa ukatu, ta goi-miñez jota, philosophiari eskatuten baidautse, Jaungoikoak bakarrik emon leuskioena: zeruko fede santua, illezkortasun-yorana ase, ta biotzean zorion eta pake erne-eragin al leiken gantzailua.

bazun, arenaren alboan argitaratuko zitzaioala aldizkari ontan. Txillardegik itzetik ortzera baiezkoa agindu zion eta laister gozatuko gera noski bere idazlan ernegarria ausnartuz". Etxaideren informe berean, saritua ez, baina epaimahaiaren aipamen berezia merezitako Txillardegiren "Urruti-min" lan bat aipatzen da, galdua nik uste. Baina hau ere ez dugu Txillardegiren zinezko lehen izkribua. Etxaide finak, Oargui-ren estreinako deialdiari (1954) hainbat idazle gaztek erantzun diola jakinarazi baitigu, eta horien artean, nahiz epaimahaiak saritu ez izan, berak bere aldetik bereziki hiru zorientzen baititu pozez beterik: Txillardegi, Aialde eta Julio Ugarte apaiz jauna, euskaldun berriak direlako. Horien lanen izenbururik ez digu ematen, ordea.

Berasaluzere-*ren* lanera eta existentzialismoaren eztabaidara itzuliz: agi denez, haren testuan Txillardegiri ederretsi ez zaiona, existentzialismoari beste gabe ateista iriztea izan da. Berasaluzere-*ren* gardiz, existentzialistak, "Jainkoa ukatzeak biotzean ixten daben utsa bete eziñean dabilta gizajook! (v..) Jaungoikoa ukatu, ta goimiñez jota, filosofiari eskatuten baidautse, Jaungoikoak bakarrik emon leuskioena: zeruko fede santua, illezkortasun-yorana ase, ta biotzean zorion eta pake erne-eragin al leiken gantzailua" (loc. cit., 111). Are, Oargui-ko bigarren saritua ere, Bereziartua-tar Iñaki orobat Arantzazukoarena berau, "Batzuk ba-doaz, besteak ba-datoz" (ik. Euzko Gogoa, ilbeltza-otsaila 1956, 104-109), oso negatiboa zen filosofo modernoekiko, Unamuno-ri buruz bereziki. Txillardegik, bada, ezin izan du bere desadostasuna isildu.

Idatzi ere, idatzi du agindutako Berasaluzere-*ren* lanaren kritika, seguruenik hura bezalaxe "Kierkegaard-en hazia Unamuno-gan lore" beste titulurik gabe bidali duena Oargui-ra, harekin batera argitaratzekoa zenez gero Egan-en. Susmatzen dudanez, Berasaluzere-k berea, ez dakit zergatik, Euzko Gogoa-n argitara ematean (edonola ere, Arantzazuko belaunaldi hau oraindik Euzka Gogoa zaleago zen, Egan zalea baino), Txillardegiren kritika hori argitaratu gabe geratu eta galdu egin da. Zorionez, berriro, Oargui-ko laugarren Sariketen kronistak (E'tar N. oraingoan: Nemesio Etxaniz), "Ataurre" batean aparte, ia sariketari adina arreta eskaini dio sariketaz kanpoko lan honi, polemikatxoak piztua zuen morboaren seinale, apika. Hona hemen E'tar N.ren iruzkina, berak asmatzen duen bakearekin (Egan 5/6, 1955, 76):

"AUZI ZARRA. - Berasaluzeri beatzak arrapatu nairik, emen degu lenbizi Txillardegi. Aren lanak "Kierkegaard-en azia Unamuno-gan lore" zuan izenburu lan artan Existenzialistak Jainkoa ukatzen zutela, esaten zuan. Baina Txillardegik ez du onela uste. Onen ustez, Sartre bakarrik izan zenuan Jainko-ukatzaille. Besteak mundu onen gaindiko Izaki guren bat aitortzen zuten.

Existenzialisten erakutsiak Sartrek zabaldu omen zizkigun erri xearen artean; eta ura Jainko-ukatzaille izan zalako, beste Existenzialista guziei siñesgabe-izena egotzi die.

Bapo, Txillardegi! Nere ustez, Berasaluzek au esan naiko zuan: Existenzialis-tek siñismen erabakirik etzutela izan, eta orregatik beren bizitza erantzunik gabeko galdera itoa egin zutela. Au da, nere ustez, auzi onen giltza".

Zuzena da, hortaz, Txillardegik, "jendurrekotasun-bataioa" dei genezakeena, Oargui-*ren* 1955eko Sariketa honetan izan zuela esatea.⁴⁸⁸

⁴⁸⁸ Ibid., 133-134 orr.

5.2.2. Kierkegaarden eragina *Leturiaren egunkari ezkutuan*

Puntu hau argitu ondoren joan gaitzen *Leturiaren egunkari ezkutuan* Kierkegaardek izan duen eragina aztertzeraz. Aldez aurretik, ordea, garbi utzi behar dugu Joxe Azurmendik aditzera ematen digun moduan, *Leturiaren egunkari ezkutua* ez dela Kierkegaarden pentsamenduaren interpretazio zehatza izango:

Leturiaren egunkari ezkutua ezin izan daiteke, eta ez da, Kierkegaard-en iruzkin bat. Haren estadioek eta nobelako protagonistarenek ez hertsiki kontziditzen dute, ezta hertsiki zentzu bera dute ere barne-barnean (luteranoa), Txillardegik, nahiko libre jokatu du bere protagonistaren -giza existentziaren- meditazio noblatua apailatzean (horretaz gain, existentzialismoaz gain, bestelako elementu ere badarabiltza bere gogoetan: budismoa, etab.).⁴⁸⁹

Hortaz, *Leturiaren egunkari ezkutua* Kierkegaarden pentsamenduaren iruzkin bat ez da izango eta, horregatik, bertan planteatzen diren “bizimoduek” ez dute zentzu hertsian Kierkegaarden “hiru bizimoduekin” bat egingo. Hala eta guztiz ere, ikusiko dugun moduan, Kierkegaarden presentzia erabatekoa izango da Txillardegirengan.

Pentsamenduaz gain, Kierkegaarden eta Txillardegiren arteko antzekotasunak eleberriaren egituran ere topa ditzakegu; Kierkegaarden *Seduzitzailearen egunkaria*-n gertatzen den bezala⁴⁹⁰, *Leturiaren egunkaria ezkutuan* ere, bildumagile batek emango baitu argitara egunkaria.

Biltzallearen oarra.

Emen bukatzen da Leturia zorigaiztokoaren egunkari unkiarra. Zer gertatu ote zitzaion gero? Bearbada hau ez da sekula jakingo.⁴⁹¹

⁴⁸⁹ Ibid., 124 or.

⁴⁹⁰ Azaleko transkribapen hura, bere garaian presa izugarri eta egonezin handiz lortu ahal izan nuena, neure interesa medio xehetasun osoz txukunera pasatzea deliberatu dudan honetan, ezin diot neure buruari ezkutatu eta nekez kontrola dezaket nitaz jabetzen ari den antsia. Garai hartan bezain kezkarria eta orduan bezain deitoragarria agertzen zait egoera. Bere ohituren aurka, giltzatu gabe zeuzkan mahaiko kaxoiak, hartara bertako edukiak nire eskumenean utziz; alferrikakoa litzaidake, noski, orduko portaera apaintzen saiatzea neure buruari gogoraraziz ez nuela nik kaxoirik atera. Kaxoi bat aterata zegoen. Bertan aurkitzen zen paper solte pilo bat, eta haien gainean koarto handi tamainako liburu bat, tajuz azaleztatua. Gaineko azalean paper zurizko laukitxo bat zegoen itsatsita, eta bertan bere eskuz idatzita: *Commentarius Perpetuus 4 Zkia*. Ez naiz, haatik, alferrik saiatuko neure buruari sinestarazten liburuaren azal hura agerian egon ez balitz eta izenburu harrigarri hark tentatu ez banindu ez nintzatekeela tentazioan eroriko, edo bederen aurka egingo niokeela. Izenburua bera xeble samarra zen; baina ez hainbeste berez, inguratzen zuten gauzengatik baizik. Paper solteei begirada bizkor bat botatakoan jakin nuen haien edukia: egoera erotikoei buruzko iritziak, harreman baten eta besteren aipamen solteak, izaera bereziko gutunen zirriborroak, gerora artez landutako zabarkeria kalkulatu harengatik ezagunak egingo zitzaizkidanak... In: <http://es.slideshare.net/hausnartzen/kierkegaard-seduzitzailearen-egunkaria> 12. or. Azkenego aldiz, 2015ko irailaren 15an kontsultatua.

⁴⁹¹ LEE, 145 or.

Ez da kasualitatea, hortaz, bai Kierkegaardek, bai Txillardegik, beraien pentsamendua islatzeko orduan egunkariaren egitura erabiltzea. Hala, Leturiaren kasuan, bilduma egile batek, *Uda* deritzan atalean, egunkaria idaztearen arrazoiak ohartxo baten aditzera ematen dizkigu:

Literaturan aztertzen ba dugu, bereala ikertuko dugu gauza bat: egunkari famatuena idatzi dituztenak barne-problema gogorrak zitutela.

Munduan erlijiozko fedea galdu-ala kezkatk eta zalantzak aunditu zaizkio egungo gizonari, ta aiekin batera, geroz ta gehiago ugaritu dira barne-egunkariak, benetako literatura-mota biurtu arte.

Hamaika dira au probatzeko aipa genitazkenak; eta, agiritzat, irakurleak ezagutzen dituen bi gogoraziko dizkiogu: Kafka ya Amiel. Paranoikoen malla jarri ditezke biak askoren iritzi.

Alde batetik, bada, barnekoiak eta neurotikoak idatzi dituzte egunkariak. Eta Leturia están, gure aburuz, aietako bat, urbil xamar ba zebillen ere.

Badira, bestalde, egunkariak idatzi oi diuztenak, gizon erdieroak izan ez arren. Denos izan dugu bizitzan egunkariaren aroa; eta bide onetatik azaldu bear da Leturia´ren utsunea, ta bere adierazkuntza.

Noiz idazten dira-ta? Egunkariak? Noiz idatz duzu zeuk, irakurle? Beltzurak zurea rima goibeltasunez bete zuenean.

(...) Nekez azal diteke munduko alaitasuna: oso ez delako, noski, ez gaitu sakon unkitzen. Tristura, ordea, biotzeraño sartzen zaigu. Ta lenengoa antzu ta urri ba da bururapenetan, aberats eta oparo bigarrena. Nork bizitu du alaitasun osoa? Inork ez. Bi milla ta bostegun urte dira Budha´k esan zuenetik: “Zorion-unerik izan al dezute bein? Ez!”

(...) Orregatik, tristerik edo irrikan gaudenean idatzi oi dugu: emakume maiatuaren baietza entzuteraño, Jainkoaren bidea arkitu arte, eginteko gaizki dijoazkiguño, eta abar; ots, burua-ustu bat urrutu dugun arteraño.

Ta auxe ikusten da garbito Leturia´ren Egunkarian.

Jokaera au lasai-bide utsa da sikoanalisarien ustez, eta ala ematen du zalantzarik gabe: kezka eta katramillak paperan ixuritzeaz, txikitu egiten dela nolabait aiei ditxezkon barne-tentsioa.⁴⁹²

Hortaz, Kierkegaardek ez bezala, barne gatazkak kanporatze aldera idatziko du Leturiak bere egunkaria. Kierkegaardek, aitzitik, egunerokoa *bizimodu estetiko*a ez bizitzeko gomendio gisa idazten du. Horrela, bada, nahiz eta bi autore hauek egunkari egile gisa azaleratu, bere lanak izkiriatzeko orduan xede ezberdinak izan zituzten.

Edukiari dagokionez, lehen irakurketa batean behinik behin, Kierkegaarden “hiru bizimoduen” ideia datorkigu burura. Alabaina, nahiz eta *bizimodu erlijiosoari* “Negu” atalean zatitxo bat eskaini, puntu honetan Unamunoren presentzia handiagoa izango da Kierkegaardena baino.

⁴⁹²LEE, 74-75 orr.

Gauzak honela, aspektu hau argitu ondoren, joan gaitzen Kierkegaarden “bizimodu ezberdinen” eragina *Leturiaren egunkari ezkutuan* aztertzeraz.

5.2.2.1. Bizimodu estetikoa

Joxe Azurmendik honela mintzo da Leturiak biziko duen *existentzia* edo *bizimodu estetikoaz*:

(...) Bakarrik nago, baina nahita nago bakarrik. Neure erabaki batez kokatu naiz besteengandik, masatik, aparte. Erabakitzea erabaki dut: neure burua bilatzea erabaki dut. (Esanahitsuki, erabaki honek "Zerubiden" kokatzen du protagonista - hastapen paradoxal bat, nobelaren amaiarekin alderatzen bada)-. Hau da, Leturia hau existentzialki norbait da. Gizon bat da. Bere patuaren nagusi bat. Ez orbel bat. Ez artaldeko ardia. Baina hautapen existentziala ez da, behin egin eta, betiko eginda gelditzen. Beti berriro egin behar da. Etengabeko erabakitze bat da. Hasiera honetatik bukaeraraino, existentziaren nobela bat izanen da Leturiaren egunkari ezkutua. Funtsean hautu existentzialen prozesuaren, erabakimenaren dialektikaren, esposizio bat duzu Txillardegiren nobela osoa -hori besterik ez baita gure bizitza ere-. Ez gertakaria, ez karakterra, existentzia da protagonista.

Udaberria bera -esan dezagun: urtaro estetikoa bera-, erabakiaren kezka dominatzen du nobelan (hautua, txiripa, etab.). Aukeramenean datza gizonaren izana. Baina paradoxa bat dago: ni naizen libertateak eskatzen du, neuk aukeratzea. Baina aukera egiteak, lasaitasuna ematen badu, askatasuna gutxitzen du. Eta protagonista beldur da erabakitzeko. Ezkontzea hautatu duenak, gaztaroa hil du. Are gehiago, gure aurrean zabalik zirudien etorkizunak, beharrezko bide itxi bat hartzen du ("hautatu ondokoa"). Beraz, protagonistak ez hautatzea hautatzen du oraingo. Bere egoismoa, bere askatasuna hautatzen du -bizimolde estetikoa-. Bere animalia izateaz eta sentitzeaz poztzen da. Ezkontzeko erabakiak (erabakiak!) bizimolde etikoan sartzen baitu, Kierkegaard-en arabera behintzat. Ez dut jarraituko, testua hor dago. Erabakiak (ezkontzak) harrapatu egiten du Leturia, berak erabaki ordez.

Giza erabakimenaz Udaberrian jada agertzen den zenbait zalantza, hala nola aukeraren ordezko txiriparena ("ustekabez ezagutu dugu alkar"); hemen eta hola ezarri gaituen edo honelakoxeak egin gaituen Zori gogorrarena, etab., larri-larritu egingo da Udazken eta Neguan. Udak ez du idazten. (Zorion edo atsegintasan ez du egunkaririk idazten).

Protagonistaren gogoetak erabakiaren/hautuaren inguruan jarraitzen dute beti jirabiran.⁴⁹³

Bat nator Joxerekin “Leturia hau existentzialki norbait da. Gizon bat da. Bere patuaren nagusi bat. Ez orbel bat. Ez artaldeko ardia” esaten duenean. Era berean, bat nator, hautapen existentziala ez dela behin egin eta betiko eginda gelditzen den zerbait esaten duenean ere. Azken finean, beti berriro egin behar den zerbait baita, etengabeko erabakitze bat alegia.

⁴⁹³ Azurmendi, Joxe. *Kierkegaard-en «egunkari ezkutua»* In: AA.VV. *Txilardegi lagun giroan/ Udako Euskal Unibertsitatea*, Bilbo: 2000, 119-120 orr.

Hortaz, Hasiara honetatik bukaeraraino, existentziaren nobela bat izanen da *Leturiaren egunkari ezkutua*. Gauzak honela, funtsean, hautu existentzialen prozesuaren eta erabakimenaren dialektikaren esposizio bat dugu *Leturiaren egunkari ezkutua*.

Ez nator bat Joxerekin, ordea, garai estetikoak hautua egin beharrekin identifikatzen duenean. Hala, ez dut bat egiten Joxeren *Kierkegaard-en* «*egunkari ezkutua*»-ren honako pasarte honekin: “Udaberria bera -esan dezagun: urtaro estetikoak bera-, erabakiaren kezka dominatzen du nobelan (hautua, txiripa, etab.). Aukeramenean datza gizonaren izana. Baina paradoxa bat dago: ni naizen libertateak eskatzen du, neuk aukeratzea. Baina aukera egiteak, lasaitasuna ematen badu, askatasuna gutxitzen du”⁴⁹⁴ dioenean. Hortaz, pasarte hau kontutan hartuz gero, honako galdera hauek egitera garamatza: hautua egiteak askatasuna murrizten al du? *Bizimodu estetikoaren* baitan gizakiak hauturik egiten al du?

Bizimodu estetikoaren ezaugarriak aztertu ditugunean *bizimodu estetikoaren* baitan hautatzearen gaitasuna ematen ez dela ondorioztatzera iritsi gara. Hori dela eta, Leturiak ez du *bizimodu estetikoaren* baitan inolako hauturik egingo honako arrazoi hauengatik.

Lehena, “hautuaren erabakimen askea” egoteko, lehen ikusi dugun moduan, “borondatearen askatasuna” eman behar da. Hau da, gorputzaren berezko instintuen erabateko automenderatzea. Horrenbestez, “borondate askea” emango ez balitz, gizakia gorputzaren inpultso naturalen menpe egongo litzateke, hots, “gizaki primitiboa” errugabea izatetik, gaur egungo Adanen ondorengo gizakia erruduna izatearen iragatearen kausa den inpultso naturalen menpe egongo litzateke eta, dakigun bezala, *bizimodu estetikoan* estetak bizitza gozatu nahi du. Hau da, zentzumenek eta amestu eta pentsatzen dituen errealitateek eskaintzen dizkioten plazerak nahiko ditu. Bizitzaren xede bakarrak gozamina eta plazera izango direnez gero, ez da inpultso hauek kontrolatzen saiatuko. Alderantziz, inpultso hauek etengabe asetzen saiatuko da. Hautua, beraz, *bizimodu etikoaren* ezaugarria izango da eta ez *bizimodu estetikoaren* baitan ematen dena.

⁴⁹⁴ Ibid., 119 or.

Bizimodu estetikoan hautatzea ematen ez denaren bigarren arrazoia, bestalde, Kierkegaardentzat *bizimodu estetikoa* berez ematen zaigun bizimodu moduan ikusten duela da. Hau da, *bizimodu estetikoak*, bizitza naturalari, aberekoari, gizaki ororengan gauzatu eta gizakia jaiotzen den aldiari erreferentzia egiten dio. Izadiak emaniko zerbait izango da hortaz. Inongo eraldaketarik nozitu gabea. Hala, bizitzaren estetikotasunaren aurrean gizakia ez da hautu egin beharrean aurkitzen. Ez du ezer egin behar *bizimodu estetikoa* lortzeko, mundura etortze hutsarekin ematen den zerbait baita. Gure Leturiak, ordea, bakarrik egoteko hautua egiten duela esaten digu Txillardegik bere eleberrian. Hortaz, ez bada *bizimodu estetikoan* inongo hauturik egiten, zergatik erabakitzen du Leturiak bakardadea? Bizitza estetikoaren ondorio negatiboak, hots, atsekabea, bere baitan sentitzen hasten delako erabakitzen du bakardade gure Leturiak.

Lehen aipatu dugun bezala, *bizimodu estetikoaren* ondorio negatiboetako bat atsekabea izango da. Kierkegaardentzat “ezereza” izango da bizio ororen sorburua, baina ez “absolutuaren” erabateko galtze gisa ulertuta, baizik izaki “ez osatua” moduan ulertuta. Hau da, jatorrizko bekatuaren ondorioz ahuldua den gizakia gisa ulertuta. Kierkegaardentzat, hortaz, gizakia izatez bekataria da. “Ezereza”, aitzitik, gaitz guztien iturburua izango da eta bere ondorioak tristura, asperraldia, nekeak, atsekabeak, miseriak eta abar. izango dira. Sentimendu edo sentsazio hauek, Leturia alienaziora bultzatuko ditu, zeren alienazioak gotorleku bikaina eskaintzen dio Leturiari (estetari). Alienazioak bihozmina goxatuko dio, bizitza pertsonaleko errealitate penagarria arinduz. Horregatik, gure Leturia “ezerezaren” ondorioak diren asperraldia, nekea, atsekabea bere baitan sentitzen dituen bezala, “Zerubide”-ra joango da naturaren edertasunean bizi duen atsekabe horri atsedendaldi bat, goxamen bat, bilatzeko asmoz.

Emen bakarrik nago, egia esan; baña naiago dut milla aldiz orain bezala egonda, pixkanaka-pixkanaka, zeru-lurraren aundia ta ederra dastatu, jende askok inguratuta denbora alperrik xautu ta galdu baño.

Zer da-ta bakarrik egotea? Kalez kale lagun askok inguratuta ibilli arren, ez ote naiz ni egon oi, ala ta guztiz ere, orain nagoen baño askozaz bakarrago ta utziago? Bai, ziñez, eta sarri.

Orregatik esan dut asieran, naita nagoela gaur bakarrik; destetan ere lagunakin egon arren, bakar-bakarrik bai-nengoen, eta derrigorrez gañera.

Gaur ez onelakorik. Ain zuzen ere, bakarrik egoteko etorri naiz “Zerubide” onetara, ta pozik nago nere bakartasunean. Lortu al daiteke edozein gogo-gauza bakartasunaz maiz elikatzeke?

“Zerubide” au txit da polita, parke guztiak bezala. Ez dakit “zerubide” ote den polita, ala “zerubide” bera ez dena, ots, bere parketasuna. Ori etzait ajola aundirik, ederra dela baizik.

Zugazti onetan sartuta, bere kerizpe indargarrian murgildu, ta badiduri beste mundu zoragarri bateko sarreran nagoela. Biotza ikitzen dit bere olerkiak⁴⁹⁵

Azpimarragarria suertatzen da, ordea, protagonistaren barne gogoetak pasarte honetan (eta eleberri osoan) duen izugarritzko presentzia. Izan ere, Kierkegaarden arabera *bizimodu estetikoan* gizakiak ez du bere buruari buruzko gogoetarik egiten. Kanpora egongo da begira, kanpoko objektuek eskaintzen dizkioten plazerak gozaten. Bere buruari buruzko gogoetak, aldiz, *bizimodu etiko-erlijiosoaren* ezaugarriak dira. Baina zergatik emango da Leturiarengan *bizimodu estetiko* bezala definitu dugun “Udalen” edo “Udaberri” honetan, hausnarketaren ezaugarri hau? Gizabanakoak ez duelako bat-batean *bizimodu estetiko*tik *bizimodu etiko-erlijiosora* jauzi egiteko erabakia hartzen eta gure Leturia ez da gutxiago izango. Leturia pixkanaka-pixkanaka joango da *bizimodu estetikoaren* ondorio ezkorrak bere baitan bizitzen. Lehengo zantzua edo sintoma atsekabea izan da. Atsekabeak bere burua ezagutu nahia piztuko dio Leturiari eta horretarako naturara, parkera, joan da bakardade bila (eta guzti hau, lehen pertsona idatzia eta egunkari batean islatua izango da.)

Udaberriaren ederra!

Bakarrik nago, bai, ta ondo alere. Gizonak bere begien aurrean belar izpi duelarik, gogaituta dagoela esan aal dezake?

Gogorra omen da bakarrik nai-ta-naiez ibiltzea. Eta, alere, pozik egon oi gera bakarrik. Nola ori? Zer da bakardadetik iges-eragiten diguna? Ta zer da destetan bere billa zuzentzen gaituena? Geure baitarako mintzagaiak izatea; geure buruakin itizk gabeko jarduna izateko gogoa.

Ots, nere buruarekiko kontuak garbitzeko joaten naiz bakarrik; garbiketa utsa baita, ta egiazko aitorketa, bakardadean egiten dudana egonaldia.

Nere burua ordea gezurtaratu nai dudanean, ezin dagoke aitorketarik, eta ez dut bakarrik egon nai oi. Bildurra da, bada, nere buruaren bildurra alegia, bakardadetik baztertzen nauena.

Orain ez dut alako bildurrik, Nazkatu egin nau mundu lozorroak, nazkatu egin nau bere laukeriak. Neure burua arkitu nai dut, nere gaitzerako ba da ere, naizena sakon aztertu ta miazteko.

Eta iñork, ezagutu ta ulertzen ez nauen ezker, “Eguneroko” onetan ipiñiko ditut nere arkikunde guziak, gaur bezala, Gerona nere animak nekez goldatutako ildoari jarraitu aal izateko. Egunkari hau izango da, bada, nere kezka guzien Kutxa.⁴⁹⁶

Parkean, naturan, gure Leturiak bilatu du bere atsekabeak behar duen lasaitasuna eta bakea. Deigarria suertatzen da, ordea, guzti honen erdian, Leturak naturaren edo parkearen baketasunaren jatorria parkeak bihotzik ez duenaren ezaugarrian oinarritzea eta bere etsipenaren sorburua, aldiz, bihotza izatean azpimarratzea.

⁴⁹⁵ LEE, 21-22 orr.

⁴⁹⁶ Ibid., 22-23 orr.

Or dut, aurrean ere, landetze jori bat. Zergatik ikutzen dit barrunbea ura ikusteak? Zerbait eder bururazten didate bere tellatuaren gorriak eta ormaren zuriak. Bañan ez datza orretan bere unkigarria: bere pakea da nere burua asalduz betetzen duena. Baretasuna dario etzekoari, bere gauzatusunean, ez da ezertan igitzen, eta bere orretan dirau eta dirauke. Arentzat ez dago zer-kezkatu; trankil eta asaldakaitz begiratzen ari da eguzkiaren ibillera gélida, bere sartalderako urdin argitsuan bera dijoala... ez du biotzik!! Orregatik ez du asalduk arrapatzen. Nik bai, berriz.⁴⁹⁷

Leturiak bihotza duenaren kontzientzia hartzen du pasarte honetan. Landetxeak ez bezala berak bihotza duenaren kontzientzia alegia. Eta horregatik, landetxeak ez du asaldua sentitzen eta berak bai. Horrela, bada, gure Leturia pixkanaka-pixkanaka inguratzen duen errealitatetik bere burua ari da bereizten eta, bide batez, bere barreneko mundua murgiltzen “[...] ez du biotzik (landetxeak)!!! Orregatik ez du asalduk arrapatzen. Nik bai, berriz.”⁴⁹⁸

Bihotza izango da, hortaz, naturaren lasaitasunean Leturiari hitz egiten diona.

Ondo konprenditzen dut, alabaña, zugaitz eta belardietako oiartzunetan nere bihotzaren mintzaira, zorionarentzat jaió naizela diote, ta egun auk etorridiran artean, mundutar jostabide ero ta itsuei utzi-ta bakarrik onera etorri ez naizeño, ez naiz ontezaz konturatu.⁴⁹⁹

Bizi zuen lozorrotik esnatzen ari da gure Leturia eta “nor” den poliki-poliki defínitzen hasiko da. Kierkegaarden arabera, giza arima “askatasunaz” gain “espirituaz” (Aand) edo “kontzientziaz” osatua dago. “Espirituaren” kategoria honen esanahia bilatzerako orduan, berriz ere, Hegelen filosofiara joan beharrean aurkitzen gara. Hegelegen “espirituaren” esanahietako bat “autokontzientzia” edo “absolutua” izango da. Absolutuak bere buruaz duen kontzientzia alegia. Kierkegaardengan ere “espiritua” “kontzientzia” izango da, baina ez da Absolutuak bere buruari buruz duen kontzientzia absolutua izango, baizik gizabanakoak, hezur-haragizko gizakiok, gure buruari buruz dugun “kontzientzia” partikularra. Daniar pentsalariarentzat “kontzientzia” edo “espiritua” gizabanako konkretuaren berezko kategoria izango da, animaliangandik bereizten gaituena. “Kontzientzia” edo “espiritu” indibidual honek, eremu bikoitza eskaintzen dizkigu. Alde batetik eremu teorikoa, “kontzientzia teorikoa” osatuko duena. “Ni” naizenaz jabetza ematen didana alegia. Eta beste aldetik eremu praktikoa egongo da, “kontzientzia praktikoa”. Nire eginbeharrak zeintzuk diren esaten didana, hain zuzen

⁴⁹⁷ Ibid., 23-24 orr.

⁴⁹⁸ Ibid., 24 or. Parentesi artekoa nik gehitua.

⁴⁹⁹ Ibid., 25 or.

ere, “ongiaren” eta “gaizkiaren” arteko ezberdintasunaren jakitun izatea ahalbidetzen didana. Kasu honetan, Leturia bere buruarekiko kontzientzia hartzen hasia da, ez daki oraindik zer bide hartu, ez eta zer egin bere bizitzarekin, baina poliki-poliki ari da bere barnean sakontzen eta landetxeak ez bezala bihotza duela ohartzen da eta horregatik asalduek harrapatzen duela eta, ez hori bakarrik, landetxetatik bereizten duen bihotz horrek hitz egiten diola ohartarazten da gure Leturiari: *Ondo konprenitzen dut, alabaña, zugaitz eta belardietako oiartzunetan nere bihotzaren mintzaira, zorionarentzat jaio naizela diote*⁵⁰⁰.

“Kontzientzia teorikoa” eta “praktikoaren” ideia hauek Kierkegaardek *bizimodu etikoaren* baitan aurkezten dizkigu eta ez *estetikoaren* baitan. Lehen esan dugun moduan, ordea, bizitza estetikotik etikorako salto egin beharra ez da bat batean sortzen den zerbait izango, astiro ematen den zerbait baino, eta gure Leturia hortan ari da.

Leturia esteta dugu. Etengabe arituko da naturak eskaintzen dion edertasuna dastatzen. Mina arintzeko estupefaziente zoragarria suertatzen zaio natura. Gauzak honela, egunkarian protagonismo handia hartuko dute naturak sortzen dizkion sentsazioen deskribapenek:

Ederra dago gaur eguraldia: giro aztuna, dargori alegia, bañan itzaletan geratzeko zoragarri.
Aritzondo artetik zerura. Beltzak dirudite zugaitzen ostoak, eta atzo asko igitzen baziran, gaur geldi-geldirik daude. Nozik behin soillik aizearen arnasak nere arpegia birbizten du; nagikeriz bezela kulunka adaburuak labur eta mazal.⁵⁰¹

Naturak sortzen dizkion sentsazioak dastatzeaz gain, ezkontzari buruz duen ideiarekin berri ere ematen digu Leturiak (argi utzi behar da, ordea, guzti hau Miren ezagutu aurretik izango dela).

(...) Orain, bazkaldegi apainduan noski, maitarrak ari dira dantzan. Betiko leloa, netito jaimota, ta... beti bezin zirrargarria.
Bidea arkitu al dute bi oriek? Arkitu... aukeratu bai, behintzat. Azkatasuna galdu dute, alegia, baña gaugerero maite-kezkabiderik ez dute izango.
Orretaz gañera alkar maite ba dute, zerua ez al da ideki aientzat?
Baña... zauskada sakon eta latz batek astindu dit biotzondoa. Zer dakit nik ortaz?
Lillura, lillura!! Zorion itxura oñarrige utsa ez al da oriek ikusteak bururatzen didan au?
Bi begi, bi alderdi, bi aro izan ditu oriantzat hizialdiak: txikizitutik orain artekoa bata, ta gnurdanikoa bestea. Lenengoari utzi diote.

⁵⁰⁰ Idem.

⁵⁰¹ Ibid., 26 or.

Alaz ere, azken-kutsuren bat ez al du ezkontzak ? Ordurarte, alde batetik, goruntz ez al doa gizona, andik aurrera beeruntz eta illunpe beltzaren aldera abiatzen dela? Txikitzen ez al doa gizona ezkonduz? Ezkongaietan zerbait ba nintzan, ezkondu-eta ...

Aurrera begiratuki, beste biziera bat islatzen da, alegia, ezkonberrientzat. Bañan ezkonaurrea ametsa ba zan, ezkon-ondoa zeatze ta konkretatzea da; ta ametsen gauzatzea beren amesburua baño zirtzillagoa ez al da izaten ?

Zoragarria aien etorkizuna : Jainkoarena men da.sortzeko atsegiña.

Izugarria beren etorkizuna: bizimodu des- bordiña, zearo ezagugabsa, berunzkoa agian...

Nork daki?

Eztai-eguna igaro dute oriek. Gaztetasun be- tearen billa abiatu-rik, gaztaroa il dute. Sari garestia, egia esan, aukeramenean bai-datza gizonaren izana. Eta ni beldur aukeratzeko. Gogorra da ori. Aukeratzeko larri-miñik ez dute aurrerakoan izango; bañan, bere orde- z, aukeraketa egiña izatekoa izango dute lagun betirako. Damurik ote?

Egun gogoangarria, bada, orientzat, maiatzeko au, muga, bide ta joera eman bai- diote gaur beren biziari. Ez dute berriz ezer ere ikusiko orain arte bezela, ezkontzak aientzat mundua aldatu du-ta. Arrosa xamurrak aien biotzai atzo itzegiten zienean, beste batera zuen elea. Illunabarrak, berriz, ez du sekulan izang atzo arte izan zuen lillura-mota. Gaztetango mintzoa, mututu egin zaie betirako. Atzo ere zituzten ametsak etzaizkie berriz otuko.

Zer burura dizaieke "Zerubide'ko iturritxo onek ezkondata dagoen bati? Ez, alegia, neri esaten didana bera.

Nolakoa ote da ezkonduetik loreen izkuntza?

Jaiotzatik ezkondu artekoa, ta ezkontzatik eriotzarakoa; orra bizitzaren bi zatiak: autatu aurrekoa, autatu ondokoa.

Nigan, oraingoz, dena dago ikuskizun. Lenengo aroan nago ni. Ez dut nor maite, ez nau iñork maite, gurasoak besterik; ez dakit noruntz joan ... Larribide au ez al da ezkonberri ausarta oriena baño nekakorrago ... ?⁵⁰²

Leturiak, bestalde, ezkontza bizitzan egiten den hautu gisa planteatzen du, Guzti honen erdian, ordea, aipatzekoa da ezkontzaren hautuaren inguruan egiten duen gogoeta. Hau da, ezkontza ez duela hautu egoki moduan ikusten: "Bidea arkitu al dute bi oriek? Arkitu... aukeratu bai, behintzat. Azkatasuna galdu dute, alegia,baña gaurgero maite- kezkarik ez dute izango.Orretaz gañera alkar maite ba dute, zerua ez al da ideki aientzat?"⁵⁰³

Leturiak behin ezkonduz gero "askatasuna" galtzen dugula dio, baina beste aldetik maite kezkabiderik ez izatea errazten. Kasu honetan, Leturiaren "askatasunaren" ideiak ez du Kierkegaarden *bizimodu etikoan*, hots, ezkontzarekin lotzen den bizimoduan planteatzen den "askatasunaren" ideiarekin bat egingo. Kasu honetan formulatzen den "askatasunaren" ideia esteta den batek "askatasunari" buruz duen planteamendua izango da. Kierkegaardentzat "askatasunaren" ideia erratua alegia. Ezkontzak konpromezua

⁵⁰² Ibid., 27-29 orr.

⁵⁰³ Ibid., 27 -28or.

esangura du, bikotearekiko errespetua eta, batez ere, egoera gogorretan arazoak sortzen direnean, bere ondoan egotea. Hau da, erantzukizunak izatea eta norberekoikeria alde batera ustea. Estetak, ordea, ez du inongo erantzukizunik nahi. Kanpo errealtatearen izaera sentsibleaz eta naturalaz gozatzea bakarrik nahiko du.

Bere xede bakarra, hortaz, bere desirak zentzuen bidez gozatzea izango da. Sentsazio atsegingarriak izan eta sentsazio hauek etengabe eraberritzea alegia. Ezkontzeak suposatzen duen erantzukizunak, bestenaz, Leturiaren ustez beti ere, askatasuna murriztea dakar berarekin. Egoera honen aurrean, ordea, esteta ez da ohartzen plazerak asetze nahiaren menpe bizi dela. Hau da, bere “benetako desira” Absolutua dela eta absolutu gosea asetzeko orduan erabiltzen dituen objektuak, aldiz, mugatuak. Hala, Leturia (esteta) ez da berak usten duen bezain askea izango. Ondorioz, luzarora, jarrera hau izatera bultzatu zuen atsekabea areagotu egingo da eta gurpil zoro horretatik irtetea gero eta zailagoa suertatuko zaio Leturiari (estetari).

Gure Leturiak, ordea, istant batean, ezkontzari ere alderdi positiboak ikusten dizkio. Hau da, maite-kezkabiderik ez izatea. Elkar maitatzea, beraz, zeruan egotea bezala ikusiko du. Ezkontzaren ikuspegi baikor honek, ordea, Leturiarengan ez du denbora asko iraungo. Sastada edo beldurra sentiaraziko dio bere baitan eta ezkontza zerbait positiboa denaren ideia lilura hutsa dela esango digu. “Baña... zauskada sakon eta latz batek astindu dit biotzondoa. Zer dakit nik ortaz? Lillura, lillura!! Zorion itxura oñarrige utsa ez al da oriek ikusteak bururatzen didan au?”⁵⁰⁴

Leturiarentzat ezkontza mugari bat izango da eta hautuarekin identifikatuko du (Kierkegaardek bizitza etikoarekin identifikatzen duena). Ezkontza aurreko aldia gaztaroa bezala ikusten du eta bizi guztia aurretik duenaren sentsazioarekin parekatzen du. Ezkondu eta gerokoaldiak, aitzitik, Leturiarentzat behinik behin, gaztetasuna atzean ustea suposatuko du eta, bide batez, gaztetasunak suposatzen duen guztia galtzen. Ezkontzeak erantzukizunak hartu beharra suposatzeaz gain, Leturiaren ustez, ezkon ondorengo etaparekin beherazko bidea hasten da. Hau da, zahartzen ari garen kontzientzia pizten zaigu eta heriotzaren posibilitatea ate joka datorkigu.

⁵⁰⁴ Ibid., 28 or.

Galtzen duen horretan pentsatze hutsak alde batetik, eta hautatu ondoren hautu horrekiko damua izateko posibilitateak beste aldetik, gure Leturiari beldurra sortaraziko dio. Eta beldur horri aurrez aurre heldutasunez begiratu beharrean, bere egoera estetikoan berretsiko da Leturia. Horrenbestez, ez du *bizimodu etikora* jauzi egingo (kasu honetan ezkontzarekin identifikatua) nahiz eta *bizimodu estetikoak* ez eskaini berak nahi duen atsedaldia, ez eta erabateko zoriona.

Jaiotzatik ezkondu artekoa, ta ezkontzatik eriotzarakoa; orra bizitzaren bi zatiak: autatu aurrekoa, autatu ondokoa.

Nigan, oraingo, dena dago ikuskizun. Lenengo aroan nago ni. Ez dut nor maite, ez nau inork maite, gurasoak besterik; ez dakit noruntz joan ... Larribide au ez al da ezkonberri ausarta oriena baño nekakorrago ... ?⁵⁰⁵

5.2.2.1.1. Estetaren lehen fasea: Mirenen idealizazioa eta konkistaren hasiera.

Baina hori idazten ari zela, neskatxa bat, Miren ikusiko du. *Bizimodu estetikoan* zehar Mireni buruz dakigun ia guztia Leturiaren ikuspegiaren arabera emana izango da. Ez da apenaz azaltzen Mirenen barne gogoetarik. Hori dela eta, Mirenen berri, Leturiak Mireni buruz duen edertasunaren kontzeptuaren bidez eta Leturiak Mirenek duen jarrerari buruz egiten dituen interpretazioari esker jakingo dugu. Gauzak honela, Leturiak Miren ikustean egiten duen deskribapena honako hau da:

Ori idazten ari nintzala, aurreko iturrira alderatu eta nexkatx bat. Lehen inprezioa uraren ispillu igikorrera begira egondu da lipar batez; eta bere burua, ala urmaeleko ondo arritsua ikuten ote zuen, ezin esan dezaket nik, ametsetan bezalakoa bai-zuen begirada...⁵⁰⁶

Eta hurrengo egunean:

Aren ondotik igarotzerakoan kezkatan ibilli naiz, kezka farregarrian alegia: agurtu bear nuen? Edo-ta, ez dut pentsatzeko beta luzerik izan, eta “agur” esan diot ia Tartu gabe.

Lotsatuta gelditu da nunbait neska, urratsak arindu dituela bistan bai-zegoen.

Zer egiten ote zuen berak? Piska bat kezkatu nau, egia esan. Polita iduritu zait, oso polita. Ez dakit nola den ere; baña giro busti ta Illán artan margo-lore bizia zen bera, ta gorri-zuri gozoa inoiz ez dut sentittu gaur bezin garbi ta kilikagarri. Nillurtuta zebilelako bearbada, xamurra izan zait tzoil aren begirada, ta guztiz berria. Nik bezalako kezkabide ta katramillak al darabilzki ausaz Zerubi'ko neska orrek? Zertarako hartasen da bestela orrenbestetan eta bakarrik? Trixterik eta utsmiñez al dabil ura ere?

Pasarte honetan ikusten denez, Mirenekin berriro topo egingo du “Zerubide”-n. Gaur ere Miren txakurrarekin agertzen da eta Leturiak agurtu egin du. Hau da gertatu den

⁵⁰⁵ Ibid., 29 or.

⁵⁰⁶ Ibid., 29 or.

gertakaria. Kasu honetan, ordea, deigarria egiten zaiguna zera da: gertakari honetatik zer nolako ondorioak ateratzen dituen Leturiak. Lehena, agurtzean Miren lotsatu egin dela esaten digu Leturiak. Baina nola daki hori Leturiak? Agurtzean Mirenek pausoa azkartu egin duelako dio Leturiak. Pausoa azkartzearen arrazoia, bestalde, ez du zertan lotsarena izan behar, beste arrazoi batzuk izan zitezkeen. Hala nola, euria ari zuelako edota nonbaitera joan beharra zuelako eta abar. Baina ez, Leturiak Miren lotsatu egin dela uste du. Deigarria egiten den beste gauza bat zera da: Leturiak Miren “Zerubide”-n egotearen arrazoia, bera bertan egotearen arrazoi berarekin identifikatzea. Izan ere, Leturiari atentzioa deituko dio Miren “Zerubide”-ra bakarrik joatea. Eta bukatzeko, Leturiak Mirenen edertasuna nabarmentzen digu.

Miren ezagutu eta bi egun igaro direnean, bere irudi polita itzaltzen ari zitzaiolako Mirenen zain igaro ditu orduak eta orduak gure Leturiak “Zerubide”-n. Beranduxeago, etxerako bidean zihoala, Xabin lagunarekin topo egin eta harekin hitz egiten zegoela berriro ikusiko du Miren. Kasu honetan, ordea, Mirenen edertasunari arreta gehiago jarriko dio Leturiak, bere kanpo itxurari buruzko zehaztasun gehiago emanaz (ez da oraindik bere barne izaeraz arduratuko).

Gogoz asi natzaio begiratzen. Eremuan eun egunetan egondako ibiltariak ura edango zuen eran, edaten nuen nik bere aurpegi zoragarria. Uste nuen baño ederragoa da. Begietarteko zati guziak aztertu ditut banaka banaka xagundu batean, eta zeazt itsusi bat ikusi dut: etzaizkit bere ortzak gustatu. Nola gerta liteke hau? Ez dakit.

Asko gustatu zaizkit bere ezpain lodiskoteak; eta bere begi erabetiak batez ere. Arek nere agurrari erantzun orduko baneukan nik bere erretratu osoa ta au guzia tzoil azterturik⁵⁰⁷.

Deskribapen honetan deigarria sortatzen da Mirenengan kanpo edertasun perfektu bat bilatu nahia. Hargatik, Leturiak Mirenen hortzak ikustean gustatu ez izana gertakari larritzat hartuko du.

Azpimarragarria da, era berean, edertasuna gaztetasunarekin identifikatzea: *Amasapi urte ditu. Gorputz lerdena, begi argiak, bolizko larru xuria*⁵⁰⁸. Adin zehatza ematen digu Leturiak eta jarraian gorputz lerdena duela azaltzen.

⁵⁰⁷ Ibid., 33-34 orr.

⁵⁰⁸ Ibid., 34 or.

Eta, beranduxeago, Mirenekin hamar minutuko iraun duen elkarrizketa izan ondoren, maitemindu egin dela esaten digu. Guzti hau egun berean.

Laguntzen asi gatzazkio bere etxerako bidean, eta dena esan diot amar minututan, Itzontzi berritsu biurtu nau pozak.

Xabien gizajoak esan edo egin duenaz, ez dalit ezer; bañan eskaratzera itxi orduko etzegoen gurekin. (...)

Bereala iritis da alkarri agurtzeko unea, ta noiz arte ez dugun alakr ikusiko galdetu diot, bañan ez du garbi erantzun nai ziandu, zearka-mearka baizik. (..)

A, Miren maitea! Ta zein argitsua den gaurik beltzena zu ikusi ondoren...

Ura utzi dudanean, pozik asi nintzakean karrasika, maitasuna zein ederra den oju-egiten. Baña, zertarako? Zer daki zegarriaz, egarririk beñere sentitu ez duenak?

Maitasuna: iztegiaren itzik ederrena zera zu, biotzaren elerik xamurrena, buruaren eragllerik bortitzena. Nork asma dezake maitaleari agertzen zaion ederra?

Bere ahotsaren oiartzuna gal ez dedin, ez dut iñorekin itzezin nai; ez dut ezer nai, nere bakartasunean amestu baizik. Mundu atsegin guziak ezer etzaizkit.⁵⁰⁹

Ordu batzuk nahikoa izan dira maitemindu egin dela baieztatzeko. Oraindik ez du Miren erabat ezagutzen, baina bere edertasuna eta edertasun horrek sortzen dizkion sentsazioak nahikoak izan dira maitemindu egin dela baieztatzeko. Eta ez hori bakarrik, bere oihartzuna gal ez dadin, ez du inorekin hitz egin nahi, ez du ezer nahi, bere bakardadean amestu bakarrik.

Hemen, Kierkegaarden esteta ezberdinen definizioa kontutan hartzen badugu, esteta ameslariaren aurrean gaudela esan dezakegu. Hasiera batean, alabaina, Leturiak "Zerubide"-n naturaren aurrean eta Mirenegaz maitemindu egin dela baieztatu aurretik zuen jokaera, *esteta atseginzalearen* portaera moduan definienezake. Izan ere, esteta atseginzalearen ezaugarri nagusia kanpo errealitatearen izaera sentsibleaz eta naturalaz gozatzea izango da. Esteta atseginzalearen desira zentzuen bidez gozatzea da, sentsazio atsegingarriak izan eta etengabe sentsazio hauek eraberritzea alegia. Horregatik, esteta atseginzalearengan nagusituko den gaitasuna sentsibilitatearena izango da eta eremu nabarmenena, aldiz, gorputz materiala.

Hasieran, Leturiak Miren ere objektu gisa ikusten zuen. Bere kanpo itxuran bakarrik zuen bere arreta jarria. Behin maitemindu egin dela baieztatzean, ordea, esteta ameslariaren izaera hartuko du gure Leturiak. Hala, Kierkegaarden *Seduzitzailearen egunkariako* protagonistak bezala, bere arimak bere maitearen irradia etengabeari hots egingo dio. Bere ongizatearen erantzule bakarra izango balitza bezala alegia. Erabateko

⁵⁰⁹ Ibid., 34-35 orr.

malenkonia birituko du eta maitearenganako pentsamenduak beti iraungo du berarekin. Fisikoki bere alboan ez egon arren, bere bakardade mingarrian, bere baitan murgilduko da eta irudimenean birkreatuko du bere maitea. Horrela, bere espiritua elikatuz.

Esteta ameslariaren eta atseginzalearen aspektu batzuetan bat egiteaz gain, esteta ororengan adierazle den jarrera izango du gure Leturiak. Hau da, arrazoizkoa eta zentzuzkoa den oro alde batera utzi eta maitasunak sortzen dion plazeraren baitan erabat murgiltzea izango du xede Leturiak.

Baña badantzut: “Joxeba, ire egoera ez duk bidezkoa. Eroa dirudik”. Gizonaren xede bakarra bidez eta zentzuki biritzea ba da, eraman nazatela deabruak. Zertarako nai ditut nik arautasuna ta zentzua, orain arte lozorroa besterik eman ez badidate? Bere bidez biziaren gjarra ausnartzeko gauza egiten ba nau, betor ordu onean erotasuna⁵¹⁰

Mirenek, ordea, ez dio natura kontenplatzeak ematen zion lasaitasuna emango. Orduak eta orduak pasako ditu Mirenengan pentsatzen. Gau eta egun, obsesioan bilakatu da Miren. Mila kezka datorkio burura. Bera ikusten duenean pozez zorutzen da, bera falta denean, ordea, dena iluntzen. Miren bihurtuko da, hortaz, bere bizitzaren eta zorientasunaren erantzule nagusia.

Au aldaketa, orain arte gaua zetorreanean ez nuen zer-kezkatu, ta oeratu bezin laister orditzen ninduen loak, eta bere illunben iraungitzen zen nere biotzaren argia. Orain, oster, oieratu, ta berantetsita narabilte milla asmaziok, eta milla kezka naragite, pake zana batbatean ekaitz izugarri egiñez. A, Miren: bihar ikus ba zintzat, itzezin ba neza zurekin, alai ba nintza zure ahotsak... Zerori zera nere gogorazio bakarra, zuk zerorrek betetzen duzu nere izate osoa, eta inolako ezkez illuntzen. Zerurik goreneraño altxatzen nauzu batzuetan, eta ifernurik izugarrieneraño egozten besteetan. Egun eta illun zatzazkit batera.⁵¹¹

Beste egun batez, Mirenek senargaia duen ala ez galdetzen dio Leturiak bere buruari eta, hala izanez gero, kenduko diola zin egiten du. Berarentzako nahi du Miren, ez beste batentzat. Lehen kontenplazio hutsa zena, orain berarentzako nahi du, hots, Miren bere jabetzan bilakatu nahiko du: “Senargairik ote du Miren-ek. Edo-ta kenduko diodala zin dagit emen, artarako zeru-lurra oinperatu ta illerazi behar ba ditut ere.”⁵¹²

Bederatzi egun pasa dira Miren azkenengo aldiz ikusi zuenetik. Hori dela eta, bizitzeko gogoia gutxitzen ari zaio gure Leturiari. Bizitzeko beharrezko elementuan bilakatu da

⁵¹⁰ Ibid., 36 or.

⁵¹¹ Ibid., 36-37 orr.

⁵¹² Ibid., 38 or.

Miren eta lortu arte ez du bere onik izango. “Bederatzi egun ziran gaur Miren ikusiten ez nuela. Denbora pasa-ala utsunea aunditu, ta bizitzeko gogo aukitzeko tokirik gabe gelditzen ari nintzan, tristuraren arra zula ta zula zebillen- eta.”⁵¹³

Egoera honetan eskutitz bat idatziko dio Mireni. Alabaina, Mirenekin topo egiten duenean ez dio Mirenek eskutitza jasoko. Leturiak ez du jarrera hori espero eta Miren garaile irten dela uste izango du. Egoera horren aurrean Leturia asaldaturik geratuko da, hots, lekuz kanpo, zeren bere baitan ziur zegoen Mirenek eskutitza hartuko zuela.

Laisterregi iritsi gera bere eskaratzera. Baña bazen joateko garaia, ta nere patrikatik aterarik, eskutitza artu, ta eman egin diot.

Ez dit jaso nai izan.

Ez nuen nik jokaera au espero; eta emakumeekin geienetan gertatzen den bezala, ura geratu da garaille; ta ni, gauzak pentsatuta zituena, asaldaturik eta oreka galdua.⁵¹⁴

Hemen ikusten dena zera da: Leturiak Miren bereganatze prozesua konkista edo garaipen bezala ikusten duela. Bata bestearen gainetik egote modu bat alegia. Kasu honetan, Leturia bera izango da konkistatzailea eta Miren eta bere artean emango diren gertakari guztiak berak irudikatu duen moduan gertatu behar direla uste izango du. Hau da, Mirenek bere irizpide propioz izango ez balu bezala eta, ez hori bakarrik, Mirenek egoera horretan izan dezakeen jarrera egokiena gainera, Leturiaren iritziz behinik behin, bere buruan irudikatu duen hori izango da, hots, Mirenek eskutitza hartzea. Baina Mirenek Leturiak espero zuenaren aurkako jarrera izateak tokiz kanpo utzi du Leturia eta uko hau konkistaren bidean porrot gisa bizituko du Leturiak, bere atsekabeen eta egonezinean gehiago murgilduz. Josebak, ordea, Don Juanek (estetaren sinboloa) lez, ez du etsiko bere xedea lortu arte, hots, Miren bereganatu arte; eta justifikazio gisa lasai egoteko jaioa ez dela izan esango digu.

Atzo, berriz, maitekor agertu izan ba nintzaio, lasai egongo nintzakean orain, azaldu ta ikararik gabe.

Onela ostera...

Baña zerbaitek esaten dit ixillik: “Lasaitasunean noiz izan zera gizon? Beti damutu zaizu bezperako sasi-pakea. Lasai irauteko jaio al zara?”

Ta zalantzaren arrak narabillelarik ere, lozorro lodia aienatzen dut.⁵¹⁵

Beste mutil batetik ikusteak ere ez dio Miren konkistatzeko gogorik kenduko. Masokismo puntu bat izango du gure Leturiak. Badirudi Mirenek sortzen dion

⁵¹³ Ibid., 39 or.

⁵¹⁴ Ibid., 40 or.

⁵¹⁵ Ibid., 41 or.

gorabeheretik, zorion eta etsipenetik, nolabaiteko plazera sortarazten diotela. Bizirik sentiarazten alegia. Horrela, bada, nahiago izango du bakeak eskaintzen dion lozorro aldia baino Mirenen konkistak sortarazten dion egonezina.

Mirenek azkenean eskutitza onartze du eta Leturiarekin hitzordu batzuk ere egiten ditu. Pixkanaka bi lagunen arteko harremana sendotzen joango da. Hemen hasiko da konkistaren bigarren fasea, hots, gerturatze fisikoa.

5.2.2.1.2. Estetaren bigarren fasea: gerturatze fisikoa, Mirenen gorpuztasunarekiko higuina eta *bizimodu etikorako* jauzia.

Puntu honetan, Leturiak harremanean aurrera egin nahian edo, eraztun bat bidaltzen dio Mireni, truke fisiko horren bitartez hitzarmen bat sinatzeko asmoz. Elkarrekin topatu eta “Zerubide”-ra doaz, iturri aldera, elkar ezagutu zuten lekura, eta harreman fisikoari bide emango diote. Elkar musukatuko dute, baina erabat esanguratsua da Leturiak musuaren berri emateko erabilitako hitzak: “Zeharka izan da musua, zerutiarra, eta laburra izan arren betikotasun kutsuduna” (63. or.). Beraz, badago halako gerturatze fisikoa, baina ez da haragizkoa edo desirazkoa izan, zerutiarra baino. Gainera azpimarragarria da Mirenek musu ematearekin batera Joseba maite duela esatea eta, ez hori bakarrik, Mirenek pauso hau eman du eraztuna jaso duenean. Hau da, eraztuna konpromezuarekin identifikatzen duenean.

Hemen, argi ikusten da, Leturiaren eta Mirenen artekoa garaiko Euskal Herrian denbora luzez iraun zuen matasunaren Kristau ikuspegiaren eraginpean ematen dela.

II. eta III. mendeetan zehar Erromatar Inperioaren gainbeherarekin, Kristau kulturak indarra hartu zuen, eragin historiko eta kulturalaz gain, gizon-emakumeen arteko harremanak planteatzeko moduan ere arrasto handiak utziaz. Erljio berri horren oinarrian aszetismo sakona zegoen. Hau da, giza sexualitatearenganako areriotasun handia eta lurreko bizitzarekiko erabateko mespretxua. Erljio honen jarraitzaile gehienentzat plazerarekiko gutxieste hau bere pentsamenduaren eta bizitzaren ardatz bilakatu zen, Elizaren ustez bizitza honetan gozamen fisikoak espirituaren aurreiritzi bat suposatzen baitzuen.

San Pablok gorputzaren eta arimaren greziar kontzeptu dikotomikoari erabateko garrantzia emango dio. Bere ustez, arima gorputzetik banandua dagoen entitate bat izango da, gorputza transzenditzen duena; eta mundu honekin eta gorputzasunarekin zerikusirik ez dituen baloreen baitan mugituko da. Gorputza, aldiz, arima giltzapetua dagoen kartzela izango da eta pertsona batek bekatua egitearen iturburua, hots, gizakiak plazera eta lizunkeria bakarrik bilatzearen jatorria.

Kristautasunak altruismoan eta sexualitate gabekotasunean oinarritutako maitasun ideal bat aurkeztu zuen beraz, plano praktikokoan “maitasuna” eta “sexua” muturreko elementuetan bilakatuz. Horrela, bada, Jainkoa maitasunaren iturburua izango da eta sexuaren etorburua, aldiz, deabrua.

“Emakume bat ez ukitzea ona da gizonarentzat” esango digu San Pablok, baina gizonak ezin badu inpultso horiek kontrolatu, irrikaz egon baino hobe du ezkontzea.

Abstinentzia sexuala moral ideal bezala aldarrikatuko da eta, beranduago, ezkontza “hilezkortasunaren sendagai gisa” deskribatua izango da. Puntu honi buruz honako hau esaten digu Taylor-ek:

La Iglesia medieval estaba obsesionada con el sexo hasta un grado insoportable. Los temas sexuales dominaban su forma de pensar de un modo que nosotros consideraríamos totalmente patológico. No es exagerado decir que el ideal que ofrecía a los cristianos era, principalmente, un ideal sexual. Este ideal era muy coherente, y estaba encarnado en un código de reglas bien elaborado. El código cristiano se basaba, sencillamente, en la convicción de que había que huir del acto sexual como de la peste, excepto en lo mínimo necesario para prolongar la raza. Aun cuando se llevaba a cabo con este propósito, seguía siendo una lamentable necesidad. Los que podían, eran exhortados a que lo evitaran, aun estando casados. Para aquellos otros que eran incapaces de esa heroica negación a sí mismos, existía una compleja telaraña de reglas cuyo propósito principal era que el acto sexual fuera lo menos placentero posible, restringiendo su práctica al mínimo; es decir, a la función de procrear. En realidad lo que se condenaba no era el propio acto sexual, sino el placer que producía, un placer condenable incluso cuando se practicaba el sexo con miras a la procreación ...⁵¹⁶

Kierkegaarden ezkontzaren ideia, aldiz, ez da deskribatu dugun pasarte honen bezain hertsia izango.

⁵¹⁶ Taylor, Gordon Rattray. *Sex in History*/ Nueva York, Harper Torch-books, 1973

5.2.2.2. Ezkontza: Estetikaren irautea etikaren baitan

Nik nire buruaren hautua egin ondoren bakarrik, hots *bizimodu etikoa* aukeratu ondoren, nire bizitzan “ongiaren” eta “gaizkiaren” arteko diferentzia absolutua ezarria geratzen da eta, ez hori bakarrik, ondo dagoena egin eta oker dagoena baztertzeko inperatiboak indarra hartzen duela esango digu Kierkegaardek.

Baina bizimodu aldaketa honek arazo bat planteatzen digu. Kasu batzuetan Kierkegaarden pentsamenduan adituak direnek ere modu zuzenean konpondu ez dutena alegia. Hau da, *Bizimodu etikoaren* hautuak aurreko *bizimodu estetikoaren* erabateko baztertzea suposatzen al du?

Galdekizun honek estetikoaren eta etikoaren artekoa erlazioari egiten dio erreferentzia eta gai honi buruz Kierkegaardek *Alternatibaren*⁵¹⁷ bigarren zatian eta *Estadioak bizitzaren bidean* lanetan hitz egingo digu. *Alternatiba* lanean estetikoaren eta etikoaren arteko erlazioari buruz modu orokor batean hitz egiten digu. *Estadioak bizitzaren bidean*, aldiz, daniar pentsalariak era zehatzago batean landuko du gai hau, hots, *bizimodu estetikoaren* eta *etikoaren* kategoriak diren maitemintzea (estetikoa) eta ezkontza (etikoa) alderatuz.

Estetikoaren eta etikoaren arteko oreka pertsonalitatearen eraikuntzan lanean, bestalde, *bizimodu etikoak* bizitza estetikoa osatzen dituzten elementu primitiboen erabateko desagertzea suposatzen ez duela esango digu Kierkegaardek.

Nada sucumbe en la desesperación, toda la estética permanece (bliver) en el hombre, sólo que ha sido avasallada (er gjort til tjenende), y gracias a ello ha podido ser conservada (bevaret). Sí, ciertamente no se vive en ella como antes, pero eso no significa de ningún modo que se haya perdido; si se la puede usar en otra forma, ello no quiere decir que haya desaparecido⁵¹⁸

Estetikoak etikoaren baitan irauten duen tesi hau, ordea, bi zentzutan ulertu behar da. Lehena, etikaren hautua egiteak gizabanakoaren baitan dagoen etikotasunaren nagusitasuna baztertzea suposatuko du, baina gizakiaren baitan ematen den berezko

⁵¹⁷ Gaztelaraz, *La alternativa*. Modu epistolarrean idatzitako hiru saioz osatua dago. Lehenaren izenburua *Ezkontzaren balio estetikoa* (La validez estética del matrimonio) izango da. Bigarrena, *Estetikoaren eta etikoaren arteko oreka pertsonalitatearen eraikuntzan* (*Equilibrio entre la estética y la ética en la formación de la personalidad*). Eta hirugarrena, *Ultimatum-a*. Lehenengo bi izenburuak esanguratsua izango dira ezkontzaren gaia lantzerako orduan.

⁵¹⁸ EE-II, 205 or.

indarra erabat suntsitzea ezinezkoa denez gero, gehienez jota, *bizimodu etikoan*, ordura arte estetikotasunak zuen nagusitasuna gutxitzea emango da. Horrela, bada, nahiz eta estetikoak etikaren baitan iraun, ordura arte zuen domeinua ez du izango eta etikoarekiko menpeko azaleratuko da.

Estetikoak etikoaren baitan irauten duenaren bigarren esanahiak, aitzitik, etikaren hautuak estetarengan metamorfosi bat suposatzen duela aditzera ematen digu. Estetak, hortaz, itxuraldatze ⁵¹⁹(Forklarelse) bat biziko du: "La ética... no aniquila lo estético, sino que lo transfigura" ⁵²⁰

Gizabanakoarengan ematen den itxuraldatze honek, maitasun propioa edota desira berekoa (estetaren ezaugarria dena) izatetik, sotilagoa izango den jarreran izango du oinarritzat. Hori dela eta, estetak atsegingarria eta laketgarria denarekiko inpultso itsua alde batera utzi eta zintzoagoa izango den jarreraren alde agertuko da.

Lehen esan dugun bezala, Kierkegaarden gainontzeko idatzietan estetikoaren eta etikoaren arteko arazo orokorra maitemintzearen eta ezkontzaren, senargaiaren eta senarraren, arteko erlazio zehatzean garatzen da. Estetikoaren eta etikoaren sinonimoak direnen artean alegia. Kierkegaardek, hortaz, ezkontzari buruz duen ideia hau kontutan hartzen badugu, ezkontzaren baitan lehen maitasunaren ezaugarria den izaera sentsualaren (maitasun estetiko) laudorioa egiten digu. Hau da, maitasun sentsualak ezkontzaren baitan bizirik irauteko duen eskubidearen aldarrikapena egiten digu. Hortaz, Kierkegaarden xedea ezkontzaren baliozkotasun estetiko azaleratzea izango da:

Pienso que mi tarea ha de tener por objeto principal dos cosas: mostrar la importancia estética del matrimonio, e indicar cómo lo estético, a pesar de todos los obstáculos de la vida, se puede mantener en él" ⁵²¹. Eta beranduago, "estoy dispuesto a luchar por dos cosas: en la tarea enorme de mostrar que el matrimonio es la transfiguración del primer amor y no su anulación, que es su amigo y no su enemigo" ⁵²²

⁵¹⁹ Gazteleraz, *transfiguración*.

⁵²⁰ EE-II, 227 or.

⁵²¹ Ibid., 8 or.

⁵²² Ibid., 29 or.

Senar-emazteengan, benetako ezkontzaren baitan, bada, lehen maitasunaren energia eutsia ageri da. Pasiorik gabeko ezkontza, hortaz, helburua zehatz bat lortzeko elkartzeko huts bat besterik ez da izango Kierkegaardentzat.

Horregatik esanguratsua egiten zaigu Leturiak Mireni zeharkako musua eta zerutiarra ematea. Izan ere, Kierkegaardek behin ezkontzeko hautua egin ondoren pasioa bizimodu etikoaren parte izatea ez du lizuntzat hartuko, alderantziz, ezkontzaren baitan beharrezkoa den zerbait bezala ikusiko du pasioa. Leturiak, ordea, lehen unetik maitasuna zerbait zerutiarra bezala ikusiko du eta gerturatze fisikoan, hots, musu ematean higuina sentitu arren, aurrera egingo du ezkontzarekin, alderdi haragikoa alde batera utziaz (une honetan Mirenen erabateko idealizazioa emango da). Hortaz, gure Leturiak ez du gainontzekoek bezalakoa izan nahi. Berak sentitzen duena benetako maitasun garbia eta ez lizuna baita. Horrela, bada, esan dezakegu, Kierkegaarden ezkontzaren eta maitasunaren planteamendura baino, Leturiaren eta Mirenen artekoa, Kristautasunaren ikuspegi zurrunera gehiago gerturatuko dela.

(...) Zergaitik jokatu bear nuen nik orain arteraño maitale ta sasi-maitale guziak bezelaxe? Ziur dakit nik a neta emen ikusten diran bikote geienak maitasuna zer den azaletik baiño ez dakiteka; eskierki dakit nik maite-dardara zer den ezagutzen ez dutena. Ikusi besterik ez da bear esaten dudan onetaz konturatzeko: gorputzaren lera utsa da aiengan nagusi. Nigan, ordea, diferente izanagatik ere, berdintsu jokatu behar al nuen nik beti, ezin bestez?⁵²³

Gerturatze fisikoaren beste aspektu bat ere azaleratzen zaigu eleberrian. Oraingo honetan indarkeriarekin lotua.

Mirenekin harreman fisikoa abiatu eta egun gutxitara, Leturiak Miren bere lagunarekin ikusten du berriro eta, hargatik, Mirenek adierazitako sentimenduen inguruko kezka eta zalantza agertzen du, horiek guztiak lelo batera bilduz: “Aldakortasuna: emakume deritzu”⁵²⁴. Deigarria da oso aldakortasuna emakumearekin lotzea eta are deigarriagoa dena honako hau da: Leturiak dituen kezken ondorioz, erreakzio bortitza izatea. “Zerubiden” ikusi dugu elkar. Ni iritsi orduko bazegoen han Miren. Eta atzo gauean hala erabakita, haren ondora joan eta hitzik esan gabe, zaplateko bat eman diot. Negarrari eman zaio gajoa, eta orduan konturatu naiz neure zakarrera latzaz. Berandu

⁵²³ LEE, 57- 58 or.

⁵²⁴ Ibid., 67 or.

zen”⁵²⁵. Bortxaz jo ondoren Miren, bere haserrea fisikoki adierazi ondoren, musu ematen dio kontsolatu asmoz, baina berriro ere harreman fisiko horren desira sexual eza agerrarazten du: “Eman daitekeen musurik xamurrena eman diot masailean, batere haragikeriarik gabea, neure amari emango niokeen bezalakoxea”⁵²⁶

Beraz, Leturiak bere jabetza aldarrikatzeko bidetzat du bortxa. Mireni bere jabetza dela adierazteko modua alegia. Adierazgarria da oso bortxazko keinu honen ondoren bihurtuko dela Miren Leturiaren emazte. Hau da, Leturiaren “jabetzan”. Zaplaztekoa, beraz, ezkontza tradizionalak sortzen duen botere-harremanen ikurtzat har daiteke. Ez dugu ahaztu behar Elizaren antisexualitatearekin batera antifeminismoa ere eman zela. Kristautasuna Erdi Aroko Europan zehar hedatzen zihoan bezala, emakumeek erromatar garaian lortu zituzten eskubide guztiak galdu zituzten. Emakumeak kristau pentsamenduaren baitan senarraren basailu kontsideratzen ziren. Animali etxekotuak alegia. Emakumeak arima zuen ala ez eztabaidatzen zen eta kristau doktrinaren arabera, gizon-emakumeen arteko hartu emana Jainkoaren eta gizonaren arteko harremana bezalakoa izan behar zuen. Garaiko gizartean emakumeak jarrera otzana izatearen jatorrian, Adanek bekatua egitearen erantzule Eva izendatzean datza (zoritxarrez emakumeengan ere ideia hau gailendu egin zen). Gauzak honela, emakumea gizonaren jabetza izateaz gain, animalia edo objektu bezala ikusia eta tratatua zen, indarkeria jabetza eta dominazio tresna bilakatuz.

Ikuspegi honen zantzuak ageri dira, hortaz, Leturiaren eta Mirenen artean ematen den bortxazko gertakari honetan. Leturiak Mireni zaplaztekoa ematean Mirenek egoera honen aurrean ez baitu ezer ere esango, hots, normaltasunez ikusiko du jarrera hau (Mirenek ezin al du ba beste mutil batetik harremanik izan?) eta, ez hori bakarrik, ezkontzeko prest agertuko da.

Bere barne-muñean, minduta Miren, etzuen ezer azaltzeko kemenik, ezta bere burua garbitzen saiatzeko ere. Ta, ura ikusita, nora joan da nere gogorra? Lekutan zeuden ordurako atzoko nere asmo “tinkoak”.

Malkoak bigunduta, zerbait esateko eskatu diot otzan. Erantzunik ez.(...)⁵²⁷

⁵²⁵ Ibid., 68 or.

⁵²⁶ Idem.

⁵²⁷ Ibid., 67 or.

Erdia Aroa eta gero, Evaren bekatuzko ideiarekin lotzen zen ikuspegiaren aurrean, Mariaren irudia agertuko da: Ama birjinarena. Ama birjinaren irudi hau, ordea, purutasunaren eredu bilakatuko da eta gizonaren arima eraldatu eta “zerura eramango” duena izango da. Horrenbestez, gaur egungo terminologiak erabiliz, kristautasunaren ikuspegiaren arabera beti ere, alde batetik desiratzen den emakumea egongo da. Hau da, oheratzeko erabiliko den emakumea. Beste aldetik, ordea, miresten dena, ezkontzeko hautatzen dena egongo da. Hortaz, nahiz eta gure Leturiari Mirenen musuek ez asetu, ezkontzea erabakitzen du. Bere ustez, sentitzen duen maitasuna benetakoa, gardena baita, eta hori muxuak baino garrantzitsuagoa izango da Leturiarentzat. Mirenek beste mutilarekin izandakoari, hortaz, ez dio garrantzi handirik eman. Miren emakume garbia, birjina da eta, ikusiko dugun moduan, kristau ikuspegiaren arabera “emazte perfektuaren” rola erabat beteko duena gainera. Horrela, bada, bizitza estetikoak eskaintzen dion plazer sexuala alde batera utzi eta ezkontzak suposatzen duen bizimodu etikora jauzi egiteko hautua egingo du gure Leturiak.

Uda deritzan atalean, bestalde, bilatzaileak ohar baten bidez ematen digu Leturiaren eta Mirenen ezkontzaren berri. Zoriontsu izan zirela hilabete batzuetan ondoztatzera iristen da bilatzailea; zere eta garai hartan egunkaria idazteari utzi baitio Leturiak. “Ortaz, zoriontsu izan zan Leturia ezkontuta gero illabete batzutan, ori adierazten du bere ixillaldiak, gure ustez.”⁵²⁸

5.2.2.3. Udazkena: Udaberriaren -hau da, gizaki estetikoaren- birgogoeta autokritikoa.

5.2.2.3.1. Ezkontza ugalketarekin identifikatu

Miren emaztegaia emazte bihurtzerakoan, jada, Leturiak ez du desirarik sentitzen. Halaber, desira objektu zenak ez du asebetetzen, ez da zoriontsua gure Joseba. Honela adierazten du Leturiak:

“Larria da oso esatekoa: Miren´ek ez nau zoriontsu egiten. Ezkondu aurren bezain tirrika nabil. Leheen eta noizik behin bakarrik, bere biziak itsututa, elkar ematen genuenean, zerua bera geurekin genuela zirudien: odol-itsutasuna eta zoriona nahasten genituen” (...) “Mitoa desegin eta tirrikazioak deuseztatuta, bihotza zipilduta, sakonago egin da hutsunea. Nekatu egin nau opa nuena eukitzeak”⁵²⁹

⁵²⁸ Ibid., 76 or.

⁵²⁹ Ibid., 80 or.

Nobelaren hasieran egin bezala, ezkontzari buruz gogoeta “Zerubide”-n gauzatuko da eta, han berriro ere, ezkonberriak ikusten ditu. Oraingo honetan, ordea, ezkontzaren inguruan duen ikuspegiak beste ildo bat hartu du. Ezkontzaren ikuspegi ezkorra izango du berriro ere Leturiak, baina aurrekoan ez bezala, esperientziak ikustarazitakoaren bidetik azalduko digu:

Bi ezkonberri etorri, argazki batzuk atera, eta joan egin dira” (...) “Berriz bururatu zaizkit egun hartako iduriak; behetik gora begiratzen nien orduan, goitik behera gaur. Haienganako mirespena zen hura, mirespen asaldatzailea alegia; kupida gaur arratsaldekoa. Aldapan gorakoan nekusen orduan lisuragaina; beherakoan gaur⁵³⁰

Are gehiago, Yonekin topo egiten duenean ezkontzaren ikuspuntu jakin bat jorratzen du, Armentiatarren ezkontza usteaz abiagunetzat hartuz:

Seme bat utzi dik “-erantsi du-” eta Amerikera joan duk. Kemena izan behar orretarako. Errexa zirudik kanpotik begiratuta; baña jarri adi bere lekuan, eta ikusiko du,
Ba al zuen au esan bearrik?
Semearen kontua duk or, eta beti, gogorrena; onek ez beste baiesten dik ezkontzaren ezin urratzea, Bestela, ta norberaren okerrak zuzentzekoa zuurren jokabidea ba da, zergaitik onetan ez zuzendu? Autatze larririk ba da bizitzan, auxe duk larria⁵³¹.

Seme-alabak izatean ezkontza ezin urra daitekeela dioen pasarte honetan adierazi bezala, ezkontzaren funtzio nagusia familia osatzeari begira jartzen du Leturiak. Ugalketari begira alegia. Baina, nahiz eta adierazpen horretan argi geratu jendartean funtzio nagusi hori ematen zaiola ezkontzari, Leturiak eredu tradizionalen ulerturiko ezkontzari kritika egiten dio. Behin betiko hitzarmen sozial modura erroturiko ohiturari alegia. “Akats bat aurkitzen zioat ezkontzari: aurretik ezin probatzea”.

Nahi dutena esango ditek honi buruz zintzoek eta ortodoxoek; bainan beti izango duk hau mila okerren iturburua. Eta dirudienez, zuzendu ezinezko okerburua duk» Zerbait erantzuteko zorian egon naiz, bañan ez dut tutuk esan: zerbait otu arren, ez nuen ukusten esatekoa.

“Gañerantzean, zio aztunak ditut burgesentzat “okerra” ez egiteko. Gizartearen susmurrak dituk lokarri sendorra: gaizki ilusita zegok ori gaur...”

Nazka pitin bat eman dit puntu onetan bere lotsagabekeriak.

“Badituk, oietaz gañera, beste “maitasunzioak”... zeren, senarra utzi ta zer egin dezake bere aldetik zijoan emakumeak gajoak? Au dela-ta, lika bikaiña duk diruaren falta.”

Gogorra zan lasaikeria au, bañan arrazoia- edo ez al zuen Yon´ek?

“Onela, illobi-ixilla egiten duk ezkonduen artean, eta biek ere ez dik txintik esaten, Pozik daudelako? Ez, alajainkoa! Nere esperientzia exkaxean (besteen lepotik

⁵³⁰ Ibid., 82 or.

⁵³¹ Ibid., 83 or.

artua au, jakiña) erabaki bat ateratzen ari nauk: gutxi dakigula ezkontzaz, eta uste dugun baño garratzagoa dela egia.”⁵³².

Argi dago, hortaz, Leturiaren barne-gatazkan ezkontzak baduela lekurik. Hala, ezkontzak dakarren lotura motak eta harreman motak bere kezka eta ezinegonen etorburuan bilakatuko dira.

5.2.2.3.2. Ezkontza hautu bat izan behar du, ez inposatze bat.

Maiteminak alienatu egin zuela esango digu Leturiak. Ez zela erabaki bat izan, instintuak, ohiturak eta lilurak kulunkan izaten uztea baino. Ilusioaren uhin gozoei amore emate honek “unibertsala” egin du Leturia. Mundu guztiak egiten duen horretan erori da, bere singularitasuna galduz, liluraren lokarrietan esklabo bihurtuz. Ezkontza ondorengo aldi honetan, Leturia ezkonduak bere lagun ezkongabeekin konparatzen du bere burua, bereziki, ezkondu ez den Mikelen egoerarekin eta haren askatasunaz hausnarketa egiten du. Mikelek, maitemindua egon arren, ez ezkontzea erabakitzen du. Mikelen ustez, maiteminak denbora jakin bat du, ez da betiko eta, honetaz gain, ezkontzak maitemina hil egiten du. Hortaz, zertarako ezkondu zorionerako bide bakarra maitemina bera baldi bada? Josebak neurri batean onartzen du inbidia pixka bat duela eta horretarako Ortega y Gasset hiru gizon moten adibidea jarriko digu (hau ere azpimarragarria da):

Ta, nere bihotzondoan, ez al dut nik Mikel bekaizten? Baliteke. Iru gizon-mota dira Ortega-ren ustez: “Don Juan” izan diranak, “Don Juan” izan uste diranak, eta “nai etzutelako” “Don Juan” beñere izan etziranak. Onetan al datza, ausaz, Mikelenganako nere enbidia ezkutua? Alde batetik baietz usten dut.⁵³³

Mikelen kasuan, ordea, hautu bat ez dela izan ohartzen da, ez dituelako hautuaren ondorioak bizitu eta, horregatik, zoriontsua dela. Baina sakonago azterkatuz, libre al da? Pentsatu gabe hautatzeak bere burua engainatzea dela usten du Leturiak. Hau da, bizitza ez autentikoa hautatzea alegia.

Badago, alere, arimari buruzko beste zio edo jari bat; eta koxka au dela usten du. Aukeratu egiten ez du Mikel'ek: bere esku dirau; aukeratzearen ondorioak ez ditu ezagutu, eta onengandik dabil pozjario. Baña. Sakonago azterkatuz, libre al da? Ez aukeratzea aukeratu du, nere ustez, ta zentzugabekeria da ori. Bere burua engaĩatzea baño ez. Pentsatu ondoren artu izan ba lu behintzat bere bide ori... Bañan ez dut uste. Oarkabeen, edo pentsatu gabez,

⁵³² Ibid., 84 or.

⁵³³ Ibid., 86 or.

aukeratu du itsutasunaren bidea; ta au da ori: saldukeria, gizonak egon dezkean saldukeriarik galduena.
 Mikel'ek, jakiñez eta burubidez, bizitza autentikoa autetsi bearrean, inautentikoa artu du bidetzat.
 Ezin bat etorri.⁵³⁴

Bere lagunarekin egiten duen erkaketa honetan, hortaz, bere barne-kontrajarpenak agerrarazten dira. Hau da, aukeratu behinenaren mina eta ez aukeratzeak dakarren koldarkeria. Jakina, berriro ere aukeratu beharra ezkontza-hitzarmenarekin lotzen du eta bakarrik hitzarmen sozial horrekin, ez besterekin.

Hortaz, ezkontza bera gaizki ikusiko al du Leturiak? Gaztetetasunaren galtzearekin identifikatzeaz gain, gaizki ikusten duena zera da: ohituragatik, elizak bultzatuta, gizartearen inposiziogatik ezkontzea. Hori dela eta, ezkontza hautu bat izan behar du, norberaren baitatik ateratako erabakia, ez gizarteak, erlijioak, inposatutako zerbait.

5.2.2.3.3. Zorigaitzaren jatorria Miren idealizatzea.

Hortaz, Miren idealizatzea izan da akatsa.

Eta zer da ni engañatu nauena? Ez diot Miren'i errua botako, ez; neuk gezurtara dut nere burua.

Askotan entzun izan nuen nik zorion-irritsa mundu onetan asetzerik ez dagoela: ta, guztiz ere, ta aoz nik ala aitortuagatik ere, zer egin dut etsipen-leize illun onetara ez jausteko? Deus ez.⁵³⁵

(...)Lillura utsa izan da guzia... Miren'gan etzegoena ikusi nuen nik, zoriona atxiki nion eta, Zergaitik izango zuen berak, nik falta dudana?

Orra maitasunaren okerra: norberak opa duen zorontasuna beste batengan ezartzea. Nondik nora "nondu" gure utsunea emakume batengan? Zergaitik "nortu" gure zorion-miña? Zer dela bide?

Auxe da maitasunaren lillura, ta argatik etsitzen dugu maitale guztiok: maitemintzean nordeen eziñezko bat egin genuelako. Inork ezin dezake beregan nortu besteren zorion-bearra. Nortu egiten du beti, ordea maiteminduak. Ortaz, etsipenak jarraitu bar, nai ta ez. Nolatan ez?⁵³⁶

Lilura sortu duena baino ederragoa da lilura bera. Azken finean, ameslariak absolutua, eguneroko bizitza, errealitatea eta abar moldatu egiten baititu. Iristeak itzali egiten du lilura. Ederra dena lilura bera da, hots, bidea. Hau da, amestutakoa ez lortzea. Hortaz, nahiz eta lilurak "ezerezera" eraman, lilura beharrezkoa da itxaropena egoteko. Izan ere, lilurarik gabe ez dago itxaropenik.

⁵³⁴ Idem.

⁵³⁵ Ibid., 81 or.

⁵³⁶ Ibid., 95 or.

Naikundeak eskatzen duena lortzen ez ba da, naikundearen almena edo joera geldizen da erre neta gogotsu. Baña desira lortu ezkeru, izate osoa, nortasun osoa geratzen da egarri bizian, osotara etita, nora jo ez dakiela. Lenbizikoan, lillura batek lurjotzen du; bigarreanean, gizon osoak. Onengatik, sakonago da naikundeari darraikon tristura, naikundea betekizun gelditzeari darraikona baño. Ots, kaltegarriagoa da lortzea, ez lortzea baño.

Itxaropena iltzen du lillura iltzaileak, itxaropena piztu, ordea, “kizun” geratzeak. Onengatixe inda reta eragite aundiagoa du lillurak arrakastak baiño, ta ibiltzeak iristeak baño. Alere, ezdeusera habitasen da izanez lillura. Beraz, frakasoia da munduaren eusle aundiena. Eriotza esan nuen artemein; frakasoia gaur...⁵³⁷

Gizabanakoak amestutakoa lortzean ez du bere liluraren erabateko asebetetzea izango eta gure Leturiak ere antzeko zerbait bizituko du. Izan ere, zorientasunaren desira infinituaren eta desira hau asetzeko erabiltzen duen objektuaren (Mirenen) izaera mugatuaren arteko gairdiezinezko kontraesanaren aurrean aurkitzen da. Guzti honek, Leturiarengan “Zerubide”-ra bultzatu zuen etsipena areagotu egingo du, zeren Mirenengan jarri zuen bere zorionaren esperantza guztia eta berarentzat porrot bat izan da Mirenekin ordura arte bizitakoa. Egoera honek, bestalde, ezkon aurretik Mirenekiko sentitzen zuen higuina areagotu egingo du (Miren gizaseme bihurtuta ikustera iritsiko da Leturia 88 or.). Hala, lehen sentitzen zuen lilurak Mirenen fisikotasunak eragiten zion higuina bigarren maila batean jartzen zuen bezala (garrantzizkoagoa zen idealizazioa, lilura bera, sentitzen zuen higuina baino). Orain, idealizazioa haustean, Mirenen fisikotasunarekiko sentitzen zuen higuinak indar handiagoa hartzen joango da eta Mirenen eta Josebaren arteko elkarbizitza gero eta ezinezkoagoa bilakatuko da (ametsetan Miren hiltzera iritsi arte 104 or.)

Bi iguiñaldi izan ditut orain Miren'ekin eta biak izan dute oiñarriztat bere gorpuztasuna.

Lenbizi, oraindik ezkongai giñala, atzerarazi ninduen batzutan bere gorpuztasunak. Gauza arrigarria zan: gorpuzt zalako atsi-arazten ninduen bere gorpuztak, gaiezkoa zalako, mugatua ta pixua zalako. Gaitzi zitzaidan bolada artan nere barneko lilura zoragarriak gorpuztaren bidez azaldu bearra.

Orain, berriz, ez da iñola berdin. Nekatuta nagoenean etzait ajolik bere gorpuztasuna nere ondoan nabaitzea. Ez dago gorpuztzezeko esirik. Baña, noizean bein, odolak eraginda besarkatu ta neregianatu nai dudanetan, nazka ematen dit bere gorpuztasun orrek: ez alegia, ezkongai-aldikoagatik, neure griña, joera, ta senen jopu ta katigu naizelako baizik. Guztiak menperatzen dituen indarraren jostallu arkitzea zait nardagarri. Ala irudituagatik ere, ez naiz azke. Ta azke izan nai dut nik. Neure esku!! Neuk izan bear dut nere geroaren aukeratzaillea.⁵³⁸

⁵³⁷ Ibid., 102 or.

⁵³⁸ Ibid., 89-90 orr.

Hortaz, ez da Mirenen gorpuztasunarekiko higuina bakarrik kezkatzen duena Leturia, baizik gorpuztasun horren beharra. Hau da, Mirenekiko erakarpena erabatekoa izan balitz ere, gaizki ikusten du desiren menpe egotea, ez baita gizakia erabat askea desirak asetu beharrean aurkitzen den neurrian. Eta gure Leturiak aske izan nahi du. Izaera estetikoa gainditu nahi duen etikoa da gure Leturia, hots, higuina sentitzen duelako, baina ez motibo berekoiak alde batera utzi nahi dituelako.

Kierkegaarden arabera, bestalde, ezkontza maitemintzearen eta erabakiaren arteko sintesi bat izango da, hain zuzen ere, estetikoaren eta etikoaren arteko sintesia. Ezkontzak lehen maitasuna iraunarazten du ezkontien maitasunean, lehen maitasuna maitasun etikoan eraldatuz. Maitasun mota hau, beraz, maitasun estetikoarekin alderatuz, altruistagoa, eskuzabalagoa, onberagoa, konprometituagoa eta arduratsuagoa izango da. Horrela, bada, ezkontzaren baitan, estetaren sentsualitatea, lehen maitasunaren energia dena, maila gorago batean egongo da; zeren eta ezkontza maitasunaren maila gorenena izango baita. Hori dela eta, maitemintzeak ezkontzaren baitan bere benetako adierazpena lortuko du. Ezkontzatik kanpo, berriz, sedukzioa edo flirt bat bakarrik izango da.

Testuinguru honetan, beraz, estetikoa etikoan eta maitasun sentsuala ezkontzako maitasunean eraldatzea, maitasun ahistorikoa maitasun historikoan eraldatzearen baliokidea izango da. Senargai estetaren maitasun sentsualak ez bezala, senarraren maitasuna historikoa izango da, hots, erreal; eta ezkontzak jartzen dion bizimoduarekin konprometituaz aldatuko zaigu: "*El amor conyugal... se distingue del primer amor como el amor histórico se distingue del amor ahistórico*"⁵³⁹ "Senargai-esteta", aldiz, errealitateetik aparte dagoen paradisuan bizi da. Bere boli dorrearen lilurakerian murgildua, bere zirkunstantzia konkretuaren eguneroko arazoak saihestuz. Gizabanako etikoa, aldiz, senarra dena, ez dio bizkarra emango bizi duen egoera konkretuari. Parte hartuko du sortzen zaizkion zailtasunei aurre eginez. Kasu honetan, Mirenek beteko du pertsona etikoak ezkontzaren baitan izan behar duen ustezko jarrera:

Miren´ekin bearrean beste batekin ezkondu izan ba nintz, zer gertatuko zitzaidan? Istillu onetan sartuta egongo al nintzan? Au bururatu dit deabruak azken gatean. Miren bera ote da gaitzen jatorria...? Loa galdu ta asko azterkatu ondoren, ezetz usten dut. Ona da Miren, biozti, etxekoi eta zintzoa. Biotzez maite nau. Zer gehiago

⁵³⁹ Ibid., 114 or.

arki nezkean beste emakume batengan? Ezer ez. Puntu onetara elduko nintzan edozeiñekin.⁵⁴⁰

Leturia, aldiz, ezkontzaren baitan jarrera berekoa izango du. Hona hemen Mirenen hitzak:

Beñere ez nauzu maite izan. Milla eskaera ta arren egiten zenituenenan ere, etzenizkidan neri aiertzen, nigan jabekizun zegoenari baizik. Niganako zure amodioa jabekunde baten historia izan da. Zeure burua baizik ez duzu sekula maitatu. Zereko amorratua zera. Nola ez nintzan ni garaiz konturatu?⁵⁴¹

Hitz hauek entzun eta gero ere Leturiak ez du jarreraz aldatuko, bere burua besterik ez zaio axolako.

Ura ikusita, bigundu egin zait barnea. Betiko nere akatsa. Gaur, ordea, ozkiro pentsaturik, au daukasat garbito. Ez dutela bere malkoak egoera aldatu. Ots. Zergaitik aldatuko jokoeraz? Nere pentsamena ukatu al du?⁵⁴²

Egia da, gizaki etikoak bere zeregina norberaren baitan daukala, besteren esanetara ez dela bizi, zeren besteen esanetara bizi dena ez da norbera. Kierkegaarden arabera, gizabanako etikoa “betebeharren” ezagutzailea denez gero, zeregin hauek, bere kontzientziaren baitan ezagutzera emango dira eta, ez hori bakarrik, arrazoientzat ulergarriak diren ezagutza bezala agerian jartzen dira. Hortaz, “betebeharrak” arrazoizkoak direnez gero, ulergarriak suertatzen zaizkio gizabanakoari eta gainontzeko guztioi ere. Horrela, bada, “etika” guztiontzat ulergarria den “ezagutza praktikoa” izango da. Gizabanako etikoak egiten duen orori buruz arrazoiak eman ditzake, hots, bere jokabidea azaldu eta gainontzeko guztiok ulertu. Izan ere, bere jarrera zentzuzko paradigma bidez azaldua izan da.

Horrela, bada, gure Leturia hasiera baten bihotzaren esanetara ibili bazen ere, orain arrazoa izango du bidelagun; eta Mirenen eta bere arteko elkar bizitza gero eta eramangaitzagoa denez gero, Parisera joatea erabakiko du.

Banoa emendik. Dena ezagutu nahi dut, dena dastatu nai dut; eta gero, ori guzia egiñik, aukeratu egingo dut.

Garbi dago, nere gardiz, neri gertatutakoa. Pentsatu gabe aukeratu nuen bidea (Miren), (Miren´ez besterik ezagutu gabe). Bide egin arte; ta ortik datorkit frakasua. Neuk egin bear nuena zori utsari utzi nion ta oker irten zait. Nola ez? Zergaitik ez? Biotza al dugu bakarrik?

Ikusi nuen lenengo lilurari eldu nion, Egia ta Bidea arkitu nituelakoan; atsekabez beterik egiztatu dut, ordea, atzegoela orrelakorik, eta bidez naastu nintzala.

⁵⁴⁰ Ibid., 91 or.

⁵⁴¹ Ibid., 90- 91 or.

⁵⁴² Ibid., 91 or.

Orrexegaitik noa etxetik. Eta Paris aldera noa: bear den bezela nunbait aukeratu aal izatekotan, an aukera, diteke, noski. Dena ezagutuko dut, eta biotz txoroari uko egin ondoren, buruz aukeratuko dut ni beteko nauena, ots, nere bide egiazkoa.⁵⁴³

Erabakia arrazoiz hartu du bai, bere baitan hausnarketa egin ondoren alegia, Mirenekin kontatu gabe ordea, bere buruan bakarrik pentsatuz. *Bizimodu etikoak*, aldiz, norberekeria alde batera ustea eskatzen du. Hortaz, gure Leturiak Pariserako bidea hartzen duenean ez du jarrera erabat etikoa izango.

5.2.2.4. Negu: Jainko egarria da gizonaren zorion-mina.

Leturia bere bizitzaren jabe berriro delako biziberritua sentituko da, gaztetuta, haur baten gisa... Pariseko egonaldiko lehen egunetan apenaz ez du idatziko, dena baita berria. Toki batetik bestera joan etorrian arituko da eta gainezka aurkituko du bere burua, gero eta beteago. Zoriontasun horren erdian, bestalde, bihotz-hutsunearen jatorrian Jainko egarria dagoela baieztatzen digu Leturiak. Absolutuaren beharra alegia. “Argi ikusi dut gaur, eta bihotz-utsunaren sustraiari igarri diot: Jainkoaren egarria da gizonaren zorion-miña.”⁵⁴⁴ Nola iritsi, ordea, Jainkoarengana?

Lehenengo pausoa bizimodu etiko-erlijiosora jauzi egiteko bizimodu estetikoaren baitan etsipena sentitzea izango da; zeren eta, etsipenak Jainkoaren beharra bistaraziko baitio Leturiari. Eta nola beteko zuen bada, Mirenek, mugatua den izaki batek, Jainko egarri hura? Leturiaren ustez, maitemintzen garenean andregaiari Absolutuaren gaitasunak ezartzen dizkiogu. Izan ere, perfekzioa ez da gizakiaren berezko izaera.

Hortaz, ez dago betetasunik gizona guztiz bete dezakeanik esango digu Josebak (eta Kierkegaardek *bizimodu estetikoaren* alderdi ezkorrak azaltzen digunean). Horrela, bada, egoera horren aurrean, geratzen zaigu gauza bakarra ibiltzea izango da, iriste orok lilura galtzea ekarriko baitu.

Guzti honen erdian, ordea, Leturia bizi duen *bizimodu estetikoaren* baitan ohartzen da Absolutu gosea asetzeko orduan izaki mugatu bat erabili duela, eta hori ez dela Jainkoarengana edo Absolutura iristeko modua.

⁵⁴³ Ibid., 106 or.

⁵⁴⁴ Ibid., 117 or.

Ez dago betetasunik gizona guztiz bete dezakeanik: ezin beste etorri bear du gerora Ez da maitemiña bakarrik gezurtaraten duena. Edozein liluragai baizik. Liluraren sustraigan datza geroko frakasua. Mugara iritsi ezkerro, ez dago lilurarik. Beraz, ez gaitezen inoiz iritsi. Au da askoren iritzia. Akorena esan dut, eta guztiena esango ba nu ere, ez nintzake oso oker ibilliko.

Iristeak oro lilura iltzen ba dute, ta aberatsago ta ederragoa ba da izanez lillura irispina baño, egokiagoa da bidea ere elburua baño.⁵⁴⁵

Leturiak, Don Juanek bezala, helburua bera baino bidea dela garrantzitsuena esango digu. Hau da, konkista. “Mugara iritsi ezkerro, ez dago lilularik.”⁵⁴⁶ “Ezinezko amodioaren erakarria konpreditzen dut orain: ezin lortu daitekeena aukera dezagun, eta horrela etzaigu liluraren lorea beñere zimelduko...”⁵⁴⁷

Liluraren azpian, hortaz, Jainko edo Absolutu gosea dago beti.

Ederki ulertzen dut lilurarekin gertatzen dena: beti izaten da lilura lortzea baño ederragoa. Bestetan esandakoa: ametsen azpian geratu oi dira egiñak. Ez da arritzekoa: absolutuak elikatzen eta moldatzen ditu ametsak, irudimenaewn bidez. Maitemintzen veranean, esate baterako, ez du ameskia andregaiak sortzen, gure Jaunko-egarriak baizik. Orregaitik apaintzen dute maite-miña andregaiak berak ez dituan gauzak, oarkabeen, absolutuari ditxezkon gaitasunak geuk ezartzen dizkiogulako.

Eta ala izanik, aberatsagoa da askoz ere gure egarriari darion edertasuna (ukaeraz sortzen ba da ere), neskak edo emakumeak duena baño.

Auxe da aldakuntza: absolutuaren iritsiak bitxitzen du lenengo maitegaia, ta nai ta nai-ez geratzen da au geroenenan sortutako mithoa baño beerago.

Lillura sortu duena baño ederragoa da lillura bera. Onengatik, gañera, lillura iltzen du beri edozein lilluragai atzeman eta irixteak.

Gauzatze guziak ondutzen dute ametsa; zeren ametsa Jainkoak edertzen duen, gu konturatu ez arren, eta gauzatzea sorkariak. Absolutuaz jazten da berez lillura; ta emendik ondorea.⁵⁴⁸

Ondorioz, Konkistarekin gertatzen den moduan, helburura edo xedera iristean lilura amaitu egiten da. Hala, liluraren zorion esperoak gordetzeko modurik egokiona, amaigabeko bidea izango da. Hau posible ez bada, ordea, gizabanakoa lilurak sortzen duen zorientasunaz gozatzeko amaigabeko bideak asmatu beharrean aurkituko da.

Iristeak oro lillura iltzen ba dute, ta aberatsagoa ta ederragoa ba da izanez lillura irispina baño, egokiagoa da bidea ere elburua baño.

Ibilli gaitezen elburururuntz; onela bizi gaitezke zorientsu Xamar behintzat. Eta ibilli aal izateko, urrutira ditzagun jomugak. Onela katuz, betirako izango dugu nundik ibilli ta noruntz joan, eta amaigabeko bideetan zear gordeko ditugu lillurak eta zorion-esperoak.

⁵⁴⁵ Ibid., 118 or.

⁵⁴⁶ Idem.

⁵⁴⁷ Ibid., 119 or.

⁵⁴⁸ Ibid., 117-118 orr.

Tarteak sortu, tarteak asmatu, ibilbideak billatu: onatx agian gizonaren salbazioa... Eldu ez-bañan ibilli gaitezen, eten gabe, zorion aldera, beñere bidea bukatzeke. Ez dago beste salbabiderik: gauzen esentziak eskatzen digu jokaera au. Eziñezko amodioaren erakarria konprenditzen dut orain orain: ezin lortu ditekera aukera dezagun, eta horrela etzaigu lilluraren lorea beñere zimelduko...⁵⁴⁹

5.2.2.4.1. Leturiaren erlijioaren ideia.

5.2.2.4.1.1. Unamunoren eragina Leturiaren Jainkoaren eta erlijioaren ikuskeran.

Leturiaren ustez, erlijioak gizakiaren xedea bizitzatik haratago jarri du lilurak mugarik izan ez dezan, zeren hala ez balitz, erabateko zorionaren itxaropena eta lilura amaitu egingo lirateke. Horregatik, gizakiak Jainkoa bere helburu gisa izendatu du. Hau da, heriotzak suposatzen duen “ezerezak” sortzen duen atsekabea gozatzeko asmoz. Jainkoa, hortaz, gizakiaren desiren fruitua izango da eta erlijioarekin gure helburuek dimentsio berri bat izango dute. Zerutiarra izango dena alegia. Horrela, bada, gure itxaropenak eta lilurak izaera mugagabea izatera pasako dira.

[...] Gizonaren helburua zeruan jarriz, bide utsa biurtzen du biziera, ta itxaropenak eta lilurak gordetzeko aukera bakarra ematen dio gizonari. Erlijioari eskerrak bizitzatik kanpora joan da gure lorkizuna. Onela jokatzu, erlijioen sortzailleak zein arte eta noraño sakonki ezagutu zuten gizonaren sustraia neurtzen da. Ondo zekiten aiek lilurak oro itzaltzen dirala urteakin, eta eriotzaren atzean jarri bear zala gizonaren itxarokizuna, onek iraunal zezan. Orretaz gañera, elburutzat Jainkoa bera jarriz, oker guziak baztertu zituzten, eta guztiz egokiro pentsatu zutela esan ditekera. Nai dutena esango dute "gaikoiak", bañan istoriaren agiria dago or, eta erlijio sorkari agertzen ari da gizona bein eta berriz mende guzietan zear, Jainkoaren bearra da gizonaren sustraia bera : gizona ukatu gabe, ezin ditekera au uka.⁵⁵⁰

Erljioak, giza asmakuntza izateaz gain, beste ezaugarri positibo bat izango du: mundukoien frakasoia agirian jartzen den moduan, erlijioaren okertasunaren berri inork ez jakitea. Gauzak honela, erlijioaren baitan itxaropena beti izango da posible.

Gañera beste obari bat du erlijioak, kaxkarra ta erdi-farregarria ba da ere: mundukoien frakasua agiriko gauza den bezela, iñork ez daki ziur erlijioaren okertasuna. Onela, itxaropen iraunkorragoa izango da beti erlijioa, mundua baño.⁵⁵¹

Bestaldetik, Leturiak bizitza gizakia perfekzionatzeko proiektu edo bide gisa ikusiko du: “Bestalde, bizitza obakunde bat bezela jotzean, zer-egiña biurtzen da biziera, ots, bide bat, eta beste arrakasta aundi bat du au ere”.⁵⁵²

⁵⁴⁹ Ibid., 118-119 orr.

⁵⁵⁰ Ibid., 120-121 orr.

⁵⁵¹ Ibid., 121 or.

Eta ibilbidearen garrantzia azpimarratzeaz gain, bide honek suposatzen duen “larrimina” nabarmenduko digu Leturiak. Kasu honetan, alabaina, bideak suposatzen duen “larrimina” edo etsipena Leturiak ez du txartzat hartuko, beharrezkotzat baino. Izan ere, atsekabea eta egarri guztiak asetuak izanez gero, bizitza eginkizunik gabe geratuko litzateke eta.

Bearrezkoa iduritzen zait, beraz, orain beintzat, gizona griñaz beterik eta okertua dedilla: akats aukerak gabe, ez luke zer-egitza izango, ots, biderik; eta gizonari bidea ta zer-egitza ukatzen dizkionak bere izaera bera ukatzen dio, ibilli bearra bal-da gizonaren mamia, ta ez besterik.

Alde onetatik, beste gauza bat, ikusi uste dut: gaitza izatearen karia. Gizonaren izanak eskatzen ditu nere ustez bidegabekeria ta larri- miña. Auek bukatuko ba lira, edonolako atsekabe ta egarri guziak ase al ba litez, zein izango litzake gizonaren eginkizuna?

Onela, gizonak berez ibilli bear ba du, dena argitzen da.

Ibilketa bat da, ortaz, bizitza.⁵⁵³

Baina norantz ibili? Arrazoiaren bidetik egoera aztertuz gero, atsekabea gehiago murgiltzea suposatuko du; zeren eta arrazoiak bidearen azkena ikustea beharrezkotzat baitu. Hau da, helburu jakin bat izatea. Horrela ez balitz, ibili beharrak ez luke zentzurik izango. Izan ere, jomuga jakitea beharrezkoa da absurdoan ez erortzeko. Jainkoaren kasuan, ordea, ezin gaitezke arrazoiaren bidez iritsi. Arrazoiak ez baitu Jainkoaren izaera “paradoxikoa” ulertzen. Hala, Jainkoarengana iristeko sinistu egin behar da, hots, arrazoiak haratago joan.

Absolutuak zuzendu bear du nere bizitza ; zer balio izan dezake bestela onek? Zertarako genduke adimentua? Zertarako poz-yorana?

Nun daude oñarri sendoak, aietan nik atsedena ar dezadan? Nun dago beren Iturria? Nun zaude Zu? Zutzaz maitemindu nai dut, zorion betea emateko Zeu bai-zera bide bakarra. Zugan izango dut bear dudak pakea: erio-atsik ez daraman zure pake zoragarria... Agustin Deunarekin esango dut: "Zeuk esnatzen duzu (gizona) Zu goratuz gozaro dedin; zeren Zeure- tzat egin ginduzun, eta urduri dabilke gure biotza Zugan atsedean arte".

Ez duzu, ordea, itzegiten. Entzun al ba neza zure deia ... Itzegin zazu, arren; mintza zakizkida, ta salbatuta nagoke!

Zein da Zuganako bidea? Artan aurrera abiatuko naiz azkar, eta ez dut geiagotan zapasaltorik emango.

Ikusi egin behar du!⁵⁵⁴

Orain arte ikusi dugunaren arabera, Leturiaren Jainkoaren eta erlijioaren inguruan duen ikuskeraren baitan, Unamunoren presentzia Kierkegaardena baino handiagoa izango da. Hargatik, existentzialismoa bitalismoan oinarritutako filosofia izateaz gain,

⁵⁵² Idem.

⁵⁵³ Idem.

⁵⁵⁴ Ibid., 123-124 orr.

gizabanakoaren izaera norberaren bihotzean eta ez arrazoian oinarritzen denez gero, forma ezberdinak hartuko ditu. Hala, giza baldintzan jarriko du bere enfasia eta gizakiari, filosofo gisa ulertuta, axolako zaizkion elementuak honako hauek izango dira: alde batetik, angustia eta larritasun bitalaren bidez agerian jartzen zaion giza izaera; eta bestetik, bere burua ezagutzea.

Gizakiak existentziaren erabateko zentzuaz gogoeta egin ondoren, bizitza guztiz ezegonkorra eta tragikoa dela ondorioztatzera iritsiko da; eta bere izaeraren larritasunak edo angustiak *existitzen ustearen* posibilitatea azaleratuko dio, hots, “ezereza”.

Egoera honen aurrean gizabanakoak bere finitutasunaren erabateko kontzientzia hartuko du eta balore berriak sortuko ditu “ezereza” ekiditeko. Hargatik, borroka eta sufrimendua, bizitzaren zentzu tragikoa ulertzeko tresna egokiak direnez gero, elementu positibotzat hartuak izango dira. Gizabanako existentzialistak, hortaz, bere izaera mugatuari eta saihestezina den heriotzari duintasunez aurre egin nahi dion indibiduo “autentikoa” izan nahi du. Bere existentziaren xedea, bada, gizabanakoagoa izatea izango da. Talde bateko “kide huts” bat izateari ustea alegia. Gizaki “orokor” izateari utzi eta Unamunoren “hezur-haragizko izakian” bilakatzea izango du helburu. Honek ez du esanahi, ordea, gainontzekoengandik urrunduko denik hezur-haragizko gizakia. Izan ere, “bestearekiko” (Unamunok *el Otro* deituko duena) hartu emanean eta elkarbizitzan gauzatuko da “bizitza autentikoa”.

Giza izaeraren beste ezaugarri nagusienetako bat, aitzitik, Jainkoarengan sinistu beharra izango da, hots, “Jainko-gosea. Premia honetatik objektibitatearen eta subjektibitatearen, arrazoiaren eta intuizioren arteko gatazka sortuko da (fedearen kontzeptu existentzialistaren baitan irtenbidea topatuko duena alegia).

Existenzialisten iritziz, kristautasunaren Kreazioaren dogmaren baitan, hots, Kristoren irudian (Gizon-Jainkoan) eta Trinitatearen ideian, arazo “paradoxikoak” azaleratzen dira. Hortik, aurreko atalean ikusi dugun moduan, Kierkegaardek fedea logikoki ezinezkoa den sinismen gisa ulertzea. Umanunoren kasuan, aldiz, ikuspegi honetaz gain, fedea, Jainkoa existitzen denaren desiran oinarritua egongo da. Horrela, bada, “egia” egi subjektiboa izango da eta fedearen izaera, aldiz, kontraesankorra. Eta auzi erlijioso

ororen xede nagusia “salbazioa” denez gero, gizaki “autentikoa” objektibitatearen eremutik subjektibitatearen eremura jauzi egin beharrean aurkituko da.

Kierkegaarden bizimodu erlijiosoaren baitan, gizakia, *askatasunaren eta kontzientzia erlijiosoaren jabe* den neurrian, Jainkoarekin erlazionatua egongo da. Bere helburua salbazioa lortzea izango da, jatorrizko bekatuaren aurreko egoerara bueltatzea alegia. Horrela, bada, existentziaren eremu erlijiosoan, bakarrik, gizabanakoak benetako “errepikapena” egiaztatuko du. Hau da, Jainkoak gizakiari lehenengo momentuan kontzebitu eta jatorrizko bekatuaren bidez kendu zion askatasunaren berreskuratzea.

Unamunoren erlijioaren abiagunea, aldiz, ez da jatorrizko bekatuaren aurretikako egoerara bueltatze nahian oinarrituko. Are gehiago, jatorrizko bekatuaren ondorioz gizaki ez osoak garenaren “ezerezaren” definizioa ere ez du izango. Aitzitik, onartezina iruditu zaizkio, hala nola, infernuaren eta zigorraren ideiak (ideia hauek direla medio, elizaren aurka altxatzen hasiko da Unamuno). Berarengan heriotza izango da gai nagusia. Hau da, heriotzarekin ematen den “ezerezaren” posibilitatea. Gauzak honela, heriotzaren aurrean gizaki orori “ezerezaren” posibilitateak atsekabea (congoja) sortuko dio. Gizabanako existentzialak, ordea, hots, “autentikoak”, egoera honen aurrean heriotzari aurrez aurre begiratuko dio. Duintasunez alegia. Eta ez dio bizkarra emango istant horrek sortzen dion atsekabeari edo “congojari”. Une honetan, heriotza aurrez aurre izatean eta ezerearen posibilitateak sortarazten dion atsekabea sentitzean, gizakiak “hilezkortasunaren irrika” bere baitan antzemango du. Spinozaren *conatus*-a alegia. Bizitzaren aldeko jarrera hau, hortaz, denboraren nahiz espazioaren baitan hedatuko dena, ez da iraupen nahia bakarrik izango, “dena izate nahia” ere hor egongo da presente. Baina norbera izateari utzi gabe noski, zeren eta “dena izateak” norberaren kontzientzia izateari ustea suposatzen baitu.

Horrela, bada, norberekoikeria alde batera utzi eta gainontzekoak (batez ere Jainkoa) baldintzarik gabe maitatu beharrean aurkituko da gizaki “autentikoa”, horrela eternitatea, “bakea”, posible izango baita. Egoera honek ere, ordea, Unamunoren pentsamendua aztertu dugunean ikusi dugun moduan, ikaratu egingo du gizabanakoa, zeren eternitatearen planteamenduak Unamunorentzat norbera izateari ustea dakar berarekin. Heriotzaren antzekoa alegia. Horrela, bada, bere nahia, hil eta gero bera dena

izaten jarraitzea izango da, hots, heriotza ondoren bizitza hau bizitzen jarraitzea. Bizitza mortal hau alegia, baina, gaixotasunik, gogaitasunik eta heriotzarik gabe.

Unamunorentzat erlijioa, bestalde, Jainkoarekiko elkartasun estua den neurria, oso pertsonala eta indibiduala izango da. Ondorioz, ezin daiteke termino abstraktuetan ez eta unibertsaletan azaldu, eta gizabanako bakoitzak bere esperientziaren arabera sentituko du. Unamuno, hortaz, teologia dogmatikoaren ideietatik urundu egingo da. Hala, erlijioaren egiaren kontzeptua, bai Unamunorengan bai Kierkegaardengan, Jainkoarenganako maitasunaren eta zinezkotasunaren menpe egongo da. Ez da sinesmen objektiboa izango, irritis subjektiboa baino. Bihotzarekin sinestea alegia eta ez arrazoiarekin.

Fede kristauak, hots, Krezioaren dogmak, Jesukristo gizon-jainko moduan ulertuta, arrazoiari kontrajartzen zaio. Horregatik, fedea, logikoki ezinezkoa den horretan sinestea izango da. Kierkegaarden kasuan, Jainkoa ez da gure nahien produktua izango, gure baitan aurkitu arren guretik at ere existentzia izango baitu. Unamunorentzat, ordea, fedea borondatearen eta bihotzaren objektua izango da, ez arrazoiarena. Sinestea, beraz, sineste nahia izango da. Izan ere, arrazoiaren bidez ezin daiteke baieztatu Jainkoa existitzen den ala ez.

Leturiarentzat ere horrela izango da. Arrazoiak Jainkoaren existentziaren aurrean erakusten digun eszeptizismoak eta erlatibismoak⁵⁵⁵ ibiltze berak beteko ez gaituela esan arren, ibilaldiaren bukaeran bakarrik jakingo dugu ziurtasun osoz Absolutua existitzen den ala ez. Hortaz, Jainkoarengana iristeko bide bakarra sinestea edo fedea izango da.

Ezin dateke ezer ziurpetu.

Aukeratu ta gero, ordea, absolutu guziaz zuzenetsi dakieke.

⁵⁵⁵ Izugarria da au ikustea; bañan esandakoaren indarra aundia da, ta ezin uka diteke. Noraño esan dezakegu bere esku dela gizona? Nork esan dezake berak aukeratu dituela bere absolutuak?

Nork bere erria maite du, ta ziñez uste du denetan ederrena ta maitagarriena dela. Orobat gertatzen da politikarekin, edo aberriarekin. Landare bezela gera: toka zain lur-puska maite dugu guztiz.

Bai, landareak bezelakoak gera...

Emen jaio denak., emengoa maite du, ta emengoari zuzenesten dio; ta bizitza bera emango luke berea defenditzeko. Eta ez itsuka, bere ustez arrazoi osoa duelakoan baizik.

Alaxe gertatu izan da gerretan, istoriak kusten digunaz: Egia ta Zuzenbidearen alde borrokatu uste zuten gudariak oro, eta orixe pentsatuko dute gerokoak. (Naita edo gogoz joan diranak, beintzat.)

[...] Ortaz, oso erlatibuak dira absolutuak. Absoluturik ez dagoela esan diteke egiaz: ez dagn onetan batere geiegikeriarik. (LEE, 126 or)

Nora elduko, Jauna?

Ibilli egin bear da, ibiltzeak berak beteko ez gaituela jakinda ere; eta itsuka ibilli bear da, artutako bidea "a posteriori" baietsi ditekela konsolabide bakarrean. Ikusi ez arren, siñistu egin behar da; ta fede orri bizitza osoa lotu. Federik gabe ezin eman diteke ezaguera pausurik:

Zein da, ortaz, fedearena baño egintza bidezkoago ta gizonzkoagorik? Gizon guziok egiten dugu itsutasun-aitor au ; eta denetan, eta une guzietan, iñoiz guziz garbi ta ozkiro ikusi ezin dezakegulako.⁵⁵⁶

Beranduago, heriotzaren gaiaren inguruko gogoeta egiten digu Leturiak eta ohartzen da heriotzaren gaia berarengan bakarrik aurkitzen ez dela. Hori dela eta, heriotzari absolutu maila emango dio (hemen ere Unamunoren eragina antzematen da: *Meditatio mortis*).

Eriotza da kondairaren kutsua, ta iltzeko tema duen gizon bakarra ez naizela ikusi dut, munduko arpegio irriberak ikustean nekez suma ba liteke ere.

Asolutu-malla ematen dio eriotzak biziari, eta alde onetatik, bere balioa txikitu ez-baña goratzen duela usten dut.⁵⁵⁷

Leturiak, Unamunok bezalaxe, ez ditu isiltasuna eta bakea maiteko, heriotzarekin identifikatzen baititu.

Urduri jarri nau beti kanposantua betetzen duen pakeak. Ziztatzalle da ango pakea, ta asaldatu egiten du erraïetaraño. Zergatik kezkatzen gaitu bear dugun orretzek? Ixiltasuna naidugu, eta bildur ikaragarria ematen omen du eremuko ixil osoak; loa ta atsedena bear ditugu, ta guziz ikaritzen gaitu lo beteak, baita beste batengan ikusita ere. Igesari emateko gogoia piztutzen du illaren geldiak.⁵⁵⁸

Horrela bada, geratzen zaigun bakarra heriotzaren aurrean borroka egitea izango da (berrito Unamuno): "Ibilli egin bear da; borrokarik gabe ez dago zorion-biderik."⁵⁵⁹

Borroka bakarrik ez, "jauzi egin" beharra ere hor egongo da: "Beti onartzen dira aurre absolutuak. Ezin irten diteke utsetik, gero piskanaka ta etendurarik gabe eraikitzen joate arren. Jauzi egin bear da beti asieran: "intuizioa" dela, edo nai dugun eran deitu dezakegun lenengo oinkada. Izenak ez du ajolik."⁵⁶⁰

Jauzi hau ematerako orduan, ordea, adimenaz haratago joan beharra dago. Hala, fedea izango da oinarria.

Zuzia da adimentua, bai; bañan ugarte batean ematen zaigu, gau miñean, eta itxasoa igaro bear da, artaz legorrean baliatzeko. Ta itzali ez dakigun, jauzi egin bear da aurrenik, nai ta ez, zuzia eskuan. Sekulako jauzia, alajaña!

⁵⁵⁶ LEE, 127 or.

⁵⁵⁷ Ibid., 128 or.

⁵⁵⁸ Ibid., 129 or.

⁵⁵⁹ Idem.

⁵⁶⁰ Ibid., 130 or.

Egiari buruz, benetako aukeramenik ez du gizonak: ezin diteke osotoro aukeratu. Ez gera gai. Inguruko itxasoaz beste aldera bildurrik gabe ta igeritzen pasatzeko, sutzar gartsu bat bearko genuke, itzal etzedin, eta zuzi bat besterik ez daukagu. Makurtu egin bear burua: ez daukagu egiara iristerik, jauzi baten bidez abiaturik baizik. Eta gu geu ez gera gauza bearrezko jauzia emateko, Nori deituko?⁵⁶¹

Beranduago, Leturiak gizakiaren xedea “egia” baino (arrazoiaren, adimenarengandik eratorritako egi modua ulertuta), zoriontasuna bilatzen dela esango digu. Gauzak, honela, “egi logikoa” edo arrazionala zoriona bilatzeko bide bat bakarrik izango da, ez jomuga bera. Zorion egarria, hortaz, egi mina baino biziagoa izango da.

Adimena edo arrazoia, kasu honetan, zorionaren etsai azaleratuko zaigu; zeren eta zoriona batik bat emozioa baita. Horrela, bada, Leturiak Unamunok dion moduan, egi ezberdinen aurrean aurkitzen garela esango digu: bata ezagutzarena, hots, logikaren bidez eratortzen dena; eta bestea, zorionarena edo bizitzarena, “egi oso” moduan definitua izango dena.

Gañera, ala predikatzeagatik ere, ez da egia gizonak geienik irrikatzen duena, zoriona baizik. Onetarako bide bat da egia, ez jomuga. Zalantzarik gabe, biziagoa da zorion-egarria egia-miña baño. Nork uka dizaidake au?
[...]Baña zerbait bada zoriona, emozio da. Ortaz zorionetik kanpora igitzen d adimentua. Arimaren baztarrean geratzen da berez.
Ots, postuladuak onartzen ditugu beti, oarrez ala oarkabean, eta ez gera egia utsa atzemateko gauza. Ulermena atzeman dezakean egia, bestalde, zorionarekin zerikusirik ez du. Zertarako dut, ortaz, gidaritzat, adimentu aul au? Zergatik nere almen nagusizat, neure aurka ba dago?
Bere flakia aitortu bear.⁵⁶²

Hortaz, geratzen zaigun bide bakarra fedea, irrazionalitatea, besarkatzea izango da.

⁵⁶¹ Ibid., 130-131 orr.

⁵⁶² Ibid., 131 or.

5.2.2.4.1.2. Leturia agnostiko.

Erljioaren inguruan duen ikuskera azaldu ondoren, ordea, gure Leturiak dudak izango ditu fedearen besoetara jauzi egiterako orduan. Bere burua txiki edo ez gai ikusiko du fedeak eskatzen duen sakrifizioa burutzerako orduan. Izan ere, bidea ez da erraza.

Egiarako bidea argitzeko argizagi bat daukagu; eta baso itoa ta piztiduna da igaro bear dugun oiana.

Alferrikakoa ez-bañan exkaxa zaigu argi- zagia. Geiegi altxatzen ha gera, zugazti-puska zabalagoa ikusten dugu, egiazki, bañan illunpe ikaragarrian naasia. Altxatzen ez ba gera, berriz, obeto dakusagu; baña zer ote dago beste aldean? Urbildik argitzen du bakarrik adimenaren zuziak; urrutitik illunpe heltzean itzaltzen da piskanaka, osto bat islatu ere gabe.

Bide bat aukeratu ezkerro, laguntza joda dugu bada gure argitxoa; edo inguruak ezagutzeko egokia ... Munduaren guzitasuna batera argitzeko, ziztriñegia.

Ortaz, zer ari naiz ni, ero au, argizagi bat eskuan oian izugarrian billaka? Denbora alperrik xautu besterik egingo ez dut, orain arte aurreko guziak galdu duten bezela, ta ez dut aiek baño geixeago ikusiko egiari buruz. Besteen frakasua kontuan artuko al dut? Ezin billa dezaket: argi diña ez daramat.⁵⁶³

Horrela, bada, Leturiak fedeak eskatzen duen bideari uko egiten dionez gero, inoiz ez du jakingo Jainkoa existitzen den ala ez (agnostizismoa); ez du irrazionaliatea edo "paradoxa" besarkatuko, arrazoiaren munduan geratuko da. Arrazoiak, bestalde, honako hau esango dio une honetan:

Nor naiz ni, bada? Nola jaio nintzan? Txiripaz etorri naiz mundura, txiripaz ezagutu zuten alkar nere gurasoak, eta ala Adan'ganaño. Eta jaio ondoren ere, Zoriak gidatu nau orain arte, ta millatan il nindekean. Eta il izan ba nintz, ezertan ere etzan nere utsunea nabaituko; ez bai-naiz ni iñor, ustekabe utsaren seme baizik.⁵⁶⁴

Gogoeta hau egin bezain pronto, Mirenen eskutitza jasoko du Leturiak, non Mirenek bere beharra duela jakinarazten dion.

Arrituta gelditu naiz gaur etxeratzean: Miren'en eskutitz bat arkitu dut oiaren gañean. Letran ezagutu dut.

Presaka ideki dut estalkia, ta irakurri:

"Nere maiteen ori:

Ezin joan naiteke zure billa. Bear zaitut, Joxeba. Ez geiago luza, arren, Eskutitz au jasoko duzula dakit. Neregana ez ba zatoz, il egingo naiz. Ez galdetu nun zauden nola jakin dudan. Beti izango zera nere maitea. Agur, riere biotzekoa. Agur!"

Koloka du idazkera, ta oikoa baño motzago esakera.

Erraietaraño sartu zaizkit esakuntza guziak. Gaixo Miren! Nigatik etsita, nigatik ozkeriaren ifernura erorita. Zirrara sakona eman dit zure deiak, eta oraindik maite zaitudala ikusi dut. Maite? Bai, Miren; oraindik ere maite zaitut. Dollorra izan nintzan zurekin, biotzaren abotsari ez-entzuna egin nionean.

Ta garaitu nuela esaten nuen nik nere ero-egian. Bai, ordea, nere arrokeriak ni garaitu.

⁵⁶³ Ibid., 133-134 orr.

⁵⁶⁴ Ibid., 134 or.

Ni, ni, ni. Onatx korapilloa: neu nintzan kontutan euki bear zan bakarra.
 Baña, zein naiz ni? Neu ez beste.
 Ta Miren gajoa nigatik penetan ...
 Nere eroegia⁵⁶⁵

Eskutitza irakurri ondoren, Miren maite duela ohartuko da Joseba. Kasu honetan, ordea, maitasuna ez da berekoa izango. Ondorioz, bere "nitasuna" gaitatua izango da, hots, transzendentitua (ez da transzendentzia erlijiosoa izango, immanentea baino) . Horrela, bada, Parisera joatea bultzatu zuen jarrera berekoa alde batera utzi eta Mirenengana bueltatuko da, ezkontzaren baitan benetako senarraren rola betetzera. Baina burutze hau ez da senarra izategatik kanpotik emana den betebeharraren gisa ulertuko, maitasunaren, sentimenduaren bidez emango da Leturiarengan. Bere barrutik sortuko den sentimendua izango da eta maitasuna izango du iturburu. Leturiarentzat maitasunak, hortaz, norbera izateari utzi eta besteak, gainerakoak, zerbitzatzea esan nahiko du.

Eta zer da maitasuna? Nork bere burua eman, nor bere buruaz aaztu, nor bere burutik ateratzea. Beste batek gu aukeratzen uztea.

[...] Jaio nintzanetik zuzendu nau maitasunak, gañera. Egungo nere baloreak ez ditut askotan egiaren arauz nik aukeratu, lengoan izkribatzen nuen bezela, neure joerak eta azikuntzaren arauz baizik. Zergatik au? Nik aukeratu ez-baña ni aukeratzea gertatu zaidalako.

Au guzia zorion-yoranak eragiten digulako. Bidez esaten zuen au, gutxi gorabera, filosofo aundi batek: zertarako balio digu izartegiaren yaukala betesteak, gero maitatzeko laguntzen ez ba digu? "Zein da nere serbitzaria" ez-baña "zeñen serbitzaria naiz ni" galdetu bear dut. Onatx salbabidea.

[...] Serbitzari naiz jaiotzaz. Ez naiz gañera serbitzari astratua, ondo konkretua baizik, nereen serbitzaria bai-naiz, Eta, nortzuk dira "nere" oriek? Jainkoak nere ondoan jarri zizkidanak.

[...] Ni neu bear nautenak aurrenik, eta edonoren laguntza bear dutena urrenik: orra or nere nagusi ta ugazabak.

Nere burua makurtu ta umillatuko dut orrela; ta nere mallagoari dagokionaz besterik ez dut egingo.

Zoritxarrez, ez du Jainkoak itzegiten; baña beartiak itzegiten didate bere orde, edo Ark auen aoaz. Maite-deia da berena, ta Jainkoak berak deitzen nauela iduritzen zait, zergatik garbiro ikusi ez arren.

Obe da. maitatzea ezagutzea baño. Obea, ta egokiagoa.

Eta, egia?

Osorik ez daukat nik iristerik. Eta gutxi al da, izan ere, argizagi baten bidez Jainkoa badagoena jakitea?

Miren'ek bear nau; nere aberriak bear nau; nereak bear naute. Berena naiz, eta berak gabe ezer ez naiz.⁵⁶⁶

Gure Joseba besteenganako konpromezura maitasunaren bidez iritsiko da. Besteenganako⁵⁶⁷ maitasuna eta besteak zerbitzatzea izango dira orain Leturiaren xede

⁵⁶⁵ Ibid., 135-136 orr.

⁵⁶⁶ Ibid., 136-139 orr.

⁵⁶⁷ *Besteak* ez dira Leturiaren inguruan dauden pertsonak bakarrik izango, ikuspegi zabalagoa izango du, kasu honetan Leturiak "aberri" hitza erabiltzen du.

nagusienak eta ez Jainkoa bilatzea. Xede hauek, ordea, beteko al dira? Zer gertatuko da Mirenengana bueltatzean?

Miren oso gaixo dago, hiltzorian. Leturia egoera horretan Jainkoaren aurrean inoiz baino gehiago biluztuko da eta berari buruz duen ideia labur-labur azaltzeko gai izango da. Leturiak, ordea, une honetan, ez du Jainkoarengan sinisten: "Bildur naiz. Otoitz egin naiko nuke. Nori, ordea, fedegabe gogor onek?"⁵⁶⁸ Nik ez, bañan ark sinisten zaitu Zu biotzetik. Arren, Jauna ... !⁵⁶⁹. Horretarako, Leturiak Jainkoarengan fedea izan dezan, Jainkoak Miren sendatu egin behar du, hots, Mirenen egoera ikusirik mirari bat gertatu beharko litzateke.

Jainkoa: etzaitut nik zu beñere ukatu. Lagun zakizkit nere larrialdi onetan. Zu ikusi ez arren, neure obena ikusten dut. Aukera-min arroak baztertu ninduen nere bidetik. Barkatu. Itzegin zaidazu, otoi, eta ez naiz berriz illunpetan galduko. Senda zazu Miren. Ori ta geiago merezi du Nik deus ez. Argiro ikusiko ba zinduzt, gogoz serbitzatuko zinduzket. Besteak maitatzea, karidade-bearra. Jainkoaren egarria, bizitza ibilkizun bat dela, egiara iristerik ez daukagula... Auek dira orain arte, Zure billa ibilliz, arkitu ditudan egiak. Miren biziko ba litz ... Maitasunaz jautuko ditut nere pekatuak. Maitasunaz... maitasunaz... Nork itzegiten zuen beti maitasunaz ? Aitortzeko bildur naiz : Kristo! Zu al zera egiaz "Egia ta Bizitza"? Ez nuen uste, baña zure ondo-ondoan nintzan. Jakin izan ba nu ... Senda zazu Miren, eta il nazazu ni. Neregatik ez-baña bere ondamentiaz errukiturik, senda zazu Miren. Nik ez, bañan ark sinisten zaitu Zu biotzetik. Arren, Jauna ... !⁵⁷⁰

Aitortza hau egin ondoren bilatzaileare ohar bat argitara ematen zaigu:

Emen bukatzen da Leturia zorigaiztokoaren egunkari unkiagarria. Zer gertatu ote zitzaion gero? Bearbada au ez da sekulan jakingo. Bañan andik gutxitara, berri au eman zuen "Alzurain'go Deia" 'k: "Urrillak 10. Gizon baten gorpuzkiña arkitu da Imirioz'ko leitzan. Amildegitik erori bide-zan, eta osagilleen ustez, amar hat egun daramazki an gorputzak. Agorrillaren ogei-ta-amarreko trumoiean galdutako gizona da noski. Oraingoz heintzat, nor den ezin iragarri diteke". Leturia bera eiki, gure Joxeba gizajoa ez baitzan berriz iñora azalduko.⁵⁷¹

Horrela bada, amaiera irekia usten digu Txillardegik, ez dugu jakingo zer nolako garapena izan duen Leturiak, ez eta bere buruaz beste egiteko arrazoiak zeintzuk izan ziren ere.

⁵⁶⁸ LEE, 142 or.

⁵⁶⁹ LEE, 132-143 orr.

⁵⁷⁰ LEE, 132-143 orr.

⁵⁷¹ Ibid., 144 or.

5.3. ON KIXOTE ETA ABRAHAM “FEDEAREN ZALDUNAK”.

Nahiz eta hasiera batean oso ezberdinak iruditu, gaur egungo gizartean absurdoan oinarritutako etikak duen presentzia kontutan hartuz gero, bai Unamunoren On Kixote Mantxakoaren interpretazioa, bai Kierkegaarden Abrahamen irudiaren ikuspegia, “Fedearen zaldun” moduan definituak izan dira.

Dakigun bezala, etikaren baitan ikuspegi ezberdinak azaleratzen dira. Hauetako bat orain planteatzen ari garena izango da. Absurdoaren edo irrazionalitatearen (arrazoiaren aurka) eskutik argitara ematen dena alegia. Abagune hau hautatu dutenen artean Unamuno eta Kierkegaard egongo lirateke, hain zuzen ere, *Temor y temblor*-en (1843) eta *Vida de Don Quijote y Sancho*-ren (1905) egileak. Irrazionalitatearekin hartu eman zuzenena izango dute pertsonaiak, ostera, On Kixote Mantxakoa (Unamuno) eta Abraham (Kierkegaard) izango dira.

5.3.1. On Kixote

Unamunoren iritziz, Cervantes-en eleberriko bi pertsonai nagusienengan fedearen edo sinismenaren bi ikuspegi ezberdin islatzen dira. Lehena, On kixoteren fedea izango da, Fede “baikor” bezala definitua izango dena. On Kixoteren fedea baikorra da On Kixotek sinistea erabaki duelako. Santxok, bestalde, fedearen “bide ezkorra” ordezkatu du; arrazoiarekiko konfiantza faltarengatik federa gertura baita.

On Kixotek, hortaz, egiten duen horretan sinisten du. Espainian zaldunen aroa biziberrituko denaren posibilitatean sinisten du. Unamunoren zalduna, alabaina, gehiengoarentzat ero bat da; eta gainontzekoei ulertarazten saiatu arren, inork ez du ulertuko On Kixoteren jarreraren nondik norakoa.

“Zaldunaren fedea”, ordea, zaldunak amesten duen hori gauzatua izan daitekeenaren posibilitatea transzenditu egiten du. Ez du axola gainontzekoek ero moduan ikustea, sinestunarentzat errealitatean bilakatzen baita sinisten duen elementu hori. Gauzak honela, bere fedea salbatu egingo du On Kixote.

On Kixotek argi du nor den, bere buruarengan konfiantza du. Berarentzat izatea, izate nahia baita: “porque para él ser es querer ; el héroe sabe quién es, quién quiere ser, sólo él y Dios lo saben”⁵⁷²

Horrela, bada, gainontzekoentzat erokeria dena, On Kixoterentzat “benetako errealitatea” fedean oinarritua eta bihotzarekin eraikia eta ulertua dago eta, hargatik, ezin da arrazoiaren bidez azaldua eta arrazoitua izan. Fedearen gidari bilakatuko da On Kixote eta Santxorekin duen erlazioarekin gainontzeko gizateria maitatzen ikasiko du: “pues es en la cabeza de un prójimo, y no en la comunidad, donde se ama a todos los demás”⁵⁷³ Erlazio hau, ordea, elkarrekiko egokitzapena izango da. On Kixotek Santxorengan gizateriaren sinbolo konkretua aurkitzen duen moduan, Santxok On Kixoterengan fedearen aurkikuntzarako gidari bikaina topatu du eta, bide batez, bere burua definitzeko modua: “Soy Sancho Panza, el escudero de Don Quijote”⁵⁷⁴

Sinistu nahian dago gakoa. Modu honetan bakarrik posible da benetako fedea bizitzea. Horretan datza Santxoren jarrera. Hona zer dioen Unamunok Santxori buruz *Del sentimiento trágico de la vida*-n: “era un hombre, hombre entero y verdadero, y no era estúpido, pues sólo siéndolo hubiese creído, sin sombra de duda, en las locuras de su amo. Que a su vez tampoco creía en ella de ese modo, pues tampoco, aunque loco, era estúpido. Era en el fondo, un desesperado”⁵⁷⁵

Unamunoren pentsamendua aztertu dugunean ikusi dugun moduan, “larritasuna” da federa bultzatzen gaituena. Hau da, bizitzaren eta “ezerezaren” arteko dikotomiak sortzen digun “larritasuna” da fedearen besoetara bultzatuko gaituena. Ondorioz, egoera honen aurrean fedea izango da irtenbidea, hots, arrazoiar haratago eramango gaituena. Hemen datza baita ere fedea erokeria bezala ulertzearen jatorria. Erokeria, ordea, ez da ergelkeria. Sinestunak bere fedearen kontzientzia izango du eta.

⁵⁷² Unamuno, Miguel de. *Vida de Don Quijote y Sancho* . 39 or.

⁵⁷³ Ibid., 41 or.

⁵⁷⁴ Idem.

⁵⁷⁵ Unamuno, Miguel. *Del sentimiento trágico de la vida*. 124 or.

Hona hemen zer dion On Kixotek: “yo sé y tengo para mí que voy encantado, y esto me basta para la seguridad de mi conciencia”⁵⁷⁶

Adierazi berri dugun ideiarene adibide ezagunena On Kixotek eta Santxok erraldoiekin bizitako abentura izango da: “Mire vuestra mercé [...] que aquellos que allí se parecen no son gigantes, sino molinos de viento, y lo que en ellos parecen brazos son las aspas, que, volteadas por el viento, hacen andar la piedra del molino» dice Sancho, y su señor le contesta que «ellos son gigantes; y si tienes miedo, quítate de ahí, y ponte en oración en el espacio que yo voy a entrar con ellos en fiera y desigual batalla»⁵⁷⁷

On Kixoterentzat errotak erraldoiak dira eta bere fedea itxuraren gainetik jartzen da, sentsazioen esanahia beste mundu batera barreiatuz. Hala, errealtatea, fedearen egi irrazionalaren arabera neurtuko da. Unamunoren arabera, beldurra izango da Santxori, eta gainontzeko mortalei, erraldoien tokian errotak ikustera bultzatzen diena. Beldurrak ez digu itxuraz haratako joaten usten eta fedea erokeriatzat hartzera bultzatzen gaitu.

Santxok, ordea, dudak izan arren, On Kixoteren erabateko federa gerturatuko da: “Sancho veía las locuras de su amo y que los molinos eran molinos y no gigantes, y sabía bien que la zafia labradora a la que iba a encontrar a la salida del Toboso no era, no ya Dulcinea del Toboso, mas ni aun Aldonza Lorenza, y con todo ello creía a su amo y tenía fe en él”⁵⁷⁸ Tú, Sancho, entendías muy bien a tu amo, pues todo lo que te decía eran dichos muy claros y muy entendedores, y veías, sin embargo, que tus ojos te mostraban otra cosa y sospechabas que tu amo desvariaba por loco y dudabas de lo que veías, y a pesar de ellos le creías, pues ibas tras sus pasos»⁵⁷⁹

Egia esan, errazagoa egiten da ezinezkoa den zerbaitetan sinestea, begi aurrean duguna beste eite edo itxura batekin sinestea baino. Santxoren fedea, hortaz, logika sentsible ororen aurka altxatzen denez, fede guztietatik garbiena izango da (bere begiek errotak ikusi arren erraldoiak direla sinistu nahiko baitu). On Kixoteren heroismoa, hortaz, bere

⁵⁷⁶ Cervantes Saavedra, Miguel de. *El ingenioso hidalgo Don Quijote de la Mancha*. Barcelona: Optima, 1998, 356 or.

⁵⁷⁷ Cervantes Saavedra, Miguel de. *Don Quijote de la Mancha*, op. cit., 56 or.

⁵⁷⁸ Unamuno, Miguel de. Vida de Don Quijote y Sancho. 124 or.

⁵⁷⁹ Idem.

fedea bere begien aurrean jartzen dion absurdotasuna onartzean datza, hots, sen onak esaten dionaren aurka altxatu eta bere paradoxa onartzean. Santxoren heroismoa, bestalde, bere buruaren aurka doan ideia edo pentsamendu horretan borondate guztiarekin sinestean datza. Hau da, bere arrazoiak eta zentzuek inposatzen dionaren aurka altxatzea eta, bide batez, bere Jaunaren paradoxa onartu eta berarengan sinestea. Santxok aurkituko duen paradoxa handiena, aitzitik, On Kixotek hiltzear zegoela bere lagunekin duen elkarrizketan aurkituko du: “Dadme albricias, buenos señores, de que ya no soy Don Quijote de la Mancha, sino alonso Quijano”.⁵⁸⁰

Santxok, On Kixote hiltzear zegoela bere “senera” bueltatzea, momentu tragiko moduan bizituko du; gertakari honetan bere “nagusiak” bizi duen fedearen haustura islatzen baita.

On Kixote Mantxakoak, edota hobeto esanda Alonso Quijano-k, bere fedeari uko egingo dio fedea heriotzaren aurrean bere osotasunean iraun dezan, hots, “lurrean” Kixotismoak iraun dezan.

Santxok une horretan ulertuko du zertan dantzan Kixotismoa. Hau da, alde batetik, guk erabakitzen dugula zer izan nahi dugun (Alonso Quijano-ren kasuan zalduna izatea); eta beste aldetik, zer izan nahi dugun horrekiko sineste nahia eta pasioa direla bizitzari benetako zentzua ematen dioten elementuak. Santxok, ordea, Kixotismoa zer zen ulertzeko, On Kixotek heriotzaren aurrean bere fedeari uko egin beharrean aurkituko da. Izan ere, On Kixotek hiltzeko unean fedea berarekin eramatearen hautua egin izan balu, fedea ez zuen bere “une gorena” ezagutuko eta, bide batez, Santxok ez zuen ulertuko behin sinesteari utziz gero, heriotza presente egiten dela.

Jesusek erantzun zien: «Iritsi da Gizonaren Semearen aintza azalduko den ordua. 24 Bene-benetan diotsuet: Gari-alea, lurrean sartu eta hiltzen ez bada, bera bakarrik gelditzen da; hiltzen bada, ordea, fruitu asko ematen du. 25 Bere bizia maite duenak galdu egingo du; baina mundu honetan bere bizia gutxiesten duenak betiko bizirako gordeko du. (Joan 12)⁵⁸¹.

Horrela bada, benetako bizitza, izan nahi dugunaren alde borrokatzean eta sinestean (modu apasionatuan) datza eta, alderantziz, behin borrokatzeari eta sinesteari utziz gero,

⁵⁸⁰ Cervantes Saavedra, Miguel de. *Don Quijote de la Mancha*, op. cit., 757 or.

⁵⁸¹ <http://www.biblija.net/biblija.cgi?m=Jn+12&id34=1&pos=0&set=21&l=eu> Azkenengo aldiz 2015ko urriaren 12an kontsultatua.

hil egiten gara. Hortaz, Kixotismoa bizitzaren aurrean planteatzen den jarrera bat izango da, hots, bizimodu bat, non izan nahi dugun horrekiko edota sinesten dugun horrekiko erabateko konpromezua duen oinarritzat (Alonso Quijano-ren kasuan zaldunengan). Horrela ez balitz, hots, behin sinesteari utziz gero, heriotzaren edo “ezerezaren” aurrean aurkituko gara. Ez du zertan heriotza biologikoa izan behar, norbera izateari ustea ere heriotzaren edo “ezerezaren” antzekoa izango baita Unamunorentzat.

5.3.2. Abraham

Egiaz, errugabea galdu behar ote duzu errudunarekin batera? ⁵⁸² Abrahamek galdetuko dio Jainkoari, Sodoma eta Gomorraren aurrean Jainkoak bere intentzioa ezagutarazten dionean azaltzen duen bihozgabetasuna ikustean. Abraham une honetan, ordea, existentzia etikoan egongo da eta existentzia honen baitan, oraindik ere, justua denaz eta ez denaz hitz egiteak zentzua izango du. Abrahamek, ordea, *bizimodu etikoaren* baitan pausu bat haratago emango du, Absolutuarekin erabateko erlazioan jarriz.

Hala, Kierkegaardek *Temor y temblor* lanean erlazio hau aztertzea izan zuen helburu eta, horretarako, Isaak-en sakrifizioa hartu zuen oinarritzat. Genesiak honela deskribatzen du une hau:

Isaak opari eskainia

22

1 Handik aldi batera, Jainkoak probatu egin nahi izan zuen Abraham eta dei egin zion:–Abraham!

Honek erantzun:

–Hemen nauzu!

2Eta Jainkoak:

–Hartzazu Isaak zeure semea, hain maite duzun seme bakarra, eta zoaz Moria lurraldera. Igo zaitetz nik erakutsiko dizudan mendira eta eskainiezadazu semea han erre-oparitzat.

3 Biharamunean, goizean goiz jaiki zen Abraham, txalmatu zuen astoa eta, oparitarako egurra txikiturik, Jainkoak esandako lekura joan zen, bere seme Isaak eta bi morroirekin. 4 Hirugarren egunean, urrutira, aipatutako lekua ikusi ahal izan zuen Abrahamek. 5 Orduan, esan zien morroiei: «Gelditu hemen astoarekin. Mutikoa eta biok hara goaz, Jainkoa gurtzeko. Gero, itzuliko gara».

6 Hartu zuen Abrahamek oparitarako egurra, eta bizkarrean jarri zion bere seme Isaaki; berak aiztoa eta sua zeramatzan. Biak batera zihoazela, 7 Isaakek bere aita Abrahami esan zion:

–Aita!

⁵⁸² <http://www.biblija.net/biblija.cgi?m=Has+18%2C22-33&id34=1&pos=0&set=21&l=eu> Azkenengo aldiz 2015ko irailaren 20an kontsultatua.

–Zer duzu, seme? –erantzun zion Abrahamek.

Eta Isaakek: –Sua eta egurra badaramatzagu; baina non dugu oparitarako arkumea?
8Abrahamek erantzun: –Utzi hori Jainkoaren esku, seme! Eta elkarrekin zihoazen bidean.

9 Jainkoak aipatutako lekura iritsi zirenean, aldarea eraiki zuen Abrahamek eta egurra prestatu. Ondoren, lotu zuen Isaak eta aldareko egur gainean ezarri.

10 Eskua luzatuz, hartu zuen aiztoa bere semea hiltzeko.

11 Baina Jaunaren aingeruak dei egin zion zerutik: –Abraham! Abraham! –Hemen nauzu! –erantzun zuen Abrahamek.

12 Aingeruak, orduan: –Geldi esku hori! Ez egin kalterik mutikoari! Orain badakit Jainkoari begirune diozula, ez baitiozu zeure seme bakarra ere ukatu.

13 Jaso zituen begiak Abrahamek, ingurura begiratu eta ahari bat ikusi zuen sasi artean adarretatik kateatua. Hartu eta erre-oparizat eskaini zuen bere semearen orde.

14 Abrahamek leku hari «Jaunak du hornitzen» ezarri zion izena, eta gaur egun ere hala dio jendeak: «Mendian Jaunak du hornitzen».

15 Bigarren aldiz deitu zion Jaunaren aingeruak zerutik, 16 esanez: «Honela dio Jaunak: Hala jokatu duzulako, zeure seme bakarra ere ukatu ez didazulako, nik neurez zin dagit: 17 Oparo bedeinkatuko zaitut eta zure ondorengoak zeruko izarrak eta itsasertzeko hondarra bezain ugari egingo ditut eta etsaien hiriez jabetuko dira. 18 Zure ondorengoen bidez lurreko herri guztiak bedeinkatuko ditut, nire esana bete duzulako».

19 Orduan, Abraham bere morroiengana itzuli eta elkarrekin Beer-Xebara joan ziren. Hantxe jarri zen Abraham bizitzen.⁵⁸³

Nahiz eta arrazoiak eta sen onak ezin duen ulertu nola Jainkoak aita bati bere seme bakarra hiltzeko eskatzen dion, Abrahamek ez du duda egiten. Jainkoari ez dio izaten ari den makurkeriarengatik errurik botatzen. Eta eskatzen diona logikoki absurdoa izan arren, ez du bere semea hiltzerako orduan eskua dardarti izango. Hortaz, On Kixoterekin gertatzen zen bezala, Abrahamen fedea ere ez da arrazoian oinarritua egongo.

Horrela, bada, fedea eta arrazoa bateragaitzak izango dira eta Abrahamen jarrera gizakiaren ikuspegi arruntenetik aztertuz gero, Abraham bere semea hiltzen saiatu zen kriminal gisa irudikatua izango da. Fedearen (fede paradoxikoaren) ikuspegitik aztertuz gero, ordea, Abrahamen ekintza egundokoa izango da; Zeren eta ororen gaineratik Jainkoarengan absurdoki sinistu baitzuen (eta jarrera honegatik ez zuen bere seme Isaak galdu). Hortaz, arrazoizkoa dena alde batera utzia izango da eta geratzen den bakarra Jainkoarekiko erlazio absolutuaren paradoxa infinitua izango da, non etikoa dena gaitzua geratzen den.

⁵⁸³<http://www.biblija.net/biblija.cgi?m=Has+22%2C1-19&id34=1&pos=0&set=21&l=eu>
aldiz 2015ko irailaren 20an kontsultatua.

Abrahamek etikoki jokatzea erabakitzen bazuen, hots, bere semea hiltzeari uko egiten bazion, ez zen gaizki ikusia izango (inor hiltzerik ez zuela nahi esatearekin nahiko izango zen). Jarrera hau, ordea, fedearen eremuan jarrera erlijiosoaren uko modua ulertua izango da, hots, Jainkoaren aginduaren uko gisa ulertua eta, ondorioz, bekatutzat hartua.

Horrela, bada, fedearen aurrean bi jarrera ezberdinekin aurkitzen gara: bata, Abrahamek eta On Kixotek irudikatzen digutena, hots, absurdoa besarkatzea eskatzen duena; eta beste jarrera, aldiz, Santxorena. Santxok nahiz eta *bizimodu etikoan* bizi, On Kixoteren jarrera ulertzera (eta kasu batzuetan bizitzera) iritsiko da, baina ez da gai izango *bizimodu erlijiosora* jauzi egiteko. Hau da, ez da paradoxa edo absurdotasuna besarkatzera iritsiko.

Leturiak, ordea, Santxok moduan, nahiz eta Jainkoa edo Absolutua besarkatzeko fedea edo paradoxa onartzea beharrezkoa dela ulertu, ez da gai izango irrazionalitatearen besoetara jauzi egiteko. Arrazoiaren eremuan geratuko da. Hala ere, erlijioaren transzendentzia bizitu ez arren, Miren hiltzen zegoela bere beharra zuela esatean, bere “nitasuna” transzenditu (inmanentismoaren eremuan geratu), berekoikeria alde batera utzi eta Miren zerbitzatzeko prest azalduko da. Hau izango da Leturiaren xedea eta Miren zerbitzatzekak suposatzen duen konpromezu honetan topatuko du bizitzaren zentzua. Lehen esan dugun bezala, ordea, Txillardegik ez digu eleberriaren bukaeran bilakaera hau nola ematen den zehazten. Dakigun gauza bakarra zera da: Leturiak bere buruaz beste egiten duela da.

(4)_____

MODERNITATEAREN AUZIA TXILLARDEGIRENGAN

6. MODERNITATEA

Joxe Azurmendik *Oraingo gazte eroak* lanean hona hemen zer dioen Modernitatearen auziaz:

Zein da arazoa, zehazkiago? Arazoa modernitatea bera da. Gizaki modernoak gizaki matxinatua da (errebeldea). Matxinoak dena zehatu du: Jainkoa, erlijioa, jainkozko legea era ordena morala, politikoa), tradizioa ...

Gizaberearentzat gauzak ulertzea, ordena batean nola kokatzen diren era beren lekua doi-doi non daukaten ulertzea da. Ordena bat, haren printzipioa(k) ulertuz, ulertzen da. Horrela, bada, hona hemen bidaia horren geltokiak:

[1] a) Unibertsoa ordenatua da, barruan -edo gainean- Jainko ordenatzaile bat dagoelako, geometria edo arkitektua eskuarki. b) Giza historia guztiz ordenatua da, jainkozko Probidentzia bat dagoelako beti hura ordenatzen era partiera baretik helmuga batera gidatzen.

[2] Ordea, gero, zeruko Geometria eta denboraren gobernuak Begia kentzen baditugu, orain jada ez garelako fededunak, mundua eta historia ulertuko baditugu, geuk ipini beharko diegu beren ordena. Horixe dago «razionalismoak», Jainkoarekin barik, arrazoimen geometriko eta aurrikusle baten uste edo suposizioarekin. (Pentsamenduaren «sekularizazioa» deitu ohi dena, hortaz, askoz gehiago da filosofiaren teologizazioa eta «Arrazoimenaren begitazioa»: h.d., maskara aldatu, maskaradarekin jarraitzeko).

[3] Gero (Marxekin, Freudekin, etab.) Arrazoimenak bere geometrikotasun jainkozkoa galdu du: dena batasun ordenatu handi batean biribil dezakeen «azken printzipioaren (edonolako «jainkoren») suposizioa abandonatuz gero, unibertsoan hala historian dena jare dabil, kaotiko. Dena erlatiboa da: espazioan ez dago ipar eta hegoa absoluturik, historian ez ongi era gaizki absoluturik. «Si no se cree en nada, si nada tiene sentido y no podemos afirmar valor alguno, todo es posible y nada tiene importancia. Sin pros ni contras, el asesino no tiene ni deja de tener razón (...). Maldad y virtud son azar o capricho», laburbiltzen da egoera «moderno» hau *El hombre rebelde-ko* Sarreran²⁸.

[4] Kaosa gizakiak ezin jasan du. Historiaren nagusi osoa bera bilakatzeko gizakiaren hurrengo saioa ikaragarria izan da: Estatu bakoitzak (inperialismoa), ideologia bakoitzak (marxismoa, etc.) bere burua absolutua deklaratu du, ongiaren eta gaizkiaren jabe eta munduaren birantolaketaren arkitektu. Matxinoa «iraultzaile» bihurtu da eta unibertsoa nahiz historia «irauli beharra daukala eta egin ahal duela uste du gizakiak bere absolututasun uste harroan. Ondorioa XX. mendeko gerrak, kontzentrazio zelaiak era txikizio basatiak izan dira: Gizaki Jainkoaren obra.

[5] Orain gu behargite (moral) horretantxe gaude eta ez dugu historia hori gehiago jarraitu nahi. Baina ezin dugu historia horren aitzinera itzuli ere. Nola ordenarik lortu orain, printzipio absoluturik gabe, arrazoimen absoluturik gabe? Beraz, egia, justizia, ongi eta gaizki absoluturik («bortxa oro ... ») gabe? «El hombre rebelde es el hombre situado antes o después de lo sagrado, y dedicado a reivindicar un orden

humano en el que todas las respuestas sean humanas, es decir, razonablemente [kasu ez dioela «racionalmente»!] formuladas». ⁵⁸⁴

Arestian esandakoa aztertuz gero, Modernitatea arrazionalizazioarekin identifikatu al daiteke? Galdera hau erantzuterako orduan Modernismoaren aurkako kritikarien ikasgaiak kontutan hartzea beharrezkoa izango da. Batez ere, hainbat “progresismo” zapaltzaile eta kasu batzuetan totalitarioen menpe egon den XX. mende bukaera kontutan izanez gero. Haatik, ez al da beharrezkoa Modernitatearen jatorriaz eta bere izaeraz galdetzea?

Modernitatearen garaipena, “arrazoiaren garaitiari” uko egiten zion oro baztertu, ahaztu edota erakunde errepresiboetan giltzapetzen saiatu da.

Beste kasu batzuetan, aldiz, Modernitatea hazkuntza ekonomikoaren etapa gisa definitua izan da. Herrialde industrializatu batzuk eremu erauntsitik salbu diren bitartean, Asiako nahiz Hego Amerikako hainbat herrialde oraindik ere Modernitatearen baitan etengabeko ahaleginean murgilduak dauden. Beste batzuk, aldiz, Modernitatearen baitan noiz sartuko diren itxaroten. Halaber, hazkuntza ekonomikoaren etapa ezberdinen ikuspegi baikor honek ez du gaur egungo munduaren egoera erreala bistaritzen. Izan ere, gosez hiltzen ari diren gizaki kopurua etengabe handitzen ari da.

Horregatik, esan dezakegu, Modernitatea modu polemikoan argitara eman dela. Une batzuetan eratze kulturalaren aurkari eta errealtate objektiboaren aurkitzaile izateaz gain, tradizioaren etsai eta arauen, ohituren eta sinismenen alderantzikatzaille gisa definitua izan da. Hau da, partikulartasunaren eta berezko izaeren baztertzaille eta unibertsaltasunaren eta Arrazoiaren Aroaren adiskide.

Gaur egungo Modernitatearen ageriko irudia, halaber, aktorerik gabeko gizartearena da. Aktore moduan definitu al daitezke historiaren nahiz arrazoiaren esanetara bizi diren gizakiak? Aktore deitu al daiteke merkatuaren oharpenak bakarrik irakurtzen dakizkien teknikaria? “Pentsamendu modernoarentzat” kontzientzia beti “kontzientzia faltsua” da eta gaur egungo hezkuntzak, modernitatearen seme den hezkuntzak, ezagutza zientifikoari pertsonalitatearen formakuntzari baino garrantzi handiagoa ematen ari zaio.

⁵⁸⁴ Azurmendi, Joxe. *Oraingo gazte eroak*. Irun : Luma, 1998. 42-43 orr.

Familiaren eta sinismenen eragina ezereztea izan du helburu. Dena den, hau ezinezkoa suertatu zaionez gero, mundu pribatuaren eremuan utzi ditu erlijioaren eta familiaren eragina, egunen batean zientziaren eraginez indargabetu egingo direnaren ustean.

Arrazoiak irrazionalitearen hodeiak baztertuko dituenaren ideiak asetzen al gaitu ordea? Gizarte tradizionalan gizakia indar inpersonalen menpe dago eta bere etorkizunari dagokionez ez du apenaz erabakirik hartzen. Bere ekintzak aurretik emana den ordena baten arabera baldintzatuak daude (mendebaldeko pentsamenduan behintzat). Hortaz, errealitatea, Modernitatearen ikuspegiaren arabera, ulertua izan behar den “mundu arrazionala” izango da; eta mundu sakratua, aitzitik, Jainko batez sortua eta animatua izango da, baina aldi berean lege arrazionalen arabera eraikia.

Modernitatearen baitan subjektua nola definitzen da ordea? Subjektua giza ezagutzari ulergarri suertatuko zaion lege arrazionaleraz eraikia izango da. Hori dela eta, gizakia subjektu gisa heztea, pentsamendu arrazionalan oinarrituz eta ohituratik eratorritako edozein eragin baztertuz heztea izango da.

Hori izango da, ordea, gure Modernitatearen dramaren oinarria: subjektua zientziaren izenean definitua izango da eta kristautasunaren ekarpen oro baztertuak izango dira. Modernitatea, subjektuaren eta arrazoiaren eta kontzientziaren eta zientziaren elkarrekintzaren arabera bakarrik ematen denaren ideia indarra hartzen zihoan moduan (zientzia garaile irten zedin), subjektuaren ideia, hots, sentimenduaren eta irudimenaren eremuak baztertu egin behar zirenen ideia inposatu nahi zen. Horrela, bada, pasioarekin identifikatzen ziren kategoria sozial guztiak zapalduak izan behar ziren. Hala nola, arrazionaltasunarekin identifikatzen zen elite kapitalistaren uztarriaren azpian zeuden emakumeak, haurrak, langileak eta kolonizatuak.

Argien aroak askatzailea izan nahi zuen. Kasu askotan, ordea, indibidualista bezala definitua izan zen arren, ez zen hala izan. Egia da, pentsamendu arrazionalaren nahikeriekiko menpekotasunak gizateria sineskeriatik eta ezjakintasunetik askatu zuela, baina gizabanakoa ez zen libratua izan. Izan ere, arrazoiaren erreinuak usadioek betetzen zuten tokia hartu zuen. Horrenbestez, Weber-ek esaten digun moduan, “arrazoizko autoritateak” ohiturak ordura arte zuen boterea bereganatu zuen. Arrazionalitate modernoa, ostera, gizabanakoaz ez da fio. Nahiago izango ditu giza

bizitzari nahiz giza pentsamenduari atxikitzen zaizkion zientziaren lege inpersonalak. Pentsamendu modernoak bere burua zientifikoa nahiko du. Naturalista eta materialista izango da hortaz, eta lege orokorren baitan behatutako fenomenoen indibidualitatea deuseztatzen saiatuko da. Ordena sozialaren baitan ongiaren irizpidea erabilgarritasun sozialean bilakatu denez gero, berekoikeriaren seme direnak altruismoan hezteka izango da xedea.

Heziketaren ikuskera hau gaur egun ere indarrean jarraitzen du. Hau da, haurrak diziplinatua izan behar du; bere buruaren jabetza izan dezan sarien bidez estimulatua edota errieta bidez zigortua alegia. Xedea gizarte bizitzaren arauak ikastea izango da eta, nola ez, aldi berean pentsamendu arrazionalaren pausuak jarraitzera bultzatua.

Indibidualitatearen presentzia ez zen hezkuntzaren eremura bakarrik mugatu. Gizarte industrializatuan langile-klaseak “langileen arma” gisa ikusten zenez gero, langileen kontrola militarren presentziarekin ziurtatzen zen. Banakotasunaren galera emakumeengan areagoa izan zen aitzitik. Izan ere, emakumeak emazte, ama edota maitale rolerak murriztuak izan ziren.

Horrela, bada, non dago indibidualismoa gizarte moderno honetan? Moral tradizionalak gizabanakoa zuen ardatz, gizabanakoa bere pasioen eskutik askatzerako orduan ere. Moral modernoak deitzen duguna, aldiz, ez al da azken finean gizartearen interesen arabera jarraitu behar ditugun arauak? Hala, kasu askotan gizarte modernoak “gizarte masa” bezala definitua izan da.

Azpimarragarria suertatzen den beste aspektu bat zera da: Modernitateak gaur egunean gogo-berotasuna baino gehiago beldurra sortarazten duela da. “Arrazoiaren unibertsalismoa” banakoaren bideak txikitzeko makina egokia suertatu da. Aurrerapena bizkortzeak, bestalde, gizateriaren zati handi bat etengabe sakrifikatua izatea suposatzen du. Botere totalitarioek, ere, aurrerapenari eta modernitateari buruz gogo-berotasunez hitz egin dute. Estatuaren eta aparatuen pribatuen diskurtsoak, bereziki monopolioa dutenean, boluntarismoaz, espiritu zientifikoaz eta ongi komunaz gainezka azaleratzen dira. Errealitatea, ordea, bestelako da. Joxe Azurmendik *Oraingo gazte eroak* lanean esaten digu moduan:

Historia nola etorri den Auschwitzera, h. d., arrazoimenaren zein kontzeptuk ardaztu duen modernitatea, bilatzen da orain. Eta arrazoimena dominazioarekin berdintzen duen gure kulturaren basakeria jatorrizko eta esentziala jarri da ageri-agerian. Irakurketa berri honetan hain zuzen biktinek -gutxiengoek, marginatuek, gazteria matxinatuak- paperik positiboena aurkituko dizute historian. Izan ere, modernitatearen prozesua desberezitzailea da, ugaritasun eta diferentzia oro zapalduz eta Bat absolutuan hurrupatuz doana, pertsonak, taldeak, eskualdeak, azkenean denak sistema abstraktuarekin bat-bat egiten duen arte. (Faxismoak Ilustrazioan dauzka bere erroak: mendebalearen «razionalizazio» prozesu horren fruitu heldua baizik ez baita faxismoa Horkheimer era Adornoren balioespenean). Progresoaren izenean diferentziak inausi egin behar dira. (Foruak «diferentziak» dira; gero hizkuntza ere bai). Prozesu horri punturen batean, geografikoan edo sozialean, uko egiten eta ihardukitzen zaionean, zapal-berdindua izateari erresistentzia jartzen diozunean, tragedia nahitaez zartatzen da: sistemaren inposaketa historiko progresibo biolentoari (zenbait jenderi «naturala» iruditzen zaiona eta, horregatik, «rnik» sentiarazten ez diona) bortxa moduren bat kontrajarri beharko zaiolako. Sistemaren perfekzioa guztien berdinasun eta uniformitatea da, hori da sistemak nora jotzen duen. Erroboten Estatua, zenbakien gizartea. Beraz, erresistentzia oro helburu horren aitzia, progresoaren aurkako antirnodernia era erromantizismo irrazionaltzat erdeinatuko da. Razionala makina bihurtzen uztea da. Makurtzea, berdintzea, amen esatea. «Sólo el inadaptado no ha perdido aún su propia mismidad entregándose al sistema; de modo que podemos decir que la marginalidad, la soledad y el desconcierto son en nuestra cultura el último refugio de verdadera humanidad»⁵⁸⁵

6.1. Existentiaren filosofiaren sorrera

Testuinguru honetan, hots, alienazio egoera honetan, geratzen zaigun gauza bakarra gizabanakoa, hezur-haragizko gizakia, berreskuratzea izango da. Hau da, bere ezaugarri indibidualak eta ezaugarri hauen artean, bereziki, bere askatasuna berreskuratzea.

Garaudy-k bere *Perspectivas del hombre* lanean⁵⁸⁶ dioen moduan, bizitzak arazoak azaleratzen dizkigu eta filosofiaren xedea arazo hauei erantzun bat ematea izango da. Filosofia XX. mendean, Garaudy-ren arabera beti ere, bi galdera nagusiri erantzuna ematen saiatu da: alde batetik, gure garaiko iraultzen eta krisien ondorioz sorturiko arazoei buruzko galderak egongo dira; eta bestea, zientziek eta teknikek gizakiari emaniko botereen fruitu izango diren aferei dagozkienak. Filosofia, beraz, “existentziaren filosofian” bilakatu da eta Hegelen idealismoaren etsai.

⁵⁸⁵ Ibid., 106-107 orr.

⁵⁸⁶ Garaudy, Roger. *Perspectivas del hombre : existencialismo, pensamiento católico, estructuralismo, marxismo* / Fontanella, Barcelona : 1970.

“Existenziaren filosofiarentzat” gizateria giza existentziari esanahi bat eman beharrea aurkituko da, hots, giza existentziari jarraipena eman ala ez deliberatu beharrea aurkituko da. Hortaz, gure existentzia gure hautuaren menpe egongo da orain. Hala, gaur egun jokoan dagoena ez da gizaki baten edota giza talde baten etorkizuna bakarrik izango, gizateria osoarena baino.

(...) si la humanidad entera continúa viviendo, no será simplemente porque ha nacido, sino porque habrá decidido prolongar su vida. Ya no hay *especie humana*: La comunidad que se ha hecho guardiana de la bomba atómica esta por encima del reino natural, pues es responsable de su vida y de su muerte; cada día, cada minuto, tendrá que consentir en vivir. He ahí lo que, con angustia, experimentamos hoy⁵⁸⁷

Ez dago, hortaz, zientziaren edota teknikaren gelditasun posiblerik, giza bizitzak justifikazio baten beharra baitauka eta egoera honek gizakiaren gaitasunaren azken arazoak azaleratzen dizkigute. Hau da, hautuaren, askatasunaren eta xedeen arazoak.

Gaur egungo buruhauste edo arazo hauek ikastetxeetako eta unibertsitateetako hormak hautsi dituzte eta guztion arazo bilakatu dira. Gizakiak natura osoa menperatzeko ahaltasuna izateak bere gogoeta eremua jabetza horretara bakarrik mugatu ezin daitekeenaren sentimendua piztuko dio. Horrela, bada, bere gogoeta-eremuak “unibertsoa ezerezteko” gaitasunaz haratago joango da. Teknikaren garapenak, bestalde, giza existentziaren arazoa ekarriko du berarekin, existentzialismoari, gogoeta katolikoei eta marxismoari ateak irekiz.

Nuestro mundo es uno. Pero es un mundo desgarrado.
 Nuestro mundo es uno porque el desarrollo de la técnica y de la, producción ha engendrado un mercado mundial, la economía de un mundo cerrado en el que el destino de cada hombre depende en realidad del destino de todos los demás. Económica, política y moralmente, la vida cotidiana de cada hombre sufre la resaca de las tempestades más lejanas: un *crack* en la Bolsa de Nueva York, una manifestación en Tokio, un plan económico en Moscú, una sublevación en África o en Asia. Las crisis se han hecho mundiales y las guerras también. '
 Pero esta interdependencia universal no es una solidaridad universal. Está hecha de contradicciones y de enfrentamientos. La universalidad no se expresa concretamente sino porque, en lo sucesivo, todas las luchas se desarrollan a escala planetaria: las luchas de clases, las luchas nacionales las luchas ideológicas.⁵⁸⁸

Hori dela medio, gatazka oro ez da herrialde konkretu batera bakarrik murriztuko eta erantzukizunek ez dute izaera mugatua izango. Filosofia garaikidearen oinarrizko

⁵⁸⁷ Sartre, J. P., *Les temps modernes, n° 1: Présentation*. Letra entzanak autorearenak.

⁵⁸⁸ Garaudy, Roger. *Perspectivas del hombre : existencialismo, pensamiento católico, estructuralismo, marxismo* / Fontanella, Barcelona : 1970, 11 or. Letra entzanak autorearenak.

materiek, hortaz, gizaki orok zoritxarrez pairatu beharra izan dituen oinarriko esperientzietan dute bere oinarria.

La experiencias fundamentales comunes a los hombres, de treinta años acá⁵⁸⁹ son fácilmente enumerables.

El punto de partida es la gran crisis de 1929. La producción mundial bajando en un 40%, Y el comercio mundial en 60% de 1929 a 1932. Treinta millones de parados. Vidas destrozadas. Vidas sin objetivo. Las tragedias de un mundo en el atolladero. Las contradicciones exasperadas entre los hombres que compiten, entre las clases que se enfrentan, entre las naciones rivales. Las acusaciones y las impugnaciones contra una prosperidad que se revelaba como momentánea y ficticia, contra regímenes, legalidades Y valores hasta entonces indiscutido. La conciencia de que culturas y civilizaciones pueden ser mortales.⁵⁹⁰

Aurkakotasun hauen fruituak izango dira europar pentsamenduan eta historian erabakigarriak izan ziren faxismo eta diktadorek (ezin dugu ahaztu 1936ko fronte popularra eta Espainiako Gerra Zibila). Esperientzia hauen seme izango dira baita ere Garaudy-k filosofo garaikide gisa definitzen dituen pentsalari garrantzitsuenak ere. Hori dela eta, gertakari historiko hauek existentzialismo atea, kristau filosofia eta marxismoa “existentziaren filosofiaren” baitan sartuko dituzte. Hala, giza existentziaren hainbat oinarri auzitan jarriko dira eta ordura arte indarrean zeuden pentsamendu filosofiko askoren baztertzea emango da.

Algunas ilusiones se derrumban: la de la prosperidad indefinida del capitalismo, la de la democracia concebida como una «república de las conciencias» planeando por encima de los intereses de los particulares y de los grupos, la de una república wilsoniana de los pueblos, que sería hecha realidad por la Sociedad de las Naciones, y, con estas ilusiones históricas, las ilusiones filosóficas correspondientes: un idealismo sereno, según el cual el mundo es transparente para la razón que lo engendra y lo guía.

Este eclecticismo de buen tono, en un mundo en el que todos los problemas eran resueltos al nivel de las síntesis espirituales, era bruscamente sometido a una dura prueba por la vida misma y por los modos de pensar que ella hacía nacer. En unos cuantos años, unas filosofías que reinaban hasta entonces de modo exclusivo -por lo menos en la Universidad- quedaron enterradas por el paso del liberalismo racionalista al nihilismo fascista, del optimismo idealista al existencialismo trágico.⁵⁹¹

Pasarte hau irakurri ostean, ez zaigu harritzekoa suertatzen existentzialismoak hedatzen handiena Alemanian 1918ko porrotaren ostean, Frantzia 1940an, eta Espainian Gerra Zibilaren ondoren eta frankismoan ematea.

⁵⁸⁹ Ez gaitzezen ahaztu 40-70 hamarkadez gutxi gorabehera ari dela.

⁵⁹⁰ Garaudy, Roger. *Perspectivas del hombre : existencialismo, pensamiento católico, estructuralismo, marxismo* / Fontanella, Barcelona : 1970, 12 or.

⁵⁹¹ Ibid., 15 or.

Es notable que el existencialismo haya conocido su mayor irradiación, en Alemania, después de la derrota de 1918, y en Francia, después de la de 1940; el desplome de los marcos sociales, políticos, nacionales, espirituales, que hasta entonces daban, en cierto modo «desde fuera», una consistencia a la vida individual, condujo al hombre a cobrar conciencia de su responsabilidad personal, de su libertad, en un mundo en ruinas. De Heidegger a Jaspers en Alemania, de Sartre a Gabriel Marcel en Francia, la presencia del caos y de la catástrofe da un estilo nuevo y dramático a la filosofía contemporánea.⁵⁹²

Gurean, pentsalari hauetaz gain, Unamunoren eragina funtsezkoa izango da (nahiz eta Unamuno Espainiako Gerra Zibila hasi baino lehen hila suertatu), Zeren eta Unamunoren pentsamendua oso ongi txertatu baitzen gerra osteko (eta frankismo garaiko) Hego Euskal Herrian. Baina zergatik existenzialismoak edota, modu orokorragoan esanda, “existentziaren filosofiak” horrenbesteko arrakasta izan zuen gurean?

6.1.1 Zientziaren dogmatismoaren porrota.

Garaudy-ren arabera, fenomeno honen oinarrian zientifismoaren eta erlijioaren dogmatismoaren porrota egongo lirateke. Garaudy-k honela deskribatzen du zientziaren dogmatismoa:

De Galileo a Descartes, y de los filósofos franceses del Siglo XVIII a los grandes descubrimientos del XIX la ciencia ha sido considerada, cada vez más, como el único conocimiento posible y como lo que da al hombre, con la omnipotencia respecto a la naturaleza, el sentido de su existencia. La creencia en el progreso indefinido de la humanidad fundada en el crecimiento continuo de los conocimientos científicos, se había convertido en un dogma indiscutido.

Esta extrapolación de la ciencia en cientifismo se basaba en un cierto número de postulados ocultos:

1.º Que, siendo toda verdad científica la copia exacta y definitiva de una realidad de la naturaleza, las verdades fundamentales de la ciencia no pueden ser sometidas a revisión.

El progreso del conocimiento debe realizarse por acumulación continua.

2.º Que toda realidad, natural o humana, es susceptible de ser explorada por un mismo método, cuyo modelo ideal y único lo proporciona la física matemática.

3.º Que, en consecuencia, todos los problemas, incluidos los problemas morales, políticos y sociales, pueden ser resueltos por ese método.⁵⁹³

Aguste Comte-k zirriboratu zuen ikuspegi zientifistak filosofiaren baztertzea suposatu zuen. Ikuspegi hau, ordea, XX. mendearen hasieran zientziak bizi izan zuen garapenaren ondorioz txikitua geratuko da.

⁵⁹² Idem.

⁵⁹³ Ibid., 21-22 orr.

Filosofiaren berriztapen hau matematiketatik hasiko da. Geometria ez euklidearrarekin alegia. Ikuspegi honek Euklidesetik hasi eta Descartesenganaino eta Newtonetik hasi eta Kantenganaino iraun zuen, espazioaren ideia zalantzan jarriaz.

Fisikari dagokionez, bestalde, bi iraultza handi bizi izango dira: alde batetik, Einsteinen erlatibitatearen teoria; eta bestetik, beranduago bizitu zen “kuantua”, zeinaren arabera espazioaren eta denboraren ikuspegi tradizionala bakarrik ez da zalantzan jarriko, determinismoaren ikuspegian ere eragin handia izango du aurkikuntza honek.

Gizakia une horretatik aurrera ez da kausalitatearen menpe egongo, bere erabakien garrantziaz ohartuko da. Hala, bere etorkizuna, bizi duen testuinguruak zeresan handia izan arren, bere esku dagoela konturatuko da. Hori dela eta, bere askatasuna eta erantzukizuna berreskuratuko ditu. Baina zer suposatu zuen guzti honek? Guzti honek, zientziaren baitan jauzi handi bat suposatu zuen. Zientziaren gizatiartzea alegia.

6.1.2 Erljioaren dogmaren haustura

Puntu hau aztertzerako orduan, Txillardegik iruzkintzea hautu zuen Fulton J. Sheen-en *Religión sin Dios*⁵⁹⁴ lana hartu dugu kontutan. Lan hau, aitzitik, erabakigarria izango da Txillardegik agnostizismoarekiko eta humanismo antropozentrikoarekiko zuen begikotasuna ulertzerako orduan. Izan ere, Txillardegik eskolastikari egiten dizkion kritikek hemen izango baituzte oinarri filosofiko-teologikoa eta, ez hori bakarrik, Fulton J. Sheen-ek garai hartan indarrean zeuden Jainkorik gabeko erlijioen ikuskerak bistaratzen dizkigu. Garai hartako Hego Euskal Herrian, erabat katolikoan zen gizartean, ikuspegi iraultzailea izango dena alegia. Hortaz, goazen bada Txillardegik liburu honi buruz esaten diguna ikuskera.

Kasu honetan Txillardegik ez digu existentzialismoaren inguruko gogoetarik egingo, Fulton Sheen-en *Religión sin Dios* lanari buruzko iruzkin bat baino. Bertan, bi zati nabarmentzen dizkigu Txillardegik. Batetik, liburuaren nondik norakoa azaltzen digu, liburuaren egituraketaren deskribapen zehatza eginez. Era berean, ordea, liburuaren

⁵⁹⁴ Txillardegi. Fulton Sheen: *Religión sin Dios*. In: Egan, Donostia-San Sebastián. Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País (1956) 5-6. zenb., 155-157 orr.

mamia ere ezagutzera ematen digu, garai hartan (ez ahaztu artikulu hau 1956an idatzia dagoela) indarrean zegoen Jainkoaren ideia bistaratzuz.

Txillardegik esaten digunaren arabera, Fulton Sheen-ek planteamendu tomista duenez gero, Fulton J. Sheen garai hartan erlijioaren baitan gero eta indar gehiago hartzen ari ziren eskolastikaren aurkako posturen aurka altxatuko da. Izan ere, argitara emanten ari ziren korrante erlijiosoek Jainkoaren ukoa oinarritzat zituzten planteamenduak bistaratzen zituzten. Hauen artean, Fulton J. Sheen-ek W. James, Alexander maisua, A. N. Whitehead, Russell, Croce eta Gerardo B. Smith bezalako pentsalariak izendatzen ditu.

Horrela, bada, Fulton Sheen-ek bere liburuan pentsatzaile hauen iritziak azaleratzeaz gain, Jainkoaren kontzeptu oker hauen guraso moduan Lutero, Descartes eta Kant izendatzen dituela esaten digu Txillardegik:

Sheen Apezpikuaz edozein gauza jarri aurretik, oso idazle bizkorra dela esan bear da; ta, alde onetatik, ez du neke aundirik pasako bere azken liburu onetan barrera abiatuko denak. Erraz azaltzen du bere pentsamentua, ta liburuko arian sartu ezker, nekez utzi diteke Fulton Sheen'en azalpen jarraikia.

Bi zati ditu liburuak. Lenbizikoan, Jainkoari buruzko gaurko kontzetuak aletzen ditu argiro ta jakintsu, aipamen guziak eraskin batean zeatz bilduz. Eta bigarrenean, "tomismoaren argitara ", egungo erlijiokeri oriek guztak urratu nai ditu, egiazko gogaiak eta tradizioak lengoratzten dituela.

Lenego zatian, W. James, Alexander, Whitehead, Russell, Croce, B. Smith, J. Huxley, eta beste zenbaiten iritziak dakazki. Auen iritz; oriek orrialde gutxitan aurkeztu arren, beti lortu du Sheen'ek beren teorien guna egoki erakartzea, Eta, itz gutxitara bilduta, au da Ameriketako Apezpikuaren ustez guzien mamia: benetako Jainkoaren ukaera. Gizonagan ezarri ta finkatu nai baita soillik Aren izatezioa.

Jainkoaren kontzetu oker eta uskor auen jaterria billatzen du gero, ta Lutero, Descartes, eta Kant'en filosofian arkitu uste du. Zati onetan ederki azaltzen dizkigu iru auen joerak, Erlijio ta Jainkoari buruz bereziki; eta, Sheen'en ustez, etziran beroriek ondo konturatu beren okerron larritasunaz. Baña denborak jakiñerazi digu ondoreetan.

Azalpen au, eta berebat ere tomismoarena, maixu bikain baten azalpen argitsuak dira, ta lan onurakorra da irakurtzea.⁵⁹⁵

Txillardegiren artikulu honetan, ordea, bigarren zati bat ere bistaratzen zaigu. Bertan, Fulton Sheen-en jarrera kritikatzaz gain, garai hartako Elizaren baitan tomismoa (eskolastika) erdi-dogman bilakatzen ari zela salatuko du Txillardegik. Txillardegik Fulton Sheen-ek lehen aipatu ditugun autoreen ikuspegia aztertzen dituenean, ikuspegi tomistatik edo eskolastikatik aztertzen dituela esango digu eta ez duela kontutan hartzen

⁵⁹⁵ Txillardegik. *Fulton Sheen: Religión sin Dios*. In: Egan, Donostia-San Sebastián. Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País (1956)) 5-6. zenb., 155-156 orr.

pentsalari hauen jatorri “ez tomista”. Horrela bada, Txillardegiren arabera beti ere, abiagune ezberdinak izate hutsagatik Fulton Sheen-ek baztertu egiten ditu tomismoan oinarritzen ez diren planteamendu erlijiosoak. Hori dela medio, lehen aipatutako pentsalariak abiagunetzat tomismoa ez dutenez gero, Fulton Sheen-entzat, beraiengandik (eta planteamendu ez tomista duten edozein pentsalariengandik) eratorritako Jainkoaren ideia, ez da benetako Jainkoaren ideia izango.

Esan dugun bezala, errefusatzeko zatia dugu bigarrena. Laburki, bañan argi, zeatz eta sakon tomismoa azaldu ondoren, oñarritzat auxe arturik, ondoreak ateratzen asten da egillea, eta gaurko filosofoen okerra erakusten digu.

Alere, apalkiro bederik, "baña" batzuek jarri nai dizkiogu Sheen jaunari bigarren zati onetzaz.

Geien-geienetan jatorrizko akats bat izaten dute errefutaerak: beste oñarri batetik eraiki oi dirala ; ta, ala gertatzean, indar guzia galdu oi duela arrazoimentuak. Zeren bestearen oñarriak, asieratik eta bidez urratu baño leenago, baztertu egiten badira besterik gabe (edo aaztu, berdin da au eta), nork bere bidetasuna erakusten du, bai, bañan oz besterik.

Eta, errespetuz orretan datza ain zuzen F. Sheen'en akatsa. Polemika-liburu geienen akatsa, alegía,

"Cual es el valor de la filosofía de la naturaleza fundada en la ciencia empírica" zatiari (8 gn. kapituluak, 213 gn. orrialdean) ezin baietsi dakioket inolara. Bere iritzi osoa, tomista baten postuladua besterik ez da. Oñarritzat San Tomas arturik, postuladu baten jarraipenak dira bere konklusioak oro. Uts auxe du zazpigarren kapituluak, eta gañerakoak ere berdin.

Orrengatik, liburuko bi zatiak, bi "zati" díra, benetan, eta ez bi "atal"; eta tomista ez den batentzat zer-ikusirik ere ez duten zatiak. Iñarrosi egiten dute tomismoaren bidetasunak eta barne-indarrak, egiazki; baña probatu, ez dute ezer probatzen. Beste plan batean jartzen da, bada, F. Sheen asieratik (San Tomas'enean, esan dugu). Beraz, nor bere plauan geratzen da azkeneraño: bai maiseatuak, eta bai maisealaria bera ere.⁵⁹⁶

Txillardegirentzat, ordea, tomismoaren presentzia ez da Fulton Sheen-engan bakarrik aurkitzen den zerbait izango. Garai hartako Elizaren baitan ere indar handia izango du tomismoak (eskolastikak). Hori dela eta, Txillardegik tomismoa Elizaren erdi-dogmatzat hartuko du. Tomismoak ez du beraz “egia” osorik azaltzen eta fisikaren baitan, irakaspenak oso erlatiboak eta higikorak izan arren, kontzeptu zahar asko zokoratu egiten diren moduan (Txillardegik, planteamendu honen adibide gisa, sustantzia jartzen du), Elizaren baitan jarrera hau oso zaila suertatzen dela esango digu Txillardegik.

Horrela, bada, zergatik ezin dezakegu erlijioaren baitan fisikaren eremuan (eta gainontzeko arlo zientifikoetan) ematen den antzeko jarrera izan? Ikusi dugun moduan, jokabide berriak azaleratzen ari dira erlijioaren inguruan. Hori dela medio, fenomeno

⁵⁹⁶ Ibid., 156 or.

honen erdian honako galdera hau plazaratzen digu Txillardegik: “Zergatik ez gera katolikoak beste bide batzuetatik abiatzen?”⁵⁹⁷ Txillardegik, galdera honi erantzunez, San Agustinen bidea proposatuko digu.

Galgarrri deritzagu Elizan nabaitzen den joera bati: erdi-dogma bat biurtu da tomismoa. Badakigu ezetz, ori ezin gerta ditekela ; eta filosofian, Egiatik baztertu arte beñipein, nai-ta-ezko onarkizunik ez duela kristauak. Bañan oinbeste mendetan zear "betiereko filosofia", ta Elizaren "filofia ofiziala" tomismoa izan dela-ta, badirudi onen filosofiaren aurka joateko, kristautasuna galdu ta irten-edo bear dela Eliza beretik.

Ta, dirudienez, geroz ta aukera gutxiago du tomismoak Egia osorik azaltzeko.

Gaurko Fisikak batez ere (Einstein, Planck., Heisenberg'enak] dardaratu egin du gaiaren ezaguera. Ta naiz-eta aren irakaspenak oso erlatibuak eta igikorak ba dira ere (ez dugu onetzaz duda izpirik), kontzetu Zaar asko il bide-dira betirako: sustantziarena batez ere, Auxe egin zuen Copernico'k Astronomian. Zergaitik ez Fisikan gaurko jakintsuak.? Zerbait berri jakin dugu segurki gaiari buruz, eta ezin aaztu diteke au.

Liburu mamitsua eman digu F. Sheen'ek.. Baña gogozago irakurriko genuke orain "beste" bigarren zati bat.

Ez dugu uste, gañera, egungo gizon egartiari San Tomas zaionik egokiena. Zergatik ez gera katolikoak beste bide batetik abiatzen? San Agustín, esate baterako, gertuago dago gugandik zalantzik gabe, San Tomas Akino'koa baño.⁵⁹⁸

Fulton Sheen-ek, bestalde, eskolastikaren gainbeheraren errudun Lutero, Descartes eta Kant jartzen ditu. Eta Pentsalari hauekin eskolastikaren oinarriak ziren “graziaren”, “ulermenaren” eta “borondatearen” oinarrizko esanahiak desnaturalizatu egin direnaren ustea izango du. Puntu honetan ez dugu gehiegi sakonduko. Hori dela eta, Luteroren kritikari bakarrik erreparatuko diogu. Izan ere, Kierkegaarden eta Unamunoren pentsamenduan erabateko eragina izan zuen protestantismoak.

Puntu hau argitu ondoren eta Fulton J. Sheen-en planteamendua kontutan hartzen badugu, esan dezakegu, eskolastikaren haustura batik bat Erreformarekin eman zela.

Gaur egungo erlijioa erabat espekulatiboa da, ez da praktikara eramaten eta “arrazoi hutsarekin” “arrazoi praktikoarekin” baino gehiago erlazionatzen da. Xedea, hortaz, “kontzientzia desorientatuari edo galduari” konponbide bat ematea izango da. Gizakia lehendabizi bizi, existitu, egiten da eta gero, doktrina ezberdinak bere bizimoduaren arabera egokitzen ditu. Horregatik, erlijioaren aldaketa berri eta iraultzaile hauek, ordura arte tradizionalak izan diren kontzeptu garrantzitsuenen galera bultzatuko dute.

⁵⁹⁷ Ibid., 157 or.

⁵⁹⁸ Ibid., 156-167 orr.

Horrela, bada, “Jainko” eta “erlijio” hitzek gaur egun ere erabilpena izan arren, esanahi ezberdina izango dute.

Antzinaroko eskolaren metodologia Jainkoaren ideiatik abiatzen zen eta ondoren ondorioztatzen zen zer zen erlijioa. Gaur egungo erlijioak, aldiz, erlijiotik hasi eta hemendik ondorioztatzen du zer den Jainkoaren ideia. Hortaz, Bi eskolek mintzaira ezberdina darabilte.

Erljioaren ikerketa zientifikoak azkeneko lau mendeetan, hots, XVI. mendetik aurrera, aldaketa handiak pairatu ditu. Aldaketa hauetan, neurri handi baten, arazoa bideratzeko modu modernoek eta ikerketarako erabiltzen diren metodo esperimentalek zeresan handia izan dute. Alta, mendeak aurrera egin ala joera hau areagotuz joan da. XVI. mendeak “eliza berria” exijitzen zuen, XVII. mendeak, bestalde, “kristo berri bat”, XIX. mendeak “Jainko berri bat” eta XX. Mendeak, azkenik, “erlijio berri” bat.

Eskaera hauen ondorioz eta “aurrerapenaren”, “zientziaren” eta “askatasunaren” izenean, Eliza sekta bat izatera pasa da. Kristo, halaber, “moralaren irakasle” gisa kontsideratua eta Jainkoa gauzen jarrera idealen sinbolo gisa hartua. Erljioa, aitzitik, unibertsoarekiko jarrera lagunkoi moduan kontzebitzera pasako da. Erljioaren ikusmolde berri hau, hortaz, aurrekoarekin alderatuz, oso bestelako izango da: bere oinordetzan ezeztapen batzuk izango ditu eta gizakiaren gorespenarekiko itxaropen sutsua izango du oinarriztat eta ez Jainkoa.

Guzti honek erlijio berriaren ideia bulkatu du. Horretarako, beharrezkoa izan da teologia berriaren baitan txertatu nahi diren formula zientifiko berriak bultzatzea eta tradizionala eta dogmatikoa den orenen bazterketa ematea. Horrela, bada, aurreko puntuan aztertuko ditugun XX. mendeko gertakari zientifikoek zeresan handia izango dute Jainkoaren kontzeptuaren berriztatze honetan. Gaur egungo erlijioa, hortaz, Jainkoaren ideia berriztatu beharrean aurkituko da.

Zer da ordea erlijio berri hau? Erljioa berri hau, laburtuz, Jainkorik gabeko erlijioa izango da. Hau da, tradizionalki ulertzen zen Jainkoaren ukoa. Erljioak XX. mendeko filosofoen eta teologoaren arabera ez du Jainkoa objektu izango, gizakia baino.

«Primero es el hombre y no Dios», dice uno de los vulgarizadores de la nueva idea; «es como si Dios solamente, y no el hombre, pudiera parecer objeto de sugerencias o de prueba. Sobre todo, es Dios el que es revelado por el hombre, y no el hombre por Dios. Nuestra revelación es desde la tierra al cielo, desde el suelo a Dios, y no viceversa, como se creía antiguamente». «La interpretación científica de los fenómenos naturales», dice otro autor, «ha hecho que sea más remoto el interés en Dios; la existencia de Dios, más problemática, y, la misma idea de Dios, no necesaria. Las matemáticas y la física han hecho de cada día más difícil hallar lugar para Dios en nuestras coordinaciones y construcciones del universo; y la necesidad de poner una primera causa o de concebir un ordenador (que parecía obvio, *prima facie*, a las generaciones precientíficas), no existe para nosotros».⁵⁹⁹

Erlijio berri honetan “Jainko” hitza oraindik atxiki daiteke zerbait izango da, zentzu ezberdin batean ulertuta ordea.

Erlijioaren ideia “modernoaz” edota “garaikideaz” hitz egiten dugunean, bestalde, argi utzi behar da ez dugula zentzu kronologikoan esaten, hots, ez du garai edo aro konkretu bati erreferentzia egiten. Gaur egungo pentsamenduaren espirituarekin bat egiten duen jarrera gisa definitzen da beraz. Horrela, bada, zientzia orok bezala, objektu bikoitza izango du erlijioak: alde batetik, objektu materiala. Hau da, ikertzen duen objektua; eta bestetik, ikerketa hau burutzeko erabiltzen duen ikuspuntua.

6.1.2.1. Erlijio modernoaren objektu materiala.

Orain, Jainkoa Izaki Gorena eta Perfektu moduan ulertuta, erlijioaren baitan ez da beharrezko objektua izango. Enuntziatu honek, hortaz, erlijio modernoaren alderdi berriztatzailea bistaratzen digu eta, aldi berean, erlijio tradizionalarenganako erreakzioa irudikatzen. Horrek ez du esanahi, ordea, gaur egungo erlijioan Jainko hitza erabiltzen ez denik. Izan ere, maiz erabiltzen den terminoa da, baina ez da pentsamendu tradizionalaren Izaki Gorena izendatzeko erabiliko.

Puntu honetara iritsita, honako galdera hau egiten dugu: zein da Jainkoaren kontzeptu tradizionala? Izaki Gorena eta Perfektuaren kontzeptua al da? Gauza guztien Alfa eta Omega al da? Alfa dela esaten da bera gabe ezerk ezin duelako aurrera egin, hots, bera gabe ezin du ezerk eboluzionatua izan. Beste aldetik, Omega dela ere esaten da bera delako gauza bat eboluzionatua izatearen zergaitia edo kausa.

⁵⁹⁹ Sheen, Fulton J., *Religión sin Dios* / Barcelona: Editorial Planeta, 1956 (2.edizioa 1958), 18-19 orr.

Jainkoa, bestenaz, “perfektua” da bere “batasunaren propietate transzendentalarekin” “izate osoa” delako. “Egia” eta “ontasuna” ere izango da, baina ez estatikoa. Izan ere, bizitza bera da. Ez dinamikoa, perfektua baita. Eboluziogaitza, eboluzioaren arrazoia eta ulergarritasuna delako. “Bere baitan” gauzatzen da gainera, eta gainontzeko gauza guztiak berarengandik at ezin dute ezer ere izan. Izateko gaitasuna izango dute bai, baina Izate Gorenaren menpe egongo dira. Horrela, bada, menpekotasun hau izango da, erlijio tradizionalaren arabera, erlijio ororen oinarria.

Gaur egungo erlijio ikuskeraren arabera, ordea, Jainkoaren kontzeptu tradizionala hiru eremu ezberdinetan laburtzen dira: filosofikoa, psikologikoa eta soziologikoa. Atal honi dagokionez filosofiaren eremuaren azterketari emango diogu garrantzi handiena, zeren eta Txillardegiren erlijioaren ikuspegia aztertzerako orduan argitasun gehien eskainiko digun eremua izango baita.

6.1.2.2. Erlijioaren objektu tradizionalaren uko filosofikoa.

Gaur egungo pentsamendu filosofikoa, azkeneko hiru mendeetan, indarrean egon den kartesiar tradizioetik bereizten joango da. Ez du galdetzen zein izango den benetako soluzioa, hots, enpiria edota transzendentzia. Gaur egun galdetzen duguna zera da: hori al da benetako arazoa?

Filosofia modernoa zientzia faltsu baten gainean eraiki izan da, hots, XVII. mendeko zientziaren gainean. Horrenbestez, zientzia hau uzteak zientzia honen gainean eraiki zen filosofia (eta erlijioa) bertan behera uztea suposatzen du.

Los así llamados sólidos fundamentos de la ciencia, sobre los que el último siglo construyó su anti-religión, puede ser en definitiva nada más que una débil torre de papel. «Los fundamentos sólidos de la física han sido hechos pedazos; por primera vez la Fisiología reconoce que no es sino un útil amasijo de conocimientos distintos del mismo montón de ruinas. Los antiguos fundamentos del pensamiento científico empiezan a ser ininteligibles. Tiempo, espacio, material, materia, éter, electricidad, mecanismo, organismo, configuración, estructura, modelo, función, todo necesita una interpretación nueva»⁶⁰⁰

Ukaezina da unibertsoaren ikuspegi zientifikoan aldaketa handiak sortzen ari direla, baina nahiz eta ideia hauek benetakoak diren ala ez oraindik ezin diren baieztatuak izan, ezin duguna errefusatu zera da: aurreko fisikarekin talka egiten dutela. Horrela, bada,

⁶⁰⁰ Ibid., 33 or.

testuinguru berri honek filosofia berri baten beharra azpimarratzeaz gain, erlijio berri bat ere eskatuko du, non zientziaren gizatiartzearekin batera, erlijioaren gizatiartzea ere emango den. Horrela, bada, lehen Jainkoak betetzen zuen tokia, orain gizakiak beteko du.

Fulton J. Sheen-ek honako hau esaten digu puntu honi buruz:

La nueva escuela nos dice que toda la tradición de la Filosofía moderna ha sido edificada sobre la Física de Newton. Puede ésta haber tenido una cabeza de oro, pero sus pies son de arcilla y la roca de la Física nueva desgajada del monte de Einstein y la relatividad, pronto o tarde, la reducirá a polvo. Ha llegado el tiempo para una Filosofía nueva del universo.⁶⁰¹

6.1.2.3. Erlijioaren gizatiartzearen abiagunea Erreforma protestantea.

Newton-ek lege fisikoaren inguruko formulak munduari ezagutzera eman zizkionean, eta Galileo-k bere aurkikunde astronomikoak argitara eman zituenean, aurkako jarrerak izan zituzten. Pentsamendu filosofikoei dagozkionez ere antzeko zerbaite gertatu da.

Hori dela eta, orain azalduko ditugun kontzeptu espiritualak, erlijioari eta filosofiari dagozkion oinarrizko kontzeptu espiritualak izango dira. Hala, Fulton J. Sheen-ek hiru kontzeptu azpimarratuko ditu filosofiaren oinarrizko kontzeptu espiritual moduan: “grazia” edo “dohaina”, “adimena” eta “borondatea”.

“Grazia” Jainkoaren bizitza intimoaren partizipazioa izango da. “Adimena” eta “borondatea”, aitzitik, Jainkoaren bizitzaren parekotasunak izango dira. Hargatik, gu Jainkoarekiko irudiko gara “adimena” eta “borondatea” dugulako eta animaliekiko pareko gara gorputza dugulako. Fulton J. Sheen-en arabera, errealitate espiritual hauek, kristautasunaren lehen aroko pentsalariengandik hasi eta gaur egunera arte iraun duten arren, jaso duten erabilera askotarikoak izan dira. Dena den, esan dezakegu gizakiaren bizitza filosofikoa eta erlijiosoa hiru elementu hauen inguruan garatuak izan direla.

Los pelagianos y San Agustín, en los primeros tiempos; los fundamentalistas y los modernistas, en nuestros días, no han podido entenderse referente a la naturaleza de la gracia. Los discípulos de Bergson y los de Santo Tomás tienen un concepto diferente de la inteligencia, así como Fouillé y Nietzsche nos han dado unas concepciones completamente diversas de la voluntad.⁶⁰²

⁶⁰¹ Ibid., 35 or.

⁶⁰² Ibid., 91 or.

Gauzak honela, beharrezkoa izango da kontzeptu espiritual hauen esanahi finko bat izatea. "Patroi" bat alegia. Fulton J. Sheen *philosophia perennis*⁶⁰³-en oinarrituko da. Irizpide honekin ados egon gaitzke edo ez, argi daukaguna, ordea, zera da: Fulton J. Sheen-en planteamenduaren oinarrian zer dagoen.

Hortaz, helburua zein izango da? Fulton J. Sheen-en asmoa hiru elementu hauen jatorrizko ideiak argitzearekin batera, kontzeptu hauek izan duten bilakaera azaltzea izango da. Baina guzti honek zer nolako lotura du Txillardegirekin (eta Leturiarekin)? Orain ikusiko dugun moduan, Fulton J. Sheen-ek pentsamendu eskolastikoaren baitan oinarritzotzat hartzen dituen hiru elementuen bilakaerak azaltzearekin batera, gaur egungo erlijioen indarrean dauden joera ezberdinak ulergarriak suertatzen direnaren ustea izango du.

Fulton J. Sheen eskolastikaren aldekoa da eta Txillardegi liburu honi buruz egin zuen iruzkinean ikusi dugun moduan, eskolastikaren aurka altxatuko da. Fulton J. Sheen-ek azaltzen dizkigun hiru kontzeptu hauen bilakaeran, ordea, bada aldi bat, eskolastikaren oinarrien haustura nola izan zen azaleratzen diguna. Haustura hauek, Fulton J. Sheen-en arabera beti ere, Luteroren, Descartes-en eta Kanten eskutik emanak izan dira. Puntu hau izango da Txillardegiren erlijioaren ikuspegiarekin lotura gunea. *Leturiaren egunkari ezkutua* aztertu dugunean argi geratu da Leturiaren erlijioaren ideian Unamunoren eragina erabateko izan dela. Unamunoren erlijioaren ideia aztertu dugunean, bestalde, protestantismoaren eraginaren garrantzia azpimarratu dugu, batez ere, Harnack-ek⁶⁰⁴ eta

⁶⁰³ la noción de **filosofía perenne** (en latín, *philosophia perennis*) sugiere la existencia de un conjunto universal de verdades y valores comunes a todos los pueblos y culturas. El término fue usado en primer lugar en el siglo XVI por Agustino Steuco en su libro titulado: *De perenni philosophia libri X* (1540), en el que la filosofía escolástica es vista como el pináculo de la sabiduría cristiana a la cual todas las demás corrientes filosóficas apuntan de una manera u otra. La idea fue posteriormente asumida por el filósofo y matemático alemán Gottfried Leibniz, quien la usó para designar la filosofía común y eterna que subyace tras todas las religiones y, en particular, tras las corrientes místicas dentro de ellas. Este término fue popularizado de forma más reciente por Aldous Huxley en su libro de 1945: *La Filosofía Perenne*. La expresión "filosofía perenne" también se ha usado como una traslación del concepto hindú de Sanatana Dharma, la "verdad o norma eterna e inmutable". https://es.wikipedia.org/wiki/Filosof%C3%ADa_perenne
Azkenengo aldiz urriaren 12an kontsultatua.

⁶⁰⁴ **Adolf von Harnack** (Dorpat, Errusiar Inperioa, gaur egun Estonia, 1851ko maiatzaren 7a Heidelberg, Alemania, 1930eko ekainaren 10a) teologo luterano eta kristautasunaren historialari alemaniarra izan zen. Luteranismo liberal eta arrazionalistak eman duen pentsalari nagusietako bat izan da. Leipzigen (1874), Marburgen (1886) eta Berlinen (1888) irakasle izan zen. Elizaren antzinako historia eta haren inguruko testuen kritika ditu gai nagusiak. Obra batzuk: *Lehrbuch der Dogmengeschichte* (1886-1889, *Dogmen historia testuliburua*); *Geschichte der altchristlichen Literatur bis Eusebius* (1893-1904, *Antzinako*

Ritschl-ek defendatzen zuten pietismoarenak (eta, nola ez, Kierkegardek ere). Harnack, bereziki, kristau dogmen aurka altxatuko da eta aurrerago ikusiko dugun moduan, erlijioaren baitan gizabanakoak izango duen presentzia azpimarratuko du.

Aspektu hau izango da Unamunorengan eta Txillardegirengan eragina izango dutena. Unamuno eta Txillardegi katolizismoan hezitako pentsalariak izan arren, Elizaren dogmatikotasunaren aurka altxatuko dira eta gizakiaren immanentismoaren garrantzia azpimarratuko dute. Hori dela eta, bai Unamunok, bai Txillardegik, Harnack-en pentsamenduan, eta orokorrean protestantismo liberalean, aurkituko dituzte bidai lagun paregabeak. Goazen bada aztertzeraz zer dioen Fulton J. Sheen-ek Luterori buruz.

Fulton J. Sheen-en arabera transzendentziaren ukoa eta immanentismoaren baieztapena erlijioaren hiru errealitateei, hots, “graziari”, “adimenari” eta “borondateari” aplikatuak izango dira.⁶⁰⁵

Fulton J. Sheen arabera, hiru gradu hauei giza pentsamenduaren hiru aro nagusi egokitzen zaizkie. Hau da, Erreforma, Arrazionalismoa eta Erromantizismoa.

Puntu honi dagokionez, eremu bakarra aztertuko dugu. “Graziaren” transzendentaltasunaren ukoan oinarritzen den Erreformari dagokiona alegia. Izan re, Erreformaren fruitua izango den “indibidualismoaren filosofiak” presentzia handia izango du Txillardegirengan, Kierkegaardengan eta Unamunorengan.

Baina nondik dator “graziaren” ideia? “Graziaren ideia” Erdi Arokoan indarrean zegoen Jainkoaren ideiatik eratortzen da. Erdi Aroan, Jainkoa errukitsua agertzen zaigu eta Jainkoak gizakiari jatorrizko bekatutik babesteko “grazia” eman ziola uste izan zen. Gizakiak, ordea, opari honen truke baldintzarik gabeko maitasuna eskainiko dio Jainkoari.

kristau literaturaren historia Eusebio arte); *Das Wesen des Christentums* (1900, *Kristautasunaren izatea*). Harnackentzat funtsezkoena Jainkoaganako jaiera da, eta kristauak dogma kritikatzeko eskubidea du, Ebanjelioaren interpretazioa besterik ez den dogma hori, haren ustez, pentsamenduaren garai jakin bati lotua baitago. In: https://eu.wikipedia.org/wiki/Adolf_von_Harnack

⁶⁰⁵Sheen, Fulton J., *Religión sin Dios* / Barcelona: Editorial Planeta, 1956 (2.edizioa 1958), 99 or.

Halaber, XVI. mendea baino lehen naturaz gaindiko erasoen eta liskarren objektua izan zen “grazia”. 1311 urtean, Vienako kontzilioak begardoen eta beginoen aurka, “naturaz gaindikoa” defendatu behar izan zuten. Izan ere, begardoentzat eta beginoentzat izaera intelektual orok bere zorientasuna edo dohatsutasuna bere baitan zuten eta, ondorioz, beatifikotasunari zegokionez ez zuten gloriaren edo loriaren beharrik.

Beranduago, Juan XXII -ren pontifikatuan, Juan Echart-en proposizio batzuk gaitzetsiak izan ziren. Hala, zentzu panteista zuten proposizio hauen arabera, naturala zena naturaz gaindikoaren alde baztertua izango zen. Gertakari honek, aitizitik, ez zuen gizakiaren berezko izaeraren edo “graziaren” eta naturaz gaindikoaren arteko erabateko zatiketa ekarri. Erreforma izango da zatiketa honen arduradun nagusia. Hau da, Luteroren pentsamendua.

Bi izango dira Fulton J. Sheen-en arabera, Luteroren doktrinaren ideia nagusienak diren “graziaren” eta gizakiaren berezko izaeraren arteko erlazioaren hausturaren oinarriak: aurrena, gizakiaren berezko izaeraren galtze edo hondatze esentziala; eta bestea, eskolatikoen nominalismoaren gainbehera. Kasu honetan, gizakiaren berezko izaeraren galtze edo hondatze esentzialaren azterketan sakonduko dugu, puntu hau izango baita espainiar katolizismoarentzat puntu gatazkatsuenetako bat.

6.1.2.3.1. Gizakiaren berezko izaeraren baitan “graziaren” galtze edo hondatze esentziala.

Ez dago argi, Lutero gizakiaren berezko izaeraren baitan “graziaren” galtze edo hondatze esentziala planteatzera, haragikeriaren aurrean ezintasunak edota ekintza onak burutzeko gaitasun ezaren uste osoak bultzatu zuen ala ez.

Egia da, 1514an Lutero oraindik ere jatorrizko bekatuaren ideari eusten ziola eta, ez hori bakarrik, gizakiaren “askatasuna” bere pasioen aurrean defendatzen zuen Lutero. “Erromatarrei idatzitako gutunaren” iruzkinean, aldiz, askatasuna apur bat sakrifikatzen hasiko da, baina oraindik ere ziur dago otoitza garaile irtengo dela. Hala, bere sermoi gehienetan haragikeria gainditzeko biderik hoberena otoitza dela esango digu.

1515an, ordea, gaizkiarengan haragikeria eta bekatuak menderaezinak direla modu argian baieztatu du Lutero. Haragikeria menderaezina izango da hortaz, eta gizakiaren berezko izaera intrintsekoki galbideratua dela esatearen sinonimoa izango da. “Graziak”, bataioak eta penitentziek, aitzitik, ez dute gizakiaren berezko izaeraren galbide esentzian eraginik izango, ez dute “salbazioa” bermatuko. Hori dela eta, Lutero eskolastikoei “graziaren” bidez jatorrizko bekatua gizaki bakoitzarengan ezabatua geratzen denaren ideia modu arbitrarioan baieztatu zutela aurpegiratu die. Bekatuak, beraz, absoluzioa eta gero ere gizaki espiritualetan iraungo du eta “grazia” bizitzan trebatua izateko emana izan dela esango digu. Hau da, gizakiaren harrotasunaren apalkuntza emateko.

«El pecado, por lo tanto (escribe), todavía perdura en el hombre espiritual para ejercitarle en la vida de la gracia, para humillación de su orgullo... Nosotros debemos siempre estar en guerra con nuestros deseos, que son culpables; son realmente pecados y nos hacen dignos de la condenación» .⁶⁰⁶

Horrela, bada, “graziak”, absoluzioak eta bataioak ez badute eraginik arimarengan. Hala, ekintza onek ez gaituzte “pertsona hobegoak” egingo.

«Las obras no nos hacen buenos, pero nuestra bondad, o mejor dicho, la bondad de Dios, nos hace buenos y hace buenas nuestras obras, que en sí mismas no serían buenas, y ellas, por lo mismo, son buenas o no lo son a medida que Dios las recibe o no las recibe como buenas» .⁶⁰⁷

Gizakia, beraz, esentzialki bekataria da eta bekatua eta “grazia” izakiaren baitan dauden bi elementu dira. Izan ere, gizakiaren berezko izaera esentzialki bekataria da eta “grazia” makurkeri horren estalgarria besterik ez da izango. Hortaz, bertutea eta bizioa gizakiaren baitan aldi berean existitzen diren bi elementu izango dira. Puntu honi dagokionez, Fulton J. Sheen-ek honela laburtzen ditu gizakiaren berezko izaerari dagozkion irakaskuntzak:

Las enseñanzas de Lutero referentes a la naturaleza humana pueden ser resumidas en las siguientes proposiciones:

1. - La justicia original en el Paraíso terrenal era el estado natural del hombre. Lo que el pensamiento tradicional llamó dones fueron «tan naturales para el hombre como lo es recibir la luz en sus ojos».
2. - Luego cuando el hombre perdió esos dones por su caída, perdió lo que era natural para él y para siempre pasó a ser «desnaturalizado», por decirlo así, en el sentido de que su naturaleza empezó a ser intrínseca y esencialmente viciada y corrompida.
- 3.- La concupiscencia, que es la inclinación al pecado y es «invencible», es lo mismo que el pecado original.

⁶⁰⁶ Ibid., 103 or.

⁶⁰⁷ Idem.

4. - La concupiscencia continúa durante toda la vida, lo mismo que el pecado original. La gracia, el bautismo, la penitencia, de ninguna manera afectan nuestra corrupción intrínseca.

Luego todos los actos que proceden de nuestra naturaleza son pecaminosos, porque nuestra naturaleza es pecaminosa. «Nosotros todos somos una masa perdida».⁶⁰⁸


Espainiar katolikoengan, pentsa dezagun bezala, protestantismoaren aspektu hau ez da oso ongi ikusia izango. Honen adibide dugu eliztar aldizkariaren honako ale hau, 1874ko maiatzaren 7an Madrilén argitara eman zena (5. irudia)⁶⁰⁹:

⁶⁰⁸ Ibid., 104 or.

⁶⁰⁹ <http://hemerotecadigital.bne.es/pdf.raw?query=id:0004940416&lang=en&log=00000000-00000-00001/> Azkeneko aldiz 2015ko irailaren 18an kontsultatua.

NÚM. 22.

Madrid 7 de Mayo de 1874



EL CONSULTOR DE LOS PÁRROCOS.

REVISTA DE CIENCIAS ECLESIASTICAS.

Periódico semanal; se publica los jueves.—Al año se forma un volumen de 512 páginas con índices.

Consulta gratis para los suscritores, sobre las materias objeto de esta Revista.

PRECIO DE LA SUSCRICION. Por un año, pagándolo en el primer trimestre, 44 rs.; semestre, 24; y trimestre, 12.—Estos precios son en la administración del periódico, Carretas, 12, 2.ª Madrid.

SUMARIO.

SECCION DE TEOLOGÍA DOGMÁTICA.

Lo que es la teología protestante. Artículo de un periódico protestante acerca de la doctrina de la salvación.—Sostiene que el hombre se salva solo por la fe, sin necesidad de las buenas obras.—Se examinan los textos del Antiguo y Nuevo Testamento alegados por el periódico protestante.—Se hace ver que no dicen lo que el protestantismo supone.—Textos de la Sagrada Escritura con los cuales se demuestra la doctrina católica acerca de la necesidad de la fe y las buenas obras.

SECCION DE TEOLOGÍA MORAL Y MÍSTICA.

Casos de conciencia. I. El quinto que valiéndose de reprobados medios se libra del servicio militar, ¿tendrá obligación de restituir al que se ve obligado a sustituirle?—Y si tiene obligación de restituir, ¿a quién ó a quienes deberá hacer la restitución?—Y, ¿cómo ó con qué precauciones ha de restituir?—Y si el penitente no sabe que está obligado a restituir, ¿deberá advertírselo el Confesor?

Noticias de interés general. Suicidios cometidos en Palencia.—Atentado cometido contra el Cura párroco de Batna, en la Argelia.—Asesinato de un ministro protestante en Méjico.—Lo que dicen acerca de este homicidio los protestantes.—Se rectifican sus exageraciones y se rechazan sus calumnias.—Conducta del Gobierno mejicano.—Lo que es la francmasonería.—Causa de la apostasía de Doellinger.

SECCION DE TEOLOGÍA DOGMÁTICA.

LO QUE ES LA TEOLOGÍA PROTESTANTE.

I.

Un periódico protestante, *La Luz*, en el núm. 146, correspondiente al 15 de Abril de 1874, en un artículo cuyo epígrafe es: *La doctrina de la salvación*, expone algunas consideraciones que necesitamos examinar y refutar. Y vamos á hacerlo, no porque los argumentos que se presentan sean nuevos, sino porque conviene que así se haga para que hasta el vulgo se convenza de lo que es el protestantismo. Es una secta que, para ser aborrecida, solo necesita ser bien conocida, y para que sea bien conocida, lo mejor es dejarla que por sí misma se pinte.

El periódico citado, en el artículo que vamos á impugnar, se propone hacer ver que «la fe en Jesucristo es la *única* condición para ser salvo; que la fe en Cristo es el *único* medio de salvación para el hombre; que, en fin, la justificación se consigue por *sola* la fe.»

Esto equivale á decir que el hombre que cree en Jesucristo, se salva, y aun tiene segura su salvación por sola esta fe, aunque sea un perjuro, un adúltero, un facineroso, un asesino y un parricida. Según esta tan

absurda como impía doctrina, con tal que haya fe, no hay ni puede haber diferencia entre el justo, que vive haciendo el bien, y el malvado, que pasa su vida manchando su alma con los más abominables crímenes. ¡Qué doctrina tan horrorosa! Y, ¡que tenga el protestantismo la satánica osadía de intentar seducir á las gentes incautas asegurándoles que esta es la verdadera doctrina de Cristo! ¡Verdadera doctrina de Cristo, cuando no tiene otro objeto que el hacer creer á los pueblos que pueden salvarse intringiendo y aun despreciando la ley de Dios! Porque si el hombre se salva *por sola la fe en Cristo*, ¿qué necesidad tiene de hacer sacrificios, ó sea de mortificarse para observar la ley divina?

Añádase á esto que el protestantismo niega la necesidad y aun el mérito de las buenas obras. Según la farisaica doctrina de la secta protestante, el hombre que cree, se salva, aunque no haga buenas obras, y si las hace, de nada le sirven, porque no tiene ningun mérito ante Dios. De modo que, al decir de esta execrable secta, los malos se salvan porque *la fe sola* justifica, y los buenos no tienen mayor gloria por ser buenos, porque como todo el mérito, absolutamente todo, es de Jesucristo, las buenas obras no añaden al que se salva ni aun el más infimo grado de gloria. ¿No es esto decir á los malos que no tienen necesidad ninguna de dejar de ser malos? ¿No equivale esto tambien á decir á los buenos que de nada les sirve el ser buenos ó que son por lo ménos inútiles los sacrificios que hacen para llenarse de virtudes? ¡Cuán cierto es que el protestantismo no es ni más ni ménos que el materialismo enmascarado!

Y cuenta que cuando la secta protestante dice que los creyentes, aunque sean monstruos de corrupción y perversidad, se salvan, no es porque suponga que hacen penitencia. Todo lo contrario. El protestantismo niega por completo el valor ó eficacia de la penitencia. Según una de las máximas fundamentales del protestantismo, la justificación que solo se consigue por la fe, no depende en nada, ni aun como mera condición, de la recepción de sacramentos, de la penitencia, ó sea de las buenas obras. Así es que, según esta tan espantosa doctrina, el criminal se salva, aun sin necesidad de arrepentirse de su crimen. ¡El mismo Júdas, que no dejó de creer en Jesucristo, se salva, no obstante su tan sacrilega traición! Basta con esta sola indicación para que toda persona de buen sentido rechace hasta con horror la farisaica doctrina protestante.

Pero aún hay más. El protestantismo comete el doble crimen de inculcar el materialismo, y de inculcarlo cubriéndolo con el velo del Evangelio. ¡Qué profanación! Empeñarse en aducir textos del Evangelio para añadir á los incautos, haciéndoles creer que los inmundos errores de los materialistas son la misma revelación de Dios!

Para que se vea, pues, lo que es la hipocresía de la secta protestante, fijemos la atención en los *argumentos* que emplea para demostrar que el hombre puede salvarse con solo creer en Jesucristo y sin necesidad de observar la ley divina.

(...) Un periódico protestante, *La Luz*, en el núm. 146, correspondiente al 15 de Abril de 1874, en un artículo cuyo epígrafe es: *La doctrina de la salvación*, expone algunas consideraciones que necesitamos examinar y refutar. Y vamos á hacerlo, no porque los argumentos que se presentan sean nuevos, sino porque conviene que así se haga para que hasta el vulgo se convenza de lo que es el protestantismo. Es una secta que, para ser aborrecida, solo necesita ser bien conocida, y para que sea bien conocida, lo mejor es dejarla que por sí misma se pinte.

El periódico citado, en el artículo que vamos á impugnar, se propone hacer ver que «la fe en Jesucristo es la *única* condición para ser salvo; que la fe en Cristo es el *único* medio de salvación para el hombre; que, en fin, la justificación se consigue por *sola* la fe.»

Esto equivale á decir que el hombre que cree en Jesucristo, .se salva, y áun tiene segura su salvación por sola esta fe, aunque sea un perjuro, un adúltero, un facineroso, un asesino y un parricida. Según esta tan absurda como impía doctrina, con tal que haya fe, no hay ni puede haber diferencia entre el justo, que vive haciendo el bien, y el malvado, que pasa su vida manchando su alma con los más abominables crímenes.

¡Qué doctrina tan horrorosa! Y, ¡que tenga el protestantismo la satánica osadía de intentar seducir á las gentes incautas asegurándoles que esta es la verdadera doctrina de Cristo! ¡Verdadera doctrina de Cristo, cuando no tiene otro objeto que el hacer creer á los pueblos que pueden salvarse infringiendo y áun despreciando la ley de Dios! Porque si el hombre se salva *-por sola la fe en Cristo*, ¿qué necesidad tiene de hacer sacrificios, ó sea de mortificarse para observar la ley divina?

Añádase á esto que el protestantismo niega la necesidad y aun el mérito de las buenas obras. Según la farisaica doctrina de la secta protestante, el hombre que cree, se salva, aunque no haga buenas obras, y si las hace, de nada le sirven, porque no tiene ningún mérito ante Dios. De modo que, al decir de esta execrable secta, los malos se salvan porque *la fe sola* justifica, y los buenos no tienen mayor gloria por ser buenos, porque como todo el mérito, absolutamente todo, es de Jesucristo, las buenas obras no añaden al que se salva ni aun el más ínfimo grado de gloria. ¿No es esto decir á los m a los que no tienen necesidad ninguna de dejar de ser malos?

¿No equivale esto también á decir á los buenos que de nada les sirve el ser buenos ó que son por lo menos inútiles los sacrificios que hacen para llenarse de virtudes? ¡Cuan cierto es que el protestantismo no es ni más ni menos que el materialismo enmascarado!

Y cuenta que cuando la secta protestante dice que los creyentes, aunque sean monstruos de corrupción y perversidad, se salvan, no es porque suponga que hacen penitencia. Todo lo contrario. Él protestantismo niega por completo el valor ó eficacia de la penitencia. Según una de las máximas fundamentales del protestantismo, la justificación que solo se consigue por la fe, no depende en nada, ni aun como mera condición, de la recepción de sacramentos, de la penitencia, ó sea de las buenas obras. Así es que, según esta tan espantosa doctrina, el criminal se salva, aun sin necesidad de arrepentirse de su crimen. ¡El mismo Judas, que no dejó de creer en Jesucristo, se salva, no obstante su tan sacrílega traición! Basta con esta sola indicación para que toda persona de buen sentido rechace hasta con horror la farisaica doctrina protestante (...).

Ikusi dugun bezala, protestantismoarentzat gizakiaren berezko izaera izatez bekatuzkoa da eta “ekintza onak” burutzeak, aitzitik, ez digu “salbazioa” bermatzen. Horrela, bada, gizakiak azkenengo unera arte ez du jakingo “salbatua” izango den ala ez. Garrantzitsuena, hortaz, Kierkegaardengan eta Unamunorengan ikusi dugun moduan, fedea izango da. Hori dela eta, ikuspegi honen ondorio handiena gizakiaren berezko izaeraren eta “graziaren” arteko bereizketa izango da; zeren eta “graziak” gizakiaren berezko izaerari ez baitio perfekzioa bermatzen. Hori dela medio, gertakari honek bi garapen izango ditu: lehena, gizakiaren berezko izaerari garrantzi handiagoa emango dion korrante arrazionalista; eta bestea, “grazia” ardatz izango duen korrante immanentista.

6.1.2.3.1.1. korrante arrazionalista.

Sociniarrek⁶¹⁰ eta arminioarrek⁶¹¹ Luteroren printzipioetan oinarriturik korrante arrazionalista garatu zuten. Hortaz, sociniarrek “egi erlijiosoaren” azterketa egiterako orduan arazoia izango dute ardatz. Halaber, Eskritura Santuak Jainkoaren hitz

⁶¹⁰ El *socinianismo* es una doctrina cristiana, considerada herética por las iglesias mayoritarias, difundida por el pensador y reformador italiano Fausto Socino, aunque al parecer se inspiró en las ideas ya formuladas por su tío Lelio Socino.

La doctrina sociniana es antitrinitaria y considera que en Dios hay una única persona y que Jesús de Nazaret no existía antes de su nacimiento, aunque nacido milagrosamente de la Virgen María por voluntad divina. La misión de Jesús en la tierra fue transmitir la voluntad del Padre tal como le había sido revelada, y tras su crucifixión fue resucitado por Dios y elevado a los cielos, donde adquirió la inmortalidad y desde donde reina sobre el mundo desde entonces. Los que crean en él y en el Dios de la revelación cristiana también disfrutarán de una vida inmortal, mientras que los incrédulos y pecadores no irán al infierno (que no existe según la doctrina de Socino), sino que simplemente sus almas se extinguirán tras la muerte del cuerpo físico. Por tanto, la salvación consiste en la inmortalidad y es concedida directamente por la Gracia divina a los que creen. El socinianismo defiende también una interpretación racionalista de la Biblia y los Evangelios y la capacidad del creyente de discernir la verdad por sí mismo. La doctrina sociniana, tal como se implantó en la Polonia de finales del siglo XVI y primera mitad del XVII, fue expuesta de manera detallada en el Catecismo Racoviano (1609). <https://es.wikipedia.org/wiki/Socinianismo> azkenengo adiz, 2015ko irailaren 3an kontsultatua.

⁶¹¹ El *arminianismo* es una doctrina teológica cristiana fundada por Jacobo Arminio en la Holanda de comienzos del siglo XVII, a partir de la impugnación del dogma calvinista de la doble predestinación. Sustenta la salvación en la cooperación del hombre con la gracia divina a través de la fe. Frente al concepto calvinista de predestinación (o “elección”) incondicional, el arminianismo enseña que la predestinación se ha basado en la presciencia de Dios, quien tiene el conocimiento previo de quién creará y quién no creará en Cristo; la voluntad del hombre, por asistencia divina, es hecha libre para crear o rechazar a Cristo. Después de la muerte de Arminio (en 1609), sus principios se formularon en el manifiesto de cinco puntos *Remonstrans*, publicado en 1610 (por lo que sus seguidores también pasaron a denominarse “remonstrantes”). <https://es.wikipedia.org/wiki/Arminianismo> azkenengo aldiz, 2015ko irailaren 3an kontsultatua.

“errebelatuak” zirenez gero, arrazoiaren bidez interpretatuak izan behar zirenaren ustea zuten. Arrazoa izango da, hortaz, gizakiak “errebelazio jainkotiarra” ezagutu, jaso eta ulertzeko erabiliko duten tresna; eta, hala, doktrina erlijiosoarekin erlazionatua dauden axioma unibertsal eta ideia komunak (axiomata universalis atque communes notiones) arrazoiaren bidez eutsiak izango dira.

Socinianismoak, ordea, ez zuen denbora asko iraun, Poloniako egoera politikoak bere gainbehera bultzatu baitzuen. Juan Biddle-ren eskutik (1622), ordea, Ingalaterran hedatzen joan zen. Alemanian ere, Ernst Soner-i esker (1612) socinianismoa zabaltzen joan zen. 1599 urtean, aldiz, Holandan sociniarren idatziak debekatuak izan ziren. Hazia ereina zegoen, ordea, eta denborarekin korronte arrazionalistaren aitzindari bilakatu zen socinianismoa.

Socinianismoaren historian, aitzitik, deigarria suertatzen da bere garapenean naturaz gaindikoarenganako sinismenaren gutxitzea eman zela. Luterok naturaz gaindikoaren boterean sinisten zuen. Hau da, Jainkoaren “grazian” eta Eskritura Sakratuetan. Socinianismoak, ordea, naturaz gaindikoaren boterea baztertu eta “argia” bakarrik hartu zuen bere pentsamenduaren oinarritzat. Hortaz, gizakiak bizitzaren bidea jakin dezan, kristandadearen funtzioa “egiaren errebelazioa” izango da. Hala, gizakiak bide hau zertan datzan jakinda, bide hau segitua (edo ez segitua) izateko aukera izango du. Kristandadea ulertzeko modu honek korronte arrazionalistaren baitan gero eta indar handiagoa hartzen joango da eta Ebanjelioak naturaz gaindik emana den boterearen esanahia galtzen joan da. Hau da, une honetatik aurrera boterea ez da goitik emana izango, naturaz gaindik emana den “argi” moduan irudikatzerara pasako da.

Luterok arminioarren eta sociniarren premisa berdinak defendatzen zituen, baina bere ondorioak ezberdinak izango dira. Luterok arminioarrek eta sociniarrek ez bezala, arrazoa arbuiatu egingo du. Hala eta guztiz ere, guztiengan komuna den ideia bat nagusitzen joango da: transzendentziaren ukoa. Hau da, beraiek estrintseko deitzen zutena. Luterok Eliza estrintseko moduan ikusten zuen. Sociniarrek eta arminioarrek, ordea, “grazia” ere estrintseko ikusten zuten eta Sociniarren eta arminioarren jarraitzaileak, bestalde, naturaz gaindiko “argia” ere ukatzera pasako dira, Eskritura Sakratuak “Jainkoaren hitz” izateari utziz.

6.1.2.3.1.2. Immanentismoaren baieztapena. Indibidualismoaren filosofia.

Lehen esan dugun bezala, gizakiaren berezko izaeraren eta “graziaren” arteko banaketak eboluzio bikoitza izan zuen ondorio. Lehenak, orain ikusi dugun bezala, arrazionalismo teologikoaren forma hartu zuen. Beste korronteak, aldiz, bere abiagunea ez du arrazoian izango, bihotzean baino. Hau da, bide espiritualean eta mistikoan. Hona hemen zer dioen Fulton J. Sheen-ek honi buruz:

Lutero hizo sonar la nota tónica de la filosofía y de la teología de lo inmanente anunciando su doctrina de la inmanencia de la justificación por la fe, la experiencia personal de la justificación .Y la interpretación privada de las Sagradas Escrituras. La génesis de estas doctrinas dio origen a una especie de romanticismo religioso en el cual los individuos se tenían a sí mismos como si estuvieran en comunicación directa con Dios, que se revela al hombre por profecías, milagros, visiones y otras formas semejantes.⁶¹²

6.1.2.3.1.2.1 Indibidualismoaren forma ezberdinak

Horrela, bada, Fulton J. Sheen-en arabera beti ere, indibidualismoaren forma ezberdinak hiru forma ezberdinetara murriztuak izango dira:

- a) indibidualismo dogmatikoa.
- b) Indibidualismo mistikoa.
- c) Indibidualismo morala edota pietista

a) Indibidualismo dogmatikoa.

Esan dugun moduan, korronte honen ordezkari nagusia Lutero izan zen eta indibidualismo mota hau “Eskritura Santuen interpretazio pribatua” bezala ezagutzen da.

b)Indibidualismo mistikoa.

Indibidualismo mistikoak, arimaren izaera moralean edota praktikoan gehiegi tematu gabe, arimaren barne argian jartzen du bere arreta. Batzuentzat Jainkoarekiko komunikazio hau iragankorra denez, aldi behin ikuskarien, estasiaren eta antzeko

⁶¹² Ibid., 115 or.

fenomenoen bidez aditzera emango da. Indibidualismo dogmatikoak Eskritura Santuen gizabanakoaren interpretazio eskubidea aldarrikatu zuen bezala, gizabanako mistikoak interpretazio pribatua aldarrikatu beharrean aurkitu da, agerkunde edo “errebelazio pribatua” pentsamenduaren ardatz bilakatuz. Hori dela eta, indibidualismo mistikoaren arabera Jainkoa bakoitzari modu pertsonal eta intimoan errebelatzen zaigu eta, horregatik, Eskritura Sakratuak, fedearen arau gisa ulertuta, ez dira modu atsegingarrian ikusiko, ”hotzak” eta inpersonalak suertatuko baitira.

Joera honen adibide asko aurki ditzakegu, baina Fulton J. Sheen-ek honako hauek aipatzen ditu: Melchor Hoffman (1533), David Joris (1501-1556), Hans Niclas (1502-1577) eta abar.

c)Indibidualismo morala edo pietista.

Pietistentzat Errebelazioa edo Jainkoarekiko komunikazio zuzena ez da nahikoa izango gizakia Errebelazio hauetatik gizartea perfektionatzeko probetxuzko ezer ere eratoritzeko gai ez bada. Kristautasuna, hortaz, ez du gizakien ahoetan dabilen termino bat bakarrik izan behar. Alderantziz, gizabanakoaren bizitzan erabat barneratua egon behar duen elementu bat izan behar du. Pietismoak, beraz, indar eraikitzaile gisa, moralaren hobetzea ekarri zuen. Fulton J. Sheen-en arabera garapen hau bi modutan eman zen:

El pietismo, como fuerza constructiva, mejoró la moral, pero como fuerza desintegrante se desarrolló de dos maneras: disminuyó el respeto debido a la teología dogmática en general, dirigiendo la atención de los hombres desde la ortodoxia a la vida; además, redujo el sistema tradicional a términos 32 (...). Todo el movimiento evangélico en Inglaterra fue también influido por este anhelo de una piedad más práctica. El profesor McGiffert, comparándolos, escribe: «el evangelismo inglés, lo mismo que el pietismo alemán, fue práctico en su intención y en sus métodos, por lo que tuvo gran influencia en el ámbito del pensamiento religioso. Es un hecho de importancia capital que tuviera sus principios en una época dominada no por el escolasticismo, sino por el racionalismo. Fue de hecho, en su mayor parte, una reacción contra el racionalismo en todas sus reformas. Esto le dio, a pesar de su parentesco con el pietismo alemán, un carácter muy diferente en muchos de sus aspectos»⁶¹³

Horrela, bada, laburbilduz, Luterok gizakiaren berezko izaeraren eta “graziaren” artean amildegi bat eraiki zuen, “graziaren” bidez gizakiaren berezko izaeraren perfektioa ezinezkoa eginez. Luterok agian ez zuen ulertu printzipio horiek izan zezaketen eragina.

⁶¹³ Ibid., 119-120 orr.

Bere jarraitzaileak, ordea, oso goiz ohartu ziren printzipio hauen ondorioak zeintzuk ziren. Batzuk (sociniarrak eta arminioarrak adibidez), gizakiaren berezko izaeran tematu ziren, naturaz gaindiko boterea ukatzera iritsi arte (“grazia” estrintseko eta beharrezkotzat ez zuten hartzen). Beste batzuk, aldiz, “graziari” erabateko protagonismoa emango diote, (indibidualismo mistikoek eta pietistek egin zuten moduan). Mistikoak, ordea, lehen esan dugun moduan, arimaren barne argitasunean oinarrituko dira. Pietistek, aldiz, zuzentasun pertsonalari garrantzi handiagoa emango diote.

Luterok garrantzi handia emango dio indibidualitateari, Eskritura Sakratuen interpretazioa gizabanakoaren eskuetan jarritz. Gizabanakoak, horrenbestez, Luteroren arabera beti ere, Eskritura Sakratuak berak nahi zuen moduan interpretatzeko aukera izango zuen. Bere jarraitzaileek, ordea, gizabanakotasun hau gehiago goretsi zuten, Elizarekiko eta Eskritura Sakratuekiko erlazioa askea izatera pasatuz. Horrela, Erljioan immanentismoaren garrantziak gero eta indar gehiago hartzen joan zen, planteatzen ari garen indibidualismo filosofikoari hasiera emanaz.

6.1.3. Txillardegi zientifismoaren eta arrazionaltasunaren kritikari.

Txillardegi ere zientifismoaren eta erlijioaren dogmatismoaren etsai agertuko zaigu (joera hau, batez ere, Txillardegiren hasierako lanetan islatzen da), eta zientziaren eta erlijioaren gizatiartzearen alde. Horrela, bada, joan gaitezten zientifismoari egiten dizkion kritikak ikustera.

Txillardegik zientziaren hegemonia salatzeke orduan, batik bat, astronomia eta Einsteinen erlatibitatearen teoria izango ditu irizpide. Ikusiko dugun moduan, ordea, nahiz eta gai zientifikoak izan, beti egongo dira ukitu filosofikoa dituzten gogoetak presente, gehienetan gai metafisikoekin edota erlijiosoekin lotura zuzenak dituztenak gainera.

Egia da, Txillardegik agnostikotzat zuela bere burua. Ikusi besterik ez dago Joxe Agirrek *Hitza hitz: Txillardegirekin solasean* (1996) lanean egindako elkarrizketan Txillardegik esandakoa:

Ni neu agnostikoa naiz. Egia da frankismoaren garaiko seme naizela, heziketa katolikoa jaso duena, baina ni ez naiz inoiz militante katolikoa izan, ez naiz Acción Católica eta horrelakoetan ibili. *Leturia* idatzi nuenean, oraindik kristau existentzialistatzat nuen neure burua. Unamunoren⁶¹⁴ bidez egin nuen batez ere existentzialismorako bidea, eta segidan, ezari-ezarian, agnostizismora jo nuen.⁶¹⁵

E⁶¹⁶: Ez al zenuen erlijioa zela eta ez zela arazorik izan zeure buruarekin adin horretan?

(T)⁶¹⁷: Marianistak, edonork pentsa dezakeenez, erlijiozaleitsuak ziren, baina ni horretan beti izan naiz oso epela, agnostikoa esango nuke, eta ez dut inoiz mistikaren tentaldirik jasan. Egia da gerora, *Leturia-ti* esate baterako, kristau

⁶¹⁴ Sebastian Gartzia Trujillok Unamuno ere agnostikotzat hartzen du. Hona hemen zer dioen Sebastianek agnostizismoaren definizio ezberdinak ematerako orduan: “2.a, hilezkortasuna eskuratu guran, Jaungoikoa sinetsi nahi izango lukeen, baina misterioa onartzen ez duen arrazionalismoa gainditzea ezina zaion *agnostiko agoniko* edo *mindua* (Unarnuno)” Gartzia Trujillo, Sebastian. *J.L. Alvarez Enparantza (Txillardegi): existentzialismoa eta Jainkoa, itzalak baino argiak nabarmenagoak*. Bilbao: Instituto Diocesano de Teología y Pastoral : Descleé de Brower, 2007, 7. or. Hori dela eta, Txillardegi *Leturia* idatzi zuenean ere agnostikoa zen. *Leturia* bezala, Unamuno ere ez baitzen gai izan fedeaak eskatzen duen irrazionalitatea besarkatzeko; zeren eta jauzi horrek norbera izateari utzi beharra suposatzen baitzuen. Arrazoa kontzientzia mota bat da, gure nitasunarekin erlazioan jartzen gaituena gainera. Hori dela eta, behin arrazoa alde batean utziz gero, gure nitasunaren kontzientzia galtuko genuke eta bide batez, gu izateari utzi. Hortaz, Sebastian Gartzia dioen moduan Unamuno agnostiko dugu. Txillardegiri dagokionez bestalde, dakin gauza bakarra zera da, garai hartan kristau existentzialismoaren (Unamunoren) eskutik, agnostizismoaren bideak jorratzen ari zela. Ez dakigu eragin hau zein neurritan izan zen; zeren eta erlijio eta ideia baten baztertzea ez baita bat-bateko kontua izaten.

⁶¹⁵ HH, 131 or.

⁶¹⁶ E= Elkarrizketatzailea. Kasu honetan Joxean Agirre.

⁶¹⁷ (T) liburuan agertu ez arren Txillardegiren erantzunak direla hobeto ikusteko jarri dut.

problematika agertzen dela, baina Unamunoren eraginagatik-edo oso ikuspuntu heterodoxotik bizi izan dut nik kristautasuna.⁶¹⁸

E: Axola al dizu zerbait hilezkortasunak?

(T): Kezka hori gizatarra dela uste dut, baina bestalde erabat komikoa ere bada gure kezka hori.

Begira. Nik bolada luze batean Andromedaren argazki handi bat izan nuen neure gelako horman zintzilik. Tarteka oraindik ere prismatikoak hartu eta oso gau garbia denean saiatu ohi naiz Andromeda Kasiopea aldean aurkitzen. Gure begientzat lainoxka bat baizik ez da, baina bi milioi urte behar ditu argiak handik hona iristeko. Gure Esne Bidearen ahizpa bizkia da, 200.000 milioi izarrek osatua da eta izar pilo hori hor bertan, auzoan, dagoen galaxia bat baizik ez da, beste milaka galaxia daude unibertsoan. Magnitude horietan pentsatzen jarrita, mingarria da gure harrotasunarentzat, baina ez gara ezer eta gure hilezkortasuna kezka komikoa da benetan.

Kalifornian geundenean, behin baino gehiagotan joan nintzen Hollywoodeko obserbatoriora Andolin Eguzkitzarekin bertako teleskopioaz izarrak ikustera eta DEDn ere egin izan ditugu horrelako saioak Joxerra Etxebarriarekin. Tarteka oso ona da gora begira egotea. Unibertsoaren neurriei begira ikasten dugu gizonok zer garen. Horren aurrean, min ematen du, baina errazago onartzen da heriotza bera ere. Hilezkortasunari buruzko kezka erlijioak sortu dizkigun ilusioetatik etorri zaigu neurri handi batean.⁶¹⁹

E: Beraz, zure ustetan, astronomiak kordokan jartzen ditu fedearen oinarriak.

(T): Ez dut hori esaten. Astronomiatik nik gauza bat ondorioztatzen dut: ez dakigula ezer, ez dugula unibertsoa ezagutzen. Apaltasuna da ateratzen dudan ondorio bakarra. Beste guztia harrokeria hutsa iruditzen zait. Nik ez dut federik. Ez dakit, agnostikoa naiz eta kito.⁶²⁰

Astronomiaz gain, Einsteinen erlatibitatearen teoriaren inguruko interesa ere oso presente egongo da Txillardegiren lanetan.

E: Zure hasierako lanetan gai zientzikoek ere leku garrantzitsua hartzen dute. Einstein-en erlatibitatearen teoriak, esate baterako, lan luze bat idatzi zenuen.

(T): Nik beti aitortu izan dut Heidegger-en *El ser y el tiempo* edo Sartreren *El ser y la nada*⁶²¹ irakurri bai, baina ez ditudala tutik ulertu. Nahiago izan ditut fisika edo, oro har, zientziei buruzko gaiak.

Badakit Einsteinen teoriak konprenitu ahal izateko fisika eta matematika asko jakin behar dela, nik dakidan baino askoz ere gehiago, baina saiatu egin naiz, liburu pilo bat irakurri dut eta ulertu ditudan heinean izugarriak iruditu zaizkit. Einsteinen kalkulu tentsorialak ikertzea nahikoa da, esate baterako, harrituta geratzeko. Egiten dituen formulazioak izugarri zailak dira, eta problema filosofiko handiak planteatzen ditu. Teoria horietan halako edertasun, harmonia eta simetria harrigarri batzuk sumatzen dira eta, orain artean bederen, errealitatean frogatu egin daitezke. Orain dela hogeit bat urte egin zuten, esate baterako, bere formulazio baten froga praktikoa: bi abioi atera ziren une berean, bata ekialdera eta bestea mendebaldera. Alegia, bata lurraren errotazioa zuen bere alde eta besteak kontra. Eta abiadurak denboraren kurtsoa aldatu egiten duela frogatu ahal izan zuten.

Karrerako azken ikasturtean Belda izeneko irakasleak eman zizkigun gai hauek "Mecánica racional" izeneko asignatura batean, eta gogoratzen naiz nik erabat

⁶¹⁸ HH, 32or.

⁶¹⁹ Ibid., 142 or.

⁶²⁰ Ibid., 143 or.

⁶²¹ Biak existenzialistak.

interesaturik jarraitu nituela klaseak, gela guztia kexatzen ari zen bitartean, gehienek ez baitzuten ezer ulertzen, ezta ulertu nahi ere. Zertarako? ⁶²²

Honek, ordea, ez du esanahi Txillardegik erlijioaren inguruko gogoetak egin ez dituenik. Izan ere, gai zientifikoak lantzerako orduan galdera metafisiko-filosofiko ugari planteatzen zituen. Honen adibide ditugu: *Gertakarien lekuko (I Alea)* izenburupean argitaratutako zientziari dagozkion artikulak. Hala nola, *Betikoaz agia* (1958-II-24), *Denborari buruz* (1967), *Ilargirakoan* (1968-XII-4), *Nork Egia?* (1969), *Gero eta ziurrago* (1969), *Eztabaida zahar bat* (1969-III-15), *Zientzia eta hipotesi* (1970-X-13), *Kosmoari buruzko azken berriak* (1971-X-14), *Oraindik ere Einstein harrigarri* (1971-X-28), eta *Monte Palomar-en ondoko gogoetak* (1982-IV-4).⁶²³

Zientziari dagokionez, arestian esan dugun moduan, bi gai nabarmentzen dira Txillardegirengan: bata astronomia; eta bestea, Einsteinen pentsamendu zientifikoa. Ez dugu ahaztu behar Txillardegi formazioz linguista izateaz gain, injenieria zela eta beti izan zuela gai zientifikoekiko interesa. Horren adibide dugu lehen aipatu dudan pasadizoa (injenieri ikasketak egiten ari zenekoa): “Nik beti aitortu izan dut Heidegger-

⁶²² HH, 55-56 orr.

⁶²³ TXILLARDEGI. *Gertakarien lekuko (I Alea)*/ Donostia: Haranburu, L.G. 1985 <http://armiarma.com/emailuak/txillardegi/leku.htm> (2015ko irailaren 10an azkenengo aldiz kontsultatua) hitzaurrean argi usten du artikulak idatzi zituenean zuen pentsakera eta liburu hau argitaratu zen garaikoak ez direla berdinak. Baina nire ustez beharrezkoak dira artikulak hauetako lanak jasotzea Txillardegiren pentsamenduaren bilakaera ikusteko.

GERTAKARIEN LEKUKO bi sail hauek, ikus daitekeenez, mamiz eta hizkuntzaz, zein bere garaiko fruitu dira. Frankismoaren garaian argitaratuak, halako auto-zentsura ageri da askotan; eta artikulurik gehienak Kaputxinoen «Zeruko Argia»n agertzen zirela ez da ahantzi behar. Katakunben garai hartan, bai giroan bertan, bai agerkarietan ere, mugak zeuden (JAKIN-ekoek berriki garbiki eta zehazki azaldu duten bezala); eta muga horien jopu agertzen zaizkigu artikulak batzuz.

Hots, iruditzen zait, joputza hori agertzea da egia esatea, eta lekukotasun-balioari atxekitzea. Artikulu bakoitzaren haseran, data dauka irakurleak.

Hizkerari buruz ere ohar bera egin daiteke: gure 'standard' edo Batua ere urte hauetantxe mamituz joan den sorkaria da: batasun-lan nagusia 1963tik 1978ra burutu da, hain zuzen. Eta artikulak hauek urte horietantxe idatzi ziren. Baturako bide horretako lekuko ere badira beren horretan.

Ni neu ere, azkenik, nola ez, aldatuz joan naiz, idazkeraz eta pentsakeraz; eta zenbait puntutan gaur ez nuke gauza bera idatziko, ez mamiaz eta ez idazkeraz.

Lan hauetako batzuz, gutxitxo baina ez laburrenak, sekula argitara gabeak dira.

Hitz batez, lekukotasunari eusteko, beren hartan eman behar nituen; eta beren hartan argitara ditut.

Agian interesgarri gertatuko!

Txillardegi

Donostia, 1985-I-31an

en *El ser y el tiempo* edo Sartreren *El ser y la nada*⁶²⁴ irakurri bai, baina ez ditudala tutik ulertu. Nahiago izan ditut fisika edo, oro har, zientziei buruzko gaiak”.⁶²⁵

Aipatu berri ditugun artikuluetatik, filosofiari dagokionez, bederen, honako hauek nabarmenduko genituzke: *Betikoaz agian, denborari buruz, Eztabaida zahar bat, kosmoari buruz azken berriak eta Monte Palomar-en ondoko gogoetak*.

Puntu honi dagokionez, deigarria suertatzen da zientziaz hitz egiten duenean ez dituela zientzialarien (fisikarien edota matematikarien) ohizko artikuluetan erabiltzen diren egitura eta estiloa erabiltzen eta, nahiz eta formula matematiko-fisikoak eta espazio-denborari buruzko datuak erabili, kaleko jendeari ulergarri suertatzen zaion hizkuntza erabiltzen du. Azpimarragarria suertatzen da, baita ere, gai zientifikoak izanik, beti planteatzen dituela gogoetarako gairen bat, ia beti gizakiarekin, erlijioarekin eta filosofiarekin erlazionatuak. Halaber, gai zientifikoak tratatzerako orduan, erabiltzen dituen diskurtsoek zerikusi handiagoa izanen dute zientziaren filosofiarekin, fisikariek edota matematikariek darabilten hizkuntzarekin baino. Orain esandakoaren adibide *Betikoaz agian* (1958-II-24) artikulua dugu⁶²⁶:

“Eta, zer da, irakurle ori, gure illarkume edo «illargi-ume» ospatsu ori? Illargiraño edo Zentauroaño ba ginjoaz ere, zer? Galaxian bertan geldituko giñake alarik ere. Eta argiaren laisterrean abia al ba gintez ere, zer? Gure Galaxiatik ateratzen millaka pasako genituzke urteak. Alabaña gure Galaxia au orren neurtu-eziña ba zaigu ere, zer da munduan puntutxo bat besterik?

Ontan guzian ez dago ipui alegiazkorik. Gutxi gora-beera ba da ere, progatu egin da au guzia. Oneraño, ortaz, mundua bera mintzo.

Baña astronomoak ere mintza ditezke, noski. Eta mintzatzea naiko nuke. Astronomoak berak ezin dezake filosofiarik egin, ikasbidez aldatu gabe beñipein; aztertu egin bear dira astronomoaren hipotesiak eta baldintzak. Eta ontarako astronomiaren antzera ez-baña filosofiaren antzera egin bear. Jakiña.

Esan nai dut astronomiaren bidez jakin ditzakegula gauza arrigarri oiek guziak, eta beste asko ere bai. Baña kontuz eta neurritz ibilli bear dala ortik ondoreak ateratzerakoan.

Baña, alderantziz, berdin jokatu bear dute filosofoak ere filosofia egiterakoan. James Jeans astronomoa geiegi sartu zan nunbait, eta ariñegi, erabakiak eta ondoreak ateratze ontan; eta matematikuegia izan zan askotan. Alegia gutxiegi aztertu zituen, agiri denez, bere jakinduriaren oñarriak. Baña egoki zion onetzaz munduaren asieraz ari delarik: «Filosofiaren jardukitzetik datorke bakarrik arloaren kaka. Baña filosofoak itzegiteko eskubide izan dezaten, galdetu egin bear diote

⁶²⁴ Biak existentzialistak.

⁶²⁵ HH, 55 or.

⁶²⁶ Txillardeggi. *Betikoaz agian*. In *Gertakarien lekuko (I Alea)*/ Donostia : Haranburu, L.G. 1985. 13-18 orr.

Zientziari aurrena: dudarik gabeko gauzez bateko, eta anarteko hipotesiez besteko.»⁶²⁷

Artikulu honetan deigarria suertatzen den beste gauza bat zera da: astronomiaren gaia aitzakiatzat hartuaz agnostizismoaren ideia nola azaltzen digun Txillardegik. Txillardegiren iritziz, zientziaren bidea jarraituz gero, ez dago Absoluturik (Jainkorik). Hau da, ez dago ezer ere.

Eta onatx korapilloa: munduan bertan edo bere ortan ezpada, espazioa eta denbora ez dira ezer. Beren ortatik atera ditezkeala pentsatzea, gure seta bat da, arrazoiaren seta bat ain zuzen. Bestalde, munduak asiera bat izan bide-du. Ots: orain dela 6.000 milloi urte etzegoen EZER. Ezta denbora edo espazioa berak ere! Jainkoa gabe sentidurik aal luke onek?

Astiroago aztertu naiko nituzke beste batean puntu auek guziak; eta egin dezadan esperantza badut.

Alde guzietatik abiatu ere, gauza berera iristen da beti: ez dagoela absoluturik. Ez dagoela siñistunaren aitortzeta libratzerik. Ezagutzen ditugun sorkari guzi-guziak, baita denbora eta lekunea ere, ez dirala deus. Itxura utsa dira; izana badute, bañan ez izana. Obeto esan, ez dira Jainko. Mundu guziak, larria eta ikaragarri aundia ba da ere, utsean dardaratzen den xalboin-ponpoilla dirudi; eta gu bere biztanle ñimiño.⁶²⁸

“Ezerez” horren baitan, ordea, Txillardegiren aburuz, zientziari eskuetatik ihes egiten dion eta ulergaitzak suertatzen zaizkion hainbat gauza existitzen dira oraindik. Beharrezkoa al da, ordea, ulertzea? Ulertu nahi bada, eta zientziak ez badigu oraindik galdera horiei erantzunik ematen, geratzen zaigun gauza bakarra “jauzi egitea” izango da, hots, ikusi ez arren sinestea.

Einstein'en hiperesfera ori ez daukagu entenditzerik; eta agian ezin diteke konpreni. Bañan ulertzen ez dugun zerbait azaldu bearrean gera. Eta zergatik ulertu bearko genuke? Erantzun arrazoñalistak.

Atomoarenean, berriz, berdintsu gertatzen da. Heisenberg'en hipotesiak dionez leenago egiten da mundua ezin-ulertzeko, desegiten baño.

Gizonak ez dauka entenditzerik, xalboin-ponpoil ortatik at baitago kakoa. Nola ez? Eta ikus eziñean gabiltza; eta ibilliko ere gera, ene gardiz, aztamuka, beaztopaka...

Zeren Jesukristo'k berak ala nai izan zuen, begietan lausotzat daukagun mintz segail au urra ez dakigun; eta ixildu baitzan askotan, bere ikasleen galderak geiegi ez argitzekotan.

Beti ixildu da Jainkoa.

Orrengatik ere, alperrik saiatuko gera egiaren oñarria progatu naiean. Bistan da au, irakurle. Jauzi egin bear, ikusi ez arren siñistu egin bear, irakurle.⁶²⁹

⁶²⁷ Ibid., 15 or.

⁶²⁸ Ibid., 17 or.

⁶²⁹ Ibid., 17-18 orr.

*Kosmoari buruz azken berriak*⁶³⁰ (1971-X-14) lanean, aldiz, gizakion txikitasuna kosmosaren aurrean nabarmentzen digu Txillardegik.

Irakurlea aisa uler dezakean bezala, jakintsuek ez bestek ezagu ditzakete gaur xehetasunetan (eta berek ere dakiten neurrian eta sailean bakarrik) Zientziaren azken pausuak. Artikulu honetan, beraz (gainerakoetan, bestalde) irakurle amorratu batek zenbait kaseteta eta liburu irakurriz, ikusi edo somatu uste dituen problemak azalduko ditu gaingiroki. Ene asmoa ez bait da astean behin soluzio berezi bana ematea, problema bana irakurleei apalki presentatzea baizik. Egiari buruz, hitz batez, gehiegitan argitzaile ezin izanik, eragile eta akuilatzaile nahi nuke izan bederen.

Hau helburu, azkeneko asteotan irakurri ditudan berri batzuek hunkiturik, azaldu egingo ditut.[...]⁶³¹

[...]Kosmoa, hortaz, bat da izaeraz kimikaren aldetik. Eta, hau dela bide, Bizia nun-nahi agertua dela ukatzeko arrazoin sendorik ez da agiri. Lehenago ere esandakoa berrituz: «ez gaude Kosmoan bakarrik». Kosmoaren batasun funtsezkoa gero eta zindoago agertzen bait da.

Gero eta seguruago da, beraz, era berean, Lurraren gainaldean obratu den eboluzioa, beste lekutan eta mendetan gertatu datekeala. Gero eta seguruago eboluzio hau bai atzeratuago bai aurreratuago dagoen munduak ba diratekela.⁶³²

Ez gaude bakarrik.

Ez gara beraz Kosmoaren erdia ez ardatza. Antropo-zentrismoak erauzteko garaia da, gure Lurbira eta gure mendea baita denen giltzarri diren uste harroputza baztertzekoa. Freud-en hitzez esateko, gizadian luzaz nagusi izan den erlijioak «une déformation délirante de la réalité» izan du zimentarri. Izan gaitezen apal eta egiati batera. Gizona ez da Kosmoaren zilborra; eta gure gizadiari dagozkion urteak edo mendeak ez dira ezer berezirik Kosmo eskergaren kondaira luzean. Utz ditzagun alde batera ptolomeismoak oro. [...]⁶³³

Pasarte hau irakurri ondoren argi geratzen da Txillardegiri kosmosarekiko lilura sumatzen zaiola, baina kosmosaren inguruan dagoen ikuspegi zientifistarekiko kritiko agertuko zaigu. Gizakion txikitasuna kosmosarekiko nabarmentzeaz gain, zientziari oraindik ere eskuetatik ihes egiten dion hainbat aspektu ohartarazten dizkigu Txillardegik eta, bide batez, zientziak gizartean duen hegemonia bistaratzen.

[...] Hor ginake gu, jostorraz-buru batetan burrukan eta, Epiktekok bezala esateko, «geure gorpua aztuna arima ahulak ezin arrastaturik» («Tu n'est qu'une âme chétive qui soulève un cadavre» zion jopu argitsu gogor harek). Nork ez du sendituko Ezerezaren zorabioa? Nork ukatuko du, bestalde, zorabio horren ikutua, funtsa eta egia? Ukatzen dute halere horiek; eta kezka hauei farre egin uste diete!

Baina etsipen betean gautzalarik, Freud-en esakuntza garratza iltzatuta zaigularik, eta Ezerezaren zorabioak arras harturik gauzkalarik, beste burutazio bat datorkigu burura. Bizia ez da izan batere «probablea». Alegia, gaurko Biologiak erakasten duenez, molekula organikoek «informazio» haundia dutela; eta gertatu behar ez ziren izakiak gertatu direla hain zuzen. Guk gogotik saiaturik ere ez dugu deus haundirik sortzen; baina Zoriak eta Halabehar hutsak izakirik zailenak sortzen

⁶³⁰ Txillardegik. *Kosmoari buruzko azken berriak*. In *Gertakarien lekuko (I Alea)*/ Donostia: Haranburu, L.G. 1985. 58-62orr.

⁶³¹ Ibid., 58-59orr.

⁶³² Ibid., 60 orr.

⁶³³ Ibid., 61 orr.

dituzte. Mirari hutsa da molekula erraldoiak agertzea; eta mirakuilu hutsa ere bizidunik batere sortzea. Hots, aipatutako berridk erakusten dutenez, probable eta gertagarri edo gertakizun ez zen HURAXE da... normala eta gertatua! Eta hau nun-nahi gainera.

Ez dezagun ahantz, bestalde, Carbono-atomoaren lau elektroi famatu horiek direla materia organikoaren kakoa: Carbono-rik gabe ez da garbi ulertzen Bizia nola sor zitekean. Hots, Carbonoa ez da-izan ezer apartarik Mendeleiev-en lauki ezagunean: hamabigarrena soilki. Berriz ere: «beste bat».

Bitartean galaxiak elkargandik eta gugandik urruntzen ari eginaletan. 3 C 147 delakoa, gaur gaurkoz txapelduna, 165.000 kilometro/segundu-tako habaila darama. Zeraman, hobe, orain dela bost mila miloi urte jaurti bait zuen guk gaur lkusten dugun argi-errainu hori. Urrunsko!

Txiripa-ilara oso eta ezin luzeago batez dakigu hau guzia. Kosmoa itsua izan bait zitekean osoki, eta kontzientzia-gabetasun guzizkoan leher, eta gero ilunbeetan gesal eta hil bait zitekean. Aski zitekean, eman dezagun, Carbono atomoak dituen gaitasunak ez izatea...Zer da hau guzia? Zein da zorakeria haundiagoa? Gizonaren beraren arazoa eta patua zeharo alde batetara utzirik ere, zein da eroago: gertatu den guzia Zori hutsaren ondorio dela sinesten duena, ala Zori huts hori sinesten ez duena?⁶³⁴

Kasu honetan, Zientziaren alderdi arrazionalista kritikatu du Txillardegik, “txiripa”, “zoria” edota “miraria” bezalako elementuak azaleratuz. Honetaz gain, ezin diogu entzungor egin artikulua bukatzerako orduan plazaratzen duen galdera irekiari: “Gizonaren beraren arazoa eta patua zeharo alde batetara utzirik ere, zein da eroago: gertatu den guzia zori hutsaren ondorio dela sinesten duena, ala zori huts hori sinesten ez duena?”⁶³⁵

Puntu honetara iritsita, pasa gaitezen Txillardegik existentzialismoari buruz zer esaten digun aztertzeraz. Artikulu hauetan gai zientifikoak landu arren, beste zenbait filosofoen artean, Sartrearen eta Unamunoren ideien aipamenak egiten dizkigu Txillardegik. Honen adibide ditugu *Denborari buruz (1967)*⁶³⁶ eta *Eztabaida zahar bat (1969-III-15)*⁶³⁷ artikulak.

Denborari buruz lanaren hasieran ikusi daiteke nola Txillardegik Einsteinen erlatibitatearen teoriaren gaurkotasuna azaldu aurretik, Sartrearen pentsamenduak garai hartan zuen eragina nola argitara ematen digun. Modaren eta berritasunaren eztabaida da artikulua honen mamia. Hau da, existentzialismoa modatik pasa den ala ez zehaztea.

⁶³⁴ Ibid. 61-62 orr.

⁶³⁵ Ibid., 62 or.

⁶³⁶ Txillardegik. *Denborari buruz (1967)*. In *Gertakarien lekuko (I Alea)*/ Donostia : Haranburu, L.G. 1985, 18-48orr.

⁶³⁷ Txillardegik. *Eztabaida zahar bat (1969-III-15)*. In *Gertakarien lekuko (I Alea)*/ Donostia : Haranburu, L.G. 1985. 53-55orr.

Txillardegirentzat, 1967an existenzialismoa modatik pasatua izan arren, oraindik ere pentsalari existenzialisten ideiek gaurkotasuna izaten jarraitzen zuten. Existenzialismoaren jazoeraz gain, Einsteinen kasuan ere antzeko zerbait gertatzen dela esango digu:

Gaurko gure munduak beharrago bide du berritasuna egia baiño: egiarik haundiena ere ez bide da gaur aintzakotzat hartzen, berritasunaren usaia falta baldin badu. Hori dala-ta, gaurkotasunaren maillan, teoriak herronka jarraitzen diote alkarri; herronka nagusitzen dira herrien arretaz, bai; baiñan baita ere herronka ahaztutzen. Aldizkari ezagunenetan eta sasi-jakintsuen solasetan, ideiak ez dira sekulan finkatzen, berritasunaren arabera alkargainka trukutzen baizik. Teoriek modaren kideak dirudite, eta berrizaleen artean modak berak bezin igarokorrak.

1945-etik aurrera, esate baterako, etsistenzialismoa izan zan moda hori, eta Sartre lehenengo maillan jarri zan. Ez, noski, esaten zuenarengatik beragatik (xuxenki 1943-ko «L'Être et le Néant» dalakoan Sartre'k adierazten zuena iñor gutxik uler baitzezakean orduan... eta gauza bera gaur ere!); baiña bai, eta hunengatik batez ere, Sartre'k gauza «berriak» esaten zituelakoan. Gaur berritasun-giro hura histu egin zaio etsistenzialismoari; eta Sartre'zaleek berek maizago aipatzen dute oraingo bere «La Critique de la Raison Dialectique» dalakoa, orduko «L'Être et le Néant» baiño (nahiz ez oraingoa ere lehengoa baiño hobeki ulertu!). Sartre bera aldatu egin da, zalantzarik ez. Baiña berriarekiko moda ere bai: Sartre hirurogeitsuko bat dugu gaur. Belaun berria izen berriren billa ari, beste izen berri batzuk behar ditu; eta ba dituela dirudi; Lacan, Foucault, Althusser. Belaun berriak susmo txarrez begiratzen du Sartre, ez baita... berria.

[...]Berri-nahi amorratu hortan ba dago gure mendearen tema berezi bat. Gure egunetan, dialektikaren eta eboluzionismoaren aroan beraz, nola ez onar, berriak diralako, gauza berri guziak? Aspaldidanik siñistu dana, ez ote da, besterik gabe, zahartua, igaroa eta gainditua? Berriz ere, hortaz, oker ez jokatzearren, brankan beti egon nahiz, berri dan guzia onartzen da, eta berri ez dan guzia, era berean, alde batera uzten. Aspaldiko zuhurtasun bare hura, Seneka'ren edo Cervantes'en izkribuetan esate baterako aurki ditekera, ez da gaur aipatu ere egiten... Irizpidea, hortara, moda dugu, hots, berrikeria, esnobismoa; eta egiaz ahaztu egiten gera. Onartutako mito gezurrezkoen kritikaren egarria danean, «ezkertasun» zuzena da. Baiña ipuiñak salatu eta sasi-absolutu zaharrak astindu nahi gorrian, betiereko zuhurtasuna eta betidaniko egia haundiak ere baztertzen ditugu. Hiraka erauzi nahiz, garia ere erauzten dugu; eta lurra elkor egiten. Ezkertasunari ezkerkeria nagusitu ohi zaio, berritasunari berrikeria. Eta berrikeriaren ipuiña salatu eta astindu gabe gelditzen da.

Sartre'ren egoeraren giltzarria hortan datza. Trotskistei lagunduz, Nobel-Saria ez hartuz, berriki Russell-Epaiburutza onartuz, ba du Sartre'k oraindik berritasun-kutsu hori, eta modan iraun dezake. Baiña gero ta nekezago berak ere, berritasunaren neurria absolutua dalako. Gainditua ote dago egiazki? Orain dala hogeiterteko soluzioak, eta bere kezkek batez ere, atzean gelditu ote dira? Ez nik uste. Atzean gelditu ez, baiña saihetsean utzi. Modak ez du gainditzen, zeharkatzen baizik. Kierkegaard, Heidegger, Jaspers, gure Unamuno bera, ez daude modan; baiñan ez gainditurik ere: berriz argitaratu da frantsesez, esate baterako, Unamuno'ren «Del Sentimiento Trágico de la Vida». Moda pasata, denboraren haizeak eramaten du lastoa; baiña bihia hutsik gelditzen da. Ospea bai: meta gaitz batetik pillotxo batera biltzen da; baiña zer galdu da, egia esateko?

Fenomeno berbera gertatu da Einstein'ekin. 1920-ean Europa guzia mintzo zan Einstein'ez, eta gehienetan fitsik ulertu gabe: errelatibitatea modan zegoen. Kontra ez zegoena, alde zegoen; gaur estrukturalismoaz bezela: «Gauza amorragarri bat du modak: kontra egiñez ere, modari eusten zaiola. Hortantxe ezagutzen da moda bat

hain zuzen: alde ala kontra hitzegiten dalarik ere, berdintsu dala, modakoaz hitzegitea dala kakoa».

Baiña piskanaka, Errelatibitateari berri-kolorea zimeldu zitzaizolarik, modaren eta gaurkotasanaren aldetik bigarren maillara pasa zan teoria. Mac Carthy'ren garai lotsagarrian bakarrik, berriz modan jartzeko aukera hitsa izan zuen Einstein'ek: ez 1943-ko bere «Kanpo-Batua» deritzan teoria zaillarengatik (oraindik ere gutxi dakigu teoria hortaz); Oppenheimer'ekin batera «komunistatzat» hartu eta zaintzapean jarria izan zalako baizik.

Eta hauxe da leloa. Hauxe da larriena, hobe. Errelatibitatea 1967-an ez ezagutzea, Fisika'ri buruz ezer ez jakitea baita; eta filosofiari buruz, batzuk zernahi esanagatik ere, iritzi funtsezko bat ematea arras eziña. Egiaren egarria duten guziek, Einstein'en teoriak ikasi behar dituzte; eta egiten ez badute, «zientzizale» hitza maiz erabillirik ere, jakintzari buruz eta egiari buruz beren ezteusa eta hurrikeria erakutsiko dituzte. Orain gauzak aldatu egin dira pittin bat; baiña urte askotan zehar, Einstein'en teoriak «burges»tzat hartu zituzten zientzizale izeneko erresumek, eta Errelatibitateari buruzko liburuak zerrenda beltzean jarri. Ia denbora berean Mac Carthy ere lan berean ari zan... Segidan, beraz, judutarra zalako, burgesa zalako, eta komunista zalako, Einstein madarikatua izan da. Nork bildu ote ditu berak baiño gehiago? [...] ⁶³⁸

Eztabaida zahar baten, aldiz, lagun batekin izan zuen eztabaida baten berri ematen digu Txillardegik. Lagun horren izenik eman ez arren, Krutwig dela esan dezakegu (gerora ikusiko dugun legez, Budismoan eta Marxismoan jantzia den pertsona bezala agertzen zaigu Txillardegiren lagun hau. Hau da, Krutwig izan zen bezalaxe). Txillardegik, aitzitik, lagun hau ateo moduan aurkezten digu:

Horrela mintzo zitzaidan berriki adiskide bat. Ez, beraz, harrigarriro: erlijio-alienazioaren teoria ezaguna nabarmen agertzen da hor. Baiña nere adiskide horrek ez zidan hau itxura egitearren esaten. Nere adiskidea hortaz siñistuta dago: ez du Jainkoa'rengan siñisten, jainkogabea da osotara:

—Bildurrak sortu ditu jainkoak. Bildurrak, ezintasunak eta ezjakintasunak. Jakintza eta teknikak zabaldu ala, erlijioa berez iraungiko da, itzaldu egingo da. Hauxe ari da gertatzen.

—Eta heriotzaz zer? —nik galde.

—Hor ez dago larritasunik batere: noizpait hil beharra dugu. Mundua hala da. Zergatik tristatuko? Nik ez dut neuk tristurarik batere senditzen. Hil-beharrak ez nau mendrenik ere hunkitzen. ⁶³⁹

Existenzialismoari dagokionez, bere lagunaren iritzi, existentzialismoa produktu burgesa zen, eta beheraka doan klase baten garrasi moduan irudikatzen zuen. Ondorioz, ezin zen langileriaren ideologia izan. Lagunarentzat (Krutwigentzat), osterantzean, existentzialismoaren ordezkari nagusia Buda izango da.

Hoztasun hunek Bertrand Russell'ena eta Jean Rostand'ena gogoratzen zizkidan. Ez da egia, esan nahi dut, Unamuno'ren beti-bizi-nahia, esate baterako, gaur gizon

⁶³⁸ Txillardegi. *Denborari buruz* (1967) . In *Gertakarien lekuko (I Alea)*/ Donostia : Haranburu, L.G. 1985.18-20 orr.

⁶³⁹ Txillardegi. *Eztabaida zahar bat* (1969-III-15) . In *Gertakarien lekuko (I Alea)*/ Donostia: Haranburu L.G. 1985. 53 or.

askorengan eragille danik. Etsistentzialisten problema-giro hura, oso itzalduta dago jende askoren artean; marxisten artean bereziki:

—Etsistentzialismoa behera doan klase baten karrasia besterik ez da —zion hotzean nere adiskideak—. Etsistentzialismoa ez da, eta ezin izan zitekean, langilleriaren ideologia. Etsistentzialismoa, eta heriotzaren kezka bizia esate baterako, burges txikien arazoak dira.

—Eta Buda zer? —erantzun nion nik—. Buda da etsistentzialistarik haundiena. Orain dala 2.500 urtetako India'n, ordea, burges-txikirik ez zegoen. Ez dago klasezko azalpenik fenomeno hortarako, nere ustez.

Nere lagunak ez bide zekien zer erantzun. Baiña siñistuta zegoen jakintzak eta zientziak hilko dutela erlijioa.⁶⁴⁰

Txillardegik, ordea, baieztapen hauek zalantzan jarriko ditu. Bere ustez, egia da, zanpatzaileek betidanik erlijioa gizona zanpatzeko tresna gisa erabili dutela. Baina hori al da dena? Txillardegik ez du uste, eta misterioari ateak zabalik usten dizkio. Lehen aipatu bezala, badago zerbait zientziari ulergaitza suertatzen zaiona, eskuetatik hanka egiten diona alegia. Hori dela eta, ez da egia zientzia garatzen doan neurrian erlijioa desagertzen joango dela.

Egia ote da, ordea, erlijioa gizonak sortu duela, eta sasiproblema bat besterik ez dagoela hortan? Egia ote da jakinduria sakondu ala, erlijioaren beharra erauzi egingo duela?

Ez dirudi, nik uste, XIX-gn. mendeko positibista tentela izan behar da, nere ustez, Izadiaren misterioa arras erauz eta ezaba ditekeala siñisteko. Matematiketan beretan gaur, matematikalariek diotenez, dana koloka dago: matematiketan beretan umiltasuna nagusitu da, eta ez bide dago absoluturik. Fisikan gauza bera, noski.

Erljio gisa siñiskeria-mordo zahar bat aurkeztutzen baldin bazaigu, sasi-erlijio hori, noski, gainbehera joango dala, eta ahaztu ere egingo dala, gauza nabarmena zaigu. Erljiozko instituziorik gehienek eta Jainkoa alkarrekin deusik ere ikustekorik ez dutela gauza agiria da. Gure hartzaroan bertan ziurtzat jotzen ziran gauzarik gehienak ere, gaur baita eliza-gizonak berek ukatzen dituzte. Eta fenomenua hasi besterik ez da egin: Holanda'ko gorabeherak jarraitzea besterik ez dago. Mundu oso bat ari da gure begien aurrean zaharrakutzen eta funditzen. «Ikazkin» famatu haren «fedea» pikutara doa.

Egia ote da, ordea, hori dala bide, deusik zutik geldituko ez danik? Iñolaz ere ez, nere ustez. Aitzitik, astia ugaldtu ala, gizonak pentsatzeko aukera izango du; eta gauza nabarmena bide da metafisikazko hutsunea txikitu ez-baiña haunditu eta azkartu egingo dala. Batez ere politikazko mitologia baten gezurra agertu ala. Izpiritutasun berria etsitako ezkertarren artetik hozituko da. Munduaren misterioa izkutuagoa da gaur iñoiz baiño. Joan dan Maiatzeko mogimenduaren aintzindarietan, absolutu-egarria izan da butzatzaille nagusia; neronek hemen, lerro hauek bestetan esan izan dudak bezela.

Produzioaren aurrerapenek eta jakinduriaren hedaerak hilko omen dute erlijiozko kezka. Eta hau ez zait bidezkoa iruditzen.

«Zer sentidu du munduak» galderak, errugabeen oiñazeek, Gaitza'ren arazoak, iñoiz baiño funts sakonagoa dute gaur. Illunpeak ez dira zipitzik ere arindu.

[...] Erljioa (gaiñerako guzia bezelaxe) gizona zanpatzeko erabilli dute zapaltzaileek betidanik. Zalantzarik ez. Gaurtxe ere gauza bera da. Hori ote da dana, ordea?

Ez nik uste. Misterioaren illunpeak trinkoegi zaizkit.⁶⁴¹

⁶⁴⁰ Ibid., 53-54 orr.

*Monte Palomar-en ondoko gogoetak (1982-IV-4)*⁶⁴² artikularen bukaeran ere antzeko ideia azalerazten digu Txillardegik.

[...] Baina gure galaxia bera, zer da? Normalean galaxiak elkaturik mogitzen dira espazioan barrena. Gure talde edo «Cluster» horretan, zein da gure egoera? Ez batere berezia, edo zentrala. Gure galaxi-mordoan, beste mila bat galaxia daude, gurearen tankera eta tamainakoak.

Areago: «Virgo Cluster» osoa (gure galaxi-mordoa) ez dago ezeren erdian. Gure «Super-Cluster»ean (galaxi-mordoan multzoan, alegia), gure sistema urrun dago erditik: 60 miloi argi-urtetara... Gure galaxia eta gure galaxi-mordoa bera, «beste bat» baizik ez dira... Itxuraz, deusik ez «espezialik» gure Cluster-ean.

Eta guztira, gaur gaurkoz, mila bat miloi galaxia kondatzen direlarik... Noraino hori? Geroak erranen. Oraingo 15 mila miloi argi-urtetara dauden Quasar urrenetaraino. Datorkigun argi-errainua, orain dela hamabost mila miloi urte irten zen handik...

Nori zaio gogorregi ezer ez garela aitortzea?

Eta zalantzak, edo segurantziaz nahiago bada, ez dira horretan bukatzen. Aminoazidoen kateak kasualitatez sortuak izateko, ez baita denborarik aski izan 15 mila miloi urte horretan. Hauxe izan da Fred Hoyle astronomo famatuaren azkeneko bonba. Bera, urte askotan jainkogabe amorratua, bapatean, bere azkeneko liburuan, Jainkoaren alde agertu da. «Mozart, Shakespeare, Gauss», azaldu ezinak dira kasualitate hutsaren bidez: «an intelligence within the Universe is directing the constant creation of microorganisms in interstellar gas» (= adimen batek zuzentzen du sorkari berrien jaiotza kosmoaren baretik). Kasualitate hutsez gertatu dena azaltzeko, denboraren falta dago, Fred Hoyle-ren ustez.

Eta «berezko legeak» baldin badaude? Hauxe da ulerbide bakarra. Baina lege horiek, gertagaitzaren alde jokatzeko ari (bizia eta estrukturaketa, gertagaitzaren dira; esperientziak ongi dakigunez), nondik etorri zaizkio materia itsuari?

Zientziaren alorrean, beraz, Jainkoaren arazoa dator berriz; ateo famatu eta jakintsuen eskutik. Badu honek zerbait harrigarrik, ideologiaren paradisuaren den gure herri sineskorrean. Jainkoaren arazoa arazo da. Horra egia. Nahiz erakatsi izan diren azalpenak, oro har, sinetsi ezinak izan. Eta nahiz gizonaren patua, beste arazo desberdin bat izan.⁶⁴³

“Jainkoa”, “misterioa”, “ezereza”, gizakiaren existentzia unibertsoan.... Gai hauek, beste askoren artean, behin eta berriz errepikatzen dira Txillardegiren lan hauetan: eta gai hauei erantzunak emateko orduan (eta kasu gehienetan gogoeta gai berriak planteatzeko orduan ere) zientziaren eta filosofiaren iturrietara jotzen du Txillardegik. Zientziaren kasuan astronomia eta Einsteinen pentsamenduak dira protagonista nagusienak eta filosofiari dagokionez, bereziki, existentzialismoa. Baina zer toki betetzen du existentzialismoak Txillardegiren pentsamenduan? Nola bereganatu ditu existentzialismoaren gai nagusiak? Galdera hauei erantzuna ematen saiatu gara hurrengo puntuan.

⁶⁴¹ Ibid., 54-55 orr.

⁶⁴² Txillardegik. *Monte Palomar-en ondoko gogoetak (1982-IV-4)*. In *Gertakarien lekuko (I Alea)*/ Donostia: Haranburu, L.G. 1985. 65-68orr.

⁶⁴³ Ibid., 67-68orr.

6.1.4. Txillardegi katolizismoaren dogmatismoaren etsai.

Puntu honi dagokionez, Txillardegik agnostikoa izan arren, gai erlijiosoak oso presente egongo dira bere lanetan. Hala, Txillardegik garai hartan katolizismoak eta Elizak zuten hegemonia salatuko ditu. Ez dugu ahaztu behar frankismoan gaudela eta Joxek Azurmendik, *oraingo gazte eroak*⁶⁴⁴ lanean dioten moduan, Eliza frankismoarekin identifikatzen zen:

[...] gerraostean euskal gizarte osoak bere postura birpentsatu beharra eduki duela katolizismoaren aurrean. Lehen fase batean, hainbat apaiz era fraile zigorturik eta desterraturik, konbentuerako nagusiak eta Seminarioetako errektoreak frankista fanatikoak, eskolak osoki kontrolatuak herrietan, etab., hiritar guztiak desgorrituak izan dira era goitik behera birkatolizatuak. Eliza katolikoa Espainiako banderaren erlijioa izan da Jainkoarena baino nabarmenago: ezer gutxi egin zitekeen Eliza horrekin, soportatu baino. Familietako tradizio klerikalak (bai Nemesiok era bai Agirretxek aipatzen direnak aipatu idazkieran), eta urteotako inflazio erlijioso itzelak, «bokazioz bete-betetzen zituzten Seminarioak eta konbeotuak eta kongregazio laikoak era mugimenduak. Euskal Herrian -falangeak era, preseotzia gutxiago zuten- Elizaren eskuetan geratu zen izpirituaren bizitza esanenezakeen hori ia oso-oso, Beraz, soziologikoki, Euskal Herri publikoa orduantxe izan da, inoiz izan bada, erabat katolikoa, espaziorik gabe beste ezertarako»⁶⁴⁵

Hala, euskaldun askorentzat dilema latza suposatu zuen euskaldun eta fededun izatea.

Gerra zibila piztu denean, Euskal Herria era tradizionalan herri katoliko xaloa da, era Espainiako Hierarkia katolikoak, eta Vatikanokoak berak, «zuek zer zarete lehenago: katolikoak ala abertzaleak?» auzi larrigarriaz estularritu dituzte fededun euskaldunak. Orduan oraindik Jeltzaleak gorriekin joan dira armetan adorez beterik. Baina gero, gerra galdu era, oinaze tresna batez bezala, euskaldunen kontzientziak alternatibarekin egunoro tormentatzen jarraitu du Elizak sadiko: abertzaleak ala katolikoak lehenago? Nola nahi duzue katolikoak izan era gorriak izan? ... Bukatzen ez zen drama bat izan da kontzientzia askorentzat.⁶⁴⁶

Aro berri bat hasiko da sortzen hemendik. Elizaren maisu-petralkeriak ez dira gehiago jasango. Une horretan argi dagoena zera da: “moralek” ezin dutela katolikoa izan. Aldaketa hau ez zen, ordea, bat-batean eman.

Momentu horretan garbi dagoen bakarra da, «moral-ek ezin duela «katolikoak» signifikatu, katolikok frankista signifikatzen badu. Horrela -egia da hori- ordura arte «moralak» esanahi zuen bakarra, errekarra bota da. Inportantziarik handiena, erlijiozkotik ahalik libreena dagoen diskurtso laiko bat lortzeak hartuko du gazteriarentzat, «europarra», soil humanoa eta arrazoizkoa ... (Modernia zaharraren lehen fasea besterik ez zela hori, askoz geroago ikasi genuen). Hala, marxismoaren jakinmina pizten da, etab. Gutxi batzuk katolizismoarekin erabat hautsi eta beste tradizio batzuetan murgildu dira (Krutwig, Mirande). Baina gazteriak, orohar,

⁶⁴⁴ Azurmendi, Joxe. *Oraingo gazte eroak*. Irun: Luma, 1998.

⁶⁴⁵ *Ibid.*, 27 or.

⁶⁴⁶ *Ibid.*, 31 or.

katolizismo itxian eskolatua, oraindik ez du aski kulturarik ere, horrelako urrats bat egiteko ...⁶⁴⁷

Txillardegi ere giro honetan murgildua egongo da. Izan ere, garai hartako euskaldun gehienak bezala, tradizio katolikoaren semen dugu. Segituan ohartuko da, ordea, Elizak eta katolizismoak frankismoaren baitan betetzen zuen paperaz. Horrela, bada, Futon J. Sheen-en *Religion sin dios* lanari eginiko iruzkinean ikusi dugun moduan, katolizismoak suposatzen zuen dogma baztertzeaz gain, eskolastikaren hegemonia ere arbuaiatuko du.

Testuinguru honek, hortaz, garai hartako fededun askorentzat barne gatazka bat suposatu zuen. Txillardegiren aurreneko lanetan ere gatazka honen islak agerikoak dira. Testuinguru honen seme dugu, hortaz, Leturia. Jainko gosea da abiagunea, baina bidea ez da kanpotik emana izango, ez du apaizik edota Eliza bitartekari izango. Joxe Azurmendik, 1965 urtean Jakinen argitara eman zuen *Jainkoaren billa*⁶⁴⁸ artikuluan dioen moduan, Leturiak Jainkoaren bila hasteko lehen pausoa bere buruari dio beldurrak bultzatuta emango du. Hargatik, beldur honi aurre egiteko, norberaren barrenean murgiltzea bezalakorik ez da egongo, bertan aurkituko baitugu gure burua eta, bide batez, Jainkoa (ideia honen atzean San Agustin egongo da).

Bere buruari dion bildurra menderatzean ematen du Leturiak lehenengo urratsa: "Neure burua arkitu nai dut". Ta orain ezker, bakardadean murgildu ta norberaren leizera jetxi ezker ez dago misterioa argitu beste erremediorik. Misterioari azpitik bakarrik iges egin dezaiokegu. Ots, barreneraño jetxi ta andik argitara irtenaz. Ez bestela. Eta San Agustin-ek zekienez geure barruaren barruenean Jaungoikoarekin topatzen gera.⁶⁴⁹

Euskal Herrian eskolastika⁶⁵⁰ edo Tomismoa indarrean zegoen garaian, gure Txillardegik nahaiago izango ditu eskolastikaren dogmatikaren aurrean kritikoak

⁶⁴⁷ Ibid. 34 or.

⁶⁴⁸ Azurmendi, Jose. *Jainkoaren billa*. In: Jakin 20. Zenbakia 1965 urtea, 38- 46 orr.

⁶⁴⁹ Idem.

⁶⁵⁰ *Eskolastika*

iz. 1. Erdi Aroko monasterioetako eskoletako arte liberalen irakaskuntza-sistema. 2. Erdi Aroko kristau pentsatzaileen sistema filosofiko-teologikoen eta pentsamendu-eskolen multzoa.

Eskola edo sistema filosofikoa eta teologikoa baino gehiago da eskolastika. Europako Erdi Aroko teologiaren eta kristau-filosofiaren gorputz doktrinal zabala eta hori azaltzeko metodoa zen, hainbat sistema doktrinal eta eskolatan gorpuzten zena. San Tomas Aquinokoaren doktrina eta sistemarekin berdindu izan da batzuetan, baina hori baino zabalagoa eta ugariagoa da eskolastikaren pentsamendua. Orduko kristandadearen barruan ulertu behar da, non Eliza baitzen kulturaren lekukoa eta transmititzaila eta Elizarenak baitziren, oro har, irakaskuntza-zentroak (eskolak eta unibertsitateak). Kristau-irakatsien azalpen arrazional eta sistematikoa eman nahi zuen eskolastikak, batetik, -Elizako Gurasoen autoritatezko irakatsiak eta aipamenak biltzetik harantza zihoana-, eta munduaren ikuspegi filosofiko orokor koherentea, kristautasunean oinarriturikoa, bestetik.

agertzen diren jarrerak. Horregatik ez zaigu harrigarria suertatzen Unamuno, Kierkegaard, San Agustin eta Russell bezalako autoreak gogoko izatea Txillardegik eta Leturiak hortaz (ez dugu ahaztu behar Joxek Leturia Txillardegiren alter ego moduan azaltzen digula artikulu honetan), Jainkoa bilatzerako orduan Eskritura Santuetara jo beharrean Zerubideko bakardera joatea nahiago izango du: “Eskritura Santuai atsegin zaien giro berean Txillardegi-k bakardadera jotzen du Jaungoikoaren aurpegia billatzeko.”⁶⁵¹

Joxek, puntu honetan, Kierkegaarden eragina Leturiarengan aztertu dugunean ikusi dugun planteamendu bera azalduko digu. Hau da, Leturia bakardadera bultzatuko duen elementua etsipena izango da. Hau da, Joxek “hutsa” deituko duena.

Behin gure baitan murgiltzen garenean, ordea, ohartzen gara ez gaudela bakarrik. Gure buruarekin aurkitzen garela alegia.

Joxeren arabera, gure buruarekin kontuak garbitze aldera joaten gara bakardade bila eta, horretarako, zintzotasunezko eta egiazko jokabideez gain, umiltasuna ezinbesteko elementuan bilakatzen da.

Eskolastikaren programaren eta metodoaren oinarrian arrazoiaren eta fedearen arteko lotura dago. Eskolastikak behin eta berriro eztabaidatuko duen arazo edo gai nagusietakoa baino gehiago da arrazoiaren eta fedearen arteko harreman hori; Mendebaldeko pentsamendu razioanalaren eta filosofiaren historian ezagutza-printzipio bihurtzen da fedea (errebelazioa), arrazoiarekin batera. Metodoari zegokionez, tesiak formulatuzetik abiatzen zen eskolastika, eta horien argibide arrazional eta froga silogistikoen barruan integratzen ziren aldeko autoritatezko iturriak eta bestelako iritzien aurkako argumentuak.

Eskolastikaren garai propioa XI. mendetik XIV. mendera doa. Filosofiaren eta teologiaren historialariek hiru aldi bereizi ohi dituzte. Lehenengoan, bere baitan XI. eta XII. mendeak hartzen dituzte, beren artean joera aski ezberdin eta batzuetan kontrakoak dituzten pentsalari handiok nabarmentzen dira: San Antselmo Canterburykoa, San Pedro Damiano, San Bernardo Clairvauxkoa, Pedro Abelardo eta Pedro Lonbardo. Bigarrena XIII. mendeari dagokio, eta Alberto Handia, San Tomas Aquinokoa, Alexandro Haleskoa eta San Buenabenturarekin eskolastika gailurrera iritsi zen. Hirugarren aldiak XIV. mendea hartzen du, eta Joan Duns Eskoto eta Gilermo Ockham izan ziren garai horretako lekuko nagusiak.

Dena dela, eskolastikaren kontzeptua ez da mende horietan amaitzen; eta jarraipena eduki du nolabait ondoko mendeetan ere Eliza katolikoaren pentsamenduan eta barneko irakaskuntzan. XVI. mendeko Errenazimentuko eskolastika Kontrarreformako giroak baldintzatuta zegoen, eta neurri handi batez Erdi Aroko eskolastikaren luzapena izan zen, bertan nabarmendu ziren Kaietano, Frantzisko Vitoria eta Francisco Suárez teologo handiekin; XVIII. mendean eskolastika gainbehera etorri zen, bereziki Ilustrazioaren kritika zorrotzaren pean. XIX. mendean, berriz, Erdi Aroko eskolastika handia berreskuratzeko mugimendua suspertu zen; horren berrespina Leon XIII. a aita santuaren Aeterni Patris entziklika izan zen, Eliza katolikoan San Tomas Aquinokoaren doktrina eta sistema teologiko-filosofikoa indarberritzera zetorrena. Horren ildotik eratu zen XIX. eta XX. mendeko pentsamendu neoeskolastikoaren korronea, batzuetan pentsamendu eta filosofia modernoei aurre egin nahi ziena; zenbait autore (Gilson, Maritain, etab.), ordea, tomismoa pentsamendu modernoan integratzen saiatu ziren.

Vatikanoko II. Kontzilioaren ondoren batez ere, eskolastikaren eta tomismoaren ofizialtasun-modukoa gairidituta geratu zen Eliza katolikoan, eta pentsamendu teologikoak bide ezberdinak hartu ditu, pentsamendu eta filosofia modernoko bestelako korroneen arabera. <http://www.erabili.eus/lantresnak/hiztegiak/harluxet>

⁶⁵¹ Azurmendi, Joxe. *Jainkoaren billa*. In: Jakin 20. Zenbakia 1965 urtea, 39-40 orr.

Utsa gogaikarri zaigu gizonoi. Bakardadea jasan ahal izateko norberaren barrena kargatu bear da lehenengo, ta ezin bada, edozein uskeriri lotu. Premiñazkoak dira bakardade jorian egon ahal izateko "geure baitarako mlntzagaiak". Orduan gu ez baigaude bakarrik erabat, gu geurekin batean baizik, gure geutasunarekin alkar izketan, alegia.

Onela sortzen du bakardadeak Jainkoa billatzeko metodo egokia. "Neuro **buruarekiko kontuak garbitzeko joaten naiz bakarrik; garbiketa utsa baita, ta egiazko aitorketa, bakardatean egiten dudana egonaldia**".

Zintzotasunezko ta egiazaletasunezko egoera garbi barea zabaltzen baitio bakardadeak arima lurretan.

Egiazaletasunaz gaiñera, zintzo- tasun jatorraz gaifiera (bakardadeak oek biok alkartzan ditu), umiltasuna eskatzen du Txillardegi-ren pentsabideak. Ez umiltasun ustela, sendo ta gizontasunezkoa baizik. Dagoeneko labur dezakegu: bakardadearen ta umiltasunaren baldintza bi oetatik asi ezker, geure zorion-bearrezko izatearen be- gizatzeak eskutik eramango gaitu Jainkoaganaiño⁶⁵²

Baina umiltasun behar hau ezerezetik sortua al da? Naturaren handitasunean konfesatzen dela gizonaren eskasia esango digu Joxek eta ideia hau indartzeko Txillardegik *Egan*-en argitaratuko *Betikoaz agian*⁶⁵³ artikuluko honako aipamen hau erabiliko du: **"Zer gera? Auts-pits bat?... Bistan da arrokeriak ez bestek ezin arro gaitzakeala"** (EGAN)⁶⁵⁴

Joxe Txillardegik Jainkoaren bilaketan hartu duen jarreraren alde agertuko da. Hala, edozein teologok ongi dakiela baldintza moral hauek edozein metafisika bezain garrantzitsua direla esango digu eta, ez hori bakarrik, Txillardegik Eskritura Santua abiapuntutzat ez izan arren, Bibliarekin eta teologiarekin bat egitea lortzen duela azpimarratzen digu.

Edozein teologok daki Jaungoikoa ba dana probatzeko baldintza moral oek metafisikoak bezain bearrezkoak ditugula, artarako dauzkagun probak berezko izatez agiriak, (alegia, ebidenteak) ez diren ezker. Geure izaeraren analisiak baldintza oen bearrera dakar Leturia (Zillegi izan bekit au ta onen sortzeillea berdintzea). Kristau aszeta naiz teologoak, Eskriturari jarraiki, oiñarri oetxek eskatu dituzte beti. Txillardegi, esegetaren oso bestelako bidetik, Bibliaren ta teolojiarekin bateratzen da, Ortik aurrera, cderraren ikuskariak eta gogoetak xuxen xuxen eramango gaituzte.⁶⁵⁵

Leturiari, ordea, ez zaio naturaren isiltasuna gustatuko. Unamunoren eragina Leturiarengan aztertu dugunean ikusi dugun moduan, isiltasuna "ezerezekin",

⁶⁵² Ibid., 40 or. Beltzez nabarmentzen diren hitzak Joxek jarriak dira.

⁶⁵³ Txillardegi, *Betikoaz agian*. In Egan, Donostia, Real Sociedad Bascongada de los amigos del País, 1958, 43-47 orr.

⁶⁵⁴ Azurmendi, Joxe. *Jainkoaren billa*. In: Jakin 20. Zenbakia 1965 urtea, 40 or. Beltzez nabarmentzen diren hitzak Joxek jarriak dira.

⁶⁵⁵ Idem.

heriotzarekin, identifikatzen baitu Leturiak. Goazen ikustera zer dioen Joxek ideia honi buruz:

Utsunea egin bear dugu barreneain Jainkoa sar dakigun. Naturalezari ixiltasunean begiratuaz, eriotzeaz oroituaz, errez egiten dugun utsunea.
Zerubide-n nasai asko zegoela tanpez, landetxe bat ikusteak urduritzen dio Leturiari biotza. Ta ez datza landetxearen unkigarria aren ederrean, ez. Aren **"pakea da nere burua asalduz betetzen duena"**. Eriotzearen anaia bixkia den pakea ikusteak erre egiten digu arima, kezka ta bizi naiez erre. (Unamuno-ri Kastilla-ko lurrarekin gertatzen zitzaiona). Erabateko pakean dagon izadia ikusteak —gure egoneziñaren mixeria jotzen duelako bear-bada— antsi miñen su garratza pizten digu. Kolpe batean arima ustutzen digu, Jainkoarentzat leku egiñaz.⁶⁵⁶

Isiltasunak, hortaz, heriotzaren posibilitatea azaleratuko dio gizakiari eta istant horretan Jainkoaren beharra sentituko du bere baitan. Argitasun ezak, ere, sakonagoa bihurtzen du Jainkoaren beharra. Argitasunak, aldiz, liluratu, harrotu, egiten gaitu. Horregatik, lilurak engaina gaitzake, zere une horretan ez dugu Jainkoaren beharrik sentitzen. Liluratzen gaituen gauzei, aldiz, Absolutuarenak diren gaitasunak itsasten dizkiogu (Mirenen kasua adibidez). Baina lilura ikusi dugun moduan, behin lortuz gero itzali egiten da; zeren eta liluraren objektua mugatua baita. Hortik erlijioak Jainkoa mundu honetatik kanpo jartzea eta bizitza Jainkoarengana iristeko ibili behar den bide gisa ulertzea. Planteamendu hau kontutan hartzen bada, bizitzaren xede nagusiena Jainkoaren bilaketa bera izango da.

Horrela, bada, Txillardegik eskolastikaren bideari uko egin arren, obra apologetiko baten aurrean gaudela esango digu Joxek.

Jainkoaren billa dabil Txillardegi bere obretan. Dudaren eztenak alde guztietatik ziztaka dituela esatea ez da iñoren eskandato izango, noski, oetatik libratzeko modu bakarra, segurutik, ezer ez billatzea ta federik ez izatea bailitzake. Gorputz illak ez du eztenkadarik sentitzen. Garbi garbi azaltzen zigun Orixe-k berak ere makiña bat duda izanaren azkurea. Ikus, bestela YAKINTXO-n eta BARNE-MUÑETAN-en arek aitortuak. Newman-en esanari sinisten badiogu, ain zuzen, dudak suportatzeko gauza izatea dugu fedea, ez aiek ez izatea. Ta beste autore itzal bat ekarriaz, ona Congar-ek diona: "Beti atxikitzen natzaio Ebanjelioko esate ari: sinisten dut, Jauna, baiña lagundu Zeuk nire fedearen flakia. Sinisten dudan une berean sentitzen dut kordoka nagola". Eta segituan: "Uste dudanez sinestunari geroz eta gaitzago egingo zaio sinistea". (SACERDOTE ET LAICAT, Mission du Pretre dans le Monde Actuel).

Ikusi dugunez Txillardegi-k eramán duen bidea ez da Aristoteles-en metafisikarena izan. Ez dakusgu aren idazkietan eskolastikoen "via" famatuen arrasto aundirik. (Alabaiñan, ez dabil aiengandik oso urruti, berak, apika, ala pentsatu arren). Berak esana dugu: 'Aristoteles-en kontrakoa naizela esateak ez dit lotsarik batere ematen'.

⁶⁵⁶ Ibid., 40-41 orr.

Bearbada onexegatik, ta idazlearen arrazoiketa nobelaren biurguneetan katigatzen delako, Leturia-ren Egunkarian banatzen zaigun apolojetika aidean galdu zaigu. Arrigarria bada ere, ordea, Txillardegi-ren lehenengo eleberri au aitortza bat eta apolojetika bat dugu.⁶⁵⁷

Bidea, hortaz, San Agustinek proposatzen digun introspektzioaz gain, Kierkegaarden eta Unamunoren pentsamenduak izango dira. Hau da, existentzialismoaren guraso diren pentsalari kristauen gizabanakoa, hezur-haragizko gizakia, beraien pentsamenduaren erdigune dena (bereziki, samina, larrimina eta sufrimendua jasatzen duen gizabakia), eta ez hegeliar pentsamendua, Absolutuaren izenean subjektua “irentsi” duena. Hala, gizakiaren eta Jainkoaren arteko bitartekaririk ez da egongo, Eskritura Santuaren baztertzea emango da eta, ororen gaintik, gizabanakoaren (kasu honetan Leturiaren) eta Jainkoaren arteko erlazioa norberaren baitan biziko da. Modu pertsonalean alegia. Protestantismoaren bide espiritualean eta mistikoan izango du bere jatorria eta ez arrazoizko bidean (Kierkegaardek bere garaiko kristautasunari egiten dion kritikan ikusi dugun moduan). Azken finean, Jainkoa “ezerezak” gure baitan sortzen duen “larritasunaren” fruitua baita, hots, “ezerezaren” aurrean Absolutu nahia. Hortaz, fedea izango da bidea eta ez arrazoia (On Kixote eta Abraham). Egia da arrazoiak Jainkoaren ideia ematen digula, baina ez da Jainkoaren existentzia bermatzeko gai izango. Guzti honen erdian, ordea, Leturia agnostikoa aurkeztzen zaigu, Txillardegik bere burua agnostiko definitzen duen bezalaxe. Jainkorik bada, hortaz, gizabanakoak sortua izango da, eta ez du izaera objektiborik izango, hots, guretik at ez du existentzia propiorik izango.

“Ezerezaren” aurrean, bestalde, giza “larritasunaren” edo “angustiaren” eta “etsipenaren” garrantzia aldarrikatuko du Leturiak, ez du “larritasunaren” eta “etsipenaren” ikuspegi ezkorra izango. Hala, alde batetik “larritasunak” gure “niaren” benetako izaerarekin harremanetan jartzen gaituela esango digu. Gure miseriak, gure mugak, azaleratzen dizkigula alegia. Hau ez da, ordea, gauza txarra edo kaltegarria izango, “Larritasuna” eta “etsipena” sentitzea bizirik gaudenaren seinale baitira. Izan ere, Leturiarentzat (eta Txillardegirentzat) minik ez izatea, edota erabateko bakea bizitzea, heriotzaren antzekoak dira. Hau da, “ezereza”. “Ezereza”, bestalde, alienaziora bultza dakiguke, edota, alderantziz, “Larritasunak” eta “etsipenak” “ezerezaren” aurrean transzendentziara jauzi egiteko lorbidea izan daiteke.

⁶⁵⁷ Ibid., 43 or. Maiuskulak eta parentesiak Joxerenak dira.

Gure Leturia, aitzitik, Unamunok eta Kierkegaardek defendatzen zuten erlijioaren transzendentziara jauzi egiteko gai ez da izango eta Jainkoaren existentziaren aurrean dudak izango ditu. Absolutuaren ezintasunaren aurrean, ordea, hain zuzen ere, Mirenek bere beharra duela esaten dionean, beste transzendentzi mota bat bizituko du gure Josebak. Transzendentzia hau immanentea izango da.

6.1.5. Agnostizismotik gizaki konprometitura

Erljioaren objektu tradizionalaren uko filosofikoa azaltzerako orduan, ikusi dugun moduan, gaur egungo erlijioetan Jainkoaren tokian gizakia jartzearen joera ematen da. Hau da, erlijioa gizatiartu egin da. Fulton J. Sheen-ek bere *Relijón sin dios* lanean gertakari hau azaltzeko orduan autore ezberdinak erabiltzen ditu. Hala nola, Otton maisua, Alfredo N. Whitehead, Croce eta Gentile irakasleak eta Gerardo B. Smith egongo dira. Pentsalari hauen artean, ordea, Russell-en ikuspegiari erreparatuko diogu, zeren Txillardegiren pentsamenduaren baitan erabateko eragina izan zuen autoreetako bat izan zen. Eragin hau, batik bat, politikoa izan arren (Txillardegik aitortua), ikusiko dugun moduan, erlijioaren gaiari dagokionez ere antzekotasun handiak aurkituko ditugu Txillardegiren eta Russell-en erlijioaren ikuskeren artean.

Fulton J. Sheen-ek, bestalde, Russell-en Jainkoaren ideia azaltzerako orduan, Russell-en *La esencia de la Religión* artikulua hartuko du oinarritzat. Artikulu honen arabera gizakiaren baitan zerbait finitua eta infinitua aurkitzen ditugu. Hala, gizakiak izango duen infinitutasuna munduarekiko duen batasuna izango da eta, ondorioz, gizakiak munduaren baitan dauden gauza oro ezagutzeko eta maitatzeko gaitasunak izango du. Elementu hauek, ordea, denboraren eta espazioaren kategorien menpe ez dira egongo. Hargatik, ezagutzeko eta maitatzeko gaitasun honek, gizakia bere “nitasun” berekoi eta zekenetik haratago transzenditzea posible egingo du. Hau da, nire ongizate partikularra bakarrik ez bilatzea, “ongi orokorragoa” bilatzea baino.

Gizakiaren alderdi infinitua, aitzitik, batasuna haustearen kausa izango da. Horrenbestez, gizakiak bere banakotasunaren eta berekoitasunaren jatorriak hemen izango ditu. Hori dela medio, zenbat eta gehiago hazi gure alderdi infinitua, izate unibertsalaren bizitza modu beteagoan biziko dugu. Horrela, bada, “norberekoikeri

finitua” arima unibertsalaren kartzelazaina denez, beharrezkoa izango da bere ekintza bertan behera utzi eta askatasuna lortzea.

La cualidad de infinito, que nosotros sentimos, no puede ser explicada por la sola percepción de nuevos objetos, de esos que siempre parecen finitos; ha de ser explicada más bien por una manera diferente de mirar estos mismos objetos, por una contemplación más impersonal, más vasta, más llena de amor que la fragmentaria e inquieta consideración que nosotros tenemos de las cosas cuando las vemos como medios de ayudarnos o de estorbamos en nuestros propósitos ⁶⁵⁸

Orain aipatu dugun guztia, halaber, norberekoikeri finitutik bizitza infinitura pasatzerako orduan, beharrezkoak izango dira. Horrela lortuko baitugu “niaren” librantza absolutua ematea. Hala, Une honetatik aurrera, hots, “ni finitua” deseustatu egiten denean, bizitza berri bat sortuko da gure baitan. Ikuspegi zabalagoa izango duena alegia; eta, bide batez, ordura arte, ezezaguna zen zoriontasun mota bat gure baitan sentitzen hasiko gara.

Amore emate honetan, ordea, beharrezkoa al da Jainkoa? Kasu honetan, ez da beharrezkoa izango Jainkoa. Puntu hau izango da auzi honetan azpimarragarriena.

Hortaz, Jainkoa ez da beharrezkoa erlijioarentzat. Beharrezkoa izango dena zera da: gure bizitza infinituarekiko elkartasuna. Une honetan Russell-ek kristau erlijioaren hiru elementuak, hots, berak “gurtza”, “onespena” eta “maitasuna” deituko dituenak, Jainkorik gabe ere existitu daitezkeela esango digu.

Para la « adoración», Dios no es un objeto necesario. El objeto es «el bien ideal que la contemplación creativa se imagina». La «aquiescencia», por otra parte, tampoco necesita de Dios, de cuya Voluntad estamos pendientes: «consiste solamente en la libertad de cualquier sentimiento de ira, indignación, preocupación o aflicción» 68. Por último, el «amor» puede muy bien existir en la religión que San Juan nos dice que es Amor: «en una religión que no es teísta, el amor de Dios se reemplaza por la adoración de un bien ideal» ⁶⁵⁹

Erljioa, hortaz, Russell-en doktrinaren arabera beti ere, honako hau izango da:

La religión, pues, en conclusión, según la doctrina de Russell, puede decirse que «recibe su fuerza del sentimiento de unión con el universo que es capaz de proporcionar. Puesto que la existencia de Dios queda negada, la religión nueva necesita ser «dependiente solamente de nosotros mismos... Nosotros, con nuestros ideales, debemos sostenernos solos y conquistar: interiormente la indiferencia del mundo». Es el hombre el que encierra este sujeto de la religión. «Pues en todas las

⁶⁵⁸ Ibid., 47 or.

⁶⁵⁹ Ibid., 47-48 orr.

cosas es conveniente exaltarla dignidad del Hombre, librándole tanto como sea posible de la tiranía de cualquier Poder no-humano»⁶⁶⁰.

Russell-en erlijioaren ideiarekin baitan beraz, Jainkoa erlijioaren esentziatik deuseztatua izan da eta bere tokian gizakia jarria.

Lanaren puntu honetara iritsita, eta Fulton J. Sheenek Russell-en erlijioaren inguruan zuen iritzia ikusi ondoren, Sartreren pentsamenduaren baitan ere ez al da antzeko zerbait gertatzen?

Puntu hau azaltzeko orduan argi utzi nahi duguna zera da: nahiz eta lan honen aurkezpenean esan dugun moduan Sartreren eragina Txillardegirengan erabatekoa izan, ez gara gehiegi sakontzera pasako, zeren eta gaia *Leturiaren egunkari ezkutua* baita. Horrenbestez, gure xedea, Leturiak Miren hiltzear zegoela izan zuen jarreran Sartreren “askatasunaren” eta “konpromezuaren” ideiek izan duten eragina azaltzea izango da, eta ez Txillardegiren aspektu politikoan murgiltzea (nahiz eta Sartreren “askatasunaren” eta “konpromezuaren” ideiak funtsezkoak izan Txillardegiren politikagintzan.) Horrela, bada, joan gaitezten Sartreren “askatasunaren” eta “konpromezuaren” ideiak azaltzera.

6.1.6. Alienazioaren aurrean gizakiaren askatasunaren berreskuratzea

Sartreren iritziz gizakia mundura jaurtia izan da eta ez da Jainko, helburu edo xede jakin baten arabera sortua izan. Gizakia, besterik gabe, existitzen kausitzen da eta bere buruarekin zer egin behar duen erabaki beharrean aurkitzen. Gizakia zerbait konkretua burutzeko sortua izan ez denez, berarentzat baliagarria izango diren helburu edo xede propioak eraiki beharrean aurkituko da. Xede hauek, beraz, bere baitan sortzen diren proiektuak izango dira eta izaera subjektiboa izango dute. Hori dela eta, gizakia aske izatera kondenatua dago eta “askatasuna” eta proiektu gisa definitua agertuko zaigu.

Fonta Juberok honela laburtzen du Sartreren arrazoiketa:

Si *Dios* existiera, estaríamos todos obligados a comportarnos de determinada manera y a cumplir las mismas normas (leyes) objetivas.
 . Si existiera una *naturaleza* (esencia) humana, *común* a todos los hombres, todos deberíamos comportarnos del mismo modo y realizar el mismo fin.
 .Pero no existe Dios.

⁶⁶⁰ Ibid., 48 or.

- . Tampoco existe una naturaleza o esencia humana previa a su existencia.
- . Luego el hombre no está obligado a comportarse de determinada forma, a vivir de determinada manera, por ninguna fuerza natural o sobrenatural.
- . Luego el hombre es libre.⁶⁶¹

6.1.6.1. Askatasuna eta ekintza

Esan dugun moduan gizakia erabat askea da. Sartrek errango zuen moduan “gizakia askea izatera kondenatua dago”. Baina hau nola da posible? Sartrek giza existentziaren “baldintzak” ez al ditu, bada, kontutan hartzen? Argi dago, giza existentziaren “baldintzak” aintzakotzat hartzen dituela Sartrek, alabaina, gizakiarengan azaleratzen diren “baldintzak” eta “oztopoak” neurri batean gizakiak sorturikoak direla errango digu. Hau da, gizakiak askatasun osoz irudikatu duen proiektuaren arabera eratorriak. Gai honen harira ikus dezakegun zer dioen Fontan Jubero-k honi buruz:

Deseo ir a estudiar a Londres, pero no tengo el dinero necesario para el viaje y para financiar la estancia y estudios. Me enfrento con obstáculos y condicionamientos que coartan mi libertad. Pero esto es así porque yo he hecho previamente el libre proyecto de estudiar en una universidad inglesa. Si libremente hubiese elegido quedarme en mi ciudad natal y realizar en ella estudios de formación profesional para los que sí tengo dinero, mi situación financiera no me parecería ya en absoluto un obstáculo, o por lo menos no uno insuperable.⁶⁶²

Hortaz, gure hautuen emaitza gara. Norberak gure burua aukeratzen dugunean, Sartrearen arabera beti ere, gainontzeko gizakiak ere kontuan izaten ditugu, hots, ez gara “niaren” eremu subjektibo eta hertsian geratzen. Izan ere, izan nahi dugun hori kreatzerako orduan gure baitan gizaki ideal baten irudia izaten dugu. Hau da, gure ustez gizaki on edo perfektu baten ideal bat. Hori dela eta, moldatzen ari garen gure irudi horrek gizadi osoa kontutan hartzen du.

Gizonak bere burua aukeratzen duela esaten dugunean, gutariko bakoitzak norbera aukeratzen duela ulertzen dugu, baina batera, beste zera hau esan nahi dugu, norbera aukeratzean, gizon guztiak aukeratzen dituela. Egon ere, ez dago gure egite bat, izan nahi dugun gizona kreatean, batera, izanbeharkotzat gogartzen dugun gizonaren irudia kratean ez duenik. Hau edo hori izatea aukeratzea, aldeberean aukeratzen dugunaren balioa baieztatzea da, ezin dezakegulako sekula gaitza aukera; aukeratzen duguna, beti da ona, eta ezer ere ezin daiteke guretzat ona izan guztiontzat ona ez bada.⁶⁶³

⁶⁶¹ Fontan Jubero, Pedro. *Los Existencialismos: claves para su comprensión*. Madrid: Ediciones Pedagógicas, 1994. 86 or.

⁶⁶² Idem.

⁶⁶³ Sartre, Jean Paul. *L'existencialisme est un humanisme*. Euskaraz: *Existentialismoa humanismo bat da*/ Jean-Paul Sartre ; Juana Atxabal-ek euskaratu eta irazkindua. Kriselu, Donostia : 1988, 70 or.

Hala, bizitzan burutzen ditugun ekintzen bidez modu batekoak edo bestekoak egiten gara eta existentziaren baitan esentzia jakin bat gureganatzen dugu. Lehendabizi, beraz, existentzia dago eta gero esentzia. Ondorioz, ez dago guregan berezkoa den izaera koldar, adoretu edota zintzorik; gure ekintzen bidez pertsona koldar, adoretu edota zintzoan bilakatzen gara.

[...]baina existentzialistak, beldurti bat deskribatzen duenean, beldurti hori bere beldurkeriaren erantzule dela esaten du. Ez da holakoa bihotz beldurti bat duelako, birika edo burmuin beldurtiak dituelako, ez da holako fisiologi-eraketa bat gaitik, beti egiteen bitartez beldurti modura eraiki delako baino. Tenperamentu beldurtirik ez dago; ba dira bai tenperamentu nerbioak, esaten den bezala: odol pobreak, edo tenperamentu aberatsak; baina odol pobrea daukan gizona ez da horigaitik beldurtia, uko egiteak edo errenditzeak egiten bait du beldurkeria, tenperamentua ez da egite bat; beldurtiak berak egindako egitetik definitzen da beldurtia. Jendeak ilunki sentitzen duena eta ikara ematen diona zera da, guk presentatzen dugun beldurtiak bere erru duela beldurti izatea. Beldurti edo heroi, jaio egin gaitezen, da jendeak nahi duena. "Chemins de la Liberté"-ri sarritan egiten zaion destaina bat honela formulatzen da: baina, azkenean, hain memeloa den jendea nola egingo duzu heroi? Objekzio honek barregura ematen du batez ere, jendea heroi jaio egiten dela suposatzen bait du. Eta azpian, hauxe da jendeak pentsatu nahi duena: beldurti jaiotzen bazara, guztiz trankil egongo zara, ezin duzu ezer egin, egingoak egin arren, bizitza osoan izango zara beldurti; heroi jaiotzen bazara ere osoro trankil egon, bizitza osoan zehar izango zara heroi, heroi baten modura edango duzu, heroi baten erara jango. Existenzialistak esaten duena zera da, beldurtia beldurti egin egiten dela, heroi heroi egin egiten dela; beti dago beldurtiarentzat gehiagorik beldurti ez izateko posibilitate bat, eta heroiarentzat heroi izateari uzteko. Garrantzizkoa konpromisu totala da, eta ez da kasu partikular bat, egite partikular bat osoro konprometitzen gaituena.⁶⁶⁴

6.1.6.2. Askatasunaren inplikazioak

Askatasun absolutua du oinarriztat Sartrearen pentsamenduak. Askatasun absolutuak, berriz, hainbat inplikazio ditu:

Askatasuna nahi izatean, besteen askatasunaren menpean dagoela aurkitzen dugu, eta besteena gurearen menpean. Egia esan, askatasuna, gizonaren definizio gisa, ez dago besteengandik esekita, baina konpromisurik badagoenez gero, neure askatasunarekin batera besteena nahi izatera beharturik aurkitzen naiz, ezin dezaket neure askatasuna helburutzat hartu besteena ere hartu gabe. Ondorioz, benetakotasun totalaren arloan, gizonaz zera hau onetsi dudanean, existentzia esentziaren aurretik daraman izaki bat dela, zirkunstantzia desberdinetan bere askatasuna baino besterik nahi ezin dezakeen izaki libre bat dela onetsi dudanean, ezin dudala besteen askatasuna nahi izatea baino besterik onetsi dut batera.⁶⁶⁵

⁶⁶⁴ Ibid., 90-91 orr.

⁶⁶⁵ Ibid., 103 or

6.1.6.2.1. *Erantzukizuna*: determinazio sozial, organiko, teologiko edota fisiologiko ezak, gizakia bizitzan izango denaren erantzule bakarrean bilakatzen du eta, ez hori bakarrik, gizadi osoaren erantzule ere bihurtzen da:

Honela, gure erantzukizuna suposa genezakeen baino askoz ere haundiagoa da, gizadi osoa konprometatzen duelako. Langile banaiz, eta komunista izatearen orde, sindikatu kristau bati eranstea aukeratzen ba dut, eranste honen bidez adierazi nahi dudana etsipena dela funtsean gizonari dagokion irtenbidea bada, gizonaren erreinua ez dagoela lurrean, ez dut konprometatzen neure kasua bakarrik: denon partez nahi dut etsitua izan, beraz nire pausuak gizadi osoa konprometatu du. Eta ezkondu nahi badut –gertakari indibidualago-, seme-alabak eduki, nire ezkontza neure egoeratik bakarrik dependatzen duen arren, edo neure pasiotik, edo neure desiratik, horretaz ez naiz neu bakarrik bideratzen, baizik eta gizadi osoa da monogamiaren bidean ipintzen dudana. Honela, nitaz eta guztietaz naiz erantzule, eta neuk aukeratzen dudana gizakiaren nolabaiteko irudia kreatzen dut; nerau aukeratzean, gizakia aukeratzen dut.⁶⁶⁶

6.1.6.2.2. *Angustia edota larritasuna*: Deskribatu berri dugun egoera honek, aitzitik, gizakiarengan angustia edota larritasun sentimendua pizten du. Hargatik, Moral tradiziodun gizakiak denontzat baliagarri suertatzen den moral objektiboetan sinisten duenak, beti daki zer egin behar duen, eta honek, nolabaiteko lasaitasuna ematen dio. Existenzialistaren kasuan, aldiz, ez du moral objektiboetan sinisten, bera izango da beraz bere moral propioaren sortzaile eta erantzule bakarra.

Hala, “nire buruaren” eta “gainontzeko guztien” erantzule izan beharrak, “larritasuna” sortarazten dit, “Kontzientziak” bere askatasunaren aurrean sentitzen duen aukeratu beharraren ikara alegia.

larriminaz zer ulertzen dugu? Existenzialistak, gustora aitortzen du gizona larrimina dela. Honek zera hau adierazten du: konprometatzen den gizonak eta beste zera honetaz konturatu denak, hots, ez dela bere buruaren izatea aukeratzen duena bakarrik, baizik eta, gainera, bere burua aukeratu batera gizadi osoa aukeratzen duen legelaria dela, horretaz konturatu den gizonak ez lioke jakingo bere erantzukizun erabateko eta sakonari ihes egiten. Egotez, larriminik ez duen jende asko dago; baina guk, beren larrimina maskaratu egiten ote duten, ihes egiten ote dioten, asmoa dugu; egia esan, askok uste du, diharduenean, bera izan ezik, beste inor ez duela konprometatzen, eta esaten zaionean: baina mundu guztiak berdin egingo balu?, lepoa altxa eta erantzuten dute: mundu guztiak ez du hori egiten. Baina egitan beti galdetu behar dena hau da: zer gertatuko litzateke mundu guztiak honela egingo balu?, eta ez dago pentsamendu kezkarri horri ihes egiterik, halako fedegaiztoz izan ezik.⁶⁶⁷

⁶⁶⁶ Ibid., 70-71 orr.

⁶⁶⁷ Ibid., 71-72 orr.

Sartrearen iritziz, ordea, “larritasunak” ez garamatza “kietismo” edo gelditasun batetara. “Larritasunak” ez dio gizakiari ekintza galarazten. Alderantziz, “larritasuna” izango da ekintzak burutzeraz bultzatuko gaituen elementua.

Kietismoa zera esaten duten jendeen jarrera da: besteek ahal dute egin nik ezin dudana. Nik aurkezten dizuedan doktrina bere betean da kietismoaren kontrakoa, zera hau deklaratzeko delako: egitean izan ezik, ez dela errealitate: ta oraindik urrutirago doa, zeren beste hau gaineratzen bait du: gizona, gizonaren proiektua baino ez da, errealizatzen dien neurrian existitzen da, bere egintzen multzoa besterik ez da.⁶⁶⁸

6.1.6.2.3. *Fede txarra:*

Gerta daiteke, ordea, “larritasunak” sortzen duen beldurraren ondorioz, gizakiak momentu jakin batean sentitzen duen “larritasunari” bizkarra ematea, beretik at dagoen pertsona eta egoera bati errua botaz. Sartreentzat hau “fede txarra” izango da eta jarrera honekin gizakiak lortzen duen gauza bakarra bere burua engainatzea izango da.

“Fede txarra”, hortaz, “larritasuna” ez bizitzearren norbere burua engainatzea izango da. Ez da besteengana zuzenduriko gezurra izango, norbera engainatzea baino, eta “fede txarreko” gizakiak “askatasunak” aurrean jartzen dizkion “konpromezuak” aitzakien eta determinismoen bidez mozorrotzen saiatuko da.

Zirkunstantziak nire kontra izan dira, izan naizena baino askoz ere gehiago balio nuen; jakina, ez dut maitasun haundi bat izan, edo adiskidetasun haundi bat, baina gizon edo emakume egokirik aurkitu ez dudalako izan da hori; liburu oso onik ez dut idatzi, ez bait dut izan astirik; ez dut seme-alabarik ukan, bizitza berarekin egin ahal izango nuen gizona ez dudalako aurkitu izan da.⁶⁶⁹

6.1.6.2.4. *Benetakotasuna:*⁶⁷⁰ “Fede txarrari” aurrean Sartrek “benetakotasunaren” ideia azaltzen digu.

La autenticidad consiste en aceptar el hecho de la libertad absoluta con la consiguiente angustia y responsabilidad que comporta, con la completa conciencia de que nuestra elección individuales no son determinadas por la nada exterior o interior a nosotros mismos.⁶⁷¹

⁶⁶⁸ Ibid., 87 or.

⁶⁶⁹ Ibid., 88 or.

⁶⁷⁰ Gazt. Autenticidad

⁶⁷¹ Fontan Jubero, Pedro. *Los Existencialismos: claves para su comprensión*. Madrid: Ediciones Pedagógicas, 1994, 90-91 or.

6.1.6.3. *Gizaki konprometitua*

Eta “benetakotasun” ideiak, aitzitik, “Konpromezuaren” edo “engaiamenduaren” ideia garamatza. Horretarako Sartrearen ontologian garrantzitsua den “bestearen” ideia ezinbestekoa izango da.

Nitaz edonolako egia bat lortzeko, neu bestearengandik pasatzea egiten dela beharrezko. Neu bezain premiazkoa zaiola bestea nire existentziari. Neure identitatearen aurkikundeak bestea deskubritzen didala bide batez, nire aurrean kokatutako askatasun bat bezala. Berehala deskubritzen dugula intersubjektibotasunaren mundua, eta mundu horretan erabakitzen duela gizonak bera zer den eta besteak zer diren⁶⁷².

Gizabanako bakoitzaren proiektua, bestalde, pertsonala da, izaera subjektiboa du, baina, aldi berean, guztiontzat ulergarria den neurrian, unibertsala ere bada.

Eta proiektuak, modu askotakoak izan daitezkeen arren, beraietako bat ere ezin dakidake bederen estrainio izan, zeren denak presentatzen bait dira muga horiek pasatzeko, eclo haundiagotzeko, edo ukatzeko, edo beraiei norbera egokitzeko, ahalegin bezala. Ondorioz, proiektu orok, dagoenik indibidualenak ere, balore unibertsal bat dauka. Proiektu oro, berdin trinatarrena, indiarrena eclo beltzarena, europear batek ulertua izan daiteke. Ulertua izan daiteke; hau da esan nahi duena: 1945-ko europearra abia daitekeela berak mugetaraino era berean bururatzen duen situazio batetik hasita, eta txinarren, indiarren edo afrikarraren proiektua berregin dezakeela beregan. Proiektu orotan da unibertsaltasunik, proiektu oro gizon ororentzat ulergarri den zentzuan. Zeinak inola ere ez duen aclierazten proiektu horrek gizona betiko definitzen duenik. Proiektua berriro aurkitua izan daitekeela baizik.⁶⁷³

Bakoitzaren proiektua gainontzekoentzat ere ulergarria denez gero, bakoitzaren proiektu pertsonalak izaera unibertsala duela esan dugu. Unibertsaltasun hau, ordea, bakoitzak gure burua hautatzen dugunean ere ematen da, zeren bakoitzak aukeratzen dugun hori gure baitan dagoen gizaki ideal baten arabera hautatua izan da. Horrela bada, “Gizatasun tipo bat errealizatzean, *gizadi osoa konprometitzen du* gizon bakoitzak.”⁶⁷⁴

Balio unibertsaldun konpromisu horrek, besteen askatasuna inplikatzeko du: Askatasuna askatasuna gaitik nahi dugu, eta zirkunstantzia partikular bakoitzean zehar. Askatasuna nahi izatean, besteen askatasunaren menpean dagoela aurkitzen dugu, eta besteena gurearen menpean. Egia esa, askatasuna, gizonaren definizio gisa, ez dago besteengandik esekita, baina konpromisurik badagoenez gero, neure askatasunarekin batera besteena nahi izatera beharturik aurkitzen naiz, ezin dezaket neure askatasuna helburutzat hartu besteena ere hartu gabe.⁶⁷⁵

⁶⁷² Sartre, Jean Paul. *L'existencialisme est un humanisme*. Euskaraz: *Existentzialismoa humanismo bat da!* Jean-Paul Sartre ; Juana Atxabal-ek euskaratu eta irazkindua. Kriselu, Donostia : 1988, . 66 or.

⁶⁷³ Ibid., 95 or.

⁶⁷⁴ Ibid., 71 or.

⁶⁷⁵ Ibid., 103 or.

Sartrearen filosofian agertzen zaigun “konpromizu historiko” horrek eraman zuen Jean-Paul existenzialismoaren eta Marxismoaren arteko elkarlotzea bilatzera. *L'être et le néant* (1943) eta *L'existentialisme est un Humanisme* (1946) idatzi ondoren, *Critique de la raison dialectique* (1960) idatziko du; zeren eta, dialektika historikoaren barnean “askatasunak” paper garrantzitsua betetzen duela uste baitu. Historiaren baldintza materialek neurri batean bakarrik determinatuko ditu, beraz, “historiaren egilea” den gizakia, zeren “giza askatasuna” historikoki alienaturik aurkitzen den arren, ontologikoki ez da horrela izanen. Gizabanako oro, hortaz, bi eragileren ondorioa izango da: egoera historiko-sozialarena eta hautu pertsonalarena.

6.1.6.4. Humanismo existenzialista.

Sartrearen gizakia, determinismo orotik libre, Jainkorik gabe, “gizakiaren izaera” sortu beharrean aurkituko da. Bere bizitzan zehar hartzen dituen erabakien arabera bere esentzia proiektatzen eta egiten doan gizon honek, halaber, “larritasunaren” baitan sortzen ditu munduko balioak eta, hala, bizitzari zentzua ematen dio.

Ezaugarri hauek oinarritzat dituen sartiar humanismoak ez du humanismo klasikoaren ideiarekin zerikusi handirik izango. Existenzialismoak ez du inoiz gizakia xede gisa hartuko, zeren eta etengabe burutzen ari den elementua baita gizakia. Ez dago, beraz, aurretik emaniko kultu egin behar zaion gizakiaren kontzeptu unibertsal ideal bat. Izan ere, humanismoaren ideia honek humanismo itxi batetara garamatza eta, bidez batez, faxismora. Eta humanismo hau ez da Sartzek aldarrikatuko duen humanismo izango.

Ea existenzialismoa humanismo bat zen galdetzeagaitik erantzuki egin zait. Zera hau esan zait: "Nauseé" -an idatzi duzu zuk humanistak oker zebiltzala, nolabaiteko humanismo tipo bati burla egin diozu, zergaitik zatoz orain gauza berara? Benetan, humanismo hitzak bi zentzu oso desberdin ditu. Humanismoa uler daiteke gizona helburu eta goiko baliozat hartzen duen teoria bat bezala. Badago zentzu horretazko humanismorik, Cocteaurengan, esate baterako, bere "Tour du monde en 80 heures" kontaketa pertsonai batek, mendigainetik abioiz doalarik esaten duenean: gizona harrigarria da. Zera hau adierazten du honek: neuk, pertsonalki abioiak egin ez ditudan honek, asmaketa partikular horien onurak hartuko ditudala eta, pertsonalki, gizon modura, beste gizon batzuk egindako egite partikularrak gaitik erantzule eta ondratua naizela pentsatu ahal izango dudala. Zeinak suposatuko luke, gizon batzuren egiterik altuenei dagokien balioa eman geniezaiokeela gizonari. Humanismo hau zentzu gabea da, txakurrak eta zaldiak bakarrik ahal izango lukeetako gizonari buruz osotasunezko judizio bat eman eta gizona harrigarria dela proklamatzera, egiten ez duten gauza, nik dakidala, behintzat. Baina ezin daiteke onar gizon batek gizonari buruz judiziorik formula dezakeenik. Existenzialismoak, horrelako judizio guztietatik salbuesten du;

existentzialistek ez du hartuko gizona inoiz ere helburutzat, beti egitear bait dago. Eta ez dugu sinetsi behar Augusto Comte-ren erara kultu eman diezaiokegun gizadi bat dagoenik. Gizadiaren kultuak, Comtere bere baitan itxitako humanismora darama, eta, esan beharra dago, faxismora. Nahi ez dugun humanismo bat da hori.⁶⁷⁶

Sartrek errebindikatuko duen humanismoa honako hau da:

Baina ba dango humanismoaren beste zentzu bat, hondoan zera hau adierazten duena: gizona etengabeki dagoela beregandik kanpora, bere burua beregandik kanpo proiektatuz eta galduz ematen dio- lako gizonari existitzea, eta, bestetik, helburu transzendentalei segituz dezakeelako existitzea; gizona, gainezkadura berori delarik eta, gainezkadura horren erlazioan izan ezik objektuak atzitu ezin dituelarik, gainezkadura horren bihotzean eta erdian dago. Giza-unibertso bat izan ezik, giza- subjektibitatearen unibertsoa, ez da beste unibertsorik.⁶⁷⁷

Guzti honek, ordea, gizakiarengan transzendentzia mota bat eskatzen du, eta ez du transzendentzia erlijiosoarekin zerikusik izango. Sartreentzat unibertso bakarra “giza unibertsoa” izango da, hots, subjektuaren unibertsoa. Gizakiaren osagarria den transzendentziaren batasun honek, ordea, ez du “Jainko transzendentearen” adiera izango, baizik “gainditua denaren” esangura. Horrela, bada, gizakia ez da bere baitan giltzapetua egongo, Sartrek “humanismo existentzialista” moduan definituko duen “giza unibertso” baten murgildua baino. Hargatik, humanismoa dela esaten da: gizakia, babesgabatasunean murgilduta, legegile bakarrean bilakatzen delako. Eta, ikusi dugun moduan, bilakaera hau ez da bere baitan murgildua ematen, baizik beretik at dagoen xede askatzailea bilatuz. Azken finean, besteen “askatasuna” gure “askatasuna” ere baita.

Transzendentziak gizonaren konstitutibo bezala -ez Jainkoa transzendente den zentzuan, gainezkadura zentzuan baizik- eta subjektibitateak duten lotura honi, gizona itxita barik giza-unibertsoan beti presente dagoen zentzuan, deritzogu guk humanismo existentzialista. Humanismo, zeren bera baino beste legegilerik ez dela existitzen oroiterazten eta desbabesean erabakiko duela norberaz esaten bait diogu gizonari; eta zera erakusten dugulako: gizona ez dela errealizatuko gizaki bezala bereganantz itzuliz, beti beregandik kanpo halako askapen den, halako errealizazio partikular den helburu bat bilatuz baizik, hain zuzen ere.⁶⁷⁸

⁶⁷⁶ Ibid., 107-108 orr.

⁶⁷⁷ Ibid., 108-109 orr.

⁶⁷⁸ Ibid., 93-94 orr.

6.1.6.5. Sartreren “askatasunaren” ideia jatorria.

Sartreren “askatasunaren” ideia azaldu ondoren pasa gaitezen Sartreren “askatasunaren” ideia jatorria azaltzera.

Sartrek, ororen gainetik, XX. mendearen lekuko izan nahi du, hots, garaiko kaosa deskribatu; eta, bereziki, Juana Atxabalek Sartreren *Existenzialismoa humanismo bat da* lanari egiten dion sarreran esaten duen moduan, kaos horretatik ateratzeko desira azaleratzen digu.⁶⁷⁹

Denok ezagutzen dugun gizarte industrial modernoaren garaia da Sartrerena. Kapitalismoaren funtsezko helburuak markatzen dituzte Europa eta Mendebalde osoko gizarte-jokabideak. Teknologiaren aurrerapen izugarriek sortu dituzten aldaketak, engranaia erraldoi baten garrantzigabeko pieza izatera ekarri dute gizabanakoa, eta gizadiko harremanak, merkatuko harreman huts bihurtu dituzte. Zibernetikak eta komunikazio bide berriek, distantziak laburtu egin dituzte, nazioarteko harremanak planetarizatu, eta kosmosean, ikerketa berriak, itzelezko abenturak eta arriskuak sortera.

Industrialte prozesuaren hasiereran, eta geroago ere, gizonak eskuratutako lorpen mirezgarri haiek zekarzkiotela gizonari, bai lanaren arloan eta bai bizitzarako, onura eta askatasun bidea zirudien. Egungo gizonaren egoerak, halako esperantzen iluntzea adierazten digu. Gizona, eguneroko norgehiagokeriaren eta agresibitatearen eskuetan, bakarrik eta larriminduta sentitzen da, hirietako zorabioak estresaturik, ezereztuta.

Eredu ekonomiko berriak, kontsumozko gizartea sortu du. Katean produzitzen duen gizarte honetan, gizonak ere standarizatu egiten dira, nortasuna galtzen dutelarik. Estatu "ongile" eta oroburokratizatuaren manipulazioaren eraginez, hiritarmolderrazeta kritikagabeko kontsumitzaile itzuli da gizon konkretua. A.Huxley-ren mundu "zorionsuan" gertatzen denaren antzera, hemen ere, kontsumoaren bidez eskaintzen zaizkigun nolabaiteko "soma" batzuren trukean, askatasunari, erantzunkizunari, partehartzeari, gizatasunari egiten zaio uko, eta horizontean, gerraren itzala. Gure mendean, bi mundu-gerraren esperientziaren ondoren, behin betiko gerra ahalbidearen izudura sortu da. Gure planeta suntsituko lukeen gerra-positibitatearen bildurra zabaltzen ari da, herri anitzek gerrate errealak sufritzen diharduten bitartean, bereaien odolarekin, gose eta miseriarekin, armamentismo negozioren iribazi astronomikoak metatzen dituztelarik.

1918-an Alemaniaren derrotarekin amaitu zen Lehen Mundu Gerraren ondoren, Alemaniak ez zion berrarmatzeari utzi, batik bat 1929-ko ekonomi-krisi orokorraren inguruan, Hitler-en eskutik, Europa eta munduko hegemonia lortu nahiean, Bigarren Mundu Gerran izuriarte.

⁶⁷⁹ Sartre, Jean Paul. *L'existencialisme est un humanisme*. Euskaraz: *Existenzialismoa humanismo bat da* / Jean-Paul Sartre ; Juana Atxabal-ek euskaratu eta irazkindua. Kriselu, Donostia : 1988

Lehen Mundu Gerra eta Hitler-en garaiko milioi gizonen hilketa eta horroreak izan ziren, hain zuzen ere, Sartrearen existentzialismoaren eta gizabanakoaren aldeko beste filosofien lurra.

Gero, mendearren bigarren erdialdian, Estatu Batuak eta Sovietar Batasuna iritsi dira munduko Estatuaren hegemoniaren lehiakideak izatera. Hauek sortu duten azken konfrontua ez da historian zehar eman diren Estatu hegemonikoen artekoak bezalakoa; gaur jadanik, Norbert Ellas-en hitzetan, "bidearen azkenera heldu bait gara": gerra nuklear batek, bi Estatu hegemonikoen eta bakoitzaren blokeen deuseztapena ezezik, lurraren bizitzarako egokitasuna bera ere hondatu egingo lukeelako.

Bi koloso hegemonikoen erclian, Hirugarren Mundua- Latinamerika, Afrika, Asiaren zati haundi bat- aurkitzen da, militarismoaren eta norgehiaketa armamentistaren ondo-rioak daramatzen mundua: eutsiezinezko kanpo-zorra, gosea, gabezia, neokolonialismoa... Eta mundu aberats barneko "beste mundua" ere hor dago: gerra nuklearraren itzalpeko gazteriarena, lanik eta esperantzarik gabekoa; droga, alkohola eta pobrezia-poltsen mundua; burokratizazio, manipulazio eta zentzugabetasunarena.

Giza-banakoaren eta herrien superbizipena eta kontzientzia kritikorearen sorkundean saiatzeari eskatzen duen ingurune honetan hartzen du bere adierarik sakonena Sartrearen lanak.⁶⁸⁰

Testuinguru honen baitan, bestalde, "ukoaren eta absurdoaren filosofiari" hasiera emango zaio. Korrante filosofiko honen abiamena, bada, Sartrearen *Goragalea* izango da. Eleberri honen tesia honako hau da: munduak ez du zentzurik gizakiak xede edo helburu bat izan ez gero. Testuinguru honetan, "goragalea" errealitatearen aurrean jasaten den sentimendua izango da. Hau da, errealitatearen zentzugabetasunaren edota izaera absurdoaren kontzientzia hartzen dugunean sortzen den sentimendua.

Hala, Roquetin-en bizitzak, *Goragalea* eleberriko protagonistaren bizitzak, xede gabe geratzen den unean, "objektu" edo "gauza" baten existentzia duenaren ustea izango du; eta, aldi berean, "munduak", eta bertan dauden "gauzek" eta "objektuek" ere ez dute aurretik zuten zentzua izango, ez dira gizakiak ordura arte helburuak lortzeko behar zituen tresnak edo oztopoak izango. Ondorioz, mundua osatzen duten "gauzek" eta "objektuek" ordura arte zuten esanahia eta erabilpena ere galduko dute.

Las cosas, los objetos, el mundo han perdido, al mismo tiempo, su sentido. Puesto que su vida ya no tiene objetivo, las cosas ya no son para él medios para alcanzar un objetivo, ya no son puntos de apoyo para sus empresas, utensilios u obstáculos; están ahí, sin razón alguna, como él: "Las palabras se habían desvanecido, y, con ellas, el significado de las cosas, su modo de empleo"

⁶⁸⁰ Ibid., 13-15 orr.

Los vínculos entre las cosas y el espíritu están rotos. No estando ya nada dominado por el significado, todas estas cosas "ínnombrables" empiezan a fluir sin justificación:

"Todo es gratuito, este jardín, esta ciudad, yo mismo. Cuando uno se da cuenta de eso, se le revuelve el corazón y todo empieza a flotar... He ahí la Náusea; he ahí lo que los Puercos... intentan ocultarse con su idea de derecho; ellos son absolutamente gratuitos, como los demás hombres, pero no les gusta sentirse de más."⁶⁸¹

Horrela, bada, Garaudy-ren arabera esperientzia metafisiko honen ezaugarriak honako hauek lirateke:

Ahí tenemos los «ingredientes» de esta experiencia metafísica que es *La náusea*: descubrimiento del Ser, puramente contingente y que nos sumerge cuando no lo mantenemos a distancia rebasándolo mediante un significado; descubrimiento de la libertad en la angustia por la que cobramos conciencia de nuestro poder de dar un sentido a las cosas haciendo de ellas instrumentos de un porvenir que nosotros nos creamos. *La náusea* es la conciencia de existir a la manera de las cosas, tan pronto como, dándoles un sentido, dejamos de tomar perspectiva en relación a ella.⁶⁸²

“Gauzen” edo “objektuen” moduan bizitzea onartzen duten gizabanakoak, bada, “urdetzat” edota “txerritzat” hartuko ditu Sartrek. Hori dela eta, “fede txarrez”, edozein aitzaki bilatuz, “larritasun existenzialari” bizkarra emanaz bizi diren gizabanakoak ere, “urdeak” izango dira.

“Yo comprendía que había encontrado la clave de la existencia, la clave de mis náuseas, de mi propia vida. En realidad, todo lo que he podido saber después se reduce a ese absurdo fundamental.”⁶⁸³

Lehen esan dugun moduan “mundu-objektuaren” gaitzestea izango da abiagunea, eta gaitzespen hau Sartrek burges munduari (batez ere, “egi objektiboaren” eta ezarritako baloreen inguruan duen ideiei) egiten dion kritikarekin batera azaleratuko da.

Eta edo aldi honetan, ordea, oraindik ere indarrean dauden “forma tradizionalaren” trokatzea emango da. Alabaina, printzipio hauen hondamendia, neurri handi batean, behinik behin, osasuntsua izango da Sartreentzat, bereziki, toki guztietatik krak egiten ari den munduaren ondorioz konbentzionalismo ororen azaleko zarakarraren azpian dagoen errealitatea bistaratzen denean. Kaosa, hortaz, neurri baten askatzailea izango da.

⁶⁸¹ Sartre, J.P. *La náusea*. México: Editorial Época, S.A, 105 or.

⁶⁸² Garaudy, Roger. *Perspectivas del hombre : existencialismo, pensamiento católico, estructuralismo, marxismo* / Fontanella, Barcelona : 1970. 67 or.

⁶⁸³ Sartre, J.P., *La nausea*/ Editorial Losada, S. A. Buenos Aires, 1948. 107 or.

Eleberri honetan, ordea, mundu kapitalistaren ezaugarrien gainbehera argitara emateaz gain, “giza baldintzaren” berezko ezaugarriaren estrapolazioa egiten du Sartrek. *Goragalea* ez da, jada, deskonposatzen ari den munduarekiko erreakzio historiko bat bakarrik izango, bizitzaren aurrean erreakzio metafisiko bat ere izango da.

Euliak lanean, aldiz, hitleriar okupazioaren eta kolaborazionismoaren alegoria bat plazaratzen zaigu: “Cuando la libertad ha hecho explosión una vez más en un alma de hombre, los dioses ya no pueden hacer nada contra ese hombre”⁶⁸⁴, “Tú eres el rey de los dioses, Júpiter, el rey de las piedras y de las estrellas, el rey de las olas del mar, pero no eres el rey de los hombres.”⁶⁸⁵

Erresistentziaren esperientziak, halaber, (Sartrek bertan parte hartu zuen), Sartre *L'êtré et le néant* lanaren azkenengo orrialdeetan moral bat zirriborratzera eramango du. Hona hemen moral horren mamia izango den pasartea eta, bide batez, gertakari honen adierazle nagusia izango den *Muertos sin sepultura* lana:

HENRI. - ¿Por qué quieres que empiece otra vez a vivir cuando puedo morir de acuerdo conmigo mismo?

CANORIS, - Hay compañeros a los que ayudar... Hay otros hombres en las minas: viejos que están enfermos, mujeres que no aguantan el golpe. Ellos nos necesitan.

HENRI. - ...En todos los minutos de mi vida, me preguntaré acerca de mí mismo...

CANORIS.- Tendrás bastante que hacer con los demás, te olvidarás de ti mismo... Te ocupas demasiado de ti mismo... Todo lo demás es lo que cuenta. El mundo y lo que tú haces en el mundo, los compañeros y lo *que* tú haces por ellos⁶⁸⁶

1946an *Existenzialimoa humanismo bat* izenburupean eman zuen hitzaldian, aitzitik, ikusi dugun moduan, Sartrek moral honen muina modu orokorragoan argitara emango digu:

Askatasuna askatasuna gaitik nahi dugu, eta zirkunstantzia partikular bakoitzean zehar. Askatasuna nahi izatean, besteen askatasunaren menpean dagoela aurkitzen dugu, eta besteena gurearen menpean. Egia esa, askatasuna, gizonaren definizio gisa, ez dago besteengandik esekita, baina konpromisurik badagoenez gero, neure

⁶⁸⁴ Sartre J.P., *Las moscas*,/Editorial Losada, S. A. Buenos Aires, 1948. 32 or.

⁶⁸⁵ Ibid., 40 or.

⁶⁸⁶ Sartre, J.P. *Las moscas; A puerta cerrada ; Muertos sin sepultura; La mujerzuela respetuosa; Las manos sucias*. Buenos Aires : Losada, 1955 245 -248 orr.

askatasunarekin batera besteena nahi izatera beharturik aurkitzen naiz, ezin dezaket neure askatasuna helburutzat hartu besteena ere hartu gabe.⁶⁸⁷

Horrenbestez, humanismo honen azpian bakardadearen ezintasuna dago. Eta guda egiteko modu berri honetan (okupazioarena eta erresistentziarena), neurri baten edo bestean, gizabanakoa egoera horrekiko konprometitua aurkituko da. Jada, ez da armada profesionalaren aroa izango. Gizakia gatazkaren parte eta epaile bihurtu da. Dena jokoan dago eta gizabanakoa, arazo ororen aurrean, lehen esan dugun moduan, askea izatera kondenatua dago.

⁶⁸⁷ Sartre, Jean Paul. *L'existencialisme est un humanisme*. Euskaraz: *Existenzialismoa humanismo bat da*/ Jean-Paul Sartre ; Juana Atxabal-ek euskaratu eta irazkindua. Kriselu, Donostia : 1988, 103 or.

ONDORIOAK

1. Modernitatearen auzia Txillardegiren Leturiaren egunkari ezkutuan

1.1. Leturiaren egunkari ezkutua eleberri modernoa

Ikusi dugun moduan *Leturiaren egunkari ezkutua* eleberri modernotzat hartua izan zen. Baina euskal eleberrigintzan modernitatea mugarritzea ez da lan erraza izan. Hiru fase ezberdin deskribatu ditugu mugarriztatze honetan. Eta azkenean, egokiena Olaziregiren planteamendua dela ondorioztatzera iritsi gara.

Horregatik, Olaziregik azaldu digun moduan, eleberri bakoitzak egitate nobeleskoa ulertzeko era berri bat, poetika berri bat, darama bere baitan. Hargaitik, eta gaurtik ikusita, ez da zuzena euskal eleberrigintza modernoaren bilakaera azaltzerako orduan modernitate tematikoaren eta modernitate formalaren artean bereizketa egitea, bi alderdiak banaezinak baitira egitate artistiko batean. Horrenbestez, zuzenagoa iruditzen zaigu *Leturiaren egunkari ezkutua* euskal eleberrigintzako modernitatea berez mugarrizten duela baieztatzea. Izan ere, eleberri tipologia berri baten ezaugarriak ere izango dira. Hau da, eleberri existenzialistarenak.

Hori dela eta, Ibon Sarasolak arrazoi du *"Leturiaren egunkari ezkutuan* ia guztia... funtzionala dela esaten duenean; dena dago zuzenki obraren tesiaren (edo, hobeki, "mezu"aren) zerbitzu pean. Nobela funtzionalegia, funtzionalegia nobela bat izateko".⁶⁸⁸ Izan ere, azken finean Txillardegiren xedea, euskal gizartea, Modernitatearen liluratik eta frankismoaren baitan bizi zuen lozorrotik esnatzea izango da.

⁶⁸⁸ Jon Juaristik *Literatura vasca*. Madrid: Taurus Ediciones, 1987, 104 orrialdean aipatua.

1.2. Txillardegi Modernitatearen kritikari.

Joxe Azurmendik *Txillardegiren saioa: hastapenen bila* lanean, aitzitik, Modernitatearen seme den progresoak saldu nahi izan digun ustezko zoriontasuna agerian jartzen digu: “Modernitateak —hots, progresoak— amets guztien asetasuna, gizakiaren perfekzioa agintzen digu. Desioen eta ilusioen kultibo bat dago gure zibilizazioan. Gehienok, hortaz, egin ahalak egin arren, gaztetako gure ametsen obratu ezina ezagutzen dugulako, etsitzen dugu.”⁶⁸⁹ Txillardegik ere, ikusi dugun moduan, antzeko tesia defendatuko du eta horretarako, Modernitatearen zutabe diren zientifismoaren eta kristau dogmatismoaren hegemoniak bistaratu dizkigu.

1.2.1. Zientifismoaren etsai

Zientifismoari dagokionez, Modernitatearen auzia atalean ikusi dugun moduan, Modernitateak Aguste Comte-k zirriboratu zuen ikuspegi zientifista izan du ardatz eta, egoera honen erdian, gizabanakoa erabateko determinismoan murgildua aurkeztu zaigu. Natur Zientzietako kausa-efektu erlazioa, hortaz, ez da Natur Zientziaren eremura bakarrik mugatua izan. Kasu askotan, bederen, bizitza praktikoaren baitan ere eragin handia izan du. Hori dela eta, esperientzia pertsonalak planteamendu honen arabera definituz gero, esperientzia oro kausa-efektu erlazioak dakarren determinismoaren arabera definitua izango dira. Eta ez hori bakarrik, borondate askea, hautatze askatasuna eta antzeko planteamenduak baztertuak geratuko lirarteke. Gizakiak, hortaz, ez du hautatze askatasunik izango, ez du inongo erantzukizunik izango. Ez da, beraz, askea izango.

1.2.2. Erlijioaren dogmatikaren (eskolastikaren) arerio

Erlijioari dagokionez, Txillardegik bere burua agnostikotzat aurkeztu arren, erlijioari buruz makina bat artikulu argitara eman zituen. Bertan, erlijioaren dogmatismoaren etsai agertzen zaigu, bereziki, frankismoan izugarritzko presentzia izango duen espainiar katolizismoaren aurka. Alde batetik, Katolizismoaren baitan dogmatismoaren oinarria

⁶⁸⁹ Azurmendi, Joxe. *Txillardegiren saioa: hastapenen bila* In: Jakin 114. zenbakia. 1999, 34 or.

den tomismoak (eskolastika) duen nagusitasuna salatuko du eta garai hartan indarra hartzen ari ziren jatorri ez-tomista defendatzen zituzten korronte erlijiosoak eta pentsalariak ezagutzera emango ditu, batik bat, erlijioaren gizatiartzea bultzatzen zituztenak. Beste aldetik, espainiar katolizismoak frankismoaren baitan zuen indarra bistaratu eta salatzeaz gain, frantziar katolizismo ezkertiarren baitan dauden pentsalari aurrerakoien ideiak argitara emango ditu Txillardegik. Izan ere, teologo hauek tomismoaren edo eskolastikaren aldekoak izan arren, Francoren diktaduraren aurka altxatu ziren. Horrela, bada, teologo hauen Jainkoaren ideiarekin eta erlijioaren ikuskerarekin erabat ados ez egon arren, beraien jarrera frankismoaren aurka goraiapatuko ditu Txillardegik. Hauen artea, Jacques Maritain⁶⁹⁰ izango da ezagunena.

Frantziar katolizismo aurrerakoiez gain, deigarria suertatzen da, era berean, benetako kristautzat Txillardegik Gandhi eta Martin Luther King bezalako pentsalariak hartzean. Honen atzean, aitzitik, Txillardegik Elizak askotan erabili duen indarkeria gaitzesteaz gain, Gandhi-k eta Martin Luther King-ek defendatzen duten “indarkeria ezaren” bidea azpimarratzeko desira ere egongo da. Izan ere, Txillardegiren ustez, kristautasunak jarrera hauek eredutzat hartuz gero, indartua irtengo da.⁶⁹¹

Martin Luther King'ek oiñaze asko jasan behar izan du: Viet Nam'go arazoan gobernuaren kontra agertu zalako, erdi-komunistatatzat jo zuten eskuindarrek; amerikar beltzekiko garbiki agertu zen betidanik arrazakeria guztien arerio, eta honek anitz etsai lortu zion; gizabidei buruz, azkenik, Ebanjelioa eta Gandhi'ren ekintza gidarizat harturik, ez zituen danak bere aldekoak izan(...)

Bortsaren etsai porrokatua zana, Mahatma Gandhi bezalaxe, bortxaz hilla izan da.⁶⁹²

Kristautasuna eta mundutar garaitzapena artikuluan, bestalde, honako hau esaten digu Txillardegik:

Horregatik uste dut Gandhi izan dala denetan inportanteena. Gandhi'rekin prestatutasun-nahi bat agertzen da politikazko arazoetan: ez teorian eta hitzen maillan bakarrik, egintzetan eta jokabideetan baizik. Inglesek, beraz, politiku

⁶⁹⁰ Larresoro (Txillardegik). *Laikotasunaren zaila*. In Zeruko Argia, Pamplona (etab): Aita Kaputxinoak, 34. Urtea. 600 zeb., (ira. 1, 1974), 3 or.

⁶⁹¹ Gandhi-ri eta Martin Luther King-ni buruz idatziriko artikulua: Larresoro (Txillardegik). *Kristau egiazko bat hil dute*. In: Zeruko Argia, Pamplona (etab): Aita Kaputxinoak, 30. Urtea 270. Zenb. (lorailak 5, 1968) 3 or. (Martin Luther king)
Larresoro (Txillardegik). *Neuresiak ugaltzen ari dira*. In: Zeruko Argia, Pamplona (etab): Aita Kaputxinoak, 31. Urtea, 348. Zenb. (aza. 2, 1969) 3 orr. (Gandhi)
Txillardegik. *Kristautasuna eta mundutar garaitzapena*. In: *Huntaz eta hartaz*. Donostia : Elkar, 1983, 7-16 orr. (Gandhi)

⁶⁹² Larresoro (Txillardegik). *Kristau egiazko bat hil dute*. In: Zeruko Argia, Pamplona (etab): Aita Kaputxinoak, 30. Urtea 270. Zenb. (lorailak 5, 1968) 3 or

maltzur baten kontra ari diralauste dutenean, ongi ulertu ez dutela erakusten dute, Gandhi ez zan politiku «maltzurrago» bat.
 « Satyagraha » eta « Indarkarik-Ez »-aren jokabideak politikazko maillan eredutzat eta nahi-ta-ezko eginbidetzat ezarriz, kristau elizetako ez zan batek astindu ditu kristau elizak. Gandhi'ren eragiñez, kristautu egin gera kristauok.
 Gandhi baiño lehenagoko Eliza Katolikoak, esate baterako, bortxaz jokatzeari sarritan onetsi izan du: ez xedeen eremuan beharbada, baiña bai Istorian eta egiñetan, Hunengatixek, hain zuzen, Vaticano'ko makiabelismoa aipatzen danean, txorakeria funtsezkorik ez dagoela uste dut.⁶⁹³

Hala, Txillardegiren xedea, batik bat, bi izango dira: alde batetik, zientifismoaren aurrean gizabanakoaren askatasuna berreskuratzea; eta beste aldetik, espainiar katolizismoaren indarra frankismoan azaleratzea. Horretarako, dogmatismoaren ikurra den tomismoa salatzearekin batera, gizatiarra den erlijioa errebindikatzeari izango da bere xedea, hots, protestantismoak defendatzen duen immanentismoa jatorritzat dituzten erlijioak aldarrikatzea. Hortaz, Txillardegirentzat erlijioa esperientzia pertsonal eta intimoa da eta, bereziki, immanentea eta humanismo baten eroalea. Testuinguru honetan, ordea, Jainkoaren existentzia ez da beharrezkoa izango, Ondorioz, Txillardegiren erlijioaren ideia erabat gizatiarra izango da.

2. Txillardegiren ekaper nagusia gizatasun berri baten ideia

Txillardegik Modernitatearen aurrean duen jokaeraz hitz egiten denean, bere ekarpen handiena gizatasun berri baten ideia izan dela esan ohi da.

Gai honi dagokionez Joxe Azurmendik bi inspirazio nagusi izango dituela esaten digu *Txillardegiren saioa: hastapenaren bila* lanean: Budismoa eta existentzialismoa. “Txillardegiren obra goiztiar guztiak oso nabarmen uzten du —denborarekin influentziok lanbrotuz joango dira, inoiz osoki desagertzeke, nik uste—, bi inspirazio nagusitatik elikatzen da: existentzialismotik eta budismotik.⁶⁹⁴

⁶⁹³ Txillardegik. *Kristatasuna eta mundutar garaitzapena*. In: *Huntaz eta hartaz*. Donostia : Elkar, 1983, 7-8 orr.

⁶⁹⁴ *Ibid.*, 38 or. Budismoaren puntua lantzerako orduan, Pierre Teilhard de Chardin-en planteamenduak ere zeresan handia izango du. Hona hemen zer dion Joxek Azurmendik honi buruz *Txillardegiren saioa: hastapenaren bila* lanean 36-38 orrialdean:

Alabaina, Marx baino gehiago, kontua mendebaleko zibilizazio guztia da, esan bezala. Txillardegik ekialdea eta mendebala kontrajartzen ditu. Munduaren iragankortasunari buruz nola biak oso bestela paratzen diren, Teilhard de Chardin eta Budaren konparazio batean erakusten du. [...]Ekialdea eta mendebala bi aukera dira: errealitatea onartu, ala errealitatea «itxuraldatu».

Izan, bi salbabide ditugu funtsean: edo Mundua ukatu, eta Heriotza Osoak bere trinkotasuna galtzen du arras (hauxe dugu Indiako soluzioa, budismoan eta budismoik at); edo heriotza hortatik gure buruak begiratzeko, hilezkor dan arima bat dugula sinisten da (eta hau mendebaldarren irtenbidea da) (Ib.).

Baina, azken batean, «gizona salbatzea» da bietan xedea. «Gizona salbatzekotan, Kosmo guzia salbatzen du Teilhardek (. . .) . Budak , aldiz, beti gizona salbatzekotan (hots: fenomenuen kateatik askatzekotan) Kosmo guzia kondentzen du» (66).

Honetaz, gain, ezin dugu ahaztu budismoaren eraginpean idatzi zuen *Peru Leartzako* eleberria (1960).

Joxe Agirrek egin zion elkarrizketan gainera honako hau esango digu Txillardegi budismoari buruz:

Askorentzat sorpresa bat izango da ekialdeko ideiek nobela honetan (Peru Leartzako) duten eragina. Nola esplikatzen da eragin hori?

Lehengo nobelan (*Leturiaren egunkari ezkutua*) larri-minaren iturburua aukeratu beharra baldin bazen, oraingoan igarokortasunak erdibitzen dio bihotza nobelako protagonistari.

Lan egin beharra sasi-kezka da. Dena do a, dena iraungitzen da, dena ahazten. Denak dakar gerora tristura eta dolorea. Horra liburuaren gakoa.

Baina sentimendu horri beste batzuk eranstean zaizkio: gure nortasunarena lehenik eta behin. Benetakoa al da gure nitasuna? ..

Uste hori bera agertu zuen Santamariak ere 1960ko otsailean artikulua batean: "Eta ametsetan bezala, harrigarri ikusten du nork bere burua gaurko gizonak, bikoitza bailitzan, gogoz eta ganoraz aztertzen du, gauza harrigarriak egiten eta esaten dituelarik. Nire kontzientziaren ispiluan agertzen den izaki hori "nor" ote den ere galdetzen diot neure buruari; nirekin zerikusirik ote duenez: ez ote den ausaz bere buruari axolarik batere ez zaion ikutu ezinezko mamutzar bat",

Bide horretatik abiatzen da Leartzako eta, egia da, berehala ukitzen dute ekialdeko ideiek. Ekialdeko ideiak giroan zeudelako beharbada.

Aita Taysmann jesuitak existentzialismoaren eta budismoaren arteko gora-beherak xehetasunez aztertu ondoren, halaxe zioen bere lan batean: "Joera bizia dago European budismoaren alde, eta ziorik sakonena hauxe da: antz harrigarria dutela Budaren joerak eta gaurko pentsaera batzuek".

Aita Danielouren aditzea handia izan zen urte horietan katoliko progresisten artean. Gutxiak dakite ordea anai bat budista zuela eta kargudun gainera erlijio horretan. Julien Green nobelari famatuak ere sekulako lilura sentitu zuen budismoarekiko. Materialismoaren nazka sentitzen duten guztiek pozik agurtzen dute India.

Leartzak joera zabal hori nortzen du bere buruan, Europako kutsua eta gogoia bere bihotzetik behin ere erauzten ez baditu ere. Budismoaren tentaldia sumatzen du, baina bide erdian geratzen da eta etsipen osoan.

Zer harreman dago Sartrearen eta budismoaren artean?

Esan litekeela uste dut Sartre neobudista bat zela. Existentziari buruzko kezka edo heriotzari buruzkoa budismoak aspaldi landu zituenak dira.

In: AGIRRE, Joxean. *Hitza hitz: Txillardegirekin solasean* / Donostia ; Baiona: Elkar, 1996. 135-136 orr.

Halaber, Joxerekin bat egin arren planteamendu honekin, hastapeneko gizatasunaren bi argialdi hauetaz gain, hirugarren bat ere aipatu beharrean aurkitzen gara. Hau da, Freud, Marx eta Nietzsche hirukoteak osatzen dutena⁶⁹⁵.

[...] Marx, Freud eta Nietzsche. Hirukote horren ideiaragoan goritzen ari da biharko mendearen modea. Askoren ustez honek ez du dudarik. Hots, hiruok, ene ustez, sinu bereko ekarria eman digute: GIZONAREN KONTZIENTZIA GAUZA AXALA DA. Argiro ezagutzen ez ditugun baldintzek mugatzen dituzte geure irizpideak eta gure ekintza.⁶⁹⁶

Euskal Herria helburu lanean, aldiz, honako hau esango digu:

[...] Eta, sinetsirik ere, ez nuen ulertzen Rikardo Arregik aipatzen zuen «Marxen zorabioa» zer ote zen. Freuden zorabioa senditua nuen nik, hori bai; eta Budharena, eta Zarathustrarena. Marxena ez, egia aitortzeko.⁶⁹⁷

Baina gure gaia existenzialismoa denez gero, joan gaitzen puntu hau sakontzera. Txillardegiren arabera, existenzialismoa Modernitatearen, positibismoaren, “egi absolutuen” eta totalitarismoaren aurka eta pentsaera “arkaikoaren” ahots gisa⁶⁹⁸ sortu zen.

Modernitatea saltzen digun progresoak, ekonomiaren azkartasunak, teknikak eta beste zenbait elementuk alienaziora eramanez gaituzte, hots, konformismora. Eta ez hori bakarrik, zibilizazio honek bere mila asetasun promesekin egiten duena zera da: gizakiaren egiazko eta funtsezko problema ezkutatu (existentziaren absurdotasuna), engainuzko zorion baten engainuzko itxaropenetan biziaraziz. Izan ere, mundu honek ez gaitu inoiz asetuko.

Egoera honen aurrean, hortaz, beharrezkoa izango da gogoeta antropologikoa egitea eta gizonaren gizatasunaren ideia berri bat azaleratzea, non gizabanakoak eta

⁶⁹⁵ Marx, Nietzsche eta Freud, Kierkegaardekin batera modernitatearen despersonalizazioaren aurka altxatu diren pertsalariak ditugu. Txillardegik honen harira, Nietzsche-ren eta Marxismoaren eragina izango duen *Haizeaz bestaldetik* eleberria argitara emango du 1979 urtean. Honetaz, gain Marxismoaren aurka hainbar artikulua aurki ditzazkegu, batez ere, politikagintzan erabat murgilduko den aroan argitara emanak. Freud-i buruzko Txillardegik idatzitako artikuluen artean aldiz, honako hauek egongo lirarteke: Larresoro (Txillardegi). *Kaleidoskopio*. In: Zeruko Argia, Pamplona (etab): Aita Kaputxinoak, 32. urtea, 448. Zenb. (urr 3, 1971), 3 or.

Larresoro (Txillardegi) *Erakasle bikain bat: Fougeyrollas*. In: Zeruko Argia, Pamplona (etab): Aita Kaputxinoak. 33 urtea, 498. zenb. (ira 17, 1972) 3 orr.

Larresoro (Txillardegi) *Galdera sakon bat*. In: Zeruko Argia, Pamplona (etab): Aita Kaputxinoak. 33 urtea. 474. zenb. (api. 2. 1972) 3 or.

⁶⁹⁶ Larresoro (Txillardegi) *Erakasle bikain bat: Fougeyrollas*. In: Zeruko Argia, Pamplona (etab): Aita Kaputxinoak. 33 urtea, 498. zenb. (ira 17, 1972) 3 orr Letra larriak Txillardegireank dira.

⁶⁹⁷ EHH, 271 or.

⁶⁹⁸ Igarra (Txillardegi). *Levi Strauss-ek Unamuno-rengana*. In: Jakin, Arantzazu, Editorial Franciscana, 19. Zenb. (mai. 1965), 6-15 orr

“askatasunaren” (norberaren hautu askearen gaitasunaren garrantzia) ideiak erabateko protagonismoa izango duten.

Ikusi dugun moduan, Modernitateak saldu nahi izan digun erabateko zorionaren aurrean, “etsipena” ez da zerbait negatibo moduan ikusiko. Lilura alde batera utzi eta gure mugak onartzen lagunduko digun elementu bat izango da. Gure benetako izaerarekin aurrez aurre jarriko gaituena alegia. Testuinguru honek, ordea, bi jarrera azaleratuko dizkigu: alde batetik, gure benetako izaera ez onartzea, hots, existentzialistek “bizimodu edo existentzia inautetiko” moduan definitzen dutena (horrenbestez, alienazio egoeran segitu eta etsipen egoera luzarora areagotu egingo duena). Eta beste aldetik, alderantzizko jarrera izango dena. Hau da, gure benetako izaera ametitu (“bizimodu do existentzia autentikoa”) eta, bide batez, gure izate mugatua (Kierkegaard eta Unamuno) eta existentziaren absurdotasuna (Sartre) onartzea. Hori dela medio, Txillardegik gizonaren gizatasunaren ikuspegi berri honen adibide gisa, Leturia aurkezten digu, hain zuzen ere, literatura kritikariek euskal literaturaren lehen heroi gatazkatsu gisa definitu dutena.

Gure Leturia, ordea, hori baino gehiago da. Gatazka horren jatorria topatzen saiatu den gizasemea dugu. Eta, ez hori bakarrik, bere mugak onartu eta sentitzen duen etsipenari irtenbide bat ematen ahalegindu da (nahiz eta zorigaiztoko bukaera izan). Leturiari, hortaz, gizatasuna dario eta gizakia ulertzeko antropologia berri baten eroalea da. Eta, ez hori bakarrik, antropologia horren baitan, bizitzaren aurrean izan beharreko jarrera edo etika bat azaleratzen digun pertsonaia ere bada. Ikus dezagun.

3.Kierkegaarden, Unamunoren eta Sartrearen eragina *Leturiaren Egunkari ezkutuan*.

Honela mintzo da Joxe Azurmendi *Txillardegiren saioa. Hastapenenen bila* artikuluan:

Euskal Herria helburu liburuan Txillardegik, bere bi Maisuak bezala, B. Russell eta J.P. Sartre aipatzen ditu aurrena (274), eta 297. orrian «Russell eta Sartreekin nire ‘hirurko’ intelektualaren osatzaile: E. Morin parisetar judua» gehitzen du. Kurioso da benetan: doi-doi hogeitahamar urte lehenago, Huntaz eta Hartaz-en, berdin – berdin egiten baitu. «Egiazko intelektualen artetik bi aipatuko ditut, enetzat eredu: B. Russell eta J.P. Sartre», irakurtzen diogu 42. orrian; eta hurrengo orrian besterik gabe ja, E. Morin, hirugarren maisua dator aipaturik. «Intelektualak eta ekintza-gizonak» saioan gertatzen da hori; hots, Euskal Herrian politika ezkertiar bat nola egin, bilatzen duen gogoetan. Baina hau, Txillardegiren biografia intelektualean, bigarren fase bati dagokiola esango genuke: pentsamendua politikoki

organizatzeari dagokion faseari algia —1962-64 ingurutik aurrera (1962: ETaren Lehen Biltzar Nazionala). Harrezkero, Txillardegiren pentsamendua geroz eta gehiago eztabaida politikoan zentratuko da; beraz, lehen bazuen interesen eta gaien zabaltasuna, ezkutatu egingo zaigu. Geroenean, geroak, iragana bera transformatzen du gure memorian. Nola esplikatu, bestela, Maisuen artean ez aurkitzea Unamuno edo Kierkegaard! («Kierkegaard eta Unamuno ‘anaiok’: bihotz bihotzez anitz esker!», 60)18. Behar bada «intellectuel engagé» edo «authenticité» bezalako kontzeptu batzuen adiera ere mehartu egin zaigu prozesu honetan, horien exijentzia basikoak ez baitziren politikoak soilik, gutxiago alderditarrak, intimo eta pertsonalak baizik estreina, sozialak eta politikoak gero, Txillardegik berak nahikoa erakutsi duen legez bere lehen argitalpenetatik hasita. Ahazteko joera baitugu, «autentikotasuna», esate baterako, Sartrerena baino lehen Kierkegaarden eta Heideggerren kontzeptua dela; h. d., existenziala politikoa baino lehen (*Leturiaren egunkari ezkutua*-n den bezala).⁶⁹⁹

Horrela, bada, hasiera batean, Txillardegik planteatzen digun gizatasunaren ideiarene eta etikaren (edo bizitzaren aurrean izan beharreko jarreraren) jatorrian Sartreren pentsamenduan dagoela uste izan arren, existenzialismoaren baitan oinarritzkoa den “autentikotasunaren” ideia adibidez, Sartreengan baino lehen Kierkegaardengan aurkitzen dugu. Hori dela medio, ezin dugu ukatu existenzialismoaren iturburua den Kierkegaardek (eta Unamunok) erabateko presentzia izan duela *Leturiaren egunkari ezkutuan*.

3.1. *Leturiaren egunkari ezkutua* zentsurari ihesi

Argi dago, frankismoa dela medio, ez zela erraza garai hartan erregimenaren aurkako lanak argitara ematea. Horrela, bada, Juan Beneyto Pérez-ek 1987an *La censura literaria en los primeros años del franquismo. Las normas y los hombres*⁷⁰⁰ lanean argitaratu zuen moduan, hemeretzi arau bete behar zituzten garai hartan argitara ematen ziren lanek. Hona hemen hemeretzi arauak:

⁶⁹⁹ Txillardegiren saioa: hastapenen bila In: Jakin 114. zenbakia. 1999 41 or.

⁷⁰⁰ Beneyto Pérez, Juan. *La censura literaria en los primeros años del franquismo. Las normas y los hombres*. Diálogos hispánicos de Amsterdam, nº5, 1987, pp. 169-180 http://www.represa.es/represa_5_junio_2008_articulo1.html Azkenengo aldiz 2015ko irailaren 18an kontsultatua.

APÉNDICE

Entre los papeles conservados por el autor existe copia – que se transcribe – del contenido de la comunicación elevada el 15 de marzo de 1940 al Director General de Propaganda, exponiéndole para su rectificación o confirmación – en nueva redacción sistemática – las Normas entonces vigentes, con indicación de su fuente.

NORMAS DE CENSURA

1º Debe vigilarse especialmente lo que se refiera a juicios sobre el Alzamiento, suprimiéndose toda valoración desorbitada de la intervención de distintos elementos en forma que pueda dar lugar a desvirtuar el sentido unitario en lo militar y político.

2º Debe vigilarse asimismo cuanto pueda resultar molesto a las instituciones militares, civiles, eclesiásticas o políticas.

3º Lo que vaya contra el Régimen actual, inclusive en el sentido de la interinidad de los poderes del Caudillo.

4º Lo que ataque la constitución social de unidad del pueblo, de clases y de tierras.

5º Lo que contradiga el régimen económico de interés común.

6º Lo que pueda dañar a nuestra política internacional.

7º Cuanto ofenda al dogma y a la moral católicas, sin perjuicio de la debida tolerancia de las religiones protestante y musulmana.

8º Las interpretaciones el estilo de la F.E.T. y de las J.O.N.S. y cuanto se refiera a la Doctrina de los 26 Puntos con sus antecedentes y textos complementarios. (Hasta aquí normas de la Delegación de Salamanca sintetizadas y modificadas por oficio del Jefe del Servicio Nacional de Propaganda y Subsecretario del Ministerio de Interior con fecha 1º de septiembre de 1938).

9º Los idiomas regionales deben prohibirse cuando no sirvan propiamente a un mayor ambiente o a una particular mayor esfera de divulgación de los principios del Movimiento y de la obra del Gobierno (Oficio de la Subsecretaría 16 de marzo de 1939).

10º La circulación de libros de aquellos autores cuya *opera omnia* roce principios u orientaciones del Movimiento debe ser prohibida, sin perjuicio de la autorización de algún libro concreto que se muestre de acuerdo con los principios del Movimiento Nacional (Oficio del Subsecretario del Interior 16 de marzo de 1939).

11º El Escudo Nacional no puede ser modificado en forma alguna (Nota de la Secretaría Política de 30 de agosto de 1938).

12º Los textos de los discursos del Caudillo deben Confrontarse por el Laboratorio de Documentos, suprimiéndose lo que no concuerde (Nota de la Secretaría Política de 30 de agosto de 1938).

13º No procede autorizar los textos de carácter meramente ocasional de las circulares y programas de los primeros tiempos del Movimiento que estén en desacuerdo con los principios difundidos posteriormente. Se atribuye a la Jefatura de Propaganda la apreciación de lo que en cada caso proceda emitir (Oficio del Subsecretario del Interior de 13 de agosto de 1938).

14º Exención de censura de Boletines e instrucciones de tipo pastoral y parroquial (Orden comunicada por el Ministerio del Interior por oficio de la Subsecretaría de 28 de diciembre de 1938).

15º Para autorizar una glosa orgánica a los 26 Puntos, se deberá conocer el nombre del autor y resolver según establece el oficio del Subsecretario encargado de Prensa y Propaganda de 3 de abril de 1939 y nota interior de 8 de abril de 1939.

16º Por el solo hecho de tratarse de un autor que se considere desafecto al Movimiento Nacional y viceversa que se considere afecto, no puede darse dictamen desaprobatorio o aprobatorio respectivamente, sino prescindiendo de quien sea su autor, examinar libro por libro objetivamente. Cuando se trata de

autores cuyos nombres sean tan conocidamente contrarios a los principios del Movimiento que la aparición de sus obras en el mercado produzca escándalo o confusión, aunque se trate de libros que no tengan nada censurable, deben condicionarse a la observancia del más absoluto recato prohibiendo su exhibición en escaparate y puestos de libros, y su propaganda publicitaria. En todo caso, aun con esa salvedad, la sospecha de que en el autor pueda reconocerse responsabilidad exigible conforme al Decreto nº 108 de la Junta de Defensa Nacional, la concesión del permiso de introducción o venta de su obra obliga al Departamento de Censura a dar cuenta de ello a este Ministerio, para que a su vez, se comunique a la Junta Central de bienes incautados o al Gobierno Civil que corresponda (Oficio de la Subsecretaría de 12 de noviembre de 1938). Las obras científicas, de mérito relevante o de carácter singular, originales de autores enemigos de nuestro Movimiento, deben ser permitidas siempre que el nombre del autor figure en lugar poco visible (Oficio del Departamento de Ediciones de 28 de julio con la conformidad de la Subsecretaría). Se excluyen desde luego los libros didácticos de los que existan otros producidos por autores nacionales (Oficio de 10 de julio de 1939).

17º Todos aquellos editores rojos que hayan contribuido a la difusión de libros contrarios al Movimiento pueden quedar sujetos a las mismas medidas, es decir, no exhibición de los libros aunque se trata de autores no sospechosos y comunicación a efecto de incautación a los organismos respectivos (Oficio de la Subsecretaría de 12 de noviembre de 1938).

18º En los casos de responsabilidad de determinadas editoriales, propuestos con fecha 11 de marzo de 1939 sobre la Casa Maucci y Bauzá, la Subsecretaría aprobó el parecer de la Jefatura del Servicio para la aplicación del procedimiento previsto por la Ley de Responsabilidades Políticas (Oficio de la Subsecretaría de 16 de marzo de 1939). La Subsecretaría ha considerado al editor Bergua de manera especial como autor desafecto (Oficio de 19 de noviembre de 1938).

19º En cuanto a la difusión de biblias protestantes informó el Departamento de Ediciones en el sentido de que debe prohibirse, considerando que las organizaciones protestantes de la zona roja se declararon a favor del Frente Popular (Oficio de 28 de junio de 1939). Por orden verbal del Sr. Riveras de la Portilla se tendió a admitir la circulación y autorización de biblias por considerar los servicios que el protestantismo extranjero ha rendido al Movimiento Nacional. Por orden verbal del Sr. Ministro se prohíbe la publicación de biblias (Marzo 1940).

Hemeretzi arauak irakurri ondoren, eta garai hartan argitalpenen inguruan zegoen errepresioa ikusirik, argi dago ez zela lan erraza garai hartan zentsurari burla egitea. Artista eta idazle askok ihes egin beharra izan zuten beraien obrak askatasun osoz garatuak izateko. Beste batzuk, aldiz, herriarekiko konpromezuagatik edota etzutelako beste aukeratik izan, bertan geratu beharra izan zuten.

Azpitarragarria da baita ere testuinguru honetan Elizaren presentzia. Hala, Elizaren boterearen indarra garai hartako gai-zerrenden artean aurkituko da, eta obra bati aldeko irizpidea emateko orduan Elizaren irizpidea erabakigarria izango da. Francok, hortaz, Eliza katolikoari izugarritzko boterea emango dio. Botere hau, ordea, ez zen interes politikora barrik murriztu, arrazoi sozialek politikoak bezain besteko pisua izango

baitute. Izan ere, gehiengo katolikoa den gizarte batean Elizak konbentzitze gaitasun handia izango du, gizartearen zati handi bat erabat kontrolatuz.

Testuinguru honetan, beraz, nola argitaratu zezakeen bere burua garaiko Elizaren etsai definitzen zuen idazle batek frankismoaren aurkako lan bat? Txillardegik, Unamunok eta aldi hartan irakurtzen zituen autore askok moduan, argi zeukan garai hartako gizarte murgilduta zegoen konformismoaren lozorrotik esnatu beharra zegoela. Hau da, arimak astindu egin behar zirela, zirikatu. Alde edo aurka, baina berotu. Argi zeukan, euskara eta euskal kultura gal ez zedin zerbait egin beharra zegoela. Txillardegik, beste bide askoren artean, literaturaren bidea hartu zuen. Horrela, bada, Koldo Mitxelenak soldaduskan zegoela eleberri bat idazteko iradoki aurretik ere, hots, *Leturiaren egunkari ezkutua* kaleratu baino lehen ere, hainbat artikulu eta itzulpen argitara emango ditu Txillardegik.

3.2. *Leturiaren egunkari ezkutua* gai erlijiosoaren eta konpromezuaren deiarar sutsuaren arteko zubia.

3.2.1. Gai erlijiosoaren hautatzea

Ez dakigu garai hartan autore existentzialisten zaletasuna dela medio, modu inkontzientean edota kontzientean izan zen ala ez, baina ezin duguna ukatu zera da: atzera begiratzuz gero, gai existentzialistak hautatzea erabaki oso ona izan zela. Baina zergatik Txillardegik bere burua agnostikotzat izanik, *Leturiaren egunkari ezkutuan* jatorri kristaua duten existentzialisten eragina, existentzialismo ateoaren presentzia baino gehiago nabari da?

Lehen esan dugun modua, Txillardegik garai hartan euskalgintzak bizi zuen egoeraren aurrean zerbait egin beharra zegoenaren ideia beti izan zuen oso presente. Horrela jarraituz gero, euskara eta euskal kultura desagertu egingo ziren eta. Etsipen giro handian zegoen murgildua gerra ondoko Hego Euskal Herria. Baina zer egin egoera hau aldatzeko? Nola eman argitara bere buruan egosten ari ziren ideiak zentsura zelatan izanda? Argi zeukana zera zen: ezin zela modu argi eta zuzenean adiera eman, zerbait sinbolikoa izan behar zuela.

Juan Beneyto-k zentsuraren hemeretzi puntu nagusiak aurkeztu dizkigunean, gai erlijiosoek argitara emateko posibilitate gehiago zutela ikusi dugu. Hortaz, nahita edo nahigabe, *Leturiaren egunkari ezkutua*ren gai ezberdinen artean (lehen irakurketa batean Josebaren eta Mirenen maitasun historia dela uste izan arren), erlijioaren inguruko gogoetak presente izatea hautu bikaina izan zen. Ikusi besterik ez dago, *Leturiaren egunkari ezkutua* argitara eman zenean askok eleberri apologetiko baten aurrean zeudenaren ideia defendatzea. Deigarria suertatzen zaigun beste puntu bat euskararena da. Nola zen posible euskararen aurka zegoen erregimenak euskaraz argitaratzen ustea? Juan Beneyto-k zentsuraren bederatzigarren puntuan honako hau aditzera ematen digu:

9º Los idiomas regionales deben prohibirse cuando no sirvan propiamente a un mayor ambiente o a una particular mayor esfera de divulgación de los principios del Movimiento y de la obra del Gobierno (Oficio de la Subsecretaría 16 de marzo de 1939).⁷⁰¹

Horrela, bada, gai erlijiosoa izanik eta garaiko Elizaren dogmatismoaren aurkako iritziak modu zuzen eta irekian aditzera ematen ez zirenez gero, zentsurari burla egitea lortu zuen *Leturiaren egunkari ezkutua*k. Gauzak honela, ez zen kasualitatea izan Txillardegik existenzialista kristauei ateo baido protagonismo gehiago ematea. Lehen esan dugun moduan, gai erlijiosoak zentsurari burla egiteko gai egokia suertatzen baitziren. Eta horretaz gain, kristau existenzialismoan, edota hobeto esanda, existenzialismoaren aitzindari diren jatorri kristaua duten autore existenzialistengan (batez ere Kierkegaardengan), existenzialismo ateoaren ideia nagusien jatorria aurkitzen zirenez gero, Sartrearen ideiak modu zuzenean argitara eman beharrean, ikuspegi erlijioso ez dogmatiko baten bidetik Sartrearen ideia nagusienak argitara ematea posible suertatzen ziren. Hona hemen esandakoaren adibide batzuk.

3.2.2. Existenzialismoaren oinarriko kontzeptuen esanahiak Kierkegaardengan, Unamunorengan eta Sartreengan.

Lehen esan dugun bezala, “autentikotasunaren” ideia Sartrearena baino lehen Kierkegaardena da. Kierkegaardek, bestalde, bere pentsamendua azaldu dugunean ikusi dugun moduan, “bizimodu inautetikoa” edo “ez benetakoa”, *bizimodu estetikoarekin* identifikatzen du.

⁷⁰¹ Op. cit.

Txillardegiren xedea, aitzitik, lehen esan dugun moduan, Francoren garaiko konformismo sozial eta politikoa, erdi erosotasunak, erdi beldurrak bultzatuta, salatzea izango da. Hori dela medio, Txillardegik “konformismoaren” ideia Leturiak Mirenganako sentitu zuen liluraren sinbolopean garatu zuela erran dezakegu, hots, bizimodu estetikoaren baitan. Horrenbestez, frankismoaren baitan bizi zen konformismoa bizimodu estetikoarekin identifikatuko du Txillardegik.

Sartrek moduan, Txillardegik ere totalitarismoak Modernitatearen seme gisa ikusiko ditu eta, ez hori bakarrik, Modernitateak ekarri duen ustezko progresoaren, ekonomiaren azkartasunaren, teknikaren eta kontsumoaren zorientasunaren aurka altxatuko da. Izan ere, gizakia alienaziora bultzatu dituzten estupefaziente bikainak izan dira, gizakiaren ideia hutsaldua emanaz: “zirtzilkeria nagusitu zaigu, ordea; eta mundua gezur zalapartatsuz elikatzen da (omen!), lasaikeriarik lasaienetan”⁷⁰². Honen adibide Marilyn jartzen digu Txillardegik⁷⁰³. Itxuraz mundu honetan neska gazte batek amets egin lezakeen guztia lortu, eta bere asegabatasunean heriotzara eramango duen hutsa aurkituko duen emakumea baita Marilyn. Horrela, bada, Modernitateak eskaintzen digu zorientasunaren ideiak ez gaitu asetzen, Mirenek Leturia asetuko ez duen bezalaxe. Gure asetze mugagabea, hots, Absolutu gosea, asebetetzeko orduan elementu mugatuak hautatu ditugu. Alabaina, jarrera honek, estetengan bereziki ematen den jarrera honek (eta aldi berean “bizimodu inautetikoaren” ikur denak) alegia, ibilbide motza izango du; zeren eta Absolutua lortzeko ezintasunak “larritasunean” gehiago murgiltzea ekarriko baitigu.

3.2.2.1 *Larritasuna*

“Larritasuna” bestalde, ez da zerbait ezkor edo kaltegarri moduan ikusiko. Ez gaitu kietismora bultzatzen. Alderantziz, beste bizimodu batera jauzia emateko posibilitatea argitara ematen digu, hots, bizi dugun egoeraren aurrean matxinatzeko parada eskaintzen digu. “Larritasuna” “ezerezaren” aurrean sortzen den barne sentimendua izango da hortaz. Hau da, gure benetako izaerarekin aurrez aurre jartzen gaituena.

⁷⁰² Txillardegi. *Huntaz eta hartaz*. Donostia : Elkar, 1983, 66 or.

⁷⁰³ Txillardegi. *Marilyn'ek bere burua hil du*. In: *Huntaz eta hartaz*. Donostia : Elkar, 1983, 101-107 orr.

Gauzak honela, hiru pentsalariengan, hots, Kierkegaardengan, Unamunorengan eta Sartreengan “larritasuna” oinarrizko elementua izango da.

Kierkegaardentzat, ordea, gizakiaren benetako izaera bekatuzko izaera izango da. Eta “larritasunaren” bidez, Jainkoaren beharra sentitu eta gizakiak fedearen besoetara jauzi egiteko beharrezkoa duen sentimendua edo bultzada izango da. Unamunorengan, aldiz, “larritasun” hau “atsekabea” edota Unamunoren terminologia erabiliz “congoja” bezala definitua izango da. Hau da, hil eta gero arrazoiak ezer ere ez dagoela esaten digunaren eta bizi nahiaren (Spinozaren Conatus-a) arteko gatazkaren fruitua. Hortaz, Unamunok “bizitzaren sentimendu tragikoa” moduan definitzen duenaren oinarrizko elementua. Sarteren kasuan, aldiz, Jainkorik ez dagoenez gero, bizitzaren absurdotasunaren aurrean goragalea (kasu honetan, larritasunaren sinonimotzat hartu dezakegu) sentituko du. Hortaz, bizitzaren absurdotasunaren aurrean, gizakia aske izatera kondenatua egongo da, hots, bere burua eraikitzaera kondenatua dago. Izan ere, Jainkorik gabe ez dago aurretik emana den moralik, ez eta gure hautuak egokiak diren ala ez zedarrituko dituen araurik. Hortaz, gizakiak erabakiren bat hartu behar duen bakoitzean “larritasuna” sentituko du, zeren eta bera izango baita bere buruaren eta bere hautuen erantzule bakarra.

Leturiarengan ere “larritasuna” izango da lozorrotik esnatu eta bere burua aurkitzaera bultzatuko duen sentipena. Eta ez hori bakarrik, egunkaria idaztera bultzatu duena ere. “Larritasunaren” sentikizuna, hortaz, esan dezakegu, eleberri osoan Leturiarengan presente egongo den sentimendua dela. Hau da, hautu bat egin beharrak sortzen duen sentimenduaz gain, bere buruarekin edota bizi duen egoerarekin konforme ez dagoenaren sintoma ere izango da (eta, bide batez, egoera horri aurre egitera bultzatuko duen sentiera). Hori dela medio, eleberri osoa zalantzaz betea dagoen protagonistarentzat lagungarria suertatuko da “larritasuna”. Izan ere, bere baitan zituen aurreiritziak eta dogmak bistaratzen lagunduko dio “larritasunak”; eta, bide batez, bere burua definitzen, hots, askeagoa izaten.

3.2.2.2 *Askatasuna*

“Askatasuna” ikusi dugun moduan existentzialismoaren baitan ematen den beste oinarritzko kontzeptu bat izango da.

Kierkegaardentzat “askatasuna” bekatuzkotasunaren ikur diren desiren besoetatik ihes egitea erabakitzen dugunean berreskuratzen dugun elementua izango da eta honekin batera, benetan garena definitzeko ezinbesteko tresna. Unamunorentzat, aldiz, “askatasunaren” posibilitatea, bizitzaren atsekabea edo “congoja” onartzen dugunean emango da. Sartrek, bestalde, Jainkoa existitzen ez denez gero, gizakia aske izatera kondenatua dagoela esaten digu, hots, nor garen definitzera derrigortuta gaudela. Hori dela eta, hiru pentsalariengan “askatasuna”, norberaren benetako izaerari, hots, “autentikotasunari” hertsiki lotua azaleratzen dela esan dezakegu. Gizakia zenbat eta askeago izan, orduan eta “autentikoa” izango baita.

Leturiaren kasuan, aldiz, eleberriaren bukaera irekia dela medio, ezin dugu ziurtasun osoz ondorioztatu erabateko “askatasuna” bizitu zuen ala ez. Baina hartu dituen erabakiak bere barrenetik sortuak izan direnez gero (eta ez kanpoko esanei kasu eginez), bere burua bere irizpide propioen arabera definitzen joan da. Horrela, bada, nahiz eta “askatasun osoa” lortu zuen ala ez ezin dugun ziurtasun osoz baieztatu, konkluitu dezakeguna zera da: eleberriak aurrera egin hala, “askatasun” maila handiagoa lortzen joan dela gure Joseba.

3.2.2.3. *Autentikotasuna*

Gero eta “askatasun” handiagoa lortzeko gakoa, bestalde, barne ahotsa modu apal eta zintzoan entzutea izango da. Hargatik, neurri handi batean, ausarta izan da gure Leturia, bizi duen alienazio egoerak azaleratzen dion “larritasunari” ez baitio uko egin. Ez du “fede txarrez” jokatu, ez du bere burua engainatu. Bere izaera mugatua onartu egin du. “Autentikoa” izan da. Eta kanpo iritzi eta aurre iritzi guztiak alde batera utzi eta bere bidea jarraitu du, horrela bere burua (eta bidez Jainkoa) aurkituko duen ustean. Nahiz eta hasiera batean bide hau modu berekoian gauzatu, azkenean, Miren gaixo dagoela jakiten duenean, bere burua transzenditzea lortuko du Leturiak. Ez ordea Kierkegaardek eta Unamunok proposatzen zuten fedearen bidea segituz, giza existentziaren baitan

baino. Hau da, humanismo bat bistaratuz. Sartrek planteatzen digun humanismo existentzialaren oihartzunak izango dituen humanismo bat alegia.

Hortaz, Leturia agnostiko dugu. Berarentzat Jainkorik baldi bada “ezerezaren” aurrean Jainkoa egoteko nahiaren emaitza izango da eta ez du guretik at existentzia propiorik izango. Jainkoa, beraz, gure desiren fruitua izango da. Horrenbestez, Leturia ez da Abrahamengan eta On Kixoterengan aurkitzen ditugun “fedearen zalduna” izango. Kasu honetan gure Leturia Santxo izango da (Santxok une batzuetan irrazionalitatea besarkatu arren, arrazoiaren paradigmatzat hartua izan da). Leturiak, Santxok moduan, fedea zertan datzan ulertzeko gai izango da. Hau, da, fedearen esentzia nahi dugun horrekiko (edo existentzia izan dezan horrekiko) erabateko konpromezua eta arrazoi oren gainetik modu apasionatuan sinistea dela ulertuko du. Baina esan dugun moduan, Leturia ez da fedearen edo bizimodu erlijiosora jauzi egiteko gai izango. Ez du irrazionalitatea besarkatuko. Arrazoiaren eremuan geratuko da. Kierkegaardek planteatzen digun bizimodu etikoan alegia. Baina ez modu hertsian ulertuta.

3.2.3. Kierkegaarden bizimodu etikoa eta Sartrearen humanismo existentzialista.

3.2.3.1. Etika existentzialaren izaera objektibo eta subjektiboa

Kierkegaardek *bizimodu etikoa* Absolutuaren hautatze moduan deskribatzen digu eta gizabanakoak oraindik Jainkoaren existentziaren kontzientzia ez duenez gero, hautatuko duen Absolutua bere burua izango da. Honetaz gain, gizabanakoak *bizimodu etikora* jauzi egiten duenean “ongiaren” eta “gaizkiaren” arteko ezberdintasunaren jakituna ere izango da. Eta bien arteko hautua egiteko “askatasun” dunenez gero, “ni-eginkizunean” bilakatuko da. Oinarrizko hautataketa hau egin ondoren, “niak” datu huts bat izateari utziko dio eta betebeharreko eginkizunean bihurtuko da. Hala, egingo ditugun aukeraketen bidez definitzen joango da bere izaera, hots, nor den.

Planteamendu honek, bederen, Sartrearen ideia gogorasten digu. Egia da Sartrek ez duela Jainkoaren existentzian sinesten, baina Kierkegaarden *bizimodu etikoan* ere gizakiak oraindik ez du kontzientzia erlijiosoa izango. Hortaz, antzeko testuinguruan aurkitzen dira bai Sartrearen gizakiaren ideia, bai Kierkegaarden gizaki etikoa.

Gainera biak dira “ongiaren” eta “gaizkiaren” jakitunak. Izan ere, ez dira kanpotik emanak izango, bere Absolutu ideia, hots, norbere burua hautatze absolutuaren arabera norberaren baitan sortuak izango dira. Honetaz gain, bi pentsalariengan ere, betebeharrak arrazoiaren eremuan ematen dira. Hortaz, bakoitzari modu argian eta ulergarrian eratoritzeaz gain, gainontzekoentzat ere ulergarriak suertatzen dira.

Eta hau gutxi ez balitz, bi pentsalarien artean “ni-eginkizunaren ideia” ematen da. Izan ere, bai Sartreentzat, bai Kierkegaardentzat azken finean gure hautuen emaitza gara.

Baina nola hartu une oro erabakia? Hots, zer irizpideren arabera emango dira gure hautuak? Gizakia esan dugun moduan “ongiaren” eta “gaizkiaren” jakituna denez gero, beti jokatuko du zintzoki. Izan ere, zintzoki ez jokatzeak “inautentikoa” izatea suposatzen du (bai Kierkegaardengan, bai Sartreengan), hots, norberaren burua engainatzea (eta, era berean, atsekabeen gehiago murgiltzea). Honetaz gain, hautua egiten dugunean garrantzi handia izango duen beste elementu bat azaleratzen zaigu. Hau da, “bestearen” ideia.

3.2.3.2. “Bestearen” ideia humanismo existentzialistaren oinarritzko elementua.

Nahiz eta Sartreengan argi ikusi “bestearen” ideia (Sartrearen ontologian oinarritzko elementua izango da “bestearen” ideia), Kierkegaardentzat senarraren irudia alderdi berekoia alboratzearen ikur izateaz gain, “besteak” ere kontutan hartzen dituen jarrera moduan definitua izango da. Ikuspegi honetan, aitzitik, Kierkegaarden maitasunaren ideiak zeresan handia izango du.

Kierkegaarden maitasunaren ideiak, bada, “Maitatu lagun hurkoa zeuen burua bezala...” mandamendua du esakunetzat. Hona hemen zer dioen M. Holmes Hartshorne-k *Kierkegaard, el divino burlador* lanean Kierkegaarden maitasunaren ideari buruz:

Kierkegaard comienza su análisis sobre el amor con el conocido mandamiento: Amarás a tu prójimo como a ti mismo. Como a ti mismo. Esta es la clave que Kierkegaard presenta, porque supone que todo ser humano se ama a sí mismo, y de ello extrae como consecuencia que conoce a la perfección lo que exige el mandamiento. Si rehusamos aceptar las demandas del amor y nos excusamos de amar a nuestro prójimo afirmando que no comprendemos del todo qué significa

“amarás a tu prójimo”, llegamos de inmediato a las palabras del mandamiento “como a ti mismo”.

Todos saben que se aman a sí mismos, que, cuando llegue la hora, protegerán su derecho inalienable a ser reconocidos y aceptados como personas, como seres humanos. Esto nos concierne a todos. Cuando alguien se burla de mí o me causa algún daño, me siento ofendido, y mi carácter de persona se ve rechazado.

En realidad, mi personalidad está siendo violentada y negada. El otro *debe* tratarme como una persona, reconocer mi derecho a ser yo mismo y a aceptarme como lo que soy: su prójimo. De hecho, él debe ser mi prójimo, aunque de ello no se infiere que la otra persona esté obligada a apreciarme o a ser mi amigo. No está obligado a tenerme afecto o a invitarme a cenar de cuando en cuando. Y, sin embargo, debe amarme, es decir, tratarme como la persona que soy y convertirse así en mi prójimo. Yo sé que lo merezco, aunque no debido a mi bondad, inteligencia, o posición, sino por la sola razón de que yo, a pesar de todos mis defectos e imperfecciones soy un ser humano, una persona por derecho propio. En última instancia, los demás deben amarme como yo me amo a mí mismo: como un ser humano.⁷⁰⁴

Kierkegaarden *bizimodu etikoaren* planteamendu honek, alabaina, ez al digu Sartreren “askatasunaren” eta humanismo existenzialistaren oinarrizko planteamenduak gogorazten?

Bi autore hauek ikusita, existenzialismoak planteatzen duen etikaren baitan bi ezaugarri ematen direla ondorioztatzen dugu. Lehena, gizabanakoa askea denez gero, bere hautuen arabera definituko du bere burua, hots, nor den. Hori dela eta, planteamendu honetatik etikaren bigarren ezaugarria ondorioztatzen dugu. Hau da, bere betebeharrak eta hautuak berak erabakiak direnez gero, ez dira kanpotik emana izango, bere baitatik, bere “kontzientziatik”, sortuak baino. Planteamendu hau ikusita, hortaz, Sartreren *Existenzialismoa humanismo* bat hitzaldian ikusi dugun moduan, ez da harritzekoa suertatzen. existenzialismoaren baitan gizabanakoaren izaera subjektiboari egiten zaion gorazarrea dela medio, berekoikeria bultzatzen duen pentsamendutzat hartua izatea existenzialismoa.

Egin zaizkion erantzuki batzuetatik nahi nuke defendatu hemen existenzialismoa. Lehengo eta behin aurpegira bota izan zaiona zera da, desesperantzako kietismo batetan irautera gonbidatzen duela jendea, zeren, irtenbide guztiak itxita badaude, mundu honetako ekintza zeharo ezinezkoa dela kontsidera liteke eta azkenek filosofia kontenplativo batetara jo, horrek, gainera, kontenplazioa luxu bat izanik, filosofia burges batetara garamatza. Hauek dira batik bat komunisten destainak. Bestalde, giza ignominia azpimarratzea aurpegiratu digute, denean zikinkeria erakustea, uherra, liskatsua, eta edertasun irrikor batzuetaz, giza izaeraren alde argitsuetaz arduragabetzea; esatebaterako Mlle. Mercier-en arauera. kritika

⁷⁰⁴ Holmes Hartshore, *M. Kierkegaard, el divino burlador: sobre la naturaleza y el significado de sus obras pseudónima*. Madrid : Cátedra, 1992, 103-104 orr.

katolikoa, hauraren irribarrea ahaztea. Batzuek eta besteek solidaritateari faltatu diogula botatzen digute aurpegira, gizona isolaturik dagoela kontuan hartzea, gainera gehienbat subjektibitate hutsetik abiatzen garelako, diote komunistek, hau da, "je pense" kartesiarretik, beraz, gizona bere bakartadean atzitzen den unetik, zeinak, ondorioz, nigandik kanpora dauden eta "cogito" -an atzi ezin ditzakedan gizonenganako solidaritatera itzultzeko ezgai bihurtuko gintuzteke.

Eta alde kristautik, giza ekintzen errealitatea eta seriotasuna ukatzea botatzen zaigu aurpegira, zeren Jainkoaren aginduak eta betikotasunean inskribitutako baloreak kentzen baditugu, dohaintasuna besterik ez da geratzen, bakoitzak berak nahi duena egin dezake, bere ikuspuntutik besteen ikuspuntuak eta egintzak konde- natzeko gauza ez delarik.

Arbuio ezberdin hauei erantzuten ahaleginduko naiz gaur; horigaitik "Existenzialismoa Humanismo bat da" titulatu dut azalpentxo hau.⁷⁰⁵

Baina azaldu berri dugun moduan, ordea, etika horren baitan bada inplikazio transzendentala duen elementu bat. "Bestearen" ideia alegia.

Kierkegaardengan esaterako, "Maitatu lagun hurkoa zeuen burua bezala...." mandamenduaren lemapean argitara ematen da. Sartreren kasuan, aldiz, klabea zera izango da: guk gure burua erabakitzen dugunean badugu giza eredu ideal bat. Eta ez hori bakarrik, Sartreren ontologia aztertzen dugunean aditzera ematen den moduan, besteen garrantzia ezinbestekoa dela ohartzen gara. Hau da, "nitaz" edonolako egia bat lortzeko, "neu" bezain premiazkoa zaio "bestea" nire existentziari. Neure identitatearen aurkikundeak, hortaz, "bestea" deskubritzeko posibilitatea eman dit, nire aurrean kokatutako askatasun bat bailitzan. Hori dela medio, intersubjektibotasunaren mundua estalgabetzen zaigu. Horrenbestez, mundu horretan erabakitzen du gizakiak "bera" zer den eta "gainontzekoak" zer diren.

Konprometitzen den gizonak bere burua aukeratzearekin batera gizadi osoa aukeratzen du. Eta legegile dela ohartzen denean, ez dio ihes egingo bere erantzukizunari. Sartreren maxima edo esakunea, hortaz, honako hau izango da: zer gertatuko litzateke mundu guztiak honela jokatuko balu? Ez dago prentsamendu kezkarri horri ihes egiterik, zeren gainontzean fede txarrez jokatzen ari da gizakia eta inautentikotasunean erortzen. Kierkegaarden kasuan, aldiz, arestian aipatu dugun "Maitatu lagun hurkoa zeuen burua bezala...." mandamendua izango da bere maxima.

⁷⁰⁵ Sartre, Jean Paul. *L'existencialisme est un humanisme*. Euskaraz: *Existenzialismoa humanismo bat da*/ Jean-Paul Sartre ; Juana Atxabal-ek euskaratu eta irazkindua. Kriselu, Donostia : 1988, 61-62 orr.

Leturiaren kasuan, Miren gaixorik jartzen denean eta bere beharra duela aditzera ematen dionean, Leturia ohartzen da Miren maite duela. Kasu honetan, ordea, maitasuna ez da berekoia izango, baizik bere “nitasunaren” gainditze gisa ulertuko da (transzendentzia immanentea, ez erlijioso). Horrela, bada, Parisera joatea bultzatu zuen jarrera berekoia alde batera utzi, eta Mirenengana bueltatuko da ezkontzaren baitan benetako senarraren rola betetzera. Baina burutze hau ez da senarra izategatik kanpotik inposatua den betebeharra izango. Maitasuna izango du oinarriztat eta bere baitatik sortua izango da. Leturiarentzat maitasunak, hortaz, norberaren buruan bakarrik pentsatzeari utzi eta besteak, gainerakoak, zerbitzatzea esan nahiko du. Kierkegaardek *bizimodu etikoaren* eredu gisa jartzen duen senarraren irudia alegia.

Hala, Kierkegaarden “Maitatu lagun hurkoa zeuen burua bezala....” mandamenduaren eta Sartrek planteatzen digun “*zer gertatuko litzateke mundu guztiak honela jokatu balu?*” esakunearen eroale dugu Leturia. Sartrearen planteamendu hau, bereziki, Leturiak aberriari erreferentzia egiten dionean bistaratuko da. Hau da, Leturiak “Miren’ek bear nau; nere aberriak bear nau; nereak behar naute..” 139 or) esaten duenean. Izan ere, ez ahaztu *Leturiaren egunkari ezkutua* frankismoan argitara eman zen eleberria dugula. Horrela, bada, Sartrearen esakunde hau kontutan hartzen badugu: zer izango zen bada gaur egungo Hego Euskal Herria frankismoaren diktaduraren aurrean guztiak jarrera pasiboa izatearen hautua egin izan balute? Istant honetatik aurrera, bada, maitasuna eta besteak zerbitzatzea izango dira Josebaren xede nagusienak eta ez Jainkoa, Absolutua, bilatzea.

Horrenbestez, laburbilduz, *Leturiaren egunkari ezkutuaren* baitan dagoen ideia esplizitua honako hau dela esan dezakegu: Absolutuaren edo Jainkoaren existentziaren ezintasunak sortzen duen absurdotasunaren aurrean, Modernitatearen “ustezko” zorientasunak alienaziora bultzatu gaitu. Alienazio honek, ordea, ez gaitu asetuko eta lehenago edo berandua, gure benetako izaera azaleratuko da berriro. Hau da, ezereza (frankismoaren kasuan, beste gauza askoren artean, askatasunaren, euskararen eta euskal kulturaren galera). Horrela, bada, geratzen zaigun gauza bakarra benetako izaera (egoera) onartu eta egoera horren aurrean matxinatzea (jauzi egitea) izango da.

Hori dela eta, kietismo batean murgildu ordez, gure bizitzaren agintea berreskuratzeko deia egiten digu Txillardegik, horretarako “askatasunaren” dimentsio erradikala

azaleratuz. Hau da, guda osteko testuinguru historiko, politiko, ekonomiko eta sozialak pisu handia izan arren, bakoitzaren “hautuaren erabakimen askeak” duen eraldatze gaitasuna bistaratzen saiatu zen Jose Luis. Horrela, frankismoan (eta gertakari historiko-sozial-kultural orotan) bizi zen egoeraren ikusle pasibo izateari utzi, eta gatazkaren parte eta epaile zirenaren kontzientzia piztu nahi zuen garaiko euskal gizartean. Hargatik, “konpromezuaren” aldeko deiadar sutua egiten digu Txillardegik. Norberarengandik hasi eta maite eta sinisten dugun horretan gauzatuko den engaiamenduarena alegia. Horrenbestez, hau izango da *Leturiaren egunkari ezkutua*ren azpian dagoen arima existentzialista, hain zuzen ere, Txillardegik bere bizitza osoan oso presente izan zuena.

Sartrearen «authenticité»aren aldeko dei sutuek ere, konpromezu politikoak hartzera bultzatu gintuzten. Eta laburki, hitz gutxitan, neure burua orduan definitu behar izan banu, honelako zerbait erantzungo nukeen, ustez eta nahikundez bederen: «Ni existentzialista abertzalea naiz; eta intelektual konprometitua, *engagé* frantsesez». ⁷⁰⁶

⁷⁰⁶ EHH, 140 or.

ERANSKINAK

*[Koldo Mitxelena eta Txillardegiren arteko elkarridazketa]
[Eskuizkribua]*

Luis Zabalak, Berria-n 2006ko urriaren 27, 28 eta 29an, argitaratutako artikuluak. In: <http://www.berria.info/dokumentuak/dokumentua880.pdf>

JOSE LUIS ALVAREZ EMPARANZA

AVDA. ZUMALACARREGUI, 5, 1.^o
(Ondarreta)

SAN SEBASTIAN

Teléfono 2-11-05

Mikelena Jaumari:

Barkatu ausardia.

Euskeraren galera biotz-muinean sentitzen dugunok beti euskerari buruz itzegin behar. Zoritxar aundia, alegia, baina orotan danok bat etorri arte, ezin joan aurrera irmeki.

Estabrida aundiak izan ditugu Bilbo eta Donostia-ko euskaltzale batzuk: garbina jo bear dala, orrex eta mordollora obe dala konplejsak itzuko... Nik, berriz, "ez bat eta ez beste" or esaten dedan bezela.

Nere aburua artikulu baten bidez ezaguarazteko esan nien, eta orra nere orri.

Inakurtzeko betarik ba duzu, zure iritzi jakin naito nuke artatz. Batzuk ala uste arren, ez dut nik nere burutik mintzo nai: zure baiespena, bada, balio aundikoa liteke neretzat.

Eta nere euskerari, berriz, txarna ba deritzazu, esatea gusetateko litgaidake.

Soldauzkara noala-ta, ez dut zure klareetara geiagotan joaterik itango.

Dana dala, eskarrik asko aurretik eta azaroak arte. Agur!

joan

Ferrail 1956 Maiatzak 24

L. Mitxelena jaunari.

Nere adiskide ori:

Eskutitz baten bidez ain mazalkiro nere artikulua erantzun zenuenean, zuetzaz eta orko auziez "ez arztutzeko" eskatzen zenuidan. Etxean, alegia, eskatu-beharrik. Eta, bateko, arzu ez naizela adieraztera dijoakizu nere eskutitz au. Orretaz gainera, euskaltzale guzion mindura nolerebait legutuzeko balio ba du orok ere, ondo bano soto.

Au eginaz, besteke, zure eskutitza erantzun, eta nere zorra kittatzen dut.

Ez ditut, alegia, orko auziak eta korrikabideak arzu. Ondo auznean ditut, ostera: orixe ba nengo bezin agiriko ta minkor. Etxaitzela orregatik beintzat larri...

Zen ~~eratarra~~ oroitzen naizen ondo dakizu, nere artikulua edo delako artan argi ta garbi azaltzen bai-nuen nere iritzia. An esaten zenari lotuta nabil, eta ez dago arritzekorik onetan, biotzez eta arnazoiez defenditzen bai-nituen, an azaltzen ziran aburu guziak.

Ortaz, Arzkue'ren "Morfologia" ikas-

ien ari naiz, ta asko ikasi diteketa uste dut. Liburu bikaina da, ta Konfiantza aundikoa, Azkue noiz edo lein garbizale xamarra ba da ere.

altube'ren "Enderismos" ezagutzen dut, aspaldizunik ikusitakoa, eta Azkue'ren "Morfologia"kin euskerari buruz idatzi diran bi liburu onenak irakurri uste ditut.

al dudan neurrian irakurtzen dut euskeraz: bi orduz egunean gutxi gora-bera. Ez daukat, noski, liburuaketa aundirik nerekin; baina ona deritzat dudan gutxi orri.

"Otoitz-Gaiak"kin ari naiz: bigarren tomoa arztenturik, irugarrenari eman diot orain dela egun batzuek, eta esko aurreratzen ari naiz mundiburu'ri esker.

Agirre'ren "Platikak" ditut eman ere, Irigoien'ek utziak, baina ez dut uste, euskerari buruz, Agirre mendiburu'ren saillean jar ditekunik. askoz ere moldo-llago ta motelago arkitzen dut.

Mogel "txiki"aren liburu bat ekarri dut ere, on xamarra. Juan Antonio'ren zer-bait lortu nai nukean, baina aituta dago dema, ta alhevrik ~~Zen~~. Au, gainera, G. arriek gipuzkeratua dago, ta aisago

② irakurtzen da onela. (nik beintzat)

Laffitte-ren liburuxka batek osatzen du euskerazko nere liburutegia. Eskaxa deritzeazu, ezta?

Mendiburu'zale naiz, geroz ta garitsu-ago. Axular eta Anibarro' ezagutzen ditut, jirka hit badere, eta J.A. Magel ezagutzeko goga dut, aiengan ditugu-ta, nik uste, euskal idazlerik bikainenak. Euskerari buruz, noski. (Literatura'ko lanak bezela, orretoreren izkribu kaxkariak dirala ezin uka, ta nusk beintzat ez ditut alde orretatik asko gorai-patuko).

Edo-ta, Mendiburu-ren euskerari buruz, lanxo bat egin naiko nuke; banan ez nago gertuta. Ez dakit ezer, eta (au gogorra!) ez ezertaz ere... Eta jakin-biderik ere ikusi ez....

Bestela gogoz egingo nuki bait, eta egingo ere dut agian, orretarako berez dudan ausardia lagun izanik. Au duzu lenbiziko nere amoa.

Bigarrena, Donostia'n euskerazko Klare bat ematekoa duzu. Baldintza batzuek dardre au bete al izateko, ez bai-dakit ezer oraindik nere lanaz, ezta Donostia berean geldituko naizentz ere. Bestela

bai, ta pozik alere, bear aundia bai-dago,
 ta nere jakindeari falta zaiona, euskera-
 ganako nere suak beteko luke. "Enderis-
 mos" liburu uts-utsa artuko nuke oriarri,
 ta orri buruz emango nituzke ikas-gaiak.
 Eta ematen ari bana lenago, nere progra-
 ma zuzentzeko edo ontrat emateko eska-
 tuko nizuke. Gauza batzuek altubeik
 bana luzarago ikusi bear dira: "indeter-
 minado" a, esate baterako. Ikusiko dugu
 zer gertatzen den ontraz: ezin esan
 oraingoz.

Irugarren asmoa, eta au dugu dene-
 tan izkutagarri ta lotsagarriena ere agian,
 nere deia idaztekoa den ezkerre, liburu
 bat (!) idaztea erabaki dut. Au arropuz-
 keria! Ez naiz txikikeritan ibilli, ta
 dagoeneko lanari ematen ari nartzai.

"Pan" (Knut Hamsun'en liburu) us-
 tatzeko asmotan nentillen, eta erabaki-
 ta nuen soldadutzan itzultzea. Bana zu-
 ri eskerrak, ta esanbear onetan oz dago
 lausenga ta zurikeririk batere, itzuli bear-
 rean neronen burutik aterabako liburu
 bat sortzeko asmoa otu zitzaizten.

Lebizia, eta au ezin besterzko gauza

(3) Irde-da, bildurra nuen : nola egingo nuen nik, orretarako batere prestakerarik ez dudan onek, liburua bat?

Baia, nure zaletasunak alde batetik, eta euskeraren gabeak bestetik, ausar-erazi ninduten, eta emen naukazu egitekoan arrais sartuta. Soldadutza bukatu baino lengo burutuko dudalakoan nago.

Berabada, ta au gertatuko zait noski ez du ezer balioko besteentzat nere sarak (otr, berez); baina onela gertatuagatik ere, nerontzat arko balio dezake berak, euskeraz ni jabetzeko beintzat balio dit - eta.

Novela bat da liburua, egunkari edo "memorias" gisan idatzia. Egunkariaren idazlariak neretzko zerbaite dulenik ez dut ukatuko.

Existenzialismoaren auzia izango da liburuarren mamia : "aukera-mina", edo "angustia de elegi" nola esan ez dakit. Ez ni mindu, arren, modake berrikeriagatik aukeratzen dudala pentsatuz : ez, milla bides.

Ez da filosofiki idatzia izango, tarteka-marteka balizik; eta agian, irakurriko duten batzuek ez dute liburuarren gitarra sumatuko.

Au izango da liburuaren aria edo ildoa.
 Barne-utsa nabaitzen duen batek (Joxeba
 izenekoa) naturalezaren bidez idorotzen du
 ordurañoko bere bizieraren ezer-eza; ta ea
 ustekabez, ideal batez maitemintzen da.
 (Neska bat izango da liburuaren onen orde-
 karia)

Elburu edo ideal onetan jartzan du gar-
 teak bere itxaropide ta zorian-uste guztia;
 ta neska lortu artean, biziago egiten zaiz-
 kie berakiko esperantzak. Zati onetan ager-
 tuko dira izan-ezaren kezkak, gabe ta pre-
 miaren larriminak.

Gero, neska (edo elburua) lortuta,
 lorturik eukitzeko larri-mina nabaitzen du
 Joxeba'k, eta orduan arkitzen du leneko
 bere aukeratzearan deus-eza, onarrigea, ta
 zoriaren jostallua izan dela, ta orotatik
 datorkiola ain zuzen xedez nastutzea,
 ta biotza ase-ezina.

arrazoia billa-bidetjat arturik, pen-
 tsatzen asten da, baina ea du ezer
 argirik ikusten. Geroz ta ilkunago da-
 kus bere Bidea, bere absolutoa, ta larri-
 -min batean erortzen da.

Itilli nai du, itilli bean du, baina
 ez dakus ezer; zentzu autatu nai du,
 ta zentuak ez diotsa ezer, izua baizik.

(4) arrazoi gidari motxa dela konturatzen da illunaldi orretan, eta biotzez fidaturik, bere burua eskeri, eman nai du; ta zoriontasuna ta Jainkoaren borondatea nor-bere burua ematean datzala aurkitzen du.

Ez ditugu gauzak, presunak eta elburuak deitu bear, edo arrazoi otzaren bidez bilatu: au berekoikeria da, arrokeria, ta alperrikako hillaera. Gauzak dira, gureon bidean azalduz, gu deitzen gaituztenak. Aiei erantzun bear, zoriontu ta bidezko izango ba gera. Aiek dira gure mundua, gure eginkizuna, ta gure buruaran aukeramenai nai-ta-ez mugatzen eta baldintzen dutenak. Arrazoi utsak ezin da gike ezor.

Eta bere elburuuntz abiatzen denean Joxeta, iltzen da.

Ez duzu beartate asko ulertuko; banan bost ajola: ez du eiki pena murezi. Ta murezi ba du ba, idatzia dagoelanean inakurrikoduzen, nai izan ezkerio.

Euskaltzaindiak Txapelketa bat antolatzen ba du-edo, antara bidaliko dut: bidaltzeko ez daukat, ez alkerik, ez bildurik ere.

Ikus dezakezunuz, ez dut, ez, euskeraren aurria aratu; beti bezin prest

nago, aren alde alik zinkiena lanegitako.
 Gaurza bat gerta dakidake gure ure,
 ta oro txarra: asmotan geratzea nere as-
 moak. Orain arte ez dago arriskurik, ta-
 na....

Ez bedi ala gerta, Jainkoarri!

Ta besterik gabe, ta orko euskaltzaleai
 niketz goraintriak emanik, eta kendu
 dizudan denboragatik barkatzeko eskatzen
 dizudala, antzazu nere agur berotsu
 bat.

forcedun,

P.D. 1: Ez geiegi zabaldu nere asmo aukerak:
 lotsatu egin nazakete gero lurjotze ta fra-
 kasoak.

P.D. 2: Azkue'ren "Iztegia" erditxi naiko
 Ez al dakizu bertik lor dezake-
 dan?

for

for kien Alvarado Orparrua
 Arde leun...
 5

57

JOSE LUIS ALVAREZ "TXILLARDEGI"ri

Ferrolera
Donostian, 1956-VII-4

Ene adiskide ori,

Biziro poztu ninduen zureak, eta an agertzen dituzun asmoak. Irakurri nien emengo adiskideei eta denon izenean erantzuteko lana eman didate. Or dijoakizu, beraz, labur bederen.

78

KOLDO MITXELENA. EUSKAL GUTUNAK (1951-1984)

Esan nizun noski *Eganen* bi zenbaki dauzkagula inprentan, eta bata beintzat egun gutxi barru irtetekotan. Orien ondorengoan joango da zure artikulua, ontzat eman baitute argitaratzea. Badago premia.

Etzaitzela J.M. Mogelengatik kezkatu. Uste nuen nik bazenekiela luzaro gabe argitaratuko duela... *Peru Abarka*. Agertua bear zukean izan, baina nola-nai ere ezto asko luzatuko. *Peru Abarka* dena osorik dator, azkeneko iztegi ta guzti. Baina...izketaldi bat eta azken aldean dakarzkien itzulpenak bakarrik gelditu dira sartu gabe.

Eztuzu maisu txarra aukeratu... Gaiez, egia esan, etzait geiegi atsegin, baina izkera ezin ohea darabil. Orobat diot Azkuez eta Altubez. Oar bat, orratik. Azkue- ren Morfologian Bizkaiko aditzarekikoa ezta, nere amak esaten zuen bezala, gai- nerakoa bezain fiabile”, ezpaitakar Bizkaiko aditza, bere burutikakoa baizik. Liburu orri zenbait gauza gaiñeratu zizkion Altubek, bere *Observaciones al trata- do de Morfología Vasca* de D.R.M. de Azkuen, aditzaz batez ere. Liburutxo ori Euskaltzaindiak argitaratua da, eta Irigoyenek lortuko lizuke.

Gero erantsi zion eraskiña, berriz, *Al verbo guipuzcoano*, oso ona da eta jato- rra da.

Beste paper batean esaten dizut zer edo zer Mendibururen euskerari buruz egin zenezakean –ongi bazenirizkio– lantxo erraz batez.

Bigarren asmoa oso ederra da eta gure aalegiñean lagunduko genizuke.

Irugarrena azkenik. Ori da ederrena eta –pozarriena. Itzulketak utzi eta zure baitarik ari nai duzulako, leenbizi; novela artu duzulako mintzabide, gero.

Eztidazu neri esan bearrik etzabiltzala berrikeri billa. Gaurko euskaldunak, gaurko edozein lekutakoak bezalaxe, gaurko gaiak bear ditu erabilli. Eta zuk ere gogoko duzuna aukeratu bear, ezer egingo baldin baduzu. Lan ortatik bi on atera- ko ditugu gutxienez: bata, zure gaitasuna lantzea, eta bestea euskera-bide berri batetik abiaraztea. Eta saio ori ezta bear bada zuk beldur zeran bezala kaxkarra izango: ori da nere ustea. Eta etzaitzela beintzat pot egiteko beldurrez gelditu. Gazteari dagokio ausarta izatea: gaztea ausartzen ezpada, nor ausartu? laurogei urteko agureak?

Eztu entzun oraingo orrelako asmorik Euskaltzaindiak duenik, baiña nolanai ere aurkituko genduke bidea leenbaileen argitaratzeko. Nai bazendu, jakiña, pozik irakurriko nizuke. Eta zure asmoen berri ezto gutaz kanpora iñork jakingo.

Azkueren iztegiari buruz, zoritxarrez, ezto oraingo biderik ikusten.

Eskerrik asko zureagatik eta badakizu non gauzkazun. Enauzu batere karta- zalea, baiño merezi duen gauzak merezi du. Biotzez.

Gai au erderaz labur eta zeatzago adieraziko dizut noski, eta erderaz noakizu...

79

In: http://www.errenteria.net/eu/ficheros/57_17813eu.pdf Azkenego aldiz, 2015ko urriaren 12an kontsultatua.

José Luis Alvarés Emparanza
CALVO SOTELO, 33-2.
EL FERROL

Ferrol'en 1956 Dagonillak 30

Luis Mitxelena jaunari.

Ere adixkaide ori:

Emen naukarazu soldadutzaren bukaera irrikitzen, eta
naiko ta sobera alpena bihurtzen...

Alere, al dudana egiten dut euskeraren alde, ta du
utxi edo aaztu dudarik ezin esan ditek. Aspue'ren
"Morfologi" ikasten ari naiz, arken bolada onetan ferda,
ta Agirre'ren "Erakusaldiak" irakurtzen. Ori egiten dut
gutxi gora-bea.

Egia esan, ori ta uzagutzen duzun idaz-lana: nere
arrebarek ekiten diot, eta gauza kaxkana aterako ba. Zait ere
ez dut eginkizuna utriko.

Orretzarz gainera, artikuluren bat idatzi dut, eta
onekin bidaltzen ditut Buda'ri buruzkoa. «Egan»ren sar
ba ditek, ondo; ta barregarri ez dela ba deritzazu, po-
zik ni ere: ez larritu egia utza esateko. Orain oqita
buruzaren mendeuzena ospatzen dela ta, interesantea

delakoa artu nuen gai ori.

Zoritzarrez, ezin joan naitela Arantzazu'ra. Baña nolanda ere an egoteko, eskutitz-dei bat gertu, ta Alfonso Frigoren'i bidali diot, an irakur dezan. Ikus dezakezarenaz, ez dut ezer beririk esaten.

Maiseduta bat egin bear dut ere. Fulton Sheen'en "Religion in Dios" liburua irakurtzen ari naiz (oraintu argitaratua) ta bukatuta laister bidaliko diot nere iritzia.

Ta besterik ez gaunkoz.

Nai dezuna egiteko prest naukazu, baina zure lehen zai ere.

Asko lortu, ta agur!

for

JOSE LUIS ALVAREZ EMPARANZA
SAN SEBASTIÁN

AV. ZUMALACARREGUI, 5.1.º IONDARRETAI
TELÉFONO 2-11-05

Donostia'n 1957 Ilbeltzak 14

L. Mitxelena jaunari :

Ene adiskide ori :

Jaso berria dut "Egan", eta
geiago luzatu gabe zoriaiak eman
nai dizkitzut. Bai "Egan" beraga-
lik, eta bai, batez ere, "Euskera" eta
"Euzko bozpa" artikulua gatik ere.

Euskeraz idatzi diran liburua
iru zatitan bereizi dituzu zeatz, eta
guztiz bat nator zurekin. Ordik ari
bearra dago edonoruntz jo aurretik.

Nere lanak argitaratzeak ere us-
tu dituzun ari postu nau, eta eskernak
ematen dizkitzut.

Ganerantzean, "Leturia'ren Egan-
kari eskutua", ots, nere liburua, gurtu
dago, eta urrengo astean emango di-
zut kopia bat. Gustatuko al zaizu!

Orain Itzaurre - Azalpen bat antolatzen ari naiz, ulerkaitzegia baita agian liburuetekin esan nai dudana. Ta, aal dalarik, liburuetekin batera eman go dizut.

Eta geiago lurratu gabe, agur!

Per Alejos

PLaza

» 44 ■ Beste bi urrats literatur itzulpenetan
Oh Jung-hi-ren 'Txoria' eta Michael Morpurgoren
'Peaceful soldadua' argitaratu dituzte euskaratuta.

TXILLARDEGI LETURIAREN SORLEKURA ITZULI DA (I)

Duela 50 urte amaitu zuen Jose Luis Alvarez Enparantza 'Txillardegí'-k *Leturiaren egunkari ezkutua* nobelaren idazketa lana. Euskarazko narratibaren historian, euskarazko lehen nobela modernotzat jotzen da *Leturia*, ordura arteko euskal nobelek ez bezala pertsonaiaren barne gatazkari erreparatzen diolako, gertakari batzuen kontaketa soiletik harago. Ferrolen (Galizia) idatzi zuen Txillardegik *Leturia*, soldaduska egiten ari zela, eta Ferrola itzuli zen joan den astean, nobela idatzi zuen garaian ezagututako lekuak berrikustera.



Txillardegí, joan den larunbatean, Ferrolgo Reina Sofia parkean. Maiz joaten zen hara 1956an, bakarrik egotera eta pentsatzera, *Leturiaren egunkari ezkutua* nobelako pertsonaia nagusia Zerubide parkera joaten den bezala. PACO VILA

JUAN LUIS ZABALA
Ferrol

Jose Luis bakarrik dago Ferrolgo Udal Parkean. Baina ez hartaz urrikal, nahita etorri da eta bakarrik egotera. Neska gaztea ikusi du aurrean duen urmaelera hurreratzen, atzetik zakur handi bat dakarrela. Gogoetaren bideak geldiarazi dizkio neska edertasunak, lilitatu egin du haren begirada ametsetan bezala galduak. Neska badoa, zakurra lagun, Jose Luis berriro bakarrik utzita.

Lipar bat izan da, segundo batzuk. Baina, berak horretaz inoiz ezer jakingo ez baldin badu ere, aurreneko euskal nobela modernoaren idazketa prozesua abiaraziko duen txinparta piztu du neska horrek, parkean emandako urrats urri eta itxuraz garrantzirik batera gabeko horietan.

Bizipen labor hori buruan aspaldianik darabiltzan kezkekin uztartuko baita Jose Luisen buru gogoetak berotuan: Soren Kierkegaard eta Miguel Unamunoren existenzialismoa eta bizitzaren «sentimendu tragikoa»; Jacques Maritain, Yves Congard, Henry de Lubac eta Leon Bloy idazle katoliko antifaxisten ekarpen progresistak, William Shakespeare, Pio Baroja, Knut Hamsun, Albert Camus eta beste hainbat egileren liburuek sortutako literaturzaletasuna; Koldo Mitxelenaengandik euskarazko nobela bat idazteko jasotako eskaria, ia-ia enkargua...

Hurrengo egunetan ere ikusiko du neska hura Jose Luisen parkean; eta parkean ez ezik Cabanasko hondartzan ere bai. Oso gustuko duen arren, ordea, ez du harenganako pausorik emango. Andregai du Donostian, eta hurrengo urtean ezkontzekotan dira. Herbea da, gainera, Jose Luis kontu horietarako. Eta inoiz inolako zirrikitu txirikirik ikusi baldin badu, denak itxiko zaizkio kolpetik parke bereko dantzaldi batean neska hura mutil bati estu lotuta dantzan ikusitakoan, gauaren erdian mutilak gidatutako Lambretta moto baten atzealdean eserita galdu aurretik.

Errealitatean ezinezkoa, fikzioan gauzatua

Errealitatean gauzatzerik izan ez duena fikzioaren bidez gauzatzeko bidea eta aukera emango dio Jose Luisi nobelak. Joseba Leturia per-

tsonaia irudikatu eta sortuko du —«nire anaia bikia» deitu izan dio—, Zerubide izeneko parke batean bakarrik, nahita «bakarrik egotera» joana.

Bere egunkari ezkutuan Miren izeneko neska nola ezagutu duen kontatzen du Leturiak, lehen pertsonan: «(...) aurreko iturriari alde-ratu da neskatxa bat. Uraren ispilu higikorera begira egon da lipar batez (...)».

1956ko kontuak dira horiek guztiak. Jose Luisen deiturak Alvarez Enparantza dira. Txillardegí du ezizena, Donostiako Antigua auzoan, bere jaiotzetik gertu, zegoen baserri bati zor.

27 urte zituen orduan Txillardegik, eta ingeniari-zaletza ikasketak amaitu berriak. Soldaduskako azken sei hilabeteak egiten ari zen Ferrolen, Francisco Franco Espainiako caudilloaren jaioterrian. Eta han idatzi zuen, duela 50 urte, *Leturiaren egunkari ezkutua*, euskal literaturaren historian lehen nobela modernotzat jotzen dena.

Idazlearen itzulera

Bi aldiz itzuli da aurtun Ferrola Txillardegí: uztailen lehenik, Jone Forcada emaztearekin; joan den astean bigarrenez, Paco Vila argazkilaria eta lerro hauek idazten ari den **BERRIA**ko kazetaria lagun zituela.

Bi egonaldia horietan astiro bisitatu ditu duela 50 urteko egonaldian ezagutu zituen leku nagusiak: apolo hartu zuten etxearen ataria, Casino Ferrolano elkartearen, Ferrolgo kaserna eta Ofizialen Etxea... Eta batez ere 1956an Ferrolgo Udal Parkea zena, egun Reina Sofia parkea deitua, *Leturia*-ko Zerubideren jatorria eta oinarria.

Joan den asteokan, horretaz guztiaz gain, hiru astetik behin eta astebez bizilekuz zuten zuen airekoen aurkako bateriara ere itzuli zen, 5 zenbakia zuenera. Hantxe idatzi zuen *Leturia*, han bihurtu zituen testu Ferrolgo parkeko asmoak, ametsak eta gogoetak.

Garai hartako unibertsitate ikasleek egin ohi zuten moduan, hiru zatitan egin zuen soldaduska Txillardegik: bi uda —1952 eta

Soldaduskako azken sei hilabeteak egin zituen Txillardegik Ferrolen, alferrez graduarekin

berria ostrala, 2006ko urriaren 27a

| 43

» 46 ■ 36ko gerraren hausnarketa, musikaz
 'Non dira' atera du plazara Bide Ertzean taldeak, gerran gertatutakoei soilua jartzen dien diskoa.



52-53 ■ Shisha Pangmarako bide berria
 Bide normala arriskutsu ikusita, erabat ase duen igogera egin du Inaki Otxoa de Olzak beste leku batetik.

TXILLARDEGI LETURIAREN SORLEKURA ITZULI DA (1) >



Txillardegí Casino Ferrolano elkartearen ganbarako leihoan, Ferrolgo etxe eta kaleei begira. FICCO VILA



Txillardegí, 1954ko martxoaren 19an, Donostian. Ferrolen 1956an eman zituen sei hilabeteetako argazkirik ez dauka.

1954koak—Zamoran eman zituen, eta sei hilabete Ferrolen, alferrez graduarekin, apirilaren 28an joan eta azaroaren 1ean itzuli.

Abertzale eta euskaltzalea zen ordurako. *Ekin* barne-buletina egiten zuen —eta bi urte geroago ETArekin sorrerera bultzatuko zuen— taldeko kidea ere bai. Ferrola joan aurretik, hango egondia liburu bat euskaratzeko baliatzea pentsatu zuen. Baina, kontu jakina da, adiskide batek uxarazi zion ideia hori burutik.

Koldo Mitxelenaren 'enkargua' «Milagros Bidegainek eta biok Koldo Mitxelena

«Neska zakurarekin parkera itzuli zela pentsaturik, hantxe egoten nintzen aulki batean eserita, hura noiz etorriko zain. Gustuko nuen neska hura, baina inoiz ez nion hitzik esan. Nik harekiko izan nuen gurtz platonikoa izan zen. Haren izena ere badakit, baina ez dut inoloz esan eta ez dut inoloz esango».

Unamunoren hazia, Txillardegirengan lore

Parkeko neska

Kierkegaarden hazia, Unamunoren gan lore zuen izenburu Txillardegik argitaratu emandako lehen idazlanak. Ferrola joan baino urte batzuk lehenago idatzi zuen testu hura, eta horrek erakusten du existentsialismoaren inguruko kezka sakon errotua zuela *Leturiaren egunkari ezkutua* idazten hasi zenerako.

«Hasierako eragin nagusia Unamunoren izen zen», dio, dudarik egin gabe, Txillardegik. «Jean-Paul Sartrek gero izan zuen eragin handiagoa nigan, Frantzia izan nintzen garaian».

Beste egile batzuegana ez bezala, Unamunorengana iristea erraza zen Txillardegik gazte zen garaian, haren liburuetan erosteko aukera baitzegoen. «Gainera, gure aitona zenak *Nuevo Mundo* ren bilduma osoa zeukan, eta aldizkari horretan Unamunok kronika bat idazten zuen astero. Kronika haiek ikaragarriak izan ziren niretzat. Artikulu haietan ez zuen existentsialismoaz idazten, baina oso kultura handia erakusten zuen. *Del sentimiento trágico de la vida* gero iraku-

ri nuen, eta baita Unamunoren beste lan asko ere, nobelak, *niçola-k* eta beste».

Txillardegí 1952an hasi zen Jose Maria Benito del Valle, Julen Madariaga, Inaki Gaintzarain, Jose Manu Agirre, Rafa Albiu eta beste abertzale batzuekin biltzen. *Ekin* barne-buletina egin ohi zuten, eta sei urte geroago ETArekin sorreran parte hartu zuten.

Beren aurreneko bi urteetan, 1952an eta 1953an, *Ekin* barne-buletinaren argitaratzaileek beren arteko solasaldiak egin zituzten. «Europar pentsamendua arloan zer ideia zeuden jakin nahian». Txillardegiri saio haietan Unamunoren irakurri eta azaltzea egokitu zitzaion. Ez du uste, hala ere, sorrerako ETArekin existentsialismoak inolako eraginik izan zuenik.

Unamunok «nire anaia Soren» deitu ohi zion Soren Kierkegaardi. Ez da harritzekoa, horrenbestez, Unamunori zion mirespenak Txillardegik Kierkegaardengana bideratu izana. Eta Kierkegaard eta Unamunoz gain, beste idazle asko aipatu ohi ditu garai hartan irakurri eta *Leturiaren* idazketan eragina izan zezaketenen artean: William Shakespeare (*Macbeth* eta *Hamlet* batez ere), Albert Camus (*La peste*), Thomas Mann (*Der Zauberberg*), Knut Hamsun (*Pam*), Pio Baroja...

Lagun asko bildu ohi zuten Zerubideko bakardadeak.

Bihar, 2. atala: Francoren jaiotebetik pauso batzuetara

TXILLARDEGI LETURIAREN SORLEKURA ITZULI DA (2)

Calvo Sotelo kaleko etxe batean apopilo egon zen Txillardeggi, Ferrolen (Galizia), *Leturiaren egunkari ezkutua* idatzi zuenean. Lau kale harago Francisco Francoren jaiotetxea zuen, eta soldadu lagunen artean Emilio Molaren semea, izen berekoa eta aurpegiz ere ia-ia berdina.



Francoren jaiotetxetik pauso batzuetara

Txillardeggi, Cabanasko hondartzan, argazkiak ateratzen. Atzealdean Pontedeume herria ikusten da. JUAN LUIS ZABALA / BERRIA

JUAN LUIS ZABALA

Ferrol

Orduan Calvo Sotelo izena zuen eta egun Igrexia deitzen den kalearen 32. zenbakiko lehen solairuan bizi zen familiak hartu zuen apopilo Txillardeggi soldaduskako egonaldi hartan, nahiago izan baitzuen militarrekin ahalik eta gutxiengon.

Oso pauso gutxitara, lau kale harago, Francisco Franco 1892an jaio zen etxea: Maria kalea, 136. lehen solairua. Ezaguna zuten, horrenbestez, Calvo Sotelo kaleko etxeok: Franco Bahamondetaren familia. «Haiek esan zidaten ferroldarrek ez ziotela maitasun handirik Francisco Francori, Franco Bahamondetaren artean estimatzen zuten bakarra Ramon zela, Franciscoren anaia».

Calvo Sotelo kalean bizi zen familiak ondo hartu zuten Jose Luis alferez gaztea. Aldameneko etxe-koen adiskidetasuna ere bereganatu zuen, eta pianoa jotzen uzten zioten. «Ni bizi nintzen etxeko begiralekutik aldamenekora pasatzen nintzen, pianoa jotzeko. Ez naiz oroitzen zergatik egiten nuen hori, etxe batetik bestera ateetatik pasata joan beharrean. Orain baino egokiagoa neukan gorputza horrela ibiltzeko, hori egia da».

Plaka bai, baina Ramon Francoren omenezkoa

Francoren jaiotetxean haren omenezko plaka bat zegoela gogoratu zen Txillardeggi. «Uste dut

«Francisco Franco, Salvador de España» edo antzeko zerbait jartzzen zuela plakan», zioen. Baina besterik ikusi zuen joan den larunbatean Maria kalearen 136. zenbakia zuen atearren ondora iritsi eta lehen solairura begira jarri zenean.

Sare batek estaltzen du etxearen kanpoko horma, baina mutur batean marmolezko plaka beltza ageri da, 1987ko data duena. Kanpotik ezin da besterik ikusi.

Baina justu Francoren jaiotetxearen aurrean dagoen janari dendako nagusiak eman dizkio etxe honetako plakei buruzko argibideak: «Sareak ezkututzen duen plaka zaharra ez da Franciscoren omenezkoa, Ramonen omenezkoa baizik. Ozeano Atlantikoa hegazkinez zeharkatu zuenean jarria, 1926an. Plaka hark alpamen txiki bat egiten zuen Francisco anaia iruz ere, Espainiako Armadako jeneral gazteena zela gogoratuz». 34 urte baino ez baitzuten jeneral izendatu zutenen, 1926an.

Kanpoko sareak estaltzen badu ere, plaka han omen dago oraindik. Dendariak dienez, caudilloaren aldekoek ezin zuten eraman Ramonen izena Franciscorenaren gainetik agertzea. «Askotan saiatu ziren hura handik erazuten, baina ezin zuten: brontzezkoa da eta oso ondo lotua dago hormari».

«Hemen egoten ginen, neskekin hizketan, denbora pasatzen», dio Txillardeggi **Casino Ferrolano** elkartearen



Francoren jaiotetxearen atarian. Estalkiaren atzean, 1987ko plaka. FRAC VILA

Handik oso gertu, Espainia Plazan, Francisco Francoren zaldi gaineko estatua handia zegoen lehen: sei tona brontze. Ez du ahaztua Txillardeggi. 2002ko uztailean kendu zuten. Baina ez dute urtu, gune militar batean dute gordea.

Casino Ferrolano elkartearen, lagun giroan

Ferrolen eman zuten aldiari, kasernatik egunero pasatu behar izaten zuten, soldaduei instrukzioa ematera. Bazkaria Ofizialen Etxean egin ohi zuten, kasernaren ondoan.

Oroitzapen gordin bat berritu dio kaserna berriro ikusteak: «Foso estu batean, kapitain bat pistola nola erabili ari zitzaigun azaltzen bi lagun. Segurua jarri zion, eta esan zigun segurua jarrita ez zuela tiro egiten katua sakatu arren. Hori frogatzeko, katuari sakatu zion, eta orduan pistola bere sabelaren aldera biratu eta tiroka hasi zen. Larrituta irten ginen fosotik, laguntza eske. Ez zen hil, baina heste zati handia kendu behar izan zioten».


Arratsaldea libre izaten zuen, eta egunik gehienetan soldadu lagunekin Ferrolgo kaleetan eta tabernetan hara eta hona ibiltzen zen. «Egumero jaten genituen lanpenak, tazan ateratako ribeiro ardoarekin lagunduta. Horretan

Arratsaldea libre izaten zuten, eta soldadu lagunekin kaleetan eta tabernetan hara eta hona ibiltzen zen

TXILLARDEGI LETURIAREN SORLEKURA ITZULI DA (2)



Casino Ferrolano elkartearen, Bello Piñeiroren hormairudien aurrean. FROCOVILA



Cabanasko tren geltokia. 1956an espainieraz zegoen letreroa (Cabañas-Arenal) galizieraz dago egun. Cabanas-Arenal. JUAN LUIS ZABALA / BERRIA

xahutzen genuen gehienbat gure soldata, bestelako gastu handirik ez genuen izaten.

Casino Ferrolano elkartearen ibilaldi haietako gune garrantzitsu bat. Real kaleko 100. zenbakian. «Hemen egoten ginen, neskekin hizketan, denbora pasatzen». Joan den larunbatean, bertako bazkide bat aurkitu zuen han Txillardegik, Jose Picallo. Aretoan sartzeko gonbita egiteaz gain, ganbara ere erakutsi zion Josek Jose Luisi, eta Bello Piñeiro artistaren ibilien berri eman zion.

Bello Piñeiro, artista buhamea

Elkartera sartzean eskuinaldera jota, garai bateko tertulien lekuko izan zen areto bat dago. «Abokatuak mahai honetan egiten zuten tertulia, militarrek beste horretan...», azaldu du Picallok. «Eta ez zitzaion inori burutik pasatu ere egiten bestean mahaiaren inguruan esertzeriko.

Bello Piñeiro artistak 1921ean egindako hormairudiek betetzen

dituzte areto horretako hormak. Artista izateaz gain, buhame aparta omen zen. «Bello Piñeiro hemen bizi izan zen, Kasinoan. Hemen lo egiten zuen, eta hemen ematen zioten jaten, pintore gisa egiten zuen lanaren truke. Mozkorraldi latzak izaten zituen, eta berdin eman zitzaizkeen hiruzpalau egun edanaren menpe nola hiruzpalau etenik gabe lanean. Artista handia zen. Katalunian-edo jaio izan balitz, oso ezaguna izango zen gaur egun, ez daukat horretaz dudarik.

Txillardegik ez zituen gogoan Bello Piñeiroren hormairudiak. «Aitoru behar da beste gauza batzuetan neukala burua garai hartan».

Cabanasko hondartzan, 'morriña'

Casino Ferrolano elkartera ez ezik, soldadu lagunekin maiz joan zen Jose Luis, trenean, Cabanasko hondartzara, Pontedeume herrian. Duela 50 urte bezala, «oso ederra» iriziten dio egun ere Txillar-

degik Cabanasko hondartzari. Zabal da, eta pinu baso handi eta sarrira du ondoan.

Ferrolgo kaleetan baino malenkonia handiagoa igartzen zaio Txillardegiri paraje honetan, *morriña* sentiarazi dio hona itzultzeak, *sau-dadea*. «50 urte pasatu dira!», komentatu du, harrituta balego bezala. Gaztelaniazko esaldia etorri zaio gero burura: «Zera esan beharko dugu, ezta?»; *Que nos quiten lo bailaot!*...».

Suezko ubidearen krisiak sortutako izua

Bera bezala, ingeniariak ziren Jose Luisen soldaduskako lagunak, eta haietako batzuk, kultura handikoak. Ez zitzaion euskal herritarrik egokitu inguruan, baina adiskide onak egin zituen. «Batzuekin elkartu nintzen urte batzuk geroago, baina azkenean zaila izaten da harremanari eustea».

Lopez Encinas da ortuko lagunaren artean Txillardegirengan arrastorik sakonena utzi zuena. «Frankista amorratua zen, eta politika kontuetan ezin genuen bat egin, jakina, baina kultura handia zuen. Nik ordurako banuen budismoaren berri, baina Juan Marinen *Buda o la negación del mundo* liburuen berri Lopez Encinasek eman zidan, esaterako».

Emilio Mola jeneral faxistaren semea ere, izen berekoa, soldadu lagun izan zuen. «Aitaren berdin berdina zen aurpegiz. Nahi zuen guztia egiten zuen, eta ez zion inork kargurik hartzen, sekulako errespetua zioten denek. Mozkorraldi bikainak harapatzen zituen, desastre hutsa zen».

Ferrolgo egonaldia ez zen oro har mikatza izan Txillardegirentzat. Baina gogoan du Suezko Ubidearen krisiak sekulako beldurra pasarazi zuela. 1956ko ekainean hasi zen gatazka, Gamal Abdel Nasserrek Egiptoko agintea eskuratu eta ubidea nazionalizatzea erabaki zuenean. «Frantzia eta Ingalaterra prest zeuden Nasserren aurkako gerrara joateko, eta haiek joanez gero Espainia ere ez zela atzean geratuko zirudien. Horrek sekulako beldurra sentiarazi zigun, gero azkenean joan beharrik izan ez genuen arren».

Bihar, 3. eta azken atala: Zerubide, bide berri



Manuel Murguiraen hilobia, Coruñaiko San Amaro hilerrian. JUAN LUIS ZABALA / BERRIA

Galizia, «bigarren aberria»

Behin baino gehiagotan esana eta idatzia du Txillardegik Galizia duela «bigarren aberria». Lehen aberriari dion maitasuna bezala, ez da arantzarik gabekoa bigarren horri diona ere.

«Galizia lehenik eta behin geografikoki maite dut, paisaiagatik», dio. «Itzasadarrak zoragarririk dira, guztiak, bai iparraldekoak eta bai hegoaldekoak, eta barnealdeak ere xarma handia du. Galizia maitatzeko bigarren faktorea da Galiziak erakusten duela Imperialismoak herri batekin zer egin dezakeen».

Galizia «Portugalgo zatia» da, Txillardegiren ustez. «Duerotik iparrera hitz egiten den portugesa eta hemengo hizkuntza bat eta bera dira, hemengoek diotenez. Gi-puzkeratik bizkaierara dagoen aldea baino askoz txikiagoa da dagoena. Arazoa da buruan sartua dutela espainiarrak direlako ideia».

Horrenbestez, hizkuntzalari moduan lusingar bat egiten du, galiziera azken batean portugesa dela diotenean. «Gaur egun hemen entzuten den galiziera nor-

matibo edo ofizial hori espainiera iruditzen zait, galiziar kutsua duen espainiera, *castro* esaten diotena. Beharbada ez dela horrenbesteraingo esanguru dute, erdibideko aukera egin dutela, baina puntu horretan reintegracionisten aldekoa naiz».

«Dena den, ni ez naiz hemengo eta isildu egiten naiz», komentatu du. «Azken batean arazo soziolinguistikoa eta politikoa da, eta irtenbide horren alde egin dute. Baina linguistikoki desastrea da zuzenean portugesa ez hartzea».

Joan Corominas kataluniar hizkuntzalariaren eta Alfonso Daniel Rodríguez Castelao galiziar idazlearen gogoide sentitzen da horretan. «Corominasek esan zuen galiziarra balitz reintegracionista izango zela, galizierak ez duela zentzurik galaiko-portuguesaren esparrutik kanpo, Brasilgo portuguesarekin ere harremanetan, baina ez inola ere espainierarekin, ez baitu zerikusirik espainierarekin, linguistikoki. Castelao, berriz, bi Galizia daukela zioen: 'geratu zitzaiguna eta joan zitzaiguna'. Esaldi ezaguna da».

Horretaz izenburua izango duen liburua idazten ari da orain Txillardegik, eta liburua berri hori osatu duen zazpi artikuluetako bat Galiziarri esainikoa dio. Kapitulu horretan Txillardegik miresen dituen bi idazleren itzala nabarmenduko da: Rosalia de Castro eta Manuel Murguira senar-emazteana.

Zuzenketa: Atzoko alean esaldi hau agertu zen Txillardegiren ahotan: «Milagos Bideginek eta biok Koldo Mibelenari euskarako eskolak ematen genikion garai hartan». Txillardegik, ordea, ez zuen hori esan, honako hau bazik: «Milagos Bideginek, Koldo Mibelenak eta hirurok euskarako eskolak ematen genituen garai hartan». Hirurak ziren irakasle Donostiako Aldundiren Julio Urtioko Mintegian, Mibelenak, irakasle ez ezik, mintegia zuzendaria ere bazen.



Jakín

haizea dakiten orriak

50 JAKÍN GURE KULTURAREN URTE ALDEKARIA

Harpidetu zatez eta eparia jasoko duzu
 delitu: 943 214052
 idatzi: jakin@jakingunea.com
 ikusi: www.jakingunea.com

Harpidetzat: 6 zenbaki: 45 euro
 Operaria: 50 urteotako 202 zenbakiki DVD bitaen

PLaza



40 ■ Mende laurdena Brassens gabe

Gaur bete dira 25 urte kantari frantziarra hil zela; Parisen eta Bartzelonan gogoratu dute.

TXILLARDEGI LETURIAREN SORLEKURA ITZULI DA (ETA 3)

JUAN LUIS ZABALA
Ferrol

Uztaileko bisitan ez bezala, Reina Sofia parkea itxita aurkitu zuen joan den asteko larunbatean Txillardegik. Baina parke barruan dagoen etxeko nagusiak ireki zion atea, hamar minutuz.

Izenarenaz landa —lehen Udaltzaren Parkea zena Reina Sofia parkea da orain—, ez du aldaketa handirik izan parkeak azkeneko 50 urteetan. Txillardegik dioenez. «Hori bai: hara eta hona dabiltzan indioilar horiek ez zeuden han duela 50 urte, eta horien antzekorik ere ez zen».

Idaztera baino gehiago, «pentsatza» joan ohi zen parkera. Hasieran behintzat. Gero zakurrarekin paseatzera joan ohi zen neska ikusteko esperantzak ere bultzatu zuen behin baino gehiagotan. Joseba Leturia Miren ikusteko esperantzak Zerubidera bultzatzen duen bezalaxe.

Valdoviñoko autobusa hartuta

Idatzi, hala ere, mendian idatzi zuen Txillardegik *Leturia*, Cabo Priorrera begira zegoen airekoen aurkako batera militar batean.

Azkeneko 15 bat urteetan abandonatua dago lekua, eta eraikinak erortzen ari dira. 50 urteren buruan itzultza, Txillardegik ez zuen ezagutu lekua, atzozortzi, joan den asteko larunbatean. «Ez dut uste hau denik gure batera», esan zuen iritsi orduko. «Ez zait ezaguna egiten lekua». Inguruan barrietatuta dauden batera gehiago ere ikusi zituen, ea bera egon zenekoa ezagutzen zuen haien artean, baina alferrik.

Azkenean, han eta hemen galdetuta, konbentzitu da aurreneko huraxe zela lekua. Huraxe da, izan ere, denek hala diote, 5. batera, airekoen kontrakoa. Ezin da beste bat izan. «Urteasko pasatu dira eta seguru asko nik alde egin ondorengo urteetan aldatetak egingo zizutuz. Horregatik ez dut hasieran ezagutu. Baina horixe da, bai».

Ferrolen bi aste eman ondoren, hurrengo astea han pasatu behar izaten zuen Donostiako alferrez gazteak. Ferrolgo udaltxearen ondoan Valdoviño herrirako autobusa hartu ohi zuen bateriara joateko. «Gain batean jaitxi eta oinez egiten nuen handik bateriara bitartekoa».

Saltopatzikuak eta nobela, baterian entretenimendua

Bateriako egonaldiak, soldaduei banatu aurretik ekartzan zioten janaria probatu eta oniritzia eman behar izaten zuen egunero, bera baitzen baterian zeudenen artean graduazio handiena zuena.



Zerubide, bide berri

Kostata ezagutu zuen Txillardegik airekoen aurkako batera 50 urteren buruan hara itzultzean. Hantxe idatzi zuen *Leturiaren egunkari ezkutua* nobela. ENCICLIA

Baina horixe zuen egun osoko zeregin bakarra. Eta, han egon behar zuenez eta han ez tabernarik eta ez hondartzarik ez dagoenez, *Leturia* idazten eman ohi zituen egunak.

Ferrolgo soldaduska aldia osatzen zuten sei hilabeteetatik, zortzi aste baterian eman zituen Txillardegik. Idatzi, zortzi aste horietan idatzi zuen *Leturia*. Euskal nobelagintza modernoa airekoen aurkako Espainiako Armadaren batera batean sortu zen.

Idazteaz gain, Radio Ferrol irratia entzuten zuela gogoratzen da, eta gogoan dauka haren sintonia ere. Eta bazuen beste entretenimendurik ere: «Kalore guztietako saltopatzikuak ikusten nituen inguruan. Hegan egiten hasten zirenean urdinak, berdeak eta beste kolore askotakoak ikusten ziren. Milaka eta milaka zeuden, eta ni asko entretenitzen nintzen xomorro haietara begira. Batzue-

Bateria militar

batean idatzi zuen Txillardegik *Leturiaren egunkari ezkutua*. Hiru astetik behin hara joan eta han astebete eman behar izaten zuen, ia-ia zereginik batere gabe. Aste horiek baliatu zituen Ferrolgo Udaltzaren Zerubideren oinarri eta jatorria —pentsatzen zituenak papereratzeko.

tan harrapatu eta hanketatik hiltzen nien. Gero askatzerakoan, sekulako jauzia egiten zuten. Oso abere atseginak dira saltopatzikuak».

Azarorako idatzia, 1957an argitaratua

Kapitulua bat amaitu ahala, Jone Forcadari —orduko andreagaia, egungo emaztea— bidaltzen zion, postaz, eskuizkribua. «Azaroraren Iean joan nintzen Donostiara, soldaduska amaituta, eta ordurako nobela idatzita zegoen. Hemen hasi nuen, eta hemen bukatu».

Gutun denak ondo iritsi ziren Donostiara, baina Txillardegik saltsa askotan sartuta zegoen, bazuen liburua argitaratze bidean jarri baino aurrerago lanik. «Ekinen, sortzaileetako bainintzen, leporaino sartuta nengoen; lanean ere hasita nengoen, motor fabrika batean; ezkondu ondoren etxea bilatzeko arazoak izan genituen eta

lehen bi urteak-edo Narrrika kaleko Arsuaga pentsioan bizitzen eman behar izan genituen... Erraz esaten da, baina hori pasatzea gogorra da gero». Gainera, garai hartan ez zen erraza euskarazko liburua argitaratzea.

Nolanahi ere, *Leturia* aparteko arazorik gabe iritsi zen plazara hurrengo urtean, 1957an. «Argitaratzeko aukera nagusietako bat Kullixka sortzen, Zarauzko Itxaropena argitaletxearena, baina beste aukera bat etorri zen, espero ez nuen bidetik, Gabriel Arestiren bidez uste dut: Bilboko argitaletxe batena, Ellakuriarena».

Geroztik hainbat berrargitalpen izan ditu. Azkena, oraingoz bederen, Elkar argitaletxeak 2003an egindakoa.

'Leturia' egungo Txillardegiren begian

«Nobela bat hasitakoan, uste duzu gauzak modu batera egingo

berria | gandeia, 2006ko urriaren 29a

39

42-43 ■ Etag Keret, 'enfant terrible'

Israeigo literaturako idazle berritzaileenetakoa da, postmodernitatearen adierazlea.



46-47 ■ Exponatur azoka Barakaldon

Natura eta abentura kirolen gaineko azokak aisialdirako aukerak eskaintzen ditu BECen.

TXILLARDEGI LETURIAREN SORLEKURA ITZULI DA (ETA 3)



Ferrolgo soldaduska aldia osatzen zuten sei hilabeteetatik, zortzi aste eman zituen baterian Kapitulu bat amaitu ahala andregaiari bidaltzen zion, postaz, eskuizkribua, eta urrian dena amaitu zuen

teak bultzatu ninduen. Neska haren berri gehiago ez nuen izan, baina nobela idazten jarraitu nuen. *Uda* atalean, Josebak, pertsonaia nagusiak, ezkondu berri, ez du ezer idazten; gero krisia dator udazkenean; eta azkenik, neguan, bukaera...».

«Existenzialismoaren ikuspegitik, bi larridura edo angustia ezagutzen ditu pertsonak», azaldu du: «bata, hautatu aurrekoa, erabaki beharrak sortzen duen larridura; eta bestea, hautatu ondorengoa: ezkonduak dudu du, esate baterako, aukera egokia egin duen».

Bi larridura horien kontuak amodio eta ezkontza kontuetarako bezala balio du beste ario batzuetarako ere: militantzia politikoa, erlijioa... «Nik bat egiten dut ikuspegi horrekin, eta nobelaren bidez hori adierazten saiatu nintzen, ez dakit zer arrakastarekin... Baina ez zen izan *Madame la Marquise est sortie a cinq heures* estiloan idatzitako nobela, besterik gabe gauzak kontatzen dituen nobela bat, pasadizoen kontaketa hutsa».

Nolanahi ere, Txillardegik ez du uste *Leturiaren egunkari ezkutua* nobela idazterakoan euskarazko lehen nobela modernoa idazten ari zelako kontzientzia zuenik. «Profetismo hori izan baldin badut, *de facto* izan dut, *ez a priori*, ez aurretik bilatuta. Nik pentsatu nuen hori egin behar zela, eta hori izan zen barrutik atera zitzaidana, besterik gabe».

Hori izan zen, bai, barrutik atera zitzaiona, *Leturiaren egunkari ezkutua*, aurreneko euskal nobela modernoa.



Iglexia kaleko (lehen Calvo Sotelo) 32.a. Lehen solairuan egon zen apopilo, eta alboko etxean pianoa jotzen zuen. PACO VILA

Euskal nobelagintza modernoaren 50. urteurrena

Jesus Mari Lasagabaster euskal literatur kritikari aitzindariak eman zion *Leturia*-ri lehen euskal nobela modernoaren *izendapena* edo *titulua*.

«Euskal nobelaren lehenbiziko *héroe problemático*-a, Leturia dugu, noski», idatzi zuen Lasagabasterrek *Euskal nobelaren gizarte-kondairaren oinharriak* artikuluan (*Euskal linguistika eta literatura: bide berriak* liburu kolektiboa, Deustuko Unibertsitatea, 1981), Lucien Goldmann eta Georg Lukacs kritikarien lan teorikoetan oinarrituta. «Leturiaren borroka, existenziala da (...) baina, nobelaren baitan gertatzen den borroka horrek mundu-ikuskeragere arazten digu, aurreko nobelak erakusten zigunaren oso ezberdina, berrak. Eta hemen datza, bereziki, Txillardegik euskal nobelaren eragin duen berrikuntza».

Alderdi formalari begiratuta, «oso tradizionalak» irizten zien orduan Lasagabasterrek *Leturia*-ko konta-teknikei. Bi arloetan —gaietan ez ezik, teknika narratiboetan ere— berritzailea izateko meritua Ramon Saizarboriaren *Egunero hasten delako* nobelari (1969) egotzi zion.

Egun, ordea, gaietan ez ezik formaren aldetik ere berritzaile deritza Lasagabasterrek *Leturia*-ri. BERRIAK aurtengomartxoaren 8an argitaratutako elkarrizketan adierazi zuenez: «Hala ere, uste dut ez dela guztiz egia orduan esan nuena. Txillardegik euskal nobelagintza mundu moderno bat martxan jarri zuen *Leturiaren egunkari ezkutua*-rekin, eta hori ezinezkoa izango zitzaien formaren aldetik ere zerbaite berria eta modernoa egin ez balu».

Koldo Mitxelena eta Jose Azurmendik ere laudorio handiak egin

dizkiote *Leturia*-ri. Mitxelena honako hau idatzi zuen liburuaren hitzurrean: «(...) ez dut uste inoiz gure hizkuntzan entzun denik horrelako hitz larririk, horren zinezko aitortirik, horren besteko karraxi sarkorrik. Ez dugu sekula egin, hitz batean esateko, *Leturia*-rena bezalako ibilaldirik gogobideetan barrena».

Azurmendiren ustez, «gure artean sekula egin den existenzialismoaren espozitorik osoena» da *Leturia* (*Kierkegaarden 'egunkari ezkutua'* artikulua, *Txillardegik, lagun giroan* liburu kolektiboa, UELU, 2000).

Aurkaririk ere izan zuen liburu argitaratzen garaian. «Niaki Bastarrikak egin zituen kritikarik gogorrenak», gogoratu du Txillardegik. «Bastarrika oso Orizezalea zen, oso purista. Neu ere purista nintzen, jakina, Gabriel Arestirekin alderatuz gero; hori erlatibo da. Nire erantzuna ere oso gogorra izan zen, zakarra benetan».

Aukera egokia egin zuela ez du dudarik Txillardegik: «Joan Mari Torrealdaik esan zidan aurrekoan nik izandako eztabaiden ondorioz aldatu zuela *Jakin*-ek bere ildo garai hartan, bai Orixerri buruz eta bai euskarari buruz».

dituzula, baina gero nobelak berak beste bide batzuetara eramaten zaitu», egin du gogoeta Txillardegik, Ferrolgo bisitaldia amaitu ostean. «Parkera txakurrarekin joaten zen neska eder haren iruditik abiatu nuen nobelaren idazketa, eta hasitako bideak uste ez nuen lekuetara eramanez ninduen gero. Hortik aurrera, nobelaren bidez nire tesia adieraz-



Joseba Jaka VI. Literatur Bekak

Proiektuak 2006ko abenduaren 19a bitartean bidali ahal izango dira, zertifikatuta, helbide honetara:

elkar fundazioa
Portuetxe 88, Igara auzoa - 20018 Donostia

Tel.-Fax: 943 21 94 27 fundazioa@elkar.com www.elkarfundazioa.org



BIBLIOGRAFIA

TXILLARDEGI

AAVV. *El diario como forma de escritura y pensamiento en el mundo contemporáneo* Institución «Fernando el Católico» (C.S.I.C.), Zaragoza: 2011.

AAVV. *Hegats*: buletina / Euskal Idazleen Elkartea. [Bilbao] 2012, 49 zenb.(Txillardegiri eskainitako ale berezia)

AAVV. *Leturiaren egunkari ezkutua eleberriaren ekarpena XX. mendeko euskal narratibaren testuinguruan*/ Euskaltzaindia, Bilbao: 2007.

AAVV. *Txillardegi gogoan* In: Jakin 194/195. Zenb. 2013

AGIRRE, Joxean. *Hitza hitz: Txillardegirekin solasean* / Donostia ; Baiona: Elkar, 1996.

-*Txillardegi, pintzelada lodietan* In: Jakin 114. zenbakia. 1999

AGIRREBALTZATEGI, Paulo. *Hizkuntza zapalkuntzaren memoria eta euskalgintza : Txillardegi, euskarari ekinean*. In: Euskal Memoria Aldizkaria. -- Donostia : Euskal Memoria, 2013. -- 17-21 or.

AIZPURU, Alaitz (et. Al) (koord) . *Euskal Herriko pentsamenduaren gida* / Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbao : 2012.

-Baginen eta bagara nor. In: Jakin 2015.urtea, 208. Zenbakia

ALDABE, Koldo. *Jose Luis Alvarez Enparantza "Txillardegi" : intelektual konprometitua* . In: Egunkaria 1999

APALATEGI IDIRIN, Ur. *Txillardegi / textuak = textos, Ur Apalategi ; KM Kulturunea*.

Donostia-San Sebastián] : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura Zuzendaritza = Diputación Foral de Gipuzkoa, Dirección de Cultura, 2004

ARISTI, Pako. *Txillardegi : gizona traspasentzia eta heriotzaren arteko kontradikzioan bizi da* / In: La Voz de Euskadi, San Sebastián : [s.n.], 1984

ARRIETA, Joxe Austin, *Berriro eta behin: euskara dela eta Txillardegi gogoan. Tafalla : Txalaparta, 2013*

-*Itsasoaz honaindi Txillardegi (1929-2012)* In: Euskera. -- 57, 1-2 (2012) ; 383-406 or.

ARRIZABALAGA, Nerea. *Txillardegi nobelagile*. In: Jakin aldizkaria [on linea], 1999, 114. Zenbakia.

ARRIZUBIETA, Martín de. *Txillardegi, un gran novelista vasco*. [S.l.] : [s.n.], 1960

AULESTIA, Gorka, *Un siglo de literatura vasca. (IV, d).*, José Luis Álvarez "Txillardegi". In: Sancho el Sabio : revista de cultura e investigación vasca = euskal kultura ta ikerketa aldizkaria .2001

- AZURMEDI, Joxe. *Jainkoaren billa*. In: Jakin 20. Zenbakia 1965 urtea, 38- 46 orr.
 -*Kierkegaard-en «egunkari ezkutua»* In: AA.VV. *Txillardegilagan giroan/ Udako Euskal Unibertsitatea*, Bilbo: 2000
 -*Jainkoaren billa*. In: Jakin 20. Zenbakia 1965 urtea, 38- 46 orr.
 -*Oraingo gazte eroak*. Irun : Luma, 1998
 -*Txillardegiren saioa: hastapenen bila* In: Jakin 114. zenbakia. 1999
 -*Ur su lur [Bideoa]*. [S.l.] : Ikuska Multimedia, 1999
- AZURMENDI AYERBE, María José; AURREKOETXEA, Gotzon; ORMAETXEA, José Luis eta APALATEGI IDIRIN, Ur. *Txillardegil euskalgintzan [hitzaldia, 2004-10-05, KM Kulturunea] / [Bideoa] : [antolatzailea, Koldo Mitxelena Kulturunea]*.
 -*Jose Luis Alvarez Enparantza "Txillardegil"ren omenez*. In: Bat : soziolinguistika aldizkaria. -- Donostia : Euskal Kulturaren Batzarrea. 71. zenb. (2009, 2), 194 or
- BASTARRIKA, Iñaki. «*Txillardegil*» Jaunari. In: Jakin 5. zenbakia. (1957) 99-102 orr.
 -*Txillardegil Jaunari erantzuna*. In: Jakin 6. zenbakia (1958) 94- 98or
- BIBLIOTECA MUNICIPAL DE DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN, (editor). *Txillardegil / Kultur Udal Patronatua*. Donostia : Udal Liburutegia, 1995
- DAVANT, Jean Louis . *Txillardegil euskara batuaren aita* . In: Euskera. 57, 1-2 (2012) ; 377-382 or.
- EGUZKITZA, Andolin . *Txillardegil edo fideltasun baten biografia*. In: Hegats. -- 15-16. zenb. (urr. 1997), 101-104 or.
- ELUSTONDO, M.A. “*Ezkutuan sortu genuen ‘Yakin’ Arantzazun*”. In: Berria, 2009ko maiatzaren 24an
- ETXANIZ, Nemesio. *Leturaren egunkari ezkutua*. In: Euzko-Gogoia, 1957. Orrila-Garagarri (maiatza-ekaina) , 113-114 orr.
- ETXEBERRIA, Pilartxo. *Txillardegil hizkuntzalari* In: Jakin. -- 114. zenb. (ira.-urr. 1999) ; 85-115 or.
- EUSKALTZAINDIA. Azkue Biblioteka. *Txillardegilren bibliografia: 1956-1999* . Euskaltzaindia , 2000.
- FERNÁNDEZ, Juanjo. “*Txillardegil*” : *el euskara, en peligro*. In: El Viejo Topo. -- nº58 (jul. 1981), 39-43 or.
- GANDIAGA, B. *Zeurekin noa*. In: Egan, 5/6-1957 zenbakia (1957ko irail-abendua), 301-302 orr.
- GARTZIA TRUJILLO, Sebastian. *J.L. Alvarez Enparantza (Txillardegil): existentzialismoa eta Jainkoa, itzalak baino argiak nabarmenagoak*. Bilbao: Instituto Diocesano de Teología y Pastoral : Desclée de Brower, 2007

GOENAGA, Eider. *Jose Luis Alvarez Enparantza, "Txillardegi": hizkuntzalari eta idazlea*. In: Egunkaria 2002

GOROSTITZU MUJKA, Ainara. *Intelektual militantea*. In: Berria, 2004

IBINAGABEITIA, Andima. *Leturaren egunkari ezkutua*. In: Euzko-Gogoa, 1957. Orrila-Garagarrila (maiatza-ekaina), 111-113. orr.
-*Idazti berriak. [errezentzioa] / Leturiaren egunkari ezkutua, Txillardegi : Ibinagabeitia'tar Andima*. In: zeruko argia.

INTXAUSTI, Joseba. *"Txillardegi"rekin solasean* In: Euskal Herritik erdal herrietara 1978

JUARISTI, Jon. *Literatura vasca*. Madrid: Taurus Ediciones, 1987

KALTZAKORTA, Xabier . *Txillardegiren euskal lanez / In: Ahozkotasuna aztergai : VII. Jardunaldiak / [edizinoaren arduradunak, Iñaki Gaminde, Juan Luis Goikoetxea eta Iñaki Sarriugarte]*. -- Bilbao : Mendebalde Euskal Kultur Alkartea, 2003. -- 201-200 or.

LASAGABASTER, Jesús María, GARTZIA, Pruden, ZAPIAIN, Markos, *Txillardegi nobelagintzan [hitzaldia, 2004-10-04, KM Kulturunea] / [Bideoa] : [antolatzailea, Koldo Mitxelena Kulturunea]*. 2004

LÓPEZ ADAN, E. (Beltza) *Txillardegiren pentsaera politikoa* . In: Jakin. -- 114. zenb. (ira.-urr. 1999) ; 67-83 or.

MITXELENA, Koldo eta Txillardegi. *[Koldo Mitxelena eta Txillardegiren arteko elkarriazketa] [Eskuizkribua]*. In: Koldo Mitxelena Kulturunea.

MOREDA M., GARTZIA, P. *Txillardegi : comversa com Jose Luis Alvarez Enparantza, "Txillardegi" = conversación con Jose Luis Alvarez Enparantza*. In: Tintimam. -- Vigo: [s.n.], 2. zenb. (2010). -- 37-44 or.

OLAZIREGI, Mari Jose. *Euskal eleberriaren historia: Santiago Onaindia ikerketa beka 1999 / Labayru Ikastegia, Bilbao : 2002*

OÑEDERRA, Miren Lourdes. *Txillardegi metafisikaz bestaldetik* In: Ere. San Sebastián Año 2, n. 19 (24-31 en. 1980), p. 56-57

ORMAETXEA, Txipi, Aurrekoetxea, Gotzon, Etxeberria, Pilartxo, Salaberri Muñoa, Patxi. *Txillardegi lagun-giroan* Bilbo : Udako Euskal Unibertsitatea, 2000

REKALDE, Yon. *«Txillardegi» entre cultura y la política*. In: Punto y hora de Euskal Herria., N80° (23-29 mar. 1978), 17 or.

RODRIGUEZ, Fito. *Txillardegi/ Donostia* : Erein, 2012.

SANTAMARÍA ANSA, Carlos & Txillardegi. *[Gutunak] 1963-1971 Santamaria [ri], Donostia [Eskuizkribua] / Txillardegi*. In: Koldo Mitxelena Kulturunea.

SARASOLA, Ibon. *Txillardegia eta Saizarbitoriaren nobelagintza : (irakurlearentzat gidaria)* / Kriseilu Donostia : 1975, 11 or.

SUDUPE, Pako. *50eko hamarkadako Euskal literatura I. Hizkuntza eta ideologia eztabaidak*/ Donostia : Utriusque Vasconiae, 2011.

-*50eko hamarkadako Euskal literatura II. Kazetaritza eta saiakera*/ Donostia : Utriusque Vasconiae, 2011.

-*50eko hamarkadako Euskal literatura III. Antzerkia eta hamarkadaren ikuspegi orokorra*. Donostia : Utriusque Vasconiae, 2011

TORREALDAI, Joan Mari, UGALDE, Martín de. *Txillardegia eta Martin Ugaldere arteko gutunak (1961-1969)* / [argitaratzailea], Joan Mari Torrealdai. In: Jakin, 1999

-*Euskal idazleak gaur. Historia social de la lengua y Literatura vasca*. Editorial: Jakin., Oñati, 1977.

-*Batasunaren bidea urratzen. Txillardegiren eragintza praktikoa* In: Jakin 204. zenbakia. 2014

URKIA, M. *Jose Luis Alvarez Enparanza "Txillardegia"ren oroitzapenetan: V. Biltzarra eta Fronte Abertzalea* / In: Punto y hora de Euskal Herria. 1988

VILLASANTE, Luis. *Leturia-ren egunkari ezkutua*. In: Egan, 5/6- zenbakia (1957ko irail-abendua), 329-330 orr.

-*Leturia-ren egunkari ezkutua* In: Egan, 5/6-1957 zenbakia (1957ko irail-abendua), 328-332orr

ZABALA, Juan Luis. *Jesus Maria Lasagabaster, Literatur Kritikaria: «Nobela abentura baten idazkeraren abentura da»* In: Berria, 2006ko martxoaren 8a, 36 or.

ZAPIAIN, Markos. *Txillardegia eta ziminoa*. Lasarte-Oria [etab.] : Susa, 2007

Hurrengo orrialdeetan Txillardegik 1956tik 1975ra arte argitaratutako lanak ageri dira. Horretarako, Estibaliz Albizuk, Nere Altunak, Idurre Antxiak, Kristina Aranak, Maria Angeles Gozalez-ek, Josune Olabarriak eta David Zapirainek Pruden Gartziaren zuzendaritzapean argitaratutako *Txillardegiren bibliografia: 1956-1999*⁷⁰⁷ lana erabili dut oinarritzat.

⁷⁰⁷ Euskaltzaindia. Azkue Biblioteka. *Txillardegiren bibliografia: 1956-1999*. Euskaltzaindia, 2000

1956

1

Aita Gaucher en mixtela / (A.Daudet'enetik euskeratula); Txillardegui –K euskeratula

In: Egan : suplemento de literatura del Boletín de la Real Sociedad Bascongada suplemento de los amigos del País. – Donostia-SanSebastián: Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País. (1.956) 25-33 orr.

2

Ez bat eta ez beste : (euskeraren auziari buruz) / Txillardegi

In: Egan: suplemento de literatura del Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los amigos del País.—Donostia- San Sebastián : Real Sociedad Bascongada de los amigos del País. (1956) 3-4. Zenb., 44-49 orr.

3

Fulton Sheen: Religión sin Dios/ Txillardegi

In: Egan: suplemento de literatura del Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los amigos del País.—Donostia- San Sebastián : Real Sociedad Bascongada de los amigos del País. (1956) 5-6. Zenb., 155-157 orr.

4

Karta idigía / José Luis Alvarez

In: Euskera: Euskaltzaindiaren la neta agiriak = trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca = travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque.—Bilbao : Euskaltzaindia = Real Academia de la Lengua Vasca = Académie de la Langue Basque.—1. Zenb (1956), 245-250 orr.

5

[*Leluriaren egunkari ezkutua. Antologia*]

Leluriaren egunkari ezkutua / Txillardegui

In: Euzko-gogoa. – Bayonne : Imp. Darracq. –7. Urtea (uzt.- daguenila 1956). – 3-6 orr.

6

Mendeurren oargarri bat: Buda Sakiamunita bere gaurkotasuna. Txillardegui

In: Egan : suplemento de literatura del Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País. -- Donostia- San Sebastián : Real Sociedad Bascongada de los amigos del País. (1956) 5-6. zenb., 94-98 orr.

7

Donosti ata Antigua 1829'ean/ Txillardegui

In: Egan : suplemento de literatura del Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País. -- Donostia- San Sebastián : Real Sociedad Bascongadade los amigos del País. (1957) 1-2. Zenb., 52-57 orr.

1957

8

[*Leluriaren egunkari ezkutua*] Leturia-ren egunkari ezkutua / J.L. Alvarez Enparantza (Txillardegi). – 1. Argitld – Bilbao : Euskaltzaindia, 1957 146 orr. : il ; 19 cm. -- (Len eta orain; 3)

9

Orangutanen ugartea / Txillardegi

In: Egan : suplemento de literatura del Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País. -- Donostia- San Sebastián : Real Sociedad Bascongada de los amigos del País.-- (1957) 5-6. Zenb., 289-295 orr.

10

Taupadak / Txillardegi

In: Euzko-gogoa. – Bayonne: Imp. Darracq.—8. Urtea (uzt.-daguena 1957), 63-68 orr.

11

Unamuno eragille: Urkijo- Mintegiko solas-aldia/ Txillardegi

In: Egan : suplemento de literatura del Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País. -- Donostia- San Sebastián : Real Sociedad Bascongada de los amigos del País.-- (1957) 3-4. zenb., 170-177 orr.

1958

12

Betikoaz agian / Txillardegi

In: Egan: suplemento de literatura del Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País. -- Donostia- San Sebastián : Real Sociedad Bascongada de los amigos del País.-- (1958) 1-2. zenb., 43-47 orr.

13

Piarres gaxoaren pasadizuak / Txillardegi

In: Egan : suplemento de literatura del Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País. -- Donostia- San Sebastián : Real Sociedad Bascongada de los amigos del País.-- (1958) 3-6. zenb., 162-164 orr.

14

“Txillardegui” Jaunaren erantzuna Iñaki Bastarrika’ko Jauniari

In: Yakin.—Aranzazu: Editorial Franciscana.—6. zenb. (pazkoaldikoa 1958), 85-93 orr.

1959

15

Batasunaren bidea / Txillardegi

In: Euskera: Euskaltzaindiaren lanak = trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca = travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque. –Bilbao: Euskaltzaindia = Real Academia de la Lengua Vasca = Académie de la Langue Basque.—4. zenb. (1959), 150-170 orr.

1960

16

Lekuko bikain bat hil da / Txillardegi

In: Egan : suplemento de literatura del Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País. -- Donostia- San Sebastián : Real Sociedad Bascongada de los amigos del País.-- (1960) 1-2. zenb., 52-58 orr.

17

Peru Leartza'ko / Txillardegi (José Luis Álvarez Enparantza). --[1. Argitld.]. -- Zarautz: Itxaropena, 1960 (mik. 1999) XI, 151 orr. ;19 cm

18

Propuesta de Reglamento pa --[sic] "Euskaltzaindi" y "Euskaltzaindiaren Laguntzalleak" : San Sebastián, junio 1960 / Alvarez Empananza. -- [S.I. : s.n.], 1960 . [2] or. ; 28 cm

Azkue Bibliotekaren oharra: Baitia ere argitaratu da ondokoan:

Txillardegi. Euskal Herria helburu. -- Tafalla: Txalaparta. L.G. 1994.—153-156 orr. -- Azkue Bibliotekaren oharra: Baitia ere argitaratu da ondokoan: Txillardegi. Euskal Herria en el horizonte. --Tafalla: Txalaparta, L.G. 1997. --146-149 orr.

19

"Txillardegi"-rekin solasean/ Inxausti'tar Joseba

In: Yaquin.—Aranzazu : Editorial Franciscana. --12. Zenb (pazkoaldikoa 1960), 82-86 orr.

1961

20

Alemanak eta gu/ Txillardegi

In: Tierra Vasca: Eusko Lurra. --Buenos Aires : [s.n].-- (sept. 1961), 7 orr.

21

"Castro, erlisioneari aiherr"/ Txillardegi'k

In: Tierra Vasca: Eusko Lurra. --Buenos Aires : [s.n].—N. 60 (jun. 1961), 7 orr.

22

Euskaldun guzien aberria / Txillardegi

Faksimile berregintza

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981.—T.1, 481.eta 484. Orr. (Zutik Caracas, n.14,1961)

23

Gogaide ez, baiña bai adiskide: (Orixe jaunari, begiramenduz eta adiskide antzera)/ Txillardegi

In: Jakin.—Editorail Franciscana.—14 zenb. (ilbeltza-jorrailla 1961), 52-54 orr.

24

Historia ezkertarrak dute / Txillardegi

In: Tierra Vasca : Eusko Lurra.—Buenos Aires : [s.n].-- (oct. 1961)

25

Lo que pretendemos / Usako

Faksimile berregintza

In: Documentos Y.—Donostia : Lur, 1979-1981.—T.1. 508. Orr. (Zutik,n.16, 1961)

26

Milovan Djilas edo Komunismoaren giltzarria / Txillardegi

Faksimile berregintza

In: Documentos Y.—Donostia : Lur, 1979-1981. –T. 1, 505. orr. (Zutik Caracas, n.16, 1961)

27

Milovan Djilas edo Komunismoaren giltzarria / Usako Faksimile berregintza

In: Documentos Y.—Donostia : Lur, 1979-1981. –T. 1, 407.orr. (Zutik, lotazilla-ilbeltza 1961-62)

28

Nai dugu/ Txillardegi

Faksimile berregintza

In: Documentos Y.—Donostia : Lur, 1979-1981. –T. 1, 488.orr. (Zutik Caracas, n.14,1961)

29

Ni Argel, ni Montgomery / por Txillardegi

In: Tierra Vasca : Eusko Lurra.—Buenos Aires : [s.n].-- (oct. 1961)

30

Ni comunismo, ni fascismo/ por Txillardegi

In: Tierra Vasca : Eusko Lurra.—Buenos Aires : [s.n].-- (ag. 1961)

31

[Singer kalean (Paris XVI), Jaurlaritzaren egoitzan, Agirrereren Gobernuaren sorreraregunaren XXV. Urteurrenean ETArenean emandako hitzaldia / J.L. Álvarez]

In: Documentos Y.—Donostia : Lur, 1979-1981.—T.1, 393-397 orr. (Zutik azillako 20, 1961). –

Bertsio laburtua.—Faksimile berregintza

In: Krutwing Sagredo, Federico. Vasconia. –Buenos Aires : Norbait, 1962. –609-614 orr.

In: Krutwig Sagredo, Federico. La nueva Vasconia. --[Donostia] : Ediciones Vascas, L.G. 1979. –609-614 orr.

In: Txillardegi. Euskal Herrira helburu. –Tafalla :

Txalaparta, L.G. 1994.—201-209 orr.

In: Txillardegi. Euskal Herria en el horizonte. –Tafalla :

Txalaparta, L.G. 1997. – 192-201 orr. – Testua espainieraz

32

Urgentemente / Txillardegi

In: Documentos Y.—Donostia : Lur, 1979-1981. –T. 1, 447-448 orr. (Zutik Caracas, n.9, 1961). –Faksimile berregintza.

Testuaren azkenean: "Tomado de TIERRA VASCA

In: Tierra vasca : Eusko Lurra. --"Buenos Aires : --[s.n].(feb. 1961), 7. orr.

33

Uztaillaren 18: piper-potoak sutan /
Txillardegi

In: Tierra Vasca : Eusko Lurra. –Buenos Aires : [s.n].-- (ag.1961), 7. orr

1962

34

1895: Franco'ren jaurlaritzaren berri /
Txillardegi

In: Tierra Vasca : Eusko Lurra. –Buenos Aires : [s.n].—N. 77 (nov. 1962), 7. orr.

35

El árbol de Guernica a tratamiento/ Usako
Testu transkribatua

In: Documentos Y. –Donostia : Lur, 1979-1981. –T.1, 430-431 orr. (Zutik, n 17, abr. 1962)

36

Alkartu bearra/ Tx.

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. –Donostia : Lur, 1979-1981. –T.2, 340.orr. (Zutik, irugarren sorta, 12. Zenb., 1962)

37

Bihar ere Gernika / Txillardegi

Faksimile berregintza

In: Documentos Y. –Donostia : Lur, 1979-1981. – T. 1, 413-414 orr. (Zutik, n. Extraordinario, jorrailla 1962).

-- Faksimile berregintza

In: Documentos Y. –Donostia : Lur, 1979-1981. –T.1,

428-429 orr. (Zutik, n. 17, abr. 1962). –

Testu

transkribatua eta Francoren eta Hitleren aipu bana

38

Castas y enseñanza en Euzkadi /Usako

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. – Donostia : Lur, 1979-1981. –T.2, 315-316 orr. (Zutik, irugarren sorta, 9, zenb., 1962)

39

Contra todas las dictaduras / por Usako

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. – Donostia : Lur, 1979-1981. – T.2, 276-277 orr. (Zutik, irugarren sorta, 6. Zenb., 1962)

40

Emen "Radio Coté-Basque": Txillardegigure idaz-le Argiari Radio Coté-Basque 'en egin zioten galde-erantzuketa da au

In: Tierra Vasca: Eusko Lurra.—Buenos Aires : [s.n]. —N.78 (dic. 1962). 7. orr.

41

Etxepare il da /Tx.

In: Tierra Vasca : Eusko Lurra. – Buenos Aires : [s.n].-- (en. 1962), 7. orr.

42

Gibraltar eta beste / Txillardegig

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. –Donostia : Lur, 1979-1981. –T.2, 297. orr. (Zutik, irugarren sorta, 8. zenb., 1962)

42 a) *Goa/ Txillardegig*

In: Tierra vasca. Eusko Lurra. Buenos Aires [s.n]: (en-1962)

43

Izakun'go [i.e. Izaskun'go] gertaera /Tx.

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. –Donostia : Lur, 1979-1981. –T.2, 385-386. orr. (Zutik, irugarren sorta, 17. zenb., 1962)

44

Jauntxoen saldukeriak / Txillardegig

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. –Donostia : Lur, 1979-1981. –T.2, 256. orr. (Zutik, irugarren eraia, 4. zenb., 1962)

45

Movimientos migratorios en Euzkadi / Usako

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. –Donostia : Lur, 1979-1981. –T.2, 340. orr. (Zutik, irugarren sorta, 11. zenb., 1962)

46

Neo-carlismo / Txillardegig

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. –Donostia : Lur, 1979-1981. –T.2, 265-266. orr. (Zutik, irugarren eraia, 5. zenb., 1962)

47

Pactos/ Usako

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. –Donostia : Lur, 1979-1981. –T.2, 255. orr. (Zutik, irugarren eraia, 4. zenb., 1962)

48

Planificaciones / Usako

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. –Donostia : Lur, 1979-1981. –T.2, 371-372. orr. (Zutik, irugarren sorta, 15. zenb., 1962)

49

El primer deber del emigrante / U.

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. –Donostia : Lur, 1979-1981. –T.2, 341. orr. (Zutik, irugarren sorta, 11. zenb., 1962)

50

El problema de la inmigración en Euzkadi /

Usako

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. –Donostia : Lur, 1979-1981. –T.2, [251-253 orr. (Zutik Berriak, 1962)

51

Quienes son los "separatistas" / Usako

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. –Donostia : Lur, 1979-1981. –T.2, 289-290 orr. (Zutik, irugarren sorta, 7. zenb., 1962)

52

Separatistas? / Usako

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. –Donostia : Lur, 1979-1981. –T.2, 361-362 orr. (Zutik, irugarren sorta, 13-14. zenb., 1962)

53

"Vasconia" / José Luis Alvarez Emparanza

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. –Donostia : Lur, 1979-1981. –T.2, 378-380 orr. (Zutik, irugarren sorta, 16. zenb., 1962)

54

Zer da "eutsi"? / Txillardegi

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. –Donostia : Lur, 1979-1981. –T.2, 287 orr. (Zutik, irugarren sorta, 7. zenb., 1962)

55

Zertan gara, mutillok / Txillardegi

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. –Donostia : Lur, 1979-1981. –T.2, 280 orr. (Zutik, irugarren sorta, 6. zenb., 1962)

1963

56

Euskaltzaindia'ko adiskide maiteok, agur / Txillardeg

In: Enbata: hebdomadaire politique basque.—Baiona.—28.zenb. (ira, 1963)

In: Tierra Vasca : Eusko Lurra. – Buenos Aires : [s.n].

-- (oct. 1963), 1. zatia

In: Tierra Vasca : Eusko Lurra. – Buenos Aires : [s.n].

-- (nov. 1963), 2. zatia

In: Txillardeg. Euskal Herria helburu.—Tafalla :

Txalaparta, L.G. 1994.—161-167 orr.

In: Txillardeg. Euskal Herria en el horizonte. -- Tafalla :

Txalaparta, L.G. 1997.—154-161 orr. – Testua espainieraz

57

Landaburu jauna il da (g.b.) : recordar sus palabras, el mejor homenaje / Txillardeg
Testu transkribatua

In: Documentos Y.—Donostia : Lur, 1979-1981 . – T.2, 455.orr. (Zutik, n. Especial, 1963)

58

Autodeterminación. ¿cómo? / Etarra

Azkue Bibliotekaren oharra: Egilearen izena egileak berak emana

In: Tierra Vasca: Eusko Lurra. –Buenos Aires : [s.n]. -- (feb. 1963)

1964

59

Baiona'ko Biltzarren erabakiak : (1964-eko agorrillaren 29-30) / Idazkaritza'ko

Hizkuntza Saillak; [antolatzaileak, Txillardeg ... et al]. – Baiona : Euskal Idazkaritza, 1964 7 orr : 23 cm

Antolatzaileen izenak ondoko liburutik jasoak: Euskal Herria helburu / Jose Luis Alvarez Enparantza "Txillardeg". – Tafalla : Txalaparta, L.G. – 168. orr.

60

Carta a Iñaki / Usako

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y.—Donostia : Lur, 1979-1981 . – T.3, 248.orr. (Zutik, irugarren sorta, 22.zenb., 1964)

61

Erriaren indarra / U

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. –Donostia : Lur, 1979-1981. –T.3, 185 orr. (Zutik, irugarren sorta, 18. zenb., 1964)

62

Es preciso hablar del futuro / Txillardeg

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. –Donostia : Lur, 1979-1981. –T.3, 276-277 orr. (Zutik, irugarren sorta, 24. zenb., 1964)

63

Folklore, folklore hasta en la sopa / Usako

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. –Donostia : Lur, 1979-1981. –T.3, 267-268 orr.

(Zutik, irugarren sorta, zenb.24, 1964)

64

¿Hacer política? / Txillardegi

In: Documentos Y. –Donostia : Lur, 1979-1981. –T.3, 223-224 orr.

(Zutik, irugarren sorta, 20 .zenb, 1964)

-- Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. –Donostia : Lur, 1979-1981. –T.3, 399-400 orr.

(Zutik Caracas, n.44, jun. 1964) -- Testu transkribatua

65

Kapitalisten langille "prestua" / Tx.

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. –Donostia : Lur, 1979-1981. –T.3, 241 orr.

(Zutik, irugarren sorta, 22. zenb., 1964)

66

Lecciones de la huelga / Tx.

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. –Donostia : Lur, 1979-1981. –T.3, 233. orr.

(Zutik, irugarren sorta, 21. zenb., 1964)

67

La lengua del opresor/ Txillardegi

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. –Donostia : Lur, 1979-1981. –T.3, 256-257. orr.

(Zutik, irugarren sorta, 21. zenb., 1964)

68

Txillardegiren itzaldia Itsasun

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. –Donostia : Lur, 1979-1981. –T.3, 207-209. orr.

(Zutik, irugarren sorta, 19. zenb. Aberri-Eguna, 1964)

68 a) *Sartre 'ren ukoaz/ Txillardegi*

In: Gertakarien lekuan (1964-XI-18)

1965

69

[Ahmed se ha trasladado a Bruselas con el fin de analizar las posibilidades concretas de ejecutar el acuerdo de la IV Asamblea referentes ETA-Exterior] : [carta] / Jean

Faksimile berregintza

In: Documentos Y. –Donostia : Lur, 1979-1981. –T.4, [397-398]. orr. (1965)

70

Astetik atera / Goinetxe

In: Zeruko Argia. – Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. –28. Urtea, 140. (urr. 31, 1965), 7. orr

71

Astetik astera/ Goienetxe

In: Zeruko Argia. --Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. --28. urtea, 141. zenb. (aza. 7, 1965) 7. orr.

72

Astetik astera/ Goienetxe

In: Zeruko Argia. --Pamplona [etab.] : Aita Kaputxinoak. --28. urtea, 142. zenb. (aza. 14, 1965) 7. orr.

73

Astetik astera / Goienetxe

In: Zeruko Argia. --Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 28 urtea, 144. zenb. (aza 28, 1965), 7. orr.

74

Astetik astera / Goienetxe

In: Zeruko Argia. --Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 28 urtea, 145. zenb. (abe 5, 1965), 7. orr.

75

Astetik astera / Goienetxe

In: Zeruko Argia. --Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 28 urtea, 147. zenb. (abe 19, 1965), 7. Orr.

76

Astetik astera / Goienetxe

In: Zeruko Argia. --Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 28 urtea, 148. zenb. (abe. 26, 1965), 7. Orr.

77

Astetik astera: auzo-lan eta äillu~/ Goienetxe

In: Zeruko Argia. --Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 28 urtea, 143. zenb. (aza. 21, 1965), 7. Orr.

78

Astetik astera: soziologo haundi entzun ondoren / Goienetxe

In: Zeruko Argia. --Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 28 urtea, 146. zenb. (abe. 12, 1965), 7. Orr.

79

[Con el fin de contribuir en la medida de mis ideas ...]

[carta] / Jean

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T. 4, 487-491 orr. (1965)

80

[con fecha Septiembre de 1965 el Comité Central de Partido Comunista de Euskadi (tendencia china) ha hecho una declaración de principios...]: (carta)/ Jean Faksimile berregintza eta trstu transkribatua

In: Documento Y.--- Donostia: Lur. 1979-1991.—T.4. 414-417 orr (1965)

81

[*La decisión de la última Asamblea de dejar en suspenso el apartado "social" de la primera declaración de ETA de 1962 ...*] : [carta] / Jean

Faksimile berregintza

In: Documentos Y. – Donostia : Lur, 1979-1981. – T.4, [412]. Orr. (1965)

82

[*La Delegación de ETA de Argentina ha creado un Comité de Apoyo a Christiane Etxaluz en Buenos Aires ...*]

[carta] / Jean

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. – Donostia : Lur, 1979-1981. – T. 4, 420-421 orr. (1965)

83

Elkarrizketa "Kamiñazpi" Jaunari / Tx.

In: Jakin. – Aranzazu : Editorial Franciscana. – 19. Zenb. (mai. 1965), 21-24 orr.

84

[*Empezaré por daros unas impresiones del viaje ...*] : [carta] / Jean

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. – Donostia : Lur, 1979-1981. – T. 4, 407-409 orr. (1965)

85

[*Enviado por Br., Noticias ...*] : *América (septiembre 1965)* : [carta] / Jean

Faksimile berregintza

In: Documentos Y. – Donostia : Lur, 1979-1981. – T. 4, [399] orr. (1965)

86

[*Euzkadi'ko eta atzerriko etarren artean, eta azkeneko Biltzar Nagusiaren asmoak ...*] : [gutuna] / J

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. – Donostia : Lur, 1979-1981. – T. 4, 407-409 orr. (1965)

87

[*Gaur joan da Santi, hemen hamar egun pasa ondoren ...*]: [gutuna] / Jean

Faksimile berregintza

In: Documentos Y. – Donostia : Lur, 1979-1981. – T. 4, [400]. orr. (1965)

88

[*Hier soir j'ai reçu la visite de M. Le Chanoine Pochelu ...*] -- [lettre] / J.L. Álvarez-Emparantza

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T. 4, 180. orr. (Zutik Caracas, n.53, marzo-abr. 1965).—Testu transkribatua. -- Testua espainieraz

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T. 3, [466]. orr. (Zutik, Irugarren sorta, 27. Zenb., 1965). --

Faksimile berregintza. --Testua espainieraz

In: Txillardegia. Euskal Herria helburu. -- Tafalla:

Txalaparta, L.G. 1994. -- 218-219 orr.

In: Txillardegia : Euskal Herria en el horizonte. -- Tafalla:

Txalaparta, L.G. 1997. -- 209-210 orr.

In: Enbata: Journal Nationaliste Basque et Fédéraliste

Européen. -- Bayonne. -- N, 43 (jan. 1965). [16. Orr.]

89

Huntaz eta hartaz : (hamar saiakera labur) / Txillardegia. --

[1. argitld]. -- [Baiona?] : Goiztiri, [1965] 107 orr. ; 21 cm

Edukia: Kristasuna eta mundutar garaitzapena -- Oraindik ere

Karlismoa nagusi Euskal- Herrian -- Eskuindar eta ezkerter --

Intelektualak eta ekintza-gizonak- Biarno euskaldunaz --

Azken heriotza dala-ta -- Euskotarrak utikan! -- Euskaldun

Txapeldunei bi hitz -- Eskolako beti-lehenak -- Marilyn`ek bere burua hil du.

90

Informe político a la Dirección de E.T.A. : (26-XI-1965 Bruselas) / Txillardegia

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T. 4, 423-[429]. orr. (1965) Faksimile berregintza

In: Txillardegia. Euskal Herria helburu. -- Tafalla:

Txalaparta, L.G. 1994. -- 222-236 orr.

In: Txillardegia. Euskal Herria en el horizonte. -- Tafalla :

Txalaparta, L.G. 1997.--213-225 orr.

91

[*Jaso dut zuen txostena ...*] : [gutuna] / Jean Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T. 4, 411 orr. (1965)

92

[*Las discusiones ideológicas o cambios de impresiones durante la IV Asamblea...*]:

(carta)/ Jean

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y.—Donostia: Lur, 1979-1981.—T.4, 411. orr (1965)

93

Levy Strauss-ek Unamuno-rengana / Igara

In: Jakin. -- Aranzazu : Editorial Franciscana. -19.

Zenb. (mai. 1965), 6-15 orr.

94

Luis las Herasí erantzunez / Txillardegi

In: Tierra Vasca : Eusko Lurra. -- Buenos Aires : [s.n].

-- (sept. 1965)

95

[*Nuestro engrimiento*] : [carta] / Jean

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T. 4, 418-419 orr. (1965)

96

[*Os ruego empecéis lustras cartas de modo sistemático ...*] : [carta] / Jean

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T. 4, 413 orr. (1965)

97

[*Prefeto Jauna, Hemendik aldegitoko zure jakinarazi zait*] : [gutuna]

In: Txillardegi. Euskal Herria helburu. -- Tafalla:

Txalaparta, L.G. 1994. -- 217-218 orr.

In: Txillardegi. Euskal Herria en el horizonte. -- Tafalla :

Txalaparta, L.G. 1997.--208-209 orr. -- Testua espainieraz

In: Enbata : Journal Nationaliste Basque et Fédéraliste

Européen. -- Bayonne. --N. 43, (jan. 1965). 15. orr.

98

Pseudo-progressistes / Txillardegi

Testu transkribatua

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T. 4, 133-134 orr. (Zutik Berriak del exterior, 1965)

99

Segundo informe enviado al ejecutivo : (19 de diciembre 1965) / José Alvarez

Enparantza, Jean

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T. 4, [429-430] orr. (1965)

In: Txillardegi. Euskal Herria helburu. -- Tafalla :

Txalaparta, L.G. 1994. --236-239 orr.

In: Txillardegi. Euskal Herria en el horizonte. -- Tafalla :

Txalaparta, L.G. 1997.--225-227 orr.

100

Seudo-progresistas / J.L. Álvarez –
Emparanza (Txillardegi)

Faksimile berregintza

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-
1981. -- T. 3, [480-481] orr. (Zutik, 28.
Zenb., api. 1965 1965)

1966

101

[El Diario Vasco de S.S. publica la
siguiente nota (19-6-66)

..] : [carta] / Jean

Faksimile berregintza eta testu
transkribatua

In: Documentos Y. --Donostia : Lur, 1979-
1981. --T.4, 499-500 orr. (1966)

102

A. Arizmendiarieta, euskaldunen etsai:
[gutuna] / Tx

Faksimile berregintza

In: Documentos Y. --Donostia : Lur, 1979-
1981. --T.4, 396 orr.

(1966). – Jon Nikolasen oharra : “Nota al
artículo :

Artículo en contra del inspirador del
cooperativismo en

Mondragón y contra las cooperativas que
fue enviado para su publicación en Zutik,
con la oposición manifiesta de todos los de
Baiona. No se publicó. (J.N.)”

103

Ante la V Asamblea : [carta] / Jean

Faksimile berregintza eta testu
transkribatua

In: Documentos Y. --Donostia : Lur, 1979-
1981. --T.4, 524. orr. (1966)

104

*[Ante su respuesta inminente, suspendo mis
escritos ...]* : [carta] / Jean

Faksimile berregintza eta testu
transkribatua

In: Documentos Y. --Donostia : Lur, 1979-
1981. --T.4, 469. orr. (1966)

105

Astetik atera / Goihenetxe

In: Zeruko Argia. – Pamplona [etab] : Aita
Kaputxinoak. --

28. urtea. 149. Zenb. (urt. 2, 1966), 7. Orr.

106

Astetik atera / Goihenetxe

In: Zeruko Argia. – Pamplona [etab] : Aita
Kaputxinoak. --

28. urtea. 152. Zenb. (urt. 23, 1966), 7. Orr

107

*[El asunto de las suscripciones debe ser
tomado totalmente en serio ...]* : [carta] /
Jean

Faksimile berregintza eta testu
transkribatua

In: Documentos Y. --Donostia : Lur, 1979-
1981. --T.4, 527. orr. (1966)

108

[*El asunto del Aberri-Eguna continua aclarándose ...*] : [carta] / J

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T.4, [447]. orr. (1966)

109

[*Asunto extremadamente grave ...*] : [carta] / Jean

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T.4, 460-464 orr. (1966)

110

[*Autocrítica de la situación ...*] : [carta] / Jean

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T.4, 439-442 orr. (1966)

111

[*El caldeamiento del ambiente se prosigue ...*] : [carta] / Jean

Faksimile berregintza

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T.4, 477 orr. (1966)

112

Contacto de Jean con el ejecutivo : [carta] / Jean

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T.4, 507-509 orr. (1966)

113

[*Del patriotismo vasco al regionalismo norteño*] / José Luis Alvarez Enparantza

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T.4, 367-370 orr. (Zutik Caracas, n. 59, ene. 1966). – Testu transkribatua. – Txillardegiren oharra: Este artículo era aparentemente una réplica a “Tierra Vasca”, pero de hecho era la versión publicada de mi informe al ejecutivo de noviembre de 1965” (Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T.4, 412. Orr.)

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T.4, 403-406 orr. – Faksimile berregintza. – Jon Nikolasen oharra: “Nota al informe : “Del patriotismo vasco al regionalismo norteño. En tono polémico en contra de varios trabajos aparecidos en Tierra Vasca-Euzko Lurra : [sic], fue remitida para su publicación en Zutik, siendo rechazado por la Oficina Política, constituyendo en su inmediato futuro ¿? base de las denuncias contra el desviacionismo, tanto en la línea del Zutik como del propio Comité Ejecutivo. (J.N.

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T.4, 403. Orr

114

[El diario "Le monde"... en página 4 de fecha 2'4'99, publica siguiente despacho : un tribunal militar condena a 28 meses de cárcel a una institutriz francesa ...] :[carta] / Jean

Faksimile berregintza

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T.4, [475]-476 orr. (1966)

115

El diario "Le monde" comunica que más de 3000 estudiantes han manifestado en esta ciudad reclamando sindicato de estudiantes libres ...] : [carta] / Jean

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T.4, 474 orr. (1966)

116

[En reunión celebrada en Bayona hace unos días, en presencia de ETA ... se decidió unificar al máximo la posición de la federación Exterior de ETA ...] : [carta] / Jean

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T.4, 504. orr. (1966)

117

[ETA se ha decidido por Irún, como os lo dije ayer ...] [carta] / Jean

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T.4, 456-459 orr. (1966)

118

[Falta de información ...] [carta] / Jean

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T.4, 526. orr. (1966)

119

Frente nacional vasco o Frente de clase / Tx.

In: Branka : euskaldun sozialista aldizkaria. T. I. -- San

Sebastián : Ediciones Vascas. -- 2. zenb. (ira. 1966), 135-143 orr.

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T.4, 384-388 orr.

(Zutik Caracas, n. 67, 1966). -- Testu transkribatua -- Testuaren azkenean: (Tomado de "Branka", N. 92)

120

[Gaur eman dit Leunda'k Markoséko neretzako emandako alea ...] [gutuna] / Jean

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T.4, 521. orr. (1966)

121

Hizkuntza eta herri-kidetasuna / Txillardegi

In: Branka : euskaldun sozialista aldizkaria.

T. I. --San Sebastián : Ediciones Vascas. --
2. zenb. (ira. 1966),

84-97 orr.

122

Hizkuntza eta pentsakera / Txillardegi

In: Branka : euskaldun sozialista aldizkaria.

T. I. -- San

Sebastián : Ediciones Vascas. -- 1. zenb.
(api. 1966),

51-72 orr.

In: Saioak. -- San Sebastián : Promoción de
EstudiosCientíficos de Investigación. -- 3. Zenb.
(1979) 259-278

orr.

123

*[Hoy, 7 de diciembre, he recibido de ETA-
Bayona, con orden de enviarosla
inmediatamente, la copia (adjunta) del
documento que acaba de darse a conocer
...]* : [carta] / JeanFaksimile berregintza eta testu
transkribatuaIn: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-
1981. -- T.4, 531. orr. (1966)

124

Ideas para el próximo ideario : [carta] /
JeanFaksimile berregintza eta testu
transkribatuaIn: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-
1981. -- T.4, 501-503. orr. (1966)

125

*[Informe a la dirección política de ETA :
Bruselas, 19-3-1966]* / TxillardegiIzenburua "Txillardegi. Euskal Herria
helburu. --Tafalla: Txalaparta, L.G. 1994"
liburutik jasoIn: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-
1981. -- T.4,

[465-468] orr. (1966)

In: Txillardegi. Euskal Herria helburu. --
Tafalla : Txalaparta, L.G. 1994. -- 248-256
orr.In: Txillardegi. Euskal Herria en el
horizonte. -- Tafalla :

Txalaparta, L.G. 1997. -- 234-239 orr.

126

*Informe al comité Ejecutivo de ETA :
(Bruselas, 6 de marzo de 1966)* / JeanIn: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-
1981. -- T.4, (499-452) orr. (1966)In: Txillardei. Euskal Herria helburu. --
Tafalla : Txalaparta, L.G. 1994. -- 239-247
orr.In: Txillardegi. Euskal Herria en el
horizonte. -- Tafalla : Txalaparta, L.G.
1997.--227-233 orr.

127

[Lamento no poder mandaros noticias con mayor frecuencia ...]: [carta] / Jean

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T.4, 431. orr. (1966)

128

El marxismo-leninismo y las nacionalidades : [carta] / Jean

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T.4, 505-506. orr. (1966)

129

Nacionalismo vasco e izquierda norteña: [carta] / Jean

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T.4, 492-498. orr. (1966)

130

Nazio arteko unea / Goienetxe

In: Zeruko Argia. – Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. –

28. urtea, 151. Zenb. (urt.16, 1966), 5. orr.

131

[Nere txostenei eratzungo diezutela jakiñarazi zait iparraldetik ...] [gutuna] /

Jean

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T.4, 448. orr. (1966)

132

[Os supongo al corriente de los incidentes de Ab. Eg ...] : [carta] / Jean

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T.4, 478-481 orr. (1966)

133

[Os transmito integra la nota que llega de Euzkadi Norte ...] : [carta] / Jean

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T.4, 454-455 orr. (1966)

134

Plan para el cursillo tendencia socialista humanista : [carta] / Jean

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T.4, 535-537 orr. (1966)

135

[El PNV y el PSOE español, únicos interesados en el Aberri Egunez de Vitoria ...] : [carta] / Jean

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T.4, 453. orr. (1966)

136

[Recibí el telegrama ayer tarde ...] : [carta] / Jean

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T.4, 434. orr. (1966)

137

Respuesta a Zeruko Argia / Usako

Testu transkribatua

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T.4, 390-391. orr. (Zutik Caracas, n.67, 1966)

138

[Sólo habrá hoy novedades del Aberri Eguna ...] : [carta] / Jean

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T.4, 478-481 orr. (1966)

139

Socialismo y libertad: "Zutik" de Caracas, n.63, ha publicado el siguiente artículo que yo suscribo de nuevo: [carta] / Jean

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T.4, 483-485 orr. (1966)

140

[Sometido al silencio más total, no puedo enviaros noticia alguna llegada de Euzkadi...] : [carta] / Jean

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T.4, ¿28-529. orr. (1966)

141

Lo que proponemos para la convocación de una Asamblea: [carta] / Jean

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T.4, ¿???-523. orr. (1966)

142

[Tras mis escritos no es ningún secreto que no estoy de acuerdo con la dirección que se ha dado a ETA tras la IV Asamblea bajo vuestras órdenes] : [carta] / Jean

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T.4, 486-¿???. orr. (1966)

143

Unamuno ala Jammes? / Igara

In: Jakin. – Aranzazu : Editorial Franciscana. – 10. urtea, ¿?. zenb. (1-1966),
81-84 orr.

144

[Urgentísimo, Zabalbide [sic] ha iniciado la huelga de hambre el 6 de enero ...] : [carta] / Jean

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T.4, 433. orr. (1966)

145

Azalpen E.T.A.-ko Buruzagitza'ri / J.L. Álvarez Emparantza .. [et al.]

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T.7, 101

eta 103-107 orr. (1967). -- Testua euskaraz, espainieraz eta

frantsesez. -- Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Txillardegi. Euskal Herria helburu. -- Tafalla :

Txalaparta, L.G. 1994. -- 262-263 orr. – Testua euskaraz

In: Txillardegi. Euskal Herria en el horizonte. -- Tafalla :

Txalaparta, L.G. 1997.--245-247 orr. – Testua espainieraz

1967

146

Egia ta ipuinak / Larresoro

In: Zeruko Argia. – Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. –29. urtea, 247. Zenb. (aza. 26, 1967), 7. orr.

147

Estrategia : (borrador para presentar el problema, 29-1-1967) : [carta] / J.

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T.7, 26-30 orr. (1967)

148

Gazteei bai / Larresoro

In: Zeruko Argia. – Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. –29. Urtea, 248. Zenb. (abe. 3, 1967), 7. orr.

149

Gure eginkizunaz / Igara

In: Jakin. – Aranzazu : Editorial Franciscana. – 24.

Zenb. (1967), 1-7 orr.

150

Hizkuntza eta erresuma / Txillardegi

In: Branka: euskaldun sozialista aldizkaria. T. I. – San Sebastián : Ediciones Vascas. – 5. Zenb. (garagarrilla 1967), 271-283 orr.

151

[*Huntan bukatu da barneko burruka ...*] :
[*gutuna*] / Tx.

Faksimile berregintza

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T.7, 81 orr. (1967)

152

Idioma y forma de pensar / Txillardegi

Faksimile berregintza eta testu transkribatua. --

Ondokoaren itzulpena: Hizkuntza eta pentsakera. Branka :

euskaldun sozialista aldizkaria. T. I. -- San Sebastián :

Ediciones Vascas. --1. zenb. (api. 1966), 51-72 orr.

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T.7, 385-401 orr. (Zutik Caracas especial, en. 1967)

153

Intelektualen betekizunez / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona : [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 29. Urtea, 248. zenb. (abe. 3. 1967), 7. orr.

154

Loa eta ametsa / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 29. Urtea, 241. zenb. (urr. 15. 1967), 7. orr.

155

El marxismo-leninismo y los problemas nacionales / Usako

In: Branka : euskaldun sozialista aldizkaria.

T.I. -- San Sebastián : Ediciones Vascas. -- 5. zenb. (garagarrilla 1967), 284-291 orr.

156

Marxismoa modan egon zan: Rikardo Arregi'ri erantzunez / Igara

In: Jakin. -- Aranzazu : Editorial Franciscana. --26. Zenb. (1967), 3-21 orr.

157

Proposición de cursillo : (para completar) : [carta] /:J.

Faksimile berregintza eta testu transkribatua

In: Documentos Y. -- Donostia : Lur, 1979-1981. -- T.7, 25. orr. (1967)

158

Sinistu ezinean iges egin behar / Igara

In: Jakin. -- Aranzazu : Editorial Franciscana. --27-28. Zenb. (1967), 16-22orr.

159

Soljenitsyne'ren arazoa / Txillardegi

In: Tierra Vasca : Eusko Lurra. – Buenos Aires : [s.n.]. –

(jul. 1967), 1. Zaita

In: Tierra Vasca : Eusko Lurra. – Buenos Aires : [s.n.]. –

(jul. 1967), 2. Zaita

In: Tierra Vasca : Eusko Lurra. – Buenos Aires : [s.n.]. –

(jul. 1967), 3. Zaita

160

Suomi'z zenbait jakingarri / Txillardegi

In: Branka : euskaldun sozialista aldizkaria. T.I. – San Sebastián : Ediciones Vascas. – 3-4. zenb. (urt. 1967), 177-198 orr.

161

Txillardegi opina: programa común / José Luis Álvarez

Enparantza

In: Tierra Vasca : Eusko Lurra. -- Buenos Aires : [s.n.]. – (nov. 1967)

162

Jendeak eta bizilekuak / Walt Disney ; Jane Werner Watson

Idazlea ; Walt Disney Elkartekoen Iaguntzarekin ; Larresorok

Euskeratua. -- Valencia : Gaisa, cop. 1967

176 orr. : il. ; 29 cm. -- (Gauza harrigarria;3)

1968

163

Aitzekiarik ez aurrerakoan / Larresoro

In: Zeruko Argia. –Pamplona [etab.] : Aita Kaputxinoak.

-- 30. Urtea, 294. zenb. (urr. 20, 1968), 7. Orr.

164

Batasunari batzuk agurka eta beste batzuk aurka / [Txillardegi ... (et al.)]

In: Euskera : Euskaltzaindiaren la neta agiriak = trabajos

Y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca = travaux

Et actes de l'Académie de la Langue Basque. – Bilbao : Euskaltzaindia = Real Academia de la Lengua Vasca = Académie de la Langue Basque. – 13. zenb. (1968), 222. orr.

165

Berlin'go ikasleak cogaituta [sic] / Txillardegi

In: Tierra Vasca : Eusko Lurra. -- Buenos Aires : [s.n.].- Año 13 (nov. 1968)

166

Biafra'ko arazo aeta Brider sozialista / Txillardegi

In: Tierra Vasca : Eusko Lurra. -- Buenos Aires : [s.n.].-- (oct. 1968)

167

Biafra'ren deia / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab.] : Aita Kaputxinoak.

-- 30. Urtea, 283. zenb. (dagonilak 4, 1968), 3. Orr. 168

Bratislava'n entzundakoak / Larresoro

In: Zeruko Argia. --Pamplona [etab.] : Aita Kaputxinoak-- 30. urtea, 291. zenb. (ira. 29, 1968), 3. orr.

169

Cohn Bendit eta Waldeck Rochet / Larresoro

In: Zeruko Argia. --Pamplona [etab.] : Aita Kaputxinoak-- 30. urtea, 282. zenb. (uzt. 28, 1968), 7. orr.

170

Del frente español al frente nacional vasco / Usako

In: Branka : euskaldun sozialista aldizkaria. T.I. -- San Sebastián : Ediciones Vascas. -- 7. zenb. (garagarrilla 1968), 372-377 orr.

171

Eskarrik asko, Estixtu / Larresoro

In: Zeruko Argia. --Pamplona [etab.] : Aita Kaputxinoak -- 30. urtea, 277. zenb. (garagarrilla 23, 1968), 3. orr.

172

Eskozia'ren eta Galesén iratzarpena / Larresoro

In: Zeruko Argia. --Pamplona [etab.] : Aita Kaputxinoak -- 30. urtea, 255. zenb. (ilbeltzak 21, 1968), 7. orr.

173

Estrukturalismoaz zenbait hitz / Igara'k

In: Jakin. -- Aranzazu : Editorial Franciscana. --12. Urtea, 29. zenb. (Ibeltzats. 1968), 15-29 orr.

174

Etxebarieta'ren [i.e. Etxebarieta'ren] heriotzaren ondean / Txillardegí'k

In: Tierra Vasca : Eusko Lurra. -- Buenos Aires : [s.n].-- Año 13 (jul. 1968)

175

Euskal arkeologiatik erdal sasi-sozialismora / Txillardegí'k

In: Tierra Vasca : Eusko Lurra. -- Buenos Aires : [s.n].-- (en. 1968)

176

Euskera, ire laguna! / Larresoro

In: Zeruko Argia. --Pamplona [etab.] : Aita Kaputxinoak -- 30. urtea, 253. zenb. (ilbeltzak 7, 1968), 7. orr.

177

Euzkadi sozialista nahi dugu / Txillardegí'k

In: Tierra Vasca : Eusko Lurra. -- Buenos Aires : [s.n].-- (abr. 1968)

178

La evolución del imperialismo español en Euzkadi : tesis del anti-vasquismo izquierdista / Usako

In Branka : euskaldun sozialista aldizkaria. T.I. – San Sebastián : Ediciones Vascas. – 6. zenb. (ots. 1968), 350-363 orr.

179

Gerediaga Elkarateak eratutako biltzar-kideei / Txillardegik

In: Jakin. -- Aranzazu : Editorial Franciscana. -- 12. urtea, 31-32. zenb. (mai. – urr. 1968), 66-70 orr.

180

Gorz ekonomiatik haruntz / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 30. Urtea, 262. zenb. (epaillak 10. 1968), 7. orr.

181

Helder Camara Lieja'n / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 30. Urtea, 272. zenb. (lorailak 19. 1968), 3. orr.

182

Herbert Marcuse'ren ideia batzuk / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 30. Urtea, 284. zenb. (dagonillak 11, 1968), 3. orr.

183

Hika eta zuka-ko aditz-joko edo konjugazioaz / Txillardegik

In: Euskera : Euskaltzaindiaren la neta agiriak = trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca = travaux Et actes de l'Académie de la Langue Basque. – Bilbao : Euskaltzaindia = Real Academia de la Lengua Vasca = Académie de la Langue Basque. – 13. Zenb. (1968), [127]- 136 orr.

184

Hitz oroigarriak / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 30. urtea, 296. zenb. (aza 3, 1968), 3. orr.

185

Ikutstaldi bat Brusela'ko Unibertsidadean / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 30. urtea, 288. zenb. (ira. 8, 1968), 7. orr.

186

Illargirakoan / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. 30. urtea, 305. zenb. (ilbeltzak 5, 1968), 11. orr.

187

Lokabidez aldatu behar / Txillardegik

In: Tierra Vasca : Eusko Lurra. – Buenos Aires : [s.n]. -- Año 12, n. 143 (mayo 1968)

188

Kardaberatz eta Araba'ren erdalduntzea / Txillardegi

In: Tierra Vasca : Eusko Lurra. – Buenos Aires : [s.n]. -- Año 13 (dic. 1968)

189

Kristau egiazko bat hil dute / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. 30. urtea, 270. zenb. (lorailak 5, 1968), 3. orr.

190

Kronikak : Txekoslovakia, hizkuntzaren pizkundeaz bi hitz / Igara

In: Jakin. – Aranzazu : Editorial Franciscana. – 13. Urtea, 35. zenb. (epaila-mai 1969), 58-65 orr.

191

Milan Kundera eta gu/ Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. 30. urtea, 273. zenb. (lorailak 26, 1968), 3. orr.

192

Nuestra esperanza se refuerza / JI L. Alvarez Emparantza

In: Tierra Vasca : Eusko Lurra. – Buenos Aires : [s.n]. -- Año 12, n. 144 (jun. 1968)

193

Olerkari gazte bat : Xabier Lete / Larresoro

In: Zeruko Argia. – Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. 30. urtea, 290. Zenb. (ira. 22, 1968), 7. orr.

194

Parlamentoak hutsik / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. 30. urtea, 263. zenb. (epailak 17, 1968), 7. orr.

195

Peoien barriak / Larresoro

In: Zeruko Argia. – Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. 30. urtea, 256. zenb. (epailak 28, 1968), 7. orr.

196

“Praga'ko udaberria”bukatu da/ Txillardegi

In: Tierra Vasca : Eusko Lurra. -- Buenos Aires : [s.n]. --Año 13, n. 147 (jun. 1968)

197

Praga'tik Paris'a / Larresoro

In: Zeruko Argia. – Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. 30. urtea, 275. zenb. (garagarrillak 9, 1968), 5. orr.

198

Roger Garaudy Brusela'n / Larresoro

In: Zeruko Argia. – Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. 30. urtea, 299. zenb. (aza, 24, 1968), 3. orr.

199

Sí al frente nacional vasco / J.L. Álvarez Enparantza

In: Branka: euskaldun sozialista aldizkaria. T. II. – San Sebastián : Ediciones Vascas – 9. zenb. (urrilla 1969), 455-462 orr.

200

“*Socialisme et liberté sont inseparables*”/
Txillardegik [sic]
In: Tierra Vasca : Eusko Lurra. -- Buenos
Aires : [s.n].-- (abr. 1968)

201

Telebixtaren eta trenaren mirariak/
Larresoro
In: Zeruko Argia. – Pamplona [etab] : Aita
Kaputxinoak. 30. urtea, 298. zenb. (aza, 17,
1968), 3. orr.

202

*Txaho Zuberotarra eta Lehenengo
Karlitatea : (zenbait izkriburen berri) /*
Igara'k
In: Jakin. – Aranzazu : Editorial
Franciscana. --12.urtea, 33. zenb. (azila-
abe. 1968), 18-22 orr.

1969

203

Abertzaleok bat /Txillardegik
In: Tierra Vasca : Eusko Lurra. -- Buenos
Aires : [s.n].
-- N. 159 (sept-oct.1969), 5. orr.

204

De Gaulle Quimper'en / Larresoro
In: Zeruko Argia. – Pamplona [etab] : Aita
Kaputxinoak.
--31. urtea, 311. zenb. (ots. 16, 1969), 3.
orr.

205

Eddy Merckx eta Sylvere Maes / Larresoro
In: Zeruko Argia. – Pamplona [etab] : Aita
Kaputxinoak. -31. urtea, 336. zenb.
(dagonillak 10, 1969), 3. orr.

206

Elsa Scheelen / J. L. Alvarez Enparantza
“Txillardegik”. -- [1. argitld]. -- [Bilbao] :
Kriselu, L.G. 1969
248 orr. ; 19 cm (Kriselu; 6)
Ondoko lehiaketan saritua: Domingo Agirre
Saria Saria, 1968
L.G. BI. 1098-1969

207

Errazkeria nagusi / Larresoro
In: Zeruko Argia. – Pamplona [etab] : Aita
Kaputxinoak. --31. urtea, 334. zenb. (uzt.
27, 1969), 3. orr.

208

Euskal Herria zutik / Txillardegik
In: Tierra Vasca : Eusko Lurra. – Buenos
Aires : [s.n]. -- Año 14, n. 162 (dic. 1969),
6. orr.

209

Euskal Herria zutik /Txillardegik
In: Tierra Vasca : Eusko Lurra. -- Buenos
Aires : [s.n]. Año 14, n. 160 (oct.-nov.
1969), 6. orr.

210

Euskal jaia Lobaina'n / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. --31. urtea, 319. zenb. (jorraillak 13, 1969), 7. orr.

211

Euskera, hire laguna! Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. --30. urtea, 335. zenb. (dagonillak 9, 1969), 3. orr.

212

Eztabaida zahar bat / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak.-- 31. urtea, 320. zenb. (jorraillak 20, 1969), 3. orr.

213

Gainbehera halere / Txillardegi

In: Tierra Vasca : Eusko Lurra. -- Buenos Aires : [s.n].--N- 154 (abr.1969), 3. orr.

214

Gero eta ziurrago / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak.--31. urtea, 331. zenb. (uzt. 6, 1969), 3. orr.

215

Hutsune larri bat / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 31. urtea, 335, zenb. (dag. 3. 1969), 3. orr.

216

Iparraldea gain behera / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 31. urtea, 345, zenb. (urr. 12. 1969), 3. orr.

217

Isilduko ahal gera? / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 31. urtea, 341, zenb. (ira. 14. 1969), 3. orr.

218

Kontutan hartzekoa / Larresoro

In: Zeruko Argia. --Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 31. urtea, 341, zenb. (ira. 14. 1969), 3. orr.

219

Kosovo'ko albaniar abertzaleak gogortzen ari / Larresoro

In: Zeruko Argia. --Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 31. urtea, 310, zenb. (ots. 9. 1969), 3. orr.

220

Liburu txalogarri bat / Txillardegi

In: Tierra Vasca : Eusko Lurra. -- Buenos Aires : [s.n]. - Año 13, n. 154 (abr. 1969), 6. orr.

221

Morcillo eta Cardonell / Txillardegi

In: Tierra Vasca : Eusko Lurra. -- Buenos Aires : [s.n]. -- N. 153 (marzo 1969), 5. orr.

222

Neurosiak ugaltzen ari / Larresoro

In: Zeruko Argia. --Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 31. urtea, 348, zenb. (aza. 2. 1969), 3. orr.

223

Nork egia? / Larresoro

In: Zeruko Argia. --Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 31. urtea, 351, zenb. (aza. 23. 1969), 3. orr.

224

Noruega'ko "Supermarket" batzuk gainbehera / Larresoro

In: Zeruko Argia. --Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 31. urtea, 332/333. zenb. (uzt. 20, 1969), 4. orr.

225

Quebec'eko kanpotarrak dirala-ta / Larresoro

In: Zeruko Argia. --Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 31. urtea, 346. zenb. (urr. 19, 1969), 3. orr.

226

Quebec'eko literatura-pizkundeaz / Larresoro

In: Zeruko Argia. --Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 31. urtea, 322. zenb. (lorailak 4, 1969), 11. orr.

227

Rikardo Arregui hil da! Txillardegi

In: Tierra Vasca : Eusko Lurra. -- Buenos Aires : [s.n].-- Año 14, n. 158 (ag-sept. 1969), 6. orr.

228

Socialismo y libertad / J.L. Alvarez Enparantza

In: Tierra Vasca : Eusko Lurra. -- Buenos Aires : [s.n].—N. 157 (jul-ag. 1969), 4. orr.

229

Suezia'ko berri / Larresoro

In: Zeruko Argia. --Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. --31. urtea, 323. zenb. (lorailak 11, 1969), 3. orr.

230

Tran Cong-Tuong eta Nguyen Van Tien Brusela'n / Larresoro

In: Zeruko Argia. --Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. --31. urtea, 314. zenb. (epaillak 9, 1969), 5. orr.

231

Txillardegi'ren itzaldia : Paris'ko Euskal Etchea'n, Azaroaren 22gn.

In: Tierra Vasca : Eusko Lurra. -- Buenos Aires : [s.n].-- Año 14, n. 162 (dic. 1969), 6. orr.

232

Txillida : irudigileetan nagusi / Larresoro
In: Zeruko Argia. --Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. --31. urtea, 306. zenb. (ibeltzak 12, 1969), 12. orr.

1970

233

Araba euskaldunak / Larresoro
In: Zeruko Argia. --Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. --31. urtea, 359. zenb. (urt. 18, 1970), 3. orr.

234

Argiako ala ilunago / Larresoro
In: Anaitasuna. – Tolosa [etab] : Kantauriko Frantziskotar Hirugarrendarrak. – 201. zenb. (abe. 15, 1970), 3. orr.

234

Argiako ala ilunago / Larresoro
In: Anaitasuna. -- Tolosa [etab] : Kantauriko Frantziskotar Hirugarrendarrak. -- 201. Zenb. (abe. 15, 1970), 3. orr.

235

Arguedas, Blanco, De la Puente, eta Ketxuataarrak / Larresoro
In: Zeruko Argia. – Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak.--31. Urtea, 379. zenb. (eka. 7, 1970), 3-4 orr.

236

Arragoa/ Txillardegi
In: Tierra Vasca : Eusko Lurra. -- Buenos Aires : [s.n]. Año 15, n. 172 (oct. 1970), 6.orr.

237

Aukeratu egin behar / Larresoro
In: Zeruko Argia. --Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. --31. urtea, 393. zenb. (ira. 13, 1970), 5. orr.

238

“L’Aveu”/Larresoro
In: Zeruko Argia. --Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak.--31. urtea, 380. zenb. (eka. 14, 1970), 5. orr.

239

Batasunerako bidean barrena / Txillardegi
In: Tierra Vasca : Eusko Lurra. -- Buenos Aires : [s.n].-- N. 166 (abr. 1970), 5. orr

240

Bertrand Rusell hil da / Larresoro
In: Zeruko Argia. --Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -31. urtea, 366. zenb. (mar. 8, 1970), 3. orr.

241

Beste pentsatzaile bat P.C. ren etera [sic] / Larresoro
In: Zeruko Argia. --Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. --31. urtea, 363. zenb. (ots. 15, 1970), 3. orr.

242

Bi miloi gorputz / Larresoro

In: Zeruko Argia. --Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. --31. urtea, 363. zenb. (ots. 15, 1970), 3. orr.

243

C.F.T.D. -a aurrera/ Larresoro

In: Zeruko Argia. --Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 31. urtea, 378. zenb. (mai. 31, 1970), 3. orr.

244

Egia garratza begien aurreran / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 31. urtea, 361. zenb. (ots. 1, 1970), 3. orr.

245

Ehun urte / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. --31. urtea, 376. zenb. (mai. 17, 1970), 3. orr.

246

Euskalkietatik euskerara / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. --31. urtea, 375. zenb. (mai. 10, 1970), 3. orr.

247

Euskeraren arazoa beste hizkuntza-pizkundearen argitan: Baionako Euskal Astea (1970) / Txillardegi

In: Branka: euskaldun sozialista aldizkaria. T. II. -- SanSebastián : Ediciones Vascas. -- 12. Zenb. (urr. 1970), 565-576 orr.

248

Gainditu egin behar / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. --31. urtea, 385. zenb. (uzt. 19, 1970), 3. orr.

249

Gizona teoretan eta eginetan / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 31. urtea, 360. zenb. (urt. 25, 1970), 3. orr.

250

"Gran país, difícil país" / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 31. urtea, 398. zenb. (urr. 18, 1970), 6. orr.

251

Le grand toumant du socialisme / Txillardegi

In: Branka: euskaldun sozialista aldizkaria. T. II. -- San Sebastián : Ediciones Vascas. -- 10. zenb. (mai. 1970), 506-513 orr.

252

Guk geure buruaz / Txillardegi

In: Tierra Vasca : Eusko Lurra. -- Buenos Aires : [s.n].-- N. 169 (jul. 1970), 3. orr

253

Kataluñako berri/ Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 31. urtea, 368. zenb. (mar. 22, 1970), 3. orr.

- 254
Lecciones de la catastrofe de Biafra / Usako
In: Branka: euskaldun sozialista aldizkaria.
T. II. – San Sebastián : Ediciones Vascas. --
10. zenb. (mai. 1970), 501-505 orr.
- 255
Leporaino! / Larresoro
In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita
Kaputxinoak. -- 31. urtea, 403. zenb. (aza.
22, 1970), 3. orr.
- 256
Mauriac / Larresoro
In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita
Kaputxinoak. -- 31. urtea, 394. zenb. (urt.
18, 1970), 3. orr.
- 257
Nazio kultura ta hizkuntza arriskuan / Larresoro
In: Anaitasuna. -- Tolosa [etab] :
Kantauriko Frantziskotar Hirugarrendarrak.
– 200. zenb. (hazila 30, 1970), 7. orr.
- 258
“Normalizazioa” aurrera/ Larresoro
In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita
Kaputxinoak. -- 31. urtea, 386. zenb. (uzt.
26, 1970), 5. orr.
- 259
“Occitania libra” / Larresoro
In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita
Kaputxinoak. --
31. urtea, 386. zenb. (uzt. 26, 1970), 5. orr.
- 260
Quebec eta Euzkadi / Txillardegi
In: Tierra Vasca : Eusko Lurra. -- Buenos
Aires : [s.n]. -- N.167 (mayo 1970)
- 261
Saiakera eta hizkuntzen pizkundea / Txillardegik
In: Salvatore Mitxelena. – Oñate : Editorial
Franciscana Aránzazu, L.G. 1979. – 55-
64orr.
- 262
*Soziologia-aste bat Parisen “Etnozidioa
Ameriketan Barrena”/Larresoro*
In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita
Kaputxinoak. -- 31. urtea, 401. zenb. (aza.
8, 1970), 5. orr.
- 263
Sustrai bila : zenbait Euskal korapilo / Larresoro. --
Donostia : [s.n.], 1970
156 orr. ; 18 cm. -- (irakur sail)
L.G. SS. 446-1970
- 264
La tecnocracia imperialista / Usako
In: Tierra Vasca : Eusko Lurra. -- Buenos
Aires : [s.n]. – N .163 (en. 1970), 5. orr.
- 265
Tibet-eko berri / Larresoro
In: Zeruko Argia. – Pamplona [etab] : Aita
Kaputxinoak. –31. urtea, 395. zenb. (ira. 27,
1970), 5. orr.

266

Urre-etzaiak Landan/ Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 31. urtea, 404. zenb. (aza. 29, 1970), 3. orr.

267

Zientzia eta hipotesi/ Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. --31. urtea, 402. zenb. (aza. 15, 1970), 12. orr.

268

Zifra batzuk / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 31. urtea, 405. zenb. (abu. 6, 1970), 3. orr.

269

Zuberoa heriotzaruntz / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak.-- 31. urtea, 392. zenb. (ira. 6, 1970), 3. orr.

270

Zuberoa heriotzaruntz / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 31. urtea, 396. zenb. (urr. 4, 1970), 3. orr.

1971

271

Mundu berdearen gauza harrigarriak / (Th. Van Leeuwen) ;Euskaratzaile, Larresoro. -- Valencia : Mas Ivars, L.G.1971

175 orr. : il. ; 29 cm. --(Gauza harrigarriak; 6) L.G. SS. 56-1971

273

Agindu genuen erantzuna / U.

In : Branka: euskaldun sozialista aldizkaria. T. II. --San Sebastián : Ediciones Vascas. -- 14. Zenb. [1971?], 640-646 orr.

274

Alferrei gutun irekia / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak.-- 32. urtea, 418. zenb. (mar. 7, 1971), 3. orr.

275

Arloteriak eta zitalkeriak / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 32. urtea, 419. zenb. (mar. 14, 1971), 3. orr.

276

Aurrekoetxeari eta Anastasani erantzunez / Larresoro

In : Anaitasuna. -- Tolosa [etab] : Kantauriko Frantziskotar Hirugarrendarrak. -- 218 zenb. (ira. 15, 1971), 8-9 orr.

277

Ba datoz guturrak! Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 32. urtea, 428. zenb. (mai. 16, 1971), 3. orr.

278

Ballymun/ Larresoro

In : Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. 32. urtea, 457. zenb. (abe. 5, 1971), 3. orr.

279

C.G.T. eta C.F.D.T. eztbaidan / Larresoro

In : Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. 32. urtea, 455. zenb. (aza. 28, 1971), 3. orr.

280

“De Santoña a Burgos”... la fundación ETA (1952) /

redactado por Txillardegi

Testu transkribatua

In: Documentos Y. – Donostia : Lur, 1979-1981. –T.1, 21-23

Orr. (1971)

281

“Eibartarra” ri gutun agiria/ Larresoro

In : Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. 32. urtea, 459. zenb. (abe. 19, 1971), 3. orr.

282

Emile Muller-i “ez”erantzun behar / Larresoro

In : Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. 32. urtea, 414. zenb. (ots. 7, 1971), 3. orr.

283

Epinay-en sozialista alderdia berria sortu da / Larresoro

In : Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. --32. urtea, 437. zenb. (uzi. 18, 1971), 3. orr.

284

Erraztu beharra / Larresoro

In : Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 32. urtea, 440. zenb. (abu. 8, 1971), 3. orr.

285

Erroik-eza eta gizon abstraktoa/ Larresoro

In : Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. --32. urtea, 427. zenb. (mai. 9, 1971), 3. orr.

286

Fonfuruak / Larresoro

In : Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 32. urtea, 444. zenb. (ira. 5, 1971), 3. orr.

287

“La frousse du dimache”/ Larresoro

In : Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 32. urtea, 415. zenb. (ots. 14, 1971), 3. orr.

288

Heranegun Malraux, atzo Kennedy/ Larresoro

In : Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 32. urtea, 453. zenb. (aza. 7, 1971), 3. orr.

289

Higuina goruntz / Larresoro

In : Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 32. urtea, 420. zenb. (mar. 21, 1971), 3. orr.

290

Joy Bangla! / Larresoro

In : Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 32. urtea, 433. zenb. (jun. 20, 1971), 3. orr.

291

Kaleidoskopio/ Larresoro

In : Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak.
-- 32. urtea, 448. zenb. (urr. 3, 1971), 3. orr.

292

Kosmoari buruzko azken berriak / Larresoro

In : Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. - 32. urtea, 455. zenb. (aza. 28, 1971), 3. orr.

293

La respuesta que habiamos prometido / U

In: Branka: euskaldun sozialista aldizkaria. T. II. – San Sebastián : Ediciones Vascas. -- 14. Zenb. (urr. 1971?), 659-666 orr.

294

Larresororekin hizketan

In : Anaitasuna. -- Tolosa [etab] : Kantauriko Frantziskotar Hirugarrendarrak. -- 213. zenb. (eka. 15, 1971), 8. orr.

296

Liburu bat Gales-i buruz / Larresoro

In : Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 32. urtea, 452. zenb. (urr. 31, 1971), 3. orr.

297

Termes-eko dorrean pentsakor / Larresoro

In : Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 32. urtea, 440. zenb. (abu. 8, 1971), 3. orr.

298

Monod mintzo/ Larresoro

In : Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 32. urtea, 412. zenb. (urt. 24, 1971), 3. orr.

299

Oraindik ere Einstein harragarri/ Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. --32. urtea, 458. zenb. (abe. 12, 1971), 3. orr.

300

Oraison eta Monod elkarrizketan / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. --32. urtea, 447. zenb. (ira. 26, 1971), 3. orr.

301

Praga-tik Santiago-ra/ Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. --32. urtea, 439. zenb. (abu. 1, 1971), 3. orr.

302

Rolls-Royce / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. --
32. urtea, 422. zenb. (jorraila 4, 1971), 5. orr.

303

Sarrera ederra jaunak!/ Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. --
32. urtea, 460. zenb. (abe. 26, 1971), 3. orr.

304

Ultimas actuaciones del social-imperialismo en Euzkadi / Usako

In: Branka: euskaldun sozialista aldizkaria. T. II. -- San Sebastián : Ediciones Vascas. -- 13. zenb. (1971?), 609-622 orr.

305

Uste baino urutiagotik heldu/ Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. --32. urtea, 445. zenb. (ira. 12, 1971), 3. orr.

306

Yugoslavia Austria-Hungria-ren bidetik? / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. --32. urtea, 438. zenb. (uzt. 25, 1971), 4. orr.

307

Zalantzatan dagoen apaiz horri/ Larresoro

In: Erlioja hauzipean . --[Oñate] : Editorial Franciscana Aranzazu, L.G. 1971. -- 209-215 orr.

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 32. urtea, 450. zenb. (urr. 3, 1971), 3. orr.

308

Zein sozialismo?/ Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. --32. urtea, 421. zenb. (mar. 28, 1971), 3. orr.

1972

309

Zientzien erakaskuntza/ Eskola-Berriko erakasle taldeBaket [sic] : C. Freinet-en zuzendaritzapean prestatua ;

[Larresoro-k euskeratua]. – Donostia : Izarra Irarkola, L.G. 1972

168 orr. ; 18 cm. -- (Irakasleen liburutegia ; 4)

L.G. SS. 595-1972

311

Freinet-teknikak lilitagian / ICEM batzordearen laguntzarekin; Madeleine Porquet-ek prestatua ; [Larresoro-k euskeratua].

-- Donostia : Izarra Irarkola, L.G. 1972

163 orr. ; 18 cm. -- (Irakasleen liburutegia ;3)

L.G. SS. 338-1972

312

Matematika / [textoa, Larresoro; marrazkiak, Adrian Ferreño].-- [Euskal Herria : Fédération des Ikastolas], [1972] (mik.1999)

Libk. : il. ; 30 cm. -- (Gauza harrigarriak)

Edukia: 2. maila – 3. maila -4. maila

313

Pedagogi-ikastaroa/ euskaraz, Larresorok.

– Paris : Rosa Sensat, [1972] (mik. 1999)

159 orr. ; 21 cm

314

Andolin Eguzkitzari erantzunez / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. --33. urtea, 470. zenb. (mar.

5, 1972), 3. orr.

315

Arraza eta etnia / Larresoro

In: Anaitasuna. -- Tolosa [etab] :

Kantauriko Frantziskotar Hirugarrendarrak.

--242. zenb. (urr. 30, 1972), 7, orr.

316

Autojestioa giltzarri / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita

Kaputxinoak. --33. urtea, 465. zenb. (urt.

30, 1972), 3. orr.

317

Bada garaia / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita

Kaputxinoak. --33. urtea, 482. zenb. (mai.

28, 1972), 3. orr.

318

Barkoxetik/ Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita

Kaputxinoak. --33. urtea, 497. zenb. (ira.

10, 1972), 3. orr.

319

Berezko irakurpidea / Larresorok prestatua.

– Donostia :

Izarra Irarkola, L.G. 1972

117 orr. ; 18 cm. -- (Irakasleen Liburutegia ; 2)

L.G. SS. 265-1972

320

Bi jakintsuren aitorrak / Larresoro

In: Anaitasuna. -- Tolosa [etab] :

Kantauriko Frantziskotar Hirugarrendarrak.

--234. zenb. (mai. 15, 1972), 6-7 orr.

321

Bilde bat behar/ Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita

Kaputxinoak. --

32. urtea, 461. zenb. (urt. 2, 1972), 3. orr.

322

Bufaloak eta termitak / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita

Kaputxinoak.-- 33. urtea, 472. zenb. (mar.

19, 1972), 3. orr.

323

Deihadar bat Letoniatik / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita

Kaputxinoak. -- 33. urtea, 476. zenb. (api.

16, 1972), 3. orr.

324

Erakasle bikain bat : Fougeryollas /

Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita

Kaputxinoak.-- 33. urtea, 498. zenb. (ira.

17, 1972), 3. orr.

325

Galdea sakon bat/ Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita

Kaputxinoak. -- 33. urtea, 474. zenb. (api.

2, 1972), 3. orr.

326

Garaudyren "L'arternative": Aitor eta agiri /

Larresoro

In: Anaitasuna. -- Tolosa [etab] :

Kantauriko Frantziskotar Hirugarrendarrak.

--241. zenb. (ira. 30, 1972), 12. orr.

327

Garazi-n gaindi / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita

Kaputxinoak. -- 33. urtea, 494-495. zenb.

(abu. 20-27, 1972), 3. orr.

328

Gogoeta iturri/ Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita

Kaputxinoak. -- 33. urtea, 477. zenb. (api.

23, 1972), 3. orr.

329

Hizkuntza eta pentsakera / Larresoro ;
azala, Remingio Mendiburu. – Bilbao :
Mensajero, L.G. 1972

144 orr. ; 18 cm. -- (Esku- liburuak Etor ;
12)

Azkue Bibliotekaren oharra: Ez du
zerikusirik izenburu bereko

Artikuluarekin (Branka: euskaldun
sozialista aldizkaria. T. I. – San Sebastián ;
Ediciones Vascas. – 1. zenb. (api. 1966),
51-72 orr.) – Zatikako edukia:
Estrukturalismoaz zenbait hitz. – 123-141
orr.

L.G. BI. 235-1972

330

Idahoko euskaldunekin / Larresoro

In: Zeruko Argia. – Pamplona [etab] : Aita
Kaputxinoak. --33. urtea, 487. zenb. (uzt.2
1972). 20. orr

331

I.R.A. bi / Larresoro

In: Zeruko Argia. – Pamplona [etab] : Aita
Kaputxinoak. --
33. urtea, 478. zenb. (api.30, 1972). 3. orr

332

Leakey II, lanean hazi / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita
Kaputxinoak. --33. urtea, 510. zenb.
(api.30, 1972). 3. orr

333

Liburu Irakurgarri bat / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita
Kaputxinoak. --33. urtea, 590. zenb.
(uzt.23, 1972). 7. orr

334

Mitxelenaren idazlan hautatuak / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita
Kaputxinoak. --33. urtea, 484. zenb.
(eka.11, 1972). 7. orr

335

Ondorioak atera nahi ez / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita
Kaputxinoak. --33. urtea, 496. zenb. (ira.3,
1972). 3. orr

336

Ongi-etorria Ozkabarte-ri / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita
Kaputxinoak. --
33. urtea, 512. zenb. (abe.24, 1972). 3. orr

337

Orixe / Txillardegia

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita
Kaputxinoak. --33. urtea, 500. zenb. (urr. 1,
1972). 15-16 orr

338

Oso zaila omen / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita
Kaputxinoak. --33. urtea, 473. zenb. (mar.
26, 1972). 3. orr

339

Tabu eta mitologia/ Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. --33. urtea, 491. zenb. (uzt. 30, 1972). 3. Orr.

340

Txalo jo behar/ Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 33. urtea, 468. zenb. (ots. 20, 1972). 3. orr.

341

Zanzuak gero eta nabarmenago/ Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 33. urtea, 492. zenb. (abu. 6, 1972). 3. orr.

1973

342

Aierbetik Biarnora bi ipartarren ikerketaren argitan /
Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 33. urtea, 531. zenb. (mai. 6, 1973). 3. orr.

343

Aiteder preziatu miretsiak "Harki"en buruzagiari/Larresoro

In: Anaitasuna. -- Tolosa [etab] : Kantauriko.
Frantziskotar Hirugarrendarrak. -- 252. zenb. (mar. 30, 1973). 16. orr.

344

Amilcar Cabrai hil dute / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 33. urtea, 520. zenb. (ots. 18, 1973). 3. orr.

345

Amtigua amets/ Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 33. urtea, 525. zenb. (mai. 18, 1973). 3. Orr

346

Aosta gero eta italiarrago / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 33. urtea, 553. zenb. (urr. 7, 1973). 5. Orr

347

Azterketa bildugarri bat Lapurdiri buruz /
Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 33. urtea, 517. zenb. (urr. 28, 1973). 3. Orr

348

Azurmendi Rikardo mintzo / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 33. urtea, 518. zenb. (ots. 4, 1973). 3. Orr

349

"Begiko"ri erantzunez / Txillardegi

In: Zabal. – Baiona : Association Zabal. --4. zenb.(hazila-abe. 1973), 55-57 orr.

350

Bihotza erdibiturik / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 33. urtea, 552. zenb. (ira. 30, 1973). 3. Orr

351

Bihozkadaz ari / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 33. urtea, 565. zenb. (abe. 30, 1973). 3. orr

352

Depresioen azterketaren ondorioak / Larresoro

In: Anaitasuna. -- Tolosa [etab] : Kantauroko Frantziskotar Hirugarrendarrak. -- 254. zenb. (api. 30, 1973). 16. orr.

353

Euskaldun fededun / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 33. urtea, 516. zenb. (urt. 21, 1973). 3. orr

354

Ezkertarren gorabeherak Frantzian / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 33. urtea, 537. zenb. (eka. 17, 1973). 5. orr

355

Gales-ko zenbakiak argi? / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 33. urtea, 554. zenb. (urr. 14, 1973). 12. orr

356

Galestarrak aurreruntz / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. - 33. urtea, 524. zenb. (mar. 18, 1973). 3. orr

357

Getharian halako batez / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 33. urtea, 552. zenb. (abe. 9, 1973). 3. orr

358

Gorka Knörri erantzunez / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 33. urtea, 548. zenb. (ira. 2, 1973). 5. orr

359

Gudu Saindua berriz / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 33. urtea, 548. zenb. (ira. 2, 1973). 5. orr

360

Guy Heraud Baionan / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 33. urtea, 535. zenb. (eka. 3, 1973). 3. orr

361

Hoge iritis Jainkoaren arazoaz / Larresoro
In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 33. urtea, 556. zenb. (urr. 28, 1973). 3. orr

362

Idaho / Larresoro
In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 33. urtea, 539-540. zenb. (uzt. 1-8, 1973). 3. orr

363

Ikastoletako ultrak / Larresoro
In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 33. urtea, 514. zenb. (urt. 7, 1973). 3. orr

364

Ipar-Irlandaz zenbait berri / Larresoro
In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 33. urtea, 561. zenb. (abe. 2, 1973). 5. orr

365

Jon Mirande aipharsorhoko [sic] / Larresoro
In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 33. urtea, 521. zenb. (ots. 25, 1973). 3. orr

366

Kirtentzulo / Larresoro
In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 33. urtea, 558. zenb. (aza. 11, 1973). 3. orr

367

Kolonialismoaren mugak : usterik gabeko elkarrizketa bat / Larresoro
In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 33. urtea, 555. zenb. (urr. 21, 1973). 5. orr

368

"Larresoro" rekin solasean
In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 33. urtea, 538. zenb. (eka. 24, 1973). 3. orr

369

Levi Strauss gailen / Larresoro
In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 33. urtea, 538. zenb. (eka. 24, 1973). 3. orr

370

Lokamuts / Larresoro
In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 33. urtea, 533. zenb. (mai. 20, 1973). 3. orr

371

Matematika eta erderomanoak / Larresoro
In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 33. urtea, 527. zenb. (api. 8, 1973). 3. orr

372

Norainoko simetria komeni? / Larresoro
In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 33. urtea, 522. zenb. (epaillak 4, 1973). 3. orr

373

Olerki eta ilunpe / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 33. Urtea, 523. zenb. (epaillak 4, 1973). 3. orr

374

Proyecto de manifiesto vasco / Harribizketa. --2éme éd.

-- Ciboure : Hordago, [1973]

70 orr. : il. ; 22 cm

Testuaren azkenean: "NOTA. Los lectores interesados por la "versión vasca" de este libro, pueden pedir EUSKAL AGIRIGAIA que aparece simultaneamente". -- Azkue Bibliotekaren oharra: "Euskal agirigaia" delakoa ez zen argitaratu.

375

Proyecto de manifiesto vasco / Harribizketa'k. -- [1. argitld] . -- Ciboure : Hordago, L.G. 1973

70 orr. ; 22 x 16 cm

Azkue Bibliotekaren oharra: Baita ere argitaratu da ondokoan: Branka. -- San Sebastián : Ediciones Vascas, L.G. 1979. -- T. II, 731-800 orr. . -- Testuaren azkenean: "NOTA. Los lectores interesados por la "versión vasca" de este libro, pueden pedir EUSKAL AGIRIGAIA, que aparece simultaneamente". -- Azkue Bibliotekaren oharra: "Euskal agirigaia" delakoa ez zen argitaratu .

L.G. 2eme semestre 1973

376

"Realpolitik" eta _gorrotza / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 33. urtea, 559. zenb. (eka. 18, 1973). 3. orr

377

Selfride eta Vishnu / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 33. urtea, 559. zenb. (api. 22, 1973). 5. orr.

1974

378

Kolonizatuaren ezaguarria / Albert Memmi ; euskeratzaile,

Larresoro. -- Aranzazu : Ed. Franciscana Aranzazu, 1974 162 orr. ; 19 cm (Jakin ; 13)

L.G. SS. 605-1974

ISBN 84-7240-076-X

379

Absurdistango errepublikaz / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 34. urtea, 586. zenb. (mai. 26, 1974). 3. orr.

380

Aljeria : hogei urte / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 34. urtea, 609. zenb. (urr. 3, 1974). 3. orr.

381

Bourassa Parisen / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 34. urtea, 617. zenb. (abe. 29, 1974). 3. orr.

382

Erriozaz berriro ere / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. --34. urtea, 588. zenb. (abe. 29, 1974). 3. orr.

383

Euskaltzaleei mintzo / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. --34. urtea, 583. zenb. (mai. 5, 1974). 12. orr.

384

Euskara batua : zertan den / Larresoro. --

[1. argitld] . --

Oinati : Ed. Franciscana Aranzazu, 1974

220 orr. ; 19 cm (Jakin; 8)

L.G. SS. 82-1974

ISBN 84-7240-072-7

385

Gregoire eta Guillaume Ephere anaiak hil dira : agur etsia Altzurun / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. --34. urtea, 609. zenb. (urr. 3, 1974). 3. orr.

386

Grezia-ren askatasuna aztergai / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. --34. urtea, 579. zenb. (api. 7, 1974). 5. orr.

387

Laikotasunaren zaila / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. --34. urtea, 600. zenb. (ira. 1, 1974). 3. orr.

388

Lou Prouclam de Siros / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 34. urtea, 580. zenb. (api. 14, 1974). 5. orr.

389

Massada-ren konplejoa / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak.-- 34. urtea, 616. zenb. (abe. 22, 1974). 5. orr.

390

Palestinarrak helburutik hurbilago / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 34. urtea, 591. zenb. (eka. 5, 1974). 3. orr.

391

Rene Lafon hil da : Bilboko euskaltzain eta Tbilssi-ko. "Honoris Causa" irakasle / Larresoro

In: Herria : Journal basque-francais hebdomadaire. --Bayonne : [s.n]. – N. 1231. (mar, 7, 1974), 5. orr.

In: Herria : Journal basque-francais hebdomadaire. --Bayonne : [s.n]. – N. 1232, (mar, 14, 1974), 5. orr.

392

Soljenitsine eta Erostrato / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak.-- 34. urtea, 575. zenb. (mar. 10, 1974). 3. orr.

393

Soljenitsine eta Erostrato / Txillardeg

In: Herria : Journal basque-francais hebdomadaire. --Bayonne : [s.n]. -- N. 1232. (mar, 14, 1974), 5. orr.

394

Txinpantzea : gure anaia bizkia / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 34. urtea, 599. zenb. (abu. 18-25, 1974). 3. orr

395

Urrats handi baten bezperan / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak. -- 34. urtea, 606. zenb. (urr. 13, 1974). 3. orr

396

Zinemaren joera : erotismo eta estetica / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak.-- 34. urtea, 601. zenb. (ira. 8, 1974). 3. Orr.

1975

397

Aberri-Egunaz zer dioten hamar Euskal herri-gizonek / [Txillardeg

In: Hitz. – Bayonne : Association Hitz. – Zenb. Berezia (mar. 1975), 44. orr.

398

Mitxelena eta Larresoro

In: Anaitasuna. -- Tolosa [etab] : Kantauriko Frantziskotar Hirugarrendarrak. – 289. zenb. (urt. 15, 1975), 8-9 orr.

399

Adios a Harribizketa / J.L. Alvarez-Enparantza

In: Enbata : hebdomadaire politique basque. – Bayonne : [s.n]. – N. 378, (4 déc., 1975), [6.] orr.

400

Apaitasuna lekuko / Larresoro

In: Anaitasuna. -- Tolosa [etab] : Kantauriko Frantziskotar Hirugarrendarrak. – 300-301. zenb. (agorrila 15, 1975), 16-17 orr.

401

Sarralzune : ez baitzaitugu ahortzi nahi /
Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak.--34. urtea, 653. zenb. (ira. 14, 1975). [1]. orr.

402

Benveniste ere astuta / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak.-- 34. urtea, 637. zenb. (mai. 18, 1975). 3. orr.

403

Benvingust a Andorra / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak.--34. urtea, 648. zenb. (abu. 3, 1975). 3. orr.

404

Clavel fedearen sukarrak mintzo / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak.--34. urtea, 644-645. zenb. (uzt. 6 eta 13, 1975). 3. orr.

405

Corsica y Euskadi / Harribizketa

In: Enbata : hebdomadaire politique basque. -- Bayonne :[s.n]. -- N. 368, (11 sept., 1975), [6.] orr.

406

En busca de un acuerdo / J.L. Alvarez Enparantza

In: Enbata : hebdomadaire politique basque. -- Bayonne :[s.n]. -- N. 382, (18 déc., 1975), [6.] orr.

In: Enbata : hebdomadaire politique basque. -- Bayonne :[s.n]. -- N. 383, (25 déc., 1975), [6.] orr.

In: Enbata : hebdomadaire politique basque. -- Bayonne :[s.n]. -- N. 384, (1 janv., 1976), [6.] orr.

In: Enbata : hebdomadaire politique basque. -- Bayonne :[s.n]. -- N. 385, (8 janv., 1976), [6.] orr.

In: Enbata : hebdomadaire politique basque. -- Bayonne :[s.n]. -- N. 387, (22 janv., 1975) [i.e. 1976]), [6.] orr.

407

Berriro ere txinpantzeari buruz / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak.-- 35. urtea, 656. zenb. (urr. 5, 1975). 3. orr.

408

Euskal Idazleen Elkarte / Txillardegia, D. Landart

In: Herria : Journal basque-français hebdomadaire. --Bayonne :[s.n]. -- N. 1319, (hazila 20, 1975), 3. orr.

409

Formación y deformación / Harribizketa

In: Enbata : hebdomadaire politique basque. -- Bayonne : [s.n]. -- N. 367, (4 sept., 1975), [6.] orr.

410

Frente abertzale : o Gobierno Vasco /
Harrizketa

In: Enbata : hebdomadaire politique basque.
-- Bayonne : [s.n.]. -- N. 371, (2 oct., 1975),
[6.] orr.

411

Funerales en Zokoa / Harrizketa

In: Enbata : hebdomadaire politique basque.
-- Bayonne : [s.n.]. -- N. 373, (16 oct.,
1975), [6.] orr.

412

Gigantesca manifestación en París /
Harrizketa

In: Enbata : hebdomadaire politique basque.
-- Bayonne : [s.n.]. -- N. 372, (9 oct., 1975),
[6.] orr.

413

"Gizona abere hutsa da" / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita
Kaputxinoak.-- 34. urtea, 652. zenb. (ira. 7,
1975). 3. orr.

414

Hirugarren aldiz atsi beharko? / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita
Kaputxinoak.-- 34. urtea, 643. zenb. (eka.
29, 1975). 5. orr.

415

Idazleen gorabeherak Cyrum-n [sic] /
Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita
Kaputxinoak.--35. urtea, 661-662. zenb.
(aza. 4, 1975). 3. orr.

416

Irlandari ez-ikusia / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita
Kaputxinoak.--35. urtea, 660. zenb. (aza. 4,
1975). 3. orr.

417

Juego sucio y tontez / Harrizketa

In: Enbata : hebdomadaire politique basque.
-- Bayonne : [s.n.]. -- N. 366, (28 aout,
1975), [6.] orr.

418

Liburu irakurgarri bat/ Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita
Kaputxinoak.--35. urtea, 638. zenb. (mai.
25, 1975). 3. orr.

419

Narbaiz Baionan mintzo / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita
Kaputxinoak.--35. urtea, 642. zenb. (eka.
25, 1975). 3. orr.

420

Quienes son los irresponsables /
Harrizketa

In: Enbata : hebdomadaire politique basque.
-- Bayonne : [s.n.]. -- N. 361, (24 juil.,
1975), [6.] orr.

421

Si a la izquierda vasca / Harribizketa

In: Enbata : hebdomadaire politique basque.

-- Bayonne : [s.n]. -- N. 375, (30 oct., 1975), [6.] orr.

422

Si a una izquierda abertzale pluralistas / Harribizketa

In: Enbata : hebdomadaire politique basque.

-- Bayonne : [s.n]. -- N. 378, (20 nov., 1975), [6.] orr.

423

La structuration du champ semantique de la couleur en basque/ Txillardegi

In: Euskera : Euskaltzaindiaren la neta agiriak = trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca = travaux et

actes de l'Académie de la Langue Basque.

-- Bilbao. 20. zenb. (1975), 221-238 orr.

424

La stucturation du champú semantique de la couleur / Txillardegi . -- [Bilbo] : Euskaltzaindia, [1975?] 221-238 orr. ;

22 cm

Ondokoaren separata: Euskera. 20. T. (1975)

425

Zertan ote dira armeniarrek? / Larresoro

In: Zeruko Argia. -- Pamplona [etab] : Aita Kaputxinoak.--34. urtea, 650-651. zenb. (abu. 17-24, 1975). 3. orr.

EXISTENTZIALISMOA

ABBAGNANO, Nicola. *Filosofía de lo posible*/ Fondo de Cultura Económica, México: 1959.

- *Introducción al existencialismo.*/ Fondo de Cultura Económica, México : 1955

ANTONELLI, M.T[et al.]. *El existencialismo : crítica filosófica.* Escelicer, Madrid : 1958.

BLACKHAM, H. J. *Seis pensadores existencialistas : Kierkegaard, Nietzsche, Jaspers, Marcel, Heidegger, Sartre* /Oikos-Tau, Vilassar de Mar, Barcelona : 1979.

BOBBIO, Norberto. *El existencialismo : ensayo de interpretación* / Fondo de Cultura Económica, México : 1949

BRUFAU PRATS, Jaime. *Lineas fundamentales de la ontología y antropología de Jean-Paul Sartre en " L'etre et le néart" : exposición y apreciaciones críticas* / Universidad de Salamanca, Salamanca : 1971.

CASTELLANI, Leonardo. *De Kirkegard a Tomás de Aquino : introducción a la filosofía*/ Guadalupe, Buenos Aires : 1973.

FIGAL, Günter. *Indiferenciación vital y distanciamiento : la actitud hacia sí en relación con Heidegger, Kierkegaard y Hegel* / Biblos, Buenos Aires : 2010.

FOULQUIE, Paul. *El existencialismo* / Oikos-Tau, Vilassar de Mar, Barcelona : 1973.

FONTAN JUBERO, Pedro. *Los existencialismos: claves para su comprensión*/ Ediciones Pedagógicas, Madrid: 1994

GARAUDY, Roger. *Perspectivas del hombre : existencialismo, pensamiento católico, estructuralismo, marxismo* / Fontanella, Barcelona : 1970,

MORENO, César. *Fenomenología y filosofía existencial* . Síntesis, Madrid : 2000

MOUNIER, Emmanuel. *Introducción a los existencialismos*/ Guadarrama, Madrid: 1973. Hemendik aurrera lan hau aipatu behar dudan bakoitzean IAE laburdura erabiliko dut.

PRINI, Prieto. *Historia del existencialismo : de Kierkegaard a hoy.* Herder, Barcelona : 1992.

ROUBICZEK, Paul. *El existencialismo*/ Labor, Barcelona : 1968

SARTRE, Jean-Paul. *Existenzialismoa humanismo bat da* / Kriselu, Donostia : 1988

SIMON, Pierre Henri. *Proceso al hombre*/ Biblioteca de la Universidad Central de Venezuela, Caracas : 1962.

WAHL, Jean. *Historia del existencialismo : discusión y Kafka y Kierkegaard*. La Pléyade, Buenos Aires : 1971.

KIERKEGAARD

EUSKARAZ:

Seduzitzailearen egunkaria / Soren Kierkegaard ; euskaratzailea, Juan Mari Mendizabal. Bilbo : Klasikoak, 1994 In: <http://www.slideshare.net/hausnartzen/kierkegaard-seduzitzailearen-egunkaria>

Diapsalmata / Søren Kierkegaard ; sarrera, Virginia Careaga Guzmán; itzulpena, Juan Mari Mendizabal Sarasua. [Bilbo] : Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen-Zerbitzua, 2007

Limes bilduma ere: <http://www.ehu.es/es/web/euskara/limes8>

Gainontzeko hizkuntzetan argitara eman diren Kierkegaarden lanen zerrenda honako web-orrian topatuko ditut:

<http://www.hiin-enkelte.info/printable/02e5ad996801aea46/index.html>

(2015ko irailaren 30an azkenengo aldiz kontsultatua)

Hona hemen zer jartzen duen web-orrialdeak:

La gran y compleja producción literaria de Kierkegaard se puede dividir en dos: la de comunicación directa, escrita con su propio nombre, y la de comunicación indirecta u obra pseudónima.

En cuanto a la primera, existen en danés los *Søren Kierkegaards Papirer (Papeles de Søren Kierkegaard)*, segunda edición ampliada por Niels Thulstrup en dieciséis tomos (incluidos tres de índice terminológico), Copenhague, Gyldendal, 1968-1978

En italiano se encuentra la parcial pero excelente traducción italiana del *Diario* en doce tomos realizada por C. Fabro, y en español la de M^a Angélica Bosco. Los *Papeles* se estructuran en tres grupos:

Grupo A: Los de carácter autobiográfico, esto es, los *Dagbøger (Diarios)*.

Grupo B: Corresponden a textos no publicados en vida del autor, proyectos...

Grupo C: Comprenden los estudios y lecturas filosófico-teológicas de Kierkegaard.

Del segundo tipo de escritos de Kierkegaard, la obra pseudónima, existe la edición en veinte volúmenes de *Samlede Værker (Obras Completas)* en Gyldendal, de A. B. Drachmann, J. L. Heiberg y H. O. Lange, Copenhague, 1991.

Debo precisar que desde 1997 se está realizando una nueva edición completa de todas los escritos de Kierkegaard (*Søren Kierkegaards Skrifter*), tanto de la obra pseudónima como de la que escribió con su propio nombre junto con los *Papeles*, a la que se le añade una parte muy interesante de comentarios críticos. Esta magna y entera recopilación de la obra de Kierkegaard es llevada a cabo por el *Centro de Investigaciones de Søren Kierkegaard* ([Søren Kierkegaards Forskningscenteret](#)) de la Universidad de Copenhague, cuyo director es N. J. Cappelørn. Hasta ahora (noviembre de 2009) se han editado 47 tomos de los 55 previstos en total.

En línea con este grandioso proyecto danés, se ha iniciado una edición también completa de la obra kierkegaardiana en español con el nombre de *Escritos de Søren Kierkegaard* ([Editorial Trotta](#)), a cargo de Rafael Larrañeta (ya fallecido), Darío González y Begonya Sáez Tajafuerce. Hasta ahora, se han publicado cinco volúmenes: el primero, del año 1997, contiene *De los papeles de alguien que todavía vive* y *Sobre el concepto de ironía*; en el 2001 apareció las *Migajas filosóficas o un poco de filosofía*; en el 2006 primer tomo de *O esto o lo otro* y el segundo en el 2008; en el 2010 ha aparecido el quinto tomo: *Discursos edificantes. Tres discursos para ocasiones supuestas*. A estos hay que añadir la edición de otras obras que no pertenecen al proyecto inicial: *El Instante* (2006), y en el 2007 *Los lirios del campo y las aves del cielo*, así como la reedición de *La enfermedad mortal* (2008) y *Ejercitación del cristianismo* (2009)*

EN ESPAÑOL:

-KIERKEGAARD, S.: *Cartas del noviazgo*. Traducción del francés de Carlos Correas. Buenos Aires, Editorial Siglo Veinte, 1979. También Leviatán, 2005.

-KIERKEGAARD, S.: *Diario íntimo*. Selección y traducción por M^a Angélica Bosco de la versión italiana de C. Fabro en tres tomos de 1948-1951. Barcelona, Planeta, 1993.

-KIERKEGAARD, S.: *Obras y papeles*. Versión castellana inacabada del original danés de Demetrio Gutiérrez Rivero. Madrid, Guadarrama, 1961-1969. 10 volúmenes.

-KIERKEGAARD, S.: *Mi punto de vista*. Traducción de José Miguel Velloso. Madrid, Aguilar, 1988.

KIERKEGAARD, S.: *Migajas filosóficas o un poco de filosofía*. Edición y traducción del danés de Rafael Larrañeta. Madrid, Trotta, 1997.

-KIERKEGAARD, S.: *De los papeles de alguien que todavía vive/Sobre el concepto de ironía*. Traducción del danés de Darío González, y Begonia Sáez Tajafuerce. Madrid, Trotta, 2000.

-KIERKEGAARD, S.: *O lo uno o lo otro. Un fragmento de vida I*. Edición y traducción del danés de Begonia Sáez Tajafuerce y Darío González. Madrid, Trotta, 2006. *O lo uno o lo otro. Un fragmento de vida II*. Edición y traducción del danés de Darío González. Madrid, Trotta, 2007.

-KIERKEGAARD, S.: *Discursos edificantes. Tres discursos para ocasiones supuestas*. Madrid, Trotta, 2010. Escritos. V Bolumen 5. ISBN 978-84-9879.

-KIERKEGAARD, S.: *La enfermedad mortal*. Prólogo y traducción del danés Demetrio Gutiérrez Rivero. Nota preliminar de Óscar Parcero Oubiña. Madrid, Trotta, 2008.

-KIERKEGAARD, S.: *El Instante*. Traducción del danés y presentación de Andrés Roberto Albertsen, en colaboración con María José Binetti, Óscar Alberto Cuervo, Héctor César Fecnoglio, Ana María Fioravanti, Ingrid Marie Glikmann y Pedro Nicolás Gorsd. Madrid, Trotta, 2006.

-KIERKEGAARD, S.: *los lirios del campo y las aves del cielo*. Prólogo y traducción del danés de Demetrio Gutiérrez Rivero. Nota preliminar de Óscar Parcero Oubiña. Madrid, Trotta, 2007.

-KIERKEGAARD, S.: *Las obras del amor*. Salamanca, Sígueme, 2006.-

-KIERKEGAARD, S.: *El concepto de la angustia*. Traducción del danés de Demetrio Gutiérrez Rivero. Madrid, Alianza Editorial, 2007. *El concepto de la angustia*. Introducción de José Luis L. Aranguren, Madrid, Espasa- Calpe, 1979.

-KIERKEGAARD, S.: *Diario de un seductor*. Madrid, Losada, 2006. También en Andrómeda, Buenos Aires, 2004 (traducción de Cristiza Pelizza).

-KIERKEGAARD, S.: *Diario de un seductor/Temor y temblor*. Traducción de D. Gutiérrez Rivero, Madrid, Guadarrama, 1976.

-KIERKEGAARD, S.: *Tratado de la desesperación: La enfermedad mortal por Anticlimacus*. Buenos Aires, Quadrata, 2005.

-KIERKEGAARD, S.: *Antígona*. Versión española de Juan Gil-Albert. México, Editorial Séneca, 2003.

-KIERKEGAARD, S.: *La época presente*. Traducción del danés de Manfred Svensson. Santiago de Chile, Editorial Universitaria, 2001. ISBN 956-11-1583-2.

-KIERKEGAARD, S.: *Estudios estéticos*. Málaga, Ágora, 1998.

-KIERKEGAARD, S.: *El amor y la religión*. Buenos Aires, Santiago Rueda, 1960.

-KIERKEGAARD, S.: *Los Diez Mandamientos*, Buenos Aires, Editorial Leviatán, 2004.

-KIERKEGAARD, S.: *Estética y ética en la formación de la personalidad*. Traducción de Marot Armand, Buenos Aires, Nova, 1959.

-KIERKEGAARD, S.: *Johannes Climacus o el dudar de todas las cosas*. Traducción, notas y estudio preliminar de Patricia Karina Dip. Buenos Aires, Editorial Gorlam, 2007. ISBN 987-22081-7-2.

-KIERKEGAARD, S.: *Poscriptum no científico y definitivo a Migajas filosóficas*. Traducción de la edición inglesa e introducción de Nassim Bravo Jordán. Prólogo de Leticia Valadez Hernández. México, Universidad Iberoamericana, 2009. ISBN 978-607-417-006-1.

-KIERKEGAARD, S.: *Para un examen de sí mismo recomendado a este tiempo*. Madrid, Trotta, 2011. Minima Trotta. ISBN 978-84-9879-208-9.

-[Bibliografía en español de la S.I.E.K.](#) (*Sociedad Iberoamericana de Estudios Kierkegaardianos*)

EN CATALÁN:

-A cargo de Francesc Torralba Roselló:

KIERKEGAARD, S.: *Discursos Cristians*, Enciclopèdia Catalana, 316 pàgs., Barcelona, 1994.

KIERKEGAARD, S.: *Pregàries*, Publicacions Abadia de Montserrat, 113 pàgs., Montserrat, 1996.

-A cargo de Begonya Sàez Tajafuerce:

KIERKEGAARD, S.: *La repetició*. Editor Norbert Bilbeny. Barcelona: Edicions 62, 1992. Colecció Textos Filosòfics, 63

KIERKEGAARD, S.: *Una primera y darrera explicació*. En Enrhaonar. Quaderns de filosofia, nº 29. 1998. Pp. 159-162

EN DANÉS: Como es natural, existen numerosas ediciones de la obra de Kierkegaard. Las más importantes y mejores son las siguientes:

KIERKEGAARD, S.: *Samlede Værker (Obras Completas)*. Editado por A. B. Drachmann, J. L. Heiberg y H. O. Lange. Copenhagen, Gyldendal, 1991. 20 tomos.

-*Søren Kierkegaards Papirer (Papeles de Søren Kierkegaard)*. Segunda edición ampliada por Niels Thulstrup. Tomos I-XVI. Copenhagen, Gyldendal, 1968-1978-*Søren Kierkegaards Skrifter* (hasta octubre de 2009 se han editado 43 de 55 tomos en total). Copenhagen, Gads Forlag, 1997-2009.

EN INGLÉS: Se han traducido todas las obras de Kierkegaard.

-HONG, EDNA H./ HONG, HOWARD VINCENT: *Søren Kierkegaard's Journal and Papers*. Indiana University Press. 1976. ISBN 0253182433.

-*Kierkegaard's Writings*. Edición de Howard V. y Edna H. Hong. Princeton University Press, XXVI tomos.

EN ITALIANO: Destacar especialmente la figura de [Cornelio Fabro](#). Otros nombres importantes son M. Sciacca, G. Modica, E. Rocca y Giuseppe M. Pizzuti ([Director del Centro Italiano di Studi Kierkegaardiani](#))

- KIERKEGAARD, S.: *Diario*. Traducción incompleta del danés al italiano de los *Diarios (Dagbøger; grupo A de los Papeles)* realizada por Cornelio Fabro. Brescia, Morcelliana, 1980-1983 (3ª edición) en XII volúmenes.
- *Opere*, trad. C. Fabro, Sansoni, Firenze, 1988.
- *Il problema della fede. Antología dalle opere a cura di Cornelio Fabro*, La Scuola, Brescia 1978.
- *Gli atti dell'amore*, trad. C. Fabro, 1ª. ed., Rusconi, Milano, 1983.
- Consultar también la revista [Notabene](#) de la [Società Italiana per gli Studi Kierkegaardiani](#)

EN ALEMÁN: Fue al primer idioma al que se vertieron las obras de Kierkegaard. La más recomendable y clásica es la traducción de E. Hirsch:

- Gesammelte Werk*, Düsseldorf-Colonia, Ed. Diederichs Verlag, 1951-1969, I-XXXVII. Remiten al margen a la primera edición danesa de 1901.
- Die Tagebücher*, ed. H. Gerdes, E. Diederichs Verlag, Düsseldorf-Colonia, 1962-1974, 5 vols. Consultar también [aquí](#)

EN FRANCÉS: En España se empezó a leer a Kierkegaard a partir de estas traducciones. Los principales traductores fueron: K. Ferlov, P. H. Tisseau y J. J. Gateau.

- Oeuvres complètes*, ed. P. H. Tisseau, Editions de L'Orante, París, 1966-1986, 20 vols. Remiten al margen a la segunda edición danesa.
- Asimismo, pueden encontrarse publicadas por la editorial Gallimard las obras esenciales de Kierkegaard en versión de F. Prior y M. H. Guignot. El *Journal* (extractos) ocupa cinco vols.
- Consultar también [aquí](#)

Para una amplia consulta bibliográfica internacional: [The Bridge: Shared Library Catalog for Carleton and St. Olaf Colleges](#)

Kierkegaarden pentsamenduaren gaia lantzeko erabili ditudan lanak:

AMOROS, C.: *Soren Kierkegaard o la subjetividad del caballero. Un estudio a la luz de las paradojas del patriarcado*, Barcelona, 1987.

BENSE, M.: *Hegel y Kierkegaard. Una investigación de principios*. México, 1969

BONIFACI, C.F.: *Kierkegaard y el amor*. Barcelona, 1963.

COLLADO, J. A. *Kierkegaard y Unamuno. La existencia religiosa/* Madrid, Gredos, 1962, sarrera, 15-16 orr.

COLLINS, J.: *El pensamiento de Kierkegaard*. México, 1970.

FRANCO BARRIO, Jaime. *Kierkegaard frente al hegelianismo*. Universidad de Valladolid, Valladolid: 1996.

HOLMES HARTSHORE, M. *Kierkegaard, el divino burlador: sobre la naturaleza y el significado de sus obras pseudónima*. Madrid : Cátedra, 1992

ROBERTS, Gemma. *Unamuno, afinidades y coincidencias kierkegaardianas/* Society of Spanish and Spanish-American Studies, Boulder, Colo., U.S.A. : cOP. 1986.

SUANCES MARCOS, M.: *Søren Kierkegaard: vida de un filósofo atormentado*. Madrid, UNED, 1998.

URDANIBIA, Javier (cord.) *Los antihegeliano: Kierkegaard y Schopenhauer*. Anthropos, Barcelona: 1990

UNAMUNO

EUSKARAZ:

Bizitzaren sentimendu tragikoaz. in: www.ehu.es/ehg/klasikoak/jaitsi?id=19&f=doc

GAZTELERAZ:

UNAMUNO, Miguel de. *Obras completas*, Madrid : Turner, [1995-2008]

TOMO I:

Paz en la guerra
Amor y pedagogía
Niebla
Abel Sánchez
La tía Tula

TOMO II:

El espejo de la muerte
Tulio Montalbán y Julio Macedo
Tres novelas ejemplares y un prólogo.
San Manuel Bueno, mártir, y tres historias más.
Cuentos

TOMO III:

La esfinge
La venda
La princesa doña Lambra
La difunta
El pasado que vuelve
Fedra
Soledad
Raquel encadenada
Sombras de sueño
El otro
El hermano Juan, o el mundo es teatro
Medea

TOMO IV:

Poesías
Rosario de sonetos líricos
El Cristo de Velázquez
Rimas de dentro
Teresa
De Fuerteventura a París
Romancero del destierro

TOMO V:

Cancionero
Poesías sueltas
Traducciones

TOMO VI

Paisajes
De mi país
Por tierras de Portugal y de España
Andanzas y visiones españolas

TOMO VII

Paisajes del alma
Nuevo mundo
[Diario íntimo]
Recuerdos de niñez y de mocedad
Sensaciones de Bilbao
Cómo se hace una novela

TOMO VIII

ENSAYOS:

De la enseñanza superior en España.
En torno al casticismo. Cinco Ensayos.
La enseñanza del latín en España.
La regeneración del teatro español.
El caballero de la triste figura. Ensayo iconológico.
Acerca de la reforma de la ortografía castellana.
La vida es sueño. Reflexiones sobre la regeneración de España.
¡Adentro!
La ideocracia.
La Fe.
La dignidad humana.
La crisis del patriotismo.
La juventud “intelectual” española.
Civilización y cultura.

La reforma del castellano. Prólogo de un libro en prensa.
 Sobre la lengua española.
 La educación.
 Maese Pedro. Notas sobre Carlyle.
 Ciudad y campo (de mis impresiones de Madrid).
 La cuestión del vascuence.
 Contra el purismo.
 Viejos y jóvenes prolegómenos.
 El individualismo español. A propósito del libro de Martin A. S. Hume. The spanish people: Their origin, growth and influence, London 1901.
 Sobre el fulanismo.
 Religión y patria.
 La selección de los Fulánez.
 La locura del doctor Montarco.
 Intelectualidad y espiritualidad.
 Almas de jóvenes.
 Sobre la filosofía española (diálogo)
 ¡Plenitud de plenitudes y todo plenitud!
 El prefecto pescador de caña (después de leer a Walton).
 A lo que salga.
 Sobre la soberbia.
 Los naturales y los espirituales.
 Sobre la lectura e interpretación del Quijote.
 ¡Ramplonería!
 Soledad.
 Sobre la erudición y la crítica.
 Poesía y oratoria.
 La crisis actual del patriotismo español.
 Sobre el rango y el mérito. Divagaciones.
 La patria y el ejército.
 ¿Que es verdad?
 Más sobre la crisis del patriotismo.
 El secreto de la vida.
 Sobre la consecuencia, la sinceridad.
 Algunas consideraciones sobre la literatura Hispano-Americana. A propósito de un libro peruano.
 Sobre la europeización (arbitrariedades).
 Sobre la tumba de Costa. A la más clara memoria de un espíritu sincero.

TOMO IX

Ensayos, artículos y conferencias.
 Crítica del problema sobre el origen y prehistoria de la raza vasca
 Mi religión y otros ensayos breves.
 Soliloquios y conversaciones.
 Contra esto y aquello.
 Discursos y conferencias.

TOMO X

Vida de Don Quijote y Sancho
 Del sentimiento trágico de la vida
 La agonía del cristianismo
 Prólogos
 Aforismos y definiciones

Unamunoren pentsamendua lantzerako orduan, bere lanak irakurtzeaz gain, erabili ditugun lanak:

BLANCO AGUINAGA, Carlos. *El Unamuno contemplativo*/ Barcelona : Laia, 1975

CEREZO GALÁN, Pedro. *Las máscaras de lo trágico : filosofía y tragedia en Miguel de Unamuno*/ Madrid : Trotta, 1996

FEDERICI, MARIO. *La imagen del hombre en la poesía de Unamuno*, Madrid, Fragua, 1974

FERNÁNDEZ Y GONZÁLEZ A.R. *Unamuno en su espejo*/ Valencia: Bello, 1975

FERRATER MORA, José. *Unamuno: Bosquejo de una Filosofía*/ Buenos Aires: Losada, 1943

-*Diccionario de Filosofía*/ Buenos Aires: Ed. Sudamericana, 1971, t.I, 1066-68 orr.

FRAILE, G. *Historia de la filosofía española. Desde la Ilustración*/ Madrid: La Ed. Católica (B.A.C.), 1975

GRANJEL, L. *Retrato de Unamuno.*/ Madrid: Guadarrama (1957), 205-206 orr

GUY, ALAIN. *Unamuno et la soif d'éternité*. Editorial: Seghers, Paris (1964)

JONHSON, W.D. , *Vida y ser en el pensamiento de Unamuno*. In: Cuaderno de la Cátedra Miguel de Unamuno, VI, 1955, 33-34 orr.

LAIN ENTRALGO, Pedro. *La generación del 98*/ Madrid: Espasa Calpe, 1975

LOPEZ QUINTÁS, A. *Filosofía española contemporánea*/ Madrid: La Editorial Católica, (B.A.C.) 1970.

MARÍAS, JULIÁN. *Miguel de Unamuno*/ Madrid: Espasa-Calpe S.A, 1943.

-*Antropología Metafísica* In Revista de Occidente, Madrid, 1973

Introducción a la filosofía, Madrid, Revista de Occidente, 1969

-*La "meditatio mortis", tema de nuestro tiempo*. In: revista de Occidente, Oct., 1964

MASINI, F. *L'esistenzialismo spagnolo di Unamuno*. In: Cuaderno de la Cátedra Miguel de Unamuno, VI, 1955.

-*Filosofia della morte in Miguel de Unamuno*. In: Cuaderno de la Cátedra Miguel de Unamuno, VIII, 1958

MAYÀ, J. *La teología de Unamuno*/ Barcelona: Vergara, 1960.

MEYER, Francois. *La ontología de Miguel de Unamuno*/ Madrid: Gredos, 1962

PARIS C. *Unamuno, estructura de su mundo intelectual*/ Barcelona: Península, 1968,

PIÑERA, H. *Unamuno y Ortega y Gasset. Contraste de dos pensadores*/ México: Univ. de Nuevo León, 1965,

PIZÁN, Manuel. *El joven Unamuno, influencia hegeliana y marxista*/ Editorial Ayuso, Madrid: 1970

RIBAS, Pedro. *Para leer a Unamuno*. Alianza Editorial, Madrid: 2002

RUNCINI, R. *Realtà e ideale nel pensiero di Unamuno*. In: Cuaderno de la Cátedra Miguel de Unamuno, VII, 1956, 93 or:

-*Idealità e realtà nel pensiero di Miguel de Unamuno*, tesis, Univ. De Nápoles, 1941.

SERRANO PONCELA, S. *El pensamiento de Unamuno*/ México, Buenos Aires, Fondo de Cultura Económica, 1953

TOMASSO, V. de, *Il pensiero e l'opera di Miguel de Unamuno*, Casa Editrice Licinio Cappelli, Stabilimento Tipografico di Roma, San Casciano, 1967

VAN DER GRIJP, R.M.K., *Ensueños. Un motivo en el pensamiento de Unamuno*. In: Cuaderno de la Cátedra Miguel de Unamuno, XIII, 1963

ZUBIZARRERA, A., *Unamuno en su nivola*, Madrid, Turus, 1960

Cuadernos de la cátedra Miguel de Unamuno

http://campus.usal.es/~revistas_trabajo/index.php/0210-749X/index (Azkenengo aldiz 2015ko irailaren 20an kontsultatua)

BESTELAKOAK

AAVV. *El diario como forma de escritura y pensamiento en el mundo contemporáneo*/ Institución «Fernando el Católico» (C.S.I.C.), Zaragoza: 2011.

AZURMENDI, Joxe. *Filosofiako gida : filosofian aritzeko oinarriak: gida bibliografiko eta metodologikoa* / Bilbo : Udako Euskal Unibertsitatea, 2004

BENEYTO PÉREZ, Juan. *La censura literaria en los primeros años del franquismo. Las normas y los hombres*. Diálogos hispánicos de Amsterdam, nº5, 1987, pp. 169-180

BRADBURY, Malcolm: *El mundo moderno, diez grandes escritores*/ Edhsa, Barcelona 1990

BRANDEN, Nathaniel. *La psicología del amor romántico : ¿qué es el amor? ¿por qué nace? ¿por qué crece? ¿por qué muere?* /Paidós, Barcelona [etc.] : 2000.

CERVANTES SAAVEDRA, Miguel de. *El ingenioso hidalgo Don Quijote de la Mancha*. Barcelona: Optima, 1998,

DUBY, Georges *El amor en la Edad Media y otros ensayos* /Alianza, Madrid : 1990.

GIDDENS, Anthony. *Consecuencias de la modernidad* / Alianza, Madrid : 1993

GUERRERO MUÑOZ, J. *Las grietas de la modernidad* / Universidad Católica de San Antonio, Murcia : 2004

HERRERA GÓMEZ, Coral. *La construcción sociocultural del amor romántico*/ Fundamentos, Madrid : 2010

ILLOUZ, Eva. *El consumo de la utopía romántica : el amor y las contradicciones culturales del capitalismo* /Katz, Madrid : 2009

JIMENEZ, Jon & OLARIAGA, Andoni. *Modernitatearen auziaz*/ Donostia : Jakin, 2009

JIMÉNEZ, Mauro. *Teoría y crítica de la novela existencialista*. Madrid, 2011. Presentada en el Departamento de Lengua Española y Teoría de la Literatura y Literatura Comparada para optar al grado de doctor.

RUBERT DE VENTÓS, Xavier. *Crítica de la modernidad* / Anagrama, Barcelona : 1998.

TAYLOR, Gordon Rattray. *Sex in History*/ Nueva York, Harper Torch-books, 1973

TOURAINÉ, Alain. *Crítica de la modernidad* / Temas de Hoy, Madrid : 1993.

Koltsutatu ditudan web-orrien zerrenda:

<http://www.berria.info/dokumentuak/dokumentua880.pdf>

<http://andima.armiarma.com/eugo/aurki.htm>

http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_content&view=article&id=764&Itemid=445&lang=eu

<http://armiarma.com/emailuak/txillardegi/leku.htm>

<http://es.slideshare.net/hausnartzen/kierkegaard-seduzitzailearen-egunkaria>

[Il protestantesimo svelato nella sua origine, nella sua natura, nei suoi effetti. Español]

http://books.google.es/books?id=8nUNAAAAYAAJ&printsec=frontcover&hl=es&source=gbg_summary_r&cad=0#v=onepage&q&f=false

<http://fondosdigitales.us.es/tesis/tesis/680/la-antropologia-filosofica-de-miguel-de-unamuno/>

<http://www.ehu.eus/ehg/klasikoak/>

http://gredos.usal.es/jspui/bitstream/10366/74355/1/AUSA_Combes_A1.pdf

http://gredos.usal.es/jspui/bitstream/10366/74263/1/AUSA_Sciacca_M10.pdf

<http://search.genieo.com/results.html?v=gim19340001&t=1403&q=Presente+y+ausencia+del+existencialismo+marias&page=1>

<http://www.erabili.eus/lantresnak/hiztegiak/harluxet>

<http://www.biblija.net/biblija.cgi?m=Has+18%2C22-33&id34=1&pos=0&set=21&l=eu>

<http://hemerotecadigital.bne.es/pdf.raw?query=id:0004940416&lang=en&log=00000000-000000-00001/>

<https://es.wikipedia.org/wiki/Socinianismo>

<https://es.wikipedia.org/wiki/Arminianismo>

http://campus.usal.es/~revistas_trabajo/index.php/0210-749X/index

<http://www.basqueliterature.com/basque/historia/hogeimende/poesia>

<http://www.ehu.eus/santamaria/pdf/J1.pdf>

